HIZKUNTZARI ITZULIA 80 HIZKUNTZATAN

Beatriz Fernández Fernández
Jon Ortiz de Urbina



Udako Euskal Unibertsitatea

Hizkuntzari itzulia 80 hizkuntzatan

Beatriz Fernández Fernández
Jon Ortiz de Urbina

Udako **Euskal Unibertsitatea**
Bilbo, 2007

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina

ISBN: 978-84-8438-094-8
Lege-gordailua: BI-2242-07

Inprimategia: CUATROAS, Bilbo
Marrazkiak: Ondarru Otxoantezana
Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org
www.ueu.org

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Jon Otxoantezanari,
inoiz hizkuntzari itzulia egingo diolakoan 80 hizkuntzatan
eta Mikel Larrinagari
itzuli honetan eta gainerakoetan
bidaide izango dugulakoan

Aurkibidea

ESKAINTZA 5

LABURDURAK 9

I. Munduko hizkuntzen bitxikeriak non-nahi daudela, eta nola azaleko aldakortasunak azkengabea dirudien arren, ezkutuko batasunak muga hertsiak ezartzen dituen 13

II. Non batek apustu egin zuen hizkuntza baietz inguratu 80 hizkuntzatan, eta nola behar diren subjektu, osagarri eta aditza hurrenkera jakinean lerratu 37

III. Non hizkuntza akusatiboetako hizkuntzalariek ezusteko hizkuntza ergatiboak aurkitu zituzten 65

IV. Zenbat neke eta sufrimendu pairatzen duten argumentuek zoritxarrez urritzen direnean eta zenbat poz sentitzen duten ugaltzen direnean . . . 97

V. Nola kasuak eta komunztadurak zoriontsu ezkondurik ziruditen, hausturak erakusten hasi ziren arte 141

VI. Mendeko perpausen mendekotasunaz urrikaldu eta hausnartu behar da 171

VII. Non erakusten den zer berri dugun esan baino lehenago, zertaz ari garen adierazi behar dugula 215

VIII. Non hizkuntzari buruzko erakusgarriak biltzen diren askotariko bazter eta eremuetan, eta nola amaieran bidaiariek bidaian irabazitakoaz hausnartzen duten 247

80 hizkuntza (eta gehiago) 277

Aipamenak 281

Aurkibideak 291

Lerroazpiko glosetako laburdurak

Adibideak glosatzeko arloko erabilera jarraituko dugu. Morfema gramatikalak maiuskula txikiz emango ditugu (ondoren zerrendaratzen ditugu darabiltzagun laburdurak). Jatorrizko adibidean morfemak isolatzeko marrak erabiliko ditugu (*ikus-i* formari 'ikusi-PRF' dagokio glosetan). Morfemak zehaztu gabe ematen ditugunean, glosetako itzulpenean puntu batez banatuko ditugu osagai batzuk (*zetorren* formari '3.etorri.IRAG'legokioke eta gaztelaniazko *amaré* formari 'maite.izango.dut'). Betiere, glosak ez zamatzeko, testuaren alderdi horretan garrantzizkoak diren morfemak isolatuko ditugu, beste guztia ahalik eta modurik zuzenenean emanik (gaztelaniazko *vino* forma 'zetorren' adizkiaren bidez eman daiteke itzulpenean eta glosetan ere, 'etorri.3.IRAG' besterik zehaztu gabe).

1, 2, 3	lehenengo, bigarren, hirugarren pertsona (komunztadura)
A	aditza
ABS	absolutiboa (kasua, komunztadura)
ABS_{DAT}	absolutibo komunztadura (datibo argumentuarekin)
ABS_{ERG}	absolutibo komunztadura (ergatibo argumentuarekin)
AD	aurredatiboa
ADJ	adjektiboa
ADL	adlatiboa (*nora*)
Ag	subjektua (aditz iragankorrekoa)
AKUS	akusatiboa
ALO	alokutiboa
AOR	aoristoa
AP	antipasiboa
ART	artikulua
ARZ	arazi, arazpen morfema
AS	aditz sintagma
ASP	aspektua
ATZ	atzizkia
BET	betegarria
BUR	burutua
DAT	datiboa (kasua, komunztadura)
DEST	destinatiboa (*norentzat*)

DET	determinatzailea
DETS	determinatzaile sintagma
DS	denbora sintagma
EF	egile foku egitura
ELAT	elatiboa (*nondik*)
ERG	ergatiboa (kasua, komunztadura)
ERL	erlatibozko egitura
EZ	ezeztapena
FEM	femeninoa
FOK	fokua, galdegaia
FRUST	frustatiboa
GALD	galdera marka
GEN	genitiboa
GER	geroaldia
GIZ	gizakia
HEL	helburuzkoa
INB	inbertsoa
IND	indikatiboa
INES	inesiboa (*non*)
INF	infinitiboa
INFLS	inflexio sintagma
INK	inkoatiboa
INP	inperfektua
INSTR	instrumentala (*zertaz*)
IRAG	iragana
IRG	iragangaitza
IRK	iragankorra
IS	izen sintagma
KL	klitikoa
KLAS	klasifikatzailea
KONPS	konplementatzaile sintagma
LAG	laguntzailea
LOK	lokatiboa
MASK	maskulinoa
MEND	menderagailu
MOD	modalis
NOM	nominatiboa
O	osagarria
OD	onuraduna
OR	orainaldia
PART	partizipioa
PAS	pasiboa

PL	plurala
POT	potentziala
PRED	predikatua
PS	preposizio/postposizio sintagma
S	subjektua (aditz iragangaitzekoa)
SG	singularra
SOZ	soziatiboa (*norekin*)
SUBJ	subjuntiboa
TOP	topikoa, mintzagaia
ZEHK	zeharkako (kasua, nagusienetarikoa ez dena)
ZEH	zehaztua
ZEHG	zehaztugabea

Munduko hizkuntzen bitxikeriak non-nahi daudela, eta nola azaleko aldakortasunak azkengabea dirudien arren, ezkutuko batasunak muga hertsiak ezartzen dituen*

I. kapitulua

Jules Verne-ren *Munduari itzulia 80 egunetan* liburuaren pasarte hunkigarrienetariko batean, aurreko kapitulua *«Bost minutugatik galdu zuen apustua. Hogei mila libera galdu zituen!»* hitzekin amaitu ondoren, Phileas Fogg jauna eta Auda anderea, gauaren ixilean, etorkizunaz hausnartzen hasi eta halaxe esan zioten elkarri:

> Mais comment, monsieur, envisagez-vous donc le sort qui vous attend? –Comme il convient de le faire, répondit Mr. Fogg. –En tout cas, reprit Mrs. Aouda, la misère ne saurait atteindre un homme tel que vous. Vos amis... –Je n'ai point d'amis, madame. –Vos parents... –Je n'ai plus de parents.
>
> *Eta etorkizunean ez al duzu pentsatzen? –Oso gutxi… –Dena dela, zure burua miserian erortzen ezin utziko duzu. Lagunak badituzu… –Nik ez dut lagunik, anderea. –Zure ahaideak… –Ez dut ahaiderik ere..*

Izan, liburuaren hasieran Phileas Fogg-ek diru asko eta mania gehiago zeuzkan. Apustua galdu ondoren, maniak besterik ez zitzaion gelditzen. Elkarrizketan zehar Fogg-ek ez familiarik ez eta lagunik ere ez duela aitortu beharra dauka. Hurrengo pasarteetan, sentimenduak ere badituela konturatuko gara, Audak *emaztetzat hartuko al nauzu?* galdetu, eta berak ere maite duela, gainera inoiz baino gehiago maite ere, erantzuten dionean. Izan, eduki… Hain da garrantzizkoa! Eta hain da garrantzizkoa, izan ere, ezen Phileas Fogg hieratikoa bera ere harrituko zatekeen hizkuntza askotan 'dut/daukat' bezalako aditzik ez dagoela jakin izan balu. Liburu osoan zehar, arrazoia *duela* eta apustua egiteko dirua ere *badaukala* erakutsi nahian dabilenean, halako aditzen gabezia Victoria erreginaren garaiko ingeles

---

* Liburu hau *Unibertsitateko ikasmaterialak sustatzeko IV. poltsei (2005)* esker idatzi dugu. Eskerrak eman nahi dizkiogu UEUri gure egitasmoan bere garaian jarri zuen konfiantzagatik eta orain liburua argitara emateagatik. Bereziki Nekane Intxaurtzari, UEUko Argitalpenen Arduradunari, argitaratze bidean eman digun laguntza guztiagatik eta Ander Altuna UEUko zuzentzaileari, gure testua zuzentzen eta orrazten laguntzeagatik. Eskerrik asko, era berean, Itziar Laka gure adiskide eta lankideari, testua denbora muga estuetan irakurri eta zuzendu duelako batetik eta bestetik egitasmo honen sustatzaile adoretsua izan delako idazten hasi eta amaitu bitartean.

dirudunari bere mundutik kanpoko barbaroen garapenik ezaren beste erakusgarri bat irudituko zitzaiokeen agian.

Guri geuri ere, urrun samar garai viktoriar hartatik, hemen eta egun, euskararen *dut/daukat*, gure bi aditzetarako bat ere ez topatzea, ordainik ez izatea, harrigarria iruditu dakiguke. Hizkuntzen bitxikeria bat ote?

Inolaz ere ez. Gure Euskal Herriko zein Ingalaterrako txokoetatik hizkuntzen mundu zabalera abiatuaz batera, hasieran bitxikeria dirudiena nahiko arrunta —eta, beraz, are harrigarriagoa— suertatzen da. Oraintsu arte elkarren berririk izan ez duten xhosera eta ketxueradun hiztunak, Afrikako hegoaldean batzuk (a) eta Hego Amerikako Ande mendien magaletan besteak (b) bat datoz horretan. Horrek ez du esan nahi jabetza adierazi ezin dezaketenik, baina horretarako, aditz bat erabiltzekotan, *izan* hitzaren kideaz baliatzen dira —bai, hori bera, txikitan *izan* aditza, *eduki* aditzaren beste muturrekoa zela esaten zigutena[1]:

(1) a. Ndi-nécwadí
1SG-SOZ.liburua
'Liburu bat daukat'

b. Libru-y kan
liburu-1SG da
'*Liburu bat daukat'* (lit. '*Nire liburua badago/Bada nire libururik'*)

Lehenengo adibidean, preposizio sintagma bat dugu, *na* preposizio soziatiboarekin (gure *-kin* atzizkiaren antzekoa, hemen *né* modura ageri dena). Hitzez hitzezko itzulpen estu bat ematearren, *liburuarekin* esan eta antzeko zerbait. Aditzik ez dago, baina preposizio sintagmarekin batera lehenengo pertsonako marka bat agertzen da, *ndi*, aditzetan lehenengo pertsonako subjektua markatzeko agertzen denaren antzekoa. Behintzat, ezagun itxura hartu nahi badiogu, bigarren adibidean aditz bat badugu, *kan* 'dago' —egiatan 'da', ingelesez bezala ketxueraz ez baita *izan/egon* aditzen artean desberdintzen—[2], eta haren subjektua 'nire liburua' da. *Libru* izenarekin doan *-y* 'nire' atzizkiak jabea nor den esaten digu, baina hau ez da, euskaraz bezala, subjektua, subjektuaren modifikatzaile bat baizik. Kasuetako batean, beraz, aditzik ere ez dugu *eduki* hori adierazteko, guretzat hain oinarrizko eta garrantzizkoa dena, eta bestean *egon* aditzarekin topo egiten dugu, guretzat harrigarria dena ere.

Izan ere, hizkuntzetan zehar abiatzen garenean jasotzen dugun lehen inpresioetako bat da itxuraz mugarik ez duen aldakortasuna dagoela hizkuntzatik hizkuntzara. Liburu honetan baina, beste zerbait erakutsi nahi diogu irakurleari. Sinetsi zein ez, lehen begiratuan azkenik ez duen aldakortasunak asaldatzen gaituen arren, haren ondoko begiratu pausatuak kontrakoa sentiarazten digula

ikusiko du: zinez, aldakortasuna gorabehera, funtsezko batasunak biltzen dituela munduko hizkuntzak.

Egia esan, ez dugu orain arte ikusitako alderdietatik larregi urrundu behar batasunarekin topo egiteko. Jabetza adierazteko (1) bezalako egiturak, hasieran harrigarriak irudi lezaketenak, guztiz arruntak dira. Hungariera, fijiera[3] eta irlanderaren adibideak dakartzagu hona horren lekuko:

(2) a. Van egy új könyv-em
da bat berri liburu-1SG
'Liburu berri bat daukat' ('Bada nire liburu berri bat')

b. Saa ti'o vei au e dua a pua'a
ASP dago al 1SG 3SG bat ART txerri
'Txerri bat daukat' ('Txerri bat dago nigan(a)')

c. Tá leabhar ag an mbean
da liburu INES ART emakume
'Emakumeak liburua dauka' ('Bada liburu bat emakumearengan')

Aurreko adibide guztietan jabetza gabe, existentzia adierazten duen aditz nagusi bat dugu, *da/dago* adizkien antzeko forma bat. Jabea agerian uzten da, garrantzitsua da hori, baina batzuetan, ketxueraz ikusi dugun bezala, daukagun osagarriari itsatsitako marka baten bidez (a); beste bi adibideetan, aldiz, preposizio sintagma baten bidez adierazten da, adlatiboan (*nora*, *nigana*) fijieraz, eta inesiboan (*non, emakumearengan*) irlanderaz. Eta bat-batean, lehen sumatu ere sumatzen ez genuen existentziaren eta jabetzaren arteko ezusteko ahaidetasuna begietaratzen zaigu. Era batez edo bestez, antzekotasun hori elkarren artean ukipen —eta, zer esanik ez, eragin— linguistikorik ez duten hiztunen ezpainetan antzeman dezakegu. Txinan bageunde, Fogg jauna eta konpainiarekin Japonia aldera nola abiatu erabakitzen, inguruko hiztunek guk bezala *dut* forma badutela ohartuko ginateke (a). Baina, belarria apur bat zorroztuz gero, aditz bera existentzia adierazteko erabiltzen dela konturatuko ginateke (b):

(3) a. 我 有 很 多 中 國 朋 友
wo you hen duo zhong gúo péng you
ni dut? oso asko txina lagun
'Nik baditut lagun txinatar asko'

b. 那 家 書 店 裡 有 很 多 書
nà jia shu diàn li you hen duo shu
hori KLAS liburu denda INES du? oso asko liburu
'Liburudenda horretan liburu asko daude'

Etxean bezala *du*-dun hizkuntza baten aurrean gaudela ikusita lasaitu ederra hartu ondoren, berehala sentituko genuke ezinegona, konturatzean bigarren adibideko aditz horrek badituela guk emango ez genizkiokeen adierak. Orduan, bai, zalantzak: lehenengo adibidean pozarren 'ditut' bezala euskaratu duguna hala itzul al daiteke benetan? Edozein modutan ere, honezkero, aurreko hizkuntzen esperientzia izan ondoren, badugu honelako kasuen berri, eta ezagun antza sumatuko diogu 有 *you* horri, ahoskeran eta idazkeraz ez bada ere, erabileran, bai, behintzat. Eta, hizkuntzari bagagozkio, esperientzia ez da, Oscar Wilde-k esaten zuenaren kontra, gure akatsak eta gaizki eginak izendatzeko modu bat, argibidea baizik.

Ekialdetik etxera bihurtzean begi jantziagoekin eta bestelako argitan ikusiko dugu euskarak berak duen hutsune bitxi bat: *du* formaren partizipioa aipatzerakoan izartxodun **edun* forma ematen dugu hizkuntzalariok. Izar horrek forma hori berreraikia dela adierazten du, existitzekotan horrelakoa izango litzatekeela uste dugula, alegia (hitzak organismo bizidunak baino sinpleagoak direnez, delako **edun* horrek, hala ere, badu dinosauroen edo *homo neanderthalis*en irudiek baino egiantz handiagoa!). Baina euskalki gehienetan ez dugu gaur egun aditz horretarako partizipiorik, eta haren ordez, zer eta *izan* erabiltzen dugu (*izan dut!*). Hutsune bitxia zirudienak munduko beste hizkuntzen albora garamatza[4]. Liburu honetan zehar behin eta berriro konturatuko gara azaleko aldakortasunaren bitxiak sakoneko batasunera garamatzala ezinbestean: hizkuntzak sistematikoki alderatzen hasten garenean berdintasuna nagusitzen da ezberdintasunen gainetik.

****

Adibide pare bat gehiago emango dugu, goikoa kasu isolatua ez dela erakustearren. Goiko adibide sortan (2) badago benetako kointzidentzia bat, gure adibide-hautaketaren ondorioa dena, ez hizkuntzaren inongo ezaugarrirena. Hiru perpausetan aditza lehen-lehenik agertzen da, perpausaren ezkerraldeko muturrean alegia. Horixe da fijiera, irlandera eta beste hizkuntza askoren ohiko hurrenkera —lasai, irakurle, ondorengo 2. kapituluan sakon aztertuko dugu-eta gaia. Euskararen hurrenkera arrunta ez da horrelakoa, baina berez duen malgutasunari esker, erraz eraiki ditzakegu euskaraz ere aditza lehenik duten perpausak. Badago, hala ere, murriztapen interesgarri bat: ezin omen da —edo ezin omen zen, batek badaki— perpausaren hasieran aditz jokaturik kokatu. Horregatik ondoko adibideen artean, (a) nahiko markatua izan arren onargarria da, baina hitz ordena bera duen (b) onartezina da, behintzat hizkera jasoago[5] batean:

(4) a. Esan du Jonek egia
b.*Daki Jonek egia
c. Badaki Jonek egia

Argi eta garbi esan daiteke (b)-ren akatsa *daki* adizki jokatua perpausaren hasierako gunean izatetik datorrela; (a)-n, aldiz, adizki perifrastikoa, hau da, aditz nagusia eta aditz laguntzailea izatean partizipioa dugu lehenengo gune horretan, aditz laguntzailea bigarren gunean agertzen den bitartean. Bitxia badirudi ere, ez da batere kontu arraroa, eta ondoren ikusiko dugunez, badu antzekotasunik bretoierarekin. Bretoieraren kasua oso interesgarria da, beste hizkuntza zelta askotan bezala perpausen oinarrizko hurrenkera Aditza-Subjektua-Osagarria baita. Hasierako aditz hori, baina, ezin da nolanahikoa izan, eta horixe da beheko bi adibideotan erakutsiko duguna. Erreparatu besterik ez dago hasierako aditzaren formari, euskararen datuekin lotzen saiatuz[6]:

(5) a. Lennet en deus Yann al levr
irakurri LAG Jon ART liburu
'Irakurri du Jonek liburua'

b. *Lenn Yann al levr
irakurtzen.du Jon ART liburu
'Irakurtzen du Jonek liburua'

Lennet partizipiozko forma —euskararen *irakurri du* perifrastikoaren *irakurri* aditzaren ordezkoa— onartu egiten da dagoen lekuan, baina ez *lenn* aditz jokatua —balizko **darakur* baten ordaina. Egia esan, (a) dirudien baino bitxixeagoa da, zeren beste egitura batzuetan bretoieraren adizki perifrastikoek ez baitute erakusten partizipio-laguntzaile hurrenkera, euskaraz ohikoa dena, laguntzaile-partizipio hurrenkera baino, gaztelaniarena hain zuzen. Hori ondo ikusten da ondoko adibidean. Bertan, euskarazko itzulpenean bezala, *al levr* 'liburua' osagarria ezkerretara eraman dugu galdegai gisa. Orduan, bat-batean, oinarrizko laguntzaile-partizipio hurrenkera azaleratzen da:

(6) Al levr en deus lennet Yann
liburua LAG irakurri Yann
'Liburua, Yannek irakurri du'

Oinarrizko hurrenkera azken hori bada, zer dela-eta jarri ditugu bi osagaiak alderantziz azkenaurreko adibidean? Zergatik pasatu gara oinarrizko *en deus lennet* horretatik goiko *lennet en deus* hartara? Bada, badirudi partizipioa aurrera mugitu dela laguntzaile jokatua hasierako gunean ez egoteko, hain zuzen. *En deus* 'du' laguntzailea *lenn* '*darakur' hori bezain jokatua da, eta hasierako gunean gelduko balitz, dagokion bezala, (b)-ko *lenn* bezain onartezina izango litzateke. Hasierako gune hori babesik gabeko talaia da forma jokatuetarako, berdin delarik forma perifrastikoetako laguntzaileak edo forma trinkoak diren. Baina, oso bestela, ezer ez da

gertatzen partizipioa hasierako gune hartan pausatzen denean, *en deus* forma jokatuari babesa emanez. Lehenengo leku hori beste osagai batek betetzen duenean, (6)-an bezala, partizipioa bere oinarrizko lekuan gelditzen da, osagai horrek —*al levr*— betez gero, ezin daiteke-eta beste inor jezarleku horretan jezarri. Eta beste horrenbeste esan daiteke *Badaki Jonek egia* perpausean *ba* elementua azaltzean: bere funtzioa forma jokatua lehenengo gunetik babestea da. Baina ez dugu forma perifrastiko batean ikusiko, euskarazko oinarrizko hurrenkera partizipio-laguntzailea izatean, haren beharrik izango ez dugulako.

Azter ditzagun orain fenomeno honen beste adierazpide batzuk, euskararen eta bretoieraren arteko antzekotasun "harrigarriaz" jabetzeko. (a) adibideek erakusten dutenez, "galdegai" bat adizki jokatuaren ezkerretara jarriz gero, ez dago problemarik, baina mintzagaia bada leku berean jartzen duguna, orduan atzera ere problema berarekin topo egiten dugu bai euskaraz bai bretoieraz:

(7) a. Yann lenn al levr
'Jonek irakurtzen du liburua'

b. *Yann, lenn al levr
'Jonek, irakurri egiten du liburua'

(8) a. Jonek daki egia
b.*Jonek, daki egia

Mintzagaiak ez dira, antza, galdegaiak eurak bezain talaiero trebeak! Bai, aldiz, ezeztapena, adizki jokatuaren aurrean agertuz gero, adizkia bera ere ager daiteke-eta:

(9) a. *Ez* daki Jonek egia
b. *Ne* lenn *ket* Yann al levr

Frantseseko *ne...pas* bikotearen antzera, ezeztapena bi elementurekin adierazten da bretoieraz, baina guri dagokigun aldetik nahikoa da konturatzea *ne* lehenengo parteak, adizki jokatuarekin batera azaltzean, aukera ematen diola aditzari lehenik agertzeko.

Elementu guztiek, baina, ez daukate babesteko edo, orain erakutsi berri dugun bezala, forma jokatua "zilegiztatzeko" gaitasuna: euskararen partikula batzuek ez dute murriztapena aldatzen, ez eta bretoieraren beste elementu askok ere. Erraz erakuts daiteke hori bai-ala-ez galderak sortzeko erabiltzen diren partikulekin, alegia, euskalki batzuen *al* eta bretoieraren *ha*:

(10) a.*Al daki Jonek egia?
b. Ba al daki Jonek egia?

(11) a.*Ha a raint soñjal er bleuniou?
al dute pentsatu ART loreez
'Loreez pentsatuko al dute?'

b. Ha soñjal a raint er bleuniou?
'Loreez pentsatuko al dute?'

Euskaraz *al* partikulak ez du *daki* adizkia babesten, eta *ba* erabili behar dugu. Bretoieraz, *ha* partikulak ez du *a raint* laguntzailea hasierako egongunean zilegiztatzen, eta (11b)-n bezala adizki jokatugabea, partizipioa, aurreratu egin behar da, oinarrizko laguntzaile-partizipio hurrenkera aldatuz.

Azkenik, adizki jokatuen murriztapen hau perpaus nagusietan gertatzen da, eta ez mendekoetan. Konpara itzazu *en deus* eta *he deus* laguntzaileek (maskulinoa lehena, femeninoa bigarrena) partizipioarekin erakusten duten hurrenkera ezberdina ondoko perpausetan:

(12) Lavaret en deus [he deus desket he c'hentelioú]
esan LAG LAG ikasi bere ikasgaiak
'Esan du berak bere ikasgaiak ikasi dituela'

Perpaus horretan argi ikusten da perpaus nagusian partizipio-laguntzaile hurrenkera markatua erabili behar dela, aipatutako arrazoiengatik. Aldiz, mendeko perpausean, kortxete artean adierazten dugun horretan, laguntzailea hasieran egon daiteke debekua urratu gabe, oinarrizko ordena zainduz. Euskaraz ere, ondoko adibideak onargarriak dira:

(13) a. [Dakidan] gauza bakarra...
b. Badakit [dakizula]

Lehen perpausean (13a) *dakidan* aditza hasiera-hasieran dago, baina kontuan izan mendeko perpaus bateko aditza dela, erlatibozkoa hain zuzen, eta hasieran agertzeak kasu honetan ez dirudi arazorik dakarrenik. Bigarren perpausean (13b), bestalde, *dakizula* mendeko perpausaren hasieran dago, baina perpaus nagusiko *badakit* aditza darama aurretik, eta horrek bai, *ba* behar du hastapenean.

Azkenik, adibiderik ez eman arren, Rivero-k (1993) aipatzen duenez, bretoieraz aginterazko perpausetan ez dago debeku hau indarrean, eta, jakina, berdin-berdin gertatzen da euskarazko agintera eta subjuntibozkoetan. Ikusi bestela:

(14) a. Demagun egia dela
b. Betor gizona!
c. Dugun edan!

Demagun, *betor* eta *dugun* adizki jokatu leialak dira, baina indikatibo arruntak ez izatean, ez dirudi debekuaren azpian daudenik[7].

****

Azken adibide modura, ustezko "bitxikeria" asko deuseztatzen diren bidaia honetan barrena, argigarria da euskararen aparteko fenomeno bat berriro ere plazaratzea, teknikoki *ergatiboaren lekualdatzea* (ingelesez, *ergative displacement*) deritzona, hau da, aditzen lehen aldian eta modu hipotetikoan batzuetan gertatzen den "markapen-aldaketa". Bosgarren kapituluan itzuliko gara auzi honetara, baina eman diezaiogun orain gainbegirada bat. Aditzaren barruan lehenengo pertsonako izenordaina nola adierazten den ikusten badugu, (e)-ko eredua benetan harrigarria da:

(15) a. nik du -**t**
-1ERG
b. ni **n**-a-u-zu
1ABS-
c. nik z-int-u-**da**-n
-1ERG-
d. ni **n**-ind-u-zu-n
1ABS-
e. nik **n**-u-en
1?-

Lehenengo pertsonako aditz markari begiratzen badiogu hasierako lau adibideetan ohiko eredu argia topatzen dugu: *nik* subjektu iragankorrari *-t/-da-* atzizkia dagokio, *ni* osagarriari —bai eta subjektu iragangaitzari, hemen jasotzen ez dugun arren— *n-* aurrizkia dagokion bitartean. Baina, bat-batean, (e)-ko azken aditz forman lehen aldiko *nik* subjektu bat islatzeko *-t/-da-* atzizkia ikusi beharrean, "arau" guztien kontra, normalean *ni* osagarriarekin lotzen den *n-* aurrizkia aurkitzen dugu: espero ez dugun forma espero ez dugun lekuan, hain zuzen. Hain da hau harrigarria, gainetik analizatuz gero, non batzuetan "begi-bistako akats" hau zuzendu nahi izan den euskalaritzaren historian zehar. Hala, 1933an Euzkeltzale-Bazkunak argitaratutako euskara ikasteko testuliburuan, esate baterako, lehenaldia irakasteko *leudan (leuzuban, leban, leuguban...)* bezalako formak ematen dira. Berehala, *Forma más usual, pero incorrecta* atalean *neban (zeban, eban, geban...)* sartzen da, errealitateari makurturik —ez guztiz, ohar batean aitortzen baita *«Son*

aún más usuales las formas genduban, zenduban... *en vez da las relativamente regulares* geban, zeban». Erraza da iraganeko jarrerak gaur egun jakintzaren gailurrera iritsi izan bagina bezala mespretxuz baztertzea, baina hizkuntzen izaera txukunkeria eta erregulartasunaren izenean irabiatzeko irrikak non-nahi azaltzen dira, baita gurean eta egungo egunean ere. Guri dagokigunez, *nuen/neban* formen apartekotasunaz jabetzearen ondorio zuzena da jarrera hau, edo hizkuntzaren eredu logikotik desbideratzen diren bitxikeriatzat hartzearen ondorioa. Horrelakoak "salbuespenak" izanik ere, bene-benetako formak dira, eta ez diote inongo gramatikariri existitzeko eskubidea eskatu behar. Baina horretaz gain, *nuen* eta antzeko formetara bestelako argitan hurbilduko gara euskara bezalako beste hizkuntza ergatibo batzuetan ere antzeko salbuespenak sarri askotan gertatzen direla konturatzean. *Araua* izateraino heltzen ez badira ere, salbuespenen zakutik atera eta azaldu beharreko fenomenoen zerrendan jasotzeko arrazoiak emango dizkigu hizkuntzarteko alderaketak. Adibide bakar bat emateagatik, begiratu motxoeraren (Smith-Stark, 1978) ondoko adibideei:

(16) a. ii-muq-u-Ø
1ERG-ehortzi-ATZ-3ABS
'ehortzi nuen'

b. x-muq-u-Ø
3 ERG-ehortzi-ATZ-3ABS
'ehortzi zuen'

(17) a. ii-maaq-i
1ERG-igon-ATZ
'igon nintzen'

b. maaq-i-Ø
igon-ATZ-3ABS
'igon zen'

Iraganaldiko perpaus iragankorrak (16) aztertuz gero, subjektuari dagokion marka aurrizki modura agertzen zaigu —*ii-* edo *x-* kasuan-kasuan—, bietan hirugarren pertsonako osagarriarena zero atzizkia den bitartean. Bigarren perpaus multzoko (b) adibidean arakatzen dugunean, hizkuntza ergatiboetako ohiko egitura dela ikusten dugu: subjektu iragangaitzari dagokion marka osagarriaren marka bera da, hirugarren pertsonako zero atzizkia, alegia. Ezer berririk ez orain artekoan. Baina *zaharrak berri,* hirugarren pertsonako iragangaitzez baino ezin dugu esan; subjektu iragangaitzak lehenengo edo bigarren pertsonakoak direnean, (a)-n bezala, beste "salbuespen ilogiko" batekin topo egiten dugu-eta: *ni* subjektuari dagokion marka *ii-* da, hau da, justu aurreko adibide sortan subjektu iragankorrei zegokiena. Eta ez hori bakarrik, subjektu iragankorren forma izateaz gain, beraien leku berean azaltzen da, hau da, ezker aldean aurrizki modura. Euskararen kontrakoa neurri batean, baina gauza berbera beste maila batean: motxoeraz forma iragangaitzek ematen digute ezustekoa; euskaraz, aldiz, forma iragankorrek. Baina bietan lehenengo eta bigarren pertsonako formekin azaleratzen dira arazoak, eta bietan, ondorioz, subjektu iragankorren eta iragangaitzen arteko ezberdintasuna desagertu egiten da: motxoeraren kasuan gelditzen den bakarra ergatiboa da

(*ii-,* horregatik harritzen gaitu forma iragangaitzak), eta euskararenean, absolutiboarena (*n-*, hortik *nuen* eta antzeko forma iragankorrek sorrarazten duten harridura). Izango dugu aurrerago honelako fenomenoen berri emateko astia, bai eta haien azalpen-bidean egin diren urratsak zein diren zehazteko ere. Sarrera honen interesa hizkuntzen arteko kidetasun sakona ohartaraztea besterik ez da, are zehaztasun ezkutuenetan ere. Baliteke hau kointzidentzia izatea. Itziar Lakak (1993), esate baterako, motxoeran eta beste hizkuntza ergatiboetan ikusten diren fenomenoekin zerikusirik ez duen analisi morfologiko erakargarri bat proposatu zuen. Baliteke benetako kointzidentziak ere aurkitzea: kointzidentziarik ez egotea bera, hori bai susmagarria! Eta kointzidentziak ugaltzen hasten direnean ulergarria da susmoak, txarrak edo onak, bururatzen hastea. Azken finean, txinatarren *I Ching* —edo, idazkera gaurkotuagoan, *Yijing*— liburuko jakituriak zioenez, aldatzen ez den bakarra aldatzeko joera da. Antzinako greziarrak ere ados zeuden honetan, nola da posible aldakortasunaren bihotzean horrenbesterainoko batasuna topatzea?

****

Orain arte ikusitakoak irudi lezakeenaren kontra, hastear dagoen bidaia honen helburua ez da hizkuntzari buruzko bitxikeriak eta pasadizuak pilatzea, XVII.-XVIII. mendeetan modan jarri ziren *cabinets de curiosités* direlakoetan bezala, zeinetan fosilak, oskolak, animalia exotikoak, intsektu disekatuak eta denetariko objektu arraroak biltzen zituzten. Baina kabinete ikusgarri haiexetan bezala, irakurlearen hizkuntzarekiko jakin-mina piztu nahi genuke. Direlako *cabinets*etako objektu sorta horietatik museoetarako urratsa egitea erraza izan zen, eta azken horiek erakusleku izatetik ikergune bihurtzeko aurrebaldintza bete zuten. Abiapuntutzat hartuta hizkuntza egituren aniztasun izugarri eta miresgarria, hemen bilduko ditugun datuek, bitxiek zein arruntek, hizkuntzaren egituraketaz erakusten digutena izango dugu aztergai.

Gure *leit-motiv*a *azaleko aniztasuna eta sakoneko batasuna* izango da, orri hauetan zehar behin eta berriro, beharbada irakurlea nekatu arte ere, errepikatuko dugun leloa. Lehenengoaz, aniztasuna oinarritzeko eta aldakortasunaren erakusgarria izateko, *cabinet* hoberenean egoteko moduko datuak emango dizkizugu. Zeren eta hau bitxikerien erakusleiho bat bakarrik ez bada ere, neurri txiki batean hori ere bada. Arrazoia? Hizkuntza hain geurea, hain guztiona eta, era berean, hain norberarena izan arren, hizkuntzalariak aparte, irakurle xeheak ez dituelako hizkuntzarekikoak urrundik ere ezagutzen. Harrigarria da oso hurbiltasunaren eta urruntasunaren arteko harreman hau: hain norberarena baina era berean hain ezezaguna. Dena den, harrigarria izanagatik ere, ulergarria ere bada, kontuan hartzen badugu inguruan eta geure barruan ditugun beste hainbat kontu besterik gabe hartzen ditugula, ezkutatzen dutenaz geure buruari galdetu gabe. Begiez ikusten dugula ere badakigu, jakin, baina gure begiek nola ikusten ote duten hori itzalen iluntasunean dago gehienontzat. Beraz, datuen hasierako begiradak ematea ere gure eginkizunetariko bat izango da.

Baina azken-azken helburua *leit-motiv*aren bigarren erdia dugu, hau da, azalaren azpiko batasuna. Erakusten saiatuko garenez, aldakortasunak badu neurria, eta nahiko neurri motza. Tipologian lanean daudenek aspalditik erakutsi zutenez, hizkuntzek ez dute inolaz ere erakusten litekeen aldakortasunaren eremu oso-osoa. Datuak biltzen hasi orduko, berehala ohartuko gara aldakortasuna nahiko mugatua dela, agian gure hizkuntza gaitasunaren fruituak direlako. Arbola nolako fruituak halako, edo, gaztelaniazko atsotitz hura parafraseatuz, ezin zumarrari madaririk eskatu. Gizakiok itxuraz ere hain gara elkarrengandik ezberdinak non ahaidetasunik gabeko antzekotasunak bitxikeriak baitira. Baina, beste alde batetik, apur bat pentsatzen hasita, gizaki guztiok gara antzeko-antzekoak: simetria-ardatz orokorra, burua goiko partean, sudurpean ahoa, begiak bekainen azpian... Hain begi-bistakoa, non aipagarria ere ez den antzekotasun hau guztia. Eremu honetako aldakortasun gozagarriaren neurria ere nahiko eskasa da ikuspuntu honetatik, besterik gabe gure ondare genetikoak sor ditzakeen egituren mugen barruan eratu behar delako. Beste horrenbeste gertatzen da hemen arakatuko dugun gramatikarekin, hizkuntzalari askoren ustez sustrai genetikoak dituen sistema autonomoa bada behintzat. Horrexegatik dira hizkuntzak garunaz zerbait ikasteko leiho preziatuak. Baina gizaki guztion ondare biologikoa berdina denez, oinarri horri esker egituratu eta itxuraturiko hizkuntzek ere antzeko ezaugarriak izango dituzte. Hiztegia, kulturarekin lotuago dagoena, aldakorragoa izango da denbora eta espazioan, baina gramatikak ezin izango ditu gainditu sistemak ezartzen dizkion aldakortasun-mugak. Horregatik egiten dugu gure bidaia hamaika edo, hobe, laurogei hizkuntzatan zehar, betiere hizkuntzari itzulia egiteko asmoz. Hizkuntza hauen guztien bitxikeriak, ustezko anomalia eta berezitasunak, edo, besterik gabe, aparteko datuak, gure narrazioaren lehen gaia izango dira, baina helburua haragoko hari ezkutuak begietaratzea da. Stephen Jay Gould zenak esan zuenez, edertasuna zehaztasunetan dago, baina mezua orokortasunean datza.

****

Hizkuntzak diruditena baino askoz ere antzekoagoak dira, eta bitxikerietan ere antzeko, goiko adibideen bitartez erakutsi dugun bezala. *Eduki* aditzaren kiderik ez duten hizkuntzen kasu bitxia, baita adizki jokatuak perpausaren hasieran ezin agertzeko debeku moduko hori ere. Ezberdintasunean, beraz, berdintsu, eta batasunean, are berdinago. Hau da, esan dugun moduan, gure bidaian zehar azaleratu nahi dugun batasunaren oinarria. Aldez aurretik irakurleak sumatuko ez lukeen batasunaz jabetzen lagunduko diogu, eta batasun horren zergatia azaltzen saiatzen diren bideetan gidatuko dugu. Xehetasunak ere emango dizkiogu, Gould-ek aipatzen zuen edertasuna bertan baitago, baina funtsezko batasuna lausotu gabe. Pentsa bestela. Hizkuntza guztietan daude izen edo aditz diren hitzak, eta hitzok elkarri lotzeko modua dute hizkuntza guztiek, hau da, hitzak josi eta osagai handiagoak, sintagmak adibidez, egiteko baliabideak; hizkuntza guztietan, badira

ezezko perpausak edota galderak, baita berauek sortzeko mekanismoak ere; hizkuntza guztietan bereizi egiten dira subjektua eta osagarria… Hizkuntza guzti-guztietan. Berdinean ezin berdinago. Hizkuntza guztietan, hizkuntza. Horixe da gakoa. Hizkuntza guztiak berdinak dira hizkuntza bat beraren hamaika aurpegi baino ez dira-eta. Gaitasun beraren askotariko agerpideak. Sei bat mila hizkuntza munduan, hainbat, den-denak, alabaina, hizkuntza gaitasun bakarraren askotariko irudiak.

"Nolatan hori?" esango duzu. Bada, itxuraz, gaitasun bat-bera dugulako hiztun guztiok jaiotzez. Hizkuntza gaitasun horretan —beste kontu askotan ez bezala— berdin-berdinak gara gizaki guztiok. Jaiotzezko gaitasun hori unibertsala da, noski: Fogg-ek zeharkatzen dituen herrialde guztietatik, batean ere ez du aurkituko hizkuntzarik gabeko lagunik ezta hizkuntzarik gabeko herririk ere. Hizkuntza itxuraz arras diferenteetako hiztunak, hori bai, hizkuntza askotako hiztunak, ere bai, baina hizkuntzarik gabeko hiztunik ez —alde batera utzita, jakina, gaisotasunak bitarteko, hizkuntza *galdu* egin duten hiztunak. Hizkuntzak non-nahi, hizkuntzak denongan.

Jo dezagun, bada, hizkuntzen izatea jaiotzezko gaitasunari zor diogula, herentzia genetikoari esker jaso dugun gaitasunari. "Bada, zergatik ez gara, orduan, hizkuntza bakarreko hiztunak?" galdetuko duzu, irakurle, eta ondo galdetu ere. Izan ere, ez dirudi nahikoa zaigunik jaiotzez dakargun gaitasun soilarekin, gaitasun hori nolabait itxuratzen ez bada. Eta gaitasuna itxuratzeko beste biderik ez dago, inguru linguistiko batean, han-hemenka, gure ama-hizkuntzarekin edo inguruko beste hizkuntzekin harremana izatea baino. Hau da, gaitasuna izanik ere, *kilikatu* egin behar da, nolabait eragin, piztu eta garatu dadin. Horretarako, jakina, haurrari ezinbestekoa zaio hizkuntza jakin bateko hiztunekin harreman linguistikoak izatea. Soinuak aditu behar ditu, hitzak, esaldiak… Amak belarrira goxo nola xuxurlatzen dion aditu behar du; aitari hitzekin jolasean entzun behar dio altzoan duela; garrasi —linguistiko— artean, irrintzika ia anai-arreba nagusiei; amak beste amari errieta egiten entzun behar dio, edo aitaren ateraldiak aditu behar ditu, beste aita barrez lehertzen den bitartean; aititaren mar-mar etengabea, amamaren esamesa jostagarriak; irratiko esatarien berbaldi nekaezina... Hitzen unibertsoan murgildu behar du umeak gaitasuna garatzeko. Eta harrigarria bada ere, ez dirudi asko-asko direnik ingurutik jaso beharreko datu linguistikoak hizkuntza gorpuzteko. Pospoloari eragin baino ez eta piztu egingo da.

Pentsa, haur guztiak jabetzen dira hizkuntzaz garai bertsuan, jabekuntza-aroak ere berberak dira hizkuntza edozein izanda ere, eta hain da diferentea umetik umera dagoen esperientzia linguistikoa. Imajina, Mendebaldeko Sierra Madreko haur huitxolak eta Algortako haur euskaldunak zer zerikusi linguistiko dute? Ezin diferenteagoa inguruko esperientzia, ezin diferenteagoa esperientzia linguistikoa. Ez dago, nolanahi ere, mutur batetik bestera ibili beharrik umeen esperientzia diferenteez konturatzeko. Pentsa ezazu Euskal Herriko bazter batetik bestera dagoen

aldeaz, eta bazter berean, umetik umera inguruan dauden diferentzia linguistiko ikaragarriez. Esperientzia ez da inondik inora bera. Umeak ez du gauza bera aditzen ez modu berean esanda, hiztun guztiok baditugu-eta hizketan berezkoak zaizkigun ezaugarriak, hizkuntza bereko hiztunak izanda ere. Esperientziak horrenbesteraino eragingo balu, orduan, oso nekez azal liteke ume guztiak berdintsu, bateratsu, garai berean eta aro berberetan jabetzea hizkuntzaz, lehentxeago, beranduxeago, baina azkenean denak berdin.

Arazoari begiratu dioten adituek aho batez diote, gainera, datu urri, eskas eta akastunak jasotzen dituela umeak. Ez genituzke gauzak honetan azken muturreraino eraman nahi. Denetarik aditzen du zuzen eta oker. Hala da, baina imajina neurri handi batean nola hitz egiten dugun. Hitz egiteko unean, gure sortzezko gaitasuna, oso denbora gutxian, gure ama-hizkuntza bihurtzen den gaitasun hori ez da puzzleko zati bat baino, gaitasunaz gain, badira-eta jardun linguistikoan eragiten duten bestelako aldagaiak: norbera nor den, gazte ala zahar, esaterako, hemengo ala hango, mutil ala neska, nola sentitzen ote den, nekatu samar dagoen ala dutxatu berri, fresko-fresko, norekin dabilen hizketan, adin bereko norbaitekin, bera baino edadetuagoa den norbaitekin… Horrek guztiak eragiten du hiztun baten hitz egiteko moduan, alegia, *ariketan,* hizkuntzalariok esan ohi dugun bezala. Bada, umeak bere jaiotzezko gaitasunari eragiteko eskura dauzkan datuak beste hiztunen ariketatik jasotzen ditu, jakina. Mintzatzen entzuten die ingurukoei, horixe gakoa. Askotariko datuak jasotzen ditu, hiztun bi ere ez daude-eta berdin hitz egiten dutenik. Datuak akastun batzuetan, beste batzuetan osagabe. Akastun, hizketan gaudela, sarri egiten ditugu-eta akatsak, memoriak kale egiten digunean, esaldiak amaitu gabe uzten ditugu, eta esaldiari buztana ipini gabe, hurrengo esaldiaren burua itxuratzen hasten gara. *Lapsus linguae*ak ere hor dira, batek badaki zergatik bat-batean sortzen ditugun erratuak. Eta zenbat bider ez ote gara zerbait esaten hasi eta beste zerbait esatea okurritu, eta hara non utzi dugun erdipurdi esanda, hasieran adierazi beharrekoa. Estrategia-aldaketak ere itxuraz nahikoa esaldi ganorabakoak egitera eramaten gaitu sarri. Bada, anabasa horrengatik ere, umea gai da hizkuntzaz bere osoan jabetzeko. Berdin dio, antza, besteen ariketa zoroak: bereari eutsi eta denbora gutxian makineria linguistiko sofistikatu eta bikainaz jabetuko da haurra. Pentsamendu konplexuko edadetuagoek urte askotan zehar nekez lor dezaketena, hizkuntzaz jabetzea, umeek ezin hobeto egiten dute esfortzurik gabe... ia beste ezer egiteko gai ez direnean! *Platonen arazoa* deritzo horri: «Nola liteke, bada, gizakiak horren jakintsu izatea —miraria dirudiena bestalde— munduarekin dituzten loturak horren labur, pertsonal eta mugatuak badira?». Chomsky pentsalari ezagunak dio korapiloa askatzeko modua dela pentsatzea «gure jakintza eta ulermenaren alderdi batzuk jaiotzezkoak direla, genetikoki ezarrita dakargun herentzia biologikoaren zati bat direla, gure izaera arruntaren elementuak bezalaxe, besoak eta hankak hazarazten dituztenak, hegalak hazarazi beharrean»[8].

Pentsa dezagun orain berriro nola jabetzen den umea ama-hizkuntzaz. Umeak konturatu gabe eta, noski, irakaspenik gabe garatzen du hizkuntza. Gorago aipatu dugu zein arin burutzen duen jabekuntza-prozesua. Itxuraz, gutxi gorabehera lau bat urte betetzen dituenerako, umeak badu bere hizkuntzaren oinarrizko jakintza, eta hortik aurrera, muineko jakintza horri gaineratzen zaizkion alderdi periferikoak baino ez ditu garatzen. Dena den, ez dirudi gaitasun linguistikoa loratzeko horrenbeste itxaron behar denik. Pinker-ek (1994) dioenez, «hiru urteko umea, jeinu linguistiko bat da, egitura gehienak menderatzen ditu, arauak bete egiten ditu urratu beharrean, hizkuntzaren unibertsalak errespetatzen ditu, erratu asko eragozten ditu, eta erratuok egiten dituenean, nagusien hizkuntzaren logikaren arabera egiten ditu. Nola lortzen du hori guztia?». Eta segidan erantzuna: «Arrazoizkoa dirudi pentsatzeak gramatikaren oinarrizko antolakuntza umearen garunean adierazirik dagoela eta bere zeregina dela nagusiki ingelesaren, kivunjoeraren edo ainueraren xehetasunak eraikitzea». Hala dirudi, bai, itxura batean hizkuntza bezalako sistema konplexu eta sofistikatuaren jabekuntzak jaiotzezko jakintza moduko bat eskatzen du, edo nahiago bada, jakintzaren alderdi batzuk, bederen, sortzezkoak izatea eskatzen du, eta alderdi horiek unibertsalak dira eta gizakiarenak baino ez. Ez dugu uste inork ukatuko duenik jakintza honen unibertsaltasuna, gizakia gizaki den aldetik, hizkuntza baten ala bestearen jabe da-eta. Gizakiarena baino ez izatea beste upel bateko sagardoa da, baina badirudi nekez aurki daitezkeela animalien erresuman giza hizkuntzak dituen ezaugarriak biltzen dituen beste jakintza sistemarik.

Ez dirudi, ez, hizkuntzaren alderdi batzuk ikasi egiten ditugunik. Badago Chomsky-ren adibide klasiko bat[9], gaztelaniaz emango dizueguna. Jo dezagun badugula *El unicornio está en el jardin* 'Unikornioa baratzean dago' baiezko perpausa. Galde perpausik egin nahi izanez gero, nahikoa zaigu *está* aditza hartu eta perpausaren hasierara mugitzea: *¿Está el unicornio en el jardin?* 'Unikornioa baratzean al dago?'. Ikus dezagun orain perpaus konplexuago bat: *El unicornio que está comiendo flores está en el jardin* 'Loreak jaten ari den unikornioa baratzean dago'. Oraingo honetan, bi aditz ditugu, biak *está*. Kontua da ea bietatik zein ote den perpaus hasierara mugitu behar duguna. Mugi dezagun lehena: **¿Está el unicornio que comiendo flores está en el jardin?* Ez, ez, perpaus ez-gramatikala litzateke orduan. Hortaz, ez dirudi bietatik edozein aukera daitekeenik. Itxuraz, bietatik aditz nagusia da hautatu beharrekoa, ez bestea. Hala, bigarren *está* mugi dezagun, eta orduan, bai, gramatikala izango da perpausa: *¿Está el unicornio que está comiendo flores en el jardin?* Adibideak erakutsi nahi du gauza batzuk nekez ikas daitezkeela. Umeak ez du bere eskura inongo daturik jakiteko zein ote den galde perpaus onargarria eta zein ez. Alegia, ez du *ezezko ebidentziarik* jakiteko zergatik ote den perpaus bat onargaitza. Ezezkoa diogunean esan nahi duguna da umeak ustez ondo eraikita dagoena entzuten duela, edo hobe esanda, ondo eraikita ez dagoen gauza asko eta asko ez dituela aditzen. Badirudi, beraz, galde perpausak eraikitzea eta eraikitzeko darabiltzagun mekanismoak, osagai batzuk tokiz mugitzen uzten digutenak, estrategia unibertsalak direla.

Horrek neurri batean, *estimuluen urritasun*era garamatza atzera ere, eta horrek azal dezake, neurri batean, zergatik diren mekanismo batzuk unibertsalak. Umeak ez du baiezko ebidentziarik baino, hau da, nekez aurkituko du eguneroko jardun linguistikoan, izartxoaz markatutako perpaus horren modukorik. Hau gogoan badugu, ez zaigu horren arrotz egingo sortzezkotasunaren hipotesia.

****

Hizkuntzalariok geure buruari egiten diogun lehen galdera da ea zer ote den jakintza linguistikoa, edo nahiago bada, zer den hiztun batek dakiena, alegia, zer ote dakien euskaldun batek, zer bretoieradunak edota txineradunak. Horixe lehen galdera. Eta galdera horri erantzuten saiatzen gara hizkuntzalariok. Noski, hizkuntzaren jakintzaz kezkaturik dauden hizkuntzalariek hiztunak gogoan edo garunean iltzaturik duen gaitasunari buruzko jakin-mina daukate, eta horrek hizkuntzaren oso definizio jakinera daramatza. Badakigu, ondo jakin ere, hizkuntzari behatzeko modu bat bakarra ez dagoena, bat baino gehiago baizik. Guk hiztunaren garuneko jakintza sistema zein ote den jakin nahi izateak ez du esan nahi beste hizkuntzalari batzuen kezka hori bera denik, alde askotatik begira baitakioke hizkuntzari. Gure begiratuaren oinarria ulertzeko, komeni da bereiztea *kanpo hizkuntza* eta *barne hizkuntza,* eta hizkuntzalariek bereizi izan dituzte biak urteotan, ustez gauza bera denari oso ezberdinak diren ikuspuntuetatik begira dakiokeela erakutsiz. Esate batera, jo dezagun norbaitek euskara zer den galdetzen digula. Euskaraz esan den guztia, auzokoak goizean esan diguna lanera bidean lehiotik; ikastolako atean, gurasoren batek ahopeka aitortu diguna umeak aditu ez dezan; *Gure irratia* irratiko esatariari autoan goazela azkenengoz entzun geniona; Bernard Etxeparek aspaldi utzi zizkigun *Jalgi hadi plazara* haren osteko ahapaldiak, edo Jose Mari Pastor-ek *Berria*ko nazioarteko analisian idatzitako pasarte gogoangarriren bat. Hori guztia euskara da, gure hizkuntza, bai, baina kanpo hizkuntza. Besterik da, Patxi Goenagaren *Gramatika bideetan* klasikoan ikasi genuen euskara hura. Hura euskara al zen galdetzen genion gure buruari. Gramatika Sortzailearen hastapenak euskalaritzara ekarri zituen lana, gure gazte-garaiko *doktrina* hura. Bertan euskara AS → IS A bezalako gailuez egina zela zioskun Goenagak —ez diogu irakurleari oraindik argituko gailuaren xarma ezkutua, helduko gara beranduago horretara. Euskara, beste gauza askoren artean, AS → IS A bezalakoxea zela. Horrek zer zerikusi du Atxagaren ostrukaren lezioarekin? Euskara al da hori? Bada, bai, euskara da, ez kanpo hizkuntza ez kanpo euskara; bai, ordea, barne hizkuntza, bai barne euskara. Liburu hau artesauen antzera idazten dugun bi hizkuntzalariok Goenagak aspalditxo irakatsi zizkigun AS → IS A bezalako gailuen hizkuntza aztertzen dugu, barne hizkuntza alegia, kanpo hizkuntzari behatzen dioten hizkuntzalariek oso bestelako bideak urratzen dituzten arren.

Baker-ek (2001) metafora gastronomiko goxo batez egiten du barne hizkuntzaren eta kanpo hizkuntzaren arteko bereizketa, eta gu hizkuntzazale bezain

mokaduzale garenez, hona dakarkiogu gure irakurleari. Nolanahi ere, gonbita ere egiten diogu, Baker-en metafora bere plateretik dastatzera. Bitartean, hona hemen, metafora bakertarrari sukaldari biok gaineratu dizkiogun ñabardura gutarrekin batera.

Baker-ek dio sukaldari aparta dela bere emaztea. Sarri lagunartea bildu eta eurenera joaten dira bazkaltzera. Sukaldariak, Linda izena duenak, ogi bereziki goxoa egiten du, eta sarri gonbidatutakoak mahaiaren inguruan jandakoarekin nahikoa ez, eta ogi eskean joaten zaizkio Lindari agurra baino lehen. Ogia eskatzerakoan, Lindak mahai gaineko otar txikian oraindik ere bildurik dauden ogi-koskorrak jaso, paperean bildu eta gonbidatu gutiziatsuei ematen dizkie. Lindak orduan *ogi laginez* erantzuten dio eskaerari. Eskean datozkion gonbidatu petralak, baina, bat baino gehiago dira, eta Lindak otar txikiari atzera ere erreparatu dionean konturatu da ezer gutxi edo ezer eza dela otar txikiko karratuzko oihal zuri-gorriaren gainean: ogi apurrak baino ez. Nola ase orduan gonbidatuaren gutizia? Bada, Lindak, laginik gabe ere, sukaldeko tiraderatik boligrafoa eta papera hartu, eta hara non hasi den idazten —*osagaiak: legamia, irina, ura…*— eta osagai horiekin ogia egiteko argibideak ematen —*lehenengo eta behin, bota legamia irinari...* Lindak bigarren gonbidatuari ez dio ogi-koskorrik eman, lagina alegia, ezpada, *errezeta.* Lehenari ogia eman dio, eta bigarrenari? Bada, bigarrenari ere bai. Lehenak lagina darama; bigarrenak, berriz, errezeta. Urliak esango du *errezeta ez da ogia. Ogia ez dela diozu?* Berendiak erantzun, *ogi-koskorrak amaitutakoan ikusi duzu zer den eta zer ez den ogia.*

Bada, metaforak ezin hobeto azaltzen ditu barne hizkuntzaren eta kanpo hizkuntzaren arteko ezberdintasunak. Badira laginekin lan egiten duten hizkuntzalariak —ogi-koskorrak etxera daramatenak—; badira, oso bestela, errezetekin lan egiten duten hizkuntzalariak —etxera bidean paper zatia bi tolesduretatik askatu eta osagaien zerrenda eta osagaiak nola nahasi irakurtzen dutenak. Gu gara, hizkuntzalarien artean errezeta nahiago dugunok, euskararen errezeta asmatzen saiatzen garenok. Badira, jakina, ogi-koskorrak nahiago dituztenak, eta gu geu ere, errezeta asmatzaileok, euskalari gutiziatsu garenez, hizkuntza laginak oso gertutik begiratu, usaindu eta dastatzea gustatzen zaigu, azken-azkenean errezetari ekiten diogun arren.

****

Barne hizkuntza dugu, beraz, aztergai, eta galderetan lehena, zer ote den barne hizkuntza hori. Gu bezalako gramatikariok, hizkuntza gaietan sukaldaritza-kontuetan bezain gutiziatsu edo are gutiziatsuagoak garenez, ez dugu nahikoa *zer* galdera hutsarekin —*hutsa,* diogu, galderaren erantzuna ahuntzaren gauerdiko eztula ez den arren, gure aspaldiko lagun batek esango lukeen bezala—, eta galderak egiten jarraitzen dugu. Galdera horietan bigarrena da ea nola ote garen euskaldun. Nola heldu ote den euskalduna euskaldun izatera, edo nahi baduzue,

nola jabetu ote den euskalduna bere jakintza sistemaz. Nola, nola? —hor euskalduna diogun lekuan, gaztelaniadun, kashubieradun, inuiteradun, eta gutxienez 6.000ra arteko x-dunetarik edozein aipa genezake. Eta nola galdetzerakoan, euskaldun izatetik gizaki izatera salto egin beharko genuke, euskaldun, kashubieradun edo x-dun egiten gaituena, euskaldun peto-petoak mesfidantzaz begiratuko digun arren, ez da-eta horrenbeste euskara bera, edo kashubiera edo x hizkuntza, gizaki garen aldetik jaiotzez dugun gaitasun unibertsala baino. Paradoxa bat dirudi, ezta? Agian bai. Kendu iezaiozu euskaldunari berezko gaitasuna eta ez duzu euskaldunik izango. Hori bai, emaiozu euskaldunari sortzezko gaitasuna eta euskararik gabe ingurukoen ezpainetan, orduan ere, euskaldunik ez. Nolanahi ere, paradoxaren bi alderdiak batera daitezke: arestian esan dugun bezala, jaiotzezko gaitasuna ez da ezer harik eta umea amaren tititik eta ingurukoen ezpainetatik euskaraz elikatzen hasten ez den arte.

Ez dira hauexek galdera bakarrak. Nahi baduzue, gramatikarion zereginari begira garrantzizkoenak, bai, baina ez, edozein modutan ere bakarrak. Hizkuntzalariok ere jakin nahi dugu-eta ea nola erabiltzen ote den jakintza sistema hori hizketan, edo, nahi baduzue, baita idazketan ere.

Galderak, beraz, asko dira eta askotarikoak, eta halakoxe galderak egiterakoan, zientziaren beste edozein eremutan bezala, gaitasun linguistikoaren nondik norakoak aztertzen ditugunok, hipotesiak egiten ditugu jakintza sistemaren izaeraz, eta hipotesi sortak osatzen ditugu, sortarik sorta, teoria osoa eraikitzeko. Teoria oso horri *gramatika* deitu ohi zaio, eta horregatik gara gu hizkuntzalarien artean *gramatikariak,* gaitasunaren gaineko teoriaren ardura hartu dugulako gure gain. Hizkuntzalaritzan, noski, dena ez da gramatika eta ez du zertan izanik —bide batez esanda, zorionez! Badira jabekuntzan adituak direnak, eta jabekuntza aditu talde mardula dugu Euskal Herrian; badira prozesamenduan adituak diren ikertzaile gazte apartak, hemen esan nahi dugu; badira gutxi baino ez hizkuntza patologietan eta afasian aditu direnak; badira Xuxen zuzentzaile automatikoa eskura jarri diguten konputazionaleko ikertzaile nekaezinak. Bada harrobia hemen. Baita gramatikaren eremuan ere. Jakintza sistemari buruzko galderak egiten ditugun gramatikariok ez gara nahi adina, baina bai asko, sintaxilariak, fonologialariak, semantikalariak… Gu gara, hain zuzen, jakintza sistemaren zirrikituak arakatzen ditugunok. Geuri dagokigu gramatikaren desafioa.

****

Nolanahi ere, modu askotako gramatikak eta gramatikariak daude. Esaiozu herritar xeheari gramatika hitza belarrira, eta izerdi-patsetan hasiko zaizu, gauzak txarto esan ote dituen, txarto idatzi ote dituen beldurrez. Eta neurri batean, arrazoia du dar-dar batean hasi eta gramatikak hori eta ez beste agintzen duela aitortzen dizunean —sarri askotan haren jatorrizko erabilerarekin bat etorri gabe, gainera.

Halako gramatika egon badago, baina hori *gramatika arau-emailea* da, eta gurea ez da hiztunen jardun ustez okerra arteztu nahi duen gramatika, *gramatika deskribatzailea* baino. Guk jakin nahi duguna da ea zer ote den euskaldunak dakiena, ez gauzak zuzen ala oker esaten ote dituen. Eta euskaldunak jakin asko daki. Badaki, esate batera, inork galdetuz gero, zeintzuk diren euskal perpausak eta zeintzuk ez, badaki zeintzuk diren euskal hitzak eta zeintzuk ez. Eta dakienak ez du mugarik, ez du azkenik, hain da euskalduna euskaraz jakintsu, hain dago euskara kontuetan jantzita. Mugarik ez duela diogu, zeren sormenari esker, inongo hiztunek lehenago inoiz aditu ez dituenak ulertzeko gai da. Are, bere jakintza sistemak sortzen ditu erabat berri diren perpausak, ez garunaren txokoren batean gordeta zituenak eta unean-unean atera egiten dituenak. Ez. Hiztunak bere jakintza sistemaren erabilera azkenik gabea egiten du, eta inork bat-batean asmatuko balu euskal hitzik, orduan lehenengoz entzunda ere, bere mintzakideak jakin lezake ea euskal hitza ote den ala ez, eta euskal hitza izanik zer esan nahi ote duen eta nola sortu den ere bai.

Bada, jakintza hori da gu bezalako gramatikariok aztertzen duguna, eta gure gramatika jakintza sistema horren gaineko teoria da. Gramatika horrek *grosso-modo* hiztegi bat dauka eta bertan biltzen dira euskal hitz guztiak. Gogoaren hiztegiaz ari gara, ez, adibidez, Mitxelena handiaren maisu-lanaz. Harrigarria bada ere, Mitxelenarenak baino askozaz ere hitz gehiago biltzen ditu gogoaren hiztegiak, benetako hitzak ez ezik, *balizko* hitz guztiak ere biltzen dituelako, balizkoak, alegia, izan gabe ere, izan litezkeen guztiak.

Jo dezagun, Gorbeian zehar gabiltzala, inongo perretxiko biltzailek, ez perretxikozalek, ez mikologok inoiz aurkitu ez duen perretxikoa aurkitu dugula —nekez, eta Euskal Herrian, are nekezago, baina, tira. Izena behar luke orduan. *Izena, izana,* badakizue. Eskola-saio batean, deskubritutako perretxikoa *barrenubel* bataiatu zuten gutako baten bi ikaslek[10]. Barrenubelik ez zegoen harik eta ikasle haiei perretxikoari halaxe deitzea bururatu zitzaien arte. *Barrenubela* euskal hitza da, euskal senak sortutako euskal hitz jatorra, *gibelurdina* bera bezain jatorra —horren goxo ez dakigu. Hitz hori ez da, gainera, edonolakoa. *Hitz elkartua* da, *barren* eta *ubel* euskal hitzez sortu duguna. Gure jakintza linguistikoari zor diogu jakitea nola dagoen osaturik, zer zatirekin eta zati horietako bakoitzak esanahirik ba ote duen ala ez, eta gramatikak gure jakintza islatu nahi eta islatu behar duen heinean, eman beharko dizkigu halakoxe hitzak sortzeko baliabideak.

Gure gramatikak ez du nahikoa, esan gabe doa, hiztegi soilarekin. Hitzak eurak kateatzeko bidea eman behar digu *Jonek barrenubela aurkitu zuen basoko xoko heze batean* bezalakoxe perpausak sortzeko, eta hori *atal sintaktikoan* gertatzen da. Gure gramatikan muineko atala da sintaxia. Hiztegitik sintaxira, beraz, eta beste atalik ba ote da? Bai, bada, *elkargune* bi, perpausen *adierazpen sintaktikoa forma fonetiko* eta *forma logiko* bihurtzen dutenak, edo oso modu apalean esateko, soinua eta esanahia gaineratzen dizkiotenak. Elkarguneak *atal*

fonologikoa eta *logikoa* dira, hurrenez hurren. Gramatikaren itxuraz-eta, euskalarion eta euskaldunon zorionerako, bada eskuliburu benetan eder bat, Artiagoitiak (2000) argitaratu zuena. Bertara jo dezake irakurleak —behin baino gehiagotan gogoraraziko diogun bezala— xehetasunak argitu nahi baditu.

****

Jakintza sistema, aztergaia: euskaraz jakitea euskal perpausak zein diren jakitea. Gramatika, gure zeregina; ez edonolako gramatika baina. Esan dezagun, bada, nolakoa. Esate batera, gure gramatikak deskribatu behar du zeintzuk diren euskal perpausak eta zeintzuk ez, eta horretarako gauza bada, orduan *deskribapenez egokia* dela esango dugu. Ez da hori, nolanahi ere, gure gramatikari ezartzen diogun baldintza bakarra. Izatez, gramatika deskribatzaile bikainak izan dira eta izan badira euskalaritzan, eta euskalari handiei zor dizkiegu, besteak beste, Laffite euskalariari. Lafitteren gramatika ederrak, baina, ez du betetzen guk geure buruari ezartzen diogun bigarren erronka: euskal perpausak zein diren esateko, erabil ditzagun *hatsarre* gutxi batzuk, hatsarre itxuraz xinpleak, aldagaitzak hizkuntzatik hizkuntzara, hau da, euskaraz nahiz munduko beste edozein hizkuntzatan salbuespenik gabe betetzen direnak. Erronka horri erantzunez gero, orduan gramatika *azalpenez ere egokia* izango da, eta halakoxea nahi genuke gramatika, deskribapenez ez ezik, azalpenez ere egokia.

Hatsarreak bildu nahi dituen gramatika hori *euskal* labela izan lezakeen gramatika da, baina baita era berean, mundutar gramatika, edo guk esan ohi dugun bezala, *Gramatika Unibertsala,* hau da, munduko edozein hizkuntza azaltzeko gai dena, bertan biltzen dira-eta euskararako nahiz munduko beste edozein hizkuntzatarako hatsarre aldagaitzak. Galdetu iezaiozu zeure buruari zer ote den euskaraz jakitea, eta litekeena da euskararen edozein gramatika deskribatzailek horren berri eman ahal izatea. Oso bestela, galdetu iezaiozu zeure buruari nola jabetu ote garen euskararen jakintzaz, eta orduan, euskararen gramatikarekin ez duzu agian nahikoa izango. Orduan, erantzunak inon aurkitzekotan, Gramatika Unibertsalaren baitan aurkituko dituzu.

Sortzezko gaitasun bat bera egonez gero, nola ez da egongo gramatika bat bera eta unibertsala gaitasun horretarako? Gramatika Unibertsalak hizkuntzen arteko batasuna erakusten du hatsarreen bitartez. Bai, horixe! Baina hizkuntzari itzulia egitean, ez genuke bide bat bakarra urratu nahi. Fogg-enak beste bide izatea nahi genuke. Gure bidaian zehar, basamortutik oihanera, oihanetik ordokira, ordokitik gailurretara egin nahi dugu mundua zeharkatuz, eta ez zaigu nahikoa izango mundua mundu dela esatearekin, ezta edozein hizkuntza hizkuntzaren aurpegi bat baino ez dela aldarrikatze hutsarekin. Gure bidaian zehar, hizkuntzari itzulia egingo diogu laurogei hizkuntzatan, gramatikak erakutsi behar du-eta hizkuntzak berdinak izanik ere, zertan eta zergatik diren diferente. Gure gramatikak hatsarre aldagaitzak ez ezik, *parametroak* ere bilduko ditu, hizkuntzatik hizkuntzara

aldatzen dena erakustearren. Diferentea dena maite dugulako. Liburu honek parametroez dihardu, hizkuntzaren aldakortasunaz beraz. Eta bidaiarako, laurogei hizkuntzatan egingo diogu itzulia hizkuntzari. Sei bat mila hizkuntzen artean, hautu txiki bat: laurogei hizkuntzen polikromia magikoa hizkuntza bakarrean.

****

Metaforikoki bada ere, bidaia-liburua da hau, bere hezurduraren *leit-motiv* literarioa Jules Verne-ren *Munduari itzulia 80 egunetan* duena. Munduko hango eta hemengo hizkuntzak izango ditugu aztergai, munduari itzulia egiteko beste. Ez, noski, Phileas Fogg-ek hartu zuen bidetik. Berak ibilbide azkarretik egin nahi zuen bidaia, nahiz eta batzuetan patuak edo Fix detektibearen makinazioek desbideratu. Eta XIX. mendeko urte haietan garraio azkar eta fidagarriak ez ziren non-nahi aurkitzen. Fogg jauna Victoria erreginaren munduan sentitzen zen gustura (eta apustuan garaile ateratzeko moduan, gainera), eta bere bidaian zeharkatu zituen lur eta itsaso gehienak mundu horretan zeuden kokatuta edo mundu horrekin lotuta: India, Singapur, Hong Kong, Meiji enperadore mendebaldezalearen Japonia, Estatu Batuak, Irlanda, eta, biribila biribilduz, Ingalaterra berriz ere. Gehienbat itsasoetan zehar mugitzen zela, ez zuen kontaktu handirik izan munduko kultura

eta hizkuntzen aniztasunarekin. Ez zen bere interesekoa, noski. Beste hizkuntzetako hiztunak hor daude, eszenaren tokiko ukituak. Baina Fogg-en helburua ez da ezagupena zentzu zabal batean, oso bestelako zerbait baizik, eta inguru horrekiko kuriositate izpi bat ere ez du erakusten. Batzuetan kontrakoa ere erakusten du, beharbada Verne-ren beraren aurreiritziengatik: Ameriketako indiarrak "tximinoen" modura deskribatzen dira, eta Indiako jendetzak "fanatikoak" dira. Noski, Auda printzesa bera salbatu egiten da, baina XIII. kapituluan europar antza zuela esaten zaigu («*blanche comme une Européenne*»), eta XIV.ean hezkuntza ingelesa izan zuela («*Elle avait reçu dans cette ville une éducation absolument anglaise, et à ses manières, à son instruction, on l'eût crue Euro-péenne*.»). Kulturartekotasunerako leku gutxi hemen.

Alderdi horretan, gure bidaia oso bestelakoa da. Itakarakoan bezala, zeharkatzen ditugun munduak interesatzen zaizkigu, guztietan zerbait ikasiko dugulakoan gaude-eta. Hizkuntza guzti-guztiak dira hizkuntza gaitasunaren erakusgarriak, eta ondorioz, gaitasun horren ezaugarriak ezagutzen uzten diguten islapenak. Hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, ez dago lehenengo edo bigarren mailako hizkuntzarik, berdin dela literatur tradizioa edo botere ekonomikoa izan ala ez. Denak dira lehenengo mailakoak. Esan daitekeen bakarra da hizkuntzaren ezaugarri jakin baterako hizkuntza baten egiturak edo prozesuak argigarriagoak direla beste batenak baino. Komunztaduraren ikerketan agian gehixeago argi dezake euskarak edo georgierak txinerak edo ingelesak baino. Baina alderdi zehatzek pizten duten "interes-hierarkia" horretatik at, balio-hierarkiarik ez dago hizkuntzak alderatzean. Denek dute berebiziko garrantzia, biologian espezie guztiek duten bezalaxe.

Zentzu horretan, gure bidaiak Phileas Fogg-enaren antzekotasun handia du, erlojuaren kontrakoa baita. Ez inora iristeko, bidaia egin ahal izateko baizik. Michael Krauss-ek (1992) artikulu famatu batean, gure ikergaien galzoriaz oharta-razten zuen. Espezie biologikoen desagerpenaren kontzientzia eta ardura hedatzen doazen bitartean, hizkuntzen heriotzaren abiadura askoz arinagoa dela dakitenak oso gutxi dira. Gaur egun 6.000 hizkuntza inguru badira munduan mintzatzen direnak, hurrengo mendean hilko direnak % 90 direla kalkulatu da. Ikaragarria. Krauss-ek dioenez, oraintxe bertan, 6.000 horietatik 3.000 hilzorian daude, haurrek ikasten ez dituztelako. Eta gainerako % 50ean, % 40an ikasten dituzten haurren kopuruak behera jo du dramatikoki. Euskara mantentzeak lan gogorra eskatzen du, baina euskara bera pribilegiatua da honetan, bai hiztun kopuruaren aldetik —erlatiboki altua dena—, bai eta hiztunen kontzientzia linguistikoa eta erakundeen laguntzaren aldetik. Munduko hizkuntza gehienen kasuan, askoz hiztun gutxiago daude, eta beren mintzairaren alde borrokatzeko lanabes, kontzientzia, indar eta ahalmena ere euskaldunenaren frakzioa da. Bai, espezie biologikoak urrituz doaz, baina hizkuntzen galerak (edo heriotzak, edo hilketak) badu zerikusi gehiago ez gaurko espezieen galera arinduarekin, baizik eta noizean behinka bizitzaren historian gertatu izen diren espezieen heriotza masiboekin. Duela 360 milioi urte,

lurraren aro Devoniarraren azken 20 milioi urteetan, espezieen % 70 desagertu zen. Geroago, duela 251 milioi urte, aro Permiarraren eta Triasikoaren arteko mugan, itsas espezieen % 96 eta lehorreko espezieen % 70 suntsitu ziren. Eta are, duela 65 milioi urteko Kretazeoaren azken epeetako heriotza masiboetan, gure imajinazioan dinosauroen desagerpenarekin lotzen duguna, espezieen % 50 "besterik" ez zen hil. Datu horiekin konparatuta, hizkuntzen itzaltzea masiboagoa da, Permiarrarena bezain orokorra, eta geologikoki instante bat izatera ere heltzen ez den 100 urteko epe xume batean. Biologo askoren ustez gaur egun gure begien aurrean (eta gugatik) hilketa masiboaren beste episodio bat ari da gertatzen. Eta honetan ere, Harvard Unibertsitateko Wilson (2002) irakaslearen estimazioan, espezie guztien erdia ezabatuko da. Arreta publiko txikiagoa jaso arren, hizkuntzen itzaltzeak, hilketa masiboetariko bat izan beharrean, masiboena ere izateko ohore zalantzagarria izan dezake. Benetan erlojuaren kontrako bidaia gurea! Luzamenduetan ibili gabe ekin diezaiogun, beraz!

---

1. Ken Hale eta Samuel Keyser-en (1994) lanetik hartu ditugu xhoseraren datu hauek.

2. Ez eta euskalki askotan ere, noski.

3. Bob Dixon-en (1988) gramatikan aurki daitezke fijieraren datu hauek.

4. Ikusi Richard Kayne (1993). Anoop Mahajan-ek (1994) *izan/*edun* horrek ergatibotasunaren eremuan izan lezakeen eragina aztertzen du; lotura ingelesez *far-fetched* deitzen dena izan liteke, urrunegitik ekarria, baina saiakerak ondo argitzen du hizkuntzarteko konparaketa tresneria teorikoarekin uztartuz sortzen den ideia iturburu emankorra. Ikusi orain, euskararen kasuaz zuzenean diharduen Karlos Arregiren (2006) lana.

5. Itziar Lakak ohartarazten digunez, ez dago argi (4b)-ren erabilera hizkuntza mailaren araberakoa den. Bestelako faktoreak egon litezke indarrean hemen, hala nola euskaldun zaharra ala euskaldun berri izatea, edota hiztun heldua ala hiztun gaztea izatea.

6. Bretoieraren egoera Rivero-k (1993) eta Borsley, Rivero & Stephens-ek (1996) deskribatzen dute. Euskara eta bretoieraren datuen konparaketa eta azterketa Ortiz de Urbinaren (1994) lanean aurki daiteke.

7. Mitxelenak (1957: 177) aspaldi sumatu zuen honen atzean egon litekeen azalpenaren zati bat: forma hauek (*da, dut*, etab.) ez dute berez azenturik, eta azentudun osagai batekin lotu behar dira. Euskaraz osagai azentudun hori ezkerrekoa da, baina ez edozein (partizipioak, *ez, ba* gehienbat). Hizkuntza askotan berdin die zein den osagai hau eta perpausaren lehenengo hitzari atxikitzen zaizkio, haren kategoriaz arduratu gabe. Orduan azentugabeko forma hauek perpausaren bigarren gunea hartuko dute. Fenomenoa ezaguna da hizkuntza indoeuroparretan barrena ere, eta honetaz lehenengoz jabetu zen Wackernagel hizkuntzalariaren izenaz ezagutzen da (Wackernagel 'efektu' edota 'guneaz' mintzatzen gara). Balkanetako hizkuntza batzuetan, litekeena da izen propio bat banatzea, *Phileas dit Fogg-ek hori eman* bezalako hurrenkerak ontzat hartzen direlarik!

8. Chomsky (1988) liburutik hartu dugu aipamen hau, baina antzekoak aurki ditzake irakurleak bere liburuetan zehar.

9. Guk Steven Pinker-en (1984) lanaren gaztelaniazko itzulpenetik jaso dugu gaztelaniara egokitutako adibidea.

10. Estitxu Irisarri eta Garazi Ugalde dira hitzaren sortzaileak, eta eurei dagokie jaioberriaren amatasuna.

Non batek apustu egin zuen hizkuntza baietz inguratu 80 hizkuntzatan, eta nola behar diren subjektu, osagarri eta aditza hurrenkera jakinean lerratu

II. kapitulua

–Il faut avouer, monsieur Ralph, reprit-il, que vous avez trouvé là une manière plaisante de dire que la terre a diminué ! Ainsi parce qu'on en fait maintenant le tour en trois mois...

–En quatre-vingts jours seulement, dit Phileas Fogg. […]

–Je parie vingt mille livres contre qui voudra que je ferai le tour de la terre en quatre-vingts jours […].

–Dudarik gabe, erantzun zuen Gauthier Ralphek. Ados nago Fogg Jaunarekin. Mundua txikitu da, eta gaur egun duela mende bat baino hamar aldiz azkarrago ingura daiteke. […]

–Onartu behar da, Ralph Jauna, erantzun zuen, aurkitu duzula mundua txikitu dela esateko modu polit bat! Eta hala, gaur egun mundua hiru hilabetetan ingura daitekeelako.

–Laurogei egunetan dio Phileas Foggek […]

–hogei mila libera mundua inguratu baietz laurogei egunetan […].

Halaxe hasi zen literaturan ospe handieneko bidaietako bat… Apustu batekin 1872tik hona urte askotxo igaro dira, tartean, mende oso bat eta gehixeago. Are azkarrago ingura daiteke gaur egun mundua. Phileas Fogg-ek apustua egin zuen garaian baino are laburragoa da bidaia egun. Zoritxarrez. Are txikiagoa da orain mundua. Zein preziotan, ordea? Laurogei egun.

Gurea apustu umilagoa zen. Nolanahi ere, ausarta. Ez zen *whist* mahaiaren inguruan egin —inork ezagutzen al ditu *whist* jokoaren gorabeherak? Gurea ez zen Reform-Clubeko joko-mahaiaren inguruan gertatu, eta gureak ez ziren Fogg-en karta-lagunak. Gurea, izatekotan, bazkalondoko apustu bat izan zitekeen, musean

genbiltzala ke artean. Baina, ezta ere. Urteak generamatzan hizkuntzalaritzan lanean, urteak hizkuntzaren unibertsaltasunaz eta aldakortasunaz geure buruari galdezka eta erantzunak bilatzeari emanak. Eta isolamendu akademikoaz nekatzen hasiak ginen, gainera, lagunek-eta *zuek zer demontre egiten duzue?* galdetzen ziguten bakoitzean, ezin erantzunez inork ulertzeko moduan. Orduan gutako batek besteari esan zion: *baietz hizkuntza laurogei hizkuntzatan inguratu!* Eta halaxe ekin genion gureari, Phileas Fogg-ek bezala, apustu batez.

Laurogei hizkuntza, hogeita hamar, bat bakarra? Horra gure erronka ondokoan.

****

Lehengo kapituluan, gizakion hizkuntza gaitasunaz hitz egin dugu eta haren unibertsaltasuna aldarrikatu dugu, Gramatika Unibertsalaren eremuari atea zabalduz. Alabaina, hizkuntzen arteko batasuna, unibertsaltasunari zor zaiona, hein handi batean, ez da Gramatika Sortzailearen eremuan bakar-bakarrik bilatu. Badira gure gramatika-eredutik aparte, alderdi linguistiko unibertsal horien bila abiatu direnak ere, eta saio bikainak egin dituzte, esan gabe doa, baita sortzaileak ez diren hainbat gramatikarik ere. Saio bikain horietako bat, nagusienetakoa, dudarik gabe, Joseph Greenberg-i zor diogu. Greenberg-ek hirurogeiko hamarkadaren hasieran hitz hurrenkerari buruz proposatu zituen *unibertsal linguistikoak* zeritzenek inflexio-puntua ezarri zuten tipologiako ikasketen historian. Haren lana ezinbestean aipatu beharrekoa da Hizkuntza Tipologian, bederen, aitzindaria izateaz gain, geroko tipologoen lanetan eragin handia izan zuelako, eta hizkuntzen alderdi unibertsalak aurkitzeko bide berri bat urratu zuelako.

Greenberg-en unibertsalak, oro har, berrogeita bost dira, eta hogeita hamar hizkuntzatako lagina erabili zuen unibertsal horiek antzemateko. Gogoratu aurreko kapituluan laginaz eta errezetaz genioena. Gramatikari sortzaileok errezetazaleak ginela genioen. Bada, Greenberg-ek lagina nahiago du. Esango duzue *lagina txikia da, ba, hogeita hamar hizkuntzatako lagina nahikoa al da*? Eta laurogeikoa? Bidezidor honetatik jarraituko dugu, laginaren inguruan gogoeta txiki bat egiteko. Lagina ez da errezetazaleon arazo nagusia, baina bai Greenberg-en modura lan egiten duten hizkuntzalari askorena, eta gainera, lagina osatzeko sortzen diren arazoen arrazoiak, horiek guztiok aintzat hartzekoak dira.

****

Hizkuntzen arteko batasuna eta aldakortasuna aztertu nahi dituen edozein hizkuntzalarirentzat begi-bistakoa da hizkuntzetako datuen garrantzia, eta badira datu horiek behar bezala aztertzeko hizkuntzen lagin esanguratsuak osatu behar direla uste duten hizkuntzalariak.

Baten batek hau ere *erran* gabe doala pentsa dezake. Alabaina, berebiziko garrantzia duen arazoa da, eta eztabaida ere pizten duena hautu metodologiko ezberdinak dituzten eredu unibertsalzaleen artean. Laginaz eta errezetaz gogoratzea baino ez du irakurleak, eztabaidaren oinarria non dagoen ulertzeko. Laginaren inguruko eztabaidarako, Juan Carlos Moreno Cabrera tipologoaren pare bat lan (1995, 1997) eta Bernard Comrie-ren (1989) lan klasikoa izango ditugu kontuan.

Juan Carlos Moreno Cabrera-k (1997: 14-16), eskarmentu handiko tipologoak, jatorri askotako hizkuntzak behatu eta aztertu ditu bere ibilbide oparoan zehar eta, dioskunez, ikaragarriak dira tipologoak aldakortasuna nahiz unibertsaltasuna aztertu nahian dabilela aurkitzen dituen zailtasunak. Areago, zailtasun horiek batzuetan gaindiezinak ere badirela dio.

Zailtasun horiexen artean, hizkuntzen lagin aski esanguratsu bat egiteko aurkitzen direnak aipatzen ditu. Lehenik eta behin, munduko hizkuntza gehienen gainean informazio nahikorik ez izatea: salbuespenak salbuespen —hizkuntza indoeuroparrak, semitikoak, altaikoak edo sino-tibetarrak—, hizkuntza asko eta askotaz izena besterik ez dakigu. Lehen arazo honek beste zailtasun bat gaineratzen du, alegia, tradizioz aztertu izan diren hizkuntzak, eta gaur egun ere aztertzen direnak, Europako hizkuntzak direla eta munduko hizkuntza guztien % 3 baino ez direla —Grimes-en (1992) katalogoko 6.528etatik. Ikerketa linguistikoaren garapenaren honainoko norabideak oso soslai enpiriko nabarmena sortzen du: gaur egungo hizkuntzalaritzaren soslai eurozentrikoa baita hizkuntzarteko antzekotasun eta ezberdintasunak ere zein diren asmatzen dugunean ere.

Garrantzizkoa dirudi arazo horri erreparatzeak, ez berez berehalako erantzuna eman ahal izateko —arazoa nekez konpon daitekeela dirudi, gainera— ezpada zeregin tipologikoaren zailtasunaz jabetzeko. Dena den, badira datuen soslai europarra neurri batean ekiditen duten metodoak, hala nola *hizkuntza laginketak.* Laginketak, batez ere, arautzen du familia ezberdineko zenbat hizkuntza agertu behar diren hizkuntza lagin batean ikerketa tipologiko eta unibertsalzalearen oinarri enpirikoa izateko (Moreno Cabrera, 1997: 15). Alabaina, ikerketaren bilakabideak erakusten du, egilearen ustez, benetan halakoxe gauzak ez direla kontuan hartzen eta azkenean metodologikoki nahi genituzkeenak baino europar hizkuntza gehiago sartzen ditugula hizkuntza corpusean.

Hemendik aurrera irakurleak besterik gabe pentsatuko du ez dagoela zereginik aldakortasunaren inguruko ikerkuntzan, hau da, nahi eta ezina dela datu-unibertso nahikoa fidagarria, enpirikoki soslairik gabea eta kuantitatiboki esanguratsua izatea. Zorionez, baina, ikerketa tipologikoa errealitate zientifikoa da, eta gainera, gaur egun erakusten du bere garapen mailarik gorena.

Laginaz, antzeko ardura ageri da beste ikertzaile batzuen gogoetetan ere, hala nola Bernard Comrie-renean, nahiz eta, nahi baduzue, jarreran horren betilun ez

diren. Comrie-k Moreno Cabrera-k aipatzen dituenen antzeko alderdiei begiratzen die, eta kontuz dio ez soslai genetikoekin bakarrik —dagoeneko aipatu dituguneekin— baita herrialdeko soslaiekin ere, hau da, lagin batean familia edo talde linguistiko ezberdineko hizkuntzak izanik ere, eremu geografiko bereko hizkuntzak balira, sor litezkeen soslaiekin (Comrie, 1989: 30). Horretaz gain, arreta handia jarri behar da lagin batek izan litzakeen joera tipologikoetan ere, tipologikoki esanguratsua den ezaugarri bat nagusituko balitz bertan. Hala, lagin esanguratsua, Comrie-rentzat, *joera ez genetiko ez herrialdeko ez tipologikorik ez duena* da.

Eta badira, egon, betebeharreko irizpide horien arabera moldatutako ikerketa tipologikoak. Beharbada laginen esanguratsutasuna gehien landu duen ikertzaileetariko bat Matthew Dryer dugu. Comrie-k aipatutako bi faktore horien pisua ahalik eta gehien gutxitzeko, Dryer-ek bere datutegiko 625 hizkuntzak lehenik familietan elkartzen ditu, berak *genera* deitzen dituen taldeetan. Hizkuntza eslabiar guztiek *genus* bakarra osatzen dute, latina eta latinetik datozen hizkuntza erromantzeek beste bat, euskarak beste bat (osagai bakarreko *genus*a dugu hau), etab. Kontaketak egiterakoan Dryer-ek *genera*/familiak hartzen ditu kontuan, ez hizkuntza zehatzak. Horrela, etorki genetikoak koerlazioetan izan lezakeen eragina saihesten saiatzen da. Bestalde, ezaugarri batzuen zabalkuntza geografikoaren problemari aurre egiteko, Dryer-ek sei eskualdetan zatitzen ditu hizkuntza multzoak: Afrika, Eurasia, Hego Amerika, Ipar Amerika, Hego-ekialdeko Asia-Ozeania eta Australia-Ginea Berria. Eskualde batzuek besteek baino hizkuntza multzo gehiago dituztenez, ez da nahikoa koerlazio bat erakusten duten multzoen gehiketa totala ematea, horrela eskualde-ezaugarriek azken kopuruari eragingo liokete-eta. Koerlazio bat estatistikoki esanguratsua izateko multzo eta *eskualde* gehienetan aurkitu beharko da.

Hartu, adibidez, hizkuntza batek aditzaren eta osagarriaren arteko hurrenkera izatea batetik, eta preposizioak ala postposizioak izatea bestetik[1]. Bi ezaugarri horien artean benetan koerlaziorik ba ote dagoen ikusteko, Dryer-ek (1992: 83) balizko lau konbinaketak (OA-Po, OA-Pr, AO-Po, AO-Pr) arakatzen ditu, eta hizkuntza familiak (*generak) eskualdeka* kontatzen hasten da. Sailkapenak egin ondoren, ondoko taulako emaitzak lortzen dira:

	Afrika	Eurasia	HE Asia Ozeania	Austral.	Ipar Am.	Hego Am.	*Guztira*
OA-Po	15	26	5	17	25	19	**107**
OA-Pr	3	3	0	1	0	0	**7**
AO-Po	4	1	0	0	3	4	**12**
AO-Pr	16	8	15	6	20	5	**70**

1. taula.

Koerlazio argia nabaritzen da hemen, zeren OA-Po eta AO-Pr ezaugarrien konbinazioa eskualde *guztietan* ikusten baita. Horrek esan nahi du lotura hori benetan esanguratsua dela, eta ez dagoela erlazio genetiko edo geografikoek kutsatuta. Gehienetan, baina, egoera ilunagoa dugu: izen aurreko edo atzeko erlatiboak A/O hurrenkerarekin modu honetan alderatu ondoren, honako taula ateratzen dugu:

	Afrika	Eurasia	HE Asia Ozeania	Austral.	Ipar Am.	Hego Am.	*Guztira*
OA Erl-Iz	5	11	2	2	3	3	**26**
OA Iz-Erl	9	5	2	6	12	3	**37**
AO Erl-Iz	0	0	1	0	0	0	**1**
AO Iz-Erl	21	8	12	3	11	5	**60**

2. taula.

Egoera lehen baino ilunagoa da: AO zuzen-zuzenean elkar genezake Izen-Erlatibo ordenarekin, baina alderantzizko erlazioa ez da betetzen, bai OA hurrenkera bai eta Erlatibo-Izen hurrenkera izatea sei esparru geografiko hauetatik eskualde bakar batean nagusitzen baita. Hala eta guztiz ere, badago hemen bigarren mailako koerlazio bat. OA hizkuntza gehienak Izen-Erlatibo motakoak izanagatik ere, Erlatibo-Izen ordenarekin askoz arruntagoa da OA hizkuntzetan AO hizkuntzetan baino. Datu hau estatistikoki zenbatzeko, eskualde eta mota (AO edo OA) bakoitzeko kopuruak gehitu behar ditugu, eta Erlatibo-Izen direnen ehunekoa ateratzen da:

	Afrika	Eurasia	HE Asia Ozeania	Austral.	Ipar Am.	Hego Am.	*Guztira*
OA Erl-Izen	.36	.69	.50	.25	.20	.50	**.42**
AO Erl-Izen	.00	.00	.08	.00	.00	.00	**.01**

3. taula.

Afrikan, esate baterako, 14 OA hizkuntzetatik 5 dira Erlatibo-Izen motakoak, beraz % 36, eta 21 AO hizkuntzetarik batek ere ez du ordena hori erakusten, beraz % 0. Horrela ateratako ehunekoak bilatu ondoren nabaria da eskualde guztietan Erlatibo-Izen ordena maizago aurkitzen dela OA hizkuntzetan AO motakoetan baino. Koerlazio hau aurrekoa baino ahulagoa bada ere, sistematikoa da eta, hemen garrantzizkoa dena, faktore genetiko eta geografikoak gutxiagotzen dituen metodologia baten bidez lortu dugun neurrian, nahiko fidagarria da laginaren aldetik. Badaude moduak, beraz, datu esanguratsuen gainean lan egiteko.

Gogoeta hauen artean, deigarria da ikustea, Croft-ek (1990) ikusten duen bezala, berez azterketa tipologiko on batek nahikoa duela ondo aukeratutako berrogeitik berrogeita hamarrera bitarteko lagin batekin. Hauxe, dioenez, ikerketa pilotua izan liteke, hastapeneko hipotesiak ezartzeko bidea emango ligukeena, eta lagina gerora handituz, hipotesiak fintzen edota fenomenoaren xehetasunetan sakontzen segi genezake.

Croft-ek ere dio hasierako lagin hori baliatuz lehen emaitzak argitara litezkeela, denboraz beste zientzialari batzuek hasieran aztertu gabeko hizkuntzak aintzat hartuz ekarpen berriak egingo dituztelako esperoan. Nolanahi ere, emaitzak emaitza, Croft-en ustea ere bada fenomeno bat behar besteko fidagarritasunez ikertzeko ezin daitekeela ehun bat hizkuntza baino gutxiagoko laginik osatu.

****

Harrituko zen irakurlea agian hau guztia irakurtzean. Laginaz-eta hitz egin diogu lehen kapituluan, baina ez diogu orain arte hitz egin laginak sortzen omen dituen arazoez. Bada, horrek ziur asko zerikusia izan dezake gu nagusiki errezetazaleak eta, hortaz, barne hizkuntzazaleak izatearekin. Hau da, hizkuntzen unibertsaltasunaren bihotzera heltzeko darabilgun estrategia metodologikoak barne hizkuntzari begirarazten digu, eta barne hizkuntzari begiratzeko oso litekeena da horrenbeste hizkuntza erabili behar ez izatea. Ez, behintzat, Moreno Cabrera-k edo Croft-ek behar luketen beste. Ez dugu honekin esan nahi, jakina: munduko hizkuntzek guri bost! Gure kezka-iturri nagusia barne hizkuntza izanik ere, Moreno Cabrera laguna bezainbeste etsipenez zipriztintzen gaitu munduko hizkuntza asko eta askotaz ezer gutxi edo ezer ere ez jakiteak. Esan nahi duguna da gure hautu metodologikoak ez gaituela laginaren mendeko egiten, etsipenak ez gaituela *lagun izoztu* bihurtzen. Kanpo hizkuntzari eta kanpo hizkuntzari bakarrik begiratuko bagenio, orduan bai, seguru, baina barne hizkuntzaren aztarnak aurkitzeko hizkuntza gutxi batzuk baino ez ditugu behar. Are, nahi baduzue hizkuntza bakarrean aurki genitzake unibertsaltasunaren aztarnak, eta horixe da, hain zuzen, egotzi izan zaiguna; Comrie-ren (1989) lana irakurtzea baino ez duzue horretarako.

Comrie-k dio bi direla estrategia unibertsalzale nagusiak, bata gurea, Gramatika Sortzailearen zaleona eta bestea aipatu besterik egin ez duguna, Greenberg-en lanaren zaleena alegia, eta estrategia bi horiek bereizteko irizpideetako batek, hain zuzen, hizkuntzen datuekin zerikusia duela. Comrie-k dio tradizio chomskyarrak hizkuntza bakarrean bilatzen dituela alderdi unibertsalak, eta greenbergtarrek, berriz, askotariko hizkuntzak darabiltzatela. Argitu beharra dago, hitzak testuingurutik kanpo behar ez bezala interpreta ez daitezen, egilearen ustez, hautu honek zerikusi handia duela metodoaren erabilerarekin, baita azterketa zientifikoan erabiltzen den abstrakzio mailarekin ere eta orain aipatuko ez ditugun bestelako ezaugarriekin.

Hitz egin dugu dagoeneko ikerketa tipologikoak gainditu behar dituen zailtasunez, gaur egun konponezinak diruditen zailtasunez. Horietaz konturaturik, hizkuntzalari unibertsalzaleak, teorikoki behintzat, gerorako utz lezake hizkuntzartekoa eta bere azterketa hizkuntza bakarrean oinarritu.

Hautu zientifiko horrek burugabea irudi lezake hasierako begiratuan, baina ez luke zertan burugabea izan. Guk uste badugu hizkuntza guztiak hizkuntza gaitasun bakarraren konfigurazio bat besterik ez direla, orduan pentsatzekoa da hizkuntzaren ezaugarri unibertsalak edozein hizkuntzatan aurkituko direla, eta horrek zilegi egiten du hizkuntza bakarrean bilatu nahi izatea, halabeharrez erkatu behar izan gabe unibertso enpiriko handiago eta konplexuago batekin. Comrie-k berak onartzen du ikerketa unibertsalzalea ez dela *a priori* hizkuntza asko eta askotan oinarritu behar. Berriro ere diogu behar bezala ulertu behar dela zeri deritzogun

hizkuntza eta nola ulertzen ditugun datu linguistikoak. Hori guztia, metodo eta eredu zientifikoaz gain, behar-beharrezkoa da esaten ari garena behar den neurrian ulertzeko.

Jo dezagun, beraz, hizkuntzen ezkutuko alderdi unibertsalak hizkuntza bakarrean arakatu daitezkeela. Bada, litekeena da. Alabaina, ikerkuntza sortzaileak oso bestelako bideak jorratu ditu bere bilakabidean. Ez dugu ukatuko Chomsky-ren aspaldiko lan klasikoetan ingelesaren adibideak baino ezin aurki daitezkeela, baina nahikoa ikuspuntu murriztailea izango luke pentsatuko lukeenak chomskyar teoria hizkuntza bakarrean eraikia dela. Denboraren joan-etorriak erakutsi du Gramatika Sortzaileak hainbat hizkuntzatako iturrietatik edan duela, eta bere garapenean, ingelesarenak ez, ezpada beste hizkuntza askotako datuak izan direla bilakaeraren norabidea zehaztu dutenak —pentsa adibidez Luigi Rizzi (1982) eta Luigi Burzio-ren (1986) tesietarako italieraren datuek jokatu zuten rolaz.

Era berean, tradizio linguistikoak horren kuttun izan ez dituenen artean, badira ingelesetik tipologikoki, geografikoki eta genetikoki urrun samar dauden hizkuntzekin lan egin duten hizkuntzalari famatu eta irakasle bikainak, eskola sortzailearen barruan nahiz eskola sortzailetik kanpo. Ezin utzizko aipamena merezi dute, adibidez, Kenneth Hale-k edo Mark Baker-ek, hausnarketa teorikoa eta hizkuntza askotako datuen azterketa enpirikoa bikain uztartu dituztenak. Hala, Mark Baker-en (1988) lanean, txamorroera, txoktera, djirbalera, inuitera, georgiera, hindiera, huitxolera, islandera, jakaltekera, mamera, mohawkera, onondagera, swahiliera eta warlbiriera aipatu eta aztertzen dira. Eta aipatutako azkena eta beste asko, euskara ere tartean, Kenneth Hale-k aztertu ditu bere ibilbide luze, oparo eta errepikaezinean.

Honaino helduta, latindar aforismo hartaz gogoratuko da baten bat *excusatio non petita*… Ez, ez da hori. Ez ditugu, gainera, gure gramatikaren hautuak zuritu behar. Ez dago horren beharrik. Honen bitartez, erakutsi nahi ditugu batzuetan oso ganora handirik gabe zabaltzen diren topikoak, hautu teoriko bat lausotzen dutenak. Besterik ez. Gurean ere badira arazoak, jakina, beste edozein etxetan bezalaxe, baina horiexek gorde egingo ditugu oraingoan.

Lehen kapituluan genioen bezala, hautu guztiak dira zilegi. Gu uste horretakoak gara, bederen. Laginak izan ditzakeen gabeziak alde batera, Greenberg-ek fenomeno linguistikoak hizkuntza askotan aztertzeko ahaleginean meritu ukaezina du hizkuntzalaritzaren historian, bere garaian zein gaur egun ere, datu linguistikoak erabili eta aztertzeko joera berdinzalearen zirrikituetatik isuri eta haize fresko garbia dakarrelako gurera.

****

Hogeita hamar hizkuntzatako lagina da, beraz, Greenberg-en hautua lanerako, eta hizkuntzen arteko alderdi unibertsalak aurkitzeko asmoa, horixe zeregina.

Greenberg-en unibertsalak aipatzen direnean, berehala datorkigu gogora hitz hurrenkera, baina izatez bere unibertsal guztiak ez dira hitz hurrenkerari buruzkoak, berez zazpi baino ez dira gai horren ingurukoak. Gainerakoak, sintaxi nahiz morfologiari buruzkoak dira. Aztertutako hizkuntza kopurua, irakurle, kontuan hartu beharreko datua duzu, dagoeneko izan dugu-eta aukera, laginak berez dituen murriztasunez eztabaidatzeko. Hogeita hamar dira, bada, erabili zituen hizkuntzak, eta hori sei bat mila hizkuntzaren artean, berez ezer gutxi bada ere, Greenberg-ek urratu zuen ia lehenengoz gerora beste hizkuntzalari askok egingo zuten bide bera, alegia, hizkuntza bat, bi, hiru gabe, hogeita bost hizkuntzaz baliatzea, unibertsaltasun bila abiatzeko biderik zuzenena delakoan.

Hitzen oinarrizko hurrenkeraz ari garela, hauexek dira Greenberg-ek erabili zituen oinarrizko irizpide batzuk: a) zein den subjektu, osagarri eta aditzaren arteko hurrenkera baieztapen perpausetan; b) preposizioak ala postposizioak ba ote dauden; eta c) adjektiboa izenaren aurretik ala atzetik kokatzen ote den. Irizpide horiek guztiak erabili zituen, eurak baliatuz, hurrenkerari buruzko hizkuntza unibertsalak aurki zitzakeelakoan.

Abia gaitezen lehen irizpidetik, alegia, subjektu, osagarri eta aditzaren arteko hurrenkeratik bertatik. Oso erraz urra daiteke Greenberg-en bidea, hastapenetan, bederen. Hizkuntzen artean, begi-bistako diferentziak antzemango ditu honetaz gutxieneko jakin-mina duen edozeinek. Berez, jo dezagun perpaus bateko oinarrizko osagaietara. Perpaus baterako, oinarrizko osagaiak ez dira asko, hiru baino ez —makailoa pil-pilean bezala: subjektua, S deituko duguna, osagarria O eta aditza A. Hemen, jakina, *ikusi* eta gisako aditzetan pentsatu behar du irakurleak, hau da, nork ikusi eta zer ikusi adierazi beharra duena. *Jonek txantxangorria ikusi du* perpaus —itxuraz— soilean esate baterako, nork ikusi *Jonek* adierazten du, subjektuak alegia, eta Jonek zer ikusi duen *txantxangorria* hitzaren bitartez adierazten da, hau da, osagarriaren bitartez. Bada, ikusten duzuenez, olioa, berakatza eta makailoa baita giza hizkuntzetan ere, eta hori baino garrantzi handiagoa duena, osagarri horiek *hurrenkera* jakina dute, hau da, bakoitzak leku bat betetzen du perpausean, eta uste dugunez, hurrenkera hori oinarrian bat-bera da hizkuntza bereko perpaus guztietan. Halaxe uste dugu, behintzat, arloko hizkuntzalariok. Besterik da gero oinarrizko hurrenkera horrek jasan ditzakeen aldaketak —azkenaurreko kapitulura arte itxaron beharko du irakurleak bestelako hurrenkera horiek zein diren jakiteko. Dena den, hizkuntza batean dagoen oinarrizko hurrenkera hori ez da nahitaez beste hizkuntzetakoa bezalakoa, ondoren erakutsiko dugun bezala.

Hiru osagarri eskura ditugula S, O eta A, galdera jarraian dator: zein dira osagai horiek izan litzaketen balizko hurrenkerak? Hau da, nola atondu genitzake hiru osagaiak hizkuntza batean edo bestean? Bada, hauexek dira —puzzleak osatzen eskarmentua duenak honezkero igarriko zuen bezala—, sor litezkeen hurrenkera guztiak: SOA, SAO, ASO, AOS, OAS eta OSA. Zaila, lehen begira-

tuan asmatzea zein den zein, baina errazago ikusiko ditugu diferentziak konturatzen bagara hasierako hiruretan, SOA, SAO eta ASO hurrenkeretan, alegia, subjektua osagarria baino lehenago kokatzen dela, edo nahiago baduzue, subjektua osagarriaren ezkerretara; beste hiruretan, berriz, AOS, OAS eta OSA hurrenkeretan, osagarria da subjektua baino lehenago kokatzen dena, edo nahi bada, osagarria subjektuaren ezkerretara. Edozein modutan ere, sei dira oro har hurrenkera mota logikoak —semaforoaren koloreak logikoki ordenatuz gero, sei liratekeen modura. Kontua da ea sei mota logiko horien testigantzarik aurkitzen dugun ala ez munduko hizkuntzetan —semaforoari begira, atzera ere, sei aukera logikoetatik bat baino ez dago.

Bada, Greenberg-en laginean, sei mota logiko horietatik bosten testigantza baino ez da jasotzen, OSA motako hizkuntzarik ez baita bertan azaltzen. Era berean, bostetatik, lehen hirurak dira, hain zuzen, sarrien aurkitzen dituenak.

(1)	a.	Jonek	txantxangorria	ikusi zuen	SOA
	b.	El aldeano baserritarrak	tiró bota zuen	la piedra harria	SAO
		'Baserritarrak harria bota zuen'			
	c.	Lladdodd hil zuen	y ddraig herensugea	y dyn gizona	ASO: galesera[2]
		'Herensugeak gizona hil zuen'			

SAO hizkuntzak dira Fogg-en ingelesa edota Passepartout-en frantsesa eta Auda raja zaharraren alargunaren mintzoa baldin eta hindiera bazen, orduan, SAO mota berekoa zukeen berak ere. Asko eta asko dira, eta batzuk aski ezagunak. Ezezagunagoak, agian, yorubera edo kinyarwandera[3], esate batera. Bestalde, ez zaizkio arrotzak egingo gure irakurleari SOA motako hizkuntzak ere, euskara bera hurrenkera horri lotzen zaio-eta. Era berean, japoniera edota turkiera euskararen modukoak dira honi dagokionez. Azkenik, ASO hizkuntzak dira, galeseraz gain, zapotekera edota nibera[4].

Osagarria subjektua baino lehen kokatzen da malagasieraz[5] edo tzotzileraz (2a), AOS hurrenkerari jarraituz; OAS hurrenkerari lotzen zaizkio hixkarianera (2b) edota makuxiera[6] ere —biak hizkuntza karibearrak—; eta azken-azkenik, OSA motakoak ditugu, Greenberg-en laginean agertzen ez zirenak, eta egia esan, ondo kostata aurki daitezkeenak aipaturik literaturan. Derbyshire-k bakarka eta Pullum-ekin elkarlanean dakar aipamenik zehatzena: urubuera (2c), apurinã , nadëbera eta xabantera. Baita Baker-ek aipagai duen waraoera ere, denak urriak bezain arrotzak munduko hizkuntzen artean.

(2) a. ʔispet lok´el ʔantz ti t´ule AOS[7]
eraman emakumea untxia
'Untxiak emakumea eraman zuen (The rabbit carried away the woman)'

b. Kuraha yonyhoryeno bɨryekono OAS[8]
arkua egin zuen mutilak
'Mutilak arkua egin zuen'

c. Pako xuã u'u OSA[9]
banana Jon jan
'Jonek bananak jan zituen'

Goiko lerroetan hizkuntza moten maiztasunaz esan duguna ezkutatu izan bagenu, irakurleak pentsa lezake, agian, bat-batean behintzat, hurrenkera mota hauek guztiek gutxi gorabehera hizkuntza kopuru bertsua izan lezaketela munduko hizkuntzetan. Ez da hori, alabaina, munduko hizkuntzetan ikusten dena. Berez, arestian esan bezala, gogoratu, esate baterako, OSA motako hizkuntzaren testigantzarik ere ez zegoela Greeenberg-en laginean, eta era berean, subjektua osagarriaren ezkerretara erakusten duten hizkuntzak direla, hain zuzen ere, sarrien aurkitzen ditugunak munduko hizkuntzen artean. Hau da, ez dirudi ezta urrik eman ere, hurrenkera mota logiko guztien testigantzak kopuruz antzekoak direnik. Greenberg-en lagin txiki samarretik, lagin handiagoetara joaz, Tomlin-enera (1986: 22), esate baterako, datu hutsak zein portzentajeak nahiko argigarriak dira. Ikusi bestela[10]:

(3)

Hitz hurrenkera	*Hizkuntza kopurua*	*%*
SOA	180	44.78
SAO	168	41.79
ASO	37	9.20
AOS	12	2.99
OAS	5	1.24
OSA	0	0.00
Oro har	402	100

Ez dugu oso begi zorrotzik behar ikusteko subjektua osagarriaren ezkerretara kokatzen duten hizkuntzak direla lagin osoaren % 95,77! Era berean, SOA eta SAO dira munduko hizkuntzetatik % 86,57 —hau da, Euskal Herriko euskaldun elebidun gehienen bi hizkuntzak bezalakoxeak, euskara eta gaztelania edo frantsesa alegia. Ezin zorizkoa izan!

Greenberg-ek, subjektua hasieran emateko sarritasunaz konturaturik, ondoko unibertsala proposatu zuen:

(4) 1. unibertsala: *«Subjektu eta osagarridun baieztapen perpausetan, hurrenkera nagusia da ia beti subjektua osagarriaren aurretik datorrenekoa»*[11].

Nolanahi ere, horrelako unibertsalak, ez dira, hizkuntzalari guztien begietara, *erabatekoak,* hau da, badituzte salbuespenak, baita Greenberg-en beraren laginean ere. Horregatik, *joerak (handiak)* direla diote tipologo batzuek, Comrie-k (1988: 137), esaterako. Paradoxikoki, Croft-ek (1990: 46) erabateko unibertsaltzat jotzen du, bere bitartez ia salbuespenik gabeko hizkuntza mota bat aurkitzen dugulako, subjektua osagarria baino lehenago lerratzen duena, hain zuzen.

Guk ez dugu esango unibertsal absolutua ala joera den, hori ez baita gure eztabaidagaia. Gure ustez, unibertsala izan nahi duen ezaugarriak definizioz salbuespenik gabea izan behar luke. Hauxe diogunean, ez dugu, jakina, esan nahi Greenberg-en aurkikuntzak merezimendurik ez duenik. Lehenago ere esan dugu. Hauxe diogunean esan nahi duguna da itxuraz badagoela nonbait arazoren bat, eta arazo hori laginaren beraren erabileratik etor daitekeela. Izan ere, laginak berak darama Greenberg salbuespenak aurkitzera. Konturatu zaitez, irakurle, *ia beti* dioela bere lehen unibertsal horretan, eta horrek egilearen zuhurtzia islatzen badu ere, Comrie-k dioen moduan, unibertsalaren ezina ere erakusten du neurri batean, behintzat.

****

Subjektu eta abarren hurrenkeraz gain, Greenberg-ek erabili zuen beste irizpidea izan zen ea lagineko hizkuntzetan preposizioak ala postposizioak zeuden. Preposizioak zein diren ez dago ia esan beharrik, eskolatu gaituzten gehienok izango ditugu-eta gogoan, klarionaren arrastoak mantalean bezalatsu; aldiz, postposizioak zer ote diren pentsatzen egon daiteke irakurlea, oroimenaren zirrikituetan ere aurkitu ezinik halako hitzik. Bada, gauza berbera dira biak, kategoria bera hizkuntzalarientzat, alegia, P labelaz adierazten duguna. Ezberdintasuna, beraz, kokalekuan baino ez dago: preposizioa bere osagarriaren aurretik doa beti eta postposizioa, berriz, bere atzetik. Begiratu frantsesaren eta euskararen ondoko adibideei bestela:

(5) a. À Paris
P Paris

b. Paris-era
Paris-P

Postposiziodun hizkuntzak dira, era berean, japoniera, turkiera edo navajoera, bizpahiru adibide emate aldera.

Berez, Greenberg-ek darabiltzan irizpideak beregainak dira. Hortaz, irizpide baten arabera, hizkuntza batek ezaugarri bat izateak ez du esan nahi beste ezaugarri jakin bat izango duenik. Nolanahi ere, irizpideen artean nolabaiteko harremana egon badago, eta agian, Greenberg-en proposamen unibertsalzaleak duen alderdirik interesgarriena horixe bera da, alegia, dena delako ezaugarriak beste ezaugarri batekin erakusten duen harremanari erreparatzen diola, ezaugarrien arteko koerlazioak ezarriz. Esate baterako, SOA hurrenkerako hizkuntzetan, postposizioak aurkitu ohi ditugu —pentsa euskararen kasuan, adibidez— eta horiexek dira, hain zuzen, laginean sarrien aurkitzen ditugun hizkuntzak. Era berean, ez dago ia SOA hurrenkera izanik, preposizioak ere badituen hizkuntzarik. 4. unibertsalak ematen du aditzera esan berri duguna:

(6) 4. unibertsala: *«Zorizkoa dena baino are maiztasun ikaragarri handiagoaz, SOA hurrenkera arrunteko hizkuntzak postposiziodunak dira»*[12].

Konturatuko zen irakurlea, unibertsal hau *inplikazio* batean oinarritzen dela, hau da, baldin eta hizkuntza batean SOA hurrenkera badugu, orduan postposizioak izango ditugula bertan, edo modu abstraktu batean adieraziz, baldin eta *x*, orduan *y* izango dugula dena delako hizkuntzan. Horregatik, *inplikaziozko unibertsalak* deritze, eta halakoxe inplikazioak erabiltzen jarraitu dute hizkuntzalariek, Greenberg-en ondotik. Unibertsal hauek muga estuak ipintzen dizkiete logikoki litezkeen hizkuntza motei, lagina aztertzerakoan. Adibidez, aukera logiko bat litzateke SOA hurrenkeradun hizkuntza batean preposizioak ere azaltzea, baina laginari begiratzen badiogu, ez dugu aukera logiko horren testigantzarik ia aurkituko. Horrek pentsarazi beharko lioke irakurleari, hizkuntzalariei pentsarazi dien bezala, lagin batean benetan aurkitzen ditugun hizkuntza motak zein diren jakiteak berebiziko garrantzia badu ere, ez duela garrantzi gutxiago jakiteak zein diren laginean *aurkitzen ez ditugun* hizkuntza motak, edota aurkituz gero, zein diren oso-oso kasu bakanak, Mark Baker-ek (2001: 30) dioskun bezala.

Unibertsalak, beraz, erabatekoak batzuk, joerak besteak, koerlazioak… Horiexek dira Greenberg-en unibertso zientifikoaren lorpenak. Berak urratutako bideari orpoz orpo jarraitu dioten hizkuntzalariak badira, baina guk irakurleari utziko diogu bere kabuz esplora dezan eremua, eta geure bideari ekingo diogu berriro.

****

Goiko hausnarketa guztiak Greenberg-en iturritik edaten du neurri handi batean, eta tipologoentzat berez horixe da unibertsaltasunaren bila abiatuz gero, jarraitu behar den bidea. Ez da, alabaina, bide bakarra, ezta gure bidaiarako erabili dugun mapa nagusia ere. Izan ere, munduari erreparatzeko modu bakar bat ez dago, ez eta unibertsaltasuna deskubritzeko bide bakarra ere. Mapa berria atera dezagun, bada, motxilatik, eta begira diezaiogun.

Gramatika Sortzailearen aspaldi-aspaldiko ereduetan, honezkero klasikoak diren *berridazketa arauak* formulatzen zituzten hizkuntzalariek —gogoratuko ditu irakurle ez hain gazteak Patxi Goenagaren (1978) *Gramatika bideetan* ikasitakoak. Arau horien bitartez, berez kategoria sintaktiko "handia" kategoria sintaktiko "txikiagoetan" banatu egiten da, edo bestela esanda, berridatzi egiten da geziaren eskuinetara adierazten den bezala. Esate baterako:

(7) a. AS → IS A
b. PS → IS P

Edota arau biak ezkerretatik eskuinetara irakurriaz: "aditz sintagma berridazten da izen sintagma eta aditza" (7a), eta "postposizio sintagma berridazten da izen sintagma eta postposizioa" (7b). Hau da, *berridatzi* diogunean, esan nahi duguna da ezkerretara dagoen kategoria sintaktikoa geziaren eskuinetara dauden osagaiek osatzen dutela.

Badago hau bera bestela adierazterik, arauaren bitartez gabe, zuhaitz sintaktikoen bitartez, alegia. Izan ere, *Syntactic Structures* klasikoan adierazten den legez, aurreko arauak zuhaitzak eraikitzeko instrukzioak ere badira:

(8)



Arau hauek, arau *sintagmatikoak* ere deitu izan direnak, bereziki sintagmaren beraren barne egitura erakusten dutelako, edozein hizkuntzatako edozein sintagma sortzeko asmotan zehaztu ziren garai haietan. Kontuan izan *edozein hizkuntzatako* eta *edozein sintagma* diogula, eta hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, baina baten batek handinahikoak garela pentsatuko balu, jakin beharko luke unibertsaltasunaren bila abiatzeko esploratzaile handinahikoak izan behar garela, eta are, nekez egin dezakegula teoria unibertsalzale bat, darabiltzagun lanabesek hizkuntza guztietarako, eta sintagmez ari garela, sintagma guztietarako, salbuespenik gabe balioko ez balute.

Geroago, eredu formal gero eta sofistikatuago eta azalgarriagoetan —hau da, soiltasunaren bideari jarraitu ziotenak, gutxi gorabehera— arau horiexek hatsarreez ordezkatzen hasi ziren hizkuntzalariak, *X-marra teoria* deritzonaren barruan —bai, badakigu, bai, bataio zailekoak direla hizkuntzalariok asmatutako izen guztiak ez badira, gehienak! Dena den, ez etsi, Fogg-ek, zailtasunengatik ere, etsi ez zuen bezala.

Xehetasunek itsutu gabe, teoria horretako hatsarreetako bat ulertzeko, pentsatu beharra dugu sintagma guztiek *buru* bat dutela, eta aukeran *osagarri* batek ere lagun diezaiokeela buru horri. Hala, (7)-n erakutsi ditugun bi arauak, hatsarre beraren bi adierazgarri baino ez dira, arau bakoitzak buru bat duelako batean A eta bestean P, eta buru bakoitzak osagarri bat hartzen duelako[13]. Osagarri hori IS bat da bi kasuetan, baina ez du zertan hala izan, bestelakorik ere izan daiteke kasuan-kasuan. Bi arauei hala begiratuz gero, beraz, biak laburbil daitezke ondoko hatsarre abstraktuan —abstraktuagoa arauak eurak baino:

(9) SX → (SY) X

Goiko hatsarrean, X XS-ren burua da, eta YS bere edozein osagarri. Ostean, parentesi artean bildu dugu osagarri hori guk aztertu ditugun adibideetan (*gereziak jan* eta *plazerrez*) nahitaezkoa bada ere, besteetan aukerakoa ere izan daitekeelako. Hortik parentesia.

Eman dezagun orain gaztelaniazko ordainetatik abiatzen garela, hau da, *comer cerezas* eta *con placer* sintagmetatik.

(10)



(9) hatsarre berak bi sintagmak sorraraz ditzake —baita, jakina, (7)-ko bi arauek ere—, baina pentsa zientzia-irizpide orokorrek hala aginduta nahiago ditugula sinpleagoak diren hatsarreak, arauen kaltetan, hau da, termino gehiagoko formulazioen kaltetan —gogoratu azalpenez egokia den gramatika egitea erabaki dugula lehen kapituluan. Bada, hatsarre berak bi sintagma hauek ere sorraraz ditzake —Kontxo! Ez ginateke ondo ibiliko bestela, sintagmen egitura unibertsala zehaztu nahi, eta lau sintagma ziztrin sortuko ez bagenitu! Baina begiratu ondo (8)-ko zuhaitzei. Begi-bistako alde bat dago gaztelaniazko eta euskarazko sintagmen artean: gaztelaniaz burua eta osagarriak alderantziz[14] daude, hau da, burua lehenik eta ondotik osagarria, eta ez euskaraz bezala, burua azkenik eta aurretik osagarria. Ikusi bestela: hizkuntza biotako sintagmen zuhaitzak bata bestearen ondoan jarriz gero, gaztelania euskararen ispilu-irudia da:

(11) a. a´



b. b´

Hortaz, onartzen badugu (9) hatsarre unibertsal bat dela, honezkero, gure irakurle sinestunek eta, espero dezagun, sineskaitzek ere onartuko zuketen bezala, bi hizkuntzen arteko aldakortasuna parametro bakar bati esker azaltzen da. Dei diezaiogun *Buru Parametroa,* ohi den bezala. Parametro horrek adieraziko du buruak osagarriari begira duen hurrenkera, eta bi baliorekin zehaztuko da honela:

(12) *Buru Parametroa*

a. Burua osagarriaren atzetik kokatzen da (euskaraz)
b. Burua osagarriaren aurretik kokatzen da (gaztelaniaz)[15]

Hala, *buru-azken* hizkuntzez hitz egiten dugu, euskara kasurako, burua azken-azkenik kokatzen duten hizkuntzez ari garenean, edo bestela, *buru-lehen* hizkuntzez, gaztelaniaz bezala, burua lehenik eta osagarriaren aurretik kokatzen dutenei begiratzen diegunean. Honaino helduta, irakurle mesfidatiak pentsatuko du ea horren hurrenkera zurruneko hizkuntza ote den euskara eta pentsatzearen pentsatzeaz baita gaztelania bera ere, biak nahikoa hurrenkera askeko hizkuntzak direlako. Itxaron beharko du pixka bat, arrazoia emango diogu-eta aurreraxeago ikusiko duenez.

Parametro honek ez du bakar-bakarrik adierazten hizkuntza bat OA hizkuntza den euskara bezala ala AO hizkuntza den, gaztelaniaren kasua, ez eta hizkuntza batek P azkenik kokatzen ote duen ala lehenik —hau da postposizioduna ala preposizioduna den. Parametroak beste osagarri nahikotxoren hurrenkera ere zein izango ote den agintzen digu. Hortik, parametroaren garrantzia.

Ikus ditzagun osagai hauetako batzuk. Euskaraz aditzak *jokatzen* ditugunean, *ikusi dut, etorri naiz* eta horien modukoak sortzen ditugu, hau da, batetik *aditz nagusia* adierazten dugu, esanahi kontzeptuala duena, *ikusi* edota *etorri,* adibidez, eta bestetik *aditz laguntzailea* aipatzen dugu, *dut* eta *naiz* gure adibideetan. Aditz laguntzaileari *inflexioa* (INFL) deituko diogu, gerorako utziz hari buruzko xehetasunak. Bada, asma dezagun adibide bana euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta

ikus dezagun aditz laguntzailea edo inflexioa non kokatzen den. Esate batera, euskaraz *filma ikusi dut* diogunean, *dut* aditz laguntzailea azkenik ageri zaigu, *ikusi* aditz nagusiaren ostean; gaztelaniaz, berriz, *he visto* ordainean, *he* aditz laguntzailea lehenik azaltzen da eta *visto* aditz nagusia gero. Begiratu bi zuhaitzei, gorago AS edota PS sintagmei begiratu diegun bezala, inflexio sintagmei (INFLS) ere erreparatuz gero, bata bestearen ispilu-irudia da:

(13) a.



b.



Luzatu ditzagun adibideak. Balizko solaskide gor samar batek *edozein herriko jaixetako* giro zaratatsuan, norberak esandakoa aditu ezinik: "*zer diozu?*" galdetuko baligu, *filma ikusi duda-LA* erantzungo genioke, *-LA* horri *konplementatzailea* (KONP) deritzogu hizkuntzalariok (bale, ez du*nk* hori ere oso hitz goxoa, baina hizkuntzalariak ere ez gaitu*nk* gozogileak, aiza*nk*!). Bada, konplementatzailea bera, ikusten duzuenez, azken-azkenik ageri zaigu, hau da, mendeko perpausaren atzetik. Gaztelaniaz, aldiz, gauzak, betiko moduan, aldrebesetara —txantxetan gabiltza, irakurle! *¿Qué dices?* lagun erdi-gorrak zalapartaren erdian galdetu, eta guk orduan erantzun: *QUE he visto la película*. Hau da, *que* konplementatzailea lehen-lehenik ageri zaigu, eta mendeko perpausa konplementatzailearen ondotik. Hortaz, atzera ere, euskara eta gaztelania bata bestearen ispilu-irudia dira konplementatzaile sintagmetan ere.

(14) a.



b.



Kontuan izan, inflexioa eta konplementatzailea burutzat hartu ditugula. Ez dira, jakina, aditza bezalako *buru lexikoak, buru funtzionalak* baino. Nolanahi ere, buruak buru, euskara buru-azken dela berresten dugu datu hauen bitartez, eta gaztelania, berriz, buru-lehena, Buru Parametroari segika pentsa genezakeen bezala.

Eta jai giroan segi, eta lagunak atzera ere temoso "*zer?*" galdetuko balu berriro, *Filma ikusi dudala diot* esan genezake aspertzen hasita, hau da, mendeko perpaus osoa konplementatzaile eta guzti, eta *diot* aditz nagusia ondoren. Gor gaztelaniadunari *qué* errepikakorrari erantzunez, berriz, *digo que he visto la película* —batek imajina badezake halako elkarrizketa ergelik— hau da, *digo* aditz nagusia lehenlehenik eta ondoren bakarrik mendeko perpaus osoa konplementatzailea eta guzti.

Laburbildu ditzagun taula batean aztertu ditugun sintagma guztiak eta elkarren arteko hurrenkera ondoren[16]:

(15) *Buru Parametroa euskaraz eta gaztelaniaz*

Burua	Osagarria	Euskara	Gaztelania
A	OZ	burua azken	burua lehen
P	IS	burua azken	burua lehen
INFL	A nagusia	burua azken	burua lehen
KONP	Mendeko perpausa	burua azken	burua lehen
A	Mendeko perpausa	burua azken	burua lehen

Jakina, (9)-ko hatsarrea ikuspuntu teoriko soil batetik, sinpleagoa da eta, horregatik, desiragarriagoa, osagai hauen guztien hurrenkera zehaztu lezaketen arau guztiak baino. Ondokoak dira berridazketa-arau guztiak:

(16)
a. AS → IS A
b. PS → IS P
c. INFLS → A INFL
d. KONPS → INFLS KONP
e. AS → INFLS A

Eta hauxe atzera ere (9) hatsarrea errepikaturik:

(17) SX → (SY) X

Bada, hatsarre horrek (16)-n zehaztu ditugun arau guztiak ordezkatu ditu, eta euskara, gaztelania zein beste edozein hizkuntzatako sintagmak sor ditzake egokiro, betiere gogoan badugu nola zehazten den Buru Parametroa, burua azken euskaraz bezala, ala lehen, gaztelaniaren antzera.

Ikusten duzunez, irakurle, garai bateko arauen eredutik hatsarrez osatutako eredura igaro gara X-marra teoriaren bitartez. Izenak ez digu axola handirik, betiere irakurleak gogoratzen badu teoria horretako hatsarreen bitartez sor ditzakegula nahi beste sintagma, ez A edota I bezalako kategoria lexikoak buru dituztenak, ezpada, INFL edota KONP bezalako funtzio-kategoriak buru dituztenak ere[17].

****

Hau abiapuntua baino ez da, gure hatsarre xumeak ez du-eta sintagmaren egitura osoa agortzen. Izan ere, erraztasunaren mesedetan, hatsarre bat bakarra dugula erakutsi berri dugu, baina hatsarre hori bakarrik ez da nahikoa sintagma egitura osatzeko. Eremu honetan ibilia den irakurleak badaki osagarriaz gain, buruak ezkerretara *espezifikatzailea* izan dezakeela. Hau da, hatsarrea apur bat handitu beharra dago, SZ sintagmari lekua egiteko, ondokoan bezala:

(18) SX → (SZ) (SY) X

Nolanahi ere, kontuan hartuz egitura bitarren aldeko apustua egiten dugula, alegia, bi osagaien aldekoa, eta ez hiruren aldekoa, badirudi (18) hatsarre hirutarraren ordez, bi hatsarre bitar proposa ditzakegula, hauexek:

(19) a. SX → (Espezifikatzailea) X´

b. X´ → (Osagarria) X

Gogoan izan burua dugula beti ardatz sintagmaren barruan —hau da, burubako asko dago, baina sintagmen artean, bat bera ere ez. Buru horrek bi *islapen maila* irits litzake, bata *X-marra islapena,* alegia, tarteko islapena, irakurleari ezaguna zaiona, burua eta osagarria biltzen dituena (19b), eta bestea, *X-ren islapen gorena,* sintagma bera edo SX, X-marrari espezifikatzailea gaineratuz sortzen dena (19a). Bi hatsarreok, oraingoan bai, nahikoa dira edozein sintagmaren berri emateko, eta halakoxe itxura hartzen dute, zuhaitzen bitartez adieraziz gero:

(20)



Espezifikatzaile gune deskubritu berria subjektuen kokalekua izaten da, ondoren, lehenago aztertutako datuei (13) berriro begiratuz erakutsiko dugun bezala:

(21) a.



b.



Zuhaitz horietan, inflexio sintagmaren espezifikatzaile gunean habia egin dute *nik* eta *yo* euskal eta erdal sintagmek. Sintagma biek subjektu gunea betetzen dute, eta subjektu dira beraz —izatez, gure iritziz, inflexio sintagmaren espezifikatzaile gunera iristen diren sintagmak dira subjektuak. Izan ere, subjektua eta osagarria bi gune sintaktiko baino ez direla pentsatzen dugu, hau da, ez inolako *zerak,* zer horiek ezar daitezkeen lekuak baino, eta bien artean, badirudi inflexio sintagmaren espezifikatzaile gunea dela subjektu gunea, edo bestela esanda, subjektua kokatzeko lekua.

Egia esan gure eremu teorikoan nagusiki, espezifikatzailea buruaren ezkerretara dagoen gunetzat jo izan da, eta ez da pentsatu izan subjektuak hizkuntzatik hizkuntzara lekua alda dezakeenik, buruak osagarriarekin egiten duen moduan. Euskara eta gaztelaniaren datuetara begira berriro, hala dela esan liteke, alegia, batean nahiz bestean, subjektua buruaren ezkerretara lerratzen dela. Ikusi bestela: berdin dio burua azkenik (euskaraz) ala lehenik (gaztelaniaz) agertzen den, bi hizkuntzetan, subjektu gunea, hau da, *nik* edota *yo* sintagmek betetzen duten lekua bera da-eta: INFL-marra deritzogunaren ezkerretara. Subjektu guneei begira, hortaz, orain artean lehenengoz, euskararen eta gaztelaniaren arteko ispilu-irudia urratu egiten da, (19)-ri begira ikus daitekeen bezala. Kontuan izan, berez inflexio sintagma diogunean, perpausaz ari garela, garai batean genioen bezala, eta irakurleak badaki, hizkuntza senak hala esanda, perpausari —edo, nahiago bada, inflexio sintagmari— nahitaezkoa zaiola subjektua, ez dago-eta subjekturik ez duen perpausik inongo hizkuntzatan[18]. Subjektua, hortaz, ezkerretara, hauxe da esandakoa laburbiltzeko leloa.

Nolanahi ere, hau dagoen-dagoenean eta ñabardurarik gabe esateak zalantzak sortuko dizkie irakurle eszeptikoei edo besterik gabe arretaz jarraitzen diguten irakurleei. Izan ere, ez dago asko pentsatu beharrik konturatzeko ez direla nahikoak gure erreminta biak —(19)-ko hatsarreak— subjektua eskuinetara lerratzen duten

hizkuntzetako perpausak sortzeko: nola sortu perpausik tzotzileraz (AOS), hixkarianeraz (OAS), edo askoz ere sarriago aurkitzen ditugun ASO hizkuntzetan, galeseran esaterako? Horietan guztietan, subjektua ez da ageri, (19)-ko hatsarreak erakusten duen *behar bezain ezkerretara.* Subjektua ez da, beraz, nahi genukeen bezain *ezkertiarra* munduko hizkuntzetan, eskuindar temosoa baino.

Subjektu *eskuinzaleko* hizkuntzak gogoan, Baker-ek (2001: 75) dio oso litekeena dela *Subjektu Aldearen Parametroa* (*Subject Side Parameter* ingelesez) ere egotea, eta parametro hori eta Buru Parametroa beregainak izatea. Pentsa gorago euskara eta gaztelaniaren gainean esan duguna: batean burua azkenik lerratzen da eta bestean, lehenik, baina hizkuntza bietan, subjektua lehen-lehenik agertzen da. Ez dirudi, hortaz, aldez aurretik burua non kokatzen den jakinda, subjektua non agertuko ote den asma dezakegunik. Jo dezagun, bada, Baker-ek arrazoi duela. Hala, adibidez, tzotzileraz edota malagasieraz, AOS hizkuntzak biak, hau da, buru-azkenak, baina baita era berean, *subjektu-azken* hizkuntzak, subjektuaren koka-lekua parametro berri honi esker azal liteke[19]. Itzuliko gara hurrenkera auzietara bidaian aurrera egin ahala —bereziki azken aurreko kapituluan.

Orain artean hizkuntzen oinarrizko hurrenkeraz hitz egin dugu. Dena den, oinarrizko hurrenkerari nagusiki begiratzeak ez du esan nahi hizkuntza berean bestelako hurrenkera posiblerik ez dagoenik. Begira bestela greziera klasikoaren ondoko adibideei (Whaley, 1997: 81):

(22) a. ho didaskalos paideuei to paidi-on SAO
DET irakaslea (NOM) irakasten dio DET ikaslea-AKUS
'Irakasleak irakasten dio ikasleari'[20]

b. ho didaskalos to paidion paideuei SOA
'Irakasleak ikasleari irakasten dio'

c. paideuei ho didaskalos to paidion ASO
'Irakasten dio irakasleak ikasleari'

d. paideuei to paidion ho didaskalos AOS
'Irakasten dio ikasleari irakasleak'

e. to paidion ho didaskalos paideuei OSA
'Ikasleari irakasleak irakasten dio'

f. to paidion paideuei ho didaskalos OAS
'Ikasleari irakasten dio irakasleak'

Bistan denez, balizko sei hurrenkera logikoetatik edozein aurki daiteke greziera klasikoan —ez zaizkio euskaldunari horren datu harrigarriak irudituko, euskaraz ere hauetarik edozein hurrenkera aurki liteke-eta, perpaus ez-gramatikalik sortu

gabe noski, itzulpenak irakurrita konturatuko zen bezala. Goian ere esan dugu ez dela euskara horren hurrenkera zurruneko hizkuntza eta hona hemen, bada, horren adibidea. Honekin erakutsi nahi duguna da, oinarrizko hurrenkeraz gain, bestelako hurrenkerak ere balitezkeela, eta hizkuntzalarion zeregina dela, hain zuzen ere, haiek deskribatu ez ezik, azaltzea ere bai, ahal den neurrian behintzat. Halakoetan, hizkuntzalariek oinarrizko hurrenkeraz gain, SAO kasu honetan, *eratorritako hurrenkerak* ere badirela diote, hau da, oinarrizko hurrenkera horretatik abiaturik, osagaiak *mugituz,* eta ez edonola eta ezta edonora ere mugituz, sortzen direnak.

Bada, hizkuntzaren batean, hurrenkera bakar batetik erator badaitezke gainerako guztiak, hurrengo galdera da ea esate batera, galeseraz edo irlanderaz dagoen ASO hurrenkera benetan ote den oinarrizkoa ala oinarrian SAO hurrenkera ote duten, eta horretatik eratortzen ote den ASO hurrenkera. Nola eta zergatik argitu beharko da bidaian zehar. Horrek ondo azalduko luke zergatik dauden ASO hizkuntzak askoz ere hurbilago SAO hizkuntzetatik, SOA hizkuntzetatik baino. Esaterako, galeserak preposizioak ditu, *da-etorri* bezalako aditz nagusi eta laguntzaile multzoak osatzen ditu, eta abar.

Bide honetatik abiatuta, agian AOS hizkuntzen hurrenkera bera ere, goian esan dugun bezala, munduko hizkuntzetan nagusitzen diren oinarrizko SAO eta SOA hurrenkeretatik eratorria dela pentsa liteke.

****

Badira, hala ere, aurreko parametro orokorretik at gelditzen diren datuak. Salbuespenak? Bai eta ez: askotan, eta zientzien historian maiz errepikatzen den gertaera da hau, salbuespenek azpiarauak ezkutatzen dituzte. Hizkuntza guztietako sintagma guztietako buruak ez dira beti haien osagarrien alde berberean kokatzen. Ez dugu oso urrun joan behar horretaz jabetzeko, euskaraz mendeko perpausak markatzen dituzten menderagailu guztiak, esate baterako, ez baitira beren perpausen eskuinetara agertzen:

(23) a. Nahiz eta hori esan...
b. Hori esan arren...

(24) a. ... hori esan du eta/-elako
b. ... ze hori esan du
c. ... zeren hori esan baitu

(25) a. Hori esan duzun-ez
b. Nola hori esan duzu(n)...

(26) a. ... irakaslea etorri d-ela
b. ... ezen irakaslea etorri d-ela

Ikus daitekeenez, batzuetan ezkerraldeko juntagailu hauek eskuinaldeko partikulekin batera agertzen dira; eta bikoizketa bera topatzen dugu erlatibozko egitura "klasikoetan"[21]:

(27) gizona zeina etorri baita

Antzeko datuak beste hizkuntzetan aurkitzea ez da zaila. Turkiera oso OA hizkuntza homogeneoa dugu, euskarak bezala konplementatzaileak eskuinetara kokatzen dituena. Baina, mendeko perpaus denboradunak sortzeko, euskarazko *-(e)la* perpausen ordainak, ezkerraldean azaltzen zaigu konplementatzailea[22]:

(28)	Biliyorum	[	ki	Hasan	Istakoz-u	ye-di]
	badakit		ezen	Hasan	otarraina-AKUS	jan-IRAG

'Badakit Hasanek otarrainak jaten dituela/zituela'

Adibide hori arreta (eta informazio) gehiagoz aztertuz gero, espero dugunaren kontrako datu horren zergatia asmatzen has gaitezke. Mendeko perpausaren hasieran agertzen den *ki* horrek badu gaztelaniazko *que*-ren antz handia, eta hau ez da kasualitate hutsa. Tipologikoki eta genetikoki, $*k^{w}i$- erro protoindoeuroparretik eratortzen da konplementatzaile hau, eta Turkia bai geografikoki bai eta politikoki Europako atarian egon arren, turkiera ez da familia indoeuroparreko hizkuntza. Horrek adierazten digu morfema hau mailegua izan daitekeela, eta, historikoki badakigu herri turkiarrek kultura musulmana bereganatu zutela, eta, besteen artean, indoeuroparra den pertsieraren eragina handia izan zela hitz maileguetan ere. Beraz, honelako joan-etorri historikoek lausotu egiten dute goian marraztu dugun panorama.

Baina, oraindik ere, turkieraren datu hauek hizkuntzen ezaugarrietan parametroek ezartzen dituzten joera unibertsalen indarra erakusten dute. Turkieraren kasua ezin argiagoa da honetan, hemen mailegua ez baita konplementatzailea eta bere kokapena, konplementazio-eredu osoa baizik. Lehenengo eta behin, mendeko perpaus gehienak nominalizazioak dira turkieraz. Aurreko perpaus bera esateko beste modu normal bat *Hasanen otarrainen jatea* bezalako zerbait da, ondoko adibidean ikusten denez:

(29)	Hasan-I	Istakoz-u	ye-di	san-Iyor-um
	Hasan-AKUS	otarraina-AKUS	jan-IRAG	sinetsi-OR-1

'Hasanek otarraina jan izana sinisten dut'

Beraz, *ki*-dun perpaus denboraduna aurkitzea harrigarria da. Gainera, konplementatzailea, perpausaren ezkerretara agertzeaz gain, *ezen* bezain atipikoa da, besteak aditzei itsatsitako atzizkiak baitira, *ki* hitz beregaina den bitartean. Areago, mende-

ko perpaus bera ez da nominalizazioak bezala aditz aurretik agertzen, osagarriak agertzen diren kokalekuan, aditzaren eskuinetara baizik. Beraz, konplementatzailea gabe, eredu osoa hartu du ukitutako hizkuntza batetik[23]. Oporretara joateko pakete osoa bezala, konplementatzailea, beronen kokapena, perpausaren denboratasuna eta perpausak aditz nagusiarekiko duen kokapena *erosi* zituen turkierak. Denek ez dute batera joan behar, baina esanguratsua da oso *ki* konplementatzailearen beraren kokapena eta *ki*-dun perpausaren kokapena goiko gure parametroak agindu bezala lotzea. Salbuespenen barruan ere batasunaren aldeko joerak.

****

Inguruko beste hizkuntzen eragina ez da parametroak inposatzen dituen koerlazioen konsistentzia alda dezakeen faktore bakarra. Inoiz ere ez gara ibai berean murgiltzen, eta mantso eta astiroago bada ere, hizkuntzak ere aldatuz doaz, beharbada hiztunak nekez konturatzeko moduan, baina gelditu ezinik. Hizkuntzak ez dira betidanik eta betiko SOA edo SAO; batetik besterako "bidean" ere egon daitezke. Ibaietako uraren mugimendua baino motelagoa da mugimendu hau, baina bai kontinenteen jitoa baino azkarragoa ere! Hizkuntza gehienetarako datuak falta zaizkigu, idaztea, asko jota, azken mendeetako garapena izan baita. Baina txinerarako datuek bi mila baino urte gehiagoko sakontasun historikoa eskaintzen digute. Li eta Thompson-en (1981) arabera, hizkuntza hori SAOtik SOArako bidean abiatu da. Hitz hurrenkera aldakorra bada ere, gaur egun txinera SAO hizkuntza da nagusiki. Hala ere, erlatibozko perpausak, euskaraz eta, oro har, bakarrik SOA hizkuntzetan gerta daitekeen bezala, izenaren ezkerretara agertzen dira. Era berean, galdera-partikulak, konplementatzaileen lekuan agertu ohi direnak, perpausaren eskuinetara kokatzen ditu:

(30) a. 會 中 文 的 那 個 小 孩 是 我 的 兒 子
Hui zhongwen de nèi ge xiao hái shì wo de ér zi
jakin txinera GEN hori KLAS mutila da ni GEN semea
'Txineraz hitz egiten dakien mutil hori nire semea da'

b. 你 喜 歡 這 個 電 影 嗎
ni xihuan zhèi ge diàn ying ma?
zu gustatu hau KLAS filma GALD
'Gustatu zaizu film hau?'

Inguruko eraginak eta aldaketa diakronikoak inkonsistentzia batzuen (edo askoren) iturburuak badira ere, argitzen dituztenak baino arazo interesgarriagoak sortzen dituzte. Eman dezagun euskarazko erlatibo mota batzuk (*gizona zeina etorri baita,* esaterako) hizkuntza erromantzeen eraginarengatik garatu direla. Orduan galdera bat plazara daiteke berehala: zergatik sentitu da egitura honetan

inguruko hizkuntzen oihartzuna eta ez litezkeen beste batzuetan[24], hala nola jo dezagun, artikulua izen sintagmaren aurretik jartzeko balizko joera batean?[25] Beste alde batetik begira diezaiokegu arazoari. Munduan zehar denetariko hizkuntzak daude ukipen-egoeretan, eta, ziur asko, mota batetik besterako bideko puntu guztietan dauden hizkuntzak ere aurki ditzakegu. Orduan, badirudi ezinezkoa izango litzaigukeela inongo koerlaziorik aurkitzea, *edozein* hurrenkera faktore hauetako baten eraginaz aldatuta egon litekeelako. Baina, dakigunez, koerlazioak, egon, badaude. Oso indar gogorrak daude jokoan hitz hurrenkerak deskriptiboki OA edo AO deitzen diren prototipoen erara antolatzeko: Buru Parametroaren eragina hizkuntza aldaketa eta kontaktuaren eraginaren gainetik ere nagusitzen da.

****

Bidaian goaz, irakurle. Itzulbide bakarra aurrera jarraitzea duzu. Ingurura begira konturatu zara zein diferenteak diren hizkuntzak, eta diferentziez baliatuz, hizkuntza motak ere bereizi dituzu, sailkatu nahian-edo, tximeleta-biltzailearen antzera. Dena delako ezaugarriari begira, subjektu, osagarri eta aditzaren hurrenkerari begira, adibidez, mota logiko guztiak imajinatu dituzu, baina munduko hizkuntzen artean bilatu nahi izan dituzunean, batzuk baino ez dituzu aurkitu, lehian nabarmen nagusitu izan balira bezala; beste batzuen testigantzak, berriz, nekez aurkitu dituzu. Bitxiak dira eta, are, urriak, aurrekoen aldean. Zergatik ote?

Nolanahi ere, hizkuntzak benetan ezberdinak direla konturatu arren, ezberdintasunek ez zaituzte itsutu: ezberdinak dira, bai, baina baita berdinak ere. Itxuraz baino askozaz ere berdinago. Hatsarreetan berdin-berdinak, eta parametro pare baten balioetan baino ez, ezberdinak. Eta berdintasuna ez zaizu zorizkoa iruditu, ezin zorizkoa izan. Oso bestela, zerbait unibertsala izan behar dela iruditu zaizu, eta hortaz, komuna, baita hizkuntzarik ezberdinenen artean ere. Pentsa, euskara eta gaztelania, ustez horren ezberdinak zirenak, bata bestearen ispilu-irudia azkenean… Halaxe pentsatu duzu eta bilaketa unibertsalzaleari ekin diozu, hatsarreak aurkitu nahian. Nolanahi ere, diferentziak izan badira, eta txanponari hatz erakuslearen eta hatz *toto*aren artean buelta eman eta ifrentzuari begiratu diozu orduan, parametroren batek bereizi ote dituen galdezka. Eta halaxe izan da. Parametro bihurri batek sortu ditu iskanbilak. Parametroak, badakizu, diferentziazaleon patua.

Baina bidaia hasi baino ez da egin.

1. Postposizioa zer den ez dakien irakurleari momentuz lasai egoteko eskatzen diogu. Kapitulu honetan beherago arduratuko gara horretaz. Oraingo momentuan familia eta eskualdearekiko soslaiak nola saihestu da gure auzia.

2. Comrie (1988: 129).

3. Whaley (1997: 82).

4. Azken bi hauen aipamena Baker-engandik (2001: 128) jaso dugu.

5. Whaley (1997: 81).

6. Bien aipamena Derbyshire-ri (1985: 99) zor diogu. Biekin batera, hauexek ere aipatzen ditu egile berak: apalaiera, arekuna (taulipang), bakairiera, hianakotoera eta panarera. Denak dira Hego Amerikako hizkuntzak, Ipar Amazonia ingurukoak eta hixkarianera eta makuxiera bezalaxe Karibe familiakoak. Osagarria subjektua baino lehenago kokatzen duten hizkuntzetarako ikus baita G. K. Pullum-en (1981) bakarkako lana.

7. Aissen (1987: 3).

8. Whaley 1997: 82.

9. Derbyshire (1985: 31).

10. Jae Song-ek (2001: 79) Tomlin-en lana baino lehenagokoetan jasotzen diren hizkuntza moten maiztasunak erkatzen ditu taula oso zehatz batean, antzeko ondorioetara helduz.

11. Jatorrizko testuak halaxe dio: *«Universal 1. In declarative sentences with nominal subject and object, the dominant order is almost always one in which the subject precedes the object».*

12. Jatorrizko testuak zera dakar: *«Universal 4. With overwhelmingly greater than chance frequency, languages with normal SOV order are postpositional».*

13. Garai batean, buruak osagarria azpikategorizatzen zuela genioen, badaezpada, irakurleren bati burura etorriko balitzaio.

14. Gurea mendekua, irakurle! Zenbat aldiz ez ote dugu entzun euskaraz dena alderantziz esaten dela? Bada, ez, euskaldunon begietara, gaztelania da, ez euskara, gauzak alderantziz adierazten dituena.

15. Parametroak ez du, jakina, ez euskara ez gaztelaniaren aipamenik egiten.

16. Mark Baker-ek (2001: 60) japoniera eta ingelesa konparatzen ditu antzeko taula batean. Hori bera da gurea sortzeko erabili dugun eredua.

17. Nahikoa laburbildurik eta itxuraz errazki ematen dioguna irakurleari lan teoriko sakon eta zehatzen ondorioa da. Funtzio-kategorien aurkikuntza bera eta kategoria lexikoekin sintagmak eratzeko erakusten duten antzekotasuna ez da horren begi-bistako gauza.

18. Bai, bai, badira *pozik gaude* edo *llueve* bezalakoak, ageriko subjekturik erakusten ez dutenak, baina horiexetan, subjektua ezkutuan edo inplizituki dagoela uste dugu hizkuntzalariok. Subjektua egon badago, ikusten ez badugu ere.

19. Liburuan aurrera egin ahala, parametroak astiro-astiro ulertzen, irakurleak Mark Baker-en (2001: 170,183), liburura jo dezake ikustearren nola jasotzen diren Buru Parametroa eta Subjektu Aldearen Parametroa *parametroen hierarkian*

20. Berez, euskaraz hurrenkera arrunteko perpausa eman beharko genukeen hemen, alegia, *irakasleak ikasleari irakasten dio,* baina perpausetik perpausera dagoen aldakortasuna erakutsi nahi izan dugunez, grezieraren perpausetan osagaiek erakusten duten hurrenkerari jarraituz egin dugu itzulpena.

21. Ez dago hain garbi izena eta modifikatzen duen perpausa izen sintagma bakar baten elementuak direnik. Determinatzailea (hemen *-a*) izen sintagma baten eskuineko muga markatzen duen elementua bada, goiko erlatibozko perpausa izen sintagmari itsatsitako elementu apositiboa izango da. Beraz, sintagma pare bat daukagula esan genezake.

22. Jaklin Kornfilt hizkuntzalari turkiarrari zor dizkiogu datu hauek, EUROTYP egitasmoaren batzarretan aurkeztuak.

23. Eta beste horrenbeste esan daiteke erlatibozko perpausez: izenaren ezkerreko perpaus denboragabeez gain (*ikusitako gizona*ren antzekoez gain), izenaren eskuineko *ki*-dun erlatibo denboradunak ere aurkitzen dira turkieraz.

24. Irakurleari azkar sor dakioke erantzuna: erlatibo hauek dena erlatibatzen uzten dutelako, gure izen aurrekoek ez bezala. Itziar Lakak diosku litekeena dela hauek itzultzaileek sortuak izatea, ez baitira aurkitzen ahozkotasunari lotutako testigantzetan.

25. Bizkaieraren azpieuskalki batzuetako *au buruau/au burua* formetan erakuslea aurretik eta atzetik agertzen zaigu. Ez dugu honelakoetan inguruko hizkuntzen eragina zertan ikusi behar, erakusleen bikoizketa hauek ezagunak baitira. Makuera hizkuntza bantuarrean horixe aurkitzen da:

(i) ile ipuri (e)le
hori ahuntz hor

Non hizkuntza akusatiboetako hizkuntzalariek ezusteko hizkuntza ergatiboak aurkitu zituzten

III. kapitulua

Istorio gazi-gozo askok emakume izena dute eta gure oraingoak ere hala du: Auda. Bai, Verne-ren liburuaren amaiera aldera eta gurearen hasieran Phileas Fogg-i emaztetzat hartuko ote duen galdetzen dion bera. Emakume ederra inondik ere —nola bestela?—, parsiarra zen izatez, Bombayko merkatari baten alaba. Hezkuntza ingelesa izan zuen, ia europarra izan zitekeela dio Verne-k. Honaino, gutxi gorabehera, zati zaporegabekoa. Kontua da, umezurtz gelditu ondoren, Budelkundeko raja zahar batekin ezkontzera behartu zutela. Handik hiru hilabetera alargundu zen, eta jakinda haren ondotik etor zitekeena zer zen alde egin zuen, baina rajaren senideek laster batean harrapatu eta sakrifiziora kondenatu zuten, sandalo eta olio lurrintsuengatik ere, sakrifiziorako txondorrean hiltzera —emakume askoren patua, txondorra izan zein ez. Hala, bere senarraren hilotzaren ondoan etzanarazi zuten eta su eman zioten txondorrari, aurrez pentsatuta zuten bezala, baina hara non istorioak ezustekoa eman zien ohiturazaleei:

> Un cri de terreur s'éleva. Toute cette foule se précipita à terre, épouvantée. Le vieux rajah n'était donc pas mort, qu'on le vît se redresser tout à coup, comme un fantôme, soulever la jeune femme dans ses bras, descendre du bûcher au milieu des tourbillons de vapeurs qui lui donnaient une apparence spectrale? […]
>
> Ce ressuscité arriva ainsi près de l'endroit où se tenaient Mr. Fogg et Sir Francis Cromarty, et là, d'une voix brève : « Filons !... » dit-il.
>
> C'était Passepartout lui-même qui s'était glissé vers le bûcher au milieu de la fumée épaisse ! C'était Passepartout qui, profitant de l'obscurité profonde encore, avait arraché la jeune femme à la mort ! [...]
>
> Un instant après, tous quatre disparaissaient dans le bois, et l'éléphant les emportait d'un trot rapide.
>
> *Oihu bat entzun zen. Jende guztia, ikaraz beterik, lurrean etzan zen. Raja zaharra ez zen hil, beraz. Han zegoen, mamu bat bezala, bere emazte gaztea besoetan zuela, inguruko lurrunak mamu itxura ematen ziola.*
>
> *Berpiztutakoa Fogg jauna eta Sir francis Cromarty zeuden aldera hurbildu zen, eta han, hitz bakar bat esan zuen:*

–Ospa!

Passepartout bera izan zen lurrunaz babestuta txondorrean sartu zena! Passepartout bera izan zen iluntasunaz baliatuz neska gaztea heriotzetik salbatu zuena! […]

Handik une batera laurak basoan desagertu ziren, elefanteak arineketan eramaten zituela[1].

Eta istorioaren goxoak, ez historiarenak, irribarrez utzi gaitu momentu batez. Ezustekoa eman zigun eta gauzak itxuraz ziruditen bezalakoak izan beharrean, oso bestelakoak ere izan zitezkeela erakutsi zigun: *Raja zaharra? Bai horixe, Passepartout ausarta!* Bada, halako ezustekoak hizkuntzalariek eurek ere izan dituzte historian zehar. Ez dramatik atera eta zorion betera eraman dituztenak, baina bai, gutxienez, tradizioz uste eta pentsatzen zutenarekin nolabait haustera eraman dituztenak. Hizkuntza guztiak ez dira, uste zenaren kontra, indoeuropar hizkuntza asko eta askoren modukoak. Fogg-en ingelesean eta Passepartout-en frantsesean, adibidez, berdin dio subjektua aditz iragankorrekoa den ala aditz iragangaitzekoa, berdin-berdin adierazten dira guztiak. Are, subjektua eta osagarria morfologikoki eta sintaktikoki bereizten dira. Tradizio linguistikoak halakoxe hizkuntzetatik edan du luzaz, 2. kapituluan laginaz hitz egitean esan dugun bezala, eta hizkuntzalariei pentsarazi die munduko hizkuntza guztiak antzekoak direla horretan. Ezusteko ederra bai, hartu zuten, konturatu zirenean raja zaharraren gorpua Passepartout bihurriaz berpiztu zela.

****

Gure istorioan, raja zaharra ingelesaren subjektua da, edo frantsesarena, edo gaztelaniarena. Hizkuntza horietan guztietan, subjektuak berdin adierazten dira aditz iragankorrekin zein iragangaitzekin. *Ein?* Ea, goazen urratsez urrats. Lehenik eta behin, aspaldi-aspaldiko gramatika-lezio txiki bat izan behar du gogoan irakurleak abiatu baino lehen. Aditzen artean, badira *ikusi* bezalakoak, eta *ikusi* aditzak gauza bi adierazi behar ditu derrigorrez: nork ikusi duen eta zer ikusi duen. Bi gauza horiei *argumentu* deritzegu. *Nork ikusi duen* subjektuaren bitartez adierazten dugu, eta *zer ikusi duen* osagarriaren bitartez —gogoratu aurreko kapituluan dagoeneko esandakoa. Halako aditzei euskalariek *nor-nork* aditzak deitu izan diete, baina guk besterik gabe, aditz iragankorrak deituko diegu. Nolanahi ere, aditz guztiak ez dira iragankorrak, badira era berean *erori* bezalako iragangaitzak, —*nor* aditzak deitu izan zaienak gure artean. Halakoetan, *nor* edo *zer erori* esatearekin nahikoa dugu. Argumentu bakarreko aditzak dira. Bada, begira diezaiegun ingelesaren ondoko datuei eta saia gaitezen goian esandakoa adibideen bitartez ikusten.

(1) a. Fogg sees her
Fogg ikusten du hura.FEM
'Foggek hura ikusten du'

b. Fogg falls down
Fogg erortzen da
'Fogg erortzen da'

Ea ba, *see* 'ikusi' aditza dugu lehen adibidean, eta *Fogg* eta *her* bi argumentuak. Iragankorra, beraz. *Fogg* argumentuari Ag labela emango diogu eta *her* argumentuari O. Bigarrenean *fall (down)* 'erori' aditz iragangaitza, eta argumentu bat baino ez, *Fogg*. Argumentu bakartiari S labelaz deituko diogu, tradizioz ohi den bezala. Tira ez da zaila, ezta?

Gramatika-lezio ia ahaztuxearen ostean, kontua da ikustea nola adierazten ote diren ingelesez subjektu eta osagarriak, hau da, ea nolabait *markatzen* ote diren eta markatuz gero, nola. Markatu diogunean esan nahi duguna da ea badagoen *arrasto* morfologikoren bat, *marka* bat alegia, subjektua eta osagarria adierazteko, zeren argumentuek, argumentu diren heinean, kasu markak erakusten dituzte, eta kasu marka horiexei begira, hain zuzen, jakin dezakegu hizkuntzalariok zein den zein, hau da, bietarik zein den subjektu eta zein osagarri. Bada, begiratu gora berriro ere.

Has gaitezen subjektuarekin. *Fogg* da bietan subjektua. Ez dirudi *ikusi* aditz iragankorra izateak edo *erori* iragangaitzak ezertan aldatzen duenik Fogg-en itxura: bietan, Fogg bat bera da. Hemen, esango du irakurleak, markarik ez da inon ikusten, ez dago kasuaren arrasto morfologikorik inon. Konforme, nolanahi ere, ageriko markarik ez erakusteak ez du esan nahi inongo markarik ez duenik. Halakoetan, Ø marka dagoela diogu hizkuntzalariok, ezer ez dagoela dirudienean ere, zerbait egon badagoela uste dutenetakoak gara-eta. Laburbilduz, subjektuak Ø marka dauka ingelesez. Begiratu orain osagarriari *her* izenordain femeninoari. Forma bihurri samarra da, ezin ditugulako berez izenordaina eta kasu marka erraz bereizi, baina badakigu izenordainak oso bestelako itxura izango zukeela subjektu gunean agertu izan balitz. Esate batera, *she sees Fogg* 'hark Fogg ikusten du' perpausean izenordain femeninoak *she* itxura dauka eta oso bestelakoa da, beraz, osagarri gunean agertzen denean erakusten duena —*her*. Kasu marka ezin bereizita ere, *her* izenordainak kasu marka duela diogu, *she* izenordain berarena ez bezalakoa, gainera. Hauexek bezalako adibideetan, eta oro har, ingelesez subjektuari —*Fogg, she*— ezartzen zaion kasu markari *nominatiboa* deritzogu eta osagarriari ezartzen zaionari, —*her*— *akusatiboa*. Horregatik, kasu sistema nominatibo-akusatiboa izateagatik, honi dagokionez ingelesa bezalako hizkuntzak direnei *akusatiboak* edo, izen-abizenez, *hizkuntza nominatibo-akusatiboak* deritzegu.

Tipologoen ikerbideari ekinez gero, pentsatuko bagenu ea zein diren Ag, O eta S markatzeko dauden bide logikoak, ingelesarena bide logiko horietatik bat izango litzateke:

(2)



Ingelesaren testigantzetan jasotzen den sistema honek subjektuak, Ag eta S, berdindu egiten ditu O-tik bereiziz: hasierako biei nominatibo kasua ezartzen die eta osagarriari, berriz, akusatiboa.

Halako hizkuntzen datuekin ohitu samar zeuden hizkuntzalariak, eta egia esan ez zegoen pentsatu beharrik gauzak beste modu batekoak izango zirenik hizkuntza ezezagunei begiratzen hasiz gero. Adibidez, Nikaraguako kostalde atlantikoko miskitoerari begiratu izan baliote, ingelesaren antzeko kasu sistema bat aurkituko zuketen. Begiratu bestela:

(3) a. Waitna ba sula ba-ra saban
Gizona DET (NOM) oreina DET-AKUS tiro egin zion
'Gizonak oreinari tiro egin zion'

b. Sula ba plapan
oreina (NOM) korritu
'Oreinak korritu zuen'

Nahi baduzue, morfologikoki, *are errazagoa* da ikustea kasu marka zein den miskitoeraz: nominatiboaren marka ingelesez bezala Ø eta akusatiboaren marka *-ra.* Ez diogu esan irakurleari oraindik, Ø markako kasuari, alegia, ezkutuko kasuari *kasu ez-markatua* deritzogula hizkuntzalariok eta, aldiz, *-ra* bezalako ageriko kasuari *kasu markatua.* Ingelesak zein miskitoerak erakusten duten bezala, kasu ez-markatua nominatiboa izan ohi da hizkuntza akusatiboetan eta kasu markatua akusatiboa.

Kontua da tradizioak irakatsitakoa noizbait hautsi egin daitekeela, eta orduan, bai, ustekabeak. Ibilbide luzea egin dute hizkuntzalariek Australiako yalarnngera moduko hizkuntzetara heldu arte, baina hau bezalakoetan ez da ba gorpua piztu Passepartout bihurtuz! Adibideak Jae Jung Song-en (2001: 144) eskuliburutik jaso ditugu:

(4) a. *ŋa-ṭu* kupi waḷa-mu
ni-ERG arraina (ABS) hil-IRAG
'Nik arraina hil nuen'

b. *ŋia* waka-mu
ni (ABS) erori-IRAG
'Ni erori nintzen'

c. kupi-*ŋku*[2] *ŋia* taka-mu
arraina-ERG ni (ABS) kosk.egin- IRAG
'Arrainak kosk egin zidan'

Yalarnngeraren adibideetan, *ŋa* 'ni' pertsona izenordaina subjektua izanik ere lehen bi perpausetan (a, b), ez da bietan berdin markatzen: perpaus iragankorrean, -*ṭu* kasu marka ezarri zaio, eta iragangaitzean, *ŋia* forman, Ø. Arranopola! Subjektua bietan, eta batean eta bestean kasu marka ezberdin bi? Bada, halaxe da, bai. Subjektuak izanik ere biak, ez dagokie kasu marka bat biei, ezpada kasu marka bana. Perpaus iragankorrean (a) subjektuari ezartzen zaion -*ṭu* kasu markari *ergatiboa* deritzogu, eta perpaus iragangaitzean erakusten duenari, berriz, *absolutiboa*. Baina egon, hemen ez da-eta ustekabea agortzen. Begiratu orain (c) perpausari. Bertan, *ŋia* 'ni' pertsona izenordaina azaltzen zaigu berriro, eta, gainera, *waka-mu* 'erori' aditz iragangaitzeko subjektua bezalaxe markaturik, baina oraingoan, ez da subjektua, osagarria baino! Hala da, bai, yalarnngeraz, subjektuek kasu marka bi erakusten dituzte —ergatiboa eta absolutiboa—, ez bakarra, eta gainera, kasu marka bi horietako bat —absolutiboa— osagarriari ere ezartzen zaio? Jai orduan! Ezusteko hizkuntza hauei *ergatiboak* edo *ergatibo-absolutiboak* deritzegu hizkuntzalaritzan, eta berez, Ag, O eta S hiru osagaiak markatzeko beste aukera logikoetako bat baino ez dute jarraitzen:

(5)



Hizkuntza ergatiboetan, S perpaus iragangaitzeko subjektua eta O osagarria berdin markatzen dira, eta beste modu batez adierazten da Ag perpaus iragankorreko subjektua. Bada, horixe da, hain zuzen, australiako hizkuntzak erakutsi diguna[3].

Yalarnngeraren datuok ez zaizkio gure irakurleari irudituko hizkuntza akusatiboetako hizkuntzalariei bezain harrigarriak: euskaraz ere subjektuak ez dira berdin markatzen aditz iragankorreko eta iragangaitzeko perpausetan, eta aditz iragangaitzeko subjektuak osagarria bezalaxe markatzen dira. Begiratu, bestela ondoko perpausetan:

(6) a. Nik arraina harrapatu dut
Ni.ERG arraina (ABS) harrapatu INFL

b. Ni uretara erori naiz
ni (ABS) ura.P erori INFL

c. Arrainak ni madarikatu nau
arraina.ERG ni (ABS) madarikatu INFL

Euskararen kasu markak nola atontzen diren ikustea besterik ez dago konturatzeko zein antzekoak diren hizkuntza biak. Harridura, beraz, beste batzuena da, ez gurea[4].

Honaino helduta, bi dira bereizi ditugun hizkuntza motak, akusatiboak eta ergatiboak, kontuan izanik zein diren erakusten duten kasu sistema. Aukera logiko bi bina testigantzarekin: akusatiboa ingelesez eta miskitoeraz, eta ergatiboa yalarnngeraz eta euskaraz. Dena den, ez dira hemen agortzen argumentuak atontzeko aukera logiko guztiak. Hona hemen, logikoki egon litezkeen bestelako sistemak ere:

(7) a.



b.



c.



Bada, logikoki baliteke egotea hiru osagaiak berdin markatuko lituzkeen sistema, tipologoek *neutroa* deritzotena (a); baita hiru osagaiak bata bestetik bereiziko lituzkeen sistema *hirukoitza* ere (b). Aukera logikoetan azkenak Ag eta O berdinduko lituzke S-tik bereiziz. Hurrengo galdera da ea sistema logiko hauen testigantzarik badagoen munduko hizkuntzetan. Badira, bai. Sistema neutroa —Ag, S zein O izan berdin markatzen dituena— txineraz edo mandarineraz aurki daiteke. Txineraz, singularreko lehen pertsona izenordaina *wǒ* da, bai predikatu iragangaitzeko subjektua denean (a) bai iragankorrekoa denean (c). Hori nahikoa ez eta osagarria den perpausean ere, *wǒ* forma bera erakusten du (d).

(8) a. 我 是 中 國 人
wǒ d shì zhung gúo rén
ni naiz erdi herri pertsona
'Ni txinatarra naiz'

b. 你 是 中 國 人
nǐ shì zhung gúo rén
zu zara erdi herri pertsona
'Zu txinatarra zara'

c. 我 愛 你
wǒ ài nǐ
ni maite zu
'Nik zu maite zaitut'

d. 你 愛 我
nǐ ài wǒ
zu maite ni
'Zuk ni maite nauzu'

Baina ez gaitezen itsutu, aukera logiko horien testigantza oso-oso urria da. Sistema hirukoitzaren aztarnak, esaterako, wangkumareraz, galalieraz eta duundidjawueraz[5] baino ezin dituzte aurkitu[6]. Mallinson eta Blake-ren (1981: 51) datuak dira ondokoak wangkumareraz —hiru kasu marka aurkituko ditu bertan irakurleak:

(9) a. kana-ulu kalka-*ŋ*a titi-nana
gizona-ERG jo-IRAG txakurra-FEM.AKUS
'Gizonak txakurra jo zuen'

b. kana-ia palu-*ŋ*a
gizona-NOM hil-IRAG
'Gizona hil zen'

Azkenik, Ag/O vs S sistema, arrazoi diakronikoak edo historikoak tarteko sortzen omen da, sistema ergatibotik akusatiborako bilakabidean eta iraniar hizkuntza batzuetan baino ez omen da bere testigantzarik. Hala dio, behintzat, Bernard Comrie-k (1981: 181).

Ez dugu uste, beraz, erratuko garenik irakurleari diotsagunean, munduaren *kasu geografia* akusatiboa edo ergatiboa dela nagusiki. Dixon-ek ergatibotasunari buruzko lan klasikoaren hitzaurrean, hizkuntza ergatiboen artean ondokoak ditu aipagai beste batzuen artean: euskara; kaukasoar hizkuntzak, hala nola georgiera; burushaskiera, Pakistaneko hizkuntza isolatua; paleo-siberiar hizkuntzetatik, txukotko-kamtxatkar hizkuntza familiako txuktxiera; baita inuitera eta, oro har, eskimo-aleut hizkuntzak, eta hotzetik epelera goazela, maiar familiako hizkuntzak, hala nola tzeltalera edo tzotzilera… Eta munduko hizkuntza akusatiboak lirateke definizioz aipatzen ez ditugunak —ez guztiak, jakina— eta Europan, gehien-gehienak, tartean gure istorioko protagonistena ere —Fogg-en ingelesa eta Passpartout-en frantsesa, hasieran genioen bezalaxe.

Hortaz, hizkuntza akusatiboen eta ergatiboen gainean hausnartzen dute nagusiki gramatikariek, beste aukera logikoak alde batera utziz. Ingelesak edo miskitoerak islatzen duten fenomenoari *akusatibotasuna* deitzen diote eta euskara edota inuitera bezalako hizkuntzek erakusten dutenari, berriz, *ergatibotasuna*. Fenomeno bi horiek ez dira morfologikoki kasu sistemen bitartez bakarrik adierazten. Geroago ikusiko dugunez, *komunztadura*ren bitartez ere egin daiteke hizkuntza ergatiboen eta akusatiboen arteko bereizketa, baina guk komunztadura kontuak gerorako utziko ditugu, 5. kapitulua heltzen denerako. Nolanahi ere, irakurleak oso kontuan izan behar duena da kasuaren bitartez —eta baita komunztaduraren bitartez ere— adierazten den ergatibotasuna *ergatibotasun morfologikoa* dela, eta ondo bereizi beharra dagoela *ergatibotasun sintaktikoa* deritzonetik. Zertxobait itxaron beharko du irakurleak ulertzeko zein den ergatibotasun sintaktikoaren muina. Momentuz, nahikoa du jakitearekin badirela kasua —eta komunztadura— alde batera, subjektu eta osagarrien jokabidea erakusten duten bestelako egitura eta fenomeno sintaktikoak, eta egitura horietan, batzuetan subjektu biek berdintsu jokatzen dutela osagarritik bereiziz —Ag eta S vs O—, eta bestetan, aditz iragangaitzeko subjektua eta osagarria direla bateratzen direnak, aditz iragankorreko subjektutik ezberdinduz —S eta O vs Ag. Morfologia ergatiboa

duten hizkuntzen artean, hau da, kasu sistema ergatiboa erakusten dutenen artean, badira, egitura sintaktiko horietan, kasu markengatik ere, subjektu biak berdintzen dituztenak, eta horiexei *hizkuntza sintaktikoki akusatiboak* irizten diegu; aldiz, aditz iragangaitzeko subjektua eta osagarriak sintaktikoki ere bateratzen dituzten hizkuntza ergatiboak ere badira, eta horiek aurrekoak ez bezala, *sintaktikoki ergatiboak direla* diogu. Baina ez dezagun estropezu egin hasiaz batera. Urratsez urrats joango gara hemen esandako guztia erakusten, inor bidean gal ez dadin.

Ur handitan sartu baino lehen, behatz-puntak uretan sartuz bakarrik, irakurlea konturatuko zenez hemen berriro ere hizkuntzen artean dagoen aldakortasunaz ari gara, eta izango du gogoan *kontuak* hizkuntzatik hizkuntzara aldatuz gero, parametroa dela erabili beharreko erreminta. Buru Parametroaz ari ginen hitz hurrenkera aztergai generabilen gaian. Oraingo honetan *Ergatibotasunaren Parametroaz* hitz egingo dugu, kasu markaketak munduko hizkuntzetan sorrarazten duen aldakortasunaren mugak zehazteko. Hona hemen:

(10) *Ergatibotasunaren Parametroa*

a. Perpaus iragankorreko subjektua hautatu predikatu iragangaitzeko subjektua bezalaxe markatzeko (miskitoeraz).

b. Predikatu iragankorreko osagarria hautatu predikatu iragangaitzeko subjektua bezalaxe markatzeko (euskaraz).

Parametroaren (a) balioa hautatuz gero, orduan, miskitoera edo ingelesa bezalako hizkuntzak izango ditugu —baita gaztelania ere; (b) balioaz finkaturik, parametroak euskara edo yalarnngera bezalako hizkuntza ergatiboak sortuko ditu.

****

Subjektu eta osagarriak kasuaz nola markatzen diren aztertu dugu goiko atalean, baina lehengo kapituluan ere izan ditugu mintzagai, zuhaitzeko zein adarretatik eskegi behar diren azaldu diogunean irakurleari: inflexio sintagmaren espezifikatzaile guneari iritzi diogu subjektu eta aditzaren osagarri guneari osagarri. Hala, oso litekeena da gorago ere aipatu dugun (11a) adibidearen itxura sintaktikoa (12a) izatea. Baina ez hori bakarrik. Gogoratuko du irakurleak lehengo kapitulutik buru-osagarriaren hurrenkera alde batera, gaztelaniaz egitura sintaktiko berbera egotzi diogula subjektu eta osagarridun perpaus iragankor bati. Hortaz, (11a) adibidearen gaztelaniazko ordaina (11b) ez dirudi erraietan (12b), behintzat, oso ezberdina denik.

(11) a. Nik arraina harrapatu dut
Ni.ERG arraina (ABS) harrapatu INFL

b. Yo he cogido un pez
ni (NOM) INFL harrapatu arraina (AKUS)
'Nik arraina harrapatu dut'

(12) a.



b.



Ez dakigu xehetasun teknikoak ondo ulertuko ote diren oraindik, baina begibistako zerbait azpimarratuko dugu, goiko zuhaitz biei begira —zuhaitz bat bera denari azken batean— gogoan izateko: subjektua zuhaitzean *gorago* dago osagarria baino, hau da, gorago dagoen abar batetik zintzilik. Horrek subjektuaren eta osagarriaren arteko *hierarkia sintaktikoa* islatzen du eta hierarkia horretan, momentuz intuitiboki uler daitekeenez, subjektua da nagusi, horregatik *goratasuna* zuhaitzean. Aurrerago argitu beharko dugu zergatik diogun hori.

Horretaz gain, aditz iragangaitzez hitz egin dugunean, *erori* bezalakoez, alegia, argumentu bat bakarra dagoela esan dugu, eta horri ere subjektu iritzi diogu, hau da, aditz iragankorreko subjektua bezalakoxe subjektua dela aldarrikatu dugu. Horrexek garamatza zuhaitzean inflexio sintagmaren espezifikatzaile gune beretik eskegitzera, honela:

(13) a. Ni (uretara)[7] erori naiz
ni (ABS) (ura.P) erori INFL

b. Yo he crecido
ni (NOM) INFL hazi
'Ni hazi naiz'

(14) a.



b.



Inflexio sintagmaren espezifikatzaile gunean kokatuz subjektu biak —Ag eta S—, nolabait estatus sintaktiko bat bera aitortzen diegu perpausean, eta osagarrietatik bereizten ditugu neurri batean. Kontua da, irakurle begizorrotza konturatuko zenez, gune berean *eskegitako* bi subjektuek ez dutela kasu bera erakusten euskaraz, inflexio sintagmaren espezifikatzaile gunean egonik ere biak, batek, *nik,* kasu ergatiboa daramalako (11a) eta besteak, oso bestela, *ni,* kasu absolutiboa (13a). Horrek sortzen digun galdera da ea kasua subjektu eta osagarri *sintaktiko*en isla ote den ala *sortzezko subjektu eta osagarri*ena, eta, hortaz, *theta-rol*en nolabaiteko adierazgarria[8]. Izan ere, badirudi argumentu guztiek badutela theta-rol bana. Esate baterako, (10a) perpausean, *nik* argumentuak duen theta-rola *egilea* da eta *arraina*-k, berriz, *gaia* edo *jasailea* —beste modu batera esanda, guztiok ulertzeko moduan, ni naiz harrapatzaile bihozgabea eta arrain gaixoa harrapakina. Batzuetan, subjektu eta osagarriak aipatzen ditugunean, nagusiki hala bada ere, ez gara subjektu eta osagarri sintaktikoez ari, ezpada sortzezko subjektu eta osagarriez, hau da, *egile-argumentua*z edo *subjektu logikoa* ere deitu izan denaz, eta *gai-argumentua*z edo *osagarri logikoa*z, hurrenez hurren. Adibide erraz batez ulertuko du guztia gure irakurle sufrituak. Ez da gure oraingo gaia, hurrengo kapitulukoa baino, baina zein ez da gogoratzen ikasle garaiko egitura *pasibo*ez? Ondokoetatik bigarrena halakoxea da eta lehena bere ordain arrunta. Esanahi berekoak dira biak.

(15) a. Los europeos asesinaron a millones de indígenas a partir del año 1492
'Europarrek milioika indiar akabatu zituzten 1492 urtetik aurrera'
b. Millones de indígenas fueron asesinados por los europeos a partir de 1492

Geroago aztertuko ditugu xehetasunez (b) bezalako egiturak. Momentuz, irakurleak ulertu behar duena da, pasiboa bezalako egitura batean, subjektu sintaktikoa ez dela *egile*-argumentua, *gai*-argumentua baino, alegia, osagarri logikoa. Hau da, subjektu sintaktikoa ez da subjektu logikoa, osagarri logikoa baino. *Hauxe da anabasa!* pentsatuko duzu. Baina orrialdeok pare bat bider irakurtzen dituzunean ez duzu berdin sentituko. Azken ahalegin teorikoa eskatzen dizuegu, irakurle. Ez etsi, bidea luzea da-eta.

Subjektu eta osagarri sintaktikoez gain, baldin eta badira sortzezko subjektu eta osagarriak, ez dugu orain beste erremediorik, zuhaitzak atondu eta sortzezko gune horiek zein diren argitu. Intuitiboki pentsatu beharra dago subjektuei gune bakarra egotzi beharrean egotzi diegun bezala, hots, inflexio sintagmaren espezifikatzailea, bina gune dagokiela, hau da, bata theta-rola islatzen duena, eta bestea betebehar sintaktikoen adierazgarri. Proposamenaren zergatiak 4. kapituluan emango dizkiogu irakurleari, momentuz irakurleak jakin behar du *egile* theta-rola duen argumentua sortzez *a(ditz)* txikia deritzonaren *a*S-ren espezifikatzailean dagoela hizkuntzalarien ustez.

(16)



Subjektu gune bat gabe, bi egonik, *nik arraina harrapatu dut* perpausean, *nik* argumentua *a*S-ren espezifikatzaile gunean sortu dela pentsa daiteke eta hortik datorkiola, hain zuzen *egile* theta-rola. Inflexioaren espezifikatzaile gunera geroago *igoko* da besteak beste, kasu ergatiboa zilegiztatzekotan. *Mugimendu* horren ondorioz, *aztarna* bat utziko du sortzezko gunean. Aztarna horri *t* deritzogu —ingelesezko *trace* 'aztarna' hitzaren lehen hizkiaz baliatuz, hau baita nazioarteko usadioa.

(17)



Baina non sortzen dira, orduan, *erori* aditz iragangaitzeko subjektua, non *gai*-argumentua? Bada, igarri duzu irakurle: osagarria sortzen den gune berean, aditzaren osagarri gunean. Eta sortzez osagarria den arren, aztarnak erakusten digun bezala, subjektu sintaktikoa izatera heltzen da inflexio sintagmaren espezifikatzailera mugitzen denean:

(18)



Ahalegin benetan handia egin du gure irakurleak. Passepartout Auda txondorraren sugarretatik ateratzeko beste ahalegin, baina ez da nahikoa, alde egin beharra dugu: *goazen azkar hemendik!*

****

Jaitsi gaitezen *baobab*etatik. Baobabak, badakizue, ezta? Afrikako eta Indiako sabanan ikus daitezkeen horiek. Arabiar kondairak dio deabruak lurretik erauzi zituela eta lurrean sartu zituela berriro buruz behera, abarrak lurperatu eta sustraiak aidean utziz. Gureak bezalako zuhaitzak dira horiek goitik behera abarreztatzen direnak lurpetik lurraren erraietara begira. Nolanahi ere, jeitsi gaitezen zuhaitzetatik, eta zapal dezagun behingoz lurra.

Tradizioan nagusiki aztertuak ziren hizkuntza akusatiboen ezaugarriekin ohituta, hizkuntza ergatiboek hizkuntzalariei sortu zieten harriduraz hitz egin dugu kapituluaren hasieran. Harridurak badu arrazoi nahikoa garbi bat: latinez, hizkuntza erromantze guztietan nahiz germaniarretan, nominatibo kasua subjektuarekin lotu izan da, akusatibo kasua osagarriarekin lotu izan den bitartean. Hala, subjektuak eta osagarriak zuhaitzean kokatzen ditugun guneak badira, arestian erakutsi dugun bezala, orduan, kasuei gune bana dagokie eta, alderantziz, zuhaitzeko guneei kasu bana, ondoko irudi honetan erakusten dugun bezala.

(19) *Hizkuntza akusatiboak*



Ikusten? Hizkuntza morfologikoki gardenak dira, halakorik esan badaiteke metaforikoki, morfologiak erakusten digu-eta sintaxia nolakoa den: nominatibo kasu morfologikoak subjektu sintaktikoa erakusten du eta akusatibo kasuak, berriz, osagarria. Baina ba al dago halako gardentasun morfologikorik yalarnngeraz eta euskaraz? Eta gainerako hizkuntza ergatiboetan? Ez, ez dirudi, zeren halakoetan —hortik hizkuntzalarien heiagora— subjektu taldean nahi genituzkeenek bi kasu erakusten dituzte, ergatiboa aditz iragankorrekin eta absolutiboa aditz iragangaitzekin. Eta gainera, sintaxian horren diferente diren subjektu eta osagarriak, biak, kasu bakar batez islatzen dira, hots, absolutiboaz. Subjektu eta osagarria funtzio gramatikalak izaki, esan genezake funtzio gramatikal bera —subjektua— kasu ezberdinez markatzen dela eta funtzio gramatikal ezberdinak —subjektua eta osagarria— kasu bakar batez, ondoko irudiak erakusten digun bezala.

(20) *Hizkuntza ergatiboak. 1. hipotesia*



Horrek ergatibo argumentuaren estatusaren gaineko hausnarketa luzeetara eraman ditu hizkuntzalariak, eta izan dira hausnarketa luze horretan ergatibo argumentua *subjektua* ez dela pentsatu izan dutenak ere —subjektua diogunean, orain, subjektu sintaktikoaz ari garela pentsatu behar du irakurleak, ez *egile*-argumentuaz. Jakina, ergatibo argumentua subjektua ez balitz, orduan absolutibo argumentua izan beharko litzateke subjektua, eta orduan agian bai, hizkuntza akusatiboetan aurkitu dugun gardentasun morfologiko hori —kasuei funtzio bana eta funtzio biei kasu bana—, hizkuntza ergatiboetan ere aurki genezake. Horrek hizkuntza ergatiboei buruzko beste hipotesi batera eramango gintuzke:

(21) *Hizkuntza ergatiboak. 2. hipotesia*[9]



Ikus dezagun. Absolutiboz markatutako argumentua balitz subjektu sintaktikoa perpaus iragankor batean, orduan, hizkuntza ergatiboetan subjektu guztiak absolutibo kasuaz markatuko lirateke —kasu bakar batez funtzio bakarra— eta bestelako kasu batez, alegia, ergatibo kasuaz, osagarria —kasuen eta funtzioen arteko harmonia beraz.

Kasuak ezberdinak deituraz, bederen, eta hizkuntzak ere ezberdinak. Halakoxeak iruditzen zaizkigu talaiatik begiratzen diegula. Orain talaian gaudela —Kiomi elefantearen gainean ihesi, ez ahaztu—, galdera itxuraz xinple bat bururatzen zaigu: ba al dago hizkuntza ergatiboen eta akusatiboen artean ezer komunik? Bada, galderarik errazenak sor ditzake ondoriorik larrien eta zalapartatsuenak —badakizue, tximeletaren hegaldatzeak Pekingo haizea eraginez gero, hurrengo hilean New Yorkeko sistema klimatikoa aldatu eta hurakana sor dezakeen bezala. Eta oraingo

eztabaida honetan kontuan hartu, irakurle, ez dagoela ergatibotasunaren auzia bakar-bakarrik jokoan, ezpada hizkuntza ergatiboetako subjektuen auzia ere, eta bide beretik, subjektuaren unibertsaltasunarena bera ere, eta handietan handia da auzi hau gramatikari baten begietara. Sistema klimatiko osoa aldatzea bera bezain auzi handia!

Berez, ezer komuna egon badagoela erakutsi diogu lehen irakurleari euskararen eta gaztelaniaren datuak alderatu ditugunean, baina abarretan behera egin nahi ez duenak berriro, ez bada lurrera salto egiteko, ondokoan aurki dezake erantzunaren inguruko eztabaidaren muina.

Hizkuntza ezberdinak, kasuak ezberdinak eta baita kasuen deiturak eurak ere. Zertan da bien arteko batasuna? Bada, hor ere hipotesi nagusi bi dituzu, irakurle —zer uste duzu dela, bada, zientzia, kantuak dioen modura, *silan eseri eta, maitia, gitarra jotzia?* Bi nagusi —berez hipotesiak nahi beste dituzu— eta biak hizkuntza ergatiboez emandako biei lotzen zaizkienak. Azkenari (21) jarraituz gero —perpaus iragankorrean, absolutiboa subjektu— hizkuntza akusatibo eta ergatibo mota bien arteko antzekotasunak dotore-dotore jasotzen dira: kasu morfologikoki ezmarkatuak —Ø kasuak—, alegia, nominatiboa eta absolutiboa dira subjektuak erakusten dituenak hizkuntza akusatibo eta ergatiboetan, hurrenez hurren, eta kasu morfologikoki markatuak —agerikoak—, hau da, ergatiboa eta akusatiboa, osagarriari ezarri beharrekoak hizkuntza mota batean eta bestean. Kontuan izan, bazterrak nahasten ez hasteko, bi hizkuntza motak, akusatiboa eta ergatiboa, eta hizkuntza mota batean eta bestean agertzen diren kasuak konparatzen ari garela bata bestearekin —nominatiboa absolutiboarekin eta akusatiboa ergatiboarekin, ondoko irudian jasotzen dugun bezala.

(22) *Hizkuntza akusatibo eta ergatiboak, 2. hipotesiaren argitan*



Horren harira, batek esan lezake: nola demontre izan daiteke *nik* osagarria eta *arraina* subjektua *nik arraina harrapatu dut* bezalako perpaus batean? Hori ezinezkoa da. Gainera, gu geu izan gara arestian esan dugunok perpaus iragankorretan *subjektua*ri ergatiboa ezartzen diogula eta *osagarria*ri absolutiboa. Oker genbiltzan orduan, ala orain gabiltza oker? Bada, ez orduan ez orain. Gogoratu subjektu sintaktikoak ez duela zertan izan halabeharrez *egile*-argumentua. Ge-

roago ikusiko dugunez, badira berez 2. hipotesi honetara lerratzen diren hizkuntza ergatiboak, euren baitan *gai*-argumentua delako subjektu sintaktikoa.

Eta ez pentsa, euskarari begira gaur egun harrigarri samarra dirudien hipotesiak izan du oihartzunik euskalaritzan, pentsa bestela garai batean Schuchardt-ek edota Lafonek hau bezalako perpaus iragankorrak aztertzean, *gai*-argumentuari iritzi ziotela subjektu sintaktikoa, ez *egile*-argumentuari. Ibon Sarasolak (1977) aspaldi kontatu zigun *pasibismoa*ren istorio hura modu polit batean, eta bertara jo dezake jakin-mina duenak.

Paradoxikoki, ez dirudi hipotesirik *dotoreena* egokiena denik —eta ez ezazue pentsa edertasuna ere zientzia irizpidea ez denik!—, ez, bederen, euskaraz ari garenean, lehen aipatu ditugun euskalarien iritziak gorabehera. Izan ere, tradizio luze eta oparoak erakutsi digu euskaraz gauzak nahikoa urruntzen direla aspaldiko pasibisten usteetatik —diferentziak diferentzia 2. hipotesiari jarraituko lioketenen usteetatik—, eta nekez esan daitekeela ergatibo argumentua subjektu sintaktikoa ez denik, ezta hizkuntza akusatiboetako nominatibo argumentuaren antzekoa ez denik ere. Ez diogu iruzurrik egin irakurleari baobaben adarretan zehar ibilarazi diogunean. Euskal perpaus iragankor bati begira, irakurleak imajinatu behar du ergatiboa dela gaztelaniaz sor dezakeen perpaus irangankor bateko nominatiboaren parekoa, eta absolutiboa, bere aldetik, auzoko hizkuntzetako akusatiboaren parekoa (11a, b) baobab bikietan erakutsi diogun bezala. Pentsa, horrenbesteko sufrikarioa dakarkienean euskaraz ikasten ari diren erdaldunei ditxosozko kasu marka behar bezala erabiltzea… Jakina, hau esateko, ezin gaitezke kasu hutsaz baliatu, kasuan, hain zuzen, bereizten dira-eta. Horretaz gain, ergatibo argumentuaren jokaera sintaktikoa da kontuan izan behar duguna. Horregatik, hemen gaituzue berriro ere 1. hipotesiari begira, bere argitan, hizkuntza akusatibo eta ergatiboak bigarrenez erkatzen. Zuhaitzetan behera goazela ikasi ez dugunak ea ondoko irudi bakarrak bestela irakasten digun:

(23) *Hizkuntza akusatibo eta ergatiboak, 1. hipotesiaren argitan*



Baina larregi itxaron du irakurleak hipotesi bat ala bestea berresteko datuen zain. Euskarak lehen hipotesiari begirarazten digula genioen. Tradizioak *dixit*. Hala al da? Ez al dugu atzera ere pasibisten altxor zaharrean arakatzen hasi beharko? Ikusi behar. Eta gainerako hizkuntza ergatiboek? Zientzialari garenez ez genioke irakurleari ezustekorik eman beharko. Alabaina, hizkuntzalariok ezustekoak besterik ez dugu aurkitzen gure bidaia neketsuan —pentsa hizkuntza ergatiboek sortutako buruhausteak!—, eta bidaian, gure heroiak ezustekoz ezusteko dabiltzan modura, halaxe urratuko dute gure irakurleek bidea. Allahabad-en gaude jada. Ezin Calcutarako trena galdu. Ganges zain dugu. Abia gaitezen.

****

Ergatibo argumentua, perpaus iragangaitzeko absolutibo argumentu bakarra bezalaxe, subjektu sintaktikoa ote den ala ez eztabaidatzerakoan, ia ezinbestean aipatu behar dira *bere burua* bezalako izenordain *bihurkari*ei edota *elkar* bezalako *elkarkari*ei buruzko datuak. Guk lehenak erabiliko ditugu etsenpluetan, baina antzeko ondoriotara helduko da irakurlea, elkarkariei begiratuz gero:

(24) a. Ainhoak *bere burua* ikusi zuen ispilu txikian[10]
b. **Bere buruak* Ainhoa ikusi zuen ispilu txikian

Ikusten duzuenez, *bere burua* osagarri gisa eta absolutibo kasuaz markaturik dagoenean, perpausa zuzena da. Baina gauzak oso bestelakoak dira bihurkaria subjektu gisa eta, hortaz, ergatiboaz markaturik agertzen denean. Okerretara ateratzen zaigu perpausa orduan. Datuak hauexek izanik, pentsa genezake, tira, horrek erakusten du izenordain bihurkariak absolutiboaz ager daitezkeen bitartean, ezin daitezkeela ergatiboaz agertu, hau da, diferentziak absolutibo eta ergatibo argumentuen artean daudela pentsa genezake. Bada, ikus dezagun ea *bere burua* dagoen-dagoenean ager daitekeen, absolutiboaz markaturik alegia, osagarri modura gabe —(24a) perpausean bezala—, aditz iragangaitzeko subjektu modura. Hona hemen puzzlea osatzeko azken zatia:

(25) **Bere burua* Jonez urrikaltzen da ispilu txikira begira

Ez dirudi, ez, absolutiboa ala ergatiboa izateak baldintzatzen duenik izenordain bihurkaria agertzea, ezpada osagarria ala subjektua izateak: osagarri modura baino ezin daiteke agertu bihurkaria, ez subjektu modura. Hortaz, subjektuaren eta osagarriaren arteko aurkakotasuna da zilegi dena, eta ez absolutiboaren eta ergatiboaren artekoa baita euskara bezalako hizkuntza ergatiboetan ere.

Ez dugu guk orain honi buruz *uztardura teoriak* —halaxe deritzo— dakarren azalpenaren berri emango. Luze joko luke eta bidetik aterako gintuzke azalpenak. Lehenago ere genioen Artiagoitiaren (2001) eskuliburu bikainean aurkituko dituela

irakurleak gramatika unibertsalean zehar bidaia egin nahi izanez gero, behar-beharrezkoak diren argibide guztiak.

Guk nahi duguna da gogoan izatea, kasuak kasu, subjektuak eta osagarriak benetan bereizten direla hizkuntza ergatiboetan, hau da, subjektuak ergatiboaz eta absolutiboaz markatzen ditugun arren, subjektuez oro har hitz egin dezakegula euskaraz, eta beste alde batetik, subjektu iragangaitzak eta osagarriak absolutibo kasuaz berdintzen ditugun arren, ez ditugula hierarkia sintaktikoaren arabera berdintzen.

Ez da hau euskarari soilik dagokion ezaugarria. Hizkuntza ergatiboak izan zein ez, hizkuntza guztietan indarrean dagoen asimetria dela dirudi. Bestela esanda, egituran nonbait, ergatibo argumentua gorago dago absolutibo argumentua baino.

****

Ez dira horiek, baina, ergatiboa nahiz absolutiboa besarkatzen dituen subjekturik ba ote dagoen adierazten duten datu bakarrak. Horrezaz gain, askotan aipatu izan dira hizkuntzalariok *kontrol egiturak* deritzegunak ere —ez larritu, mendeko perpausak dira, eta mendekoen artean jokatugabeak. Kontrol egituretan, oso modu apalean deskribaturik, mendeko perpauseko subjektua isildu egiten da halabeharrez, eta nahitaezkoa du perpaus nagusiko subjektuaren erreferentziakidea izatea. Euskaraz kontrol egiturak dituzu, esate batera, jokatu gabeko *NZ zehar galderak*, hau da, *nor* edo *zer* bezalakoez hasten direnak. Ikus dezagun adibidean eta itzuliko gara gero deskribapenera:

(26) [Jonek badaki [zer egin]]

Mendeko perpausean, *zer egin* jokatu gabeko perpausean alegia, isildutako subjektuak, *Jonek* perpaus nagusiko subjektuaren erreferentziakidea izan behar du, hau da, perpaus hori entzunda, entzuleak interpretatuko du *Jonek badakiela Jonek zer egin* bezalako zerbait, nahiz eta halakorik, jakina, ezin esan daitekeen:

(27) *Jonek badaki Jonek zer egin

Horregatik genioen gorago halabeharrez isildu egin behar dela mendeko perpauseko subjektua. Perpaus nagusiko subjektuak *mendeko* subjektuaren erreferentzia kontrolatzen duela diogu, eta hortik datorkie izena halako egiturei. Izan ere, guk (26) perpausa entzunez gero, ez genuke interpretatuko, ez guk ez inongo euskaldunek, *Jonek badakiela nik zer egin* edo *Anek zer egin* bezalakorik. Eta atzera ere, halakorik esanez gero, perpausa okerra litzateke:

(28) *Jonek badaki nik zer egin[11]

Mendeko perpaus horretako subjektu isilari PRO deritzote hizkuntzalariek. Hemen berriro ere, azalpenaz ari garela, *kontrol teoria*ren gorabeherak azaldu beharko genituzke eta uztarduraz esan dugun bezala, horrek gure ibilbidetik aterako gintuzke. Gure irakurleak badu gau-mahaiaren gainean —edo oraindik poltsan sartuta— gomendatutako eskuliburua honen berri patxadaz jaso dezan. Gure asmoa, izan gogoan, irakurle, subjektuaren eta osagarriaren arteko aurkakotasuna erakustea da, eta euskaraz ere kasuak kasu subjektuaz oro har hitz egitea zilegi dela frogatzea.

Honaino helduta, kontua da jakitea mendeko perpausean aditza iragangaitza izanez gero, *ibili* esate batera, eta hortaz, subjektua aditz iragangaitzekoa izanez gero, ea perpausa zuzena litzatekeen ala ez —aintzat hartu, goiko perpausean, mendeko perpauseko aditza iragankorra zela, *egin* alegia:

(29) Jonek badaki nondik ibili

Bada, baietz dirudi. Berdin dio subjektua aditz iragankorrekoa den ala ez. Bietara isildu daiteke. Subjektuaz hitz egitea zilegi da, beraz. Oso bestelakoak dirudite gauzek osagarriari begiratzen diogunean. Pentsa, adibidez, ondoko perpaus honetan:

(30) *Jonek badaki nork maitatu

Ez dirudi hemen perpaus zuzena dugunik. Hau da, ez dirudi *maitatu* aditzaren osagarria isildu daitekeenik, ezta osagarri hori *Jonek* subjektu nagusiaren erreferentziakidea izan daitekeenik ere —*Jon nork maitatu* zentzuaz. Subjektua eta osagarriak, beraz, ez dira gauza bat bera euskaraz, eta hizkuntza ergatiboa bada ere, bere baitan subjektuaz hitz egitea zilegi da.

****

Kontua da hizkuntza ergatiboko irakurleak ere ezusteko galanta har dezakeela hizkuntza ergatibo guztietan ergatibo argumentua subjektu sintaktikoa dela uste badu. Izan ere, badira absolutibo argumentua, edo nahiago baduzue, *gai*-argumentua sintaktikoki goren dagoen argumentua dela erakusten diguten hizkuntzak (2. hipotesia, ez ahaztu), eta zer goren zer beheren aditzeko, ezer hoberik ez, berriro abarrez abar ibiltzea baino. Ondoko zuhaitzetatik ezkerretara dagoena (a) da gure baobab ezaguna, euskararena (1. hipotesiari lotuz gero, jakina); eskuinetara dagoena da ergatiboak izanik ere, ustez euskara bezalakoxe hizkuntzak ez direnen barne itxura[12] (2. hipotesia) —euskarazko perpaus bera eta zuhaitz apur bat erraztuak erabiltzen ditugu, konparazioa erraztearren:

(31) a. *1. hipotesia* b. *2. hipotesia*



Eta *gai*-argumentua goren erakusten omen duten hizkuntzetatik bada bat paradigmatikoa bihurtu dena ergatibotasunaren literaturan, adibide sorta, era berean, klasiko batekin. Dyirbaleraz ari gara, Australiako Queensland-en hilzorian dagoen hizkuntza, honezkero hil ez bada. Dixon-ek (1972) eman digu bere deskribapen zehatza, eta bertatik eta oro har, bere lanetatik atera ditugu, hain zuzen ere, daturik esanguratsuenak, absolutibo argumentua subjektua dela baieztatzeko.

Abia gaitezen, bada, oinarri-oinarrizko datuetatik[13]. Bi perpaus dituzu, irakurle, aditz iragangaitzekoa bata, argumentu bakarrarrekin (a) eta absolutiboaz markatuta bera; eta iragankorra bestea (b), argumentu bikoa, alegia, bertan, bi argumentuetan lehena absolutiboaz markatuta dago eta ergatibo kasuaz bigarrena.

(32) a. ŋuma banaga-n^{y}u
aita (ABS) itzuli-EZGEROA
'Aita itzuli zen'

b. yabu numa-ŋgu bura-n[14]
ama (ABS) aita-ERG ikusi-EZGEROA
'Aitak ama ikusi zuen'

Igarri duzu, irakurle. Hizkuntza ergatiboa da, beraz, dyirbalera. Irakurleak orain arte ikasitakoarekin, nahikoa du datu hauek behar bezala deskribatzeko. Kontuz, baina, bada-eta euskararen datuetan aurkitu ez dugun ezaugarri bat, esanguratsua izan litekeena: perpaus iragankorrean (b), lehenik eta behin lerratzen den argumentua absolutiboduna da, *gai*-argumentua nahi baduzue, eta ostean dator ergatiboduna, *egile*-argumentua alegia. Ez dugu esan nahi lehenago lerratzen den argumentuak nahitaez hierarkikoki gorago dagoenik hurrengo lerratzen den argumentua baino. Ez da irizpide nahikoa, jakina, hierarkia nolakoa den erabakitzeko. Nolanahi ere, beste irizpide batzuk kontuan izanda, pentsatzekoa litzateke absolutibo argumentua lehenago agertzeak baduela zerikusia zuhaitzean gorago egotearekin ere. (31b) zuhaitzaren aldeko ebidentzia? Litekeena da.

Oinarrizko datu hauek gogoan, ikus dezagun zein den adibide sorta klasikoa, goian iritzi diogun bezala. Bertan bi perpaus aurkituko dituzu, bata bestarekin atzetik kateaturik[15]:

(33) [*ŋ*uma$_i$ banaga-n^{y}u] [e$_i$ yabu-*ŋ*gu bura-n]
aita (ABS) itzuli-EZGEROA ama-ERG ikusi-EZGEROA
'Aita itzuli zen eta amak ikusi zuen (aita)'

Halako egiturei *mintzagai kateatzea* deritze Dixon-ek, itxuraz nahikoa egitura ezezagunak guretzat, baina berez ingelesaren juntadura perpausekin konparatzen dituenak egileak berak, eta euskalariek euskararen juntadura datuekin ere alderatu dituztenak. Hortaz, juntatutako bi perpaus direla pentsa dezake irakurleak —halaxe itzuli ditugu euskarara adibidearen azpiko glosan, *eta* juntagailuaren bitartez—, nahiz eta dyirbaleraz bata bestearekin besterik gabe kateatutakoak diruditen. Kateatzen diren bi perpausetatik lehena iragangaitza da eta absolutiboaz markaturik dago bertan agertzen den argumentu bakarra, *ŋuma* 'aita'; bigarren perpausa, konturatuko zen irakurlea, iragankorra da, eta agerian ergatibo argumentua baino ez da agertzen, *yabu-ŋgu* 'ama' alegia: e kategoria isilaz[16] adierazten dugu inplizituki dagoen bigarren argumentua, absolutiboduna behar lukeena eta lehen perpauseko argumentuaren erreferentziakidea dena. Erreferentziakidea diogunean esan nahi duguna da biek entitate bat-bera adierazten dutela —goiko adibidean, *ŋuma* 'aita'— eta erreferentziakideak diren aldetik, azpiindize batez lotzen ditugu —i azpiindideaz goiko adibidean—, edo beste modu batera esanda, indizekidetzen ditugu. Gogoan izatekoa da isildutako argumentuaren erreferentziakidea absolutibo argumentua dela, eta isildutakoak berak ere absolutiboa behar duela, aditz iragangaitzeko subjektua den aldetik.

Jo orain hurrengo perpausera:

(34) [*ŋ*uma$_i$ yabu-*ŋ*gu bura-n] [e$_i$ banaga-n^{y}u]
aita (ABS) ama-ERG ikusi-EZGEROA itzuli-EZGEROA
'Amak aita ikusi zuen eta (aita) itzuli zen'

Egitura bera dugun arren, alderantziz kateatu dira perpausak oraingoan: lehena iragankorra da eta bigarrena iragangaitza. Bigarren horretan dago kategoria isila, absolutibo argumentua izan beharko lukeena lehen perpauseko absolutibo argumentuarekin indizekidetuz. Berriro ere, isilduriko argumentuaren erreferentziakideak absolutiboa izan behar du. Are gehiago, Dixon-ek dioenez, bederen, ezin daiteke ergatibo argumentuaren erreferentziakidea izan. Konparatzen badituzu, irakurle, euskaraz dagozkion ordainekin, itzulpenean eman ditugunekin alegia, ikusiko dituzu ezberdintasunak:

(35) a. [Aita$_i$ itzuli zen] eta [e$_i$ ama ikusi zuen]
b. [Aitak$_i$ ama$_j$ ikusi zuen] eta [e$_{i/*j}$ itzuli zen]

Izan ere, dyirbaleraz ez bezala, euskaraz badirudi kategoria isilak subjektu iragangaitzaren (a) nahiz iragankorraren (b) erreferentziakidea izan behar duela, hau da, juntatzen ditugun bi perpausetan, kategoria isilarekin lotzearren, kontua ez dela zein den absolutibo argumentua, subjektua zein den baino. Baina… ez halabeharrez. Izan ere, euskalariei ez zaizkie datuok erabatekoak iruditu euskarari dagokionez, eta izan dira esan dutenak (b) juntadura perpausei begira, kategoria isila subjektuaren erreferentziakidea ez ezik —begiratu i azpiindizeari—, osagarriaren, edo absolutibo argumentuaren erreferentziakidetzat ere har litekeela, agian sintaktikoak ez diren zergatiak tarteko. Gauzak hala balira, orduan okertzat jo dugun j azpiindizekidea zuzena litzateke. Bestela esanda, (b) perpauseko *itzuli zen* hori emanez gero, itzuli zena aita zein ama izan zela interpreta daiteke. Jo dezagun, beraz, euskaraz batera zein bestera interpreta daitekeela auzian giltzarria dirudien perpausa. Horrek itxuraz bidegurutzera garamatza: edo Ag eta S bildu eta O-tik bereizten ditugu, edo bestela S eta O dira biltzen ditugunak Ag-tik bereiziz. Ala bietara?

Badira diferentziak, dena den, dyirbalerarekin konparatzen dugunean. Kontua da dyirbaleraz, kategoria isila absolutibo argumentua izanda, ergatibo argumentuaren erreferentziakidea izateko —hau da, euskaraz besterik gabe datorkigun Ag=S interpretazioa izateko— ergatibo argumentuak absolutibo *bihurtu* behar duela. Hemen, momentu batez atseden hartuko dugu bidean jarraitu aurretik ura edan eta ergatibotik absolutiborako *metamorfosia* nola gertatzen den ikusteko.

Bada munduko hizkuntza batzuetan egitura bat *antipasiboa* deritzona, (36b) perpausean erakusten duguna:

(36) a. yabu *ŋ*uma-*ŋ*gu bura-n
ama (ABS) aita-ERG ikusi-EZGEROA
'Aitak ama ikusi zuen'

b. *ŋ*uma bural-*ŋ*a-n^{y}u yabu-gu
aita (ABS) ikusi-AP-EZGEROA ama-DAT
'Aitak ama ikusi zuen'

Egitura antipasiboak badu zerikusia itxuraz perpaus iragankor arruntarekin. Esate batera, esanahi berbera dute biek, antipasiboak zein ohiko perpaus iragankorrak, nahiz eta biek oso itxura sintaktiko ezberdina izan. Antipasiboak beti izaten du adierazpen morfologiko bat, dyirbaleraren adibidean *-na-* morfema. Morfemaren agerpena, baina, ez da agerpen morfologiko hutsa, bat ere ondorio sintaktikorik ez dakarrena. Antipasiboak aditzak berez duen argumentu kopurua murriztu egiten du

sintaktikoki, hau da, bi argumentuduna bada aditza, *buran* ‘ikusi’ esate baterako, eta hortaz, bi argumentuduna perpausa, antipasiboaren bitartez, argumentu bakarreko perpaus bihurtzen da. Gure adibideetatik lehenean, *yabu* ‘ama’ eta *ŋuma-ŋgu* ‘aita’ biak dira *buran* ‘ikusi’ aditzeko argumentuak, baina antipasiboan, *ŋuma* ‘aita’ baino ez. Hala, antipasiboak perpaus iragangaitzak dira —hurrengo kapituluan luzaz jardungo dugu gaiaz.

Horretaz gain, agian argumentu kopurua murriztearen ondorioz, kasuak ere irauli egiten dira antipasiboan dagokion perpaus iragankorrarekin alderatzen dugunean: ergatibo argumentua *ŋuma-ŋgu* ‘aita’ absolutibo argumentua *ŋuma* ‘aita’ bihurtzen da antipasiboan, eta absolutibo argumentua, *yabu* ‘ama’, berriz, zehar kasu argumentua —dyirbaleraz adibidez, datibo argumentua *yabu-gu* ‘ama’. Dena den, kasuak aldatuaz batera, argumentuen estatus sintaktikoa ere irauli egiten da: ergatibo argumentua *goratu* egiten da absolutibo kasua hartzen duenean (37b), eta absolutibo argumentua, aldiz, *beheratu* datiboa jasotzean. Ondoko zuhaitzetan, ezkerretara oinarrizko perpaus iragankorraren itxura erakusten dugu; eskuinetara, berriz, perpaus antipasiboarena[17]. Bertan, *gai*-argumentuak zuhaitzean gora egin duela erakutsi nahi dugu. Ez dugu absolutibo argumentuaren *gainbehera* sintaktikoa erakusten, hain denez handia, isiltzera ere heldu gaitezke-eta:

(37) a. yabu ŋuma-ŋgu bura-n
ama (ABS) aita-ERG ikusi-EZGEROA
‘Aitak ama ikusi zuen’

b. ŋuma bural-ŋa-nʸu (yabu-gu)
aita (ABS) ikusi-AP-EZGEROA (ama-DAT)
‘Aitak ama ikusi zuen’



Nolanahi ere, zuhaitzei begiratu nahi ez dienak uler dezan, *goratu* diogunean esan nahi duguna da argumentuen artean morroia zaldun bihurtzen dela sintaxi kontuetan, eta hori gertatzen zaio, hain zuzen, ergatibo argumentuari absolutibo bihurtzen denean. *Beheratu* diogunean, berriz, kontrakoa adierazten dugu, hau da, zaldun dena morroi bihurtu dela perpausean. Goian esan dugun bezala, 4. kapituluan aztertuko ditugu xehetasunez egitura hauek eta hauen antzekoak.

Honaino, irakurleak ulertu egingo du zer esan nahi dugun diogunean ergatiboak absolutibo bihurtu behar duela, absolutibo argumentu baten erreferentziakidea izango bada. Begira ondoko perpausetan dioguna:

(38) a. [ŋuma$_i$ banaga-n^{y}u] [e$_i$ bural-ŋa-n^{y}u yabu-gu]
aita (ABS) itzuli-EZGEROA ikusi-AP-EZGEROA ama (DAT)
'Aita itzuli zen eta (aitak) ama ikusi zuen'

b. [ŋuma$_i$ bural-ŋa-n^{y}u yabu-gu] [e$_i$ banaga-n^{y}u]
aita (ABS) ikusi-AP-EZGEROA ama (DAT) itzuli-EZGEROA
'Aitak ama ikusi zuen eta (aita) itzuli zen'

Hau da, (38a) mintzagai kateatzeetan, absolutibo argumentua isildu da antipasiboan. Gogoratu, baina, absolutibo hau izatez *mozorrotutako ergatiboa* dela. Hortaz, orain bai katea daiteke lehen perpauseko absolutiboarekin —antipasiborik egon ez balitz, ez, arestian esan dugun bezala. (38b) kateetan ere antzera: ohiko perpaus iragankorrean ergatiboa zena antipasiboan absolutibo argumentu bihurtu da. Horri esker izan daiteke kateatzen den perpaus iragangaitzeko subjektuaren erreferentziakidea.

Dyirbaleraz, antipasiboa beharrezkoa da *gai*-argumentua eta *egile*-argumentua erreferentziakide egiteko mintzagai kateatze egituran. Hau da, dyirbalerak berezkoa du S=O leloa eta zeharbidez lortzen du S=Ag. Hortxe, bada, Dixon-ek dioenez, ergatibotasun sintaktikoaren zutaberik sendoenetakoa gaiaren inguruko literaturan. Euskaraz, berezkoa dugu S=Ag leloa, baina hausnartzen hasita S=O leloa ere lor genezake. Hortaz, euskara aitortu nahi izan dioguna baino ergatiboagoa al da sintaktikoki? (31a) itxuraz sendoa dirudien hezurduraren aldean ez al dago (31b)-ra garamatzan beste ezkutuko joera bat? Batera nahiz bestera egiten duen hizkuntza al da euskara? Dyirbalera ez bezalakoa erabat, jakina, antipasiborik ere ez du-eta. Baina ba al dugu antipasiboaren beharrik? Beharbada, beharrik ere ez dugu dyirbaleradunek behar-beharrezkoa duten bitartean. Batek badaki. Agian, ergatibotasun sintaktikoa euskaraz ere eskura dagoen aukera da, garai batean, nola edo hala, Eurídice Arregik (2003) iradoki zigun bezala, tradizioari muzin eginez. Serio pentsatu beharko genuke horretan.

****

Bada dyirbaleraz bestelako ebidentziarik *gai*-argumentua subjektu sintaktikoa edo goren dagoen argumentua dela azaltzeko. Ondokoan, labur bada ere, *-ygu/-li* helburuzko perpausak erakutsiko ditugu. Datuak oraindik ere, Dixon-i (1994: 168) zor dizkiogu. Irakurleak lehen perpausean (a) ikusiko duenez, badago nolabait interpretatu beharreko kategoria isil bat helburuzko egituran. Kategoria isil hori bakarrik izan daiteke perpaus nagusiko absolutibo argumentuaren erreferentzia-

kidea —hau da, aita izan zen amak ikusi zuena. Hala, S eta O dira berriro ere uztartzen diren argumentuak.

(39) a. [ŋuma$_i$ banaga-n^{y}u] [e$_i$ yabu-ŋgu bural-li]
aita (ABS) itzuli-EZGEROA ama-ERG ikusi-HEL
'Aita itzuli zen amak ikusteko' *('Aita itzuli zen eta ondorioz, amak ikusi zuen')*

b. [ŋuma$_i$ banaga-n^{y}u] [e$_i$ bural-ŋa-ygu yabu-gu]
aita (ABS) itzuli-EZGEROA ikusi-AP-HEL ama-DAT
'Aita itzuli zen ama ikustera' ('Aita itzuli zen eta ondorioz, ama ikusi zuen')

Eta oso bestela, bigarren perpausean (b), *-ygu* helburuzko egituran kategoria isila *egile*-argumentua izan ahal izateko, perpaus nagusiko *gai*-argumentuarekin lotzearren, antipasibo bat sortu behar izan da, ergatibo argumentua behar lukeena absolutiboz mozorrotuz[18].

Eta euskaraz? esango du irakurle aseezinak. Eta guk berak beste jakin-min dugu, ez pentsa. Bada, behin dyirbaleraren datuak deszifratu ondoren, irribarrez konturatuko da irakurlea euskal ordainean ere, arrazoiak zein diren ez dakigun arren, helburuzko mendeko perpausean isiltzen duguna izan daitekeela perpaus nagusiko argumentu bakarraren erreferentziakidea, hau da, euskaraz ere nolabait S eta O uztartzen ditugula (a) perpausaren ordainean. Eureka! Nolanahi ere den, pentsatu *Jon lehiora hurreratu zen hobeto ikusteko,* (b) perpausaren antzeko egitura batean. Helburuzko perpausean ez da ageri ez nork ez nor ikusi behar zuen hobeto. Isiltzen den izenordaina zein izan ote daitekeen eztabaida genezake agian. Izan daitezke diotenak interpretatzeko modu bakarra dela pentsatzea Jonek berak hobeto ikustekotan hurreratu zela lehiora (S=Ag), baina izango dira, era berean, diotenak Jon lehiora hurreratu zela, guk geuk-edo tren-geltokiko nasatik, esate batera, hobeto ikusteko (S=O). Bada, atzera ere, dyirbaleraz, azken hori da litekeen interpretazio bakarra; bestea (S=Ag) bakarrik lor daiteke zeharbidez, helburuzko egitura antipasiboa bada. Eta berriro ere, erantzun gabeko galdera datorkigu gogora: euskara sintaktikoki argumentuak nahi bezala lerratzen dituen hizkuntza ote, batean S=Ag, bestean S=O?[19]

****

Honezkero, hobeto ulertuko du irakurleak agian goian ergatibotasun morfologiko eta sintaktikoaz esan duguna, hau da, gauza bat dela kasu eta komunztadura sistemetan S, Ag eta O nola atontzen diren ikustea eta beste bat hiru argumentu horiek nola jokatzen duten egitura sintaktikoetan. Dena den, badira ilunpe nabarmenak horretan guztian. Adibidez, euskara hizkuntza ergatiboa da, dudarik gabe, kasu sistemari begira, hau da, itxuraz morfologikoa den ezaugarri bati begira, baina ez egitura sintaktikoei dagokienez, ez esate batera, kontrol egituretan[20], ikusi

dugunez. Dena den, paradoxikoki, sintaktikoki akusatiboa iritzi zaion arren, ez dirudi, gainerakoan, dyirbaleraren datuak eredugarri badira, bederen, euskara horrengandik horrenbeste urruntzen denik argumentuen jokabidean juntadura perpausetan edota helburuzko egituretan. Sintaktikoki ergatibotzat hartzeko aukera ez litzateke, beraz, horren arinki zokoratu beharko. Agian, 2. hipotesira lerratzeko motiborik ez zaigu falta. Ausardia, igual bai.

Gainerakoan, dyirbaleraz ez dugu zalantzarik, kasu sisteman ez ezik, mintzagai kateatzeetan bezalako egitura sintaktikoetan ere ergatiboa dela diogu, edo bestela esanda, hizkuntza morfologikoki zein sintaktikoki ergatiboa —eta hemen, duda izpirik gabe sintaxiaren irudiko morfologia dugu.

Dyirbalerarenak dira daturik ezagunenak eta eztabaidatuenak, baina horren sona handiko datuak ez badira ere, badira S=O leloaren bestelako erakusgarriak hizkuntza ergatiboetan. Ez dugu irakurlea gehiegi nekatu nahi, baina S=O ildoaren erakusgarri, erlatibozko perpausak ekarri nahi ditugu orain gogora. Txuktxieraz, erlatibozko perpausean ager daitezkeen argumentu bakarrak absolutiboaz markatutakoak dira, esate batera, ondoko perpausetan perpaus iragangaitzeko subjektua da erlatibotutakoa:

(40) a. *ŋ*inqey pəkir-gʔi
mutila (ABS) heldu-AOR.3SG
'Mutila heldu zen'

b. pəkərə-lʔ-ən *ŋ*inqey
heldu-PART-ABS mutila
'Heldu zen mutila'

Ergatiboz markatutako argumentua, igarri duzu irakurle, ezin daiteke agertu dagoen-dagoenean erlatiboturik:

(41) a. tumg-e *ŋ*inqey rəyegtetew-nin
laguna-ERG mutila (ABS) heldu-AOR.3SG
'Lagunak mutila salbatu zuen'

b. **ŋ*inqey rəyagtala-lʔ-ən tumgətum
mutila-ERG salbatu-PART-ABS laguna
'Mutila salbatu zuen lagunak'

Hori bai, perpaus iragankorra antipasibo bihurtuz gero, ergatibo argumentua absolutiboaz adierazten denean, orduan bai agertu ahal izango da aditz iragankorreko subjektua erlatiboturik. Antipasiboa da ondoko bi perpausetatik lehena eta erlatibozkoa hurrengoa:

(42) a. tumgə tum ŋinqey-ə k ine-nyegtele-g ʔ i
laguna (ABS) mutila-LOK AP-salbatu-AOR.3SG
'Lagunak mutila salbatu zuen'

b. ŋinqey-ə k ine-nyegtelewə -lʔ -ə n tumgə tum
mutila-LOK AP-salbatu- PART-ABS laguna
'Mutila salbatu zuen laguna'

Ez dira oso ezberdinak ezta inuiteraren datuak ere. Ikusi bestela, ondoko perpausetan, O eta S dira erlatibotu daitezkeenak (a) eta (b), hurrenez hurren, Ag ezin:

(43) a. nanuq Piita-p tuqu-ta-q
hartza Piita-ERG hil-IRK.PART-3SG
'Piitak hildako hartza'

b. miiraq kamat-tu-q
umea (ABS) haserre-ERL.IRK-3SG.SG
'Haserre dagoen umea'

c. *angut aallaat tigu-sima-sa-a
gizona (ABS) pistola (ABS) hartu-BUR-ERL.IRK-3SG.SG
'Pistola hartu zuen gizona'

Eta euskaraz ba al da txuktxieraren edo inuiteraren datuen modukorik? Bada, txondor inguruko hindu haiek opio eta kalamua nahasian harturik jota zeuden modura gu ere zoratu samar gaudela esango duzue esaten dizuegunean euskararen erlatibakuntza ez dela horrenbeste aldentzen ezta txuktxieraren egitura hauexetatik ere, gutxienez, euskaraz ere ondoren ikusiko duzuenez, S eta O lasai asko erlatibotu daitezke, hurrenez hurren:

(44) a. Atzo etorritako gizona
b. Atzo ekarritako egunkaria

Imajinatu orain erlatibotutakoa Ag dela:

(45) a. Egunkaria ekarritako gizona
b. Bapo bazkaldutako gizona

Txuktxieraz bezala, S eta O beste trabarik gabe erlatibotzen ditugu euskaraz ere, eta Ag erlatibotzeko, bada modurik batean zein bestean. Txuktxieraz[21] antipasiboaren bitartez lortzen dugu Ag erlatibotzea, hau da, zeharbidez lortzen dugu; euskaraz ez dugu horren beharrik, Ag ere erlatibotu daiteke beste inolako aldaketarik

gabe. Egia da, dena den, Ag eta O-ren artean aukeran, naturalenak O hautatzea dirudiela. Erraz ulertuko da adibide batez. *Ekarritako gizona* badiogu, normalean interpretatzen duguna da gizon horrek zerbait ekarri duela —erlatibotutakoa Ag da— eta ez gizon hori inork ekarri duenik —erlatibotutakoa O. Edo *bazkaldutakoa* badiogu, naturalena agian izan daiteke zer bazkaldu den pentsatzea ez nork, baina *gurean sarri bazkaldutako laguna* badiogu, ez du inork pentsatuko kanibalismo kasuak ditugunik gurean, ezpada lagun horrek sarri bazkaltzen duela gurean —erlatibotutakoa Ag.

****

Zora-zora eginda, halaxe amaituko dugu guk ere ezusteko batetik bestera. Azken hondar alea orain, irakurle, eta ia hasierara itzuli beharra. Arestian ikusi ditugun kontrol egituretan, euskaraz isildutako argumentuak perpaus iragankorreko zein iragangaitzeko subjektua izan behar zuen, Ag=S ildokoa alegia. Alabaina, badira bestelako joerak erakusten dituzten hizkuntzak. Adibidez, Bok-Bennema-k (1991) Artiko erdiko inuiterari begira dioenez, kontrol egituretan, perpaus iragangaitzak baino ezin ditzakegu aurkitu. Horregatik, mendeko perpausa iragankorra denean, okerra da, ondokoa bezala[22].

(46) *Arna-up nutaraq$_i$ [e$_i$ titirauti nani-rqu-vaa]
emakumea-ERG haurra (ABS) [arkatza (ABS) aurkitu-esan-IND.3SG.3SG
'Emakumeak haurrari arkatza aurkitzeko esaten dio'

Badago aipatu beharreko txikikeria bat, datuak behar bezala uler daitezen. Euskaraz gorago ikusi ditugun kontrol egituretan, subjektu nagusia zen kontrola zuena isildutako argumentuaren gainean. Inuiteraren perpaus horretan, aldiz, perpaus nagusiko osagarria da, *nutaraq* 'haurra' alegia, isildutako argumentuaren erreferentzia kontrolatzen duena, hau da, arkatza aurkitu behar duena haurra bera da. Horregatik osagarri-kontrol egituratzat hartu behar du irakurleak.

Horrek ez du esan nahi, dena den, perpaus horrek esan nahi duena adieraztea ez dagoenik hizkuntza horretan. Izan ere, antipasiboaren bitartez, mendeko perpaus iragankorra iragangaitz bihurtzen badugu, orduan bai ager daiteke, jakina, kontrol egituretan. Begiratu ondokoari[23]:

(47) Arna-up nutaraq$_i$ [e$_i$ titirauti-mik nani-si-]rqu-vaa
emakumea-ERG haurra (ABS) [arkatza-MOD aurkitu-AP]-esan-IND.3SG.3SG
'Emakumeak haurrari arkatza aurkitzeko esaten dio'

Irakurle begizorrotzak ikusiko zuen egitura antipasiboaren marka morfologikoa *-si*. Horra hor antipasiboaren arrastoa. Esana dugu ondorio sintaktiko handiko arrasto morfologikoa dela. Izan ere, antipasiboaren bitartez isildutako argumentua esplizituki agertu izan balitz, absolutiboaz agertuko zatekeen, ez ergatiboaz. Era

berean, absolutiboan genuena goiko oinarrizko perpaus iragankorrean (46), *titirauti* 'arkatza' argumentua, orain zehar kasu batez markatzera igaro da *titirauti-mik* 'arkatza' —*modalis* deritzote inuiteralariek, eta *instrumental* moduko bat dela esan daiteke. Aldaketa hauek guztiak ez dira debalde, dyirbaleraz ez diren bezala. Orain bai izan daiteke isildu dugun izenordainaren erreferentziakidea perpaus nagusiko absolutibo argumentua.

Guk euskaraz, eta ez luke honezkero horren harrigarria izan behar inoren begietara, ez dugu murriztapenik halako egituretan ere isildutako argumentua Ag izateko. Ez dugu, hortaz, antipasiboaren beharrik, inuiteraz behar duten bezala, baina bata zeharbidez eta gu bidezidorretik, antzeko parajeetara helduko gara. Begiratu adibideei. Lehen perpausean Ag isilarazi dugu —inuiteraz zeharbidez baino lortzen ez dena; bigarrenean, S isilarazi dugu eta hirugarrenean, azkenik, O. Azkena nekezago interpretatzen dela diozue? Izan liteke, baina ez da ezinezko:

(48) a. Emakumeak haurrari arkatza aurkitzeko esaten dio
b. Emakumeak haurrari isilik egoteko esaten dio
c. Emakumeak haurrari Jonek eramateko esaten dio

Euskararen datuak, hortaz, benetan al dira horren ezberdin aztertu ditugun gainerako hizkuntza ustez sintaktikoki ergatiboetatik? Ez dugu uste.

****

Dyirbaleraren mintzagai kateatzeak eta helburuzko egiturak, inuiteraren osagarri-kontrol egiturak, txuktxieraren erlatibozko perpausak, eta agian, euren euskal ordainak... Datu sorta ez da erraz zokoratzen direnetakoa. Eta ez dira datu hauek bakar-bakarrik —irakurleak jo besterik ez dauka ergatibotasunaz aipatu dizkiogun lanetara konturatzeko. Hala, euskararako apur bat onargaitza zirudien 2. hipotesia beste hizkuntza batzuen argitara, kontxo, nahikoa sinesgarria dela pentsatzen dugu, eta euskararako, bada, apustu egingo genuke... ez dela horren sinesgaitza. Ergatibotasunak oso ibilbide luzea du gurean. Euskalariok ergatibotasuna bezainbeste aztertu izan bagenitu beste gai asko eta asko, kasurik onenean honezkero oporretan egongo ginateke, eta kasurik txarrenean, Barakaldoko harek zioen bezala, *daukat paro obrero* kantatzen. Baina batzuetan ez dakigu ez ote ditugun ergatibotasunaren alderdi ezkutu batzuk ezkutuago utzi nahi izan. Badaezpada. Kontuz gero! Kasu! Ea ez ote zaigun guri ere rajaren hilotza esnatzen!

1. Jules Verne (2000: 60).

2. Lehengo *–tu* zein *– ŋ ku* biak dira ergatibo kasu markaren adierazgarriak yalarnngeraz.

3. Dixon-ek dioenez (1994: 3), Adolf Dirr izan zen *ergatibo* hitza (grekeraren *ergon* 'lan' hitzetik datorrena) erabiltzen lehena 1912an, rutulera ipar-ekialdeko kaukasoar hizkuntzaren deskribapena idatzi zuenean errusieraz. Hitzaren erabilera zabaldu egin zen egile berak 1928an alemanez kaukasoar hizkuntzez idatzi zuen txosten bati esker. Nolanahi ere den, fenomenoaz ohartu zen lehena Fabricius izan omen zen 1801ean Groenlandiako eskimoeraz egindako lanean. Gaur egun ergatibo kasua deritzogunari *nominativus transitivus* zeritzon berak —ikus Dixon (1994: 5).

4. Dena den, Itziar Lakak ohartarazten digun bezala, gu geu ere oso berandu konturatu ginen honetaz. Larramendi ez zen konturatu, eta Azkue ere ez… Ez da, beraz, dirudien bezain erraza halakoez konturatzea, historiak erakusten digun legez.

5. Wangkumararen adibidea sarri aipatzen dute hizkuntzalariek. Begiratu, esate batera, Comrie (1981: 181) edo Dixon (1994: 41). Dixon-ek Queenslandeko hego-ekialdeko australiar hizkuntza talde bat aipatzen du, hizkuntzetatik wangkumarera eta galaliera baino zehazten ez baditu ere. Duundidjawueraren aipamena Mallinson eta Blake-ri (1981: 50) zor diegu.

6. Yazgulyamera iraniar hizkuntza ere aipatu izan da literaturan (Payne, 1980: 40; Jung Song, 2001: 146 besteren artean) sistema hirukoitzaren erakusgarri modura, baina kontuan izan iraganean baino ezin daitekeela aurkitu.

7. *Uretara* bezalako postposizio sintagma alde batera utziko dugu zuhaitzean jaso gabe, gauzak errazte aldera.

8. Aspaldion euskalari batzuk, Arthur Holmer-ek (1999) edo Itziar Lakak (2004) tartean, iradoki duten moduan.

9. Euskalaritzaren historian berez hauxe izan zen lehen hipotesia. Hortaz, kronologikoki ordenatu izan bagenitu, honek agertu beharko zukeen lehenago besteak baino. Nolanahi ere, lehen hipotesiari lehena iritzi diogu, bera delako, hain zuzen ere, bietan nagusi gaur egungo euskalaritzan. Gurean nagusi izateak, baina, ez du nahitaez esan nahi kanpoan nagusi denik hizkuntza ergatiboez oro har hitz egiten denean.

10. *Neure buruak nazkatzen nau* bezalakoak alde batera. Aditz psikologikoek honelako ezaugarri bitxiak erakusten dituzte. Ikusi Belletti eta Rizzi (1988).

11. Badago nahikoa klasikoa den beste adibide bat, hauxe: *alkateari galdetu diogu txerria zeinek hil.* Honi dagokionez, ez dakigu ez ote dugun aditz laguntzailearen ezabaketa.

12. Euskararena ere izan liteke, baldin eta euskara ere 2. hipotesiari lotuko balitzaio. Tradizio luze-luze batek erakutsi digu ezetz, hori ez dela euskararekin ondoen lotzen den hipotesia. Ikusi beharko ondoren erakutsiko ditugun datuek ez ote garamatzaten tradizioarena ez den beste bidezidorren batetik.

13. Dixon (1994: 10).

14. Dyirbaleraren perpaus honi begira OSA hurrenkera daukagula ematen du. Benetan absolutiboz markatutako argumentua bada subjektua, orduan SOA hurrenkera arruntagoa izango genuke. Zeharbidez, hau ere izan liteke 2. hipotesiaren aldeko ebidentzia, subjektua eskuinetara erakusten duten hizkuntzak zein urriak diren jakinda.

15. Dixon (1994: 10) berriro ere.

16. e hori ingeleseko *empty* 'isila' hitzaren hastapeneko hizkia da.

17. Itxaron beharko du irakurleak hurrengo kapitulura heldu arte, ikustearren zer gertatzen ote den antipasiboaren morfemarekin.

18. Irakurleak galde egingo du ea nolatan dakigun ergatibo argumentua *absolutiboaz mozorrotu* dela, isilik agertzen bada. Arrazoia du harritzeko: esplizituki ez, baina antipasiboaren morfema ageriz gero, badakigu batetik, perpausa iragangaitza dela eta, bestetik, *yabu-gu* 'ama', datiboduna adjunktua dela. Hortaz, kategoria isilak halabeharrez absolutibo argumentua izan behar du, ez ergatiboduna.

19. Itziar Lakak dioskun bezala, gainera, gaztelaniaz adibidez ez da horrelako anbiguotasunik gertatzen. Esaterako, *Juan se acercó a la ventana para ver mejor* perpausean, ezin izan daiteke *para ver (el cuadro) mejor.*

20. Zaila da, benetan, laburbiltzea subjektuari dagokion *kosmo* guzti-guztia. Nolanahi ere, irakurleari ez diogu ezkutatu nahi badirela hizkuntza ergatiboa izan zein ez, S eta Ag lotzen dituzten zenbait egitura unibertsal, orain aztertuko ez ditugunak —ikusi, nahi bada, Dixon (1979) edo euskararako, Fernández (1997) beste askoren artean. Horiexek, batzuen ustez, alde batera utzi beharko genituzke erabaki nahi bagenu hizkuntza morfologikoki ergatibo bat sintaktikoki ere ergatiboa ote den ala ez, alegia, ergatibo argumentua gorago ote duen ala ez absolutiboa baino. Kontua da eztabaidagarria dela eta eztabaidatu izan dela kontrol egiturak egitura unibertsal horietakoak ote diren ala ez. Benetan balira, orduan, ezin izango genituzke erabili dena delako hizkuntza ergatiboa sintaktikoki akusatiboa dela esateko. Antzeko eztabaida sortzen da, esate batera, tonganoeraren *subjektu igoera* egituren inguruan. Anderson-ek (1976), tonganoeraren akusatibotasun sintaktikoaren erakusgarri gisa darabil egitura hau, eta Dixon-ek (1979) diotsa halako egiturek modu unibertsalean uztartzen dituztela S eta Ag, eta hortaz ezin daitezkeela erabili akusatibotasun sintaktikoaren erakusgarri modura. Kontrol egituretan, badira, dena den, ezberdintasunak hizkuntza batetik bestera, geroago inuiteraz erakutsiko dugun bezala.

21. Ez dugu orain daturik eskura esateko inuiteraz antipasiboaren bitartez ere antzeko estrategiarik erabil daitekeen Ag erlatibotzeko, baina oso litekeena da.

22. Bok-Bennema-k (1991: 15, 29) dakar adibidea, nahiz eta izatez, Johnson-ena (1980: 24) den. 15. orriko aipamenean, erratu bat dago Bok-Bennema-ren aipamenean: *tuturaq* dioenean, *nutaraq* esan behar du. Bigarren aipamena zuzena da. Ikus baita Manning (1996: 159).

23. Johnson-en (1980: 25) adibidea, Bok-Bennema-ren (1991: 29) lanetik jasoa.

Zenbat neke eta sufrimendu pairatzen duten argumentuek zoritxarrez urritzen direnean eta zenbat poz sentitzen duten ugaltzen direnean

IV. kapitulua

Tradiziozko gramatikak baditu bertute handiak, baina argitasuna ez da haietako bat; behintzat eskola-saioetan gure belarri-hegaletara heltzen zena ez zen bereziki argia. Aditz iragankorrak definitzerakoan, oso normala zen entzutea beraietan "ekintza subjektutik osagarrira pasatzen edo iragaten dela". Ez zegoen argi zer ote zen ekintza argumentu batetik bestera "iragaitea", edo ekintza "igaro" ez zaion osagarririk dagoen ere. Aldez aurretik aditz baten erabilera iragankorra ala iragangaitza den ez bageneki, nekez erabaki genezakeen definizio horri jarraituta. Baina definizio horri arretaz begiratzen badiogu, badauka abiapuntu bezala erabil genezakeen alderdi bat: egitura iragankorra izateko subjektuaz gain osagarria behar dugu. Eta osagarria ba ote dagoen erabakitzea errazagoa da, ezaugarri morfologiko eta sintaktiko argiak baititu. Euskaraz horrek esan nahi du *nork-nor* argumentuak dituen perpausa iragankorra dela, baina ez *nor* bakarrik, edo *nor-nori*, ez eta, beharbada, *nork* argumentu bakarra daukan perpausik —honetara itzuliko gara beherago. Ingelesez osagarriak aditzaren eskuineko izen sintagmak badira, *Fogg heard Passepartout* iragankorra da, baina ez *Fogg listened to Passepartout*, azken horrek ez baitu osagarririk.

Argumentu kopuruaz gain, hizkuntza askok beste baliabide batzuk erabiltzen dituzte bi perpaus mota hauek argiro ezberdintzeko. Nahiko arrunta izaten da biek laguntzaile ezberdinak izatea: euskararen *izan/*edun*, frantsesaren *être/avoir* edo italieraren *essere/avere* banaketan ere islatzen da. Eta bestetan, aditzak berak dauka iragankortasuna markatzen duen morfema bat. Fijieraz atzizki batek (batzuetan agertzen den kontsonante bat gehi *-a* bokala duena) markatzen du aditz baten erabilera iragankorra: 'nahastu' esateko *uli* erabil daiteke —'nahastu da' esanahiaz— edo *uli-a* 'nahastu du'; *toso* 'mugitu da' vs *toso-ya* 'mugitu du'*; te'evuu* 'hasi da' vs *te'evuu-na* 'hasi du'. Eta st'át'imcectseraz, Kanadako hizkuntza salixar batean, marka ezberdinak aurkitzen ditugu aditzetan iragangaitzak ala iragankorrak diren markatzeko[1]:

(1) a. q'wez-ílc
dantzatu-IRG
'dantzatzen du'

b. ts'aqw-an'-ítas
jan-IRK-3.ERG
'jaten du'

Eta, nola ez, sintagmen kasu markak ere alda daitezke iragankortasunaren arabera, batez ere, gorago ikusi dugunez, hizkuntza ergatiboetan, beraietan subjektuaren kasua ez baita bat eta bera bi perpaus motetan. Samoeraren ondoko adibideetan, nahiz eta aditzak inongo aldaketarik jasan ez duen, subjektuaren kasuak (a) iragankorra eta (b) iragangaitza direla diosku:

(2) a. Sa manatu le teine e le tama
ASP pentsatu DET neska ERG DET mutil
'Mutilak neska gogoratu zuen'

b. Sa manatu (Ø) le tama i le teine
ASP pentsatu ABS DET mutil ZEHK DET neska
'Mutilak neskarengan pentsatu zuen'

Iragankortasunaren aldaketarekin batera, esanahia ere aldatu egiten da, itzulpenean *pentsatu/gogoratu* aditzez adierazi duguna; baina jatorrizko perpaus bietan aditz bera erabili dugu, eta argumentuen kasu markaketan bakarrik suma dezakegu bi perpausok joskera ezberdina dutela[2].

Irizpideak irizpide, batzuetan ez dira irizpide guztiak batera ematen, eta nolabaiteko azalpenak bilatu behar ditugu. Kasurako, euskarazko *nork* aditzak —*dimititu zuen*— argumentu bakarrekoak dira, baina **edun* laguntzailea darabilte eta subjektua ergatibo kasuaz markatzen da. Nolabaiteko aditz iragankorra da hau, beraz, emandako irizpideen arabera *ikusi* bezalakoen mailara heltzen ez bada ere. Era berean, bai *Fix detektibeak Fogg jaunari jarraitzen zion* eta *Fix detektibea Fogg jaunari jarraitzen zitzaion* argumentu bikoitzeko erabilerak dira, baina osagarriaren irizpidearen arabera bat ere ez litzateke iragankorra izango (*nor* osagarririk ez baitago), eta subjektuaren kasua edota laguntzaile hautapenaren irizpideen arabera lehenengoa bakarrik sailka genezake iragankorren artean. Berriz ere, irizpideen desegokitasun hauek oraindik ere azaldu beharreko eremuetara garamatzate. Has gaitezen, baina, oinarrizko kasu tipikoekin, osagarri prototipikoak dituzten horietakoekin. Kapituluan zehar, osagarri honi gertatzen zaizkion abenturak ikusiko ditugu. Gure ereduan osagarriak gune jakin batzuetan dauden sintagmak dira: "osagarri funtzioa" egituraren leku berezi horretan egotetik datorkie, gune horrekin lotuta dauden ezaugarriak izango baitituzte. Aditzaren osagarri gunean daude kokaturik, aditzari lotzen zaizkion sintagmak dira. Baina batzuetan, izen sintagmaren ezaugarriak aditzarentzat onartezinak direlako edota perpausean beste zerbait gertatu delako, osagarri *logikoa* den sintagmak ezin du osagarri gisa jokatu (hau da, ezin daiteke ohiko gunean sortu). Orduan, tradiziozko gramatikak esango lukeen

bezala, ekintza ezin da era normal batean "iragan", eta egitura iragangaitzak baino ezin izango ditugu sortu. Beste batzuetan, benetako osagarriei bestelako bideak irekitzen zaizkie eta egituretan barrena abiatzen dira, beste gune batzuetan pausalekua aurkitu arte —pentsatu pasiboetako sortzezko osagarriei gertatzen zaiena. Horrelako fenomenoak ikusiko ditugu hurrengo lerroetan, osagarri-gaien atsekabeak eta hizkuntzek ematen dizkieten konponbideak.

****

Iragankortasuna neurtzeko argumentuak zenbatzen ibili gara gorago, eta sortzen diren arazoak ikusi ditugu. Ez guztiak, baina. Batzuetan, hasieran esku bateko atzamar pare batekin egin ahal izateko bezain erraza ematen duena korapilatsu egiten zaigu: argumentu gehienak, bizirik ala *corpore presente*, hor izaten ditugu perpausean, begien aurrean, baina batzuetan, nahiz eta haien presentzia sentitu, beste mundu bateko izakiak balira bezala, ezin dute inongo leku fisikorik bete. Orduan, kontaketa semantikoa eta sintaktikoa ez datoz bat. Horren erakusgarrirako, har itzazu ingelesaren ondoko hiru perpausok:

(3) a. John read the book
b. This book reads well
c. John reads at night

Kontatzen hasiz gero, lehenengo adibidean bakarrik topatzen ditugu argumentu bi, irakurlea bata eta irakurtzen dena bestea. Aldiz, (b) eta (c) perpausetan, sintaktikoki argumentu bakarra dugu, eta argumentu kopuruaren arabera, perpaus iragangaitzak dira beraz. Baina semantikoki argi dago edozein ingeles hiztunentzat hiruretan "ulertzen" direla aipatutako bi argumentu horiek. Bigarren adibidean (b), irakurle bat sumatzen da inplizituki edo ezkutuan, eta hirugarrenean, zerbait irakurtzen da, aipatu ez arren. Hizkuntza askotan, aditzari ez zaio gustatzen aipatzen ez den zehaztugabeko argumentu hori osagarri bezala onartzea. Ingelesez, aditzaren eskuineko izen sintagmaren presentzia da iragankortasunaren ageriko seinale bakarra, baina beste hizkuntza askotan bestelako irizpideez balia gaitezke sentitu bai baina ukitu ezin dugun mamu hori beste mundu batean dagoela esateko, zeren perpausaren mundu sintaktiko honetan, behintzat, egon, ez dago. Isilpeko argumentu horren mamutasuna ondoko adibideetan islatzen da ederki —Australiako yidinera[3] dugu lehenengoa eta inuitera bigarrena:

(4) a. Waguda-*ŋ*gu mayi bambi:l
gizon-ERG barazki (ABS) jan.IRK
'Gizonak barazkia jaten du'

b. Waguda bambi:dinu
gizona (ABS) jan-IRG
'Gizonak jaten du'

(5) a. Jaani-up nanuq taku-vaa
Jon-ERG hartz (ABS) ikusi-3/3
'Jonek hartza ikusten du'

b. Jaani taku-vuq
Jon (ABS) ikusi-3
'Jonek ikusten du'

Bi hizkuntza horietan, kasu markez gain, aditzak berak esaten digu (b) adibidea iragangaitza dela. Yidineraz subjektua absolutiboan dago, eta aditzari begiratuz gero, beti egitura iragangaitzetan dagoen morfema bat aurkitzen dugu *-din*; gogoratu egitura hori, zeren geroago xehetasunez aztertuko dugun antipasiboa baita. Inuiteraz ere subjektu absolutiboa dugu eta, gainera, aditzak argumentu bakar batekin egiten du komunztadura —perpausean dagoen bakarrarekin, jakina. Jatorrizko perpausaren iragankortasuna eta euskal itzulpenarena konparatuz gero (hiru hizkuntzak ergatiboak direnez erraza da), bat ez datozela konturatuko gara, euskarak subjektu ergatiboa eta laguntzaile iragankorra mantentzen baititu zehaztugabeko osagarridun egitura horietan. Honetan euskara nahiko kasu aparta da, zeren hizkuntza gehienetan hau bezalako isilpeko osagarri bat dugunean perpaus iragangaitza izaten baitugu. Badirudi euskal aditzak bere osagarriei eskatzen dizkien ezaugarrien artean zehaztugabea edo zehaztua izatea ez dela kontuan hartzen. Zehaztugabeko osagarri horiek, nahiz eta ahoskatu ez, ez dira euskaraz beste mundu bateko mamuak, baizik eta mundu honetako biztanle paperdunak... ahoskatu gabeak izan arren. Guretzat ikusezin eta entzunezinak diren osagarri horiek aditzak arazorik gabe sentitzen ditu, eta beren gune sintaktikoan kokatzen dira, perpausaren iragankortasuna nahastu gabe. "Sentitzen" den osagarri mota hau, dirudienez, indarrean (euskara) ala indarge (yidinera, inuitera) egon daiteke sintaxian[62].

****

Argumentu inplizituen kasua perpaus baten iragankortasuna baldintzatzen duen faktore bat besterik ez da. Tradiziozko gramatikaren arabera ekintza osagarriari iragaten zaio, eta honezkero klasiko bihurtu den lanean, Hopper eta Thompson (1980) iragankortasunaren mataza hariltzen saiatu ziren, alegia, "iragaite" hori oztopatu edo erraztu ahal duten faktoreak isolatzen. Ohiko definizioaren arabera jartzeko, aditz iragankorretan ekintza "subjektutik osagarrira iragaten" bada, bi argumentuez gain, "iragaitea" izan beharko genuke. Eta hizkuntza batzuetan osagarriak zehaztuak izan behar dira ekintza iragaten bazaie. Horrelakorik izan ezean, ezin egitura iragankorrik eraiki. Hopper eta Thompson faktore horien bila abiatu ziren. Bai argumentuen ezaugarriak bai ekintza motaren ezaugarriak aintzat hartzekoak dira bi argumentu horiek egitura iragankorretan zein iragangaitzetan antolatuko diren zehazteko. Horietako batzuk ekarriko ditugu gure artera.

Zehaztasuna bera ez da osagarriei bakarrik eskatzen zaien ezaugarria. Perpaus inpertsonaletako subjektuak definizioz *generiko* eta zehaztugabeak izaten dira (*edozeinek*, *jendeak,* urliak edo sandiak egiten ditu inpertsonaletako ekintzak). Eta osagarriekin gertatzen zen bezalaxe, horrelako subjektuak indarge gelditzen dira hizkuntza askotako inpertsonaletan: egile baten ekintza dela ulertu arren, sintaktikoki gizajoa ezin da ohiko subjektuen aulkian eseri, eta mamuen antzera perpausean gorputz ukigarririk ez izatera kondenatuta dago. Adieran hor egon arren, morfologiaren aldetik ikusezina denez, perpausak argumentu bakarrekoa balitz bezala jokatzen du. Iragangaitza, beraz, ondoko (b) adibidean bezala:

(6) a. Nire logelako leihotik ontziak ikusten nituen
b. Nire logelako leihotik ontziak ikusten ziren

Bigarren adibidea inpertsonala eta iragangaitza da, eta munduan zehar gabiltzala oso erraz aurkituko ditugu horrelako inpertsonal iragangaitzak[5]. Aurreko adibide batera itzuliko gara beste kasu bat aipatzearren, inuiten inuiterara hain zuzen. Lehenago esan dugun bezala, hizkuntza honetan generiko eta zehaztugabea den osagarri batek nolabait ezin du funtzionatu osagarri iragankor bezala, eta iragangaiztu egiten da perpausa. Bada, gauza bera gertatzen da subjektua mota horretakoa denean, hau da, zehaztugabea eta generikoa, hots, inpertsonala denean. Goiko datuak hemen errepikatuko ditugu berriro, baina ohar zaitez orain bigarren adiera gaineratu diogula (b)-ko perpaus iragangaitzari:

(7) a. Jaani-up nanuq taku-vaa
Jon-ERG hartz (ABS) ikusi-3/3
'Jonek hartza ikusten du'

b. Jaani taku-vuq
Jon(ABS) ikusi-3
'Jonek ikusten du'/'Jon ikusten da'

Gehitutako bigarren adiera inpertsonala da, jendeak edo edozeinek Jon ikusten duela adierazten duena. Zentzu horretan *Jaani* ez da ikuslea, ikusia dena baizik. Inuiteraren (b) perpausaren bi esanahiek ezaugarri komun bat dute: argumentu bat ezkutuan dago, interpretatu egiten da baina, antza denez, ez da gramatikalki gauzatzen. Osagarria zehaztugabea denean desagertu egiten da eta, orduan, *Jaani* sakoneko subjektua gelditzen da bakarrik (*Jonek zerbait ikusten du* adieraz). Era berean, subjektua bera ere zehaztugabea denean desagertu egiten da, eta ondorioz, *Jaani* sakoneko osagarria da gelditzen den bakarra (*Edozeinek/jendeak Jon ikusten du* adieraz). Bietan, morfologia iragangaitza da argumentu bati eskatzen zaizkion ezaugarriak izateraino heltzen ez dela adierazteko dagoen modu bakarra[6].

****

Artiko inguruko lur eta itsaso izoztuetan geldituko gara, Kanadako inuiteraren datuak oso argigarriak baitzaizkigu iragankortasunaren inguruko hausnarketa honetan. Ikusten ari garenez, osagarri gunean ager daitezkeen osagarriak zehaztuak izan behar dira hizkuntza askotan. Baldintza horiek betetzen ez dituzten barne argumentuek (*osagarri zuzen edo logikoak* esateko modu finago bat) beste gune bat bilatu beharko dute perpausa onargarria izango bada. Eta hizkuntza askok irtenbide interesgarri bat eskaintzen diete osagarri horiei: aditzarekin lotzea, harekin hitz konplexu bat osatzeko. Aditzak irentsi-edo egiten ditu osagarri hauek, gure bidaian zehar berriz ikusiko ditugun *inkorporazio* egiturak sortzeko. Eman ditzagun adibide batzuk lehenengo eta behin (inuiterarenak, nola ez), irakurleak zertaz ari garen ikus dezan:

(8) a. Jaani-up puiji kati-vaa
Jon-ERG foka (ABS) bildu-3/3
'Jonek fokak biltzen ditu'

b. Jaani puiji-kati-vuq
Jon (ABS) foka-bildu-3
'Jonek foka-biltzen du'

Lehenengo adibideak hizkuntza ergatibo baten perpaus iragankor tipikoa ematen du. Inuiteraz, bestalde, ez da inongo determinatzailerik erabiltzen eta osagarri zuzenak interpretazio zehaztua dauka. Euskarazko itzulpena, alas, anbiguoa da alde horretatik: *fokak* osagarria zehaztua (lehen aipatu ditugun fokak) zein zehaztugabea (foka batzuk) izan daiteke euskaraz. Bigarren perpausak baditu lehenengoaren argumentu biak, *Jaani* ehiztaria —bizimodu duenez, ehizean ibiltzen utziko diogu!— eta *puiji* gaixoak, baina azken hauek hitz bakarra osatzen dute aditzarekin batera. Osagarri zehaztuak batzuetan bakarrik inkorporatzen badira ere, (geroago ikusiko dugu adibide bat), zehaztugabeek gehiagotan galtzen dute beren askatasun sintaktikoa, aditzak irentsiko balitu bezala. Irentsitako izena fonologikoki hitz berriaren partea da, eta zentzu estu batean, inkorporazioaren ostean, perpausak ez du osagarririk. Ondorioz, morfologiaren aldetik ezaugarri iragangaitzak ditu, hau da, ez du osagarri komunztadurarik erakusten adizkian eta subjektua absolutibo kasuaz markatzen da.

Honelako egiturak aztertzerakoan, ohiko bi bide nagusiak ditugu eskuragarri. Ikerbide batean bi perpausek duten erlazio bakarra aditz bera eta argumentu berak komunean izatea da, baina perpausak eratzeko orduan morfologiak aditz ezberdin bi eman dizkigu, bata sinplea eta bestea konplexua. Baina beste ikerbide batean, sintaktikoki argumentu bikoa izango litzateke perpaus iragankorra, eta argumentu bakarrekoa iragangaitza. Besterik ez. Sintaxia nahiko sinple, erraz eta itxuroso mantentzen da, eta morfologia zaildu egiten da apur bat —aditz konplexu horiek eraiki beharra dela eta—, baina, badakigu, morfologia horrelakoxea da.

Nor eta Mark Baker bera dugu bigarren azterbidearen asmatzailea! Bera ohartu zenez, sintaxian badago horrelako hitz konplexuak sortzen dituen mekanismo bat, *buruz buruko mugimendua* deritzona. Hizkuntza batzuetako ale lexiko batzuek (gogoratu 2. kapituluko *buruak*) badute mendeko burua irensteko joera. 80ko hamarkadatik aurrera, mendeko buruaren goiko bururainoko mugimendu gisa aztertu izan da hori (goiko buruak behekoa irentsiko balu bezala!). Euskararen arloan *natorrela* hitzak, esaterako, jarraian dauden denbora, aditza eta konplementatzaile buruak batzen ditu, eta eredu formalen barruan lan egiten duten askoren ustez, buruz buruko mugimendu baten ondorioa da:

(9)



Baker-ek erakutsi zuenez, inkorporazio egitura hauetan ere aditza bere osagarriaren buruarekin batzen da. Asimetria nabaria dago hemen, zeren osagarri inkorporazioak oso ezagunak diren bitartean, subjektu inkorporazioak ez dira ia inon ere aurkitu: badakizu, arrain handiak txikia jan, nagusiak mendekoa, baina subjektua goregi dago arrain txikitzat hartu ahal izateko. Irakurleak aurreko zuhaitzari begirada bat bota besterik ez du egin behar osagarria eta aditza —baina ez subjektua eta aditza— elkarren ondoko buruak direla konturatzeko. Mekanismo sintaktiko hori jokoan badago, egitura hauetako asimetria hau berez jarraituko litzateke ondorio bezala, ezer berezirik esan gabe: sintaxiaren ezaugarri orokor baten ondorio arrunta litzateke asimetria hori. Hitz eraketa hori morfologian gertatuko balitz, jarraitu zuen Baker-ek, asimetria harrigarria izango litzateke, ikusi dugunez, morfologian denetariko gauzak gertatzen dira-eta! Gainera batzuetan nahiko argi dago inkorporazio egituretan osagarri zuzen batekin hasten garela. Ikusi Mexiko Berriko hegoaldeko tiwerazko ondoko adibideetan zer den osagarri logikoa, eta non amaitzen duen:

(10) a. Yede a-seuan-mű-ban
hori 2-gizon-ikusi-IRAG
'Zuk gizon hori ikusi zenuen'

b. Te-pan-tuwi-ban ku-kha-ba-'i
1-ogi-erosi-IRAG 2-egosi-IRAG-MEND
'Nik erosi nuen zuk egin zenuen ogia'

Lehenengo eta behin, ikusten denez, hizkuntza honetan inkorporazioa osagarri zehaztuei ere eskaintzen zaien ahalbidea da. Eta badakigu adibide hauetako izenak zehaztuak direla, zeren haiek zehazteko erabiltzen diren osagai batzuek —gehienetan beraiekin batera izen edo determinatzaile sintagmaren barruan agertzen direnek— ez baitituzte izenak beren goranzko (aditzarenganako) mugimenduan lagundu. Atzean gelditu dira, lehenagoko sintagma osoaren aztarna bakar bat bezala. Lehenengo adibidean determinatzailea gelditu da inkorporatzeke —ikusi *Yede seuanide* 'gizon hori'—, eta bigarrenean, erlatibozko perpausa, izenaren modifikatzailea alegia. Perpaus horietako aditz konplexuak morfologian sortzen direla esateak oso egoera deserosoan jarriko gintuzke, ez baitago argi nola sor litezkeen sintaxian beren ardatza falta zaien horrelako izen sintagma "defektiboak". Badirudi errazagoa dela pentsatzea sintaxian ohiko sintagmak sortzen ditugula eta sintaxian ere inkorporazio prozesu batean izenak oinarrizko kokalekutik ihes egiten duela goiko buru batekin elkartzeko. Izen inkorporazio egiturak sintaxian jorratzen baditugu, Baker-ek proposatzen zuen bezala, morfologia erraztu egingo dugu (ez ditugu aditz berezi hauek sortu behar!), eta sintaxia ez da larregi zailtzen, behar den mekanismoa, buruz buruko mugimendua, bestelako gauzetarako ere beharrezkoa da-eta. Sinpleki, etekin gehiago ateratzen diogu edozein modutan ere hor dagoen mekanismoari. Lur-jabetzaren munduan bezalaxe, hizkuntzalaritzaren munduan sintaxilariek eta morfologialariek beren lur-eremua gorde nahi dute, eta auzian dauden tarteko eremu ilunak bakoitzak bere aldera eraman nahi izaten ditu. Horretan sintaxilari formalak asebete ezineko lur-egarri dira, ahalik eta fenomeno gehienen azalpena sintaxian dagoela aldarrikatzea gustatzen zaielako, antza. Baina, kasu honetan behintzat, pisu handiko argumentuak plazaratu zituen Baker-ek.

Ez genuke atal honetan euskararen kasua aipatu gabe utzi nahi. Inkorporaziorik gertatzen al da euskaraz? Badirudi era mugatu batez bada ere, egon badagoela, ondoko bi perpausetan ikusten denez:

(11) a. Jon belar-biltzen dago
b. Jonek garai honetan belar-biltzea harrigarria da

Hemen ere, inongo markarik gabeko izen bat dugu (*belar*), eta *egin* aditzarekin batera ez bada (*lan egin, negar egin*), hau ez da sarri gertatzen euskaraz. Izen horren interpretazioa zehaztugabea da —ez baita gogoan dugun inongo belar berezia—, eta izen zehaztugabeekin, hain zuzen, aurkitzen dugu sarrien egitura berezi hori. Fonetikoki badirudi aditzarekin elkartzen dela unitate bakarra sortuz. Horixe da marratxo batez irudikatzen duguna. Noski, euskaraz egitura hau askoz murriztuagoa da inuiteraz baino, mendeko *-tze*dun forma nominalizatuetara murrizten da-eta. Hori ikusteko, konpara itzazu aurreko adibideak ondokookin:

(12) a. *Jonek belar-bildu du aurten
b. *Jonek belar-biltzen du urtero
c. *Jonek belar-bilduko du datorren urtean

Partizipio horiekin ezinezkoa da inkorporaziorik izatea[7]. Ezin esan oso egitura emankorra denik hau, baina oso bestelakoa da IS+*egin* motako lokuzio ugariren kasua, askoren ustez euskarazko inkorporazio egiturarik argiena[8]. *Lan egin* eta *lana egin* alderatzen baditugu determinatzailerik gabeko izena, ustez *egin* aditzak bereganatzen duena, zehaztugabea da, horrelako lokuzioetako beste izenak bezalaxe. Badago alde nabari bat euskararen ustezko inkorporazio honen eta beste hizkuntzetako inkorporazio tipikoen artean: *lan, negar* bezalako izenek nolabaiteko askatasuna gordetzen dute: izen sintagma arrunten mugikortasuna izan gabe, ez daude aditzaren ezkerretara atxikituta, inora joan ezinik. Tarteko egoera honen berri emateko inkorporazioa gehi beste zerbait proposatu dute ikertzaileek, baina gure bidetik urrunegi eramango gintuzkeenez, albo batean utzi beharko dugu. Edozein modutan ere, inuiteraren inkorporazio tipikoagoekin alderatuz, azpimarratzekoa da euskarazko IS+*egin* lokuzioak morfologikoki iragankorrak direla: izen hori sintaktikoki oraindik ere bizirik dagoen seinalea ote?

Gure auzira itzulita, izen inkorporazioa hizkuntza guztiek duten mekanismo baten (buruz buruko mugimendua) hedapena dugu. Mekanismo horrek daukan ondorio bat da hizkuntza askotan osagarri zuzen tipikoak ezin izan daitezkeen izen zehaztugabe askori agertzeko beste gune bat ematen zaiela. Bi parametro ezberdin ditugu hemen, beraz, aditzak hautatzen dituen osagarri zuzenaren ezaugarrien nolakotasuna alde batetik, eta inkorporazioaren indar eta neurria bestetik. Ikusiko dugunez, oso garrantzizkoa izango zaigu inkorporazioa gai-argumentuei gertatzen zaizkien abentura batzuk azaltzeko, eta horretara abiatuko gara hurrengo atalean.

****

Osagarrien ezaugarrietara itzuliko gara berriro (ez da harritzekoa osagarrien ezaugarriek berebiziko garrantzia izatea iragankortasunaren aldetik!). Aurreko ataletan argumentu zehaztugabeen nekeak ikusi ditugu perpausean argumentu arrunten mailan onartuak izateko, eta arazo horren beste aldea ikusiko dugu orain.

Phileas Fogg & Company-k urrundik ere bisitatu ez zituzten Artikoko bazterretan geldituko gara oraindik ere. Eta lehenagoko inuiteraz gain, Siberia aldeko txuktxieraren adibideak ere bilduko ditugu oraingoan[9]. Hizkuntza horietan ez dute artikulurik erabiltzen izenen erreferentzia ezaguna ala ezezaguna den adierazteko. Baina osagarriaren nolakotasunaren parametroaren arabera, sintagmak zehaztuak izan behar dira perpaus iragankor bateko osagarri gunean agertzeko, eta iragankortasunak horixe bera ere adierazten du. "Ekintza iragaten" zaion argumentua zehaztugabea bada, ezin aditzarekin benetako osagarrien erlazio estuan sartu. Gorago gai-argumentu sufritu honi eskaintzen zaizkion irtenbide batzuk ikusi ditugu, gehienetan perpaus iragangaitzak sorrarazten dituztenak. Oraingoan, beste irtenbide baten berri emango dizuegu: osagarri logikoak adjunktu gisa azaltzen direneko egitura antipasiboak, jadanik aurreko kapituluan aurkeztu ditugunak.

Inkorporazioarekin bezala, ez dira izen sintagma zehaztugabeak bakarrik izaten halako murriztapena jasaten dutenak, baina hizkuntza askotan, halaxe izaten da: zehaztugabeei baino ez die eragiten. Edozein modutan ere, izen sintagma zehaztugabe koitaduentzako irtenbide bat da, eta oso duina gainera. Adibideak jar ditzagun lehenengo eta behin, irakurleak animalia hauek begien aurrean izan ditzan. Berriz ere inuiteraren adibideak emango ditugu lehenik, betiere eredu iragankorra errepikaturik, gero txuktxieraren datuak emateko:

(13) a. Jaani-up nanuq taku-vaa
Jon-ERG hartz (ABS) ikusi-3/3
'Jonek hartza ikusten du'

b. Jaani nanuq-mik taku-vuq
Jon (ABS) hartz-INSTR ikusi-3
'Jonek hartz bat ikusten du'

(14) a. ʔaaček-a kimitʔ-ən ne-nlʔetet-ən
gazte-ERG zama-ABS 3PL-eraman-3SG
'Gazteek zama eraman zuten'

b. ʔaaček-ət ine-nlʔetet-gʔet kimitʔ-e
gazte-ABS *ine*-eraman-3PL zama-INSTR
'Gazteek zama [bat] eraman zuten'

Hizkuntza hauetan zehaztasuna ez da markatzen izen sintagma markatuz (artikulurik ez dago); baina sintagmaren kasuaz eta perpaus osoaren iragankortasunaren bidez berreskura dezakegu informazio hori. Osagarri zehaztuak bakarrik izan daitezke perpaus iragankorren osagarriak, eta horregatik, hain zuzen, markatzen ditugu absolutibo kasuaz. Bestela, postposizioen bidez markatzen dira. Ez dadila erratu irakurlea iruzkinetan *instrumentala* kasua irakurtzean, hemen postposizio horrek

ez du-eta inongo instrumentu-zentzurik: hizkuntza horietan handikien paradisutik botatako sintagmak markatzeko erabiltzen da, osagarri zuzena izatera iritsi ezin diren *gai*-argumentuak. Eta berdin beste hizkuntza batzuek hautatzen dituzten bestelako zehar kasuak —lekuzko kasuak ere oso ohikoak dira. Horiek ere, oinarrizko zentzu semantikoan gabe, handi-mandietako bat ezin izan daitekeen osagarria markatzeko erabiltzen dira.

Subjektua eta instrumentala (edo edozein zehar kasu) dituzten perpaus hauek iragangaitzak dira, eta subjektua absolutiboan azaltzen zaigu, hizkuntza ergatiboetan dagokion moduan. Aditzei begiratzen badiegu, subjektu komunztadura besterik markatzen ez den heinean iragangaitzak dira, baina horrezaz gain badago txuktxieraz marka berezi bat (*ine-*) perpaus mota hauekin lotuta dagoena. Gorago, honelako beste egitura iragangaitz bat ikusi dugu —eta irakurleari gogoratzea ere eskatu— yidineraren zehaztugabeko osagarrien kasua aztertzean, eta hemen errepikatzen ditugu adibideak:

(15) a. Waguda-*ŋ*gu mayi bambi:l
gizon-ERG barazki (ABS) jan.IRK
'Gizonak barazkia jaten du'

b. Waguda bambi:dinu
gizona(ABS) jan-IRG
'Gizonak jaten du'

Hemen ere aditz iragangaitza morfema berezi batez azaltzen zaigu eta lehengoaren antzeko egitura dugu. Salbuespen batekin: osagarria ez da agertzen. Baina hau, apur bat pentsatuz gero, ez da hain harritzekoa, subjektuak eta —hizkuntza askotan— osagarriak ez bezala, postposizio sintagmek ez baitute agertzeko inongo beharrik izaten. Beraz, hiru hizkuntza hauetako egiturak oso dira antzekoak eta egitura antipasiboen eredutzat har ditzakegu.

Antipasiboekin jarraitu baino lehenago, beharbada lagungarria izan lekioke gure irakurleari euskarazko ordezko bat nolakoa izan litekeen ikustea, hasieran apur bat arrotzak ematen duten egitura hauek hobeto beregana ditzan eta ondorengo eztabaida hobeto jarrai dezan. Ez dira hain arrotzak antipasiboak, ondoko adibideez pentsatzen badugu:

(16) a. Passepartout-ek gasa ixtea ahaztu zuen
b. Passepartout gasa ixteaz ahaztu zen

(17) a. Egun hori ondo gogoratzen dut
b. Egun horretaz ondo gogoratzen naiz

Lehenengoa egitura iragankor arrunta dugu, baina bigarrenarekin harremanetan aztertzen hasiz gero, berehala konturatzen gara perpaus aktiboen eta perpaus pasiboen artean dagoenaren guztiz antzeko erlazioa daukagula. Argumentuak berberak direnez, subjektu bera dute bi perpausok, baina perpaus iragankorrean osagarria dena (b) konfigurazioan instrumentalaz markatuta agertzen zaigu. Areago, bigarren hori perpaus iragangaitza da. Aurreko beste hizkuntzetatik urruntzen gaituen faktore bakarra kantitatezkoa da, ez kalitatezkoa: euskaraz oso aditz iragankor gutxik dute konfigurazio iragangaitz honetan erabiliak izateko ahalmena. Ikusi ditugun beste hizkuntzetan, aldiz, guztiz egitura emankorra dugu hau, euskaraz aditz batetik egitura inpertsonalak lor ditzakegun erraztasun berberarekin eraiki baitaitezke antipasiboak hizkuntzotan[10]. Badirudi, beraz, sintaxian sortutako egiturak direla pentsatu beharrean, aditz batzuen berezitasun lexikotzat har ditzakegula egitura hauek. Baina ondo dago kasu hauek gogoan gordetzea «subjektu iragankorra subjektu iragangaitz bihurtzen da eta osagarri iragankorra adjunktu» gisako adierazpenek erotu gabe ondo prozesatzeko.

Zergatik deitzen dira egitura hauek *antipasiboak*? Nekez uler dezakegu hau ondo lehenago egitura pasiboen inguruko zehaztasunik eman gabe. Zorionez, gaztetako gramatika-lezioetatik gehienetan ezer gutxi gogoratzen badugu ere, bada bat inor gutxik ahazten duena, harrigarriro —pentsa unibertsitatera heltzean, ikasleek beraiek ere badute oroimenaren txokoren batean nonbait gordea. *Pasiboa* da oroimenean iltzatutako egitura hori. Esate batera, emaiozu norbaiti aurreko kapituluko (a) perpausa eta egitura pasiboa sortzeko diotsazunean, erraz emango dizu (b):

(18) a. Los europeos asesinaron a millones de indígenas a partir del año 1492
b. Millones de indígenas fueron asesinados por los europeos a partir de 1492

Gaztelaniazko (a) egiturari *aktiboa* deitu behar geniola esaten ziguten eskolan pasiboarekin aurkakotasunez, eta pasiboak berarekin zerikusi estua zuela, hain estua non bi perpausak bikiak diruditen.

Aktiboa eta pasiboa konparatzen ditugunean, ez dago esanahi aldetik itxuraz inongo diferentziarik. Batean zein bestean indiarrak hil zituzten, milioika akabatu ere, europarron lotsarako eta gizadi osoaren betiereko oinazerako. *Millones de indígenas* 'milioika indiar', hortaz, *osagarri logikoa* da bi perpausetan. Ostean, batean zein bestean, europarrak izan ziren indiarrak —gupidarik gabe— akabatu zituztenak. *(Por) los europeos* 'europarrek' *subjektu logikoa* da, beraz, preposizioa aurretik eraman zein ez. Baina argumentuak berberak izanagatik ere, perpaus bakoitzean jokatzen duten rol gramatikala oso da ezberdina. Bi perpausen arteko argumentuen funtzio-aldaketak ondoko taulan itxura daitezke:

(19) Aktiboa SUBJEKTUA OSAGARRIA

Pasiboa SUBJEKTUA ADJUNKTUA

Geroago sakonduko dugu apur bat pasiboen sorrera sintaktikoan, baina momentuz pentsa beza irakurleak egitura pasibo hau ez dela eratorpenez sortu, hau da, ez dela egitura "aktibotik" sortu. Partaide hauen funtzio gramatikalak alderatzen ditugu hemen, horren errepresentazio bat emanez.

Erabil dezagun orain irudi mota hau egitura aktibo eta antipasiboetako argumentuen funtzio/guneak laburbiltzeko:

(20) Aktiboa SUBJEKTUA OSAGARRIA

Antipasiboa SUBJEKTUA ADJUNKTUA

Horrela ikusita, kontrako konfigurazioak ditugula ematen du, saltsan dauden funtzioak berberak izanik ere, argumentu bakoitza pasiboan funtzio batekin azaltzen bada, antipasiboan kontrakoarekin azalduko baita[11].

Hizkuntza ergatiboetan egitura antipasiboak, beraz, iragankor tipikoen kideko egitura iragangaitzak dira. Nahiz eta argumentu bi izan, perpaus iragankor arrunta izateko behar den ezaugarriren bat, edo batzuk falta direnean agertzen dira maizenik, dela osagarriaren nolakotasunagatik —zehaztugabea izateagatik, eta abar—, dela subjektuaren ezaugarriren batengatik —generikoa izateagatik, esaterako—, dela ondoren ikusiko dugun faktore sortarengatik.

Pasiboaren eta antipasiboaren arteko bereiztasuna eta, era berean, antzekotasuna, analisi batean islatzea ez da batere eginkizun makala. Azterbide batean, aditz forma ezberdin hauek (aktiboa, pasiboa, antipasiboa) morfologian eratuko lirateke, eta hor ere gertatuko lirateke argumentu konfigurazio berrantolaketak. Bestalde, arestian esan dugun bezala, hurbilketa sortzailearen ezaugarri interesgarri bat sintaxian ahalik eta lan gehien egitea da, *Botere osoa sovietei!* oihukatu beharrean *Botere osoa sintaxiari!* aldarrikatuz. Baker bera ildo horretatik abiatu zen 1989. urtean, Ian Roberts eta Kyle Johnson-en laguntzarekin. Haien azalpena ulertzeko badago lehenago ezagutu behar dugun fenomeno sinple bat: batzuetan argumentuak bikoiztu egiten dira, eta, semantikan argumentu bakarra badaukagu ere, sintaxian animalia bi ikusiko ditugu. Berriro ere, ez dugu oso urrunera jo behar ustez hain xelebrea den bikoizketa horren adibide bat aurkitzeko, gaztelaniaren ondoko perpausean bezala:

(21) El Sr. Fogg les ganó la apuesta a sus compañeros del Club

Zein da aurreko perpausaren zehar osagarria? Gizonezko talde bakar bat, noski, —ezin emakumerik egon kideen artean… nolanahi ere ez da horren harrigarria txoko batzuk zapaldu ere zapaldu ezin ditzaketen emakume euskaldunentzat!—, baina sintaktikoki argumentu hori osagai bitan banatzen da, *a sus compañeros del Club* alde batetik, eta... *les* izenordaina bestetik, alegia, aditzarekin batera doan klitikoa[12] eta askeagoa den sintagma handiagoa[13]. Eta horixe zen Baker & konpainiaren proposamena: atzizki pasiboa eta atzizki antipasiboa ez dira morfologiako atzizki tipikoak, baizik eta sintaxian bizirik dauden sintagma... klitikoak. Ikus dezagun nola datozen segidan aukera parametriko honetatik pasiboaren eta antipasiboaren ezaugarriak. Has gaitezen antipasiboarekin. Baker-en arabera, atzizki antipasiboa osagarri klitikoa da, eta agertzen deneko perpausaren itxura ondokoaren antzeko zerbait izan liteke. Egitura sinplea erabiltzen dugu irakurleari ahalik eta oztopo gehien kentzearren:

(22)



Atzizki antipasiboa, beraz, benetako osagarria da hizkuntza hauetan. Baina osagarri berezia denez, aditzarekin elkartzen da, gorago ikusi dugun inkorporazio prozesuan: izen sintagma osagarri horren AP antipasibo burua (kasurako, txuktxieraren *ine*-)[14], hots, klitikoa, aditz sintagmaren buruarekin lotzen da. Badakigu inkorporazio egiturak iragangaitzak direna. Beraz, antipasiboa ere iragangaitza izango da, horrek subjektuaren kasuan eta aditzaren itxuran dakartzan ondorio guztiekin. Eta zer gertatzen zaio bikoiztutako sintagma osoari? Osagarriaren kasua jadanik erabilezina da, klitikoak hartu baitu inkorporatzean. Orduan sintagma osoa ezingo da inolaz ere osagarri modura agertu... baina bai, noski, adjunktu modura, adjunktuak nahi beste ager baitaitezke perpauseko. Hizkuntza bakoitzean adjunktu jakin bat hautatzen da. Baina zein kasu erabiltzen den aldatzen bada, aldatzen ez dena da adjunktua izan beharra.

Eta antzeko tratamendua ematen zaio pasiboari: morfologia pasiboa deitzen duguna —partizipioa, latinezko *-tur* motakoa edo dena delakoa— klitiko gisa interpretatzen da... baina, antipasiboa ez bezala, subjektu klitikoa dugu. Eta gainera, gaztelaniazko klitikoen antzera, denbora inflexioarekin lotuta agertu behar da:

(23)



Klitiko hori leku berezian dagoen subjektua da, baina subjektua azken batean. Eta, beste subjektuek bezala, kasua behar izango du. Baina ezohiko leku berezi horretan aditzak bakarrik erka dezake kasua, subjektu gunean dauden *comme il faut* subjektuek denbora inflexioarekin erkatzen duten bitartean. Eta, noski, behin aditzak bere kasua erkatuz gero, benetako osagarri gixajoak ezingo du jada aditzarekin bere kasua erkatu. Gelditzen zaion irtenbide bakarra erkatu gabe dagoen denbora inflexioarekin bat egitea da, eta, beraz, osagarria subjektu gunera mugitzen da, hor subjektuaren kasua erkatzeko:

(24)



Beraz, sakoneko osagarria subjektu gunean agertuko da. Gainera, sakoneko osagarria da kasua ohiko eran erkatu duen sintagma bakarra, eta horren erakusgarria perpausaren itxura iragangaitza da. Berriro ere, klitikoarekin batera izen sintagma osoa ahoskatu nahi badugu, ezingo dugu sintagma nominatibo bat erabili, kasu hori osagarriari "eman" baitzaio, eta "dohainik" erabil daitekeen adjunktu baten bidez azaleratu beharko da egilea[15].

Horrela jarrita, analisiaren urrats guztien ezaugarriak eta alderdi teknikoen gorabeherak serioski kontuan hartu, eta kanpotik (gainetik ere!) ikusita, aitortu behar da nahiko *Deus ex machina* kutsua izan dezakeela honek guztionek. Baina gainbegirada hau eman nahi izan diogu irakurleak ikus dezan, *bystander* gisa bada ere, gorago neurri handi batean era intuitiboan eman ditugun ideia batzuk

formalizatzerakoan sakatu behar diren askotariko botoiak. Modu inpresionista eta ulerterraz batean esango genuke bai pasiboetan bai antipasiboetan argumentu bat, subjektua izan, osagarria izan, "apartekoa" dela eta ez(in) dela ohiko argumentuen mekanismoetara egokitu. Hortik iragangaiztasuna.

Baina jarrai dezagun mekanismo hauetaz baliatu behar diren bestelako kasuak aztertzen, hau da, bi argumentuak nolabait ohiko subjektu edo ohiko osagarrien modura jokatzen ez duten kasuak. Edo modu jasoago batez esateko, ikus ditzagun bi argumentuen ezaugarriak ohiko erkatzaileekin parekatu ezin ditugun kasu gehiago.

****

Berreskura dezagun aspaldian utzitako haria, osagarri zehaztugabeen arazoen beste adibide batzuk emanez. Ez da beti gertatzen ezohiko argumentu baten presentziak perpaus iragangaitzak egitera behartzea. Batzuetan, ezohiko argumentuak iragankortasunaren oreka kolokan jartzen du guztiz zapuztu gabe: perpausak oraindik ere iragankortzat hartzen ditugu, nahiz eta ohiko mekanismo edo marka baten faltak aparteko zerbait daukagula adierazi. Euskarara bueltatzen gara gure bidaian, horren argitan datu ezagun batzuk ikusteko. Jakina denez, ekialdeko euskalki batzuetan aukerakoa da osagarri mugagabeekin komunztadura egitea edo ez egitea:

(25) a. Lau liburu irakurri dut/ditut
b. Lau liburuak irakurri *dut/ditut

Aukera hori, bestalde, ezinezkoa da osagarri mugatu pluralekin —pluraleko osagarri komunztadura galdu ez duten euskalkietan behintzat. Komunztaduraren parte bat, osagarriaren plural komunztadura, ez da beharrezkoa osagarria mugagabea denean. Osagarri zehaztuek, aldiz, osagarrien ezaugarri prototipikoak mantendu behar dituzte. Pentsatu kontua ez dela bakarrik 'lau liburu' morfologikoki plurala ez denez, plurala markatzea aukerakoa izatea. Ez da hori bakarrik, zeren *gu* eta *zu* izenordainek ere, morfologikoki mugagabeak izan arren (Donemiliagako Kukullako idazle edo, hobe, graffitilariak *guec* idatzi zuen, baina euskaldunok aspalditik esaten dugu *guk!*), beharrezkoa dute euskalki horietan beren zenbaki komunztadura markatzea, *-it-* eta guzti (guk dakigula, *lau liburu irakurri dut* esan dezaketenek ez dute **gakarzu* zein *gakartzazu* esaten, azken horretan *g-* absolutiboarekin lotuta dagoen *tza* pluralgilea kenduta). Noski, *gu* eta *zu* morfologikoki bakarrik dira zehaztugabeak, zeren, erreferentziaren aldetik, ezin zehatzagoak izan![16] Beraz, beharbada erreferentzia zehaztugabeko osagarriekin bakarrik desager daiteke osagarri komunztadura hau[17]. Oraindik ere, egitura iragankorra dugu baina, nolabait, osagarria ahulago eta ikusezinagoa bihurtu dela dirudi.

Antzeko zerbait gertatzen da gaztelaniaz. Osagarri zuzen batzuk *a* preposizioaz markatzen dira, eta beste batzuk, berriz, biluzik ikusten ditugu. Preposizio horren agerpena baldintzatzen duten faktoreak zerrendatzen hasiz gero, berehala konturatzen gara gorago perpaus iragankorretako osagarri zuzen tipikoak zehazten dituzten berberak direla, hots, osagarri biziduna eta zehaztua izatea, edo hobe esanda, espezifikoa:

(26) a. Busco a la arquitecta
b. Busco una arquitecta
c. Busco la/una linterna

Preposizio hori lehenengo perpausean aurkitzen dugu, osagarria, kasu horretan, arkitekto jakin bat da-eta, goizean ezagutu dudana, esaterako (bidenabar, normalean bizidunak diren zehar osagarriak markatzen dituen preposizio bera da hemengo *a* hori). Aldiz, bigarrenean, osagarria biziduna izan arren, espezifikoa ez denez (berdin zait zein den), preposizioa ezin daiteke agertu. Hirugarren adibidean, azkenik, osagarria bizigabea denez, preposiziorik gabe ageri da, zehaztasuna eta espezifikotasuna gora ala behera. Baina ezaugarri horiek gorago gure osagarri zuzen tipiko eta zintzoak identifikatzen dituztenak badira ere, ezin dugu esan gaztelaniaz perpausak iragangaitz bihurtzen direla osagarriak bestelakoak direnean. Nekez esan genezake aurreko (b, c) adibideak iragangaitzak direnik. Hopper eta Thompson-ek esango luketen bezala, baina, tipologoen *continuum* baten ardatzari segika, (a) adibidea (b, c) adibideak baino iragankorragoa da. Beste hizkuntza batzuetan iragankortasunaren *beheratze* hori nahikoa da morfologia iragangaitzera pasatzeko, gaztelaniaz iragankorra gorde badaiteke ere.

Azken adibidea dakargu zehaztugabeko osagarriak hizkuntza batzuetan ohiko osagarri zuzenetatik bereizten direla erakusteko, betiere iragangaitz izatera heldu gabe. Turkieraz, esate batera, osagarri zehaztuek bakarrik hartzen dute ageriko kasu marka akusatiboa. Osagarri zehaztugabeek, aldiz, zero marka hartzen dute, Comrie-k (1981) aurkezten dituen datu hauetan bezala:

(27) a. Üç çocuk kim gördü?
3 mutil nork ikusi.zuen
'Nork ikusi zuen/zituen hiru mutil?'

b. Üç çocuğu kim gördü?
mutil.AKUS
'Nork ikusi zituen hiru mutilak?'

Baina, guk dakigunez, oraindik ere osagarri prototipikoaren jokabide bera dauka zero markaz adierazitako osagarri horrek, eta, oro har, perpaus iragankortzat hartuko litzateke lehenengo hori. Euskaraz ere *Mirenek lan egin du* perpausean ezohiko osagarri bat dugu, baina osagarri hori *lana* ez bezalakoa izan arren, oraindik ere iragankortzat har dezakegu perpausa, inongo euskaltegitako irakasleren loa asaldatu gabe.

****

Iragankortasunaren eta argumentu kopuruaren inguruko ezaugarriekin amaitzeko, kasu berezi bat aipatu behar dugu. *Josunek Mikel ikusi du* perpausean kontaketa erraza bada ere, zer gertatzen da *Iratxek bere burua ikusi du* bezalakoetan? Ez du ematen *bere burua* semantikoki benetan argumentu ezberbina denik, eta egitura bihurkarietan, definizioz, ekintza ez zaio beste inori "iragaten". Bihurkari prototipikoagoetan subjektua eta osagarria bat eta bera dira, aditzaren ekintza egilearen gainera bihurtzen baita. Beraz, argumentu bi eta theta-rol bi baditugu ere, partaideen kopuruaren zentzu hertsian argumentu bat besterik ez dago. Euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan sasiargumentuak erabiltzen ditugu; sintaktikoki osagarri arruntak dira, baina erreferentziaren aldetik nahiko bereziak. Horixe aurkitzen dugu georgieraz, ondoko adibidean bezala[18]:

(28) Ḳaci akebs tavi tav-s
gizon.NOM 3.goraipatu.3 bere buru-DAT
'Gizonak bere burua goraipatzen du'

Seguru asko, ez dugu hemen *tav-* 'burua' argumentu arruntzat hartu nahi. Eta hizkuntza askotan nahitaez beste argumentuarekin erreferentziakidea den argumentu bihurkaria ez da aintzat hartzen argumentu kontaketan. Hortik, hizkuntzetan zehar perpaus bihurkariek, eta elkarkariek, ezaugarri iragangaitzak izateko erakusten duten joera. Horren ondorioz, askotan, izenordain bihurkariak edo aurrekoaren antzeko osagarri bereziak aurkitu beharrean, besterik gabe, ageriko argumentu bakarreko perpaus iragangaitzak topatzen ditugu. Itzul gaitezen berriro ere inuiteraren gure goiko adibidera, aditz iragankor baten erabilera iragangaitzaren beste adiera bat hauxe da-eta:

(29) a. Jaani-up nanuq taku-vaa
Jon-ERG hartz (ABS) ikusi-3/3
'Jonek hartza ikusten du'

b. Jaani taku-vuq
Jon (ABS) ikusi-3
'Jonek ikusten du/Jon ikusten da/Jonek bere burua ikusten du'

Pilatu egin zaizkigu orain egitura iragangaitzak eskain ditzakeen adierak. Lehenengoan osagarri zehaztugabea aditzen dugu; bigarrenean, subjektu generiko zehaztugabea ("inpertsonala") da Jaani ikusten duena, eta hirugarrenean, Jaanik ikusten duena Jaani bera da. Hiruretan, argumentu "bereziak" ditugu, eta hiruretan, "berezia" ez dena bakarrik (hemen *Jaani*) jantzi da jantzi morfologikoaz gure begien aurrean agertzeko. Perpaus iragangaitz baten subjektuari dagokion bezala, absolutiboan, noski.

Arestian, inuiteraren adibideak aipatzean egitura hauek ageriko morfologia berezirik gabeko antipasiboak izan litezkeela esan dugu. Eta Artikotik aldendu eta eguzkiak kiskalitako Hego Australiako lurretan egiten den diyarierara Austin-en (1981) eskutik gerturatzen bagara, argi eta garbi antipasiboa den egitura aurkitzen dugu:

(30) ṉawu ṉayi-ṭadi-ṇda pudi-yi *ŋ*apa-ṉi
bera.ABS ikusi-AP-PART LAG-OR ura-INES
'Hark bere burua uretan ikusten du'

Hemen *ṭadi* artizkia da antipasiboetako marka, eta aurrerago beste kasu batzuetan aurkituko dugu; bi rolak dituen argumentuaren agerpen bakarra subjektu absolutiboa dugu. Ikuspuntu horretatik, Baker-en ildotik abiatuta, erraza da esatea hemen, beste antipasiboetan bezala, osagarri gunean sortu den osagarri berezi bat geneukala, *ṭadi* bera, osagarri tipikoen ezaugarriak ez izatean inkorporatu egiten dena. Azalpen horrek daukan alde ona da hasieran ditugun bi theta-rolak —egilea eta gaia— bi gune sintaktikoetan sortu eta bete ditugula, beste egitura iragankorren antzera. Inkorporazioaren ondorioz argumentu sintaktiko bakarreko egiturak izango dira, baina.

Ez dago argi, bestalde, antipasibo bat edo antzeko zerbaiten analisia proposa daitekeen ageriko morfologia antipasiborik ez dagoenean. Noski, inongo arazorik ez dago isilpeko morfologia proposatzeko, eta sintaxilari askok alaiki egiten dituzte horrelako proposamenak. Gu, hala ere, ahalbide hori baztertu gabe ere, begi aurrean gauzak ikustea nahiago dugun horietakoak gara, eta ebidentzia gehiago izan nahi genuke. Goiko inuiteraren kasuan bide hori askoz errazagoa izan daiteke ingelesez baino, guk dakigula, behintzat, inork ez du-eta proposatzen egitura antipasiborik ingelesez. Baina hizkuntza berean, alde guztietatik iragankorrak diren *Alice saw herself* motako bihurkariez gain, badaude beste batzuk iragangaitzen itxura osoa dutenak:

(31) Alice scratched
'Alicek hatz egin zuen'

Ezin dugu Phileas Fogg hatz egiten imajinatu ere egin, baina agian Fix detektibeak, ideia bila zebilela, hori egiten zuen buruan edo. Ingelesez hori adierazteko, gorputz atala (*Fix scratched his head*), izenordain bihurkaria (*Fix scratched himself*), edo, goiko adibidean bezala, inongo osagarririk gabeko aditza erabil ditzakegu[19]. Eta ingelesez aditzaren eskumatara izen sintagmarik ez duen perpausa iragangaitza da. Ez dirudi kasu hau azaltzeko antipasiborik behar dugunik. Inkorporatzen den isilpeko osagai bat beharko litzateke, baina, hasteko, isilpeko zerbait behar badugu, errazagoa da esatea *himself* ageriko izenordainaz gain ahoskatzen ez dugun HIMSELF bat dagoela. Isilpeko izenordain horrek agerikoaren ezaugarri berberak izan ditzake, eta haien artean ez dago inkorporatzerik.

Euskaraz ere aurki ditzakegu horrelako bihurkari iragangaitzak, *neure burua* osagarria dutenen ondoan, nahiz eta azken horien agerpena murriztuagoa eta ilunagoa den[20]. Ondokoak dituzu adibide batzuk:

(32) a. Ispiluan ikusi nintzen/neure burua ikusi nuen
b. Xabier etengabe goraipatu da/goraipatu du bere burua.
c. Berehala jantziko naiz /*neure burua jantziko dut
d. Balkoitik behera bota zen/?bota zuen bere burua
e. Engainatu egiten zara horrela pentsatzean/zeure burua engainatzen duzu

Horien artean batzuk estandarrak dira eta beste batzuk —batez ere (a)— gramatika arau-emaileak gaitzesten dituen arren, benetako formak dira. Baina atal honetan ikusitakoaren arabera, argi dago horrelako formak guztiz arruntak direla Hizkuntza Tipologiaren aldetik. Gainera hizkuntza batek bihurkariak sortzeko modu bat baino gehiago izan ditzake, aditzen arabera, ingelesez bezala[21,22]. Beti bezala, mundua ezagutzeak geure burua ezagutzera eraman gaitzake, eta munduko hizkuntzak —eta hizkuntzaren mundua— ezagutzeak bestelako argitan ikusarazten dizkigu horrelako egiturak. Ibilbide laburreko arau-zale batzuentzat ideia munstrokeria hutsa bada ere, aniztasuna aberastasuna da hizkuntza bakar baten barruan ere.

****

Ekintzaren argumentu kopuru eta izaeraren gorabeherak ikustearekin, baina, ez dugu inolaz ere ahitu iragankortasun aldaketak araupetzen dituzten ezaugarrien gainbegirada. Subjektuaren izaera semantikoa ere (hizkuntzalarion jergan theta-rola deitzen dena, *egilea, gaia, helburua*, eta antzeko labeletarako) garrantzi handiko faktorea da hizkuntza batean benetan «ekintza subjektutik osagarrira iragaten» den ulertzen saiatzeko. Perpaus iragankorren subjektu tipikoak egileak izaten dira, hau da, ekintza sortzen edota kontrolatzen duten argumentu bizidunak. Sarri askotan, subjektua jasailea denean, hots, zerbait "egiten" duena izan beharrean zerbait gertatzen zaionean, egitura iragangaitzen aldera makurtzen dira hizkuntzak. Ulertzekoa da, horrelakoetan nekez pasatzen baitio ezer subjektuak osagarriari.

Hauxe litzateke diyarieraren ondoko kasua. Austin-ek (1981) deskribatzen duenaren arabera, perpaus iragankorraren (a) subjektuak bilatze prozesu baten ondorioz aurkitzen du osagarria, eta perpaus iragangaitzarenak (b), berriz, kasualitatez aurkitzen du, horregatik, egilea gabe, jasailea litzateke subjektuaren theta-rola:

(33) a. *ŋaṯu* *yinaṇa* *danka-ṇa* *wara-yi*
ni.ERG zu.ABS aurkitu-PART LAG-OR
'Nik zu aurkitu zaitut'

b. *ŋaṇi* *ḍanka-ṭadi-ṇa* *wara-yi* *yiŋkaŋu*
ni.ABS aurkitu-AP-PART LAG-OR zu.INES
'Nik zu aurkitu zaitut ('Niri zu aurkitzea gertatu zait')

Ez dago inongo ezberdintasunik argumentu kopuruaren edota zehaztasunaren aldetik, baina bai gertaeran eta ondorioz, argumentuen izaera semantikoan, gertaera motak gobernatzen baitu zein den haien theta-rola. Bigarren perpausaren aditzak atzizki antipasibo bat dauka, eta argumentuen markatzearen aldetik iragangaitza da, hortik subjektua absolutiboaz markatzea. Eta morfologia iragangaitzari egilea ez den subjektua dagokio. Antzeko zerbait eta artizki bera ditugu ondokoan:

(34) *ŋaṇi* *mara* *dama-ṭadi-ṇa* *wara-yi*
ni.ABS esku.ABS ebaki-AP-PART LAG-OR
'Eskua ebaki dut'

Gehienon munduan, norberaren eskua ebakitzea ez da egile batek hasi, zuzendu eta kontrolatzen duen ekintza, gizajooi batzuetan gertatzen zaigun ezbeharra baizik, eta horregatik perpaus iragangaitz batez bideratzen da zentzu hau diyarieraz[23]. Kontuan izan ingelesez eta gaztelaniaz subjektu jasailea duen gertaera bera era iragankor batez adierazten dela:

(35) a. I cut my hand
b. Yo me corté la mano

Bi perpausok, diyarieraren adibideak ez bezala, beste interpretazio bat ere badute, hau da, subjektua egiletzat har liteke eta borondatez jokatu duela ere pentsa genezake. Horretan euskarak inguruko hizkuntzen antzera jokatzen du, perpaus iragankorrak bi adierak onartzen ditu-eta[24]:

(36) a. Eskua ebaki nuen
b. Besoa apurtu dut
c. Aurpegia urratu dut

Gainerakoan, batzuetan gorputz atal horren zoritxarreko jabea jasailea denean, datiboaz markatuta azaltzen zaigu egitura iragangaitz batean:

(37) a. *Eskua ebaki zait
b. Besoa apurtu zait
c. Aurpegia urratu zait

Egile zentzua, beraz, erabilera iragankorrean bakarrik aurkitzen dugu, eta subjektuaren jasaile zentzua perpaus iragangaitzaren bidez ere adieraz daiteke.

****

Goian ikusi dugunez, aditzaren subjektuaren theta-rola egoeraren arabera aldatu egin daiteke. Era berean, *ebaki* bezalako gertaeren subjektuak benetan egileak ala jasaileak diren markatzeko iragangaizte prozesuak daudela ikusi dugu. Baina, oro har, arruntagoa da aditzaren beraren esanahiarengatik subjektu argumentua egilea, gaia edo jasailea izatea. Kasu sinple batean, esaterako, aditz batek ez badu ekintzarik adierazten, egoera bat baizik, ez dugu egilerik izango, ekintzarik ez dago-eta. Horixe da ondoko aditzen kasua: zerbait gustatzen zaidala diodanean, neure gustuen deskribapen bat egiten dut, baina ezer ez da "jazo". Era berean, *Jon garaia da,* edota *Jon gose da* adierazpenek ez dute inongo ekintzarik adierazten: ezer ez da gertatu, egoera baten deskribapena besterik ez dugu:

(38) a. Joni Coca Cola gustatzen zaio
b. Gose naiz

Hemen joera sendorik aurkitzen ez badugu ere, badaude horrelakoetan egitura iragangaitz ugari munduko hizkuntzetan. Ingelesez apur bat dakienak badaki ezberdin adierazten dela *gustatzea* hizkuntza horretan, *Jon likes Coke* perpausak itxura iragankor arrunta baitauka —bidenabar, *Orhiko xoriak Orhi laket* perpausaren itxura bera! Ingelesez aditz iragankor batez adierazten duguna euskararen hizkera batzuetan —*gustatu* esan beharrean, *maite* dutela diotenak ere badira-eta euskaldunen artean—, eta orobat, gaztelaniaz, nolabait "alderantziz" eraiki daiteke: gustatzen zaiguna, ingelesez osagarria dena, subjektu iragangaitza bihurtzen dugu absolutiboaz markatuz, eta ingelesez subjektu iragankorra dena gurean zehar osagarrien datiboaz markatuta agertzen da. Ez da harritzekoa Perlmutter-ek horrelako predikatuei "inbertsio aditzak" labela jartzea[25]:

(39) Ingelesezko *like*: SUBJEKTUA OSAGARRIA

Euskarazko *gustatu*: SUBJEKTUA ZEHAR OSAGARRIA

Gure gogoaren egoera adierazten duten aditz psikologiko asko mota honetakoak izaten dira hizkuntza askotan: *ahaztu, interesatu*, eta are, ekialdeko euskalkietan, *laketu*ren erabilera batzuk (*zerbait laketu zaio Joni*). Beste aditz psikologikoak, aldiz, iragankor arruntak izaten dira (*gorrotatu, estimatu, kezkatu*), euskaraz hau joera bat besterik ez delako seinalea. Beste hizkuntza batzuetan joera batetik benetako eredu sendo batera pasatzen gara, eta georgiera, adibidez, honetan oso sistematikoa da: egoera aditzak atal berezi batean (iragangaitza) sailkatzen ditu; ondorioz, era berean portatzen dira *uqvars* 'maite du', *sʒuls* 'gorrotatzen du', *axsovs* 'gogoratzen da', *esmits* 'ulertzen du', *akvs* 'badauka', *enaneba* 'sentitzen du', *hšia* 'gose da', eta abar (Harris, 1981). Horien subjektuak, denboraren arabera, nominatiboan edo, gehienetan, datiboan agertzen dira. Era berean, aditz mota gehienen forma burutuen subjektuak datiboan ere agertzen dira georgieraz, denbora burutuek ekintzen ondoko *egoerak* adierazten baitituzte, eta ekintzetan ez bezala, egoeretan ez dago egilerik.

Itzul gaitezen orain gorago euskaraz aipatu ditugun *gose naiz* bezalakoetara. Eredu jator honetako euskal egitura iragangaitza da, subjektuak ekintza bat aurrera eraman beharrean, zerbait sentitzen baitu. Badago horrekin lotu genezakeen datu bat, iragankortasunarekin ere harremanetan dagoena: subjektu jasaileen artean, ez da batere arraroa subjektuen ohiko kasuaren ordez normalean osagarriekin azaltzen den kasua agertzea. Euskara hizkuntza ergatiboa denez, osagarrien kasua eta subjektu iragangaitzen kasua bera da, eta *Jon gose da* bezalakoetan sumatzen dugun bakarra da egitura iragangaitza dugula, eta horrek ez dirudi gaueko teleberriari hasiera emateko moduko gertakaria. Baina bestelako hizkuntzetan osagarriekiko lotura hori dramatikoagoa da. Ketxueraz (a) eta txoktaweraz (b), adibidez, akusatiboan agertzen dira gorputz egoera predikatuen subjektuak edo subjektu komunztadura markak:

(40) a. noqa-ta chiri-wa-n
ni-AKUS hotz-1O-3S
'Hotz naiz'

b. Sa-hohchafo-h
1AKUS-gose-PRED
'Gose naiz'

Txoktaweraren subjektuen gertaera dramatikoekin jarraitzeko, pentsatze edo uste aditz batzuek subjektu komunztadura marka ezberdinak erakusten dituzte, ziurtasun eta baieztapen maila zein den:

(41) a. Anakosh ikhana-li-h
ni-NOM jakin-1SG.NOM-PRED
'Nik badakit'

b. Anakosh sa-yimmi-h
ni-NOM 1AKUS-sinetsi-PRED
'Nik sinisten dut'

c. Anakosh am-ahwa-h
ni-NOM 1DAT-uste-PRED
'Nik uste dut' ('Iruditzen zait')

Eta ekintza aditzen subjektuen komunztadura markak borondatezko eta ezusteko gertaerak ezberdintzeko erabiltzen dira, nahiz eta, aurreko adibideetan bezala, subjektuaren kasua aldatu ez:

(42) a. Sa-ttola-tok
1sg.AKUS-erori-IRAG
'Erori nintzen' (ezustekoa)

b. Ittola-li-tok
erori-1SG.NOM-IRAG
'Erori nintzen' (borondatezkoa)

Adibide horietan guztietan, aditzaren barruko subjektuaren markek iragartzen digute iragankortasun mailak aldatzen direla. Nominatiboa dugun kasuetan perpaus iragankor arrunten ereduaren aurrean gaude, baina Hopper-ek eta Thompson-ek esango luketen bezala, iragankortasun maila apaldu egiten da aditzen esanahiarekin loturik dauden ezaugarri semantiko batzuen arabera.

Predikatu mota ezberdinen azken adibidea ematearren, argigarria da Hopper-ek eta Thompson-ek aipatzen duten hau. Finlandieraz, osagarriek akusatibo kasua hartzen dute... baina ez guztiek. Osagarri batzuek ezin dute kasu hori hartu eta partitiboan agertzen dira. Osagarri zuzen tipikorik ez duten heinean, perpaus horiek ez dira guztiz iragankorrak, ez Hopper eta Thompson-en hurbilketan ez eta

beste hurbilketa formalagoetan ere —esaterako, osagarriak ez du bere kasua ohiko gunean jasotzen. Osagarri partitiboen artean, hiru kasu dira hemen bereziki aipagarriak. Lehenengo eta behin, euskaraz bezalaxe, horrelaxe markatzen dira ezeztatutako perpausen osagarriak. Badaude horren azalpen formal asko, baina intuitiboki ere uler daiteke: zerbait gertatu ez bada, ez dago osagarriari "iragan" dakiokeen benetako ekintzarik. Hain zuzen ere, gai argumentua duten ezezko perpausetan osagarri logiko hori ukitua ez dela diogu eskuarki. Kasu partitiboa hartzen duen bigarren osagarri mota aspektu burutugabeko perpausetan aurkitzen dugu. Hori ere intuitiboki errazki uler dezakegu. Burutugabeko aspektuak adierazten duena da ekintza oraindik ez dela burutu, eta burutu ez bada, ez da osorik osagarrira "iragan". Etxeko hipoteka ordaintzen banago, guztiz ordainduta izango da azken zentimoa ordaindu dudanean bakarrik: hipotekadunek dakitenez, lasaitasuna ez da etortzen 'hipoteka ordaintzen dut' burutugabea esatean, 'hipoteka ordaindu dut' burutua esan daitekeenean baizik. Eredu sintaktiko formal askotan, osagarriarekin kasua erkatzen duen osagaia ez da aditza, aspektua baizik, eta ulertzekoa da, orduan, kasu berezi hau aspektu burutugabearekin lotzea eta ohiko akusatiboa aspektu burutuarekin erkatzea. Eta, azkenik, hirugarren osagarri partitiboa *gustatu, entzun, ikusi* bezalako aditzen osagarrietan aurki dezakegu, hau da, latinak hitzei gaineratzen dien misterio kutsuarekin *verba sentiendi* deritzen predikatuen osagarrietan. Baina horien subjektuak ez dira subjektu egile tipikoak, jasaileak baizik, hizkuntza batzuetan horrek dakartzan ("apaldutako iragankortasunaren") ondorioekin: gogoratu mota honetako aditz asko georgieraz iragangaitzak direla, goiko eztabaidan esan bezala[26].

Irakurle sufrituak ikus dezakeenez, hasieran nahiko nozio sinplea ematen duenak, iragankortasunak alegia, ia amaierarik gabeko tolesdura eta ñabardurak erakusten dizkigu behin ohi baino begi zorrotzagoz aztertzen dugunean. Hala ere, aldakortasunaren itsas zabal honetan badaude iparrorratzean norabide bera zehazten duten hizkuntza asko. Zorigaiztoko Lear erregeaz Shakespeare-k esan zuen bezala, *There's a method in his madness!* Mataza korapilatsu honen hariei banan-banan heldu diegu, baina, noski, bizitzak nahas-mahas ematen dizkigu analisiak isolatzen dituen hariak. Hari batzuen arteko loturaren erakusgarri, hona hemen adibide pare bat, Siberiako alutorera hizkuntzatik hartuak. Lehenengo adibidean (a) aditz oinarri iragangaitz bati (*-iwl-* 'luzatu' aditzari), argumentu bat gaineratu diogu, arazlearena, aditz horren *arazia* sortzean (*-n-iwl-*). Geroago, 6. kapituluan, honelako kasu asko ikusiko ditugu, eta datu hauek inguru zabalago baten barruan kokatuko ditugu, baina, gure oraingo kezka eta arduretarako, argumentuen aritmetika erraz batek azaltzen digu erabilera iragankorrerako aldaketa, batetik bira pasatu gara-eta. Baina, argumentu kopuru berberarekin, (b) adibidea iragangaitza da, eta irakurlea dagoeneko zergatik den ulertzeko gai izango da:

(43) a. gəm-nan virumka tə-n-iwl-av-ən
ni-ERG soka.ABS 1SG-arazi-luza-?-3SG
'Nik soka luzatzen dut'

b. gəmmə tə-virumka-n-iwl-av-ək
ni.ABS 1SG-soka-arazi-luza-?-1SG
'Nik soka luzatzen dut'

Argi denez, inkorporazioaren bitartez, argumentu bat kendu diogu bigarren adibidean *luzarazi* aditzari. Eta inkorporatutako argumentuak osagarrien kasu erkaketa harremanetan sartzen ez direnez (gogoratu zer gertatzen zitzaien (8b)-ko zorigaiztoko fokei), berriro ere perpaus iragangaitz batean amaitu dugu. Iragankortasun aldaketa hauen islapen morfologikoak argi ikusten dira subjektuen kasuan, euskara bezala hizkuntza ergatiboa den honetan lehenengo perpausaren subjektua ergatiboan azaltzen baita, eta bigarrenarena absolutiboan. Hurrengo kasua apur bat korapilatsuagoa da, hiru argumentu izan arren, oraindik ere perpaus iragangaitza dugu-eta:

(44) gəmmə tə-əvə-n-awəj-at-ək tərg-a
ni.ABS 1SG-emaztea-arazi-jan-?-1SG haragi-INSTR
'Nik emazteari haragia jan arazi diot'

Perpausa zergatik den iragangaitza ulertzeko, gorago ikuskatutako fenomeno bi izan behar ditugu kontuan: inkorporazioa eta osagarriaren ezaugarri semantikoak. Eta bi arrazoiongatik, argumentu batek handi-mandien mundutik botata amaitzen du, linbo sintaktiko batera txokoratuta. Hemengo zorigaiztoko argumentu biak egilea (*emaztea*) eta gaia (*haragia*) dira. Egilea aditzera inkorporatu da, aurreko adibidean bezalaxe, eta gaia, zehaztugabea denez —euskarazko *haragia* forma mugatuak eduki mugagabea ezkuta dezakeela ez ahaztu—, ezin da osagarri zuzenen ohiko jezarlekuan egon, ez eta, alas, egongune horri dagozkion abantailez profitatu. Baker-en azalbidean, bigarren inkorporazioa ere gertatu dela suposatu behar da, egitura antipasiboa baita hau. Edozein modutan ere, sakoneko gaia adjunktu modura bakarrik azalera daiteke, instrumentalean. Hortaz, gelditzen den argumentu bakarra eragilea da, eta absolutiboan agertzen da markaturik perpausean.

****

Honaino heldu garela, agian irakurle askori, materia sortu edo desagertu gabe, aldatu bakarrik egiten dela dioen fisikaren adagio famatu hura bururatuko zaio. Baina ezari-ezarian, argumentuak, iragankortasunaren materia direnak, sor daitezkeela ere ikusi dugu, aditz bati arazle argumentu bat gehitu baitiogu. Eta, horrelako auziek poz gaitzaketen neurrian, agian poztu egin da irakurle hori. Orain arte,

garrantzizko argumentuen zerutik botata amaitu diren hainbeste argumenturen patu tamalgarriak ikusi ditugu. Baina, orain, azkenean, jaio eta berehala handi-mandien munduan kokatua izan den zorioneko argumentu baten kasua plazaratu dugu, arazlearena hain zuzen. Jarrai dezagun espiritu baikor honekin, hurrengo ataletan argumentuak gaineratzen dituzten beste kasuak arakatzen. Hala ere, aurkitu berri dugun poztasunaren iturburuaz, alegia, arazleez, 6. kapituluan arduratuko gara bereziki, eta ordura arte gordeko dugu nahikoa isilpean. Beste norabait jo beharko dugu ondoren pozaren pozez jarraitzeko!

Argumentuak gehitzen dituzten perpaus mota batzuk ikusten ditugunean teorikoki oso korapilatsuak diren egiturak aztertzera helduko gara. Izan ere, lehengo ataletan, argumentu kopuruaz hitz egin dugunean, bereziki argumentu bikoitzeko edo bakarreko egiturez arduratu gara. Gehienetan, argumentu bikoitzeko egitura iragankor soil batetik hasita, sintaktikoki argumentuetako bat bere ohiko gunetik atera dugu, argumentu bakarreko egitura iragangaitza sortuz. Baina argumentu kopuruaren aldetik oinarrizko egiturek argumentu bat, bi... edo hiru izan dezakete.

Verne-ren liburuan, gure jakituriaren iturrian, argumentu bakar batekin hasi gara, Phileas Fogg jaunarekin. Gero argumentu bi izan ditugu, bikotea, Passepartout haren zerbitzura sartu denean. Eta, azkenik, hirukote izatera ere heldu dira Auda anderea beren taldera biltzean. Egia da Fix detektibea ere hor dagoela, baina beste talde baten argumentua da, poliziarena, eta, haren zeregina istorioan garrantzizkoa bezain mespretxagarria izan arren, zilegi da gure taldearen ikuspuntutik adjunktu modura tratatzea.

Baina egitura iragankor batean hirugarren argumentua saltsan sartzeak Audaren fitxajeak sortu ez zituen arazo larriak sortzen ditu... ez hizkuntzetan bertan, baina bai hizkuntzalariok hizkuntzaz egiten ditugun hausnarketetan. Oso erraza da horren zergatia ikustea 2. kapituluan zirriborratutako egiturak osatzeko erabili ditugun arauez oroitzen bagara. “Osagarriak” buruekin elkartutako sintagmak dira:

(45)



Goiko zuhaixkan, konfigurazioari begira jakin dezakegu izen sintagma osagarria dela: AS adarreztatu eta A-ren mailakidea (‘ahizpa’) den IS osagarria da-eta. Baina, bestaldetik, gogoratu zuhaitzak adarreztatze bikoitzeko egiturak direla. Hau da, multzo batetik bi adar atera daitezke (a), baina ez hiru (b):

(46) a.



b.



Nola aurkitu lekua *bi* osagarrietarako buruarekin lotu daitekeena sintagma bakarra bada? Ezin tranparik egin eta burua birritan emanez:

(47)



Hau zilegi balitz… baina ez, ez da: errekurtsiboa den, alegia, behin eta berriro sor daitekeen bakarra sintagma bera da (XS). Baina behar dugun kategoria burua da, aditza, eta ez aditz sintagma, osagarria aditzarekin elkartzen dena baita.

Eta benetan, gutxitan bada ere, bi osagarriak izan ditzakegu. Zehar osagarrien estatusa eztabaidagarria izan badaiteke ere, badirudi askotan euskararen ondoko egituretan osagarri zuzenen antzeko osagarriak direla:

(48) Phileas Foggek Fix detektibeari kolpea eman zion

Komunztadura pizteko duen ahalmena nahiko adierazgarria da datiboa beste argumentuen mailan dagoela pentsatzeko. Beste hizkuntza batzuetan egoera ez da beti hain argia, baina ingelesaren gramatika deskribatzailean, esate baterako, *osagarri bikoitzeko egiturak* (*double object constructions*) deitzen zaie (b) motakoei:

(49) a. Phileas Fogg gave the money to the driver
b. Phileas Fogg gave the driver the money

Bigarren adibidean *to the driver* datiboak bere preposizioa galdu du eta osagarri zuzen tipikoen lekua hartu du, aditzaren eskumatara. Egia esan, osagarri bi izateaz gain badirudi hemen bi osagarri zuzen ditugula! Nola aurkitu gure zuhaitzean biontzako lekua? Suspentse eta jakin-mina areagotzeko, erantzuna hurrengo atalerako utziko dugu.

****

Argia semantikatik datorkigu, sintaxilariei gustatu ala ez. Eta, gainera, ez dator osagarri bikoitzeko egituretarako proposamen batetik propio, baizik eta, zeharbidez edo, aditz iragangaitz eta iragankor tipikoen analisi batetik. Abiapuntutzat, nahiko argi dago batzuetan aditz-erro berberaren erabilera iragangaitz edo

iragankorren artean argumentu kopurua eta beste zerbait sumatzen dugula. Hartu, esate baterako, ondoko bikotea. Lehenengo perpausean (a), *erre* aditzaren erabilera iragangaitzean (*inkoatiboa*) argumentu bakarra dugu, ontzia, eta *erre* predikatuak egoera aldaketa adierazten du, egurretik errautserako aldaketa dramatikoa. Baina (b) erabilera iragankorrean argumentu bat gaineratzen dugu, nor eta Phileas Fogg, zeren *Henrietta* ontziari, New Yorketik Irlandarako bidean erregaia ahitu zitzaionean, Fogg jaunak, 50.000 dolar ordaindu ahal izateak ematen duen lasaitasunaz, erre zitekeen guztia erre baitzuen, burdinazko azala eta makineria izan ezik. Argumentu berriaz gain, semantikoki predikatuaren edukiari *araztea* zentzua ere gaineratzen zaio, benetan Fogg-ek egoera aldaketa hori gertatzea eragiten baitu. *Fogg*ek egile/eragile theta-rola du, *erre* iragankor honen edukian *eragite* osagai bat dagoelako:

(50) a. *Henrietta* ontzia erre zen
b. Foggek *Henrietta* ontzia erre zuen

Semantikoki, David Dowty-k proposatutako analisian oinarriturik, ondoko adierazpenak eman daitezke:

(51) a. BIHURTU [*Henrietta* erreta]
b. Fogg ERAGIN [BIHURTU [*Henrietta* erreta]]



Beldurgarriak ematen badute ere, aurreko formulak oso errazak dira. Lehenengoa (a), *erre* aditzaren erabilera iragangaitzari dagokio: erretzea erreta egote-egoerara pasatzea da, beraz horren muinean badago erreta egotearen egoera, Henrietta ontziaz esaten dena, eta egoera horretara pasatu dela adierazteko BIHURTU

predikatu abstraktua dugu horri atxikita. Laburrago esateko, *Henrietta erre da*. Eta aditz horren berorren (b)-ko erabilera iragankorrera pasatzean, hau guztiau mantendu egiten da, esanahiaren osagai hori *Foggek ontzia erre du* perpausaren barruan ere baitago. Egin dugun bakarra da gaineratzea egoera aldaketa hau Fogg-ek eragin duela, hortik gorago, ERAGIN predikatu abstraktua gehitzea.

Gure irakurle fedegabe prototipikoak badu orain abagunea galdetzeko ea semantikaren ñabardura hauek benetan hizkuntzen joskeran islatzen ote diren. Eta ez da inor harrituko guk geuk ere baietz erantzuten badiogu egindako galdera horri. Horretan Phileas Fogg-ek, eta agian Jules Verne-k berak ere, hainbeste mespretxatzen zituen ('*ils couraient comme des singes en fureur*') indiarren hizkuntzak oso argigarriak dira, neurri handi batean guk "predikatu abstraktua" deitu duguna morfologiaren azalean erakusten baita, guztiok miresteko moduan. Kanadako hizkuntza salixarretatik aterako ditugu adibideak, Henry Davis eta Hamida Demirdache-ren (2000) eskutik st'át'imcectseraren kasua. Hizkuntza horietan, erro sinple guztiek egoera adierazten dute. *Erre da* edo *lehortu da* erabilera iragangaitzean erroari komunztadura markak eransten zaizkio, ezer berezirik ez duten formak sortuz:

(52) k'ác ti s-ts'wán-a
lehortu DET NOM-izokin-DET
'Izokina lehorra da/lehortu da'

Berezia dena da aditz iragankor tipiko guztien erro sinpleek ere egoera adierazten dutela. Hau da, *jo* bezalako aditz erroa erabili nahi badugu, komunztadura markak gaineratuta, lortzen duguna ez da aditz iragankorra. Oraindik ere egoera dugu, eta, beraz, ondoko adibideak ez du esan nahi *gizonak jo du*, baizik eta, *gizona jota dago*:

(53) sék ti sqáycw-a
jo DET gizon-DET
'Gizona jota dago'

Ekintza gertatu dela esateko, eta egile zein arazle batek egoera hori gertatzea eragin duela esateko, hau da, baten batek izokina lehortzen duela edo zerbait jotzen duela adierazteko, morfema bat gaineratu behar zaio erroari:

(54) a. k'ác-s-as
lehortu-IRK-3
'lehortzen du'

b. sek-s-ás ti sq'úm'ts-a ti twéw'wet-a
jo-IRK-3 DET baloi-DET DET mutil-DET
'Mutilak baloia jo zuen'

Ikusten denez, aditz mota bien erabilera iragankorrek *-s-* morfema behar izan dute. Errazki pareka dezakegu atzizki iragankorgile hori semantikaren eragin predikatu abstraktuarekin. Lehenago abstraktua deitu duguna izaki fisikoen argitasunarekin begietaratzen zaigu —gure erakundeek "pertsona fisikoa" deitzen dutena izaki fisiko eta kimikoak dira, eta guztiz errealak. Eta egile/eragilea predikatuaren osagai honen argumentua da.

Eta morfologiaren zein semantikaren osagai horrek sintaxian ere errealitatea izango balu? Eman dezagun aditz iragankorren esanahiaren oskolak banatu ditugun moduan, aditz sintagma oskolak ere badaudela. Ildo horretatik abiatuta, eman dezagun gure ohiko aditz sintagmaren buruak, aditzak, bakarrik egoera edo egoera aldaketa adierazten duela. Orduan *erre* iragangaitza, edo st'át'imcectseraren *lehortuta egon* zein *jota egon* predikatuak erabiltzean, aditz sintagma sinplea izango genuke, esanahiaren parte honi dagokiona. Eta bere argumentu bakarra egoera horretan dagoen edo egoera horretara aldatzen den argumentua izango da:

(55)



Argumentu bakar hau, ohiko analisietan bezala, goragoko gune batera igoko da, denbora sintagmaren espezifikatzaile gunera hain zuzen, perpausak subjektua izan dezan —edo, teknikoki esatearren, denboraren eta argumentuaren beraren tasunak balioztatzeko. Hitz lauz, perpausak subjektua behar duenez, aditzaren argumentu hau subjektu gunera igoko da.

Baina *erre du* edo *k'ác-s-as* 'lehortu du' edota *sek-s-ás* 'jo du' erabilera konplexuagoetan, argumentu berria eta esanahi berria gaineratu behar ditugu. Orduan, aurreko ASren gainean bigarren aditz sintagma sortu beharko dugu, bestetik ezberdintzeko *a*S deituko duguna ('aditz txiki sintagma'). Sintagma horren ardatza aditz —batzuetan abstraktu— bat da, semantikako EKIN edo ERAGIN horren ordezko sintaktikoa. Eta bere argumentua egile edo eragilea dugu:

(56)



Euskaraz ekintza eduki horri ageriko morfemarik ez badagokio ere, st'át'imcectseraz *-s-* marka aurki dezakegu. Eta argumentu bi ditu aditz sintagma berezi horrek: osagaia egoera aldaketari dagokion lehenagoko aditz sintagma (AS) dugu, espezifikatzaile gunean egilea agertzen delarik. Noski, *erre* iragankorra semantikoki konplexua izan arren, morfologikoki aditz bakarra baino ez da, ez ditugu-eta aditz bi aurkitzen. Goiko *a*S sintagmaren buru hori (euskaraz Ø eta st'át'imcectseraz *-s-* dena) ez da morfema askea, eta sostengua behar du. Nola lotu bi aditz sintagmen buruak bata besteari? Mekanismoa liburu honetan zehar sarri askotan aipatu dugu: buruz buruko mugimendua, beheko buru bat goiko buruarekin lotzen duen fenomenoa.

(57)



Behin bi aditz sintagmen buruak elkartuz gero, aditz konplexua sortzen dugu, eta argumentu guztiak aditz konplexu sortu berriaren argumentuak dira.

Agian irakurleren bat baino gehiago dagoeneko pazientzia galtzekotan egongo da, hau guztiau zertara datorren jakin nahian. Ez al zen ba gure arazoa aditz batzuen bigarren osagarria non kokatu? Nola laguntzen digu honek guztiak auzi horretan? Bidera ditzagun gure urratsak, beraz, arazo horretarako irtenbideak bilatzera. Eta semantikaren ildotik hartu dugun ikerbide honi esker badugu nora jo orain: aurreko zuhaixkari begiratuz gero, erraza da konturatzea hutsik dagoen gune bat daukagula, beheko ASren espezifikatzaile gunearena hain zuzen. Hirugarren

argumenturako lekua aurkitu dugu, zeharbidez, bestelako bilaketetan genbiltzala! Gainera, adarreztatze bikoitza urratu gabe. Beraz, aurreko adibideari argumentu bat gaineratzen badiogu, datibo bat, esate baterako, mendeko zuhaixka eraikiko dugu (subjektuak gora jo aurretik):

(58) Foggek Speedy kapitainari *Henrietta* erre zion



Ingelesezko hitzak jarri besterik ez dago goragoko hizkuntza horretako "osagarri bikoitzeko" egitura bereziak zuzenean lortzen direla konturatzeko. Argumentu berria espezifikatzaile gunean dagoenez, eta espezifikatzaile guneak buruaren ezkerretara daudenez, *give the driver the money* hurrenkera izango dugu, aditza goiko *a*Sren burura mugitu ondoren.

****

Bigarren osagarrirako lekua aurkitu dugu, eta, erabili, gustu handiz erabiltzen dute hizkuntza askok gune hori, horretaz baliatuz hizkuntza askok aditzei are argumentu bat gehiago gaineratzea lortzen dute-eta. Gogoratu argumentuen gehitze horretaz hausnartzean konturatu garela arazoak sor litezkeela jadanik iragankorrak ziren aditzekin. Bi argumentu izanez gero ez dago arazorik, bata subjektu gunean pausatuko baita eta bestea osagarri gunean, baina beste bat gaineratuz gero hiru argumentuko egiturekin egingo dugu topo. Orain badakigu egitura sintaktikoak hirurontzat izan ditzakeela pausalekuak. Ez da harritzekoa, beraz, hizkuntza batzuetan gune hori sintaxian saltsan egotea. Hori da egitura *aplikatibo* direlakoen kasua, ondoko adibide bikoteek erakusten dizkigutenen antzekoak. Etiopia aldera joko dugu adibide bila, bertako amharerak honelako egiturak erabiltzen baititu[27]. Konparatu nola agertzen den *erratza* instrumentua lehenengo eta bigarren adibideetan:

(59) a. aster bə-mə t'rə giya-w dəĵĵ t'ə rrə gə-čč[-ɨbb-ə t]
A. INSTR-erratz-DEF atari eskobatu-3(-INSTR-3)
'Asterrek erratzaz eskobatu zuen ataria'^

b. aster mə t'rə giya-w-ɨn dəĵĵ t'ə rrə gə-čč-ɨbb-ə t
A. erratz-ZEH-AKUS atari eskobatu-3-INSTR-3
'Asterrek erratzaz eskobatu zuen ataria'

Lehenengo adibidean perpaus iragankor arrunta dugu, eta instrumentua adjunktu den heinean preposizio batek markaturik (*bə-*) darama. Baina erratz horrek bigarren perpausean duen itxura, eta funtzioa, oso bestelakoa da: desagertu egin da preposizio hori, eta haren ordez akusatibo marka agertu da, hau da, osagarri zuzenei dagokien kasu marka. Badirudi, beraz, osagarri birekin amaitu dugula bigarren adibide honetan, hasieratik zegoena gehi beste bat, hasieran adjunktu instrumentala zenak gero osagarri modura jokatzen baitu. Gainera, lehen aditzean hautazkoa zen marka instrumentala (*-ɨbb-*) orain beharrezkoa dugu. Ohartu, gainera, oso antzekoak direla aditzaren marka hori eta preposizio instrumentala. Bigarren horiek dira egitura aplikatiboak, eta, adibide klasikoago bat ematearren, ondora dakargu Mark Baker-ek berak, egitura hauen aztertzaile nagusia denak, eman zuen beste kasu bat, txitxeweratik hartuta[28]:

(60) Mavuto a-na-umb-ir-a mpeni mtsuko
Mavuto 3-IRAG-landu-*ir*-ASP aizto pitxarra
'Mavutok aiztoz landu zuen pitxarra'

SAO hizkuntza honetan, aditzaren eskumako izen sintagmak dira osagarriak, eta hemen baditugu inongo preposiziorik gabeko bi IS. Itzulpenari begira, ez da harritzekoa *pitxarra* osagarri gune horretan agertzea, baina harritzen gaituena da instrumentua ere pausaleku berean agertzea. Are gehiago, aditzaren ondoko lehenlehenengoa da guk adjunktutzat hartuko genukeen osagai hori. Aditzaren barruan itzuli gabe utzi dugun marka bat agertzen zaigu: *-ir-* marka, morfema aplikatiboa. *Landu* aditz iragankor arruntaren adjunktu bat argumentu bihurtu dugu, bi osagarriko egitura sortuz.

Zergatik dute txitxewera bezalako hizkuntzek honelako egiturak eraikitzeko ahalmena? Edo, behintzat, zer gertatzen da euren gramatiketan ahalmen hori izateko? Erantzunak badu zerikusirik aurreko ataletan behin eta berriro ikusitako parametro batekin, buruz buruko mugimendua aditzari aplikatzeko gaitasunarekin, hain zuzen. Gorago esan dugun bezala, buruz buruko mugimendua oinarrizko operazioa da giza hizkuntzetan, baina bere zabalera asko aldatzen da hizkuntzatik hizkuntzara. Perpauseko osagaien tasunak direla medio, buru gehiagok edo gutxiagok jasaten dute prozesu hau. Zein da egitura aplikatiboetan aditzarekin

aditzaren barruan agertzen den morfema (-*ɨbb*-) eta preposizioa (*bə*-). Gainera, osagarri berria preposiziorik gabe agertzen denean (horregatik dakigu osagarria dela, beste ezaugarri batzuen artean), beti agertuko zaigu preposizioaren itxurako marka hori barruan. Baker-ek proposatu zuena oso argia zen: hizkuntza hauetan preposizio buruak aditzarekin elkartzeko ahalmena (edo beharra) dauka, eta preposizio hori da argumentu bihurtuko den adjunktua markatzen duena. Baina preposizio horrek osagarri bat dauka, izen sintagma gaixoa alegia, eta preposizio hori gabe, alegia, bururik gabe, umezurtz utziko dugu. Umezurtz eta bere tasunak —tartean, kasua bera— erkatzeko elementurik gabe. Orduan, izen sintagma horrek daukan irtenbidea bakarra "libre" dagoen ASren espezifikatzaile gunera joatea da, azken finean osagarri gunea dena. Prozesu hauek argiago ikusteko, ondoko zuhaitzari begira diezaioke irakurleak:

(61)



Zuhaitz honetan -*ir*- preposizioa ASren buruarekin lotu dugu, -*umbir*- forma sortzeko. Gero, aditza gorago igo beharko da, ekintzaren goiko aditz abstraktu eta inflexioarekin lotzeko. Ondorioz *aizto* osagaiaren ezkerretara agertuko da, nahiz eta osagai hori hasieran aditzaren ezkerreko espezifikatzaile gunera mugitu. Bigarren osagarri baterako lekua aurkitu dugu, bai eta zerekin eta nola bete ere. *Zergatik* galderaren erantzuna gure oraingo helburu xumeetatik aparte utzi beharko dugu. Erakutsi nahi dugun gauza bakarra da honelako aldakortasuna nola sor daitekeen eta hasiera batean bitxikeria iruditu arren, hizkuntza guztietan aurki daitezkeen prozesu sinple eta orokorragoen ondorioak direla. Azaleko aniztasunaren eta sakoneko batasunaren leloa berriro ere.

****

Eta gure leloa hori izanda, agian ez dago lekuz kanpo Phileas Fogg-en erlojuaren kontrako lasterketan beste oztopo bat jartzea gure etxera itzultzeko, eta hainbestetan aldarrikatu dugun batasun hori hurbilagotik ikusteko. Zeren eta beharbada irakurle askori batasuna prozesu abstraktuetan errotzea apur bat *far*

fetched irudituko zaio, bere hizkuntzaren esperientziatik oso urrun gelditzen diren eremuetan. Hau ez da batere harritzekoa: denok dakigu azken finean gizakiok erreakzio kimiko konplexuetako multzoak garela, baina geure burua eta hurkoak beste era arras ezberdin batez ikustera ohituta gaude. Eta gure esperientzia hurbilak ere errealitatean egon daitezke oinarrituta, ez dira nahi eta nahi ez fantasia hutsak izan behar. Metafisikan (edo, agian, fisikan) gehiago sartu gabe, gure irakurle sufrituek arrazoi osoz galde dezakete ea horrelako zerbait aurki ote daitekeen baita euskaraz ere, zorioneko buruz buruko mugimenduetaraino heldu behar izan gabe. Ba al dugu etxean honelako osagarri bikoitzak sortzen dituen fenomenorik?

Eta erantzuna baiezkoa da, noski. Baiezkoaren arrazoia ulertzeko, komenigarria da ingelesezko osagarri bikoitzeko egituretara itzultzea ikasi berri duguna kontuan harturik. Goragoko pare bat adibide errepikatuko dugu segidan:

(62) a. Phileas Fogg gave the money to the driver
b. Phileas Fogg gave the driver the money

Gogoratu bigarren perpausa dela osagarri zuzen bi-edo dituena. Eta bertako *the driver* horrek osagarri zuzenaren itxura osoa daukan arren, lehenengo adibidean preposizio sintagma baten bidez adierazten da, *to the driver*, alegia. Preposizio sintagma den heinean, adjunktu itxura dauka. Baina horixe da egitura aplikatiboetan ikusi duguna: adjunktu batek bere preposizio marka galdu eta osagarrien itxura eta lekua hartzen ditu —lekuz aldatzea ingelesaren bi egituren arteko ezberdintasun nabarmenetarikoa da. Aplikatiboetatik aldentzen gaituen ezaugarri bakarra (b) adibideko aditzean inongo marka berezirik ez agertzea da, *gave* topatzen baitugu beti. Richard Kayne-ren aspaldiko intuizioaren arabera, hala ere, besterik gabe, ingelesez aditzarekin batzen den preposizioa isilpeko *to* bat besterik ez litzateke izango. Bigarren adibide horretako aditza, beraz, *gave-(to)* formaren antzeko zerbait izan liteke, eta hori horrela dela onartzen badugu, hona hemen testuliburu batean jasotzeko moduko egitura aplikatibo tipikoa!

Orduan, euskarazko *Foggek gidariari dirua eman zion* perpausean, gure betiko *nor-nori-nork* egituran, *gidariari* datiboa zeren ordain hurbila da? (a)-ko *to the driver* erdi-adjunktuarena ala (b)-ko *the driver* osagarriarena? Bestela esanda, euskarazko egitura hauek osagarri bakarrekoak dira —*nor* osagarri zuzena gehi *nori* adjunktua— ala bikoak? Richard Kayne-ren intuizioa zuzena bada, eta osagarri bikoa bada gurea, euskaraz ere egitura aplikatiboak izango ditugu[29]. Eta aplikatiboen atzean inkorporaziorik badugu, badakigu euskaraz mekanismo hau guztiz osasuntsua dela, beraz litekeena da inkorporazioaren hedadura araupetzen duen parametroan preposizioak ere jokoan sartzea. Badirudi benetan euskarazko *nor-nori-nork* egiturak osagarri bikoitzekotzat har ditzakegula. Egia esan, datiboan ager daitekeen argumentua bestelako funtzioetan ere azal daiteke[30]:

(63) a. *Jonek Mikelengandik ihes egin zuen*
b. *Jonek Mikeli ihes egin zion*

(64) a. *Jonek Mikelentzat erosi zuen liburua*
b. *Jonek Mikeli erosi zion liburua*

(65) a. *Jonek Mikelengandik erosi zuen liburua*
b. *Jonek Mikeli erosi zion liburua*

Goiko alternantziako eredu datiboa hizkuntza exotikoagoetan topatu dugun egitura aplikatiboen oso antzekoa dugu. Gainera datibo sintagmekin lotuta dauden betebeharrak ere, hala nola bizidunak izatea, antzeko-antzekoak dira hizkuntza askotan adjunktu izatetik osagarri izatera pasatu nahi duten argumentuei ezartzen zaizkienekin alderatzen baditugu:

(66) a. Kartzelatik ihes egin zuen Mikelek
b. ??/*Kartzelari ihes egin zion Mikelek

Berriro ere, esan dezagun irakurleak asper-asper eginda amaitu dezakeen arren, bidaia honetan zapaldu ditugun geltoki eta pausaleku arrotzek asko irakasten digutela geure etxeko bazter linguistikoez: geure buruaz genekiena besteengan ere ikusten dugu, eta are aberasgarriagoa dena, besteengandik ikasitakoa begi zorrotzagoekin gurean ere, ezustean topatzen dugu.

****

Eta, gure bidetik atera gabe, zuzenean buelta gaitezke hiru argumentuko aditz iragankorretatik argumentu bakarreko egitura iragangaitzetara. Zeren, irakurle askok pentsatuko dute egitura iragankorretan bi aditz sintagma hauek agertzen badira (AS eta egilea ematen digun *a*S oskola), ea zer gertatuko ote den egitura iragangaitzetan. Beth Levin-ek ohartarazi zigunez, euskarazko *izan* aditz gehienak gaidunak eta egile gabeak direla. Aurreko proposamenaren logikari jarraituz, egilerik gabeko *Jon etorri da* perpausean AS besterik ez dugu izango, eta honelako zerbait beharko genuke bakarrik:

(67)



ASren gaineko sintagma funtzionalak gehituta, ondoko perpausa izango genuke:

(68)



Perpausek subjektu bat behar dutenez, edo bestela esanda, D-k bere tasunak IS batekin erkatu behar dituenez, *Jon* argumentua subjektu gunera mugitu behar izaten da, baina bere jatorria AS horren eremuan dago.

Stop the presses!, edo, era gaurkotuago batez, *Inprimagailuak geldiarazi!* esango digute orain irakurle askok. Zer??? Ondo al dago esatea *Jon* subjektu gunean dagoela, baina mugitu baino lehenago osagarri gunean zegoela? Ez ote da hori haurrentzako gramatika eskolan ere zero patatero bat jasotzeko arrazoia? Ia definizioz, perpaus iragangaitzetan osagarririk ez dago! Zer ganorazko hipotesia da hau *Jon etorri da* perpauseko Jon hori osagarri gunean sortu dela dioskuna? Bada, hain zuzen, honelako hipotesia proposatu zuen David Perlmutter-ek 1978 urtean, eta hori izan liteke Erlaziozko Gramatikak hizkuntzalaritzaren garapenean egindako ekarpenik garrantzitsuenetariko bat (ikusi, esate baterako Levin eta Rappaport (1995), eta, euskararen aldetik Laka (1993) edota Fernández (1997)). Perlmutter-ek argi erakutsi zuen aditz iragangaitzek ez dutela talde homogeneoa osatzen. Haietariko batzuen argumentu bakarrak egilea dirudi, hau da, aditz iragankorren subjektuek duten theta-rol bera duena. Euskaraz *IS+egin* predikatu asko mota honetakoak dira, baina baita era berean, *kurritu, diztiratu* eta abar. Beste batzuen argumentua, aldiz, gaia edo jasailea da, alegia, aditz irangakorren osagarri tipikoen theta-rol berekoa, hala nola, *erori, hil…* Areago, semantikoki subjektu iragankorren antzekoak direnek subjektu modura jokatzen dute. Alabaina, eta hemen dago koska, semantikoki osagarri iragankorren parekoak direnek badituzte osagarrien ezaugarri asko, nahiz eta, subjektu diren aldetik, subjektu ezaugarriak ere erakusten dituzten. Horregatik, Perlmutter-ek proposatu zuenez, *erori* aditzaren argumentu bakarra "sakoneko" osagarri gunean sortuko litzateke, hau da, osagarri iragankorrak sortzen diren gune berean, gero "azaleko" subjektu gunera igotzeko. Hala azal liteke argumentu hauen osagarri-subjektu joera bikoitza. Hauexek (*erori, hil…*) aditz ezakusatiboak bataiatu zituen (Jainkoek barka dezatela!); *diztiratu, hitzegin* aditzak, aldiz, ezergatiboak, eta bigarren deitura hau irakurrita irakurlea seguruenik konbentzituta egongo da, hizkuntzalaritzaren aurrerapenarengatik ere, Perlmutter

betirako kondenatuta dagoela honelako hitzak asmatzeagatik. Beraz, ezin ondorio hoberik lortu predikatu iragangaitzetan ere osagarri bikoitzeko egituretarako ekarri dugun proposamen honekin!

Aditz sintagma oskolen ikuspegi honek, zer esatera behartzen gaitu predikatu ezergatiboak direla eta? Gogoratu ezergatiboen argumentua semantikoki egilea izaten dela, eta proposamen honen barruan, horrek goiko oskola indartzen dela esan nahi duela. Baina gogoratu, era berean, goiko aditz "abstraktuak" ekintzaren edukia bakarrik dakarkigula: beheko AS oraindik ere sortu behar dugu, hor hasten baita zehatz-mehatz zein ekintza den adierazten digun aditza. *Izarrek dirdiratzen dute* perpausik txikienaz baliatzen gara hau guztiau zuhaitz batean islatzeko:

(69)



Egia esan, proposamenak eskaintzen digun itxuratze hau ezin hobea da predikatu ezergatiboen ezaugarrien berri emateko. Gogoratu euskarak daukan berezitasun interesgarrienetariko bat dela horrelako aditz asko eta asko *izen sintagma+egin* lokuzioen bidez adieraztea: *dirdiratu* horretaz gain, *dirdira egin* badugu. Goiko zuhaitzean egin beharreko ukitua gutxienekoa da hain hurbil sentitzen dugun aldaera hau itxuratzeko:

(70)



Hain zuzen, euskararen datuak gaurko eztabaida teorikoetan sartu dira[31], oso ondo erakusten baitute predikatu ezergatiboen oinarrizko iragankortasuna, euskaraz askotan ageri-agerian duguna.

Datiboan agertzen den argumentuarentzako gunea ematen digun aditz sintagma oskolen proposamen hau ondo egokitzen da gure eskola-euskaltegietan ikasi genuen *nor-nori* (*Jon Mikeli hurbildu zaio*) argumentu konfigurazio iragangaitzaren berri emateko, bai eta eskola-euskaltegietan nekezago ikasi genuen *nork-nori* (*Jonek lanari ekin zion*) konfigurazioarena ere. Bi horietan oinarrizko egitura ezakusatibo/ezergatibo bati datiboa gaineratu diogu. Euskararen morfologiaren ondorioz, ez dugu diferentziarik egiten *ekin zion* eta *eman zion* formen artean, nahiz eta batean argumentu bi eta bestean hiru izan, eta biak zorioneko *nor-nori-nork* labelaren azpian biltzen ditugu. Aditz oskolak onartuz gero, erraza zaigu argumentu datiboa gaineratzea. Ezakusatiboari argumentu berri hori eranstean, ondokoa lortzen dugu:

(71)



Teoriaren ikuspuntutik honek arazo bakarra dauka: subjektu gunera doan argumentua zergatik den *Jon* gaia —sakoneko osagarria—, eta ez hurbilago dagoela dirudien *Mikeli* helburua. Ez gara hemen horretaz arduratuko, Chomsky 90eko hamarkadan litezkeen mugimenduak aztertzen hasi zenetik, antzeko auziak ulertzeko proposamen ugari egon direla esateko ez bada[32]. Gure oraingo interesa oinarrizko iragankor eta iragangaitzen argumentu konfigurazioak egituretan kokatzea da. Jarrai dezagun, beraz, bi argumentuko predikatuekin, oinarrizko subjektu-osagarri ez direnak. Oinarrizko predikatu ezergatibo bati datibo sintagma bat ere gaineratu dakioke, eta orduan ondoko egiturak sortuko genituzke:

(72)



Ondo islatzen du egitura horrek iragankor hauen berezitasuna, zeren aditzaren osagarri bakarra ohiko kasuaz markaturik agertu beharrean —absolutiboaz, osagarri zuzenen kasuaz—, bigarren osagarrien itxura hartzen baitu —zehar osagarriekin edo, hobe esanda, bigarren osagarriekin lotuta dagoen datibo kasua. Goiko oholtza gainean ageri diren argumentuek argiro erakutsi digute berezitasun hau euren antzezpenean.

****

Amaitu dezagun iragankortasun eta iragangaiztasunaren inguruko bidaialdi hau gure funtsezko *leitmotiv* delakora itzuliz, alegia, ia banaezinak diruditen aldakortasun eta batasunera. Era intuitibo batez han-hemenka errepikatu dugunez, egitura eta morfologia iragankorra edo iragangaitza izatea ez da bakarrik argumentu kopuru hutsaren ondorio zuzena. Oinarrian hori garrantzizkoa izan arren, bestelako faktoreak aurkitu ditugu hizkuntza batean argumentu horiek subjektu edo osagarri guneetan agertu ahal izateko. Faktore horiek hizkuntzarteko aldakortasuna sortzen badute ere, era berean mendeko batasunaren lekukoak dira, behin eta berriro, elkarren arteko kontakturik gabe, urruneko zein gertuko txokoetan topatzen dira-eta. Izen sintagmen zehaztasuna, esate baterako, lehen mailako faktorea dugu iragankortasunaren komedian antzezle nagusia —subjektua, osagarria— izateko ala bazterreko figurante rolera baztertuta amaitzeko. Faktore horien artean bakoitza hizkuntza jakin batean indarrean ala indarge egotea aldakortasun iturria da. Aurreko ataletan, honen itzulpen tekniko bat eman dugu, subjektu eta osagarri guneetan agertzeko izen sintagmak gune horietako buruekin bateragarriak izan behar baitira. Eskatzen eta erkatzen diren izen sintagmen ezaugarriak alda daitezkeen neurrian, hizkuntzarteko aldakortasuna aurkitzea espero dugu. Bestaldetik, bateratzeko beharra, erkatzea bideratzen duten egiturak, mugimendua,

eta abar Gramatika Unibertsalak eman dizkigu, aldez aurretik espero ez genukeen batasunaren oinarriak jarririk. Gainera, subjektu eta osagarri gune arruntetan agertzen ez diren argumentuentzako aukerak ere bestelako parametroen arabera alda daitezke: subjektua edo osagarria ezin izan daitekeen sintagma berari oso bide ezberdinak eskaintzen zaizkio, hizkuntzaren bestelako prozesuak nola parametrotuta dauden. Osagarria ezin izan zitekeen izen sintagma —ipuin gramatikal baten izena ematen du honek!— aditzaren barrura inkorpora daiteke (*lore-biltzen* esaterako), edo, izen sintagma bera inkorporatu beharrean, osagarri-atzizki bat beregana lezake aditzak, egitura antipasiboetan ikusi dugun bezala. Eta orduan izen sintagma adjunktu baten itxuraz ager liteke, berriro ere aldakortasun gehiagoren iturria izango litzatekeena. Bai inkorporazioa gisako parametro orokorrak bai eta osagai konkretuen ezaugarri lexikoek (*ekin* aditzaren osagarriaren kasuak) ere, begien aurrean agertzen zaigun antza besarkatu ezinezko aniztasunaren ondorioa dakarte. Baina, gaurko hizkuntzalaritzak prestatu dituen lanabesez begiak zorroztuz gero, gai gara azpiko batasunaz jabetzeko, ez bakarrik Passepartout eta Phileas Fogg-en hizkuntza hurbiletan, edota azken finean, familia berberaren ahaide urruna den Audarenean, baita munduko zokorik-eta urruneneko hizkuntzetan ere. Eta gure geure zoko honetakoan ere bai.

---

1. Datuak Lisa Matthewson-en (2001) artikulutik atera ditugu. Ohartu euskara eta st'át'imcectsera artean ezadostasuna dagoela *dantzatu* ekintza iragankor edo iragangaitz modura tratatzeko. Horrelako gehiago aurkitu eta komentatuko ditugu kapituluan zehar.

2. Kapitulu honetan behin eta berriro aipatuko dugun Hopper eta Thompson-en (1980) oinarrizko lanetik jasotako hartutako datuak dira samoeraren hauek. Noski, euskaraz denborarik gabeko perpausetan komunztadurarik ez dugunean samoeraren egoera berean gaude: kasuak bakarrik ematen digu iragankortasunaren berri *mutilak neska gogoratzean...* eta *mutila neskaz gogoratzean...* hartzen baditugu.

3. R. M. W. Dixon-ek (1972) urtean bere dyirbaleraren gramatika argitaratu ondoren, hamarkada horretako lehenengo urteetan Australiako hizkuntza honetaz arduratu zen. Ondorioa 1977ko beste deskribapen klasikoa dugu.

4. Beraz, ezberdina da isilpean/agerian egotea eta sintaxiaren arabera indarrean/indarge egotea. Ageriko argumentu guztiak indarrean daude, baina isilpekoen artean batzuk bizirik eta ondo daude, eskerrik asko, beste batzuk inguruan 'sentitzen' diren iratxoen modukoak diren bitartean.

5. Euskarazko adibide hauetan, inpertsonaltasunaren marka bakarra aditzaren erabilera iragangaitza da. Aditza bera iragangaitza denean testuinguruak bakarrik esango digu nola interpretatu behar ote dugun. Horregatik, sarri askotan hemen parentesi artean jarri ditugun sintagmen antzeko osagaiak behar izaten dira, interpretazio inpertsonal hau lortzeko:

(i) a. *(Bide honetatik) Madrila joaten da
b. *(Maratoietan) arineketan ibiltzen da
c. Mundu honetara minez jaiotzen/??jaio da

Azken adibideak erakusten duenez, interpretazio inpertsonalak errazagoak dira lortzen baieztapen orokorrak adierazteko erabiltzen dugun orainaldian (*jaiotzen da*) gertaera zehatzez mintzatzen den orainaldi burutuan (*jaio da*) baino.

6. Analisiak proposatzerakoan, hau da, aipatutako gure mamu horiek apur bat formalizatzen hastean, badaude bide orokor bi. Alde batetik, sintaxian inongo islapenik ez dutela aldarrikatzen da batzuetan, interpretazioaren aldetik argumentu inplizituak (sintaxian gauzatu gabeak) direla. Morfologian ere ez lukete orduan inongo eraginik, hortik iragangaiztasuna. Beste ikerbidean, gure mamu horiek ez lirateke hain pertsonaia beldurgarriak. Inongo gorputzi lotzen ez zaion itzala ikustean beldurtzea ulergarria da, baina ez genuke nahi inork gu harrapatzea bista oztopatzen duten bionbo baten atzean dagoen inoren itzalaren aurrean ikaraz. Eta batzuen ustez, argumentu horiek mundu honetakoak dira guztiz, nahiz eta ahoskatu ez. Beraz, isilpeko izenordain bereziak izango lirateke hauek, *atea kos-kos jo dute* perpausean dagoen subjektu isiletik ez oso urrun. Hemen morfologia eta sintaxiaren arteko lotura zehaztea da problema, bigarrenean dagoen zerbaitek ez baitu lehenengoan eraginik.

7. Bigarren adibideko *–tzen* inperfektiboa ezberdina da, sinkronikoki behintzat, antzeko forma nominalizatu inesiboekin (*biltzen hasi/saiatu,* eta abarrekin), sistemaren aldetik aditz laguntzailearekin batera doan partizipioa baita.

8. Egitura hauen inguruko analisi interesgarriak aurki daitezke, hala nola Uribe-Etxebarria (1989), Laka (1993), Martínez (1996), eta Fernández (1997).

9. Datu gehiagorako, ikusi Kozinsky *et al.* (1988).

10. De Rijk-ek (2002) hizkuntzalari eta euskalari handia zenak euskararen igarotako garaietan antipasiboak emankorrak zirela proposatu zuen bere azken lanetariko batean.

11. Bazegoen, egon, azpiko beste arrazoi bat deitura hau erabiltzeko: egitura pasiboak hizkuntza akusatiboetan aurkituko lirateke bakarrik, eta hizkuntza ergatiboetan, aldiz, *kontrako* egitura (antipasiboa). Baina laster konturatu ziren hizkuntzalariak hizkuntza ergatiboetan pasiboak ere aurki daitekeela —inuiteraz, urrunago joan behar izan gabe. Bestalde, euskaraz testuan aipatutako egitura antipasiboak badaudela onartuko bagenu, gaztelaniaz ere ez lirateke hain ezberdinak *Juan olvidó la llave* eta *Juan se olvidó de la llave* bikotekoak.

12. 6. kapituluan topatuko ditugu berriro animalia hauek. Ordura arte, klitikoez irakurleak jakin behar duen gauza bakarra da berez bakarrik bizi ezin diren izakiak direla. Askotan, azenturik ez izatean ahulegiak dira perpausaren mundu gogorrean bere kasa bizi izateko, eta, sostengu bila, beste osagai sintaktiko batekin elkartzen dira. Adibide erraz bat izateko, pentsa beza irakurleak nolakoa den euskarazko *–a* artikuluaren bizitza, betiere aterpe eske beste osagai batekin batera agertu behar dena. Seguru asko *hau* erakusleari inbidia dio!

13. Eta euskaraz ere, komunztadura markak izenordain bezala azter daitezkeen heinean, *haiei irabazi zien apustua* esatean *haiei* osagaia bikoizten duen *–ie–* dugu.

14. Ez inuiteraz ez eta euskaraz ez dago ageriko atzizki antipasiborik... edo, besterik gabe, egon badaude baina ez dira ahoskatzen. Zero morfemak oso dira arruntak.

15. Ez da hau euskararentzat proposatzen den analisia. Ortiz de Urbina eta Uribe-Etxebarriaren (1991) analisian, egilea ergatiboa da, ez adjunktua delako (nahiko xelebrea izango litzateke hau euskaraz), oraindik ere mendeko perpaus iragankor baten subjektua delako baizik.

16. Gainera, inguruko hizkuntza erromantzeekin batera bigarren pertsonako *zu* (eta *vous*, *vos*) forma plurala adieraztetik singular formala adieraztera pasatu zenean, hiztunek ez zuten inongo arazorik izan izenordain plural berri bat sortzean aurreko *zu* horri plurala gaineratzeko (*zu-ek*). Badirudi beraiei ere ez zitzaiela larregi zehaztugabea iruditzen izenordain hori.

17. Edo komunztadura osoa, hizkuntzalari askok uste dutenez (Trask, Laka, etab.) hirugarren pertsonako *d-*, *z-* marka horiek pertsona marka izan beharrean, denborazkoak badira.

18. Datu asko lor daitezke Interneten eskuragarria den Nino Amiridze-ren artikuluan (2005).

19. Osagarririk gabeko erabileran adiera bihurkaria litezkeenen arteko bat da, beharbada nagusia. Beste adieran Fix-ek normalean jendeari hatz egiten diharduela adieraz daiteke, baina hau pragmatikoki arraroagoa izango litzateke.

20. Oso deskribapen on eta aurreritzirik gabea aurki dezake irakurleak Etxepareren (2003: 380) lanean.

21. Bestalde, honelako adibide askotan ez dago beti hain argi erabilera bihurkaria dugun ala besterik gabe argumentu bakarreko erabilera iragangaitz arrunta. Ondoko adibidean, esate baterako, badirudi *ezkutatu* aditzak bi erabilera dauzkala, bata iragankorra bestea iragangaitza, *zabaldu, suntsitu* antzera, egoera aldaketa adierazten duten beste aditz askok bezalaxe; hortik *bere burua* osagarria ezin onartzea:

(i). Leizean ezkutatu ziren (*ezkutatu zuten beren burua)

Horrelako sasibihurkari asko agertzen dira Villasante-ren (1980: 57) liburuan:

(ii). Ezkara behin ere ur batetan biatan sartzen (Ax. 40)

22. Elkarkariekin ere antzeko fenomenoak aurki daitezke (*ikusiko gara/ikusiko dugu elkar*), berriro ere egile eta *gai*-argumentuak 'bera' edo bertsua direlako edo: aurreko elkarkarietan bi argumentuak dira era berean egileak eta biak gaiak, biak ikusleak eta biak ikusiak.

23. Ohartu, hala ere, orain osagarria, semantikoki gaia dena, absolutiboan geldi daitekeela, aurreko perpausetan ez bezala. Badago aurreko horiekiko ezberdintasun nabaria, oraingo adibidean osagarri hori bizigabea baita. Ekintza edo gertaeraren bi argumentuak bizidunak badira, garrantzi handikoa da markatzea zein den subjektua eta zein osagarria, ikuslea eta ikusia. Baina *ebaki*ren argumentuetatik bat bizigabea bada, badakigu hori izango dela ekintzaren gaia, eta jasailea eta gaia ezberdintzea ez da hain derrigorrezkoa.

24. Beharbada guztiak ez dira naturalak, batez ere (a) adibidea. Horren ordez, askotan beste egitura iragankor bat erabiltzen da:

(i) Ebaki bat egin dut eskuan

25. Irakurle sutsuren bat garrasika hasi baino lehen, deitura hori ez da hasiera batean eman lezakeen bezain anglozentrista. Badaude motiboak *Joni Coca-Cola gustatzen zaio* perpausean datibo horrek subjektu ezaugarriak dituela esateko, morfologiak esaten duenaren kontra. Konturatu, esate baterako, hitz hurrenkera neutralena horixe dela, beste *nor-nori* egituretan ez bezala: *Jon Mikeli joan zitzaion* neutralagoa da *Mikeli Jon joan zitzaion* baino. Era berean, bihurkarien aitzindari tipikoak subjektuak badira, *Joni bere burua gustatzen zaio* bezalakoek, apur bat markatuak izan arren, subjektutasuna datiboak duela erakusten digute berriz ere.

26. Euskaraz ezberdintasun hau beste hizkuntzetan bezain argi ez badago ere, *begiratu* aditzak badu subjektu egilea *ikusi* aditzak ez bezala. Konparatu baita gaztelaniazko *oir* (jasaileduna) eta *escuchar* (egileduna).

27. Marcel Cohen-en (1970) gramatikatik hartzen ditugu datuok.

28. Datuak Baker-en (1988) lanean agertzen dira.

29. Marka berezirik agertzen al da aditzaren barruan? Zoritxarrez ingelesez ez bezala aukera bakarra dugunez perpaus hauek esateko, ezin aditzak konparatu, baina argi dago euskal aditzean *nori* markak daudela, batzuk komunztadura marka tipikoak, baina beste batzuk (*aurredatiboak* deitzen direnak) askozaz misteriotsuagoak dira.

30. Berez, aurreko ikerbidearen proposamena ez dago gure aditz 'hiperiragankor' hauek sortzen dizkiguten korapiloak askatzeko eginda. Hain zuzen ere, hortik datorkio erakargarritasunaren alde handi bat, gure arazoetara mugatuta ez dagoenez, gure auzian laguntzeaz gain, bestelako fenomenoen berri ere eman dezakeela. Mendeko aditz sintagmak, gaiaz gain, beste argumentu baterako lekua uzten digula esatean ez dugu irabazi dugun gune hori aditz iragankorretarako murriztu. Horregatik, ez da zaila goiko alternantziaren adibide iragankorrei kasu iragangaitzak gaineratzea: *Jon Mikelengana joan zen/Jon Mikeli joan zitzaion* antzeko era batez trata liteke.

31. Ikusi Hale & Keyser (1993) edota Levin & Rappaport (1995), esate baterako.

32. Hizkuntzaren ekonomiaren ikuspuntutik, *gutxieneko mugimendua* nozioaz hasi zen arduratzen Chomsky.

Nola kasuak eta komunztadurak zoriontsu ezkondurik ziruditen, hausturak erakusten hasi ziren arte

V. kapitulua

Nekez heldu dira irakurleetako batzuk testu honetara, gau-eskola garaian, ilunpean gordezka, Patxi Altuna zenaren *Euskara, hire laguna* liburuxka laranja-gorriarekin trebatzen hasi zirenetik, edo beranduago, beharbada, *Jalgi hadi*rekin, baina batzuek zein besteek nahikoa sufrimendu pairatu dute *zaitut-nauzu-dizut-nizun* ikasten, eta ondo ikasten, gainera… Phileas Fogg-ek berak beste bai, behintzat, *Reform-Club*era itzuli aurretik.

Eskarmentu handikoak dira, bada, gure irakurleak komunztadura kontuetan, batzuk halabeharrez eta ondo sufrituta, beste batzuk berez eta oharkabean, gau-eskolako ordu nekoso haiek zer ziren jakin gabe. Has gaitezen guztiok, baina, hasiera-hasieratik, ezer gutxi jakingo bagenu bezala, horretan dago-eta koska, gauzarik errazenetatik, itxuraz sinpleenetatik hastea.

Euskararen lehen lezioa da ia, aditzak komunztadura egiten duela perpauseko argumentuekin. Esate baterako, euskaraz ondokoa esan daiteke:

(1)	Ni	Bilbo-n	egon	n-aiz
	ni (ABS)	Bilbo-P	egon	1SG-izan

Ezin daiteke esan ostera: **ni Bilbon egon z-ara* edo **ni Bilbon egon g-ara.* Bata esan ahal izatea eta besteak ez, *komunztadura*ri zor diogu, aditz komunztadurari, hain zuzen, aditz komunztadurak bat egin behar duelako *subjektua*rekin, bai pertsonan bai zenbakian (1) perpausean erakusten dugun bezala: *ni* pertsona izenordaina denez subjektua, singularreko lehen pertsona izan behar du komunztadurak. Hori nahikoa ez, eta euskaraz subjektuarekin ez ezik, *osagarria*rekin ere komunztadura egiten du aditzak. Begiratu ondoko adibidean:

(2)	Ni-k	zu	ikusi	z-aitu-t
	Ni-ERG	zu (ABS)	ikusi	2SG-edun-1SG

Ikusten denez, euskaraz ez dugu subjektu komunztadura bakar-bakarrik. Osagarriarekin ere bat egin behar du aditzak, perpausa zuzena izango bada. Hala, ezin daiteke **nik zu ikusi nauzu* esan.

Hitzak-eta fintzen hasita, aditzak berak baino gehiago, aditz jokoak edo inflexioak egin behar du bat perpausean agertzen diren subjektu, osagarri eta zehar osagarriekin. Esate batera, goian eman dugun azken adibideko adizkian, hau da, *ikusi zaitut* adizkian, *ikusi* aditz lexikoa dugu batetik eta bestetik *zaitut* aditz laguntzailea. Bietatik, aditz laguntzailea bera da inflexioa jasotzen duena. Esate batera, *zaitut* adizkia **edun* aditza jokatuz sortzen dugu, eta adizki horren bitartez, badakigu besteak beste, nork ikusi duen nor, alegia, badakigu ni izan naizela zu ikusi zaituena, amaierako *-t* atzizkiak islatzen duelako *nik* subjektuaren pertsona eta zenbakia —singularreko lehen pertsona, hain zuzen. Badakigu era berean zu ikusi zaitudala, eta ez beste inor, bigarren pertsonako *z-* aurrizki eta *-it-* pluralgileari esker. Morfema horiei *komunztadura-morfemak* deritzegu eta, oro har, komunztadura adierazten dute, subjektu komunztadura, osagarri komunztadura, eta abar. Hortik aparte, *zaitut* adizkiak denbora ere jasotzen du: badakigu orainaldiko forma dela eta ez iragana, bestela *zintudan* izango zen-eta. Pertsona eta zenbaki komunztadura ez ezik, denbora biltzen duen funtzio buruari inflexioa deritzogu, irakurleak 2. kapituluko irakatsien ondoren gogoratuko duen bezala.

Gainerakoan, badago goiko datuek erakusten duten beste ezaugarri bat, oso kontuan hartu behar duguna. Esan dugunez, inflexioak bat egin behar du subjektu eta osagarriarekin. Halaxe da. Kontua da euskaraz, subjektu guztiak ez direla kasu marka berberaz adierazten, irakurleak oraindik gogoratuko duen bezala. Esate batera, (1) perpausean, absolutibo kasuaz markaturik dago, *ni,* eta (2) perpausean, berriz, ergatiboaz, hau da, *nik*. Jakina, euskaraz inflexioak ez du berdin komunztadura egiten ergatibo argumentuarekin eta absolutibo argumentuarekin: *ni* absolutibo argumentuarekin komunztadura egiteko *n-* aurrizkia darabilgu euskaraz, eta *nik* ergatibo argumentuarekin komunztadura egiteko *-t* atzizkia.

Era berean, *ni* absolutibo argumentua osagarria denean, esate batera, *zuk ni ikusi nauzu* perpausean, orduan ere *n-* aurrizkia erabiltzen dugu euskaraz. Horrek berebiziko garrantzia du, itxuraz komunztadurak islatzen duelako kasuak islatzen duen gauza bera. Esate batera, euskararen kasu sistemak ergatiboa dela erakusten du. Bada, komunztadura sistemak ere ergatiboa dela erakusten digu. Horrenbestez, komunztadura kasuaren mendekoa dela dirudi. Mark Baker-ek (2006) komunztadura kasuaren mendekoa ote den ala ez zehazten duen parametroari *Kasu Mendekotasunaren Parametroa* deritzo, eta guk *Kasua Nolako, Komunztadura Halako* deituko diogu lagun arteko hizkera argian.

(3) *Kasua Nolako, Komunztadura Halako Parametroa*
   a. Bai, euskaraz
   b. Ez, georgieraz

Kasua nolako, komunztadura halako Parametroak bi balio ditu, parametroek ohi duten bezala, baiezkoa bata eta ezezkoa bestea. Kasuaren mendeko komunztadura duten hizkuntzen artean Baker-ek aipatzen dituen batzuk ondokoak dira: turkiera, groenlandiera, hausera, finlandiera, tzeltalera, abkhazera, kannadera, barasanera, mangarayiera eta… euskara. Galdera ikurraz dakartza mohawkera eta txuktxiera. Eta kasuaren mendeko komunztadura ez dutenen artean, berriz, georgiera, arabiera, warlbiriera, burushaskiera, marikopa/diegenoera, nez percera, otomiera, jakaltekera, zokera.

Gainerakoan, ez diogu ezkutatu nahi irakurleari Mark Baker-ek beste parametro batekin gurutzatzen duela guk orain aipatu dugun hau. Edozelan ere, gure zeregina bidea erakustea denez, Baker-ek lana noiz argitaratu zain gelditukо gara, ur sakonei beldurrik ez dieten irakurleekin batera. Momentuz, Baker-en parametro hauxe izango da gure leloa kapituluan zehar, baina parametroari ekin aurretik, oraindik ere badugu zer ikasi, parametroa neurtzen hasteko. Segi dezagun, bada, aurrera.

Lehenago ere aipatu dugu txuktxiera, Siberia urruneko hizkuntza bat. Urrunekoa bai, baina euskararen modura, hizkuntza ergatiboa. Gogoratu, hizkuntza ergatiboa dela esateko, lehenago kasua eta orain komunztadura nola atontzen den ikusi dugula, eta txuktxieraz, euskararen antzera, ergatibo eta absolutibo kasuak egoteaz gain, argumentu biokin komunztadura egiten duela aditzak. Begiratu txuktxieraren oinarrizko datu hauexei[1].

(4) a. ɣəm-nan ɣət tə-ɬʔu-ɣət
ni-ERG zu (ABS) 1SG-ikus-2SG
'Nik zu ikusi zintudan'

b. ɣəm tə-kətɣəntat-ɣʔak
ni (ABS) 1SG-korritu-1SG
'Nik korritu nuen'

c. ɣət Ø-kətgəntat-ɣʔe
zu (ABS) 2SG-korritu-2SG
'Zuk korritu zenuen'

Ez ditugu hemen aipatuko txuktxieraren komunztadura sistemaren xehetasunak. Jo beharko du irakurleak horretarako deskribapen zehatzetara, hala nola Skorik-enera (1977), errusieraz idatzitako gramatikara, edo Skorik-en datuez baliatuz egin diren beste lan batzuetara, Halle eta Hale (1997) edota Bobaljik eta Branigan (2006) besteren artean[2]. Nolanahi ere, datuok behar bezala uler daitezen, gogoan izan behar dena da txuktxieraz komunztadura-aurrizkien bitartez adierazten dela subjektua aditzean, eta atzizkien bitartez, aldiz, bai aditz iragangaitzeko subjektua bai osagarria —alegia, absolutibo argumentu biak. Horrek dakarren ondorioa da aditz

iragangaitzetan absolutibo argumentua *bi* komunztadura hizkien bitartez islatzen dela aditzean, aurrizkiaren bidez subjektua den neurrian eta atzizkiaren bidez absolutiboa den heinean. Begiratu bestela (4 b, c) adibideei. Lehenean, agerikoak dira bi komunztadura hizkiak eta argi antzematen da *bikoizketa*; bigarrenean, aurrizkia ez da agerikoa, baina egon badago bertan.

Batzuetan hizkuntzak ez dira horren esplizituak. Nola esan bestela? Badira ergatiboa eta absolutiboa zein diren komunztaduraren bitartez baino adierazten ez dutenak, ez kasuaren bitartez. Kitxera, Guatemalako maiar hizkuntza, halakoxea da: hizkuntza ergatiboa da, bai, baina bere izate hori komunztaduran baino ez du islatzen, ez dago-eta nahitaez ageriko argumenturik eta egonez gero, ez luke-eta ageriko kasu markarik erakutsiko[3].

(5) a. x-at-u-kuna-j lee achi
ASP-2SG.ABS-3SG.ERG -sendatu-IRK gizona
'Gizonak zu sendatu zintuen'

b. x-at-chaku-nik
ASP-2SG.ABS-lan egin-IRG
'Zuk lan egin zenuen'

Datu hauek komunztadurarenak izan arren, kasuaren bide beretik garamatzate, hau da, kitxera, euskara eta txuktxiera bezalako hizkuntza ergatiboa da. Itxuraz, Ergatibotasunaren Parametroarekin jarraitzen dugu lanean, kapitulu batetik bestera salto egin dugun arren. Eta parametro beraren haritik, kasuari begira, hizkuntza ergatiboak eta akusatiboak bereizten genituen moduan, pentsatzekoa da badirela munduan komunztadura nola atontzen den ikusita, hizkuntza ergatiboak ez, ezpada akusatiboak direnak. Bada, ikus ditzagun swahilieraren datuak segidan[94]:

(6) a. Ahmed a-li-m-piga Badru
Ahmed hura.MASK-IRAG-hura.MASK -jo Badru
'Ahmedek Badru jo zuen'

b. Fatuma a-li-anguka
Fatuma hura.FEM-IRAG-jausi
'Fatuma jausi zen'

Swahilieraren datuek erakusten digutenez, komunztadura hizki bera erabiltzen da, *a-,* bai subjektua iragankorra denean, hau da, Ahmed-ek norbait jotzen duenean, bai subjektua iragangaitza denean, alegia, Fatuma edo Ahmed jausten direnean —hemen bai, badirudi, subjektuaz hitz egin dezakegula. Aldiz, osagarria adierazteko, aditz errotik hurbilago kokatzen den *-m* hizkia erabiltzen dute. Swahiliera ikusita, hizkuntza akusatiboa dela diogu, akusatibotasuna, kasuaren bitartez adierazi beharrean, komunztaduraren bitartez markatzen den arren.

Badira nolanahi ere, komunztadura nola atontzen den ikusita, itxuraz, ergatiboen antzekoak diren hizkuntzak edo batek badaki, besterik gabe ergatiboak direnak, baina ñabardurez. *Hizkuntza aktibo*ez ari gara, lakhotaz, esate batera. Bai, litekeena da Plum-Creek geltokitik gertu, tren-makina berriro ere martxan hasi eta gutxira, *convoy*ari eraso egin zioten sioux indiarren artean, lakhota hiztunak ere izatea, baina horrek zer inporta zion Phileas Fogg-i? Siouxen oldarrari aurre egitea besterik ez zuen gogoan, eta oldarrak ez zuen, gainera, asko iraun: Kearney gotorlekua bi miliatara besterik ez zegoen, eta soldaduak tiro-hotsak entzun eta berehala hurbildu zitzaizkien. Guk, trenetik salto egin eta orpoz orpo segitu diegu siouxei, halakoxeak aditu dizkiegula imajinatuz[5].

(7) a. wa-Ø-kte
1SG-3SG-hil
'Nik hura hil nuen'

b. Ø-ma-kté
3SG-1SG-hil
'Hark ni hil ninduen'

c. ma-t´a
1SG-hil
'Ni hiltzen naiz' (I die)

Deskribatu ditzagun orain. Lehenik eta behin, komunztadurari begiratu beharra daukagu, ez dago-eta ageriko argumenturik, euskaraz egon litezkeen bezala, baina horrek ez digu inporta, komunztadurak berak esan ahal digulako nolako sistema osatzen den, kitxeraz ere igarri dugun moduan. Begiratu, beraz, *ni* pertsona izenor-

daina nola adierazten den komunztaduran: *wa* hizkia erabiltzen da subjektu iragankorra denean (a), *ma* hizkia, berriz, osagarria (b) zein subjektu iragangaitza (c) denean. Esango duzue, kontxo, ba hori bera da euskaraz ikusi duguna: badirudi *wa* komunztadura hizkia ergatibo komunztadurarena dela eta *ma* hizkia, berriz, absolutibo komunztadurarena. Hizkuntza ergatiboa ematen du, beraz, ergatibotasuna komunztaduraren bitartez islatzen badu ere.

Kontua da lakhotaz aditz iragangaitzeko subjektu guztiak ez direla (7c) bezalakoak. Berriro emango dizuegu adibide bera (8b) konpara dezazuen (8a) adibide berriarekin.

(8) a. wa-nîwâ
1SG-igeri egin
'Nik igeri egiten dut'

b. ma-t´a
1SG-hil
'Ni hiltzen naiz' (I die)

Hau da, *igeri egin* bada aditza *wa* hizkia darabilte subjekturako, hau da, aditz iragankorreko subjekturako erabiltzen den bera; *hil* bada aditza, orduan *ma* darabilte subjekturako, osagarrirako bezalaxe. Beraz, aditzen arabera egozten zaizkio *wa* edo *ma* hizkiak aditz iragangaitzeko subjektuari. Igeri egiteak *egile* bat eskatzen du, hau da, norbaitek nahita eta borondatez egiten duen zerbait. Hiltzea, aldiz, ez da norbait nahita edo borondatez egiten duen ezer —nahita izanez gero, *nork bere burua hil* litzateke kontua, ez besterik gabe hiltzea. Horregatik, *jasailea* da hiltzeak ezartzen duen theta-rola. *Wa/ma* bereizketa beraz *egile/jasaile* theta-rolen banaketan datzala dirudi, hau da, egileen eta jasaileen arteko aurkakotasunean. Halako hizkuntzei, nonbait egiletasunean oinarritzen direnei hizkuntza *aktiboak* deitu izan zaizkie Hizkuntza Tipologiaren alorrean.

Kontua da jakitea ea honelako hizkuntzek beste hizkuntza mota bat erakusten ote duten, hau da, nominatiboa ala ergatiboa ez bezalakoa, ala ez ote diren besterik gabe ergatiboak, ñabardurez nahi bada, baina azken batean, ergatiboak. Besterik gabe ergatibotzat hartzen dituztenek diote hemen *Ergatibotasun Erdibitua* dagoela, eta S-erdibituko hizkuntzak irizten diete hauexei ere. Ergatibotasun erdibitua diote, zeren itxuraz, bi sistemak, ergatiboa (9 a/b) eta akusatiboa (9 a/c) auzokideak baiti-Ra hizkuntza beraren barruan, eta S-erdibituko hizkuntzak deritzete predikatu iragangaitzeko argumentu bakarra, S laburduraz ezagun duguna, modu bietara adierazten baita (9b/c). Dakartzagun berriro goiko datuak hona:

(9) a. wa-Ø-kte
1SG-3SG-hil
'Nik hura hil nuen'

b. ma-t´a
1SG-hil
'Ni hiltzen naiz' (I die)

c. wa-nîwâ
1SG-igeri egin
'Nik igeri egiten dut'

Nolanahi ere, bai, igarri duzu, irakurle, ez dira horretan ere horren ezberdinak euskara eta lakhota. Badira diotenak euskara hizkuntza aktiboa dela eta ez ergatiboa, Beth Levin beste batzuen artean, eta aspaldi honetan, ildo horri ekin dio, ñabardurez bada ere, baita Itziar Lakak ere. Kontuan izan hizkuntza aktiboen ezaugarriak nagusiki komunztadura sistemetan islatzen direla, lakhotaz erakutsi dugun bezala, baina itxuraz aditzen arabera erdibiketa erakusten duten hizkuntzetan, kasuan bertan islatzen dira ezberdintasunak, georgieraz kasurako. Jo georgieraren adibide hauetara[6] konturatzeko:

(10) a. Vano-m gamozarda zma
Vano-ERG hazi anaia (ABS)
'Vanok bere anaia hazi zuen'

b. Rezo gamoizarda
Rezo (ABS) hazi
'Rezo hazi zen'

c. Bavšv-ma itira
ume-ERG negar egin
'Umeak negar egin zuen'

Georgierak itxuraz erdibiketa bera erakusten du, baina lakhotaz ez bezala, kasuan islatzen du egileen eta jasaileen arteko bereizketa. Euskarak kasuan nahiz komunztaduran. Konparatu bestela: *hazi/hil* edo *igeri egin/negar egin* aditzekin. Ez dirudi berdinak direnik: *hazi* eta *hil* ezakusatiboak dira eta *igeri egin* eta *negar egin* ezergatiboak, irakurleak gogoratuko duen bezala. Ezergatiboen itxura ikusita, aditz iragankor peto-petoak direla pentsa genezake, euskalaritzan iradoki izan den bezala, eta hala azaldu ergatibo kasua eta ergatibo komunztaduraren agerpena, ezakusatiboetan ezinezkoa dena.

Ergatibotasunaren Parametro bera al da? Nola azaldu, orduan, banaketa? Beste parametro baten beharra al dugu, *Aktibotasunaren Parametroa* dei genezakeena, hizkuntza ergatiboen artean, aktiboak ala besterik gabe ergatiboak bereiziko lituzkeena? Hau da, hierarkikoki Ergatibotasunaren Parametroa izango genuke eta horren itzalean aktibotasunarena edo? Balizko *parametroen hierarkia*rik balego, behintzat, Mark Baker-en (2001: 170, 183) saiakera bikainean bezala. Hala balitz, hauxe izan liteke balizko parametroa:

(11) *Aktibotasunaren Parametroa*
a. Baldin eta S-egilea, orduan ergatiboa ezarri.
b. Baldin eta S (egile zein jasaile), orduan absolutiboa ezarri.

Parametroak, lakhota, dakota, guaraniera, ikanera, ioway-otoera, ketera, lazera, onondagera hizkuntzei (a) balioa emango lieke, hizkuntza aktiboena alegia, kitxerari, aldiz, (b) balioa, halako erdibiketarik gabeko hizkuntzei bezalaxe. Litekeena da euskara ere (a) balioa dutenen artean egotea, eta inuiterak, aldiz, (b) balioa izatea.

Edozein modutan, ez dugu erantzun argirik, irakurle. Parametro baten bitartez isla daitekeen zerbait dagoelakoan gaude, baina zalantzak ditugu ea Ergatibotasunaren Parametroaren itzalean egongo litzatekeen ala bestelako parametro independiente bat ote litzatekeen. Susmoa dugu zerbait gehixeago badela hizkuntza aktiboetan, hizkuntza ergatiboetan ez dagoena. Ezaugarrietako batzuk aurreko 4. kapituluan eman ditugu eta ez ditugu errepikatuko hemen. Utz dezagun hemen auzia, gu bezalako kuxkusero batek inoiz jakin-minez sagarrari kosk egingo diolakoan.

****

Goian komunztaduraren inguruan egin dugun hausnarketa guztia subjektu eta osagarrietan oinarritu dugu. Gau-eskolako lehen lezio hartatik ez oso urruti, bazen beste bat zioena euskaraz subjektu eta osagarriarekin ez ezik, *zehar osagarria*rekin ere komunztadura egin behar zuela aditzak —gau-eskolan, jakina, inplizituki irakasten zitzaien ikasle gizajoei, akabo bestela euskalduntzea! Zenbatu, irakurle: badira komunztadura bakarreko hizkuntzak, badira komunztadura bikoak, eta badira, era berean, hiru komunztadurakoak, euskararen antzera.

(12)

Nik	zuri	liburua	eman	d-i-zu-t
ni-ERG	zu-DAT	liburua (ABS)	eman	(3SG.ABS)-AD-2.DAT-(edun)-1SG.ERG

Munduko hizkuntza askotan dago zehar osagarri komunztadura, eta hizkuntza horietan guztietan, badirudi badagoela nolabaiteko murriztapena, hau da, subjektu, zehar osagarri eta osagarridun perpausetan, osagarriak nahitaez hirugarren pertso-

nakoa izan behar du. Itziar Lakaren (1993: 27) aspaldiko adibide klasiko batek honela islatzen du murriztapena:

(13) *Zuk harakinari ni saldu **n**-a-i-o-zu[7]
zu-ERG harakin-DAT ni (ABS) saldu 1SG.ABS-OR-AD-3DAT-(edun)-2SG.ERG

Eta are klasikoagoak agian, murriztapena bera deskubritu zuen hizkuntzalariarenak, Eulalia Bonet-en (1991: 179) sortako bat katalanez:

(14) *A en Josep, te li va recomanar la Mireia
P DET Josep 2SG.AKUS 3SG.DAT 3SG.NOM gomendatu DET Mireia
'Mireiak zu Josepi gomendatu zintuen'

Katalanez, adibideei begira, subjektu komunztadura baino ez dago inflexioan, baina hortik aparte, bi klitiko daude bata bigarren pertsonako *te* akusatiboa eta hirugarren pertsonako *li* datiboa. Klitikoak ez dira berez komunztadura hizkiak, izenordain atonoak baino, hau da, izenordain nolabait ahulak, izenordain toniko edo sendoen aldean —izenordain arruntak esan nahi dugu[8]. Klitikoak badira era berean, gaztelaniaz, frantsesez edo italieraz, hau da, hizkuntza erromantzeetan, eta guztietan, klitikoak berak komunztadura hizkitzat hartzen ez badira, behintzat, subjektu komunztadura baino ez du islatzen inflexioak, adibidean bezala.

Nolanahi ere, murriztapenak bai komunztadura hizkiei bai klitikoei eragiten die, euskararen eta katalanaren adibideek erakusten duten bezala. Murriztapen horri **Me-lui murriztapena* izena eman zion Bonet-ek, eta halaxe defini daiteke:

(15) **Me-lui murriztapena*
Baldin eta datiborik badago, orduan akusatiboak (edo absolutiboak) 3. pertsonakoa izan behar du.

Murriztapenak nahikoa orokorra dirudi, hizkuntza asko eta askori eragiten die-eta: euskara, gaztelania edota katalanaz gain, georgiera, warlbiriera, arabiera eta hegoaldeko tiwera dira murriztapenaren mendean dauden hizkuntzetako batzuk. Ondoko bi adibideak hegoaldeko tiweraz[9] daude:

(16) a. *… wia-ban
1SG:2 SG:A-eman -IRAG
'Hark zu eman zintuen hari'

b. *… wan-ban
2SG:1SG:A-etorri-IRAG
'Zu niri etorri zintzaizkidan'

Eta hegoaldeko tiwera aipatzen dugu, hain zuzen ere, *eman* gisako osagarri bikoitzeko aditzekin ez ezik, *etorri* gisako ezakusatiboekin ere murriztapena indarrean dagoelako. Murriztapena sendoa da, beraz, eta zabalkundez, handia. Aldiz, euskaraz ez dirudi murriztapenik dagoenik aditz ezakusatiboko perpausetan. Itzulpenari berari begiratzea baino ez dago horretaz konturatzeko: *zu niri etorri zintzaizkidan,* forma jasoa da, nahi baduzue, inoiz ere esango ez zenuketena, ez bada testuinguru dotore eta apainduan, petral samarrak izan nahi ez badugu, behintzat, baina fresko bezain biziak dira *natorkizu* eta gisakoak, eta horiexetan, datiboarengatik ere, absolutiboa ez da hirugarren pertsonakoa, lehenengo pertsonakoa baino. Murriztapena, hortaz, ez dago indarrean euskararen ezakusatiboekin, eta horrek desafio bat gehiago egiten die murriztapena azaldu behar duten hizkuntzalariei, euskalariak tartean.

Komunztaduraren murriztapena dela esan dugu, hau da, horrek ez du inongo oihartzunik jokatu gabeko aditzekin. Begiratu bestela Itziar Lakaren beste adibide bati:

(17) Gaizki iruditzen zait zuk ni harakinari saltzea

Mendeko perpausa goian (13) emandako bera da. Diferentzia bakarra da oraingo honetan *saldu* aditza ez dagoela jokaturik. Hala, absolutiboz markatutako *ni* lasai asko ageri daiteke *etsaiari* datibo argumentuarengatik ere. Murriztapenak, beraz, komunztadurari eragiten dio beste ezeri baino gehiago.

Murriztapena sakon aztertu da literaturan, baita euskalarien artean ere, eta *Pertsona Kasuaren Muga* ere deitu zaio, Pablo Albizuk (1997a,b) deritzon bezala. Euskalari horrek luze eta zabal aztertu du gaia hizkuntzen artean[100], eta bere ondoan, baita Javier Ormazabalek eta Juan Romerok (1998, argitaratzekotan) ere, sarri elkarlanean. Fenomenoaren xehetasunak nahi dituenak euren lanetara jo besterik ez dauka.

****

Murriztapenak murriztapen, orain arte, inflexioak subjektu, osagarri eta zehar osagarriekin komunztadura egin dezakeela erakutsi dugu, ia azkenik gabea dirudien hizki-kate bat osatuz. Kate hori are luzeagoa izan daiteke, kinyarwanderak, Ruandako hizkuntza batek erakusten digun bezala (Matthew S. Dryer, 1983: 37). Lehenengo eta behin dakargun adibidean, subjektu eta osagarri komunztadura baino ez da ageri, osagarri komunztadura hori berez *onuradun*ari dagokion arren. Onuraduna da, irakurle, egiten den zerbaiti probetxua ateratzen diona, onura jasotzen duena, alegia, eta euskaraz *-(r)entzat* postposizioaren bitartez adierazten dugu sarri askotan. Esate baterako, kinyarwanderaren ondoko perpausean, emakumeak txakurrari jana ematen dio, baina ez txakurrarentzat, ez bada, gizonarentzat. *Umugabo 'gizona'* da, beraz, onuradura.

(18) Umugóre a-ra-hé-er-a umugabo ímbwa ibíryo
emakumea S-OR-eman-ONR-ASP gizona txakurra jana
'Emakumea txakurrari jana ematen ari zaio gizonarentzat'

Bada, *umugabo* 'gizona', *ímbwa* 'txakurra' eta *ibíryo* 'jana' aditzera inkorpora daitezke, ondoko adibidean gertatu den bezala. Orduan, jakina, lau dira aditzean islatzen diren osagaiak, subjektua, osagarria, zehar osagarria, hiru mosketero ezagunak, eta laugarrena, onuraduna, D´Artagnan.

(19) Umugóre a-ra-bi-yí-mu-he-er-a
emakumea S-ORAIN-O-ZO-ONR-eman-ONR-ASP
'Emakumea hari hura ematen ari zaio harentzat'

Dena den, kinyarwanderaz, lau osagaiak aditzera inkorporatuz gero, ez dirudi perpausean argumentuak beraiek ager daitezkeenik. Hau da, euskaraz aditzean isla daitezke subjektu, osagarri eta zehar osagarriak, argumentuak beraiek isilaraziz (20a) zein ez (20b), hortaz, aditzean argumentuak islatzeak ez du esan nahi argumentuak beraiek isilarazi behar direnik.

(20) a. Eman dizkio
b. Mirenek Joni lorak eman dizkio

Bada, kinyarwanderak aukeretatik lehena baino ez dauka, aditzean azalduz gero, orduan argumentuak ezin daitezke agerian azaldu —hau da, euskararen (b) aukerarik ez dago kinyarwanderaz. Neurri batean, argumentuen ordezkoak dirudite aditzean zehaztu ditugun morfema horiek. Horrek pentsarazi beharko liguke ea kinyarwanderaz dagoena benetan komunztadura den ala ez. Komunztadura egitean, beti zerbaitekin egin beharra dago, subjektuarekin komunztadura egin, osagarriarekin, eta abar. Jakina, argumentuak nolabait desagertzen badira perpausetik eta berragertzen badira aditzean islaturik, orduan komunztadura izatekotan, ez dirudi euskararena bezalakoxea denik. Bai, igarri duzu irakurle, komunztadurak kasu honetan, inkorporazio kutsua dauka. Polisintesiaren Parametroa indarrean egongo al da honelako perpausak sor daitezen?

Asko kostata aurkitzen dira lau komunztaduradun adizkiak literatura tipologikoan. Badira, dena den, kinyarwandera alde batera, lau sintagmekin komunztadura egiten duten hizkuntza batzuk, baina aurreko kapituluan aztertu ditugun perpaus arazleetan baino ez. Gogoratu perpaus arazleak norbaitek norbaiti zerbait eginarazi modukoak direla, eta horrek beti gaineratzen duela argumentu bat perpausean, arazlea, hain zuzen, aurreko kapituluan erakutsi dugun bezala. Esate batera, abazeraz[11]:

(21) alə́gaʒʷ ácʸkʷəncʷakʷa llá aphʷə́pa y-gʸ-y-z-d-m-l-r-ətxd
mutilak agurea txakurra neska 3SG-EZ-3PL-POT-3SG.GIZ-EZ-3S.FEM-ARZ-eman
'Agureak ezin izan zuen mutilek neskari bere txakurra itzularazi'

Egin kontu. Goiko perpausean jasota dauden perpausean ageri diren lau argumentuak, arazlea, *ácʸkʷəncʷakʷa* 'agurea', arazia, *aləgaʒʷ* 'mutilak'; gaia, *llá* 'txakurra', eta zehar osagarria *aphʷə́pa* 'neska'. Den-denak dituzu jasoak aditz komunztaduran. Harrigarria ezta? Makina bat komunztadura morfema adizki berean bilduta.

****

Dena den, komunztadura biltzeko kontuetan, nahikoa txapeldunak gara euskaldunok, *maillot* horiaz ez bada, gutxienez, kinyarwandar eta kaukasoar abazeradunekin batera podiumean egotea merezi dutenetakoak. Izan ere, euskaraz, gure irakurle baten baino gehiagoren hizkeretan, bada perpauseko argumentuekiko komunztaduraz gain, hau da, subjektu, osagarri eta zehar osagarri komunztaduraz gain, beste komunztadura modu bat, gurekin hizketan ari den lagunaren berri ematen duena, hau da, gure mintzakidearena. Komunztadura modu horri *alokutiboa* deritzote euskalariek. Esate batera, euskaraz halakoxe perpausak izan ditzakegu:

(22) a. Nik Mireni lorak eman dizkiot
b. Nik Mireni lorak eman zizkionat

Berez ez dago ezberdintasunik bi perpausen artean esanahiari dagokionez, eta ezberdintasun formal bakarra aditz laguntzailean aurkitzen dugu: batean, ez da gure mintzakidearen arrastorik agertzen —*dizkiot*—, bestean, aldiz, bai —*zizkionat*. Aleka-aleka iruzkinduko ditugu bi aditzak jarraian:

(23) a. eman d-i-zki-o-t
(3SG)-AD-3PL-3SG-1SG
b. eman z-i-zki-o-na-t
(3SG)-AD-3PL-3SG-ALO.FEM-1SG

Bigarren adizkian, lehen adizkiko morfema guztiei *-na-* komunztadura atzizkia gaineratu zaie. Atzizki hori erabiltzen da, hain zuzen ere, mintzakidea emakumezkoa denean. Bada, jakingo duzunez irakurle, beste alokutibo komunztadura marka bat gizonezkoekin erabiltzen dena, *-a-* alegia, *eman zizkioat* sortuko lukeena. Hortaz, zenbatu ditzagun: egilea, bat; helburua, bi; gaia, hiru, eta mintzakidea, lau!

Bada, nolanahi ere, kontuan eduki beharreko gauza garrantzizko bat datu hauek behar bezala ulertzeko: komunztadura hau ez da argumentu komunztadura, hau da, ez dagokio berez aditzak adierazten duen ekintzan parte hartzen duen inongo argumenturi. Pentsa, gainera, argumenturen batekiko komunztadura adieraziko balu, orduan argumentua bera ager litekeela perpausean, eta ez, hori ezinezkoa da:

(24) a. Nik Mireni lorak eman zizkionat
b. *Nik Mireni lorak eman zizkionat *hiri*

Kontuan izan, era berean, alokutiboak perpaus nagusietan baino ez direla agertzen, ez, ordea, mendeko perpausetan[12]. Horrek ere pentsarazten digu alokutiboa ez dela argumentu komunztadura, benetako komunztadura nolabait esatearren. Ez dira oso erraz aurkitzen alokutiboak bezalakoxe adizkiak munduko hizkuntzetan. Nekez. Aspaldi Beñat Oyharçabalek (1993) alokutiboei buruz egin zuen lan batean, ohar txiki batean aipatu zizkigun japonieraren *honorifikoak*, eta horiexek dira, hain zuzen ere, hemen gure alokutiboen alboan jarri nahi genituzkeenak, diferentziak diferentzia, badute-eta nolabaiteko zerikusia.

Honorifikoek *keigo* (敬語, 'errespetuzko hizkera') izena dute japonieraz, baina *keigoa* ez da bat eta bakarra. Esate batera, *sonkeigo* (尊敬語), errespetuzko hizkeretako bat darabilte bereziki errespetua zor zaion mintzakideren batekin hizketan daudenean, nagusiarekin adibidez edota bezero batekin. Xehetasunak, baina, agian basoa ikusten utziko ez digutelakoan, isilduko ditugu oraingoan. Bada, *keigoa* erabiltzen denean, aditzak modu formal batean jokatzen dira. Guk, hain zuzen, aditzen jokabide formal eta ez-formalaren berri xumea baino ez dugu eman nahi ondoko lerroetan. Gogoratu, gainerakoan, japonieraz berdin dela subjektua zein den, adizkia berdin-berdin jokatzen dela ondoko adibideetan erakusten dugun bezala[13].

(25)

a. 私	は	読みます
watashi	wa	yomimasu
nik		irakurtzen dut
b. 彼女うたち	は	読みます
kanojotachi	wa	yomimasu
haiek.FEM		irakurtzen dute

Kontua da aditzak subjektu komunztadurarik erakusten ez badu ere, badituela, goian esan dugun bezala, jokatzeko modu bi, bata formala eta bestea formala ez dena. Aditza modu formalean jokatzen denean orainaldian, *-masu* atzizkiaz amaitzen da, goiko adibideek erakusten duten moduan. Halakoxea da baita (26a) perpausa. Baina hori ez da hala izaten modu ez-formalean (26b). Konparatu forma biak bata bestearekin orainaldian eta iraganean[14].

(26) a. ここ に 亀 が います/いました
koko ni kame ga imasu /imashita
hemen P dortoka egon-(OR)/(IRAG)
'Hemen dortoka bat dago/zegoen' (modu formala)

b. ここ に 亀 が いる/いた
koko ni kame ga iru/ita
hemen P dortoka egon-(OR)/(IRAG)
'Hemen dortoka bat dago/zegoen' (modu ez-formala)

Adizki formalaren ordain ez-formala, hiztegiko forma ere deitu ohi dena, manga, anime eta bideo-jokoetan aurkituko du irakurle zaletuak, *keigo*ra hurbiltzen denak adizki formalak ikasten hasi beharko duen arren. Euskaldunak lagun arteko hizkerarako beharko ditu alokutiboak; japonieradunak, kontrako muturreko hizkeretarako *keigoa*[15]. Bietan ezaugarri bera dago, baina: mintzakidea islatzen da adizkian eta mintzakidearen arrasto morfologiko hori perpaus nagusietan baino ez da jasotzen, ez mendekoetan.

****

Bidezidorretan ibili gara lerro hauetan, zenbat komunztadura, bat, bi, hiru, lau, argumentu komunztadura, argumentu komunztadura ez dena… baina ez dezagun bide nagusia galdu. Kasua Nolako, Komunztadura Halako Parametroa euskaraz nola finkatzen ote den ikustea izan da gure erronka nagusia, eta printzipioz euskararen balioa baiezkoa dela esan dugun arren, ikusi beharko dugu orain, baiezkoa ea ez ote den ezezko bihurtzen datuak zehazten joan ahala. Nolanahi ere, euskarara berriro hurbildu aurretik, ikus dezagun parametroaren ezezko balio biribila omen duen georgieraren kasua, Mark Baker-ek (2006) darabiltzan datuak bertara ekarriz. Ezezko biribila diogu, zeren georgieraren kasu sisteman, nominatibo-akusatiboa izan (27a) zein ergatibo-absolutiboa (27b), ezartzen den komunztadura bera da —gogoratu georgieraz aspektuak eragindako erdibiketa dagoela, eta sistema akusatiboa orainaldian erabiltzen den bitartean, ergatiboa, aoristoan, edo iraganean erabiltzen dela. Horrek adierazten digu komunztadura ez dela kasuaren araberakoa, edo Kasua Nolako, Komunztadura Halako Parametroari segika, ezezkoa dela georgierak finkatutako balioa.

(27) a. šina-ber-a jagl-s jval-s mi-s-c-em-s
ezkongabea-NOM txakurra-DAT hezurra-AKUS *mi*-3SG-eman-D-3SG
'Ezkongabeak txakurrari hezurra emango dio'

b. šina-ber-a-m jagl-s jval-i mi-s-c-ø-a
ezkongabea-ERG txakurra-DAT hezurra-NOM *mi*-3SG-eman-D-3SG
'Ezkongabeak txakurrari hezurra eman zion'

Euskaraz, aldiz, goian eman ditugun datuak izanik, litekeena da pentsatzea, georgieraz ez bezala, kasua bezalakoxe komunztadura dugula. Laburbildu ditzagun datu nagusiak. Euskaraz, baldin eta ergatibo argumenturik badago —edo nahiago bada, predikatu iragankorreko subjekturik—, orduan, ergatibo komunztadura izango dugu adizki jokatuan; baldin eta absolutibo argumenturik badago —osagarria edota predikatu iragangaitzeko subjekturik—, orduan absolutibo komunztadura, eta azkenik, baldin eta datibo argumenturik ageri bada —zehar osagarria goian aztertu dugun adibidean—, orduan datibo komunztadura. Konforme. Kasua bezalakoxe komunztadura. Beraz, baiezko balioa Kasua Nolako, Komunztadura Halako Parametroari euskaraz. Datu guzti-guztiak eskura, alabaina, zalantza izpi bat izan dezakegu. Gogoratu besterik ez dago 1. kapituluan lehenengoz aipatu dugun ergatiboaren lekualdatzea konturatzeko, ezen parametroaren balioa ezezkoa bada, nonbait baduela salbuespenik. Izan ere, ergatiboaren lekualdatzea gertatzen den perpausetan, ergatibo argumentuari, ergatiboa izanagatik ere, absolutibo komunztadura ezartzen bazaio —komunztadura aurrizkiaren bidez—, edo nahiago bada, absolutibo argumentuak erakutsi ohi duena, orduan ez dirudi kasua bezalako komunztadurarik dugunik euskararen egitura hauetan, behintzat. Luzaz erabili da gaia euskalaritzan, eta nahi beste lan eta gehiago aurkituko ditu irakurleak sakondu nahi badu. Horregatik, ergatiboaren lekualdatzearen xehetasun batzuk baino ez ditugu jasoko hemen. Gogoratu, lehen aipamenarekin batera esan dugun bezala, lekualdatzea iraganeko forma eta forma hipotetikoetan bakarrik agertzen dela, ergatibo argumentua lehen edota bigarren pertsonakoa denean eta absolutibo argumentua, berriz, hirugarren pertsonakoa, ondoko perpausean (28a) ikus daitekeen bezala. Parametroa gogoan, ondoko perpaus parea nahikoa zaigu ikusteko, subjektua predikatu iragankorrekoa izan zein ez, eta, hortaz, ergatiboa izan zein absolutiboa, komunztadura marka bera darabilgula, *n-* aurrizkia, hain zuzen. Kasua bezalakoxe komunztadurarik ez da, bistan denez, lekualdatzean (28a):

(28)	a. Ni-k	Jon	ikusi	n-u-en
	ni-ERG	Jon (ABS)	ikusi	1SG-edun-IRAG
	b. Ni	goiz	esnatu	n-intzen
	ni (ABS)	goiz	esnatu	1SG-izan-IRAG

Esan berri dugunez, ergatiboaren lekualdatzeaz luzaz hitz egin izan da euskalaritzan, baina aipamenen bat alde batera, oso gutxi dira literaturan fenomenoa hizkuntzartean sakon arakatu dutenak. Aspaldi esan zigun Ken Hale (2001) hizkuntzalari eta maisu handiak ergatiboaren lekualdatzeak izan bazuela zerikusia berak *komunztadura bitxia* (*eccentric agreement* ingelesez) zeritzonarekin. Bego Haleren oharra omenaldi gisa. Ez dugu bidea bere urrats sendoez egingo, baina saiatuko gara behintzat berak urratutako bideari segitzen. Ondoko lerroetan lekualdatzearen antza duten egiturak jaso nahi ditugu.

Komunztadura bitxia deituraren azpian, hizkuntza batzuetako datuak eta egiturak aztertu zituen Hale-k, tartean, txuktxieraren *inbertso* edo *alderantzizkoa* eta kitxeraren *antipasibo izuna* (*spurious antipassive* ingelesez)[16] deitu izan den egitura. Ikus ditzagun ondoren. Adi ibili behar du irakurleak orain eta ez ditu ahaztu behar aurreko kapituluan antipasiboez esan ditugunak. Lasai, dena den, tarteka bi egituren arteko antzekotasunak eta diferentziak aipatuko baititugu.

Gorago ere aipatu dugu txuktxiera, behin baino gehiagotan aipatu ere. Urrunekoa bai, baina euskararen modura, hizkuntza ergatiboa. Gogoratu hizkuntza ergatiboa dela esateko kasuaz gain, komunztadura nola atontzen den ikusi dugula, eta txuktxieraz, badela kasu sistema ergatiboaz gain, komunztadura sistema ergatiboa ere: aditz iragankorreko subjektuekin komunztadura egiteko aurrizkiak darabiltzate, eta absolutibo argumentuekin, aldiz, bai osagarriekin bai perpaus iragangaitzeko subjektuekin, atzizkiak.

Euskararen antzera, kasu sistema ergatiboa eta komunztadura sistema ere ergatiboa ditu txuktxierak[17], baina antzekotasuna ez da hemen agortzen. Kontua da txuktxieraz, komunztadura nolabait kanonikoa erakusten duten datuez gain, badirela horren kanonikoak ez diren datuak, euskararen ergatiboaren lekualdatzea gogora ekartzen digutenak. Esate batera, begiratu ondoko perpaus hauei. Lehena gure perpaus eredua da, kanonikoa. Begiratu gainerako biei, horiexetan duzue alderantzizko egitura. Halako egiturak denbora iragan edo telikoa denean aurkitzen dira txuktxieraz —iragandako edo burututako ekintzak dira bertan adierazten direnak. Adibide hauetan, era berean, argumentu ergatiboa bigarren pertsonakoa da eta argumentu absolutiboa, berriz, lehen pertsonakoa, nahiz eta bestelako pertsonekin ere azal daitekeen alderantzizko egitura[18]:

(29) a. ɤəm-nan ɤət tə-ɬʔu-ɤət
ni-ERG zu (ABS) 1SG-ikus-2SG
'Nik zu ikusi zintudan'

b. ɤə-nan ɤəm *ine*-ɬʔu-ɤʔi
zu-ERG ni (ABS) INB-ikus-2SG
'Zuk ni ikusi ninduzun

c. ɤə-nan muri ɬʔu-*tku*-ɤʔi
zu-ERG gu (ABS) ikus-INB-2SG
'Zuk gu ikusi gintuzun'

Halako egituretan, *ine-* aurrizkia eta *-tku* atzizkiak jasotzen dira. Hizki horiek dira, hain zuzen ere, txuktxieraz antipasiboa egiteko erabiltzen diren berberak. Geroago konparatuko dugu inbertsoa antipasibo hutsarekin. Momentuz alderantzizko egiturako perpausak dauden daudenean konparatuko ditugu goiko perpaus kanonikoarekin. Erraz egingo duzu, saiatuz gero. Goazemank!

Bi dira, bai, argumentuak alderantzizko egitura bietan, goiko perpaus kanonikoan beste, alegia, eta kasu berberez markatutakoak: bata kasu ergatiboaz, *ɤə-nan* 'zuk' alegia, eta absolutiboz bestea *ɤəm 'ni'* (29b) eta *muri* 'gu' (29d). Bi argumentu egoteak badu berebiziko garrantzia, irakurle, zeren horrek esan nahi ditu egitura bera iragankorra dela, hau da, bi argumentukoa, eta hortaz, *ine-* eta *-tku* hizkiengatik ere ez dela iragangaitz bihurtu —gogoratu hizki horiexen bitartez antipasiboa sortzen dela, eta antipasiboa egitura iragangaitza dela.

Bada honaino helduta, zein da diferentzia? Biak egitura iragankorrak, biak bina argumentukoak, biak ergatibo eta absolutibo kasuez adierazitakoak… Bada, igarri duzu, irakurle, diferentzia inflexioan dago: berez egitura kanonikoan bi argumentuekiko komunztadura ikusi dugu inflexioan, *tə-* , singularreko lehen pertsonako komunztadura aurrizkia, eta, *ɤət,* singularreko bigarren pertsonako atzizkia, baina alderantzizko egituran argumentu bakar batekiko komunztadura baino ez da ageri, *-ɤʔi,* singularreko bigarren pertsonakoa. Are, komunztadura marka hori ez da espero genezakeen bezala ergatiboak erakutsi ohi duen komunztadura aurrizkia, ezpada absolutibo argumentuari egozten zaion komunztadura atzizkia, eta horixe da, hain zuzen, Hale-k komunztadura bitxia zeritzona, absolutiboaren komunztadura izanik ere, kasu ergatiboaz markatutako argumentuari dagokio, ez absolutiboaz markatutakoari. Inor baino hobeto konturatzen gara hitzen zirrikitu ezkutu eta oihartzun handiez, horregatik egitura honi ergatiboaren lekualdatze kutsua hartzen diogula-eta, halaxe iritziko diogu, ergatiboaren lekualdatzea, ausartegiak izango ote garen zalantzaz.

Konpara dezagun orain alderantzizko egitura antipasiboarekin. Antipasiboaren datuak ezagunak zaizkigu dagoeneko aztertu ditugulako 3. eta 4. kapituluetan. Orduko datuen antzeko batzuk dakartzagu hona:

(30) a. ɤəm-nan tumg-ət tə-pelya-nat
ni-ERG laguna-PL.ABS 1SG-abandonatu-3PL
'Nik lagunak abandonatu nituen'

b. ɤəm t-ena-pelya-k tumg-e
ni 1SG-AP-abandonatu-1SG laguna-INSTR
'Nik laguna abandonatu nuen'

Eta zergatik antipasiboarekin konparatu? Bada, gorago esan dugun bezala, inbertsoak nahiz antipasiboak adierazteko hizki berberak erabiltzen direlako. Begira, bestela, (30b) egitura antipasiboan, *-ena* ageri da, eta goian, alderantzizko egituran, *ine-* —aldaketa morfofonologikoak alde batera, morfema bera da, irakurle mesfidati.

Edonola ere, morfema berak ez ditu ondorio berberak ekarri alderantzizko egitura eta egitura antipasiboetara. Inbertsoan agertzeak ez du egitura iragangaitz bihurtu. Aldiz, antipasiboan, morfemari esker, iragangaiztea gertatu da sintaxian

—gogoratu antipasiboa genuela, hain zuzen ere, argumentuak murrizteko mekanismoetako bat, hau da, perpaus iragankorrari ordain iragangaitza ematen ziona. Era berean, antipasiboan argumentuen kopuruari ez eze, argumentuen izaerari berari eragin zaio, ergatibo kasu argumentua *gəm-nan* 'nik' absolutibo kasudun *gəm* 'ni' bihurtu da-eta antipasiboan, eta absolutibo kasuduna, osagarri logikoa izatez, zehar kasudun adjunktua izatera pasatu da-eta, hau da, zaldun izatetik morroi izatera, hierarkia sintaktikoan. Halakorik ez da, baina, alderantzizko egituran: osagarria ez da sintaktikoki morroi bihurtzen, ez da beheratzen sintaxian.

Gehiegitxo, agian, txuktxierarik ia existitzen zen ere ez zekien irakurlearentzat —gure liburuko orriak begiztatzen hasi arte, bederen. Gauzak oso-oso labur nahi dituenarentzat, lelo bakarrean ia, izan hauxe gogoan: ergatibo kasua duen argumentuak absolutiboak erakutsi ohi duen komunztadura azaltzen du aditzean txuktxieraren egitura inbertsoan. Horixe gogoratu beharrekoa. Jakina, horrek ergatiboaren lekualdatzeari beste modu batez begiratzen uzten digu. Euskaraz, ergatiboaren lekualdatzea erakusten duten perpausetan ere, ergatibo eta absolutibo bi argumentu ditugu, baina argumentu bakarrak erakusten du komunztadura halakoetan, ergatiboak alegia, eta, gainera, ez arrunta zaion komunztadura, ergatiboa alegia, ezpada absolutiboak erakutsi ohi duena: komunztadura bitxia, Haleren begietara, ergatiboaren lekualdatzea gure begietara.

Hale-k bildutako beste ebidentzietatik bat kitxeraren antipasibo izuna da, goian esan dugun bezala. Txuktxierarekin bezalatsu, gorago eman ditugu kitxeraren oinarrizko datuak. Gora jo, beraz, datu horiexek fresko izateko gogoan. Gogoratu, edonola ere, kitxera maiar hizkuntzak bezala, hizkuntza ergatiboa dela, nahiz eta hori komunztaduran baino islatzen ez den, ez dago-eta nahitaez ageriko argumenturik, eta, egonez gero, argumentuak ez darama-eta kasu markarik. Ondokoa da ohiko antipasibo egitura[19].

(31) x-Ø-kuna-n lee achi ch-aaw-ee
ASP-3SG.ABS-sendatu-AP gizona P-2SG-(GEN)
'Gizonak zu sendatu zintuen'

Hemen, jakina, antipasiboaren ezaugarriak ikustearren, adizkiari begiratu behar zaio lehenik eta behin. Bertan, *-n(ik)* antipasiboaren morfema ageri da, hortaz, badakigu antipasiboa dena. Hortik aparte, komunztaduraren aztarna bila, ez dugu aurkitzen komunztadura absolutiboa baino, itxuraz, komunztadura ergatiboa ezabatu egin da-eta —gogoratu kitxeraz komunztadura ergatibo zein absolutiboa esplizitua dagoela. Komunztadura absolutiboa hori *lee achi* 'gizona' argumentuari ezartzen zaio. Era berean, osagarri logikoa, alegia, zu, preposizio batez markaturik dator. Jakina, azken horrek ez du komunztadurarik eragiten eta antipasiboan espero izatekoa den bezala adjunktu da perpausean. Egitura iragangaitza da, beraz, benetako antipasiboa. Baina bada benetako antipasiboa gabe, antipasibo izuna dena —bigarren adibidean erakusten dugu[20]:

(32) a. aree lee achi x-in-kuna-nik
FOK gizona ASP-1SG.ABS-sendatu-EF
'Gizona zen ni sendatu ninduena'

b. in x-in-kuna-nik lee achi
FOK ASP-1SG.ABS-sendatu-EF gizona
'Ni nintzen gizona sendatu nuena'

Antipasibo izuna diogu, zeren egitura honetan[21], osagarria ez da-eta beheratzen sintaxian, hau da, izatez osagarria da, benetako antipasiboetan ez bezala. (32a) perpausean, *-in-* komunztadura marka ageri da, hortaz, osagarria egon badago eta (32b) perpausean, *lee achi* 'gizona' osagarri modura agertzen da, ez adjunktu modura. Hori bai, harritzekoa dena da ergatibo komunztaduraren arrastorik ez dagoela, eta hori gogoan, pentsatzekoa zen iragangaiztea gertatu dela sintaxian, baina ez da hala izan. Izan ere, komunztadura absolutibo hori argumentu ergatiboari egotzi zaio (32b) perpausean.

Itxuraz horren ezberdinak izanda ere, bada kitxeraren antipasibo izuna euskararen ergatiboaren lekualdatzearekin konparatzean, harritzen gaituen beste antzekotasun bat ere: antipasibo izunean, komunztadura marka bakarrarengatik lehian garaile ateratzen dena ageriko komunztadura duena da, alegia, lehen edota bigarren pertsona, eta galtzaile, ageriko komunztadurarik ez duena, hau da, hirugarren pertsona. Komunztadura bakarra badago, orduan, ageriko komunztadura duen pertsona da komunztadura bakar horretaz jabetzen dena, lehian irabazten duena nolabait esatearren. Horixe, bada, guk ergatiboaren lekualdatzeaz inoiz esan izan dugun antzera[22].

Badira diferentziak, noski! Zertarako geure burua engainatu, baina guk datu batzuen eta besteen muinari begira, pentsatzen dugu ergatiboaren lekualdatzea ez dela euskararen fenomenoa bakar-bakarrik, eta munduko hizkuntzetan arakatzen hasita, badirela itxuraz fenomeno beraren adierazgarri berriak, txuktxieraren inbertso edo alderantzizkoa, kitxeraren egile foku egitura, eta baita ziur aski, Hale-k jasotzen dituen bestelako egitura batzuk ere.

Ergatiboaren lekualdatzea gogoan, Kasua Nolako, Komunztadura Halako Parametroari euskaraz egotzi diogun balioa hori benetan al den ikusi beharko genuke. Baiezkoa genioen, Baker-en irakatsiari jarraituz, baina gure senak aspaldidanik diosku ahopeka kasua eta komunztadura ez datozela beti bat euskaraz, eta horren erakusgarri garbia dela ergatiboaren lekualdatzea bera[23]. Horrek garamatza euskarari galdera-ikurra jartzera behin-behinean.

(33) *Kasua Nolako, Komunztadura Halako Parametroa*
a. Bai, euskaraz?
b. Ez, georgieraz

Eta bidean aurkituko ditugu galdera-ikurra kendu eta *bai* hori *ez* batez ordezkatzera eramango gaituzten bestelako erakusgarriak. Ikusi bestela.

****

Goiko lerroetan erakutsi nahi izan dugu berez euskararen komunztaduran euskalariek aurkitu duten harribitxia urruneko paradisuetako altxorretan ere aurkitutako harribitxien modukoa dela: eureka! Guk zer esango dizuegu? Nahiago dugu ahizpatasun tipologiko bitxia, txuktxierarekin, kitxerarekin, eta auskalo, altxor gehiago deskubritutakoan, zeinekin, isolamendu tipologiko erabatekoa baino. Bitxiak, bai, baina ez bitxi bakarrak, bitxi bakarrak arraro izateko urrats txiki bat baino ez du-eta behar. Gainera, irakurleari hasiera-hasieratik erakutsi diogu hizkuntzaren batean bitxikeriarik aurkituz gero, oso litekeena dela hori besteren batean ere aurkitzea. Are, hizkuntzez esan duguna orain artean, hizkuntza beraren barruko hizkerez ere esan daitekeelakoan gaude. Bada, jo dezagun ikustera ea ba ote den komunztadura bitxirik euskararen hizkeretan, eta ea hizkerek parametroaren zehaztapenaz ezer argitzen ote diguten: parametroaren ezezkoaren aldeko ebidentziarik eskainiko al digute?

Bai, badira komunztadura bitxiak gainerakoan ere. Adibidez, badira euskararen hizkeretan datibo sintagmekin batera azaltzen diren komunztadura harrigarriak, hala nola Pierre Lafittek (1962) *le Solécisme de la Côte* edo Kostaldeko Solezismoa deritzona, ondoko adibide hauetan jasotzen ditugunak —hasierako bi adibideetan[24], *eman* osagarri bikoitzeko aditza dugu; hirugarrenean, *gustatu* aditz psikologikoa[25]:

(34) a. Zuk niri sagarra eman nauzu
b. Nik zuri sagarra eman zaitut
c. Niri marmitakoa gustatzen nau[26]

Honelako adibideak arrotzak eta areago baztergarriak dira euskaldun askorentzat. Beraiei begira, irakurleak berak ere adizkiak oker erabilita daudelako sentipena izan dezake, betiere *solezismoa* ezagutzen duten hizkeren bateko hiztuna ez bada, behintzat. Galdetzen hasita, irakurleak ziur aski esango luke erabilera okerrean, absolutibo-ergatibo (*nauzu* eta *zaitut*) adizkiak aukeratu direla, absolutibo-datibo-ergatibo (*dautazu* eta *dautzut*) adizki zuzenen ordez (a, b), eta okerretan okerrenean, absolutibo-ergatibo (*nau*) adizkia erabili dela, absolutibo-datibokoa (*zait*) erabili beharrean (c). Aurrekoak oker, ondokoak zuzen:

(35) a. Zuk niri sagarra eman dautazu
b. Nik zuri sagarra eman dautzut
c. Niri marmitakoa gustatzen zait

Ez da irakurlea bera bakarrik izan eta agian ezta izango ere, (34a, b, c) bezalakoak erabilera okertzat hartuko dituenak, baina halakoetan, euskaldunok bihotz barrenean ezkutatu nahi dugun euskara-garbizalearen ahotsa ixilaraziz —ixo behingoz!—, uda partean hondartzan gaudela, gure barruan uretara dzanga egiten duen euskaldun patsadatxuari aditu beharko genioke.

Zeinek ez du koadrilan lekeitiarrik, Lekeitiotik aparte bizi denik esan nahi dugu, edo zeinek ez du lagunen bat Etxarri Aranatzen? Zeinek ez du saratarren doinu goxo fina belarri-hegaletan jaso Lapurdiko kostaldetik urrundu eta berehala. Bada, lagunok, euskaldun bizizale arduragabeak —eta ez axolagabeak— nekez esango dio lekeitiarrari, *txo, egizu ganoraz berba,* lekeitiarrak *emon nazu tabakua* diotsanean. Tabakoa eman eta kitto, marea gora ote datorren beste ardurarik gabe. Eguzkitan, gustora…

Bada, horixe, kendu *letra(t)uen* antiojo estuak, ipini uda partean baino erabiltzen ez dituzun antiojo koloretsu xelebre samar haiek, eta gogoratu euskarak hamaika kolore eta ñabardura, zirrikitu eta tolesdura dituela. Ipini, bada, udako antiojoak begien aurrean eta begiratu berriro datu itxuraz okerrei. Orduan eta orduan bakarrik erakutsiko dizute euren alderdi ezkutu eta ederrena.

Baina, egon, Phileas Fogg-ek antiojorik ba ote zerabilen? Ez dakigu. Bera bezalako gentleman londrestar bat, hain zehatza, «bizimoduaren urrats eta norabide guztiak matematikoki pentsatu eta burutzen dituzten horietakoa izanda[27]», erraz imajina dezakegu antiojoekin, edo hobe, lente bakarreko antiojoekin. Behar ez bazituen ere, dotorezia hutsez erabil zitzakeelakoan gaude. Ez, nolanahi ere, udako antiojo xelebreak…

Tira, itzul gaitezen harira. Datu soil-soilak kontuan hartu eta gogoratu lekualdatzea gure begietara hau dela: argumentu batek berez dagokion komunztadura jaso beharrean, ez dagokion komunztadura bereganatzen duela. Hori gogoan, antiojo udatiarrek dioskue hemen argumentu datiboak ez daramala berez dagokion datibo komunztadura, ez bada absolutibo komunztadura, alegia, normalean argumentu absolutiboari ezartzen zaiona —osagarri zein subjektu iragangaitzei. Halaxe deskribatu izan dugu, behintzat, bakarka eta elkarlanean, eta zuzen genbiltzala pentsatzen dugu oraindik ere. Horretarako adibide ustez okerrari berriro begiratzea baino ez dago, bere lagun zuzenarekin konparatuz:

(36)	a. Zu-k	ni-ri	sagarra-Ø	eman	n-a-u-zu
	Zu-ERG	ni-DAT	sagar (ABS)	eman	1_{ABS}-$_{DAT}$-OR-erroa-2ERG
	b. Zu-k	ni-ri	sagarra-Ø	eman	d-a-u-ta-zu
	Zu-ERG	ni-DAT	sagar (ABS)	eman	(3ABS)-OR-erroa-1DAT-2ERG

Bi perpausetan hiru argumentu ditugu, ergatibo, absolutibo eta datibo kasuez markatuta *-zuk*, *niri* eta *sagarra,* hurrenez hurren. Argumentuen markapenean, hortaz, ez da ezberdintasunik. Ezberdintasunak, aldiz, komunztaduraren eskutik datoz, zeren (36a) perpausean, ergatibo eta datibo argumentuekin bakarrik egiten du komunztadura *nauzu* adizkiak. Are gehiago, datiboak ez du berezko komunztadura erakusten aditz laguntzailean, hau da, datiboarena, absolutibo komunztadura baino, *n-* absolutibo komunztadura markak erakusten duen bezala. Hau da, argumentuak berea ez den komunztadura bereganatzen du, eta horregatik, arraro samarra da euskaldun gehienen begietara. Horretaz gain, datiboak absolutibo komunztadura bereganaturik, badirudi berak berezkoa duena, datiboarena alegia, galdu egiten duela, datibo komunztadurarik ez da-eta inondik agertzen. Hala, komunztadura nolabait murriztu ere egiten da, inoiz esan izan dugun bezala. Bada, igarri duzu, irakurle, lekualdatzea dirudi honek ere (34), baina ez ergatiboaren lekualdatzea, ez bada *datiboaren lekualdatzea* guri deitzea gustatzen zaigun bezala.

Honaino helduta, irakurle tematiak galde egingo du oraindik ere ea edozer den zilegi, ea edozer esan ote daitekeen eta ea ez ote gauden anabasa linguistikoaren hasieran, eta anabasa hori azaldu nahian, gainera. Guk orduan erantzungo genioke, salbuespenak salbuespen, sintaxilariok euskaraz, oro har, eta euskara batuaz bereziki dauden datuak erabili izan ditugula gure lanaren datu-iturri modura, baina euskara batua hizkera bat baino ez dela euskararen unibertsoan, eta badirela hizkera horren aldean, bestelako hizkera jator eta benetakoak, eta badela garaia, sintaxilariok ere udako antiojoak janzten hasteko, antiojo estuak ondo gordeta, eta hizkera horiexei begiratzeko.

Txantxak alde batera, euskaraz oro har eta euskara batuaz ere, bada harribitxi nahikorik, ergatiboaren lekualdatzea bera esate batera, eta aipatu diogu irakurleari 1. kapituluan zer-nolako nekea eragiten zien adituei fenomenoari zor zitzaizkion formak ekidin nahiak. Alperrik. Euskara batua uharteko altxorra da guretzat, baina tokian tokiko beste edozein hizkera bezainbeste estimatzen dugu, hizkuntzalariok badugulako zer ikasi asko hizkeretatik, euskara zer ote den jakin nahian bagabiltza. Eta batzuetan nekez aurkituko dugu euskaraz oro har harturik, edo bereziki euskara batuaz baliatuz, hizkeren testigantzetan jasotzen den guztia. Ez dago, esate batera, datiboaren lekualdatzerik, eta ezta komunztadura bikoizketarik ere, ez badiegu euskararen hizkera batzuei begiratzen. Hizkeretan fenomeno bat islatuko da modu batean edo bestean, esaterako, datiboaren lekualdatzea Sarako hizkeran ez da osagarri bikoitzeko perpausetan baino ezagutzen, hau da, *eman nauzu* diote, ez *gustatzen nau*; badira batzuk nahiz besteak ezagutzen dituztenak, hondarribitarrak bezala, baina horiei saratarren *eman zaitut,* ordea, arrotza zaie. Eta beste hizkera batzuetan, datibo komunztadura kanonikoa egongo da, batuan dagoenaren modukoa. Hizkeretan dago aldakortasuna, ez hizkuntzatik hizkuntzara dagoen bera agian —hori hala ote den ikusi beharko litzatekeen arren—, ezpada hizkuntza beraren barruko hizkeren artekoa. Gure zientzia-bidean, euskarari oro har begiratu beharrean izan

gara urtetan, baina euskararen hizkerei *ere* begiratzeko ordua heldu dela uste dugu guk orain. Guri dagokiguna ez da erabilera arautzea ez bada hizkera batean edo bestean benetan aurkitzen duguna jaso, deskribatu, eta gai bagara, behintzat, azaltzea. Eta azaltze bidean, fenomeno beraren erakusgarri gehiago biltzea munduko hizkuntzetan zehar. Milan Rezac-ek lagunduko digu bide horretan. Datiboaren lekualdatzea sakon aztertu du aspaldion Milan Rezac-ek (2006), eta guk geuk euskaraz lehenago aztertutako datuak euskararen beste hizkera batzuetara zabaltzeaz gain, hipotesi teoriko sendoa ekarri du euskalaritzara. Ez ditugu bere analisiaren xehetasunak hona ekarriko. Ez dator harira. Guk bere lanetik bakarrik jasoko dugu hizkuntzen artean egiten duen bilaketari esker aipatzen duen datuiturri bat, itelmenerarena, hain zuzen, Jonhatan D. Bobaljik eta Susi Wurmbranden (2001) datuez baliatuz. Hona hemen:

(37) a. isx-enk n-zə-a ɬ-um kza kə ma-nk?
aita-LOK IND.OR-eman-FUT-1SG.O zu ni-DAT
'Aitak zu emango nau niri?' ('Will father give you to me?')

b. isx-enk n-zə-a ɬ-in kza kə ma-nk?
aita-LOK IN.OR-eman-FUT-2SG.O zu ni-DAT
'Aitak zu emango zaitu niri' ('Will father give you to me?')

Irakurle begizorrotza konturatuko zenez, lehen adibidean *kəma-nk* 'niri' argumentu datiboari edo zehar osagarriari *-um* osagarri komunztadura dagokio, ez zehar osagarri komunztadurarik —datiboaren lekualdatzea dena, Rezac-en begietara, bigarren adibidean, berriz, ohiko komunztadura: *-in* osagarri komunztadura dagokio berez dagokionari, hau da, *kza* 'zu' osagarriari. Badira diferentziak, horiexek jakinmin handiko irakurleak egile horien lanetan aurkituko dituen arren.

Mark Baker-ek berak, bestalde, buruz buruko elkarrizketan diosku datiboaren lekualdatzeak, oro har, ez dirudiela horren fenomeno ezezaguna munduko hizkuntzetan, ez ergatiboaren lekualdatzea bezain berezia ziur aski. Bere ustez, eta neurri batean uste berekoak gara gu, oso litekeena da pentsatzea datiboaren lekualdatzea gertatzen dela zehar osagarriak osagarri komunztadura jasotzen duenean —berez dagokion zehar osagarri komunztaduraren ordez. Esate batera, guri gaztelaniazko *laismo/loismo* (38b) deritzen fenomenoak datozkigu gogora, Juan Romero lagunak aspaldi iradoki zigun modura, datiboaren lekualdatzearekin hausnarrean hasten garenean[28].

(38) a. Jon me ha visto a mí
Jon (NOM) KL-AKUS INFL ikusi P ni
'Jonek ni ikusi nau'

b. Jon	la/lo	ha	dicho	la verdad	a	ella/él
Jon (NOM)	KL-AKUS	INFL	esan	egia	P	hura.FEM/MAS

'Jonek egia esan dio'

Litekeena da diferentziengatik ere, hurbilekoak izatea (38b)-ko forma *la/lo*-zaleak eta hainbat euskaldunen datiboaren lekualdatzea. Eman iezaguzue denbora apur bat, Fogg-en garaian munduari itzulia egiteko beste gutxienez, eta gaur egun zantzuak besterik ez direnei itxura sendoagoa emango diegu aurki.

Zantzuak zantzu, Baker-en parametroari begira berriro, ergatiboaren lekualdatzea nahiz datiboarena ezagutzen duten hizkeretan, parametroari ezezko balioa esleitu beharko litzaiokeelakoan gaude, ez inolaz ere baiezkorik, euskaraz oro har, zalantzengatik ere, Baker-ek egotzi zion bezala.

(39) *Kasua Nolako, Komunztadura Halako*
a. Bai, euskaraz oro har?
b. Ez, Sarako hizkeran. Ez, Lekeitioko hizkeran…

Honek erakusten digu neurri batean, hizkuntza bereko hizkera guztiek ez dutela zertan parametro bera berdin finkatu, eta litekeena dela, beraz, kontrako balioak izatea.

****

Gogoratuko du irakurleak zein den gure zeregin nagusia kapitulu honetan: Mark Baker-en parametroa euskaraz, oro har, eta bereziki euskararen hizkeretan nola finkatzen den ikustea. Lekualdatzeak pentsarazten digu parametroaren balioa ezezkoa dela, eta ezezko hori berresteko bestelako testigantzak ere aurkitu ditugu euskararen hizkeretan. Geografikoki datiboaren lekualdatzea bera baino are txikiagoak dira, ia tanta bakanak han-hemenka, baina gutxi izanik ere, berebiziko garrantzia duten testigantzak dira guretzat, bai Kasua Nolako, Komunztadura Halako Parametroari begira, bai, oro har, euskararen eta giza hizkuntzaren mugei begira. *Komunztadura bikoizketaz* ari gara, *datibo* eta *ergatibo bikoizketaz,* hain zuzen ere[29].

Datibo eta ergatibo bikoizketa, datiboaren eta ergatiboaren lekualdatzeari loturiko fenomenoak dira hurrenez hurren. Datibo bikoizketa, zer esango dizuegu, itsu-itsuan, konturatu ere ez ginateke egingo izan badela, eta guk berez ez genuen uste existitzen zenik ere, harik eta aurkitu genuen arte —harro diogu hori, irakurle, zertarako ezkuta? Ergatiboaren bikoizketa herri jakinetan aurkitzeaz gain, edozein ikastolatako patioan, eta ez nahitaez bikoizketa ezagutzen duen herriren bateko ikastolako patioan, topa daiteke —guk, urrunera joan gabe, koadrilan badugu ergatibo bikoitzak barra-barra darabiltzan neskatila eder bat.

Baina dibertitu gaitezen, antiojo koloretsuak oraindik ez kendu, eta goazen ikustera zein diren batzuk eta besteak. Has gaitezen ezezagunetatik. Hiru perpaus dituzue, bata kanonikoa, bestea ergatiboaren lekualdatzea eta ergatibo bikoizketa azkena. Ergatibo bikoizketa Pasai Donibaneko hizkeratik jasoa dugu, Joxe Luix Agirretxe, Mikel Lersundi eta Ortzuri Olaetxearen (1998) liburutik.

(40) a. Askak guk bodegan d-it-u-gu (kanonikoa)
askak (ABS) gu.ERG bodega.P (3)-PL.ABS-edun-1PL.ERG

b. Askak guk bodegan g-en-it-u-en (ergatiboaren lekualdatzea)
askak (ABS) gu.ERG bodega.P 1PL.ABS$_{ERG}$-IRAG-PL.ABS-edun-IRAG

c. Askak guk bodegan g-en-it-u-gu-n (ergatibo bikoizketa)
askak (ABS) gu.ERG bodega.P 1PL.ABS$_{ERG}$-IRAG-PL.ABS-edun-1PL.ERG-IRAG

Esango dizuegu zer dela ematen dizkizuegun datuak horrela. Begira: perpaus kanonikoan, *guk* ergatibo argumentuari *-gu* atzizkia ezarri zaio, hau da, ergatibo komunztadura, espero genezakeen bezala; ergatiboaren lekualdatzean, igarriko zenuten legez, argumentu berari *g-* aurrizkia esleitu zaio, absolutibo komunztadura alegia, eta ergatibo bikoizketan, azkenik *g-* aurrizkia ez ezik, *-gu* atzizkia ere, hau da, BI dira eta ez bat bakarra argumentuari ezarri zaizkion pertsona komunztadura markak. Horregatik deritzogu bikoizketa, ohi denaren kontra —*argumentu bat pertsona marka bat* lelopean—, komunztadura markak bikoiztu egiten direlako halakoetan.

Are interesgarriagoa dirudi bikoizketak, datibo komunztadura ere bikoiztu bikoizten dela konturatzen garenean. Begiratu besterik ez duzue ondoko perpaus sortako (41c) adibideari[30].

(41) a. Nik zuri sagarra eman d-a-u-tzu-t (kanonikoa)
Ni.ERG zu.DAT sagarra (ABS) eman (3)-OR-edun-2DAT-1SG.ERG

b. Nik zuri sagarra eman z-a-it-u-t (datiboaren lekualdatzea)
ni.ERG zu.DAT sagarra (ABS) eman 2ABS$_{DAT}$-OR-PL.ABS-edun-1SG.ERG

c. Nik zuri sagarrak eman z-a-i-zki-tzu-t (datibo bikoizketa)
ni.ERG zu.DAT sagarra (ABS) eman 2ABS$_{DAT}$-OR-AD-PL.ABS-edun-2 DAT-1SG.ERG

Sorta honetan, *zuri* datibo argumentua da iparra. Perpaus kanonikoan, *-tzu* atzizkia ezarri zaio, hau da, datiboak ohi duena; datiboaren lekualdatzean, *z-* aurrizkia egotzi zaio, hau da, absolutiboari esleitzen zaiona, eta datibo bikoizketan, azkenik, *-tzu* atzizkiaz gain, *z-* aurrizkia ere ezarri zaio. Berriro ere, bi pertsona komunztadura marka, bata aurrizkia eta bestea atzizkia, eman zaizkio argumentu berari. Eta halakoak ez dira bigarren pertsonako datiboarekin bakarrik aurkitzen. Guk geuk

jaso ez bagenuen ere, Yrizarren (1997) uzta amaigabeak *gaizkigu* ere eman digu Sarako hizkera beretik —Artolak jasoa.

Izatez, komunztadura lekualdatzeari zor zaio komunztadura bikoizketa euskaraz, nekez jasoko baitzuketen ergatiboak eta datiboak bigarren komunztadura markarik, marka bitxirik ezarri ez balitzaie aldez aurretik. Eta gaude komunztadura bikoizketarik egonez gero, lekualdatzea gertatu behar dela nola edo hala. Nolanahi ere, hau euskarari begira eta euskarari begira bakarrik dugun hipotesia da. Izan ere, ez diogu gure irakurle zintzoari ezkutatuko ez dugula euskaratik kanpo oraindik erakusgarri nahikorik hipotesiaren mugak behar bezala zehazteko. Bila gabiltza, irakurle. Dena den, ezkutuko karta mahai gainera bota eta aitortu nahi dugu hizkuntza batzuen lorratzen atzetik hasiak garela. Ez dakigu nora eramango gaituzten. Momentuz, burushaskieraren antzeko datu batzuk-edo aurkitu ditugu Arthur Holmeren (2006: 87) lan argitaraberri batean —datuak berez Lorimer-enak (1935) dira.

Burushaskieraz ere, komunztadura aurrizki eta atzikiak erabiltzen dira, Holmer-ek dioskunez. Komunztadura atzizkiak beti islatzen du subjektua, aditza iragangaitz zein iragankor izan; aurrizkiak, berriz, osagarria eta aditz iragangaitzeko subjektua —beste nolabait esatearren, atzizkiak subjektua islatzen du eta atzizkiak absolutibo argumentua. Horrek dakarren ondorioa da, Holmer-ek dioenez, aditzak bi aldiz egiten duela komunztadura subjektuarekin forma berean (42c) adibidean erakusten den bezala[31]:

(42) a. a-ku-či-č-ʌm
EZ-2SG.O-eman-INP-1SG.SUB
'Nik ez dizut zuri emango'

b. ʌ-či bai-i
1SG.O-eman LAG.OR-3SG.MASK
'Hark niri eman dit'

c. u.-i:r-ʊ m-ʌn
3PL-hil-M-3PL
'Haiek hil ziren'

Ene, esango duzue, ez al da hau lehenago txuktxieraz aditz iragangaitzetan aurkitu dugun bikoizketaren antzekoa? Bada bai, irakurle. Oso antzekoa. Ostean, ez dugu esan nahi burushaskieraren bikoizketa hau edota txuktxierarena gurearen berdinberdinak direnik, jakina, baina litekeena da hari honetatik ten eginez, norabait heldu ahal izatea. Txuktxierari dagokionez, gainera, harrigarria da, bikoizketa alderantzizko egituretan ere agertzea, hau da, guk ergatiboaren lekualdatzearekin parekatu ditugun horiexetan bertan! Begiratu bestela ondoko adibideei[32]:

(43) a. ɣə-nan ɣəm q-in-imti-gi
zu-ERG ni (ABS) I.2-INB-ekarri-2SG
'(Zuk) eraman nazazu'

b. torɣə-nan ɣəm q-in-imti-tək
zuek-ERG ni (ABS) I.2-INB-ekarri-2PL
'(Zuek) eraman nazazue'

Bai, harrigarria benetan! Esan nahi al du horrek ergatibo bikoitzen modukorik ere badela txuktxieraz? Umm… Ez dakigu, benetan[33]. Zuhurrak izan nahi genuke. Halakoxe datuak, edota Hale-k berak (2001) wampanoageraz ematen dizkigunak arretaz aztertu nahi ditugu besterik esan aurretik. Badira, beraz, itzulia amaitutakoan ere desafio berriak guretzat, eta horixe da, hain zuzen, desio duguna.

****

Komunztadura bikoizketak berriro ere pentsarazten digu Kasua Nolako, Komunztadura Halako Parametroaren balioa euskaraz oro har agian ez, baina fenomenoa erakusten duten hizkeretan bederen ezezkoa dela. Egia da argumentu berak bi pertsona komunztadura marka erakutsi ahal izatea ez dagoela agian behar bezain zabaldurik euskararen mapan zehar —xehetasunez aztertu beharko litzateke, baina, horretaz ezer sendorik esan ahal izateko— eta bikoizketa duten hizkeretan ere, murriztapen nahikoa handiak dituela. Hau da, argumentuak izatez pertsona komunztadura marka bakar bat izateko joera du baita euskararen hizkera hauetan ere. Nolanahi ere, Kasua Nolako, Komunztadura Halako Parametroaren balioa ezezkoa dela onartu eta gero, naturalagoak dirudite, hein handi batean, komunztadura lekualdatzeak nahiz komunztadura bikoizketak[34]. Argitu beharrekoa da, gainerakoan, ea zein estatus teoriko eman komunztadurari, kasuarengandik erabat bereizi gabe ere, ez dirudi-eta garai batean aitortu zitzaien ezkontza-lotura uste bezain sendoa denik. Aspaldiko kantu eder batek zioen bezala: *maitia, lehen baino lehen aska gaitezan*[35]…

---

1. Datuok K. Hale-rengandik (2001: 21) jaso ditugu, baina P. Skorik-i (1977) zor dizkiogu.

2. Skorik eta Spencer-ek (datarik gabe) eskuragarri jarri dute sarean Skorik-en (1977) gramatikatik eta beste iturburu batzuetatik jasotako materiala biltzen duen web gune bat.

3. K. Hale (2001: 3)

4. Jung Song-en (2001: 142) eskuliburutik jaso ditugu, Vitale-renak (1981) izan arren.

5. Berez R. D. Van Valin (1985) eta M. Mithun-i (1991) zor dizkiegu datuak.

6. A. Harris-en (1982) adibideak dira.

7. Adibide honek badu beste ordain klasiko bat euskaraz, murriztapen bera islatzen duena: *Azpisapoek ni etsaiari saldu naiote*. P. Albizuren (1997) lanean jasotzen da.

8. Izenordain toniko edo sendoek ez dute murriztapenik jasaten.

9. C. Rossen-engandik (1990: 678) jaso ditugu.

10. Murriztapena jasaten duten hizkuntzen berri zehatza jaso daiteke bertan. Begiratu era berean zein diren hizkuntzek murriztapena ekiditeko erabiltzen dituzten askotariko estrategiak.

11. L. J. Whaley-ren (1997: 165) eskuliburutik jasotako datuak dira, izatez Allen-enak (1956) badira ere.

12. Itziar Lakak ohartarazten digunez, litekeena da gaur egun hizkera askotan gauzak bestelakoak izatea.

13. M. Bernabé-k (2005: 133) japoniera mangaren bitartez ikasteko egin duen eskuliburutik atera ditugu adibideak.

14. M. Bernabé (2005: 127).

15. Gogoan izan, era berean, euskaraz ekialdean errespetuzko *zuka* eta mendebaldean *berorika* ditugula, azken hau besteen berdina ez bada ere (Itziar Lakak esanda).

16. Txuktxieraren alderantzizko egiturari ere antipasibo izuna deitu izan zaio eta halaxe deritzote adituek oraindik ere. Ikus besteak beste, J. Bobaljik eta P. Branigan (2006), Hale-ren (2001) ildotik.

17. Gogoratu nolanahi ere, diferentziak izan badirela, goian labur aipatu dugun bezala.

18. P. Skorik-en (1977) adibideak, Hale-ren (2001: 35, 39) lanetik jasoak.

19. K. Hale (2001: 17).

20. K. Hale (2001: 20).

21. *Egile foku egitura* deritzo K. Hale-k, maieralarien tradizioari jarraituz.

22. Ikusi, besteak beste, B. Fernández (1997).

23. Eskupaperetan jasoa dagoenarengatik ere, Baker-ek berak ere zalantzak izan zituen parametroari euskaraz egotzi zion balioaz, kontuan hartu eta gero, datiboaren lekualdatzea ez ezik, ondoren aztertuko ditugun komunztadura bikoizketak ere.

24. B. Fernández & M. J. Ezeizabarrena (2001: 256).

25. B. Fernández (2004: 91).

26. Kontuan izan, hirugarren adibide honetan, berez behar lukeen *izan* aditz laguntzaile iragangaitzaren ordez, *edun* iragankorra darabiltela. Badirudi aditz laguntzaile iragankorraren hautua *niri* datibo argumentuari zor zaiola, B. Fernández-en (2004) lanean proposatu genuen bezala.

27. Aipamena 15. orrialdean duzu euskal itzulpenean.

28. Jo M. Rezac-en (2006) lanera, euskararen Lekeitioko hizkerako *neskiari ikusi dotzat* (J. I. Hualde, G. Elordieta eta A. Elordieta, 1994: 125) eta gaztelaniazko *leismo*aren arteko antzekotasunak ikusi nahi badira.

29. Bikoizketa eta lekualdatzea fenomenoak batera aztertu nahi dituenak, B. Fernández-en (2002) lana eta B. Fernández eta P. Albizurena (2006) irakur ditzake.

30. B. Fernández eta M. J. Ezeizabarrena (2003: 262).

31. D. L. Lorimer (1935: 266, 267, eta 210).

32. Alderantzizko egitura bikoizketa adibideak M. Halle eta K. Hale (2007: 25) lanetik jaso ditugu.

33. Izan kontuan txuktxieraz bereziki alderantzizko egituretan ageri diren subjektuak bigarren edota hirugarren pertsonakoak direla eta horiexek, hain zuzen, ez dutela ageriko aurrizki komunztadurarik izaten, bikoizketa nolabait lausotuz.

34. Kapitulu honen idazketaren ostean, testua orrazten gabiltzala, Mark Baker-ekin hitz egiteko aukera izan dugu eta buruz buruko elkarrizketan adierazi digunez, azkenean parametroari euskaraz ezezko balioa esleitzea erabaki zuen Gasteizen irakatsi zuen ikastaroaren ostean. Hala, bere lanaren azken idaztaldian (Baker, 2007: 185), parametroari ezezko balioa egozten dioten hizkuntzen artean ageri da euskara. Antza erabakiorrak izan ziren berarentzat lekualdatzearen inguruko datuak, hasieran zuen iritzia aldatzeko. Horrek neurri handi batean, arrazoia genuela erakutsi digu, eta kapituluan zehar parametroaren balioaz agertu ditugun zalantzek benetako funtsa zutela.

35. *Hertzainak* handien *Aitormena* da, jakina, kantua, irakurle gazteak, badaezpada, ez baleki.

Mendeko perpausen mendekotasunaz urrikaldu eta hausnartu behar da

VI. kapitulua

Hizkuntzez jabetzerakoan, dela txikitan konturatu gabe dela helduagoak garenean, jo eta ke, denbora luzea, kemen handia eta diru asko erabiliz, progresio argia nabaritzen da sortzen ditugun perpausen konplexutasunari begiratzen badiogu. Behin sintagma nagusiak eta aditz forma batzuk gureganatuz gero, perpaus soilak osatzen ditugu eta intuitiboki badakigu zeintzuk diren perpaus horiek, alegia, *hau mahaia da* bezalakoak. Seguru asko, inongo euskaltegitako inongo irakasleri ez zaio bururatuko lehenengo eta behin "mendeko" perpausak irakasten hastea, nahiz eta ez izan hasieran ematen duen bezain senaren kontrakoa: euskararen kasuan askoz errazago izango litzaioke ikasle sufrituari *ni Jon izatea, zu Jon izatea, nik liburua irakurtzea* bezalako perpausak osatzea, morfologialariaren paradisua baina ikaslearen infernua diren euskal aditz formekin larritu behar izan gabe. Zoritxarrez, ikasle helduaren ikuspuntutik, *irakurtzea* bezalakoak "mendeko" formak dira, eta mendeko aditz bat izateko normalean perpausa eta aditz "nagusia" (eta, alas, jokatua) izan behar ditugu lehenago.

Behin perpaus bakun horiek menderatuta, hurrengo urratsa perpausak elkarri lotzea dugu. Eta hemen, konplexutasun mailaketa bat asma genezake perpausak elkartzeko moduen artean. Lehenengo eta behin, zer errazagoa esaldiak bata bestearen ondoan lerratzea baino, harako hark *Ni Tarzan, zu Jane* esaten zuenean bezala. Estrategia sinple hau deskribatzeko Tarzan bera ere estutuko lukeen *justaposizio* labela erabiltzen da batzuetan. Are gehiago estutuko litzaiguke gizajoa *parataxi* izena entzungo balu (gutariko asko ere larrituko gintuzkeenez, beste errazago bat erabiliko dugu, *juntadura*). Estrategia honi jarraituz, gure oraingo heroiak *Ni Tarzan naiz eta zu Jane zara* bezalako zerbait esan zezakeen, era konplexu eta jantziago batez. Tarzan jantziago horrek bere erakarpen basatia galdu duela aitortu behar badugu ere, *baina, edo, eta* lokarrien bidez gure hasierako perpaus bakunak errazki lotu ditzakegu, esaldien konplexutasuna areagotuz.

Hala ere, kapitulu honetan zehar aztertuko dugun perpausak elkartzeko modua ez da juntadurak ematen diguna; oraindik ere perpausak era bateratuago, intimoago batez lotu daitezke, eta *menderakuntzak* lortzen du behar dugun maila.

Era hierarkiko batez begiratuta, juntadurak maila berean kokatzen ditu lotzen dituen bi perpausak, *tanto vale vale tanto* harremanean, menderakuntzarekin mendekotasunaren erresuman sartzen garen bitartean: perpaus bat beste baten mendean dago, mendeko perpausak perpaus nagusiaren osagai baten funtzioa betetzen duelako. *Tarzanek bera Tarzan zela esan zuen* adibidean, *bera Tarzan zela* osagaiak perpaus nagusiko *esan* aditzaren osagarri funtzioa betetzen du, eta ohiko izen sintagma baten ordez berriro ere mundu gramatikal osoa irekitzen duen beste perpaus bat daukagu, bere aditz eta era guztietako sintagmez hornitua.

Aditzaren inguruko osagaien artean osagarria da berarekin lotura gehien duena, eta ondoko lerroetan osagarri perpausez ere arduratuko gara, horrelakoetan azaltzen baitira aditzaren eta haren osagarriaren artean hemen interesatzen zaizkigun fenomenoak, hizkuntzaz hizkuntza lehenengo begirada batean oso ezberdinak diruditen arren, arretaz begiratuz gero, nahiko antzekoak direnak. Fenomenook elkartzen dituen haria, mendeko perpausaren autonomian datza. Ikusiko dugunez predikatu mota batzuek guztiz mendeko perpaus beregainak hartzen dituzten bitartean, beste batzuek, oso bestela, *irentsi* egiten dituzte beren osagarri perpausak. Ondorioz, mendeko perpaus askoren mugak lausotu egiten dira, batzuetan guztiz ezabatzeraino. Beti legez, tarteko egoera asko aurkituko ditugu, baina, beti legez atzera ere, bai gertatzen diren fenomenoak bai fenomenoak sortzen dituzten predikatu nagusi motak ere bertsuak izango dira.

****

Bisitatuko ditugun fenomeno gramatikal ikusgarriak begiztatzen hasteko, pentsatu nola adierazten den *araztea*, hau da, baten bati norbaitek zerbait eginarazi edo eragitea. Adibide hau gerokoaren eredutzat hartzen dugu mendeko perpausei gerta dakiekeenaren erakusgarri ezin hobea delako: estatus politiko guztiak aurki ditzakegu. Alde batetik mendeko perpausak izaki burujabe arruntak izan daitezke (beno, aditzak adierazten duen ekintza goiko perpausaren subjektuak eragiten duen heinean, ezin dugu zehatz-mehatz esan burujabetasunaren eremu distiratsua dugunik hemen), beste aditzetako mendeko perpausen antzekoak, edota askotan perpaus nagusi tipikoen oso antzekoak. Ikusi nola adieraz daitekeen 'neskak pitxarra erori arazi zuen' Malawi inguruan txitxewera hizkuntza bantua egiten den eremuan, eta begiratu zenbat perpaus ote ditugun bertan[1]:

(1)	Mtsikana	ana-chit-its-a	[kuti	mtsuko	u-gw-e]
	neskak	3-egin-ARZ-ASP	ezen	pitxarra	3-erori-ASP
	'Neskak pitxarra erori arazi zuen'				

Zure lana nekosoegia ez egitearren parentesi karratuak jarri ditugu mendeko perpausaren mugak markatzeko. Bai, horiek gabe ere, nahiko argi ikus daiteke mendeko perpaus bat daukagula, *kuti* 'ezen… *-(e)la*)' juntagailu konplementa-

tzailearekin batera hasten dena —bai, *contradictio in terminis* dirudien arren, badira mendekotasuna adierazten duten juntagailuak. Mendekotasuna adierazten duen juntagailuarengatik ere, perpaus honek baditu txitxewerazko perpaus nagusien ohiko ezaugarri tipikoak. "Mendeko" honi hasierako juntagailu lokarri hori kenduta, ez legoke perpaus hau "nagusi" batetik ezberdintzerik. Irakurle ziniko eta sinesgaitz batek (*it est*, irakurle on batek) honelako adibideen aurrean galde lezake ea zertarako hainbeste zarata eta harrabots egin... eta ondo galdetu ere, azken finean mendeko perpausak perpaus direla esateak ez baitirudi inongo kazetaren azalean agertzeko moduko berri berritsua denik. Bai, hala da, baina deigarriagoa da hizkuntzaz hizkuntza honelako esanahi arazlea adierazteko aditz bertsuekin, independentzia galtze kasu galantak gertatzen direla sarri-sarri. Eta ez ditugu Malawi eta Afrika inguruko aldeak utzi behar horretaz jabetzeko, txitxeweraz ere, aurreko ideia bera adierazteko ondoko beste modu honetaz ere balia daitezke-eta:

(2) Mtsikana ana-gw-ets-a mtsuko
neska 3-erori-ARZ-ASP pitxarra
'Neskak pitxarra erori arazi zuen'

Nekez bilatuko ditu hemen irakurleak parentesi karratuak, ez baititu aurkituko: aurreko adibidean aditz konplexua bai, baina aditz bakarra dugu, aurrean subjektu komunztadura marka duena eta atzealdean aspektu morfema. Perpaus sinple eta xinplea dugu hemen, SAO motakoa txitxewerazko beste perpaus iragankorren antzera. Ez gara Fix detektibea izan behar aditz horren barruko *-gw-* artizkiak *u-gw-e* aditz jokatuaren erroaren antz handia duela konturatzeko, eta fonetika edo fonologiako ikastaro trinko batetik pasatu den edozein ikaslek uler dezake zergatik den *arazi* morfema lehenago *its* eta orain *ets* (erantzuna ikastaroa egin edo gainditu ez zutenentzat: beharbada *i* bokal itxia, aurreko *a* bokal irekiaren eraginez, tarteko *e* izateraino irekitzen da). Lehen aditz askea zenak orain aditz nagusiaren sabelean amaitu du, eta lehenago mendeko perpausaren subjektu tipiko eta topikoa zena orain aditz potolotu honen osagarri gunean agertzen zaigu. Lehenengo adibideko egoerak Txina eta Hong Kong (*Herri bat, bi sistema*) arteko egoera gogorarazten badigu ere, irenste horrek Mendebaldeko Saharari gertatu zaionaren antz handiagoa du! Eta *arazi* motako aditz nagusien irrika fagozitatzaile aseezin hori behin eta berriro sumatzen da Phileas Fogg-ek zeharkatutako munduan zehar gabiltzala.

Euskararen barruan ere antzeko aldakortasuna topa dezakegu aditz horiekin. Ibon Sarasolaren *Hauta Lanerako Euskal Hiztegia*n, honelako definizioa ematen da *ikasarazi* sarrerapean: '*Ikas dezan egin, ikastera behartu*'. Lehenengo parafrasian subjuntibozko mendeko perpausa dugu, eta bigarrenean nominalizazio bat. Hauek, hala ere, ez dira txitxeweraren lehenengo adibidearen mendeko perpausaren ordain zuzen-zuzenak. Geroago erakutsiko dugunez, subjuntibozko mendeko perpausak eta nominalizazioak ez dira indikatibozkoak bezain "askeak". Hobeto ulertuko dugu egoera baldin mendeko perpaus mota horiek perpaus "askeen" eta

"lotuen" artean kokatzen baditugu: benetako estatu kolonialak lirateke. Berdin, gaztelaniaren ondoko adibideetan:

(3) a. Juan hizo que Pedro leyera las noticias
b. Juan le hizo a Pedro leer las noticias

Euskarazko mendekoen ordain zuzenak ditugu hemen, subjuntibozko osagarria lehenengoan eta euskararen nominalizazioen parekoa den infinitibo osagarria. Eta mendeko perpaus batzuen askatasun galtze orokorraren erakusgarri, pentsa esate baterako, (b)-ko infinitiboa perpaus nagusiarekin estuago lotuta dagoela (a)-ko perpaus jokatua baino. Alde batetik, (b)-n *irakurtzea*ren subjektua aditz nagusiaren zehar osagarria da. Eta, garrantzitsuagoa dena oso begi-bistakoa ez den arren, (b) perpausarekin apur bat jolasten hasita, *las noticias* sintagmaren ordez, *las* izenordaina erabiltzen badugu, orduan bai *leer* atzean bai *hizo* aurrean koka daiteke, bataren zein bestearen osagarria balitz bezala:

(4) a. Juan le hizo leerlas
b. Juan se las hizo leer

Hau ez da inolaz ere infinitibozko osagarri guztien ezaugarri bat:

(5) a. Juan odia leer esquelas. Juan odia leerlas.
b.*Juan las odia leer

Beraz, *hacer* aditzaren infinitibo osagarria nahiko "gardena" da aditz nagusiarekiko: mendekoaren osagarriak batzuetan goiko aditzaren osagarria balitz bezala jokatzen du, eta horrek nolabait independentzia galtze orokorra islatzen du. Kolonietako aberastasunak ere maiz askotan "metropoliratu" egiten dira, hain begi-bistakoa izan ez arren benetako "irenste prozesu" baten seinalea dena. Seinaleak seinale, ondoko lerroetan honelako fenomenoen aztarnak azaleratuko ditugu. Adibide gisa, *egin arazi* aditzaren antzeko aditz arazleen kasua aztertu dugu, baina fenomenoa beste eremu gramatikal askotan ikus daiteke, bakoitzean bere ñabardura eta berezitasunekin. Eta, sarrera honekin amaitzeko, ñabardura kontzeptual bat: adibideak adibide. Irakurleak adi egon behar du eta kontuan hartu hemen erabilitako metafora politikoa metafora bat baino ez dela: perpausen osagaiak ez dira gizakiak eta berdin da goiko perpausean ala mendekoan gelditzen diren. Osagarri bat aditz nagusiak bereganatzen duela? Bada, ederto; hizkuntzalariek ikertzeko materiala besterik ez da. Guztiz ezberdina da, noski, hizkuntza hauen hiztunak edo beraien aberastasunak "irensten" direnean edota, ekinez edo ezer ez

eginez, beraien hizkuntzak zokoratu eta hil edo hiltzen uzten direnean. Baina hori bestelako istorioa da.

****

Aurreko atalean esan dugun bezala, parametro batek aditz nagusi batzuek beren mendeko perpausak bereganatzea eragingo luke, oraindik ere zehaztu beharko dugun moduan. Aurrera jarraitu baino lehenago, ikus ditzagun berriro goiko adibide batzuk argitzekotan zer-nolako zantzuak erakusten dituen mendeko perpausak bereganatzeak, hau da, zer-nolako ebidentzia daukagun horrelako parametro bat perpaus batean indarrean dagoela baieztatzeko.

Printzipioz, gure ebidentzia sintaktikorik garrantzitsuena perpaus baten barruko eremura murriztuta dauden fenomenoak bi perpausen artean ere gertatu ahal izatea da. Eta horrelako zerbait ikusi dugu gaztelaniaren kasuan: izenordain klitikoak (azenturik gabeko *lo*, *la, les*; ez *él, ella* izenordain toniko edo azentudunak) aditz jokatuaren aurrean eta adizki jokatugabearen atzean kokatzen dira (*lo veo/*veolo*; *verlo/*lo ver*). Goiko (5b) perpausaren onargarritasunik eza erraza da ulertzen, *las* izenordain klitikoa ez dagokion adizki batekin azaltzen baita. *Las* horren erreferentea (*eskelak*) *leer* aditzaren osagarria da, eta aditz hori jokatugabea denez, berorren atzetik agertu beharko da, (5a)-n bezala. Inola ere ez *odia* aditzaren aurrean, ez baita berorren osagarria. Beraz, (5b)-n *las* okerreko kokalekuan dago ez adizki jokatu baten aurrean dagoelako (hori ondo baitago oro har), baizik eta berez ez dagokion aditzarekin batera jarri dugulako. Baina azalpen hau bide zuzenetik badoa, nola uler genezake (4b)-ren onargarritasuna? Hor ere *las* klitikoa *leer* aditzaren osagarria da, (5b)-n bezainbeste, eta hara non perpaus horrek ez digun belarria mintzen. Ustezko kontraesan hau ulertzeko (4b)-n *perpaus batuketa* edo fagozitazio fenomeno bat gertatu dela esan dezakegu: *hacer* aditzak *leer* aditza irentsi du, osagaiak eta guzti. Ondorioz, orain *las* ez da egiatan *leer* aditzaren osagarria, *hizo leer* aditz konplexu batena baizik. Forma horrek baditu adizki jokatu bat (*hizo*) eta adizki jokatugabe bat (*leer*), eta orduan lehenengoaren aurrean zein azkenekoaren atzean ager daiteke. Beraz, *hizo leer* eta *está leyendo* aditz konplexuak oso antzekoak dira, eta intuitiboki denok esango genuke azkena aditz bakarra dela, *irakurri dut* adizki bi izan arren aditz bakarra dela diogun bezala. Laburbilduz, nahiz eta (4)-n hasieran bi perpaus beregain daudela dirudien, joskeraren arabera (edo behintzat joskeraren fenomeno honen arabera: klitikoaren kokapenaren arabera) perpaus bakuna daukagula ematen du.

Orain gure arreta goian aipatutako lehenengo kasura zuzentzen badugu, txitxeweraren aditz arazleetara hain zuzen, berehala konturatuko gara horri dagokionez ez dugula eman benetan perpaus bakuna daukagula erakusteko inongo ebidentziarik. Hemen errepikatzen dugun adibidean kortxeterik jartzeko beharrik

ere ez dugu izan: aditz forma bakarra dugu, euskaraz *zebilen* diogun antzera *zeroriarazien* esan izan bagenu bezala:

(6) Mtsikana ana-gw-ets-a mtsuko
neska 3-erori-ARZ-ASP pitxarra
'Neskak pitxarra erori arazi zuen'

Hala ere, hau alde batetik arazoak sortzen dituen ebidentzia da eta bestetik erabili nahi ez duguna. Arazoekin hasteko, gure irakurle mesfidatiek esango digute, arrazoi osoarekin gainera, beraiek ez dutela duda izpirik ere aurreko perpausa bakuna dela onartzeko, baina bai arrazoizko zalantzak dituzte hor inon edo inoiz bi perpaus izan ditugula edo baditugula sinesteko! Azken finean, zorioneko *anagwetsa* hori hitz bakarra badugu, zergatik pentsatu hor nonbait, ezkutuan edo, bi perpaus dauzkagula? Egia bada ere, jarrai lezake gure irakurle preziatu horrek pentsatzen, esanahiaren aldetik argi eta garbi bi perpaus biltzen dituen (1)-eko perpausaren oso antzekoa dela, antzekotasun hori semantikaren erresumako kontua da eta hemen joskeraren munduari ari gatzaizkio itzulika. Era berean *hil dadin eragin zuen*, esate batera, *hil zuen* formaren oso antzekoa da, baina nekez esango genuke perpaus kopuru bera biltzen denik bi perpausetan. Arrazoi osoa izango luke irakurle horrek. Kapitulu honen hasieran egiatzat hartu dugu (1) eta (2) adibideen arteko lotura sintaktikoa inongo arrazoirik eman gabe... baina horrek ez du esan nahi ez dagoenik, gero ikusiko dugunez. Hala ere, egia da hor datzala honelako egitura batzuk aztertzerakoan sortzen den arazo larri bat. Izan ere, honelako egitura arazleetan perpaus bat ala bi ote dugun jakitea betidanik —hau da, ikuspegi tekniko batetik aztertzen hasi direnetik— mahai gainean egon den auzia da, eta ez nolanahiko auzia. Hain zuzen, Mark Baker da honetan lan eskerga egin duten hizkuntzalari garrantzitsuenetariko bat. Beherago bueltatuko gara perpaus hauetara eta auzi honetara, baina esan dezagun berriro ere ebidentzia sintaktikoa behar dugula, eta oraingoz txitxewerarako ebidentziarik eman ez badugu ere, egon badago.

Gure aurreko irakurlearen arrazoien azpian baliteke egotea azaleratu beharko genukeen ezkutuko suposizio bat: *anagwetsa* "hitz" bakarra denez, aditz bakarra daukagu, eta beraz perpaus bakarra. Onartu behar da gehienetan hori egiazkoa dela, idazkeraren konbentzioen azpian askotan ondo oinarrituriko intuizio zuzenak baitaude. Baina mota honetako "ebidentzia" ortografiko-morfologikoa bestelako irizpideez lortutakoari gaineratu dakiokeen arren, ezin da argumentuetan lehena izan. Gainera, badirudi askoz esanguratsuagoa dela hitz bakar bat (konplexua) izatea hitz bi izatea baino: lehenengoaren bakartasuna gehienetan batuketaren seinalea izaten da, bigarrenaren bitasunak ezer gutxi seinalatzen duen bitartean. Lehentxeago ikusi ditugun gaztelaniaren adibideetan "bitasun" horren adierazgarritasun eskasa bereziki ongi nabaritzen da: *hizo leer* eta *odia leer* esapideetan "hitz" bi ditugu, baina klitikoen kokapenaren bidez lortutako ebidentzia sintaktikoak esaten digunez, lehenengoak nolabait aditz bakar bat bailitzan jokatzen du

(eta perpaus bakar batek bezala); bigarren kasuan, aldiz, aditz aske bi eta perpaus bi dauzkagu. Era berean, aditz forma perifrastikoak dauzkagunean (*está comiendo* zein *jan du*) azken batean adizki bi topatzen ditugu nahiz eta sintaktikoki aditz konplexu bakar batek bezala jokatu.

Beraz, jokabide sintaktikoa da hemen interesatzen zaiguna, eta aditz batek beste bat "irensten" duela diogunean, halabeharrez islapen ortografiko-morfologikoa ez duten datu sintaktikoez arituko gara.

****

Abia gaitezen, bada, liburu osoaren bidaiaren barruan proposatzen dizugun beste bidaia txiki honetan barrena, mendeko perpausen askatasun galtzearen kasu eta mailez jabetzeko munduko lau haizetara eramango gaituena. Batuketaren parametroa antzeko kasuetan aurkituko dugu, zeren predikatu fagozitatzaileak talde semantiko jakin batzuetakoak izaten baitira. Askatasunaren muturretik hasita, beren "konpetentziak" galduz doazen mendeko perpaus mota batzuk ikusiko ditugu. Atal honetan, beren perpaus nortasuna oraindik ere argi eta garbi mantentzen duten mendeko perpausak ikusiko ditugu. Oro har, mendeko osagarri perpausen artean batzuek nagusien forma bera gordetzen dute; beste batzuek, berriz, *mendeko* forma bereziak (eta horiexetan ikusiko dugu gure batuketaren parametroa lanean).

Zein izan liteke autonomia gehien daukan mendeko (osagarri) perpaus mota? Gorago esan dugunez, justaposizio erlazioetan bi perpausak bata bestearen atzetik kokatzen dira, maila berean baina batak benetan bestearen osagai bezala funtzionatu gabe, horretan baitatza menderakuntzarekiko ezberdintasuna. Badago, hala ere, justaposizioaren eta menderakuntzaren arteko mugan koka genezakeen "mendeko" perpaus egitura bat, ingelesez *serial verbs* deritzena —guk hemen *segidako aditzak* deituko diegu. Segidako aditz mota asko daude, baina, oro har, horrelako egituretan aditz (sintagma) bat aurreko beste batekin lotzen da, inongo juntadura edo menderakuntza markarik gabe (beraz, justaposiziotik oso hurbil). Ondoan ematen dugu koreeraren adibide bat[127]:

(7) Chelswu-ka sakwa-lul kkake mek-essta.
Chelswu-NOM sagar-AKUS zuritu jan-IRAG
'Chelswuk sagarra zuritu eta jan zuen'

Hau da segidako aditzen adibide tipiko bat: izenak argiro dioenez, aditz bi bata bestearen atzetik jarri ditugu, eta inflexioa horietako batek bakarrik markatzen du. Baina beste hizkuntza batzuetan, *segidako aditzak* deitura berberarekin beste zerbait adierazten da. Li eta Thompson-ek (1981) txinerari buruzko gramatika klasikoan diotenez, txineraz litekeena da hasierako perpaus baten ondoan beste aditz sintagma bat edo beste perpaus oso bat gaineratzea. Berriro ere, perpaus edo

aditz sintagma horrek juntadura eta menderakuntza *marka*rik gabe azaltzen da, nahiz eta aurreko perpauseko funtzio bat bete. Lotura egoerak emango digu, eta batzuetan bat baino gehiago egin daitezke:

(8) 喝 點 酒 壯 壯 膽子
hē diǎn jiǔ zhuàng- zhuang dǎnzi
edan apur ardo indartu indartu ausartia
'Edan ardo apur bat eta ausartagoa izango zara'
'Edan ardo apur bat ausartagoa izateko'
'Ardo apur bat edanez ausartagoa izango zara'

Sintaktikoki oso erlazio orekatua dago hemen, justaposiziotik hurbil, eta interpretazio asko egin daitezke, nagusia zein den eta zein mendekoa erabakitzen zaila izateraino. Baina, bigarren adibidea batzuetan aurreko aditzaren osagarri modura ulertzen da argi eta garbi:

(9) 我 聽 說 [他 是 老師]
wǒ tīng shuō tā shì laǒshì
ni entzun esan bera da irakasle
'Bera irakaslea dela entzun dut'

Aurrerago aditz bakarra izan badugu bigarren kokalekuan, perpaus osoa daukagu hemen, baina oraindik ere inongo ageriko loturarik gabe. Txineraz "mendeko" perpausa aditz nagusiaren ondotik datorrelako dakigu mendekoa dela (esanahia ahaztu gabe). Parentesi artean dagoena ebakiko bagenu, perpaus nagusi bezala erabili ahal izango genuke, inongo aldaketarik egin gabe. Li eta Thompson oker ez badabiltza eta hemen goian eman dugun segidako aditzen egitura mota bera badugu, sintaxiaren aldetik oso eremu askea izango litzateke bigarren perpausekoa[3]. Egia da beste hizkuntzetan segidako aditzen fenomenoan bi aditzen arteko lotura estua nabaritzen dela, txineraren bi perpausen arteko oreka gabe, laster ikusiko dugun perpaus batuketaren fenomenotik hurbilago dagoena. Tarianeraz, Amazonia aldeko hizkuntza batean, segidako bi perpausen aditzak lotu egiten dira, fonetikoki hitz bakar bat bezala jokatuz eta, nahiz eta mendekotasun markarik ez egon, aditz nagusiak marka gehienak hartzen ditu, tartean ezeztapena ere. Horregatik ondoko adibidea anbiguoa da, ezeztapenak segidako bi aditzetatik edozein uka baitezake[4]:

(10) hanupese [maɾa-kade-ka dinu] dina-yawa iminali duathapidana
asko.FOK ez-agindu-ez-IRAG 3.hil bera-zulo jabea.ZEHG 3.esan.FRUST.IRAG
'Berak alferrik esan zuen zuloaren jabeak ez zuela agindu arrain asko hiltzea'
'Berak alferrik esan zuen zuloaren jabeak arrain asko ez hiltzea agindu zuela'

Emandako itzulpen bietan ikus daitekeenez, ezeztapenak, nahiz eta segidako lehen aditzari gaineratu zaion, aditz hori ('ez agintzea') zein bigarrena ('ez hil') ukatzen ditu. Jarraitutasun mota hau, esan bezala, nahikotxo aldentzen da txineraz segidako aditzen egituretatik eta aditz horiek dituzten bi perpausen arteko lotura maila handiago baten islapena da. Segidako aditzen fenomenoak berak ez du suposatzen osagarri perpausaren askatasuna edo askatasun galera: hori hizkuntza bakoitzaren datuen aurrean erabaki beharko dugu.

Baina, hizkuntzaz hizkuntza gabiltzala, gero eta arruntagoa da mendeko perpausean, perpaus nagusiaren antzekoa izanda ere, nolabaiteko menderakuntza marka aurkitzea, *de jure* eta *de facto* menderakuntza erlazioen erakusgarri. Ondoan adibide mota bi dakartzagu, fijiera eta bretoieratik hartuta, hurrenez hurren:

(11) E aa tu'u-na vei au [ni na la'o mai a Koovana.levu ni saubogi]
3 IRAG esan-IRK DAT 1 ezen GER joan hona ART Titulua INES bihar
'Esan zidan Gobernadore Orokorra bihar etorriko dela'

(12) Lavaret en deus [he deus desket he c'hentelioú]
esan 3 LAG 3 LAG ikasi bere ikasgaiak
'Esan du bere ikasgaiak ikasi dituela.'

Lehenengo adibidean, euskararen oso antzeko zerbait daukagu: mendeko perpausa perpaus nagusia gehi konplementatzailea daukagu —fijiera AO hizkuntza da eta *ni* konplementatzailea ezkerretara agertzen da. Baina konplementatzaile hori alde batera, perpaus nagusi baten berdin-berdina den egitura dugu. Bretoieraren kasua txineraren oso antzekoa da honetan, juntagailurik ez baitugu behar hemen. Adibidea beste zerbaitengatik ekarri dugu hona: mendeko perpaus hori perpaus nagusi bezala erabili nahi izango bagenu, ordena apur bat aldatu behar izango genuke (*desket he deus he c'hentelioú*). Perpaus nagusian partizipioak gora joan behar du, *he deus* laguntzailaren gainetik (ikusi aditz nagusiaren ordena ere nolakoa den perpaus horretan: *lavaret*-partizipioa *en deus*-laguntzailea). Ez da batere arraroa mendeko perpausetan perpaus nagusietan gertatu beharreko fenomenoak ez aurkitzea, ordena aldaketak sorraraziz —pentsatu zenbat kostatzen zaion askori ingelesez *I don't know who he is* esatea, eta ez **I don't know who is he*, perpaus nagusietan *Who is he?* esaten delako. Aipatu ditugu aurreko kapituluetan fenomeno hauen zergatiak, baina, edozein modutan ere, azalpen gehienetan mendeko egoeran egoteak debekatzen du nagusien fenomeno horiek gertatzea. Azken finean, funtsezko mendeko egitura hauek nagusien oso antzekoak dira honelako hizkuntzetan. Neurri batean, oraindik ere autonomia gordetzen dute perpaus osagarri hauek. Hurrengo atalera mendeko perpauson autonomia, konpetentziaz konpetentzia,

desagertzen dela erakusten duten kasuak ekarriko ditugu eta formaren aldetik ere, menderakuntza eremuetan erabiltzeko mendeko formak ikusiko ditugu aditzetan.

****

Zer nolako aditz nagusiak dira aurreko atalean aipatutako mendeko perpaus "autonomoak" onartzen dituztenak? Azken adibideetakoak (*esan, entzun*) guztiz prototipikoak dira alde horretatik, hor besteren batek esandako perpaus nagusi bat errepikatzen baita. Errepikapen hau zuzenean egin daiteke (ingelesa ikasi dutenek *direct speech* delakoa gogoratuko dute), edota esan eta entzundakoa mendeko perpaus batean kokatu, aldaketa gutxi batzuekin (*reported speech* delakoa). Aditz *epistemikoek* ere (*uste*, *sinetsi*, eta, oro har, mintzatzen denaren iritzia adierazten dutenek) askotan hartzen dituzte mendeko perpaus autonomoak: uste dugun ustearen partaideak, ekintza/egoerak, denbora/aspektuak eta beste ezaugarri guztiek ez dute zerikusi handirik izan behar *baten batek uste* perpaus nagusiarekin. Beste askotan, baina, ahalbide murriztuagoko perpausak hartzen dituzte predikatu nagusi batzuek. Hau ondo ikus dezakegu *sinetsi* euskal aditza *desiratu* bezalako batekin alderatzen badugu. Lehenengoa aditz epistemiko hutsa dugu, eta orduan *-la* konplementatzaileaz hornitutako perpaus autonomoak hartzen ditu, beheko (a) adibidean bezala. Baina bigarrenak ez du guztiz proposizio autonomo bat aukeratzen: zerbait egiteko desira badugu, logikoki gure desira hori asebete gabe dago oraindik ere, eta nahi duguna desiratzearen denbora baino geroago gertatuko da, gertatzekotan. Azpiko proposizioaren denbora, beraz, ez da askea. Agian, horrexegatik *desiratu* aditzaren osagarri perpausa ezin da *-la* motakoa izan, eta inoiz ere perpaus nagusia ezin izan daitekeen nominalizazio batez adierazten da euskaraz:

(13) a. Fogg jaunak bere bidaia 80 egunetan egingo duela (*egitea) sinesten du.
b. Fogg jaunak bere bidaia 80 egunetan egitea (*egingo duela) desiratzen du

Mendeko perpausaren denbora erreferentzia, kasu honetan, nagusiarenarekin lotuta dago, eta ez da aditz epistemikoekin bezain "autonomoa". Horrekin lotuta, mendeko perpausaren forma aldatu egin da, eta itxura horrekin ezin liteke ez perpaus nagusia izan ezta perpaus nagusi batean ohikoa den komunztadura ere erakutsi. Forma berezi hauek berez mendekoak dira eta beraien muin semantikoak, aditz ezaugarri tipiko horiek, edozein aditz nagusik dituenak, osorik edo zatika desagertuz doaz.

Nominalizazioak aipatu ditugunez, har ditzagun mendeko perpausaren autonomia galtzearen adibidetzat. Askotan badirudi mendeko proposizio bat *izen* bihurtzean besterik gabe *mendekoa* dela argi markatzeko egiten dela: *etorri naizela* esatean *-ela* konplementatzailearen presentziak bakarrik esaten digu mendeko perpaus baten aurrean gaudela, baina izena ematen duen zerbaiten aurrean badago, ez dago zalantzarik. Perpaus nagusia izan nahi lukeen proposizioa bazara, perpausa

izan behar duzu lehenik, baina maila horretara iritsi ere ez zara egiten izena bazara. Mendekotasunera kondenatuta zaude orduan, horrekin batera datozen bidesariekin.

Hizkuntzen artean, izenaren eta perpausaren arteko osagarri mota hauek oso arruntak dira. Bakan batzuk ikusiko ditugu hemen, *autonomia* deitu dugun horren galera mailez eta eremu honetan egon daitekeen aldakortasunaz jabetzeko[5]. Lehenengo kasuan, perpausaren kategoria galtzen dugu, baina oraindik ere nolabait komunztadura eta denbora markak agerian daude, fijieraren eta ketxueraren ondoko adibideetan bezala:

(14) [aywa -shqa -yki -ta] wiya -rqa -n
aldegin-NOM- 2 -AKUS entzun-IRAG-3
*'Aldegin zenuela (*zure aldegitea) *entzun zuen'*

(15) au aa raica [a o-mu lesu mai]
1 IRAG ikusi DET KLAS-2 itzuli hona
'Zu hona itzuli zinela (zure hona itzultzea) *ikusi nuen'*

Bi kasuak euskararen ikuspuntutik apika harrigarriak izan daitezke, zeren *ikusi* eta *entzun* aditzek *-la* perpaus autonomoak hartzen baitituzte bai beren oinarrizko zentzuetan bai eta zentzu epistemikoetan (*ikusi=ulertu, konturatu*) ere. Hemen, baina, osagarri nominalizatuak aukeratzen dituzte. Are gehiago, ketxueraz mendeko perpaus gehienak honelakoxeak dira, zeren izen ezaugarriak ez dituzten perpaus arruntak, nagusien antzekoak, ez baitira existitzen[6]. Bi adibideetan, berehala ohartzen gara osagarriari dagokion osagaia izen antzeko zerbait dela. Alde batetik, ketxueraz kasu akusatiboa ezarri diogu, hau da, izen sintagmei ezartzen zaien kasu bera. Fijieraz, osagarriaren hasierako determinatzaileak ere izen sintagma baten aurrean gaudela erakusten digu argiro. Badago tipikoa den beste ezaugarri bat, aurreko bi adibideetan perpaus arruntetatik urrundu eta izen sintagmetara hurbiltzen gaituena: *itzultze* eta *aldegite*aren subjektuak, agertzekotan, izenen modifikatzaile normalak balira bezala azaltzen dira, ez ohiko perpausen subjektuen antzera. Ketxuerazko adibidean izenordainik ez da azaltzen, baina, ketxuerazko beste izenetan bezala, izenak berak nolabaiteko komunztadura marka dauka, bigarren pertsonako *-yki* morfema hain zuzen (*wasi-yki* 'zure etxea' sintagman bezala). Komunztadura dugu hori, bai, baina ez aditz komunztadura: bigarren pertsonako aditz formetan *-nki* aurkitzen dugu (*llank'a-nki* 'lan egiten duzu' forman bezala). Fijierazko adibidean ageriko izenordain bat aurkitzen dugu, *omu,* baina hori 'zure' antzeko forma bat da, izenekin lotuta dagoena. Beraz, bi adibideotan, subjektuaren adierazpena ere, aditzekin gabe, izenekin dago lotuta. Azkenik, ohartzekoa da ketxueraren adibidean behintzat *aywashqaykita* forma denbora erlazioak markatzeko gai dela oraindik ere. Aditzen askatasun berberaz ez bada ere, bai era mugatuago batez: *-shqa-* artizkiak mendeko ekintza nagusiarena baino lehenago kokatzen du.

Nominalizazioen mini-tour honekin amaitzeko, beste kasu bat eman dezakegu, georgierarena alegia. Hizkuntza horretan mendeko perpausak bi motatakoak izan daitezke: batzuk nagusien antzekoak (euskarazko *-la* konplementatzailearen ordaina den *rom* partikulaz markatuta), eta besteak nabarmen mendekoak diren nominalizazioak. Ondoren perpausaren forma nagusia (a)-n ematen dugu eta (b)-n mendekoa:

(16) a. man moiq'vana isini
bera.ERG 3.3.ekarri.AOR haiek.NOM
'Berak haiek ekarri zituen'

b. man moaxerxa [mati moq'vana]
bera.ERG 3.3.lortu.AOR haiek.GEN ekarri.NOM
'Berak haiek ekartzea lortu zuen'

Nominalizazioan ageriko subjektua desagertu egin da, (b)-ko *man* hori aditz nagusiaren subjektua baita. Eta lehenagoko osagarria orain genitiboan agertzen da, izen baten osagarriari dagokion bezala[7]. Aditza bera nominatiboan agertzen da, georgieraren aoristoko osagarri baten kasua, euskaraz *ekartzea* absolutiboaren parekoa dena. Egia esan, "mendeko aditza" deitura erabiltzen badugu ere, *moq'vana* forma horrek bere komunztadura eta denbora marka guztiak galdu ditu, hau da, georgieraren aditz tipikoek dituzten markak. Perpausetan bezala partaideak dituen eta ekintza bat adierazten duen hitza daukagulako izango ez balitz, edozeinek esango luke *lortu* aditzaren osagarria nahiko izen sintagma tipikoa dela. "Perpaus" honek bere perpaustasunaren ezaugarri gehienak galdu dituenez, orain kontua ez da bakarrik perpaus nagusiaren nahiko ezberdina dela, *perpaus* izatera ere iristen ez dela baizik[8].

****

Aurreko atalean berez mendekoak diren "perpaus" motekin lan egin dugu, nominalizazioen adibide batzuk emanez. Perpaus nagusien aditzek erakusten duten morfologia murriztu egiten da beraietan. Euskararen nominalizazioetan, esate baterako, modu *(-ke),* denbora eta komunztadura markak desagertu egiten dira, eta morfologia bakarra izenen kasu marketara mugatzen da. Aditz nagusiaren kategoria nahikoa nabarmena izaten da —aditza da, alegia—, eta bere kategoriak ez digu bestelako buruhausterik sortzen, baina mendeko eremuetan, beste kategoria batzuen zantzuak antzematen zaizkio, esate batera, izenarena nominalizazioetan edota geroago aztertuko ditugun infinitibozko egituretan; baita adjektibo edo adiz-lagunen kategoria ere, partizipiozko egituretan edota hizkuntza batzuetan gerundio deituriko formetan[9]. Eta batzuetan, mendeko formak egiazki aditzak badira ere, goiko aditzak eskatutako mendeko forma modal berezien itxura hartzen dute. Hau

da, adibidez, subjuntiboaren kasua: kasu bakan batzuk alde batera (*Etor dadila!*), subjuntiboak berez mendeko formak dira eta ezin ditugu perpaus nagusi modura topatu. Adibidez, (a)-ko perpauseko modua normala da: indikatiboa perpaus nagusian ageri da, eta subjuntiboa, mendekoan; aldiz, (b)-ko perpauseko modua harrigarria izango litzateke:

(17) a. Etor dadin nahi dut
b. *Etor dela nahi dezat

Pentsatu, esate baterako, euskal gramatika askotan subjuntibozko formak ematean azkeneko *-n* menderagailua eta guzti ematen direla: *dezadan, dezazun, dezan, nadin, zaitezen, dadin*. Hain daude murriztuta mendeko eremuetara, non hiztun askok *-n* menderagailu hori aditz formaren partea balitz bezala tratatzen duten. Bestalde, inori ez zaio otutzen indikatibozko formak lerratzean *dudala, duzula, duela, naizela, zarela, dela* eta gisakoak biltzea. Forma horiek bai nagusietan bai mendekoetan agertzen direnez, hiztunak argiago jabetzen dira menderagailuaren presentziaz, mendeko eremuetan bakar-bakarrik topatzen ditugun subjuntibozkoetan baino.

Seguru asko, aurreko mendeko formen artean aditz nagusietatik hurbilen daudenak subjuntibozkoak dira. Eta horiek izaten dira indikatiboetatik ezberdindu arren, maizen ageriko menderagailu batez markatzen direnak. Italiako Brindisi aldeko salentinoeraz, esate baterako, *ku* menderagailu berezia erabiltzen da, edota grekeraz *na*:

(18) Voggyu (ku) lu kattu
nahi.dut SUBJ hura eros.SUBJ.1
'Erosi ('eros dezadala') nahi dut'

(19) I Maria prospathise na to grapsi
DET Maria nahi.du SUBJ hura idatzi.SUBJ
'Mariak hori idatzi nahi du'

Ohiko aditzetatik aldentzen diren mendeko formek gutxiagotan behar dute ageriko mendekotasun marka bat, nahiz eta Europan barruan ere, bakan batzuk aurkitu ahal izan. Horren lekuko modura, suedieraren *att* eta italieraren *di* menderagailuen adibideak dakartzagu[10]:

(20) Han lovade [att aldrig ljuga]
bera agindu ezen inoiz gezurrak.esan
'Gezurrak inoiz ez esatea agindu zuen'

(21) Dicono [di non capire]
diote ezen ez ulertu
'Ulertzen ez dutela diote'

Suedieraren *att* mendeko perpaus jokatuetan aurkitzen da, italieraren *di* infinitiboetarako propio erabiltzen den bitartean. Hau ez da askotan gertatzen: morfologikoki mendekoak diren formei mendekotasuna markatzen duen beste zerbait gaineratzea nahikoa erredundantea da.

****

Abia gaitezen orain, mendekotasunaren alde morfologiko hauek utzirik, fenomeno sintaktikoetara. Kapitulu honen hasieran esan dugun bezala, autonomia galtzea mendeko forma berezien erabileran ez ezik, mendeko perpausen gaitasunen galeran ere sumatzen da. Askotan, David Perlmutter eta Judith Aissen-ek ingelesez *clause union* edo "perpaus batuketa" bataiatu zutena gertatzen da, hots, mendeko perpausaren argumentuek perpaus nagusiaren argumentuak balira bezala jokatzen dutela. Modu batean, perpaus nagusiak bereganatu egiten ditu mendekoaren ondasunak, Fogg-ek bisitatu zituen India eta Hong Kongeko, eta, oro har, kolonietako lehengai eta produktu askok metropolirako bidaia egiten duten bezala.

Aurreko atalean esan dugun moduan, subjuntibozko mendeko perpausak autonomoagoen artean koka daitezke, formaz perpaus nagusien oso antzekoak baitira (ohiko partaideak ohiko kasuez markatzen dira; aditza jokatu egiten da, nahiz eta beste modu batean jokatzen den, etab.). Baina beraietan ere nagusiarekiko lotura sendoa ikus daiteke. Eta ez bakarrik aditz nagusi berezi batzuek hala eskatuta agertzean (askotan desira, eskaera, agindua edo nahia adierazten dutenak), baizik eta fenomeno sintaktikoetan ere. Esate baterako, ezaguna da *elkar* izenordain anaforikoak ez duela aitzindaria perpausaren barruan bilatzen, baizik eta askoz mugatuagoa den *bere perpausaren* barruan. Horregatik anafora hori onargarria da (a) eta (b) adibideetan, eta onartezina, (c)-n:

(22) a. Lagunek elkar (*beraiek) ikusi dute
b. Jonek ikusi du [lagunek elkar jo dutela]
c. Lagunek ikusi dute [Jonek (*elkar)]

Elkar anaforaren aitzindari baten bila bagabiltza, *lagunek* topatuko dugu hasierako bi adibideetan, eta aitzindari hori perpaus berean dago, perpauskidea da hortaz. Aldiz, (c) kasuan, *lagunek* urrunegi dago aitzindari izateko, guztiz bestelakoa den eremuan, perpaus nagusiaren eremuan alegia. Berdintsu gertatzen zen (eta agian oraindik ere gertatzen da) ekialdeko euskalki batzuetan (Axularrenean, esate baterako) *bere* izenordainarekin:

(23) a. Jon bere etxera joan zen
b. Jonek esan zuen Mikel bere etxera joan zela

Euskalki horietan, *bere* izenordainaren aitzindaria perpauskidea den ergatibo, absolutibo edo datibodun sintagma bat izan behar da, (a)-n bezala. Baina orduan, aitzindariaren eremu murriztu hori dela medio, (b) adibidean *bere* izenordainaren aitzindaria Mikel izan daiteke bakarrik, ez Jon, Jon goiko eremu nagusian dagoeta. Zentzu horretan, *bere* islanderaren *sín* izenordainaren oso antzekoa da, hemen esanguratsua den ñabardura ttipi batekin: aitzindaria perpaus nagusian egon daiteke, baldin eta *sín* dagoen mendeko perpausa subjuntiboan badago, inoiz ez indikatiboan dagoenean. Ondoko perpausa, beraz, *hefði* laguntzaile subjuntiboa daukana, guztiz gramatikala da, nahiz eta mendeko perpausean dagoen *sín* horrek goiko perpaus nagusiko *Jón* aitzindari hartu[11]:

(24) Jón las það í blaðinu [að María hefði komið til sín]
Jon irakurri INES ART egunkaria ezen M. LAG.SUBJ etorri ADL bera
'Jonek egunkarian Maria bere buruarengana (=Jonengana) etorri zela irakurri zuen'

Egitura bera onartezina izatea osagarri perpausa indikatiboan dagoen kasuetan oso adierazgarria da: badirudi perpaus nagusiaren eremua zabaldu egin dela mendeko osagaiak besarkatzeraino. *Sín* delakoak perpaus nagusiaren barruan balego bezala jokatzen du, eta hori nolabait subjuntibozko perpausaren autonomia, alde honetatik, benetan mehatxatuta dagoelako zantzua da. Hitz politak erabiltzearren, "gardentasuna" deitura erabiltzen dute hizkuntzalari batzuek mendeko perpausen permeabilitateaz hitz egiteko, botere handiek herri txikiak irensteari "mugak ezabatzea" deitzen dioten bezala.

Eman dezagun subjuntibozko mendeko perpausen lur-jabetasun galera horren beste adibide pare bat, islanderaren fenomenoa isolatutako bitxikeria bat gabe, hizkuntzaren eraketa zabal eta sakonago baten ondorioak direla erakustearren. Aipatu dugu gorago italieraren dialekto bat, salentinoera, Brindisi aldean egiten dena. Beste hizkuntza erromantzeetan bezala, hor ere klitiko igoera fenomenoa gertatzen da, kapitulu honen hasieran perpaus batuketaren ondorio modura azaldu duguna. Hitz bitan laburbilduz berriro, klitikoak beren aditzekin batera agertzen dira (*te quiere, *quiérete, conocerlo, *lo conocer*); baina batzuetan aditz nagusiak mendekoa beregana dezake, eta orduan mendekoaren klitikoak goiko aditzaren aldean agertzen dira, eta espero dugun *quiere conocerte* formaz gain, *te quiere conocer* hurrenkera aurkitzen dugu. Klitiko igoera hau (edo perpaus batuketa fenomeno hau) mendeko infinitiboekin gertatzen da sarrien (jarraian arakatuko dugun beste "mendeko" eremu tipikoa). Baina salentinoeraz klitikoak subjuntibo osagarrietatik baino ezin daitezke igo, inoiz ez indikatibo osagarrietatik:

(25) a. We lu kkatti
nahi.2 hura erosi.SUBJ.2
'Erosi nahi duzu' ('Zuk eros dezazula nahi duzu')

b. Lu we kkatti

Hirugarren pertsonako *lu* osagarri klitikoa (*lu* hori gaztelaniazko *lo*-ren ordaina da) *we* aditz nagusiaren aurrean agertu da, haren osagarria balitz bezala. Beraz, *we* aditzak mendeko aditza eta haren argumentuak irentsi ditu; orain *lu* erostearen osagarria izan beharrean, nahi izatearen osagarria balitz bezala jokatzen du[12]. Mendeko aditzak zeukan ondasuna perpaus nagusiak zurrupatu du.

Agian ez da ideia txarra hau guztiau, kanpotik ikusita hain bitxia eta, frantsesez eta ingelesez dioten bezala, *bizarre* dena, apur bat gure bazterretara ekarri eta euskararen antzeko datuekin konparatzea. Berriro ere, perpaus nagusien eremua subjuntibozko mendeko eremuetara zabaltzen dela erakusten ari gara, eta mendeko partaideek perpaus nagusiko argumentuak balira bezala jokatzen dutela. Jo dezagun, beraz, euskararen *ezer, inor* bezalako elementuen banaketa ikustera. Zenbatzaile horiek *polaritate* hitzak dira, sarri askotan perpausen baiezkotasuna zein ezezkotasuna pil-pilean dauden eremuetara mugatzen direlako (ohiko baiezkoetan ez, baina bai bai-ala-ez galderetan, ezezkoetan, baldintzetan eta abarretan). Guri orain horrezaz gain interesatzen zaiguna beste zerbait da. Normalean badago osagai horiek zilegiztatzen dituen elementuren bat, hala nola ezeztapena bera, *ea* bai-ala-ez galderaren marka (batzuetan isilpean egon arren), *ba*, edo -*egi* atzizkia. Eta, normalean polaritate hitza zilegiztatzen duen osagaiaren perpauskidea izaten da. Horregatik ez da onargarria ondoko perpausa[13]:

(26) *Jonek *ez* du aitortu berak *ezer* ikusi duela

Ezetzaren eremua perpaus nagusira mugatzen da, -*la* konpletibora zabaldu gabe. Nolanahi ere, aurreko hausnarketen ondoren, ezin harrigarria iruditu *ezer* bezalakoak kontent eta irus azaltzea subjuntibozkoetan (eta geroago aztertuko ditugun nominalizazioetan):

(27) a. Mikelek *ez* du nahi *ezer* gertatzea
b. Mikelek *ez* du nahi *ezer* gerta dadila/dadin

Parametro honen adierazpide teknikoan sartu gabe, nahikoa dugu lehenago zirriborratutakoarekin: mendeko perpaus hauen osagarriak perpaus nagusiarenak bezala jokatzen du, nolabaiteko perpaus batuketaren ondorioz. Orduan, parametro

honen eragina dela medio, *ezer* perpaus nagusiko ezetzaren perpauskide bihurtu da, eta horregatik da, hain zuzen, perpaus onargarria.

****

Subjuntibozko perpausak batzuetan batuketaren (*irenstearen*) biktimak dira, eta batuketa fenomenoa, oro har, ugaldu egiten den eremua perpaus jokatugabeena da, alegia, perpaus nagusiarekiko autonomia txikiagoa erakusten duten perpausena.

Aurrera jo baino lehen, merezi du azpimarratzea ezen ikusiko ditugun fenomenoak, eta aurreko atalekoak, "batuketaren" parametropean sartzean ez dugula esan nahi teknikoki aukera zehatz bakar baten ondorioak direnik. Aukera parametriko asko egon litezke fenomeno bat edo besteren atzean, baina zentzu zabalean bada ere, egokia da denak makroparametro batean biltzea, Perlmutter eta Aissen-ek perpaus batuketa izenaz deskribatu zutena ondorio berberarekin: mendeko perpauseko osagaiek perpaus nagusikoak balira bezala jokatzen dutela.

Itxuratze horren barruan sartzen da bete-betean hizkuntzalaritzaren historian analisi batzuen bitartez ulertu nahi izan den beste fenomeno famatu bat: mendeko perpausaren subjektuak perpaus nagusiaren osagarri modura jokatzen duenekoa, hain zuzen. Hizkuntza batzuetako osagarri perpaus jokatugabeetan gertatzen da, ondokoetan adibidez:

(28) Volo te venire
nahi.1 zu.AKUS etorri
'Zu etortzea nahi dut'

(29) I expected him to arrive late
ni espero.IRAG bera.AKUS heldu berandu
'Bera berandu heltzea espero nuen'

(30) Hasan-I Istakoz-u ye-di san-Iyor-um
Hasan-AKUS otarraina-AKUS jan-IRAG sinetsi-OR-1
'Hasanek otarraina jan izana sinisten dut'

Mendeko perpaus jokatugabeak ditugu horiek guztiak, infinitiboak latinez eta ingelesez eta iraganeko nominalizazioa turkieraz (nolabaiteko denbora izan arren, turkieraren forma hau jokatugabea da, perpaus nagusiko aditzak ez bezala, ez dauka-eta inongo komunztadura markarik). Aditz nagusiaren osagarria, zentzu estuan, mendeko perpausa da, noski. Besteetan bezala, mendeko perpausarekin beste eremu independiente batean sartzea espero bagenuen ere, aurreko adibideek sorpresa eman ziguten: osagarri perpausaren subjektuak ez dauka hizkuntza hauetan subjektu bati legokiokeen kasua (nominatiboa), hasieran lekuz kanpo

dagoela dirudien akusatiboa baizik (latinez edota ingelesez apur bat jakinda ere, argi dago *te* eta *him* ez direla *tu* eta *he*). Zergatik janzten da mendeko subjektua osagarriei dagokien akusatiboaz? Ingelesari dagokionez, Paul Postal-ek oso ondo erakutsi zuen artean 1974an kasuaz gain portaera sintaktikoaren aldetik *him* horrek osagarri tipikoen ezaugarriak zituela[14]. Beraz semantikoki argi eta garbi *te* datorrena bada, *him* heltzen dena eta *Hasanı* jaten duena, hizkuntza horietako joskeraren aldetik argumentu horiek nahi dena, espero dena eta sinisten dena balira bezala tratatzen dira, hau da, aditz nagusien osagarriak balira bezala. Aditz nagusiak, hortaz, bereganatu egin ditu mendeko perpausaren argumentu hauek eta nolabait irentsi egin dituela dirudi: mendekoaren argumentu bat, abdukzio batean bezala, goiko perpausera eramana izan da. Garai hartako gramatikan *subject-to-object raising* edo *subjektu-osagarrira igoera* izena eman zitzaion fenomeno honi, betiere autonomia gutxiko mendeko eremuetan gertatzen zena, hau da, mendeko perpaus jokatugabeen subjektuen kasuan[15].

****

Jarrai dezagun orain batuketaren labela duten burujabetza galtze fenomeno hauen bestelako kasuak arakatzen. Pasibotzea da perpausaren eremura mugatuta dagoen beste fenomeno ezaguna. Pasibotzean aditz iragankor baten bi argumentu nagusiak hartu eta beraien ohiko funtzio gramatikalak aldatzen dira. Egilea (normalean, ez-markatuak diren perpaus aktiboetan subjektua izaten dena) bere ohorezko funtzio nagusitik aldentzen da, perpausaren marjinaltasunera kondenatuta, agertzekotan adjunktu funtzioren batean agertu ahal izateko bakarrik. Gaiak ("jasaileak"), egitura aktiboan osagarria izan ohi denak, ostera, funtzioen hierarkiako bere bigarren postutik goratzea irabazten du, subjektu gisa azaleratzeko. Izan ere, batzuetan bide oker edo ustez zuzenez ugaltzen diren *'patxi ezinaberastuneku'* modukoekin ez bezala, subjektu bi ezin direnez perpaus berean egon, osagarriaren goratze horrek fortunaren gurpilaren buelta batean ohiko subjektuaren suntsipena ekartzen du berarekin. Baina jokoa aditz beraren bi argumentu horiek jokatzen dute bakarrik, eta pasibotzea perpaus baten eremuaren barruan ikus daiteke antzesten. Ez da hala? Ondoko datuek zalantzaren itzala zabaltzen dute orokortze honen balioaren gainean. Zerrendaratu ditzagun datuak, irakurleak arazoa non egon daitekeen bere kasa ikusten saia dadin. Euskal itzulpenak lagunduko dio.

(31) Laikrodis numatytas pirkti is honoraro
erlojua.NOM nahi.PAS erosi ELAT soldata
'Erloju bat bere soldatarekin erosi nahi izana da'

(32) Kitap oku-n-maya basla-n-d
liburua irakurri-PAS-INF hasi-PAS-IRAG
'Liburua irakurtzen hasia da'

Hizkuntzak, agertzen diren moduan, lituaniera eta turkiera dira. Adibideon subjektuak ez dira zailak aurkitzen: *laikrodis* 'erlojua' eta *kitap* 'liburua'. Baina aditz pasiboaren subjektuak zein diren begiratzean harridurak harrapatzen gaitu: lituanieraz erlojua ez da *erostearen* subjektua, *nahi izatearena* baino. Hau bitxia da gero, nahi izatearen osagarria ez baita erlojua baizik eta mendeko perpaus oso bat, soldatarekin erloju bat erostea, hain zuzen. Erlojua *erostearen* osagarri logikoa da, izan. Beste horrenbeste topatzen dugu turkieraz, morfologia apur bat konplexuagoa bada ere (bi aditzek baitute *-n-* pasiboa). Euskaraz bezala oinarrizko ordena SOA denez argi dago *kitap* 'liburua' *hastearen* subjektua dela, eta euskarazko itzulpenak oso hurbiletik jarraitzen dio turkieraren ereduari, morfologia oso bestelakoa den arren. Baina, berriz ere, subjektu pasibo hau ez da hastearen osagarri logikoa, ezaguna ez den egile batek hasten duena ez baita 'liburua', 'liburua irakurtzen' baizik. Liburua, beraz, mendeko aditzaren osagarri logikoa da. Bi kasuotan mendeko aditzaren osagarria goiko aditz pasiboaren subjektu bihurtu da. Jokoan dauden bi argumentuak printzipioz bi aditz izatez ezberdinen argumentuak dira, pasibotzearen ondorengo perpaus bakarreko mugak ikusita guztiz xelebrea dena. Hau guztiau nahiko bitxia da aditz nagusiak aspektu (*hasi*) eta desira aditzak direla konturatu arte, hizkuntzaz hizkuntza beraien osagarri jokatugabeekin batuketa prozesuak eragiten dituztenak, hain zuzen. Lituanieraz eta turkieraz parametroa horrela finkatuta baldin badago, aditz horiek beren mendeko perpausetako partaideak beraienak balira bezala tratatuko dituzte. Orduan, behin batuketa sorrarazten duen mekanismo gramatikala indarrean sartuz gero, mendeko aditzaren osagarriak beraien osagarriak izango dira. Eta aditz aktibo baten osagarriak badira ez dago inongo oztoporik aditz horren forma pasiboaren subjektu bihurtzeko.

Bidaia honetako gaia hizkuntzen aniztasun eta aldakortasunaren funtsezko batasuna denez, ondo legoke berriro ere, lehenago bezala, Europako ekialde eta iparraldeko muturretatik hegoalderantz egitea, balizko euskal ordainak aurkitzeko. Bidaia honetan bezala, bidaiaria etxeratzen denean, zuhur eta jakintsuagoa izango da eta hobeto ulertuko du bere burua bai eta mundua bera ere. Aurreko datuen itzulpenak horrelakorik egon daitekeela iradokitzen badigu ere, euskararen gramatikan pasiboek duten estatus eztabaidagarria dela eta, hobe genuke beraietatik oso hurbil dauden beste egitura batzuetako adibideak bilatzea, egitura inpertsonaletakoak hain zuzen ere. Apur bat pentsatzen hasita, pasiboen oso antzekoak dira ondoko adibideak:

(33) a. Hemendik Gorbeia ikusten da
b. Hemendik Gorbeia ondoko mendiak ikusten dira

Subjektuak *Gorbeia* (a) eta *Gorbeia ondoko mendiak* (b) izan daitezke, aditz laguntzaile biek osagai horiekin egiten baitute komunztadura. Noski, horiek ez dira egileak, lehenago *osagarri logikoak* deitu ditugunak baino. Baina osagarri logikoa subjektu bihurtu den egiturak oso hurbil daude pasiboetatik. Ezberdintzen dituen

ezaugarri bakarra aditzaren morfologia da, *ikusia da* bezalakorik ez baita agertzen, ohiko morfologia iragangaitz aktiboa baizik. Argumentuen konfigurazio "pasibo" baina aditz morfologia aktiboko egitura hauek *erdipasiboak* deitzen dira askotan. Saia gaitezen pasiboantzeko hauetan batuketaren arrastorik aurki daitekeen ikusten.

Dakigunez, batuketa izateko perpaus nagusia eta mendeko bat behar dugu gutxienez, eta turkieraren adibidea komentatzean aipatu dugunez, nahiko arrunta da aditz aspektualek batuketa fenomenoak eragitea. Ondokoa bezalako adibideen bila gabiltza:

(34) Hemendik Gorbeia ondoko mendiak ikusten hasten dira

Betiere, esku artean darabilgun adiera aurreko inpertsonala da (ez *mendiak hasten dira*, edozeinek ikus ditzakeela baizik). Perpaus horretaz apur bat hausnartuz gero, berehala konturatzen gara batuketa antzeko zerbait gertatu behar dela. *Hasi* aditzaren subjektua, interpretazio inpertsonalean, *mendiak* da, baina *mendiak* ez zen aditz horren osagarri logikoa, ez baititugu mendiak hasi. Aldiz, ikustearen gaia ditugu mendi horiek, mendeko aditzaren osagarri logikoa berez. Nola demontre bihurtu da nominalizazioaren osagarria aditz nagusiaren subjektu? Erantzuna dagoeneko nahiko argi egon behar da: euskaraz ere, *hasi* bezalako aspektu aditz bat batuketa eragiteko parametrotuta dago. Gogoratu hau ez dela edozein mendeko perpaus ukitzen duen fenomenoa, aditz nagusi berezi batzuen ezaugarria baino. *Hasi* aditzaren oso antzekoa da *saiatu* aditza, biek hartzen dituzte ageriko subjekturik gabeko *-tzen* nominalizazioak... baina, besterik gabe, *hasi* aspektu aditzak bakarrik eragiten du batuketa; ondoko adibidean interpretazio pertsonala besterik ezin dugu onartu, inpertsonala ezinezkoa den bitartean:

(35) Hemendik Gorbeia ondoko mendiak ikusten saiatzen dira

Saiatzen dira aditzaren subjektua isilpeko *haiek* bakarrik izan daiteke, inolaz ez *mendiak*.

Badago *hasi* aditzarekin batuketa dugula erakusten duen bestelako ebidentziarik. Gogoratu batuketa gertatutakoan mendeko perpausaren argumentuak perpaus nagusiaren argumentu bihurtzen direla. Beraz, honelako inpertsonaletan, mendeko perpausean osagarri logikoaz gain, beste argumenturik balego, aditz nagusiak irentsi beharko luke. Eta horrelako zerbait dugu ondoren:

(36) Liburuak irakasleei saltzen hasi zitzaizkien/*ziren

Irakasleei datibodun sintagma saltzearen helburua da, baina *hasi* aditzaren komunztaduran agertzen da, subjektu berriarekin batera; gainera, ezin daiteke *liburuak* markatu eta *irakasleei* markatu ez (**ziren*). Batuketa mota hau ez da mendeko argumentu batek jasaten duen abdukzio fenomeno bat: mendeko perpau-

saren argumentu guztiak daude ukituta, eta agian, mendeko perpaus osoa dago, aditza barne. Bueltatuko gara azken honetara bidaiaren hurrengo txanpan.

****

Lituanieraren adibidea aztertzean, *nahi* bezalako aditzek askotan batuketa fenomenoak eragiten dituztela aipatu dugu. Kapituluaren hasieran hizkuntza erromantzeetako klitiko igoera fenomenoa aipatu dugu batuketaren erakusgarri, eta ez da harritzekoa *querer* aditzak igoera hori errazen onartzen dutenetariko bat izatea:

(37) Las quiero leer

Querer aditzak irakurtzearen *las* argumentua bereganatu du, eta azken hori aditzarekiko dagokion lekuan agertzen da: *quiero* jokatua denez, haren ezkerretara doa klitikoa. Are gehiago, nahiko arrunta da, *nahi* adierazpena, aditz nagusi berezi batez eman beharrean, nahi den ekintza edo egoera adierazten duen aditzaren gaineko inflexio morfema bat besterik ez izatea. Hau da, horrelakoetan perpaus bakarra izango genuke, hasierako analisi batean behintzat: morfologiaren aldetik konplexutasuna badugu, joskeraren aldetik perpaus bakuna izango genuke ketxuera bezalako hizkuntzetan. Honetan, aditz bati -*naya* (bai, *nahia*) gehiturik, oinarrizko aditzaren zentzua aldatzen dugu, nahi duguna dela adierazteko. Beraz, *waqay* 'negar egin' oinarriarekin loturik dagoen beste aditza *waqanayay* 'negar egin nahi, negar egoteko zorian egon' dugu, *pitay* 'erre' aditzarekin *pitanayay* 'erre nahi', edo *tusuy* 'dantza egin' aditzarekin lotuta duguna, noski, *tusunayay* 'dantza egin nahi' da.

Aurrekoak seguru asko baten bati euskal aditz arazleak ekarriko dizkio gogora, hau da, *gogorarazi* bera edo *irakurrarazi, etorrarazi* eta abar, inguruko hizkuntzetan, ortografiaren arabera behintzat, aditz beregain biren bitartez adierazten direnak, beraz ziur asko perpaus nagusi bati mendeko perpaus bat gaineratuz eraikitzen direnak. Euskaraz hitz bakar batez idazten bada, litekeena da euskal senak hor hitz ale bakarra sumatzen duelako izatea idazkera hori. Baina sen berak aurreko datuek sorrarazten duten zalantza batera garamatza: zergatik diogu hasieran behintzat bi perpaus ditugula, geroago batuketa prozesu baten ondorioz fenomeno batzuetan bakar bat balira bezala jokatzen badute? Ez litzateke errazago izango hasiera-hasieratik perpaus bakarra dugula esatea? Hau da, benetan esan behar da *etorrarazi* aditza duen perpaus baten egituran bi perpaus dauzkagula, batetik *etorri* eta bestetik *arazi* aditzen inguruan egituratuta? Ala morfologikoki konplexua den *etorrarazi* aditzak gune sintaktiko bakar bat beharko luke, perpaus bakarreko aditz sintagmaren barruan? Ez gara hemen galdera orokor horri erantzunak ematen saiatuko. Alde batetik, formulatuta dagoen bezala, orokorregia delako: erantzun bat baino gehiago izango dira, egitura eta hizkuntza zein diren. Bestaldetik, askotan erantzunak aldez aurretik dakartzan auzi teorikoak lan honetatik neurri batean aparte

utzi ditugulako. Baina, edozein modutan ere, alde garrantzitsu eta interesgarri bat dauka zalantza horrek, hizkuntzen arteko konparaziotik —azken batean, tipologiatik— hurbilketa emankor eta argigarria eskaintzen diguna. Arazo orokorra da ea *aditz + aditz* kate batetik *perpaus + perpaus* egitura datorren jarraian, eta auzi horrexetan, hain zuzen, murgilduko gara ondoko lerroetan. Prozesuan, atal honetako hasieran aipatu dugun *nahi* esanahien eta aditz arazleen adierazpen "sintetikoa" zein "analitikoa" ukituko ditugu berriro, azken honetara amaiera aldera itzultzeko.

Murgilketarekin hasteko, kontuan hartu kasu askotan (eta beherago zehaztuko dugu zeintzuk diren kasu horietako garrantzitsuenetarikoak) ez dagoela inongo behar berezirik zentzu bat bi aditzen bidez zein aditz bakar baten bidez adierazteko. Oso antzekoak dira alde horretatik *Jonek irabazi duela uste dute* eta *Ustez, Jonek irabazi du*, edota *datorke*, *etor daiteke* eta *etortzen ahal da*, nahiz eta adibide hauetan, aditz bat, bi eta beharbada hiru ere izan eta egitura sintaktikoaren aldetik guztiz ezberdinak izan ere. Askotan ekintza edo egoera bakarra dugu, eta esanahi batzuek beren gaineko nolabaiteko modulazioa ematen dute (gertaera ustezkoa dela edo egin ahal dela, etab.). Orduan hizkuntzek modulazio hauek aditz edo osagai bereziez (*etor daiteke*) zein "inflexio" (hau da, aditz forma) bereziez balia daitezke (*datorke*). Modua, denbora, aspektua, ezeztapena, esate baterako, era batera edo bestera adieraz daitezke hizkuntzatik hizkuntzara, edo hizkuntza baten barruan ere (pentsatu, adibideez, *dator* vs *etorri da*). Aditz forma bi agertzen direnean guk, pentsatu gabe txikitatik eskolan ikasitakoaren ildotik oharkabean abiatuz, askotan aditz bakar bat balira bezala tratatzen ditugu, aditz bati *laguntzaile* deitura emanez. Horrela, azken finean, dioguna da aditz bi horiek ez direla perpaus ezberdinen ardatzak, perpaus bakar bat daukagula, semantikoki garrantzia duen aditz bakar batekin, beste aditz batek ñabardura bat ematen badio ere.

Noski, hizkuntzarik hizkuntza "modulazio" bera era batera edo bestera egin daiteke. Argi ikus dezakegu hau ezeztapenari begiratzen badiogu (behintzat, euskaraz eta gure inguruko hizkuntzetan ez bezala, aditza den kasuetan). Japonieraz, aditzaren inflexio bat bezala trata daiteke hau, aditzek ezezko forma berezi bat baitute. Beraz, badugu *taberu* 'jan' eta *tabenai* 'ez jan' infinitiboak, *tabemasu* 'jaten dut' eta *tabemasen* 'ez dut jaten', eta aditz bakoitzaren ezezko forma ikasi egin behar da euskaraz *nator*, *zatoz* eta abarreko inflexioak ikasi behar diren bezala. Ingelesaren ezeztapena ere, euskararen antzera, aditza ez den osagai batek eratzen du, *n(o)t*, baina ukatzearen ondorio bezala, normalean aditzak dauzkan inflexio markak orain aditz laguntzaile baten bidez adierazten dira. Orduan ingelesaren ikasleak harritzen dituen *doesn't eat* bezalakoak ateratzen dira, ingeles zaharrean gure ezeztapenetik hurbilagoa litzatekeen *eats not* formaren ordez. Justu kontrakoa da japonieraren lehen aldiko ezeztapena: ezeztapen inflexioa ez da bateragarria iraganaren inflexioarekin, eta berriro ere, aditz laguntzaile bat behar da, kasu honetan iraganeko inflexioaren euskarri modura (*tabemasen deshita*, non *deshita* iraganeko 'zen' da). Dena den, inoiz ezeztapena aditza bera da, batzuetan

aditz laguntzailea, beste batzuetan, aditz nagusia. Horren adibide bat fijiera izan daiteke:

(38) e sega [ni la 'o Jone]
3 ez ezen joan ART Jon
'Jon ez doa'

ASO hizkuntza honetan aditz nagusia dugu lehenengo hitza, besterik gabe jarraian datorrenaren ezeztapena adierazten duena. Nolanahi ere, jarraian datorrena mendeko perpaus tipikoa da, eta autonomia handikoa gainera: konplementatzailea dugu eta gero AS perpaus tipikoa. Egoerarik arruntena ez bada ere, horrek erakusten digu aditzaren oinarrizko esanahiaren modulazioak (berriro, ezeztapena, denbora/aspektua, modua, etab.), aditz laguntzaileen bidez adierazi beharrean, aditz autonomoen bitartez adieraz daitezkeela. Beraz, egia bada ere ekintzari ñabardurak gaineratzen dizkioten esanahiaren osagai hauek askotan aditz horri atxikituriko adizkiez gauzatzen direla (inflexio zein aditz laguntzaile gisara), perpaus ezberdinez ere eman daitezke. Azken adibide hurbil bat emateagatik, ahalera ingelesez eta euskaraz normalean aditz laguntzailearen bidez markatzen dugun bitartean (*jan dezake, can eat*), gaztelaniaz bi aditz eta bi perpausen bidez markatzen da (*puede comer*).

Hizkuntzek adierazpideak aukeratzen dituzte, baina ezberdintasunak ezberdintasun hemen ere badago azpian nolabaiteko batasuna: inflexioaren bidez markatzen diren "modulazioak" deitu ditugun ñabardura hauek berdintsuak izaten dira. Inflexioa baldin badago, orduan denbora/aspektua markatzen da askotan, edota modalitate batzuk (*behar*, *nahi*). Ez da, beraz, kasualitatea kapitulu hauetan aztertu ditugun hizkuntzen artean bai ketxuerak bai japonierak nahia adierazten duen inflexio desideratiboa izatea beren morfologian (ketx. *rikhu-naya-y*; jap. *mi-tai* 'ikusi nahi'). Era berean, aditz nagusiaren aldaketa morfologikoen bidez markatzen ez dena, aditz beregain batez markatzen da, baina orduan guztiz arrunta da aditz bat laguntzailea edo batuketa eragiten duen predikatu bat izatea. Ikusten dugunez, badago esanahi hauek bi perpaus beregainen bitartez ez sortzeko nahiko joera handia[16].

****

Aurreko ataleko eztabaidaren ondorio interesgarri bat azpimarratu nahi genuke: ez dago hain tarte handia batuketa eragiten duten aditz batzuen eta aditz laguntzaileen artean[17]. Ondo pentsatuta, hori ez da harritu beharko gintuzkeen ondorio bat, zeren bi aditzekin perpaus bakarra egin nahi badugu ez baita hain berezia bi aditzok hizkuntzak izan ditzakeen ohiko beste bi aditz talde egiturekin parekatzea, eta aditz talderik normalena aditz laguntzaile eta aditz nagusi multzoa da! Irakurle batzuentzat berri samarra gerta daiteke konturatzea *ikusten hasi* kateak

askozaz zerikusi gehiago duela *ikusten dut* katearekin *a priori* antzekoagoa den *ikusten saiatu* katearekin baino. Baina azken finean autonomia graduak neurtzeko irizpideak *ikusten dut* eta *ikusten saiatu* taldeen azken elementuak (*dut* vs *saiatu*) ezberdintzen laguntzen digutenak dira. Beharbada eskolan aditz laguntzaileen zerrenda ikasi genuen (laguntzaileen definizio estentsiboa dei genezakeena), eta ez aditz bat zerrenda horretan kokatzeko irizpideak (definizio intentsiboa), eta, ondorioz, badakigu zeintzuk diren aditz laguntzaileak, baina ez zergatik. Behin *dut* vs *saiatu* ezberdintzeko arrazoiei apur bat arreta emanez gero, berehala konturatuko gara *hasi* vs *saiatu* ezberdintasuna ere badagoela, eta erabilera batzuetan *hasi* argiro pareka dezakegula *dut* edo *izan*ekin.

Laguntzaileez hitz egiteko, askotan esaten dugu eduki handirik gabeko aditzak direla, hizkuntza bakoitzeko aditzak markatzen duen inflexioaren euskarria besterik ez direla. *Izan, ser, être, be* oso aditz arinak dira, betegarriak: horrexegatik deitzen ziren *kopulatiboak* ohiko gramatikan, subjektua eta predikatua elkartzeko erabiltzen zirelako, hain zuzen. **Edun* eta antzekoen edukia ere nahiko xumea da. Kontuan hartu, liburu honen lehenengo kapituluan esan dugunez, japonieraz, hungarieraz, ketxueraz eta hizkuntza askotan **edun* aditzik ez dagoela eta *izan* erabiltzen dela horretarako:

(39) Qolqe-yki kan-chu?
diru-2 dago-GALD
'Dirurik baduzu?' ('Zure dirurik al dago?')

(40) Könyve-m van
liburu-1 dago
'Liburu bat daukat ('Bada nire liburua')'

Euskaraz ere izartxoa jartzen diogu **edun* formari berez gaur egun ez dagoelako, eta zer eta *izan* erabiltzen dugu forma denboragabe bat behar izatekotan, hala nola *izan dut*, *izango dut,* etab. Pentsatu baino (hizkuntza) eduki gutxiago dauka 'edukitzeak', hots, 'izateak'. Gustatu edo ez, edukitzea izatea da!

Laguntzaileak euskarri izatearen ondorio bat da ez dutela benetan ebento edo gertaera bat adierazten, aditz nagusiaren ebentoarekin elkartzen dena; alderantziz, gertaera bakarra aditz nagusiarena da, eta gertaera horretan antzezten duten argumentuak aditz nagusiarenak dira. Beraz *ematen diot* esaten dugunean *diot* formak dauzkan komunztadura markak ez dira benetan **edun* predikatuaren partaideak, ematearenak baizik. Horrek esan nahi du **edun*ek bereganatu dituela mendeko aditzaren argumentuak. Morroia zen laguntzailea benetan aditz osoagoa da, bestearen ondasunak hartu dituena, beste aditzaren argumentuak (mendekoarenak) berarenak balira bezala tratatzen dituena. Semantikaren aldetik edukia daukana mendekoa denez eta laguntzailea edukigabea denez, mendekoari nagusia deitzen diogu, baina

sintaktikoki aktiboa dena laguntzailea da, inflexio guztiak hartzen dituena eta komunztadura harremanetan sartzen dena. Hizkuntzalari askok aditz laguntzaileak zuhaitz egituretan itxuratzean ondokoaren antzeko marrazkiak egiten dituzte (guk erraztuta ematen badugu ere). Konturatu bi aditz sintagma (AS) ezberdin daudela:

(41)



Zuhaitz xinple horrek informazio asko ematen digu. Aditz sintagma bi izan arren, ez ditugu hemen perpaus ezberdin bi (goragoko aditzak ez du beste INFLS edo KONPS hartzen bere osagarri gunean, perpausa izatera ailegatzen ez den beste AS baizik); perpaus bakuna dugu hau, beraz. Semantikaren arabera, beheko aditzak dauka edukia, hau da, gertaera bera eta argumentuak hor sortzen dira, eta horregatik ezarri diogu *nagusia* azpiindizea. Baina hierarkikoki goiko aditza da "nagusia", eta bertan agertuko dira ager daitezkeen aditz inflexio marka guztiak (denbora/aspektukoak, komunztadurakoak, etab.), mendeko gertaera eta argumentuei badagozkie ere.

Ez da aurrekoa perpaus batuketaren muturreko kasu bat? Egia da askotan batuketa eragiten duten aditzek eduki gehiago dutela, baina ikuspegi horretatik ulergarria da askotan *hasi* bezalako aspektu aditzak izatea batuketa eragiten dutenak. *Jon liburua irakurtzen hasi zen* esatean gertaera bitan banatzen badugu ere, benetan *Jonek liburua irakurtzen du* esaten dugu, eta gertaera hau hasieran dagoela gaineratzea aspektu ñabardura bat aipatzea besterik ez da. Aspektu aditzak aditz beregain bezala agertzean gertaera independiente bezala agertzen badira ere, beste gertaera baten aspektu modulazioa markatzeko izakiak baino ez dira, gixajoak, aditz beregain baten arroparen azpian laguntzaile xumea ezkutatzen dutenak.

Laguntzaileen eta batuketa eragileen arteko loturan sakontzean aipatu beharreko beste datu bat dago. Definizioz *eman dio* bezalakoetan benetan perpaus bakarra dugunez, nahiz eta agerian aditz bi izan, subjektu bakarra ere izan dezakegu: metropolien erreginei (nahiz eta *subjektu* deitu erregina hau, ingelesez 'subditoa' adiera ere daukana) ez zaie batere gustatzen beste erreginarik egotea beren erresumako kolonietan. Batuketa gertatzen den egituretan subjektu bakarra izaten dugu. Euskaraz, esate baterako, nekez izan dezakegu ondoko lehenengo adibidean dugun perpaus batuketa osoa bigarrenean ere: *Mikeli* ez da *nahi* izatearen helburua, bere osagarri perpausaren buru semantikoa den *eman* predikatuarena baizik, baina, hala ere, aditz nagusiak du *Mikeli* dagokion -*io* marka:

(42) a. Jonek Mikeli eman nahi dio
b. Jonek Mirenek Mikeli eman diezaiola nahi du (*dio)

Era berean, perpaus nominalizatuek nagusiarena ez den subjektu bat badute, ezin batuketarik aurkitu (a). Biek subjektu bera badute, aldiz, batuketa egon daiteke (b), nahiz eta (c)-k erakusten duenez, subjektu bera izateak ez duen berez batuketa dagoela suposatzen:

(43) a. Jonek Mirenek Mikeli jarraitzea gorrotatzen du (*dio)
b. Jon Mireni hitz egiten hasi zitzaion
c. Jon Mireni hitz egiten saiatu zen (*zitzaion)

Litekeena da, noski, erreginaordea egotea, baina honek beti behe-mailako funtzio gramatikala hartu behar izango du, inoiz ez subjektu funtzioa, subiranoarentzat erreserbatuta dagoena. Horrelako zerbait gertatzen da arazleetan, hona dakargun hungarieraren kasuan bezala:

(44) Az apa hosszú olvastatta a fiá-t
ART aita luzaro irakurri.ARZ.IRAG ART mutil-AKUS
'Aitak semeari luzaroan irakurrarazi zion'

Aita da perpaus horretako erregina, eta irakurtzen duena semea bada ere, aitak eraginda egiten du; egilea da semea, baina ekintzaren eragilea aita da, eta azken argumentu horrek gordetzen du subjektutasuna. Semea bigarren mailako funtzio gramatikalean dago, osagarrien markarekin. Ezin, beraz, subjektu bi ageri perpaus batuketa azken muturreraino eraman den kasuetan, arazle horretan bezala. Eta ez da harrigarria analisi askotan horrelako batuketa egiturak zuhaitz sintaktikoan itxuratzean, laguntzaileetarako eman dugun egoera bera islatzea, hau da, goiko aditz bat, batuketaren eragilea, osagarri gisa perpausa hartu beharrean, beste aditz sintagma bat hartzen duena. Bueltatuko gara geroago arazleen mundura, hizkuntzetan zehar batuketa parametroak sorrarazten duen aldakortasunaren azken adibide bat emateko.

Eta laguntzaileen eta batuketa eragileen arteko lotura sintaktikoaz amaitzeko, joan gaitezen orain (momentu batzuetarako bakarrik, tamalez!) Italiara, seguru asko gure Phileas Fogg jaunari gustatuko ez litzaiokeen tokira. Esan dugunez, goiko aditza, behekoaren partaideak bereganatzen dituena, laguntzailearekin pareka daiteke neurri handi batean. Baina nolabaiteko aditz laguntzaile horrek benetako laguntzaile tipikoak ere har ditzake. Ondoko adibideetan[18], *dovere* 'behar' aditza *avere* '*edun' laguntzailearekin agertzen dela erakusten da, geroago aukerako batuketa eragile modura identifikatuko duguna:

(45) a. Giovanni si è difeso
'Giovanni(k) bere burua defenditu du/defenditu da'
b. Giovanni ha dovuto difendersi
'Giovanni(k) bere burua defenditu behar izan da/du'

(46) a. Giovanni ha collaborato
'Giovannik lagundu du'
b. Giovanni ha dovuto collaborare
'Giovannik lagundu behar izan du'

Berdin da aditz batek zer-nolako laguntzailea (*essere* 'izan' ala *avere* '*edun') hartzen duen bere kabuz dabilenean (a) adibideetan, aditz nagusia *dovere* denetan, (b) adibideetan bezala, aditz honek bere laguntzaile hautaketa inposatzen du, eta *avere*rekin agertuko da. Baina zer gertatuko litzateke *dovere* aditzak batuketa eragingo balu? Orduan beheko aditzarekin batuko litzateke, eta nolabaiteko "laguntzaile" bihurtuko ere. Horrelakoetan espero duguna da *essere* ala *avere* laguntzaileen agerpena orain mendeko aditzaren arabera aldatzea, *dovere* aditzak beste guztiarekin batera mendeko aditzaren aukera hori bereganatzen baitu. Gogoratu hizkuntza erromantzeetan batuketaren ondorio bat mendeko klitikoak goragoko perpaus batean agertzea dela. Hori gogoan izanik, begiratu zer gertatzen den *essere* vs *avere* aukerarekin, klitikoa (letra etzanean dagoena) non kokatzen dugun:

(47) a. Giovanni ha dovuto difender*si*
'Giovannik bere burua defendatu behar izan du'
b. Giovanni *si* è dovuto difendere
Giovanni *si* ha dovute difendere

(48) a. Giovanni ha dovuto collaborar*ci*
'Giovannik horretan lagundu behar izan du'
b. Giovanni *ci* ha dovuto collaborare

Bigarren adibide sortan aditz guztiek *avere* aukeratzen dutenez, batuketaren aztarna bakarra *ci* 'horretan' klitikoaren lekualdaketa da. Baina lehenengo sortari begiratuz gero berehala jabetuko gara ahalbide gehiago sortu direla. Izenordain bihurkaria (*si*) mendeko infinitiboarekin gelditzen bada (a), ez da batuketarik gertatu eta *ha* laguntzailea hartuko du *dovere*-k, ohi bezala. Baina klitikoa *dovere*rekin batera agertzen denean, (b) eta (c) adibideetan bezala, orduan batuketa gertatu da: *dovuto* eta *difendere* batu egin dira eta aditz konplexu hau jokatua denez, izenordaina haren ezkerretara agertu behar da. Eta orduan, eta orduan bakarrik, izan dezakegu *avere* zein *essere*! *Dovere* aditzak, berez, *ha* har dezake baina horrelakoetan fagozitatu duen aditzaren hautapena ere bereganatu du. Ondorioz, *ha* forma *dovere*ren hautaketari dagokio, *è* laguntzailearen agerpena *difendersi* aditzari zor zaiola.

Dagoeneko ez dugu inor oharkabean harrapatuko euskaraz ere antzeko zerbait gertatzen bide dela badiogu. Ez gara sakontasun gehiegitan sartuko, baina *behar* formari begiratzea besterik ez dago euskalki askotan ere, zehaztasun ezberdinekin, laguntzailearen hautaketa mendeko aditzaren arabera ere alda daitekeela konturatzeko. *Joan behar dut/naiz* aukera batuketaren prozesu berean oinarritzen da. Baina hori bi predikatuen subjektua bera denean bakarrik gerta daiteke. Subjektu ezberdinak izatera, *-la* osagarria eta *behar dut* izango dugu, mendeko aditzaren iragankortasuna berdin delarik. Berriro ere, hizkuntzaz hizkuntza, talde semantiko batzuk batuketa eragile hautagai tipikoak dira, eta *behar* esanahia, esanahi modala, inflexioaren bidez, aditz laguntzaile baten bidez edo batuketa eragiten duen predikatu modura agertzea arrunta da. Ikertzearen ikertzeaz, hizkuntzen azpiko batasuna aldakortasuna bezain miresgarria dela konturatzera igarotzen gara.

****

Beste bidezidor batetik abiatzen gara orain, Fogg-ek ez bezala guk ez baitugu hasi garen lekura ahalik eta lasterren heltzeko inongo premiarik. Etxetik gertu dugu bidexka, euskararen inguruan baitago. Bidezidorrak gure ohiko gramatiketan "aditz perifrasien" eremura eramango gaitu. Eta bidezidorraren zergatia argi dago aditz perifrasi bat zer den hausnartzen hasiz gero. Lafittek bere gramatikan dioskunez, aditz perifrasiak dira «*locutions formées par la combinaison de deux verbes dont l'un est un semi-auxiliaire*»; geroxeago, honako hau gaineratzen digu: «*Des verbes ordinaires peuvent servir aussi d'auxiliaires de temps ou de mode*»[19]. Beraz, aditz arrunt batzuk laguntzaile bezala erabil daitezke batzuetan (ohiko laguntzaileak ez izanik, *erdi-* aurrizkia jartzen diegu). Eta, noski, laguntzaileekin parekatzeko intuizioa hau da: erabilera hauetan jokatu gabe dagoen beste aditzaren modifikatzaileak dira, beste horrengandik argumentuak eta erlazio sintaktiko guztiak harturik. Lafittek eransten duen bezala, gainera, modifikazio hori denborari (aspektuari ere) edo modalitateari (*behar* izatea, etab.) dagokie. Eta aipatzen dituen adibideen artean honakoak daude, honen guztionen erakusgarri: *hiltzera doa*, *sendatzen ari da*, *berotzen dago*, etab. Lehenengo begiradan, zentzua alde batera utzita, ez da hemen batuketaren aztarna handirik sumatzen. Baina han-hemenka beste adibide batzuetan gauza harrigarriak gertatzen dira, jakinaren gainean ez dagoenarentzat behintzat. Lekuan lekuko euskal hizkeretan, noizean behin, aditz jokatugabeari datibo argumentua gaineratzen zaionean, aditz nagusiak, printzipioz beregaina denak, berarekin komunztadura egin dezake. Hortaz, batuketaren seinale:

(49) a. Kantatzera noazu bertso bat edo bi
b. Aholkua ematen dagoko

Edozein hiztun jatorren belarrira, eta gogora, *-zu* eta *-ko* atzizki horiek 'nori kantatu' eta 'nori eman' adierazten dute, ez 'nori joan' edo 'nori egon', baina formalki azken aditz horiekin daude lotuta. Eta batzuetan hiztunek inoiz entzun ez dituzten

forma berriak sortzeko ahalmena ere erabiltzen dute, besteren eta, batzuetan, beraien harridurarako. Laffittek berak, bere gramatikaren beste zati batzuetan, honako adibideak dakartza, orokorrak ez direla azpimarratuz[20]:

(50) a. Etsaiari harmak hartzerat nindoazkon
b. Liburu hoik irakurtzera doatza

Eta oso ezaguna da Mitxelenaren pasartea, aditz forma bat idatziz gero bat-batean "existitzen ez dela" konturatzean, ez aldatzea erabakitzen duenekoa:

(51) Nik ez ditut aurkitu ... bila nenbiltzanak

Nekez araka ditzake edozeinek euskalkien gramatikak honako pluralgiledun formak aurkitzeko. Mitxelenak "munstroa" deitu zuen *nenbiltzan* forma, baina horiek ez dira arrazoiaren loaldian sortutako munstrokeriak. Hizkuntzak bizirik daude hiztunak bizirik dauden bitartean, eta aldaketak momentu guztietan ari dira gertatzen. Orokorrak izan eta hiztun letratuen aho-lumetan agertu arte, forma (eta komunztadura harreman) hauek noizean behingo fenomenoak dira. Batzuk errotu egiten dira hiztun batengan (idiolektoa) edo hiztun talde batean (dialekto edota soziolektoak). Horietako batzuk hiztun talde guztietara hedatzen dira, eta beste batzuk desagertzen dira. Ez dago ezer onik edo txarrik forma horietan, gaur egungo forma estandarrak atzoko munstrokeriak baitira. Baina hizkuntzalariei ez zaie interesatzen batzuen ustez zuzena dena berez dena baino. Forma horiek gure hizkuntza gaitasunaren islapena dira, eta haietan hizkuntzaren ezaugarriak forma estandarretan bezala azaleratzen dira. Horrexegatik utzi zuen Mitxelenak "munstroa" bere artikuluan, munstroa izan arren, gizakien genoma bera duen munstroa zelako. Ez da, beraz, arraroa inoizko forma hauek agertzen diren eremuan agertzea, batuketaren eremu tipikoak baitira horiek. Hiztunak, formalki bi perpaus ezberdin egon arren, bat balira bezala tratatzen hasten dira, gertaera bakartzat hartzen baitituzte. Aditz nagusiak bere oinarrizko zentzua galdu ondoren, mendekoari denbora edo aspektuz ñabardurak ezartzen dizkio, eta horrek batuketaren fenomenoa pizten du. Askozaz arraroagoak izango lirateke, seguru asko, *berari ematea pentsatu diot* edo *Mikeli eman diola konturatu natzaio* motakoak. Freudzaleentzat oharkabean esandako "ezustekoak" bezala, hizkuntzalarientzat esanguratsuak dira *lapsus linguae/calami* hauek ere[21].



****

Alboetako bidexka batzuk arakatu ditugu, laguntzaileak, aditz perifrasiak eta batuketa egituren arteko loturez jabetzeko. Bada garaia gure hari nagusira bueltatzeko. Fogg bezalakoak ez bagara ere, Kavafis-ekin batera bidaia bera aberasgarria delakoan gaude, Fix detektibezaleak ere ez gara, ez baititugu zure bidearen erdian denetariko oztopoak gurutzatu nahi. Gure kapitulu honen azken bazterretara heltzeko ordua da, eta horretarako gure abialdi honetako *leit motiv*a izan dena (aldakortasunaren azpiko batasuna) perpaus batuketaren eremuan ezin hobeto begiztatzeko aukera eskaintzen digun egitura mota batean murgilduko gara, hanhemenka dagoeneko zenbait aldiz aipatu ditugun egitura arazleen itsasoan, hain zuzen.

Batuketa fenomenoetan metropoliaren eta koloniaren arteko mugak ezabatu egiten dira, metropoliaren onurarako eta koloniaren kalterako, noski. Askotan zalantzagarria da benetan mendeko perpausa dugun ere, edo prozesuaren ondorioz, muga ezabatu ostean perpaus bakarra izatera heldu ote garen. Nolabait, aditz nagusiak mendeko aditza fagozitatu badu, prozesuan azken horren ondasun guztiak bereganatuz, indarrean dagoen aditz bakar bat izango dugu, indartsuagoa beste aditz bat sabelean digeritzen daukalako. Era tekniko eta finago batez esateko, batzuetan batuketa prozesu hau begi-bistara ateratzen zaigu, aditz batek mendekoa *inkorporatu* egiten baitu. Kapitulu honetako hasieran txitxeweraren adibide batzuk aztertu ditugu, hizkuntza berberaren barruan, eta ikusi dugunez aditz arazle berak mendeko perpaus beregainak har ditzake edo mendeko aditza irentsi eta berorren argumentu guztiak bereganatu, horrela mendeko perpausa deuseztatuz. Berriro ere errepikatuko ditugu adibideak, bidean zehar ikasitakoarekin gure begiak orain are zorrotzagoak izango direlakoan:

(52) Mtsikana ana-chit-its-a [kuti mtsuko u-gw-e]
neskak 3-egin-ARZ-ASP ezen pitxarra 3-erori-ASP
'Neskak pitxarra erori arazi zuen'

(53) Mtsikana ana-gw-ets-a mtsuko
neska 3-erori-ARZ-ASP pitxarra
'Neskak pitxarra erori arazi zuen'

Lehenengoan erresuma autonomoa da *ugwe* aditzaren inguruan eratzen dena, eta bigarrenean aditz konplexuagoa dugu, *anagwetsa*, euskararen aditz sintetikoak oraindik ere emankorrak balira *zeroriarazien* antzeko zerbait izango litzetekeena: aditz bakarra, aditz bakar bati dagokion morfologiarekin, baina barruan morfema bi dauzkana, *-ets-* 'arazi' eta *-gw-* 'erori'. Euskararekiko hurbiltasuna nabaria da morfologia mailan ere, aditz arazle beregainean, lehenengo adibideko *anachititsa* forman, bai morfema arazle bat *cits-* '-ra-' bai eta *-chit-* 'e...gin' morfema sumatzen baitira! Bestalde, hizkuntza berberaren barruko bi aukera horiek dira, oro har, hizkuntzaz hizkuntza gabiltzala aurkituko ditugunak, hizkuntza bakoitzean 'eragitea' adierazten duen aditzak batuketa eragiten duen ala ez kontuan hartuta.

Baina badago batuketaren ondorio korapilatsu bat. Hobeto ulertzeko jakituriaren iturburu ezin ahituzkoa den Jules Verne-ren lanera jo besterik ez dugu, eta sugarren atzaparretatik askatua izan zen Auda anderearen senarraz apur bat pentsatu. Irakurleak gogoratuko duenez, Auda anderea Bundelkundeko *rajah* "independiente" baten emaztea zen. *Rajah*, berez, "erregea" da, gainera latinaren *rex* hitzaren erroarekin lotuta, baina testuan "printze" tratamendua ematen zaio. Argi eta garbi, garai hartan India Ingalaterraren kolonia zen eta Victoria erreginak ez zukeen bere parean beste inongo erreginarik onartuko. *Rajah* "independiente" horren azpian lekuko kazikea baino ez zen, ingelesen boterea mehatxatzen ez zuenez, kolonia aurreko egoera itxuraz bera zela emateagatik onesten zen kolore ukitua. Zeren nekez onar ditzake erresuma batek erregina bi, ez eta errepublika batek lehendakari bi! Irakurleak oraindik ere ez badio ikusten Verne-ren lanaren pasarte honi gure auzirako argigarri gerta litekeen alderik, pentsa beza perpausen erresuman argumentu bat eta bakarra dela lehendakari, eta hori subjektua dela, noski. Subjektua, perpaus batean dugun argumentu beharrezko bakarra dugu, inoiz ere bikoiztu ezin daitekeena. Badira osagarri bi onartzen dituzten hizkuntzak (hala nola, Indiatik atera gabe, sanskritoera), badira zehar osagarri bi onartzen dituztenak (etxetik atera gabe, euskara bera, marjinalki bada ere *Gurasoek Mikeli jostailua emanarazi didate* bezalakoetan), baina ez subjektu ezberdin bi onartzen dituztenak[22]. Beraz, aditz arazle batekin batuketarik gertatzen ez bada, txitxeweraren lehenengo adibidean bezala, perpausek subjektu bana izango dute, subjektu nagusia *arazlea* eta mendeko subjektua zerbait egitera behartutako *arazia*. Eta batuketa gertatzen bada? Hortxe dago koska: egoera kolonialetan, erreginaordeak, Audaren senarraren antzeko lekuan lekuko *rajah*-txoak eta bestelako txotxongiloak topatzen

baditugu, zer kargu ofizial hartuko du araziak behin arazleak tronutik aldendu ondoren? Subjektuen bakartasunagatik dakiguna da "beheko" funtzio batera mugitu beharko dela, eta hurrengo atalean fortunaren gurpilaren ibiliak eragindako ekintzaren subjektu "logikoa" gailurretik botatzean uzten dizkion beheko funtzio horiezaz arduratuko gara.

****

Funtzio gramatikalen gorabeherak pil-pilean egon ziren 70eko eta 80ko hamarkadetan, batez ere garai hartan garatu zen *Erlaziozko Gramatika*k bere arreta teorikoa funtzio aldaketak inplikatzen zituzten fenomenoetara bideratu zuenean. Harrezkero, teoria horren ekarpena ahitu bada ere, beste teoria batzuetan nola edo hala bereganatu behar izan diren oso analisi intuitiboak proposatu zituzten. Erlaziozko Gramatikarien iritziz, funtzio gramatikalek hierarkia bat osatzen dute, gorenetik beherenera, oso sinplifikatuta ondoko irudian erakusten den moduan:

(54) Subjektua > osagarria > zehar osagarria > adjunktua

Dakigunez, bikoizteko ahalmena hierarkian beherantz goazela handitu egiten da, baina hierarkiaren goiko aldean ezinezkoa dugu bikoizketa. Arazle egoeretan bi perpausetatik bat ateratzen dugunean, araziak, eragindako gertaeraren subjektu logikoak, ezin du bere subjektu funtzioa mantendu, lehentasuna bi perpausetatik goikoaren subjektuak (arazleak) dauka-eta. Orduan, ahalik eta funtzio gramatikal gorena hartzen du. Hizkuntza bakoitzean zer-nolako funtzioa hartuko duen perpauseko osagai kopuruaren arabera izango da. Adibide erraz birekin hasteko, ohartu zein funtziotan agertzen zaizkigun ondoko perpausetako arazleak eta araziak. Lehenengo adibidea berriz ere ketxuera da, bigarrena Afrikako turkanera[148]:

(55) Pay-qa noqa-ta llank'a-chi-wa-n
bera.NOM-TOP ni-AKUS lan.egin-ARZ-1-3
'Lan eragin dit'

(56) k-ɪta-ar-ɪ iyòŋ ayɔŋ̀ à ɛkɪtɔɪ
2-ARZ-hil-ASP zu.NOM ni INSTR zuhaitz
'Kasik hiltzen nauzu zuhaitzarekin'

Bi adibideotan arazia lehenengo pertsonako izenordaina dugu, arazlea lehenengoan *bera* eta bigarrenean isilpean dagoen *zu* direlarik. Agerian dagoen arazlea, ketxueraren *pay* nominatiboan dago, bera baita hizkuntza nominatibo-akusatibo horretako perpausaren subjektua. Baina lan egiten duen gizajoa neu naiz, eta dagokidan izenordaina ohiko osagarrien akusatiboaren kasu markaz agertzen da. Ezin banaiz subjektua izan, nahiz eta oraindik ere lan egiten duena izan, behintzat

hutsik dagoen hurrengo funtzioa hartuko dut, osagarriarena. Badakigu langileburuaren eta langilearen artean nork egiten duen lan eta nork daukan hierarkian ohore handiena. Passepartout batzuetan oztopo baina gehienetan laguntzaile fina izan arren, Fogg jaunak hartu zituen klubean sartzean begirada guztiak. Egia esan, egitura hauetan araziak, funtzio bila dabilenean, badauka non hautatu: zehar osagarririk ez badago funtzio hori ere eskuragarri dauka, hala nola adjunktu funtzioren bat ere. Ohikoena gorena hartzea bada ere, osagarriarena, batzuetan hizkuntzek beste aukerak erabil ditzakete arazlearen eta araziaren arteko presio edo kontrol neurriaren arabera. Esate baterako, hungariera eta japonieraren kasuak dakartzagu ondoren:

(57) a. Az apa hosszú olvastatta a fiá-t
ART aita luzaro irakurri.ARZ.IRAG ART mutil-AKUS
'Aita semeari luzaroan irakurrarazi zion'

b. Az apa hosszú olvastatott a fiá-val
mutil-INSTR
'Aita semeari luzaroan irakurrarazi zion'

(58) Hiroto ga Keiko o/ni ik-ase-ta
AKUS/DAT joan-ARZ-IRAG
'Hirotok Keikori joanarazi zion'

Japonieraz akusatibo eta datibo kasuen arteko aukera eskaintzen zaigu, osagarri eta zehar osagarri funtzioa hartzearen ondorioz, eta hungarieraz akusatiboa zein instrumentala dira hautagaiak. Bi hizkuntzetan akusatiboak arazlearen presio zuzena adierazten du, aitak semea hartu eta besaulkian ordubetez irakurtzera behartu izan balu bezala. Eta, bigarren adibideari bagagozkio, oso ezberdina da Hirotok zuzenean Keikori joateko esatea ala Hirotok esan edo egiten duenaren ondorioz, Keikok joan behar izatea. Bigarren arazte horri *zeharkako araztea* deitzen zaio, eta akusatiboa ez den kasu batekin egoten da lotuta.

Zer gertatuko litzateke eragindako gertaeraren predikatuan dagoeneko osagarria dugunean? Hemen hizkuntzen arteko aldakortasun handiagoa aurkitzen dugu, hizkuntzek osagarriak eratzeko baliatzen dituzten estrategien arabera. Osagarri zuzenak bikoiztea ez da oso egoera arrunta, baina onargarria deneko hizkuntzetan araziak osagarri funtzioa har dezake nahiz eta beste osagarri bat inguruan egon. Osagarri bikoitzeko perpausak nahiko arruntak dira Afrikako hizkuntza bantu askotan, eta horretan txitxewera ez da salbuespena. Bi osagarri izan daitezkeenez, araziak oraindik ere osagarriaren funtzioa har dezake ondoko perpausean:

(59) Catherine ana-kolol-ets-a mwana wake chimanga
Catherine 3-bildu-ARZ-ASP seme bere arto
'Catherinek semeari artoa bilduarazi zion'

Arazia aditzaren ondoan agertzen da, inongo preposiziorik gabe, edozein osagarri agertuko litzatekeen bezala. Gainera, bi osagarri egotekotan bizidunak lehentasuna daukanez, *mwana* da aditzaren ondoko lehenbiziko osagarria, "benetako" osagarria bigarren mailara zokoratuz. Arazia beste edozein osagarri bezala tratatzeko joerak baditu ondorio interesgarriak. Hizkuntza batean, Siberiako alutoreraz esate baterako, osagarri batzuk aditzera inkorpora daitezke (4. kapituluan ikusitako perpaus batuketa baino fagozitazio mugatuago bat!) Orduan arazia ere izan daiteke irentsia[149]:

(60) gəmmə tə-virumka-n-iwl-av-Ø-ək
ni.ABS 1-soka-ARZ-luze-ATZ-AOR-1
'Nik soka luzatzen nuen (=Nik soka luzarazten nuen)'

Hizkuntza ergatiboa denez, subjektuaren (arazlearen) kasuak perpausa iragangaitza dela esaten digu: *soka luzatu da* egituratik hasita, *nik soka luzatu arazi dut* (*luzatu dut* zentzuan) iragankor/arazlea sortzen da, geroago, behean aditzak *soka* bereganatu ondoren, forma iragangaitzera itzultzen garen arte.

Ez ditugu hemen egon daitezkeen kasu posible guztiak arakatuko, baina dagoeneko ezagun itxura izan beharko lukete. Beste datu batzuekin jarraitzeko, ikus ditzagun azken kasu arrunt batzuk. Alutorerarekin jarrai dezagun, aditz iragankor tipiko baten araztea nolakoa izan litekeen ikusteko. Oinarrizko gertaeran osagarri bat badago (eta bikoizketa debekaturik badago), orduan normalean araziak eskuragarri duen funtziorik gorena zehar osagarria da. Hortik dator ondoko adibideko neskatilak duen datibo kasua:

(61) gəm-nan ŋavsqatpilyŋaq-əŋ tə-n-gəjul-avə-tk-ən winnə
ni-ERG neska-DAT 1-ARZ-ikasi-ATZ-OR-3 bide.ABS
'Neskari bidea irakasten (ikasi arazten) diot'

Euskaraz guztiz fosildurik dagoen antzinako arazlea erabat emankorra da egungo alutoreraz, eta atxikitzen zaion aditzaren osagarriak (*winnə* 'bidea') funtzio hori berarentzat gordetzen duenez, neskari ez zaio zehar osagarri bihurtzeko beste irtenbiderik gelditzen.

Arazte mota honek (morfologikoki konplexua den aditz baten bidez eraikitakoak, hortik *arazle morfologiko* deitura), azken finean oinarrizko aditz bati beste aditz bat atxikitzen dio, eragitea adierazten duena. Azken horrek argumentu bat duenez (arazlea), aditz konplexuaren argumentu kopurua berea gehi bat da. Aurreko adibidean bi argumentuko aditz iragankor sinple bati aditz arazlea gaineratzean, hiru argumentuko predikatu konplexua aterako dugu, bere ergatibo, absolutibo eta datibo kasuez markatuta agertuko diren argumentuekin. Baina batzuetan arazoetan sartuko gara sistema sinple horrekin. Hizkuntza gehienetako aditz gehienek zenbat argumentu izaten duten pentsatzen hasten bagara, beharbada, irakurlea ezin asmaturik ibiliko da, baina eskolan euskararen gramatika pitin bat ikasitakoek gogoratuko

dute *nor* aditzak ditugula (argumentu bakarra), *nor-nori* (bi argumentu), *nor-nork* (bi argumentu) eta *nor-nori-nork* (hiru argumentu). Eta horiek izaten dira, argumentu kopuruaren aldetik, argumentu multzo tipikoak. Baditugu aditz iragangaitzak, iragankorrak eta, asko jota, ditrantsitiboak (osagarri bikoitzekoak). Baina orduan arazle morfologikoak eraikitzerakoan argumentu bat gaineratzen badugu, zer gertatuko zaie zorioneko *nor-nori-nork* aditzei? Hiru argumentuei arazlea gehituz gero *lau* argumentu izango ditugu, eta hau ez da aditz sinpleen artean mota tipikoa! Zer egin lau pertsonaia hauekin, Pirandello? Hemen ere hizkuntzek denetariko estrategiak erabiltzen dituzte, *azkena popa ustel!* oihuari erantzungo baliote bezala edo. Batzuetan datibo bi izan ditzakegu. Hau da euskaraz gorago aipatu dugun *Gurasoek Mikeli jostailua emanarazi didate* perpausaren kasua, eta horixe da alutoreraz ere egiten dutena:

(62) Sasa-nak akka-*ŋ* Ø-tə-nnyit-avə-Ø-na kənyiga-w əllaʔ-ə*ŋ*
Sasha-ERG seme-DAT 3-ARZ-bidali-ATZ-AOR-3 liburu-ABS ama-DAT
'Sashak semeari liburuak amari bidaliarazi zizkion'

Baina estrategia hauek, existitzen badira ere, oro har, gorago aipatutakoak baino murriztuagoak dira, nolabait egin behar izatekotan egitekoak. Pentsatu euskarazko adibidea onargarria izan daitekeela, baina alutorerazko adibidearen euskarazko itzulpena gogorragoa dela, seguru asko horrelakoetan askoz gaitzagoa delako igartzea zein datibo den bidaltzearen helburua eta zein arazia. Euskaraz komunztaduran islatzen den bakarra arazia da (bi datibo baditugu, subjektu bat izan zenak nolabait oraindik ere gordetzen du bere estatusari zegokion ohore eta garrantzia!). Beraz, *Mikeli emanarazi didate* esatean argi dago nork eta nori eman. Baina pertsona bereko datibo bi baditugu ezin izango dugu jakin zein den zein: *Mikeli Joni emanarazi diote* askoz opakoagoa da. Ez da harritzekoa, beraz, bikoizteko aukera hizkuntza askotan ez erabiltzea.

Badira hizkuntzaz hizkuntza araziaren funtzio berria ezartzeko arazoari aurre egiteko bestelako estrategiak, hala nola arazi gaixoari adjunktu baten bigarren mailako funtzioa ematea, etab. Baina dagoeneko argi egon behar da zein den egitura arazle edo arazle morfologiko hauen arazoa, hau da, argumentuen inflazioa. Beste aukera biren adibideak ekarriko ditugu mahaira, georgieraz eta turkaneraz topa ditzakegunak. Gure "lehengusu-lehengusin" georgiarrek egiten dutenak badu zerikusia euskarazko azken adibideetan aipatutako zehaztasun batekin: euskaraz datibo bi izatekotan, araziak du lehentasuna komunztadura egitean. Horrek esan nahi du nolabait hizkuntza horietan subjektuekin zerikusi handia duen araziak benetako datiboa baino "datiboagoa" dela, norgehiagoka hasiz gero. Bada, georgieraz, horixe bera dugu, baina datibo bikoizketarik gabe: araziak zehar osagarriaren funtzioa hartzen du eta mendeko predikatuaren datibo logikoa, *helburu* theta-rola duena, beste funtzio bat hartzera behartzen du, ondoko bigarren perpausean ikusten denez (lehenengoa oinarrizko osagarri bikoitzeko egitura da)[25]:

(63) a. dena-d kalaxwem mare-s diar
neska-ERG eman.AOR gizon-DAT ogi.NOM
'Neskak gizonari ogia eman zion'

b. kalaxawodnune dena-s diar mare-š-t'
eman.ARZ.AOR neska-DAT ogi.NOM gizon-GEN-DEST
'Neska behartu zuen gizonari ogia ematera'

Glosak dioskunez, destinatiboa da benetako datibo logikoak jantzi duen kasua. Oinarrizko (a) egituran datiboan zegoen gizajoak ezin du orain funtzio hori eskuratu. Domino teorietan bezala, arazleak araziaren eta helburuaren funtzio aldaketa eragin du. Beste hizkuntza batzuetan nahiago izaten dute auzia guztiz baztertu eta horrela, auziaren osteko problemak eragotzi. Gorago aipatu dugun Kenyako turkaneraz, esate baterako, aditz arazle iragankor arruntak bakarrik sor ditzakete. Horrek esan nahi du aditz iragangaitz bati aditz arazlea gaineratu ahal diogula, bi aditz horiek, argumentu banarekin, argumentu bikoitzeko aditz konplexu iragankor tipikoa sortuko luketelako. Baina aditz iragankor bati ezin diogu gorago ikusi dugun morfema arazlea gaineratu, hiru argumentu izango genukeelako (bi oinarri iragankorrarenak gehi arazlea), eta horiek gehiegitxo dira:

(64) a. ??à-ìte-lep-ì ayɔŋ ŋesi` akàal
1-ARZ-jetzi-ASP ni.NOM bera gamelu

b. à-sub-akɪn-ɪ` ayɔ`ŋ [ŋesi` to-lep-ò akàal]
1-egin-DAT-ASP ni.NOM bera 3- jetzi-ARZ gamelu
'Nik gamelua jezten dut (Nik eragin dut berak gamelu jetzi dezan)'

Lehenengo adibidea arraroa dela uste dute hiztun gehienek, eta hori da, hain zuzen, goragoko estrategiari jarraituz erdietsiko genukeen perpausa. Haren ordez erabili beharrekoa (b) da, eta hor parentesiak jarri ditugu irakurlea berehala kontura dadin perpaus bi ditugula hemen, *gamelua jetzi* aditza orain mendeko perpausean baitago, *eragin* aditz arazle orokor baten osagarri modura. Egitura hauek sintetikoki, hau da, biak bat eginda, eraiki beharrean nahiago izaten dute analitikoki sortu, alegia, argumentuak bi perpausetan banatuta egotea, inongo batuketarik gabe.

Ez gara hasiko egitura arazle hauen guztien kasu eta azpikasuak bisitatzen. Hurrengo atalean emango ditugun xehetasunekin, mintzagai ditugun arazoen adibide polita dugulakoan aztertuko ditugu: mendeko osagarri perpausak batzuetan desagertzeraino batzen dira goiko perpausarekin. Batuketa horren kasu batzuk jorratu ditugu kapituluan zehar, baina egitura arazle hauek mutur-muturreko kasuak ditugu, mendeko perpausaren aztarna gehienak ia desagertzeraino ezabatu baitira. Hurrengo atalean, honelako datuen atzean indarrean egon litekeen parametroaren

inguruko hausnarketa egingo dugu, betiere aldakortasunaren alderdi honi aurre egiteko hizkuntzalaritzak ematen dizkigun lanabesez hobeto jabetzeko.

****

Bada garaia ikusitako aldakortasun honen guztiaren berri nola eman genezakeen argitzen hasteko! Hizkuntzalariek ez dituzte azaltzen arakatutako kasu guzti-guztiak adartxo magiko batekin bezala parametro bakar batez. Intuitiboki kapitulu osoan zehar emandako datuek osagarri perpausen "askatasun" eta "independentziarekin" zerikusia izan arren, ez da erraza hurbilketa intuitibo hau analisi tekniko bakar batean laburbiltzea. Independentzia *continuum* baten moduan imajinatzea argigarria izan liteke, baina continuum hori nekez izan daiteke balio bi besterik onartzen ez dituzten parametroen ondorioa. Liburuan parametroez aritu gara, baina ez dugu inolaz ere aldarrikatu nahi hizkuntzen arteko aldakortasun guzti-guztia parametroen bidez azaldu behar denik —edo azaldu daitekeenik. Ikusiko dugunez, parametroek lekua izan badute gure azalpenean... beste aldakortasun iturburu batzuekin batera.

Kapitulu honetan zehar ikusi eta ikasitakoarekin, bidaian irabazitakoarekin, hasieran aipatu dugun auzia errepikatzeko garaia da: batuketa, edonolakoa izanda ere, fenomeno sintaktikoetan oinarriturik egon behar da, ez itxuraketa ortografikoan. Aurreko atalean, egitura arazle "morfologiko" asko ikusi ditugu, bi aditzak hitz ortografiko bakar batez idazten diren motakoak. Gure irakurle askok sinpleki esango lukete hitz bakarra dugunez, perpaus bakarra dugula, beraz, inongo batuketarik gabeko egitura bakuna. Are gehiago, kapitulu honetatik atera beharko genituzke datu horiek, mendeko perpaus bat bera ere ez dago-eta! *Hitz bat, perpaus bat* jarrera horri aurre egiteko eta jokoan egon litezkeen egitura eta parametroak identifikatzeko, ikus ditzagun orain, laburki bada ere, inguruko hizkuntzetako egitura arazleak, bi aditz beregainen bidez argiro eraikitzen direnak. Gure helburua da erakustea bi hitz izan arren batzuetan aditz bakarreko egitura arazle morfologikoetako ezaugarri berberak dituztela, bestetan guztiz ezberdinak diren bitartean. Beraz hitz bat edo bi egoteak ez digu aldez aurretik adierazten zer-nolako egitura izango dugun, eta analisia halabeharrez kapituluan zehar ikusitako fenomenoetan oinarritu beharko da.

Hizkuntza erromantzeetako aditz arazlea *hacer/faire/facere* izaten da, infinitibo batekin elkar daitekeena:

(65) Juan le hizo comer las alubias a Pedro

Utz dezagun batetik *le* klitikoaren kokapena, goian aipatu dugun fenomenoa, izenordain bihurkarien inguruko bestelako ebidentzia bat plazaratzeko. Izenordain bihurkarien aitzindaria (euskarazko *bere burua* edota gaztelaniazko *se* izenordainei

erreferentzia ematen dien osagaia) perpaus berean egoten da. Horregatik ondoko adibidean *se*-ren erreferentea *María* izan daiteke, baina ez *Juan*, *María* mendeko perpaus berean dagoelako, *Juan* perpaus nagusian dagoen bitartean:

(66) Juan$_i$ cree que María$_j$ se$_{*i,j}$ dio un golpe

Eta antzera gertatzen da mendeko perpausean infinitiboa den zenbaitetan. Ezberdinak dira honetan hasierako eta azken adibideak[26]:

(67) a. Juan$_i$ se$_i$ hizo afeitar
b. Juan$_i$ se$_i$ quiere afeitar
c. Juan$_i$ se$_i$ empezó a afeitar
d. Juan$_i$ se$_i$ necesita afeitar
e. *Juan$_i$ se$_i$ odia afeitar
f. *Juan$_i$ se$_i$ confía afeitar (a tiempo)

Badirudi azken bi adibideetan izan ezik *afeitar* aditzaren osagarria eta *Juan* perpaus berean daudela beste guztietan. Nabarmentzekoa da *se*-ren erabilera hau onesten duten aditzak direla, hain zuzen ere, ohiko klitikoen igoera onartzen duten berberak:

(68) a. Juan lo hizo traer
b. Juan lo quiere traer
c. Juan lo empezó a traer
d. Juan lo necesita traer
e. ??Juan lo odia traer
f. ??Juan lo confía traer (a tiempo)

Ondorioz, nahiz eta adibide guztietan bi aditzek bi "hitz" beregain osatu, batzuetan egitura perpaus bakarrekoa balitz bezala portatzen da, eta, bestetan, bi perpaus bilduko balitu bezala. Gainera, araziaren kasuak, gaztelaniaz nahiko konplexua denak, italieraz badu goiko hizkuntza exotikoagoetan aurkitutako funtzioa —osagarri zuzena batzuetan eta zehar osagarria bestetan—, dagoeneko nahiko ezaguna den ereduari jarraituz:

(69) a. Maria ha fatto laborare Giovanni
b. Maria ha fatto riparare la macchina a Giovanni

Ezaguna, ezta? Giovanni, antza denez langile mekanikoa dena, osagarria da (a)-n eta zehar osagarria (b)-n, gorago aditz arazle konplexuetan argumentu arazietan ikusitako banaketa berberarekin. Bi aditzez idazten denak badu aditz bakar baten jokabidea! Idazkeratik, hortaz, ezin dugu egitura zuzenean igarri. Era berean, eta kontrako kasuan, *joan arazi* (edo *joanarazi*!) ikustean ezin zuzenean esan perpaus

bakarra ala bikoitza dugun. Azken finean, Axularrek banatuta idazten zituen ('*Eta hetan [piramideetan] trabailla arazitzen zituen Faraonek bere azpiko iende hek*'), eta guk... hainbestetan aldatu ondoren, ez dakigu jadanik nola idatzi!

Ez dugu zalantza handirik, batuketa fenomenorik erakusten ez duten perpausen kasuan, mendeko egitura nolakoa izan daitekeen, betiere hizkuntzalaritzan askotariko formalizazioak egin badaitezke ere. Ikuspegi sortzailean, beregainak diren mendeko osagarriak, KONPS edo INFLS dira, egitura osoko perpausak. Beraz, euskararen *-la* osagaiak, gaztelaniaren *que* osagaiak, bai eta batuketarik gabeko infinitiboak ere (*odiar traer* gaztelaniaz, edo goragoko *ematen saiatu* formak euskaraz) mendeko perpaus arruntak dira. Arazoa inon egotekotan batuketa aztarnaren bat erakusten duten perpausetan dugu. Has gaitezen infinitibo erromantze eta euskarazko *-tzen* kasu tipikoekin, ondoko adibideetan inpertsonal luzea (kapitulu hasierako batuketa ezaugarrietariko bat) onartzen dutenak:

(70) a. Se empezaron a oir los gritos
b. Oihuak entzuten hasi ziren

Analisi gehienak ados daude batuketa osagarri hauek nolabait perpaus antzeko egitura murriztuagoak direla. Beste hitz batzuetan esanda, perpaus askeak osatzeko beharrezkoak diren sintagma batzuk falta zaizkie, KONPS eta INFLS sintagmekin hasita.

Laguntzaileen eta batuketa eragileen arteko ezusteko hurbiltasunari erreparatu diogu aurreko atal batean. Laguntzaileak itxuratzeko hizkuntzalari askok erabiltzen dituzten zuhaitz egiturak ere eman ditugu, eta hau lagungarri izan dakiguke batuketaren datuak ikuspegi parametriko batetik interpretatzeko. Batuketa sortzen duten aditzak eta aditz laguntzaileak antzekoak izan litezke biak antzeko egituretan agertzen direlako, eta areago, biek antzeko osagarriak hartzen dituztelako. Ondoren gorago aditz laguntzaileetarako erabili dugun zuhaitz bera errepikatuko dugu, oraingoan aditz batuketa irudikatuz:

(71)



$A_{batuk/lag}$ gunean batuketa sorrarazten duen aditza edo aditz laguntzailea jar ditzakegu. Alderik garrantzitsuena da aditz horrek beste AS bat hartzen duela: konfigurazio bera izango dugu laguntzaileetarako eta batuketa eragiten dutenetarako.

Hortik datoz egitura hauetako ezaugarririk nabarmenenak: subjektu bakarra izatea, aditz biko perpaus bakun baten antzeko animalia izatea, mendeko aditzaren argumentuak goiko aditz(nagusi)aren flexioan markatzea, etab.

Hizkuntzalari asko, era batera ez bada bestera, honekin pozik egon badaitezke ere, ika-mika sortzen da egitura hau nola lortzen den azaltzerakoan[27]. Batzuen ustez, honelako osagarri erraztuak hartzen dituzten aditzek dauden-daudenean aukeratuko lituzkete hasieratik, ohiko osagarri osoak (KONPS edo INFLS) hautatzen dituzten bestelako aditzek ez bezala. Beste batzuen ustez, berriz, aditz guztiek osagarri osoak hartuko lituzkete hasieran, baina horietako zenbaitetan, batuketa prozesu baten ondorioz osagarri egitura sinpleagoak sortuko lirateke. Hau da, egitura erraztuak hasieratik egon litezke —lehenengo ikerbidea— edo prozesu batek eratorriak izan litezke —bigarren ikerbidea. Ohi bezala, ildo bakoitzak badu zer galdu eta zer irabazi. Lehenengo bidearen irabazia inongo prozesurik behar ez izatea da, eta horrek gramatika sinpleago bat dakar, beraz, hobea, zientzian sinpletasuna bertutea da-eta. Galera, oso antzekoak diren osagarri motak (esate batera, hizkuntza erromantze edo germanikoetako infinitiboak) bi taldetan sartu behar izatea da. Bigarren bidearen irabazia osagarri guztiak hasieran berdinak izatea da, aditz nagusien osagarrien hautaketa erraztuz. Eta galera, aditz horietarik batzuetarako prozesu berezi bat behar izatean datza. Konplexutasuna osagarri-hautaketan edo gramatikaren prozesuen inbentarioan kokatu behar da, bata erraztean bestea zamatu egiten da-eta.

Oso modu orokorrean eta inongo zehaztasunik gabe aipatu dugu batuketa fenomenoei bidea ematen dien "prozesua", bigarren ikerbidean proposatzen dena. Eta hori bi arrazoirengatik. Lehenengo eta behin asko eta asko direlako, ia ikertzaileak beste! Bigarrenik, sakontasun teknikoetan ez murgiltzeagatik. Gainetik bada ere, batzuk aipatzea merezi du, batez ere batuketaren mutur batean dagoen aditz arazle morfologikoen analisia aipatzeko aukera ematen duelako. Beharbada ekarpen gehien izan duen proposamena Luigi Rizzi-k 70eko hamarkadan asmatu zuen *ristrutturazione* edo *berregituraketa* azterbidea da. Izenak dioen moduan, aditz batzuen ezaugarria egitura aldatzeko ahalmena izango litzateke, perpaus aske baten eremua sortzen duten kategoriak (KONPS, INFLS) ezabatuz. Aldaketa honen ondorengoa gure (71)-ko egitura erraztua izango litzateke, perpaus bakar baten izaera duen egitura. "Baina horrelakorik egin daiteke?" galdetuko du irakurle batek baino gehiagok. Eta arrazoi osoz galdetu ere: honelako prozesuak onargarriak balira gramatikan, denetarik aurkitzea espero genezake. Honetan, administrazio leihatiletako funtzionarioak bezalakoak izan behar gara: batentzat onartzen badugu, guztientzat onartu beharko genukeenez, hobe dugu eskaerari ezetz esan, eta gramatikan horrelakorik ez onartzea.

Badago beste modu bat, hala ere, bi perpausak elkartzen dituena eta beraz, bilatutako ondorioak lor ditzakeena, baina egituran mozketarik egin gabe. Eta, hain zuzen ere, hori da Baker-ek, hemen hainbestetan aipatutako hizkuntzalari fina,

egitura arazle askotarako proposatu zuen bidea. Analisi honetan, gramatikan beste askotan ikus daitekeen prozesu batez balia gaitezke: buruz buruko mugimenduaz, alegia. Baliteke hizkuntza batzuetako aditz batzuek mendeko perpausaren aditza bereganatzeko mekanismoa martxan jartzeko modua izatea, eta bereganatze hori gramatikan zilegi diren mugimenduez gauzatzea:

(72)



Zuhaitzean mendeko aditzaren bidaia itxuratzen da, buruz buruko mugimendu batez goiko aditzarekin elkartu arte[28]. Garai hartako teoriaren barruko ondorioa nahi duguna da: KONPS eta INFLS sintagmek ez lukete orain inongo hesi gogorrik izango goiko aditzaren indar eremurako (gobernu eremua, artean esaten zenez), batuketaren zantzuak sortuko lituzkeena (komunztadura, klitiko mugimendua, etab.). Proposamen hauek ez ziren hitz konplexu bakarreko egitura arazleetarako bakarrik egin, bi hitzez osatutako infinitiboetara ere aplikatu ziren. Esan dugun bezala, bai datu zehatzek bai eta norberaren aukera teorikoek erabakitzen dute hitz konplexuak eta aditzen sekuentziak elkartutako buruak bezala ala guztiz aditz beregain bezala aztertu behar diren. Gainera, teoria hauetan mugimenduak ageriko zein ezkutukoak izan daitezkeenez begi-bistan dugunetik nahikotxo aldentzen diren analisiak proposa daitezke!

Nola ematen dute analisi hauek hizkuntzetan nabaritzen den aldakortasunaren berri? Eta bereziki, parametro aukerarik sor lezake aldakortasun horrek? Arretaz begiratzen baditugu aurreko proposamen batzuk, ezin esan parametro baten lana dagoenik haien atzean. Behintzat zentzu interesgarri batean, hau da, parametroak denetariko fenomenoen berri ematen duten aukera orokorrak badira. Oso bestela, analisi hauetan ikusten duguna da, alde batetik, analisi batzuetan, aditz zehatz batzuek osagarri mota berezi batzuk hartzen dituztela (AS osagarriak vs. KONPS osagarriak), eta beste aldetik, beste analisietan aditz horiexek mendeko aditzen mugimendu bat eragiten dutela. Azken finean aditzen ezaugarri atipikoak, aditz horien bestelako informazio lexikalarekin batera ikasi behar direnak. Eta kapituluan

zehar arakatutako fenomeno askoren berri emateko badirudi egituran egiturako aukera espezifikoak ditugula jokoan, ez inongo parametrorik.

Baina batuketa fenomeno batzuek badute zerikusirik han-hemenka aipatu dugun parametro batekin: Baker-en beraren Polisintesiaren Parametroa. Hizkuntza batzuetan osagai askotan zehar banatzen diren gertaeraren partaide eta ñabardurak, beste hizkuntza batzuetan aditz bakar batek bereganatzen ditu. Ez da arraroa, beraz, hemen arakatutako batuketa eragile esanahi horietako batzuk pilatu ahal izatea, ondoko adibideetan ikusten dugun bezala. Ketxuera oso hizkuntza sintetikoa da, gertaera adierazten duen aditzak denetariko atzizkiez marka baitaiteke modalitatea, aspektua eta beste hizkuntzetan aditz/perpaus ezberdinen bidez adieraziko liratekeen bestelako modulazioak gaineratzeko. Dagoeneko irakurleak modulazio horiek identifikatzeko gai izan beharko luke:

(73) a. apa-ri-ysi-wa-y
eraman-INK-lagundu-1-IMP
'eramaten lagundu nazazu/iezadazu'

b. wañu-naya-či-wa-n
hil-nahi-ARZ-1-3
'hil nahi nau'

Lehenengoan "inkoatiboak" ekintzaren hasiera adierazten du (pentsatu gaztelaniazko *incoar un expediente* euskaraz 'espedienteari hasiera eman; hasi' dela), hau da, itzulpenean zuzenean islatu ez dugun *hasi*ren antzeko aspektua. Batuketa eragileek badute, beraz, atzizki morfologiko gisan agertzeko joera. Hizkuntzalaritzaren lelo ezagunak dioenez, «gaurko morfologia atzoko sintaxia da», eta predikatu eragileak izaten dira sintaxian aske egotetik morfologian atzizki lotuak izateko bidean abiatzen arinenetarikoak.

Sarrera liburu honetatik at gelditu beharko dira bai batuketaren datu eremu zabalegia bai eta ulertzeko proposatu diren aukera tekniko ugariak. Hemen garrantzizkoa dena da aldakortasunaren azpiko funtsezko batasunaz eta hurbilketa parametriko baten nondik norako orokorrez jabetzea. Seguru asko kapitulu honetan mendeko perpausen artean aurkitu ditugun egoerak era askotakoak izan daitezke, kasik perpaus nagusien antzeko askatasuna dutenetatik beren perpaus izaera galtzeraino ezabatu direnetara. Perpausen arteko mugak estatuen arteko mugen antzekoak dira ere: batzuk nekez zeharka daitezke, beste batzuetan pertsona trafikoa zilegi da, eta beste batzuetan gure mapetan jartzen dugun puntu-marra-puntu-marra lerro hori desagertu egiten da. Denetariko egoerak eta seguru asko parametro bat baino gehiago jokoan. Baina aldakortasun izugarri honetan, gure irakurleek bezala, murgiltzeko parada izan dutenak laster ohartzen dira bai fenomenoak bai eta fenomeno horiek pizten dituzten aditzak nahiko antzekoak direla. Berriro ere, aspaldidanik ezagutzen denaren antza hartzen diegu garapen sintaktiko eta morfologikoei, bai eta garapen horietan parte hartzen duten predikatuei ere. Ezin esan benetan ondo

ulertzen denaren eguzki distiratsuak aldakortasunaren ilunpeak argitzen dituenik, baina, behintzat, apur bat ezagutzen dugunaren argizariaz hornituta, ozta-ozta bai, baina inolaz ere itsu-itsuka, bidea erdikus dezakegu.

---

1. Behin baino gehiagotan aurkitu ditu, eta aurkituko ere, irakurleak txitxeweraren datuak liburu honetan, S. Mchombo eta M. Baker-en lankidetzatik datozenak. Baker (1988) liburutik hartu ditugu arazleei buruzko hizkuntza honetako datuak.

2. Choi-ren (2003) lanetik atera dugu adibidea.

3. Ingelesez ere *He says his father is a teacher* esan daiteke, mendekotasun markarik gabe. Baina hemen argi dago horren atzean hautazkoa den *that* menderagailu bat dagoela. Hautagarritasuna, askoren ustez, ahoskatzean dago, ez benetan existitzean. Egon badago, baina batzuetan ez da ikusten. Txineraren kasuan egon ere ez dago.

4. Tarianaren datuak Aikhenvald-ek (2000: 161) hizkuntza honen iragankortasun fenomenoak deskribatzen dituen lanean daude.

5. Adibideen iturriak: fijierarako, Dixon (1988) eta ketxuerarako Cerrón-Palomino (1987). Nominalizazioen ikuspegi tipologiko orokor bat izateko, ikus Koptjevskaja-Tamm (1993).

6. Besteen esanak errepikatzeko, aipamen zuzena egiten da normalean; beraz, predikatu mota hauetan ere, ez ditugu aurkituko perpaus nagusien antzekoak diren osagarri denboradunak.

7. Hemen euskararen egoera apur bat aparta da, gure nominalizazioetako argumentuek perpaus nagusietan izango luketen kasu marka gordetzen baitute.

8. Badirudi batzuetan oraindik ere aditz sintagma bat daukagula. Baina normalean AS bati denbora eta inflexio sintagma tipikoak gaineratzen badizkiogu perpaus egitura sortzeko, nominalizazio askotan goiko sintagma horiek izenen inflexioarekin dute zerikusia, denbora hizkuntza askotan desagertzen delarik. Hizkuntza eta egituren arteko aldakortasun gehiena perpaus eta izen sintagma tipikoen arteko orekan datza. Euskaraz subjektuek perpauseko subjektu tipikoen kasua hartzen dute, kasuaz arduratzen den perpaus egitura hor dagoelako seinalea. Baina ingelesez genitiboan agertzen dira subjektuak, beharbada inflexio sintagmak perpausenak direlako, ez izenenak.

9. Oso deitura labankorra da hau. Ingelesez gerundioak egiturak dira, ez forma gramatikalak: gerundio guztietan *–ing* aditz formak badituugu ere, *–ing* aditz forma guztiak ez dira gerundioak. Egituraren aldetik oso ezberdinak dira *John riding that bike* gerundioa eta *John's riding of that bike* nominalizazioa. Gaztelaniaz gerundioa aditzaren forma bati deitzen zaio.

10. Kenesei eta Ortiz de Urbinaren (1994) lanetik datoz datuok, suedierarenak Kersti Börjars-i esker.

11. Datuak Thraínsson-engandik (1990) hartu ditugu

12. Ohartu goragoko salentinoeraren adibideetan ez bezala honako adibideetan ez dela *ku* menderagailu subjuntiborik agertzen. Arhonto Terzi-k (1994) erakusten duenez, klitikoa behean gelditu behar da baldin eta menderagailu hau agertzen bada:

(i) *Lu voggyu ku kkattu
hura nahi.1 SUBJ erosi.SUBJ.1
'Erosi nahi dut' ('Eros dezadala nahi dut')

13. Badaezpada, konturatu ezezko aditz nagusi bat izateak ez duela nahi eta nahi ez suposatzen mendeko osagarri perpausak *–rik* marka hartu behar duenik. Beraz, onargarritasunik eza ez dator hemen *–la* erabiltzetik, *ezer* osagaiak agertu ezin duen eremu batean agertzeagatik baizik..

14. Chomsky-rekin izan zuen eztabaida famatuenetariko bat izan zen. Garai hartako teoria sortzailean nekez onar zitekeen argumentu baten funtzio gramatikala aldatzen zuen prozesu bat, eta bestelako irtenbideak proposatu ziren funtzio aldaketa hau saihesteko. Gehienetan bezala (baina,

interesgarriagoa dena, ez beti), Postal-en datuak funtsezkoak ziren eta akatsa teorian zetzan. Oraingo minimalismo sortzailearen ezaugarri teknikoek posible egiten dute berriro ere subjektutik osagarrirako aldaketa hau.

15. Badago *subject-to-subject raising* deitzen den beste igoera, ingelesez *seem* aditzarekin gertatzen dena (*John seems to have arrived late*). Luze eramango liguke horrelakoetan goiko subjektua benetan mendeko perpausetik datorrela frogatzeak, eta irakurleari frogarik gabe sinestea eskatuko diogu. Edozein modutan ere, gure hemengo auziaren aldetik garrantzizkoa dena da ingelesez eta igoera aurkitu izan den beste hizkuntzetan ere mendeko perpaus jokatugabe batzuetan gertatzen dela. Horregatik euskarazko antzeko adibideak (*Jonek badirudi eritetxean dagoela*) susmagarriak dira. Ikusi, hala ere, Artiagoitia (2001).

16. Honek baditu ondorio diakronikoak: hizkuntzen garapenean askotan aditz autonomo bezala hasten den zerbait laguntzaile edo inflexioa izateraino nahasten da beste aditzarekin. Ingelesaren geroaldia aditz laguntzaile batez markatzen da *will*, garai batean 'nahi izan' zentzua zeukan aditz nagusia zena. Era berean, gaztelaniaren *comerán* azpian badago (*h*)*an* (*de*) *comer*, beharraren eduki modala zuen *haber de* aditz perifrasiaz eraikitakoa; eta, noski, euskarazko *jango/janen dute* azpian horixe bera dugu! Pentsatu gaur egun ere, lagunei zer edango duten galdetzeko askotan *Zer hartu behar duzu?* antzeko zerbait ahoratzen dugula; argi eta garbi, beharra gabe, gerora egiteko zerbait da, beraz etorkizunaz ari gara.

17. Euskararen kasuan ere, askori iruditu zaio *ari* laguntzaile antzeko zerbait. Badaude, hala ere, batuketa eragiten duen aditz normal bat bezala tratatzeko argudioak. Ikusi Hualde eta Ortiz de Urbina (1987).

18. Rizzi-ren (1976) oinarrizko artikulutik datoz datu hauek.

19. Lafitte (1962: 350).

20. Lafitte (1962: 223,255). Beheragoko Mitxelenaren adibide famatua *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak VI* bilduman dago, 153. orrialdean.

21. Honelako komunztadura erakarpen fenomenoa, egiten diren hutsen ikuspuntutik ere ikertzen da. Ikusi, esaterako, Frank, Lassi, Frauenflder eta Rizzi (2006), non hiztunek komunztadura truke xelebre hauek –Mitxelenarenak bezalakoak– noiz eta nola egiten dituzten ikertzen baita.

22. Semantika eta sintaxiaren aldetik egia da hau. Baina litekeena da, noski, bi aldi hauek elkarrengandik aldentzea. Ingelesez *There are two kings in this country* esaten denean subjektu semantiko bat daukagu, bi erregeak, bere komunztadura eta guzti, baina subjektu sintaktikoa *there* da, bai subjektuen lekua bai eta beste ezaugarri sintaktikoak berak baitauzka.

23. Turkaneraren datuak Dimmendaal (1983) liburutik hartu ditugu.

24. Alutoreraren adibide interesgarri hauek Koptjevska-Tamm eta Muravyova (1993) artikuluan aurki daitezke.

25. Georgieraren datu hauek Dixon hizkuntzalari famatuak plazaratu zituen Aikhenvald-ekin batera argitaratutako liburuan (Dixon eta Aikhenvald, 2000).

26. Arazlea aitzindaria izateko beharrezkoa da, baina, arazia ez aipatzea, bestela *le* erabili behar baita (*se* araziari legokioke orduan):

(i) Juan$_i$ le hizo a Pedro$_j$ afeitarle$_i$/se$_j$

Ohartu, hala ere, *se* ezin daitekeela aditzaren ezkerretara agertu, testuko perpausetan ez bezala.

27. Aukera eta analisien oso laburpen ona egiten du Susanne Wurmbrand-ek (2001).

28. Baker-ek lan egiten zuen teoriaren ezaugarriak direla eta, bere analisian (beste hizkuntzalarienetan ez bezala) ezinezkoa zen mendeko KONP burutik pasatzea, eta hori zilegiztatzen zuen aurreko beste mugimendu bat behar zen, mendeko AS osoa KONP horren espezifikatzaile gunera eramaten zuena. Zehaztasun hauek hala nola antzeko proposamenen arteko ezberdintasun teknikoak, gure liburu honen eremutik at gelditzen dira. Berriro ere, Wurmbrand-ek (2001) proposamen guztien oso laburpen argigarriak eskaintzen ditu, eta hara jo lezake argibide gehiago nahi duen irakurleak.

Non erakusten den zer berri dugun esan baino lehenago, zertaz ari garen adierazi behar dugula

VII. kapitulua

Seguru asko ez dizkiogu irakurleari ezusteko mundu berriak irekiko, gehienetan, hizkuntzak askotariko gaiei buruzko iruzkinak egiteko erabiltzen direla aldarrikatzen badugu. Perpaus mota markatuagoak (aginduak, galderak, erreguak, etab.) momentuz alde batera uzten baditugu eta baiezko perpausetara hurbiltzen bagara, denetariko gaien inguruko informazioa ematen diogu elkarri gizakiok, dela Salamancako txorizoaz ari bagara, bizi xamarra dela esateko; dela ezkontzak prokreazioa helburu daukala esateko; dela ideia hau lizuna dela baieztatzeko. Giza informazio eraketaren ezaugarri honek badu nolabaiteko islapena informazio hori bideratzeko eratzen ditugun egituretan. Azkeneko perpaus horri (*Ideia hau lizuna da*) begiratzen badiogu, esate baterako, lehenengo eta behin zertaz ari garen aipatzen dugu (*ideia hau*, gure mintzairaren gaia edo *mintzagaia*) eta, ondoren, horren inguruko iruzkina zehazten dugu (*lizuna da*). Gaztetan ikastetxeetako gramatika eskoletan ikasitako apurraz gogoratuz gero, seguru asko konturatuko ginatekeen mintzagai/iruzkin zatiketa hau garai hartako beste zatiketa batetik hurbil dagoela, subjektu/predikatu zatiketatik, hain zuzen:

(1)	<u>ideia hau</u>	<u>lizuna da</u>
	mintzagaia	iruzkina
	subjektua	predikatua

Eta egia da ohiko egituraketan subjektuek gure solasaren gaia plazaratzen dutela normalean, predikatuek berriketari gure aportazioaren muina zehazten dutelarik. Izenek beraiek (*subjektua* eta *predikatua*) honen adierazgarri dira. Euskaraz ere, *subjektu* hitza, ingelesez eta frantsesez bezala, solasaren gaia adierazteko erabili izan da, Pierre Topet Etxahunen ondoko bertsoetan bezala:

(2) Egün Barkoxen beita
Libertitzeko besta,
Bi berset khantatzen dütüt, soniareki aldika,
Jaun erretorak emanik beitüt hoien süjeta.

"Jaun erretorak", zeharbidez edo, haren gainean bertsotan hasteko "puntua" eman zion, ez inongo funtzio gramatikalik. Eta *predikatu* hitzak jaun erretoreek elizan ezkontzaren helburuaz disertatzean egiten dutena izendatzen badu ere, bere oinarrizko zentzuan gai batez zerbait esatea besterik ez da. Beraz, funtsezko termino gramatikal hauen azpian badaude informazio eraketarekin zerikusia duten kontzeptuen aztarnak. Kasu normaletan, informazio isuria antolatzerakoan, lehenengo eta behin gaia aipatu ohi da, jarraian horri buruzko iruzkina predikatuaren bitartez adierazteko.

****

Hizkuntza gehienetan aurkitzen dugun subjektu-predikatu hurrenkera, beraz, oso ondo egokitzen da gizakiek gure informazioaren isuria eratzerakoan jarraitu ohi dugun mintzagai-iruzkin hurrenkera islatzeko. Informazio eraketa ez da berez eremu linguistikoa, eta badu zerikusirik gizakien bestelako sistema sinbolikoekin, baina ekonomikoa da oso gure egitura gramatikalak zuzenean parekatu ahal izatea kanpoko beste sistema horrekin[1]. Ez dakigu bi sistemek "hizkuntza" bera erabiltzen duten, baina, behintzat, argi dago bat-bateko itzulpena errazagoa dela egitura gramatikalak eta egitura informatiboak bateragarriak badira. Are gehiago, beharbada subjektu-predikatu hurrenkera neutroa hizkuntzaz kanpoko beste sistema honek gramatikari (edo gramatikaren parte honi) ezartzen dion "ulergarritasun" baldintzaren antzeko zerbait da. Hizkuntzaren bidez informazioa elkarri pasatu nahi badiogu, eta hiztunek elkar ulertuko badute, hobe dugu lehenengo eta behin gramatika eta informazio eraketa sistemak bateragarriak izatea: haiek ere ulertu behar dute elkar!

Edozein modutan ere, eremu honetan hizkuntza gehienetan (guztietan ez bada) espero izatekoa da antzekotasunekin topo egitea. Baliteke azpiko batasun honetarako joera, gramatikak "kanpoko" informazio sistemarekin bat egin beharrarekin lotuta egotea; ikerbide interesgarri eta zaila bada ere, hizkuntzalari askoren helburuen artean hizkuntza eta beste jakintza sistemen arteko lotura argitzea da. Hurrengo kapituluan ikusiko dugunez, batasunaren arrazoien artean, Gramatika Unibertsalaren ezaugarriez gain, beste jakintza sistemekiko lotura bideratu eta erraztea ere bateragarritasunaren aldeko indarra izan liteke. Baina, "kanpora" joan behar izan gabe, subjektu-predikatu hurrenkeraz ari garenean ere, Gramatika Unibertsalak berak aukerak eskaintzen dizkigu, hasieran harrigarriak gerta litezkeen "bitxikerien" iturburu direnak. Ikus ditzagun segituan 2. kapituluan deskribatu ditugun Subjektu/Osagarri/Aditz osagaien artean litezkeen hurrenkerak, informazio isuria eratzearen ikuspuntutik. Gogoratu perpaus iragankor baten hiru osagai nagusiak (S/O/A) elkartzean sor litezkeen 6 hurrenkeretatik 2 direla sarrien aurkitzen ditugunak (SOA/SAO), hirugarrena (ASO) askoz gutxiagotan topatzen dugula, eta beste hirurak (OSA/OAS/AOS) guztiz urriak (eta, aurkitzen omen direnean, zalantzagarriak ere) direla. Argi eta garbi, hitz hurrenkeraren hiru teno-

reak SOA/SAO/ASO dira. Hiru tenoreak beren ahaide pobreagoekin alderatzen baditugu, berehala ohartzen gara bi taldeak banatzen dituen ezaugarria subjektu eta osagarriaren arteko hurrenkera dela. *Top three* hurrenkeretan subjektua osagarriaren aurrean agertzen da, hau da, S-O, beste hiruretan O-S topatzen dugu. Hiru tenoreekiko alderaketa bertan behera laga beharko genuke orain, inoren sentimenduak ez mintzearren, behin eta berriro esan baitugu hiru horietako bi direla nagusi eta buruzagi: SAO eta SOA. Kanta ezagun hori parafraseatuz, *Tenoreetan bürüzagi, SAO/SOA kantari*. Subjektua osagarriaren aurretik kokatzeaz gain, bi hurrenkera hauek, AOS hurrenkerak ez bezala, subjektua perpausean lehen-lehenik dutenak dira. Honetaz jabetuz gero, ez da zaila datu hauek informazio eraketaz dakigunarekin lotzea: subjektuak mintzagai neutralak badira eta iruzkina baino lehenago aipatzen badira, mintzagai/iruzkin erdibiketa hobekien islatzen duten hurrenkerak S/AO zein S/OA izango dira. Beraz, gramatikaren parametro batek predikatuaren barruko AO eta OA lerratzeak zilegiztatzen baditu, informazio sistemarekiko elkargune betebeharrengatik, subjektuak predikatua baino lehenago, hots, ezkerretarago, agertu beharko du, balizko bestelako hurrenkerak baztertuz.

****

Oso ondo, esango digute irakurleek, baina, zer esan orduan printzipioz bai mintzagaia eta iruzkina bai subjektu eta predikatu erdibiketaren aurrean hain ezustekoa den ASO hurrenkeraz? Nola da posible gramatikak honelako sistema bat sortzea informazio eraketarekin hain txarto egokitzen bada? Non dago iruzkina-predikatua banaketa bretoieraren ondoko perpausean?:

(3) Ne lenn ket Anna al levr
ez irakurri ez Anna DET liburua
'Annak ez du liburua irakurtzen'

Baten batek pentsa lezake mota honetako hizkuntzak urriak direla oinarrizko banaketa hori "ez errespetatzeagatik", hain zuzen ere. Baina informazio erdibiketa neutral (eta unibertsal) hori "urratzea" ezin da azalekoa baizik izan: gizakiez dakigunarekin, oso harrigarria izango litzateke honelako hizkuntzen hiztunengan informazio eraketa neutralekiko "berezitasun" apartak aurkitzea. Xelebrea izango litzateke hau, munduko txoko batzuetan, elkarren arteko loturarik izan gabe, hiru begidun gizakiak aurkitu direla aldarrikatuko balute bezala. Zoritxarrez, hizkuntzalaritza biologia baino askoz atzerago dago bere garapenean, eta oraindik ere "unibertsalak" eztabaidagarriak direnez, aurreko metafora ere ez da guztiz egokia. Baina unibertsalak serio hartzen baditugu, bestelako norabideetan barrena abiatu beharko gara ASO hurrenkerarentzako azalpen bila.

Egia esan, badago informazio egitura bere hartan, ukitu gabe, uzten duen beste azalbide bat. Gogoratu perpausetik sintagmetara "jaisten" bagara (izen sintagma,

adposizio sintagma, etab.), ASO hizkuntzen osagaien hurrenkerak SAO mota tipikoak direla. Bestela esanda, ironikoa badirudi ere, ASO hizkuntzak oso SAO hizkuntza tipikoak dira. Eman dezagun, beraz, sakonean SAO dugula bretoieran eta azaleko ASO beste hizkuntzetan. Eta are, eman dezagun SAO hizkuntza tipiko horretan aditz mugimendu prozesu gramatikal bat ezartzen dela askotan. Behin aditza ezkerretara eraman ondoren, ASO hurrenkera lortzen dugu, hasierako mintzagai-iruzkin hurrenkera apur batean ezkutatzen duena. Ondoan itxuratzen dugu balizko prozesu hori:

(4) Aditza Subjektua [- Osagarria]$_{AS}$

Prozesu hau aditza eta inflexioa elkartzeko modu posible batetik sortuko litzateke[2].

Baina, noski, azalbide hau benetako azalbidea izateko oraindik zertxobait gaineratu beharko da, ASO mota zergatik den hain urria ulertzeko, hain zuzen. Hemen, gutxienez, bide bi har daitezke. Lehenengoan aditza eta inflexioa elkartzeko moduak sortzen duen aukera parametrikoa "markatua" dela esan daiteke. Parametro batzuetan aukera guztiak markatutasun maila berean dauden bitartean (horrexegatik dira, hain zuzen, OA eta AO hizkuntza kopuruak hain antzekoak), beste batzuetan aukera batzuk arruntagoak dira besteak baino. Azken finean, ahaidetasunaz ahazten bagara eta egiturari bakarrik begiratzen badiogu, euskara berezia bada, ez da OA hizkuntza izateagatik (honelako asko daude), baizik eta ergatiboa izateagatik, hizkuntza hauek urriagoak baitira nominatibo-akusatibo motakoak baino. Era berean Polisintesiaren Parametroan aditzaren argumentu *guztiak* aditzaren barruan bertan adieraztearen aldeko aukera eginez gero, txoktawerak egiten duen bezala, hizkuntza mota posible baina urri bat izatea lortzen dugu, argumentu guzti-guztiak aditzaren barruan adieraztea aukera markatua delako.

Dena dela, momentuz ez dakigu hau benetan horrela den esateko adina, ezta egiatan aukera batzuk besteak baino markatuagoak diren esateko ere. Teoriak berak aurresan beharko luke hori parametro bakoitzarekin. Hori gabe, hizkuntzen kopuruei begiratzea labainkorra da. Gaur munduan dauden hizkuntzak litezkeen hizkuntza mota guztien ale orekatuak balira, primeran: aukera bakoitzaren aleak kontatzearekin berehala atera genitzake gure ondorioak. AO eta OA hizkuntzen kopuru antzekotasunak horren alde jokatuko luke. Baina, dakigunez, hau ez da litezkeen mundu guztietatik hoberena, eta existitzen diren hizkuntzak beraien egiturarekin zerikusik ez duten kanpoko arrazoi ekonomiko, politiko, militar eta kulturalen mendekoak dira eta dauden lekuan daude. Seguru asko, munduaren historia, eta aurrehistoria, berriro antzeztuko balitz, guztiz bestelako egoera soziolinguistikoak aurkituko lirateke, hizkuntza moten banaketa ezberdina izango litzateke, eta agian orain hizkuntza nominatibo/akusatiboen urritasunaren auziaz arituko ginateke.

Eta horrek berriro garamatza gure informazio eraketaren eremura, oraindik ere ASO hizkuntzen urritasunaren azalbidea bilatzen saiatzen garela. Aurreko lerroetako bide bihurri eta luzean ASO hizkuntzak azken finean SAO hizkuntzak gehi gramatikaren (zentzu hertsian) konputazio berezi bat balira bezala har daitezkeela ikusi dugu. Beraz, mintzagai/iruzkina, maila batean behintzat, aurkitu aurkitzen da. Baina, noski, bestelako konputazio berezi hau ez zaigu dohainik ateratzen, subjektu/predikatua eta mintzagai/iruzkina parekatzea, bat-batean, are perpaus sinpleenetan ere, opakoagoa egitea dakar-eta. Egituraren "kostua" garestitu egiten da informazioaren aldetik. Ez larregi, noski, geroago ikusiko dugunez, denetariko prozesu gramatikalak baitaude informazio eraketa era nabarmenago batez markatzeko, baina bai hizkuntza mota hau urriago suertatzeko adina. Hizkuntza hauetan konputazio gramatikal berezi horren bidez irabazten denari garrantzi handiagoa ematen zaio, ohi ez bezala, egituraketa informatiboarekiko egokitasun zuzenari baino. Berriro ere, oso espekulatiboak dira "azalpen" izatera ere ailegatzen ez diren zirriborro hauek, baina bihoaz doazen bezala parametroen barruko pentsamoldean sor daitezkeen galderen eta ikerbideen erakusgarri gisa.

****

Subjektu eta mintzagai neutroen arteko lotura beste ikuspegi teknikoagotik ikusi izan da batzuetan[3]. Ezaguna da aditzarekin batera perpaus bat osatzeko behar dugun argumentu bakarra subjektua dela, ez osagarria. Badaude osagarririk gabeko perpaus franko, baina, oro har, subjekturik gabekoak arras gutxi dira[4]. Horrek badu ondorio jakina: benetan argumentu bat ere ez dagoenean (eguraldi aditzekin, perpaus inpertsonal batzuetan edota, besterik gabe, subjektu semantikoa subjektu egongunetik kanpo dagoenean) oraindik ere beharrezkoa den subjektuaren ordez inongo erreferentziarik gabeko izenordain betegarri bat agertzen da. Ez gara saiatuko hau euskarazko adibideekin erakusten, 2. kapituluan aipatu dugun bezala, euskarak isilpeko izenordainak onartzen baititu: nahiko eginkizun korapilatsua da benetan entzun eta ikusten ez dena hor badagoela frogatzea, baina arazo hori bai *elurra bota dit* subjektu erreferentedunarekin bai eta *elurra ari du* subjektu betegarriekin ere sortzen da! Subjektu betegarriak hobekien antzematen dira, inoren sineskortasuna behartu beharrik izan gabe, ingelesa eta frantsesa bezalako bestelako hizkuntzetan, ageriko subjektuak izan behar dituzten motakoak biak. Hor, nahiz eta argumenturik ez egon, edo, egonik ere, "okerreko" lekuan dagoenean, izenordain betegarri bat beraren ordez agertu beharko da, beharrezkoa denaren presentzia aldarrikatzeko nolabait. Hau da norvegieraren kasua. Ondoko perpausetan *det* (ingelesaren *there* horren kidea) inflexioaren ezkerreko subjektu gunean agertzen zaigu, dela subjektuak bere "lanpostua" utzi duelako beste inora joateko (*en mann* osagarri gunean agertzen da!), dela benetan ez dagoelako[158]:

(5) Det har forsvunnet en mann
BET da desagertu bat gizon
'Gizon bat desagertu da'

(6) Det vart sett ein mann (vs Ein mann vart sett)
BET zen ikusi bat gizon
'Gizon bat ikusia izan zen'

(7) Det vart sunge
BET zen kantatu
'Kantatu zen' (*'Kantatua izan zen'*, *'Baten batek kantatzen zuen'*)

Honelako datuen aurrean, hizkuntza teoria batzuek subjektuaren agerpena behartzen duen printzipio bat izaten dute, axioma modura batzuetan, besteetan, berriz, beste hatsarre batzuetatik eratorriz. 80ko hamarkadan hain modan egon zen Erlaziozko Gramatikan, esate baterako, funtzio gramatikalak euren hierarkian zegokien kokalekuaren araberako zenbakiez izendatzen ziren, subjektuak 1 zirelarik, osagarriak 2 eta zehar osagarriak 3. Orduan, *Azken 1* hatsarrea proposatzen zuten, azaleko egituran subjektu bat ('1 bat', barkatu erredundantzia) egon behar zela esanez. Liburu honetan ontzat hartzen dugun eredu teoriko sortzailean, hots, hatsarre eta parametroen ereduan, arras ezberdina izan arren, antzeko zerbait proposatzen da, janzkera teknikoa bestelakoa bada ere. Izen sintagma bat, aditzaren argumentu dena, aditz sintagmatik at (eta gorago) dagoen beste kokagune batera mugitu behar da, tasun balioztatze prozesu orokorrago baten kasu bat. Janzkera tekniko horrek adierazten duena ez da oso arrotza: izen sintagma batek AS predikatutik atera behar du, hor goian behar den sintagma kokagunea betetzeko. Funtsean, hori da *IHP (Islapen Hatsarre Zabaldua)* edo ingelesez *EPP (Extended Projection Principle)* labelez ezagutzen dena, hatsarre honen zehaztasunak ikuspegiaren arabera aldatzen badira ere. Askoren ustez, azken finean printzipio honek predikatua "zerbaitetaz" predikatzea ziurtatuko luke. Beraz, delako IHP horrek perpausek duten *aboutness* edo "zertaztasun" —izan gaitezen lexikoan sortzaile geu ere— ezaugarria gauzatuko luke. Noski, horrek predikatu baterako mintzagaia bilatu behar dela dio, eta hatsarre horrek konputazio gramatikal eta informazio egituraren arteko bateragarritasuna izango luke ondorio.

****

Informazio eraketan sor daitekeen parametrotzearekin hasi baino lehenago, agian mereziko luke errepikatzea aurreko gogoetak mintzagai/predikatu egitura neutralez ari direla. Argi dago honezaz gain askotan behar-beharrezkoa zaigula, edo, besterik gabe, komenigarria, mintzagaia ohi ez bezalako indarrez markatzea, euskal gramatikan *mintzagai hanpatua* deitzen dena erabiliaz. Ikusgarritasun gehiago ematen diogu orduan mintzagaiari, bai aldatu dugula azpimarratzeko, bai

oraindik ere aurreko perpausetakoa mantentzen dugula adierazteko, bai beste mintzagai batekin lehian jartzen dugulako, etab. Ohi bezala, mintzagai hanpatu hauek ere ezkerretara agertzen dira, betiere zertaz ari garen ahalik eta lasterren finkatu nahi baitugu. Askotan entonazioaz edota eten txiki baten bidez marka daitezke ezkerraldeko mintzagai hanpatu hauek:

(8) Grammar, I like

Mintzagai hauek pilatu egin daitezke, oinarrizko mezua aplikatzen den eszenatokia definitzeko edo:

(9) Martxoan, egun euritsuetan, arratsaldean, bakarrik egonda, [hobe da ondoan berogailu eta liburu bat izatea]

Ezkerreratze hau oso erabilia da proposizioaren balio esparrua definitzen laguntzen diguten aditz lagunekin: oinarrizko perpausean esango dena mintzagai berezi hauek zehazten duten eremuan da egia. Hauxe ikusten dugu hain ezaguna dugun ingelesez lehenik, eta nahiko ezezaguna zaigun amhareraz —Etiopiako SOA hizkuntza— bigarrenik[6]:

(10) On Tuesdays, John plays basketball vs John plays basketball on Tuesdays

(11) tə lant, m∧kesnə nt hullu t∧s∧b∧ss∧bu
atzo, handiki guztiak bildu ziren

Aurreko bi adibideetan denbora adierazpena hasiera-hasieran jarri da, eten/entonazio berezi batez oinarrizko perpaustzat har genezakeenetik aldenduz: nolabait denboraldi hori da solasaren ardatz garrantzitsua, eta oinarrizko proposizioak denbora horren barruko gertaera edo egoera zehaztuko du. Irakurleak errazki egin dezake azken adibidearen euskarazko itzulpenarekin proba, *atzo* osagaiak hor duen kutsua perpausaren barrurago daukanarekin alderatuz (hau da, *Handiki guztiak atzo hemen bildu ziren* bezalako batekin).

Edozein modutan ere, aurreko adibide guztien bidez erakutsi nahi izan duguna hauxe da: solasaldiaren "gaia" normalean subjektuarekin identifika daiteke, eta, gainera, badaude mekanismoak mintzagaia are ikusgarri eta nabarmenago egiteko, askotan ezkerreratze prozesu baten bidez. Hurrengo lerroetan hizkuntza batzuetan "mintzagaiari" rol sintaktiko garrantzitsuagoa eman dakiokeela ikusiko dugu, eta, hizkuntzalari batzuek aldarrikatu dutenez, hizkuntzak ezberdintzen dituen parametro baten arabera, eraketa sintaktikoan arreta gehiago eman dakiokeela mintzagaiari subjektuari baino.

****

Phileas Fogg-ek, bere ekialderako bidaian, ez zuen abagune handirik —ez eta, seguru asko, interes handirik ere— zeharkatzen zituen lurretako herritarren berri izateko, eta are abagune edota interes gutxiago beraien hizkuntzen berri izateko. Egia esan, India eta Amerikatik at ez zuen horrenbeste "lur" zapaldu, bere ibilaldiaren zatirik luzeenak itsasoa zeharkatuz egin baitzituen. Calcutatik *Rangoon* batelean aterata, ordu batzuetako geldialdia egin zuen Singapurren, handik Hong Kongerantz abiatzeko. Nahi baino denbora gehiago eman zuen Hong Kongen, gero, *Tankadera* gainean Yokohama aldera jotzeko. Bidaiaren parte honetan inguruko hizkuntzetara adiago egon izan balitz, parametro askoren ezohiko finkapenez ohartu ahal izango zatekeen, tartean orain guri dagokigunaz. Guretzat ekialde urrunean dauden lur haietako hizkuntza askotan mintzagaiek badute "gure" hizkuntzetan aurkitzen ez dugun nabarmentasuna, egitura sintaktiko askotan subjektuarenaren parekoa edo are handiagoa dena. Har dezagun japoniera honen erakusgarri. Japonierak baditu marka ezberdinak mintzagaietarako (*wa*) eta subjektuetarako (*ga*), eta hasierako begirada batean ez da sumatzen munduko gure inguruko hizkuntzekiko alde nabarmenik. Normalean, subjektuak mintzagai ez-markatuak direnez, subjektua *wa*-rekin markatzen da, *ga* erabili gabe.

(12) 高木 さん は 今 東京 に 住んでいます
Suzuki san wa ima Tookyo ni sunde imasu
Suzuki jauna *wa* orain Tokyo -n bizi da
'*Suzuki jauna orain Tokyon bizi da*'

Mintzagaia subjektua ez den guztietan, noski, bi markak aurki daitezke osagai banatan: mintzagai lokatiboak, aurreko atalean ikusitako beste adibideen antzera, ondoan datorrenaren egia balioaren eremua murrizten du, eta *wa* berari joango zaio, subjektuak orain *ga* marka hartzen duen bitartean:

(13) ビルバオ では 日本 料理 の レストランが ありません
Birubao de wa Nihon ryoori no resutoran ga arimasen
Bilbo -n *wa* Japon sukaldaritza GEN jatetxe *ga* ez.dago
'Bilbon ez dago jatetxe japoniarrik' ('*Bilbon gertatzen denaz ari bagara*, ...')

Baina batzuetan ulertzen zailagoak diren *wa* osagaiak aurkitzen ditugu:

(14) 日本 料理 は 刺し身 が 美味しい です
Nihon ryoori wa, sashimi ga oishii desu
Japonia sukaldaritza *wa* sashimi *ga* goxoa da
'*Japoniako sukaldaritzaz ari bagara,* sashimia *goxoa da*'

Euskarazko itzulpenean hasierako partea jatorrizko perpausean baino gehiago luzatu behar izan badugu, '*-z ari bagara*' gaineratuz, mintzagai horri *izan* aditz nagusiarekiko lotura bat emateagatik izan da. Baina japonieraz egiatan esaten

denari begiratuz gero, (12) edo (13)-an ez bezala, mintzagaiak ez dauka lotura gramatikalik ondoan datorren perpausarekin: (13)-an *Birubao de* 'Bilbon' *egon* aditzaren lekuzko modifikatzaile arrunta bada, (14)-ean, *Nihon ryoori* 'Japongo sukaldaritza', inongo modifikatzaile markarik gabe, ez da erraza *sashimi goxoa da* perpausarekin lotzen. Antzeko egoera ikusten dugu ondoko perpausean, printzipioz jabetza adierazteko perpaus inuxentea dirudiena:

(15) 私 は 犬 が ありました
Watashi wa inu ga arimashita
ni *wa* txakur *ga* zen
'Nik txakurra neukan' (*'Nitaz ari bagara, txakurra bazen'*)

Jabetza adierazteko aurreko adibidean jabea *wa*-rekin markatu da eta jabetua *ga* batekin. Jabeari, euskarazko subjektuaren ordainari *wa* ezartzea ez da harrigarria, baina hasieran guretzat osagarria dena, *txakurra,* subjektuen *ga* markarekin topatzea benetan izan daiteke kezkagarria: hain oker ibil gaitezke subjektua eta osagarria nahasteko? Baina, noski, arreta handixeagoaz hartuta, aditza ez da benetan *ukan*/**edun*, *izan* baizik. Lasaitu egiten gara, beraz, perpausa benetan honelako zerbait delako: *txakur bat bada/existitzen da*, eta horrelako batean txakurrari subjektu marka dagokiolako. Baina ez ote gara azkarregi lasaitu? *Existitu/izan* aditzaren subjektua hori bada, zer-nolako argumentua da *ni* aditz horrekiko? Txakurraren *ga* marka hori ulertzea lortzearekin batera ilunago bihurtu zaigu 'ni' izenordainari atxikitako marka ulertzea. Hasierako itzulpenean jabea eta, era berean, subjektua zenak itzulpen zehatz eta hitzez hitzezko honetan ez du begi-bistako funtzio gramatikal argirik. Eta hauxe da, hain zuzen, mintzagai nabarmeneko hizkuntzen ezaugarria: mintzagaiak ez duela aditzarekin harremanik izan behar, ez esturik (egilea, gaia, helburua), ez eta zabalik ere (lekua, modua, etab.). Daukan erlazioa bestelakoa da, hizkuntza hauetan nahikoa dena: mintzagaia, eta kitto. Kasu honetan mintzagaiaren aurkako predikatua perpaus osoa eta beregaina da.

Beraz, japonierazko mintzagaiak badu beste hizkuntzetan aurkitzen ez den garrantzia. Charles Li eta Sandra Thompson-ek lehenengoz proposatu zuten bezala, hizkuntza guztietan bai subjektu-predikatu bai eta mintzagai-iruzkin banaketa nolabait adierazi arren, banaketa hauen arteko oreka hizkuntzaz hizkuntza alda daiteke, egitura lehentasuna bati zein besteari —edo bioi batera— eman dakiokeelarik. Li eta Thompson-en terminologian, *mintzagai nabarmen*eko hizkuntzak izango lirateke japoniera, txinera, koreera, lisuera, tailandiera eta "ekialde (gugandik) urruneko" beste hizkuntza asko eta asko. Solasaldiaren barruko baina era berean perpausaz kanpoko mintzagaiak onartzea, japonieraz bezala, mintzagaiari ezohiko nabarmentasuna ematearen seinalea litzateke, subjektua eta mintzagaiaren arteko oreka zehazten duen parametro baten adierazpena.

****

Aurreko kasuak zorrotz argitzen du subjektua eta mintzagaiaren arteko ezberdintasun nabari bat. Subjektua aditzarekin uztartua dago, aditzaren argumentu bat izan behar baitu (egilea, jasailea, etab.). Mintzagaia, bestaldetik, printzipioz solasaldi zabalagoan garrantzia duen osagaia da askotan, baina ez nahi eta nahi ez aditzaren argumentua. Badaude beste ezberdintasun batzuk. Esate baterako, gorago subjektu betegarriak aipatu ditugu. Egitura gramatikalak subjektu bat izatera behartzen gaitu, are benetan semantikoki subjekturik ez dagoen kasuetan ere. Ondoan dakarzkizugu hiru ale, bi agerikoak (ingelesa eta alemanarenak) eta isilpeko bat, euskararena:

(16) It rains
(17) Es regnet
(18) [ø] neguan seiretan iluntzen du

Euskaraz ere, esan bezala, nahiz eta ageriko subjektu betegarririk ez ikusi, isilpeko bat delakoan daude hizkuntzalari asko, perpausak behar duen subjektu gunea betetzen duena. Horregatik, jarri dugun hutsezko ikur horrek (ø) ez du esan nahi ezer ez dagoenik, ahoskatzen ez den zerbait dagoela baizik. Baina, bestaldetik, ez dugu espero mintzagai nabarmeneko hizkuntzetan "mintzagai betegarririk" aurkitzea: guk dakigunez, behintzat, inongo hizkuntzatan mintzagaiek ez dute izaten "hor egoteko" beharrik, subjektuek betebehar hori duten bitartean.

Horrek parametro honen ageriko desoreka batera garamatza: badirudi subjektuek mintzagaiek ez duten lehentasuna dutela. Esate baterako, mintzagai garrantzitsuko hizkuntza horietan ere, subjektuak bizi-bizirik eta sasoiko daude. Parametroa mintzagaiaren sendotasunean datza, ez subjektuarenean, betiere nahiko sendoa dena.

Subjektuaren lehentasun hau erakusteko, bide dramatiko bat hartuko dugu. Otsoaren ahoan sartuko gara, eta justu-justu hasieran mintzagaien lehentasunaren alde —eta subjektuen kontra— mintzatzen diren datuekin lan egingo dugu, azkenean zinez subjektuen aldekoak direla erabakitzeko. Datuak komunztaduraren ingurukoak dira. Izan ere, hizkuntza askotan subjektuak identifikatzeko irizpiderik argienetariko bat aditzaren barruan islapen morfologikoa izateko joera da. Euskaldun elebakarrak bagina, horrek harritu egingo gintuzke, gurea subjektu, osagarri zuzen, zehar osagarri eta are solaskidearekin komunztadura erakusten duen hizkuntza delako, baina eleaniztunak garen aldetik, geure beste hizkuntzez (gaztelania edota frantsesez besteren artean) zein ingurukoez ondo dakigu, jakin, geu garela horretan arraroak: beste hainbat hizkuntzatako aditzak pozarren daude subjektu komunztadura bakarrarekin, eta horretara ere ozta-ozta eta estu-estu ailegatzen dira batzuk, ingelesa esate batera. Komunztadura argumentu bakar batekin egitekotan, subjektuak dauzka faboritoa izateko txartel gehienak. Baina orduan, mintzagaiak hain nabarmenak izan badaitezke, baten batek mintzagai komunztadura aurkitzen

den galde lezake. Eta erantzuteko, Phileas Fogg-engana jo beharko dugu berriro ere.

****

Singapurretik Hong Kong alderako bidaian, *Rangoon* batelean, ekaitz handiak jasan behar izan zituzten Fogg jaunak eta konpainiak. Verne-k esaten digunez, ipar-mendebaldeko haize gogorrek zigortu zuten itsasontzia. Apur bat gogorragoak izan balira, Hong Kongerako bidetik desbideratuko zituzketen eta ekialderago dauden Filipina irletara hurbilduko, agian Mindanao aldera, eta, horretan gabiltzala, beharbada Layawango kostaldera, handik zortzi urtera, bertoko apaizaren omenez, *Oroquieta* euskal izena hartuko zuena. Fogg jaunarentzat ezin kaltegarriagoa izango zena guretzat pozgarri izango litzateke, hain ezberdinak baitira gizakion patuak eta interesak. Pozgarria horrela Filipinetako hizkuntzen berri izango baikenuke, hor topa baikenitzake bila gabiltzan hizkuntza motak.

Izan ere, bertako hizkuntzetako ikertzaileek aspaldi ohartarazi zigutenez, badirudi aditz komunztadura ulertzeko mintzagaiari begiratu behar zaiola, ez guk normalean subjektutzat hartuko genukeen osagaiari. Filipinetako alderdi gehienetan azaleratzen den fenomenoa da hau, baina, Mindanaon konpainia ederrean gaudenez (tamalez, Fix detektibea ere gurekin dago!), zuzen dezagun arreta bertako kalaganera hizkuntzara, interesatzen zaigun aldetik nahiko paradigmatikoa da-eta[7]. Ondoan agertzen dira *Mutilak arroza saski batean nahasten du* perpausa adierazteko hiru erak. Hobeto uler dadin, preposizioak euskarazko galdetzaileez ordezkatu ditugu, eta kortxeteen bidez osagaiak elkartu ditugu. Geroago argituko dugun *ya* marka, aldiz, iruzkindu gabe utzi dugu:

(19) a. magdaliʔ [ya bataʔ] [sa umay] [adti beʔen]
nahastu *ya* mutila *zer* arroza *non* saskia
'Mutilak arroza saski batean nahasten du'

b. daliʔen [na bataʔ] [ya umay] [adti beʔen]
nahastu *nork* mutila *ya* arroza *non* saskia

c. daliʔan [na bataʔ] [ya beʔen] [sa umay]
nahastu *nork* mutila *ya* saskia *zer* arroza

Perpausetako hiru aditzek duten zati bera banatuz gero, argi dago *daliʔ* dela *nahastu* predikatua, eta aurretik zein atzetik datozen markak "komunztadura". Aditzak *ya*-dun osagaiarekin egiten du komunztadura, eta komunztadura hori aldatu egiten da osagai horren theta-rolaren arabera: *mag-* aurrizkiak *ya*dun osagaia egilea dela adierazten digu; *-en* atzizkiak *ya*dun osagaia *jasailea* edo, gaur egun arruntagoa den izena erabiltzearren, *gaia* dela diosku, eta, azkenik, *-an* atzizkia *ya*dun lokatibo batekin lotzen da. Erraz uler daiteke aldaketa hau, zeren osagai batek *ya* marka hartzen duenean, bere theta-rola nabarmentzen duen preposizioa galdu egiten baitu, eta aditzak esan behar digu zer-nolako argumentua zen, bere preposizioa galdu ostean, *ya* horrezaz markatu den osagaia. Hau ulertuz gero, berehala bururatzen zaigun galdera argi dago: *ya* horrek zer markatzen ote du? Azken finean, subjektua dela esan badezakegu, ez genuke halako buruhausterik izan beharko. Beharbada hiru perpausok diatesi aldaketa arruntak dira. Guk ere ingelesez diatesi aktibo zein pasiboan adieraz dezakegu gauza bera, eta inor ez da horregatik miresten ezta subjektuen izaerari buruzko burutazio sakonetan sartzen ere. Ingelesez, pasibo mota bat dugu normalean gaia, osagarria dena, subjektu bihurtzeko, eta agian kalagandarrek badute horrezaz gain beste diatesi bat lekua subjektu bihurtzeko (ingelesez *This house has not been lived in for a long time* 'Etxe honetan ez da aspaldian bizi izan' perpausean bezala). Zer esanik ez, ez genuke guk gure irakurle sufritua honelako datuekin behar baino gehiago nekatuko diatesiaren azalpen honekin dena argituko balitz. Zeren eta, badirudi beste zerbait dela gertatzen ari dena.

Filipinetako hizkuntzekin aritzen diren hizkuntzalari gehienek *mintzagaia* deitzen dute *ya*dun elementu hori, ez subjektua. Izan ere, komunztadura egiten duten osagai hauek badute subjektuetan ezezaguna den ezaugarri bat, mintzagaien artean arrunta dena: elementu zehaztua izatea, alegia. Mintzagaiak, solasaldiko gaiak diren heinean, informazio zaharra ere badira, jakina, eta jakina den heinean mintzagaiak solasean jadanik ibili eta erabilitako osagaiak dira, zehaztuak. Hau erakusteko itzul gaitezen berriro ere Japonia aldera. Gorago esan bezala, japonieraz mintzagaiak *wa* postposizioaz eta subjektuak *ga* postposizioaz markatzen dira. Gehienetan subjektuak *wa* batez azaltzen dira, subjektuak mintzagai ez-markatuak izateko daukaten funtsezko joeraren ondorioz. *Wa* dun subjektu horiek ere zehaztuak dira, eta *ga* erabiltzeko arrazoi bat entitate zehaztugabea izatea da. Ohartu

erlazioa ez dela bana-banakoa: mintzagaiak zehaztuak dira, baina subjektuek ez dute zehaztu edo zehaztugabeak izan behar. Aldiz, japonieraz, solasaldian subjektu ezezagun edo zehaztugabea sartu nahi badugu, *ga*rekin markatu behar izango dugu, aukera hori *ga* markak bakarrik eskaintzen baitu[8]. Tipikoa da, esate baterako, ipuinen hasieran edota berripaperen izenburuetan argumentu ezezagunen berri ematean, *ga* erabiltzea[9]:

(20) 昔 昔 或 所 に おじさんとお祖母さん が 住んでいました

mukashi mukashi aru tokoro ni ojisan to obaasan ga sunde imashita
aspaldi aspaldi bat leku -an agure eta atso *ga* bizi zeuden
'Aspaldian, agure eta atso bat bizitzen ziren leku batean'

Eta, alderantziz, ezin da mintzagai markarik ezarri berez ezezagunak diren galdera hitzetan (*dare* 'nor'), zehaztugabeko izenordainetan (*dareka* 'inor'), edota 'asko' bezalako zenbatzaile zehaztugabeetan. Lehenengo kasuaren adibide bat dakargu horren erakusgarri:

(21) 誰 が (*は) 来ました か

Dare *ga* (**wa*) kimashita ka?
nor *ga* zetorren GALD
'Nor etorri zen?'

Noski, *nortaz* ari bagara, gehienetan, nor den ez dakigun baten batez ari gara, eta harrigarria izango litzateke solasaren argumentu ezaguna balitz bezala tratatzea. Oscar sarien banaketan bezala, gure susmoak izan ditzakegu nor izango den aipatua esatariak *And the Oscar goes to...* dioenean, baina printzipioz, aukera eremu itxia izanda ere, apur bat geroago jakinaraziko digute irabazlea nor den, horrela oholtza gainera argumentu berri bati deituz. Gainera, euskararen gramatikan ikasitakoaz zertxobait bakarrik gogoratzen bagara ere, badakigu zenbatetan errepikatu diguten galdetzaileak galdegaiak direla, ez inolaz ere mintzagaiak.

Filipinetara berriro ere itzuliz, goiko kalaganeraren adibideetako *ya*-dun osagaiak, nahi eta nahi ez, solasaldian ezagunak izan behar dira, eta horrek "mintzagai" izena erabiltzera bultzatu zituen bertako hizkuntzetan zihardutenen hizkuntzalariak. Eta, esan dugun bezala, hau egia bada, badirudi benetan hizkuntza hauetan mintzagai komunztadura dugula, ez subjektuarekikoa. Hau da, esku artean darabilgun parametro honen muturreko kasu bat emango ligukete: mintzagaiek nabarmentasun gehiena duten muturreko kasua.

****

Ala ez? Aurreko ataltxoaren hasiera arretaz irakurri duen irakurle trebeak seguru asko nabarituko zuen kasu honen berri ematean azpitik zalantza kutsua zeriola testuari. Geure burua aipatzeagatik barkamena eskatuz, honako hau esaten genuen, zalantzaren ziria sartzen zuen hitza etzanean berridatziz: «*Badirudi* aditz komunztadura ulertzeko mintzagaiari begiratu behar zaiola, ez guk normalean subjektutzat hartuko genukeen osagaiari». Zergatik azpiko susmo hori?

Santa Barbarako University of Californian 1975ean *Subjektua eta Mintzagaia*ri buruz egin ziren jardunaldietan, Li eta Thompson-ek *Mintzagai Nabarmentasunaren Parametroa* plazaratu zuten, eta ekitaldi berean, Paul Schachter-ek Filipinetako hizkuntzen datuak aztertu zituen[10]. Eta han azpimarratu zuenez, "mintzagai" izena zehaztasunaren datuei ondo egokitzen bazaie ere, bestelako datuak ez datoz bat normalean gramatikariek mintzagaitzat hartzen dutenarekin. Zehaztasun gehiegitan sartu gabe, tagalogeraren ondoko datuek lagunduko digute arazo hauetako batez jabetzen:

(22) Kung tungkol kay Maria, hinuhugasan niya ang mga pinggan
baldin gaia Maria garbitzen.dago bera platerak
'Baldin Mariaz (ari bagara), platerak garbitzen dago'

Tagalogeraren komunztadura sistemaren arabera, *platerak* hitzak dauka hemen mintzagai marka (*ang*). Baina *platerak* zehaztua bada ere, gaitza da ulertzea osagai hori dela aurreko perpausaren mintzagaia. Euskaraz, esate baterako, galdegai arrunta izan liteke! Hizkuntzek mintzagai-iruzkin egitura erakusten badute, adibide honetako mintzagaia komaren ezkerretara dagoen zatia izango litzateke seguru asko. Horregatik, beharbada, Santa Barbarako jardunaldi haietako hitzaldien argitalpenean, Charles Li irakaslearen hitzaurrean, mintzagai nabarmeneko hizkuntzak iritzi beharrean, *diffuse subject languages* edo 'subjektu nabarreko hizkuntzak' bataiatu zituen Filipinetakoak. Beraietan subjektua zein den jakitea gaitza bada ere, gramatika izarra *subjektua* delako, ez *mintzagaia.*

****

Denok ezagutzen ditugu Tintinen abenturetan askotan argumentu diren Dupont eta Dupond inspektoreak —lokalizazioaren poderioz euskarazko bertsioan Etxebarria eta Etxeberria bataiatu litezkeenak, gaztelaniaz Hernández eta Fernández bataiatu ziren bezala. Haien baldartasun orokorraz gain, pertsonaion karakterizazioan bazegoen hizkuntzari dagokion ezaugarri xelebre bat: batak zerbait esandakoan, adibidez, '*Hau susmagarria da'*, besteak honelako zerbait gaineratzen zuen: '*Are gehiago esango nuke nik: hau susmagarria da'*. Solasaldiari ekarpen berriaren zain gaudenean, lehenagokoaren errepikapena ematen zaigu, informazioaren aurkezpen eta eraketaren aldetik solasa ezer gutxi garatzen duena. Eleketan, zertaz ari garen finkatzea funtsezkoa bada, are garrantzizkoagoa da gai horretaz gure

iruzkina, geure ekarpena eskaintzea. Etxebarria eta Etxeberria anaiek ez bezala, entzulearen informazioa aldatu nahi dugu, zerbait gaineratuz edo zuzenduz.

Kapitulu honetako ondoko lerroetan, mintzagaiaren inguruan egiten dugun iruzkinaren alde batez arduratuko gara, informazioaren muinaz hain zuzen. Eta ez edozein muinez, baizik eta muin dramatikoago batez, euskararen gramatika eskoletan *ad infinitum* (eta *ad nauseam*) aipatzen ziguten *galdegai* ospetsuaz.

****

Argi ditzagun nozio batzuk lehenago, behin gure oraingo mintzagaia galdegaia izango dela aldarrikatuz gero, gure iruzkinetan adostutako terminoez balia gaitezen. Hau ezinbestekoa bada ezagutzen ez diren hitz teknikoez aritzean, askoz ezinbestekoagoa da berez nozio korapilatsuak izanik eskolaren eraginez "herri gramatikan" sustraitu diren hitzekin: litekeena da guztion iritziak eta, areago, aurreritziak, bat ez etortzea hainbestetan erabilitako izen hauetan.

Hiru izen erabili ditugu aurreko lerroetan: *iruzkina*, *predikatua* eta *galdegaia*. Lehenengo biak kapituluaren hasieran eman ditugu eta elkarrengandik hurbil egon arren, ez dira gauza berbera. *Iruzkina* hitza informazio egiturari dagokio soilik eta *mintzagaiari* kontrajartzen zaio edo, modu baketsuago batez esatearren, mintzagaia eta iruzkina elkarren osagarriak dira: informazio unitatearen bi osagaiak dira. Era berean, guk *predikatu* hitzaren adiera murriztua erabiliko dugu, perpausaren egitura gramatikalean *subjektuarekin* perpaus bat osatzeko elkartzen dugun multzoa[11]. Beraz, goragoko japonieraren perpausen —behean errepikatuta dakarguna berriro— edo haren kide hurbila den euskarazko ondokoan, marraren ezkerraldeko informazio osagaia mintzagaia da, eskuinekoa iruzkina:

(23) 日本 料理 は 刺し身 が 美味しい です
Nihon ryoori wa, ▥ sashimi ga oishii desu
Japonia sukaldaritza *wa* sashimi *ga* goxoa da
'Japoniako sukaldaritzaz ari bagara, sashimia goxoa da'

(24) Jon, ▥ ezin dugu ergel horrekin ezertarako ere kontatu

Aukeratu ditugun adibide hauetan iruzkinak perpaus gramatikal osoak dira, beraien *subjektu* eta *predikatu* beregainak dituztenak. Kasu hauetan, mintzagaiak iruzkinarekin duen lotura ez da "gramatikala" zentzu hertsian, euskarazko adibidean *Jon* ez baita *kontatu* aditzaren argumentua, nahiz eta argumentua den *ergel honekin* lotuta egon. Era berean, mintzagai hanpatu askoren kasuan ezin ditugu iruzkina eta "predikatua" elkarren sinominotzat hartu, zentzu hertsienean behintzat:

(25) Ergel horrekin, ||| nork konta lezake ezertarako ere?

Hemengo zentzuan erabilita, ezin esan marraren eskuineko partea "predikatua" denik. Baina, bestalde, gorago esan dugunez, subjektuak askotan mintzagai ezmarkatuak dira (hemen marra bakar batez markatuko ditugunak), ondoko adibideetan bezala. Kasu hauetan bai, iruzkinak eta predikatuak entitate bera izendatzen dute[12]:

(26) Sashimi wa ||| oishii desu
sashimi *wa* goxoa da
'Sashimia goxoa da'

Iruzkina zer den zehaztu ondoren, estutu dezagun gure ikusmira haren barruan askotan aurkitzen dugun beste osagai informatibo baten gainean, euskararen gramatikarekiko interferentziarik ez izatearren, *fokua* deituko duguna.

Solasaldira (edo testura), Etxebarria eta Etxeberria inspektoreek ez bezala, iruzkin interesgarriak egiteko, askotan informazio berria ekartzen dugu. Gehienetan, ez dugu jartzen iruzkin osoa garrantzi maila berean, eta osagai batek besteek ez bezalako nabarmentasuna hartzen du. Hartu gaztelaniazko ondoko testu(inguru)a:

(27) a. *Cuando yo vine no había nadie*.
b1. *Juan llegó a las tres*. b2. *A las tres llegó Juan*

Informazio egituraketaren ikerketa lanek irakasten digutenez, badago iruzkinean garrantzi gehien hartzen duen osagai bat, gaztelaniaz edo ingelesez (AO hizkuntzetan) normalean eskuineko muturrean dagoena: (b1) perpausean Juan heldu zeneko ordua da garrantzia daukana, eta (b2) kasuan ordu horretan heldu zena[13]. Ohartu hemen aipatzen dugun "nabarmentasuna" hau euskal galdegaiarena ez bezalakoa dela: ez *a las tres* ez eta *Juan* osagaiek ez dute galdegaiek duten enfasi dramatikoa, ez eta euskalki batzuetan behintzat Hualdek eta Elordietar anai-arrebek aurkitu zuten azentu berezia[14]. Entonazio neutral eta galdegaiarenaren arteko lehenengo mailako nabarmentasun ahula daukate osagai hauek, bai ahoskeraz bai eta informazioaren aldetik. Izan ere, gaztelaniaz ere era ditzakegu enfasi sendoko egiturak, euskararen antzekoak:

(28) a. *A LAS TRES llegó Juan*
b. *HIRURETAN heldu zen Jon*

Hasierako *a las tres* hori azentu markatu batez ahoskatuz eta geroago beherantz joango den tonu gailur batekin entonatuz, euskarazko (b) perpausaren ordain hurbila lortzen dugu. Baina (27)-koa bestelakoa da, eta Katalin Kiss hizkuntzalari hungariarrak *"informazio fokua"* izena eman zion. Egia esan, ez dago batere argi euska-

raz mota honetako fokurik dagoen ala ez, eta horrexegatik jarri ditugu gaztelaniazko adibideak, printzipioz euskarazkoak, foku auzietan, eskuragarriagoak izan zitezkeen arren.

Baina, edozein modutan ere, oraindik ez gara ailegatu kapitulu honen azken zatiko ardatza izango den foku motara, bidea garbitzen egon bagara ere. Hain zuzen ere, euskarazko *galdegaien* motako fokuez arituko gara, eta horregatik *"fokuratu"* behar izan dugu gure begiradaren norabidea, antzeko beste animaliak alboratuz. Kiss-ek berak *"foku kontrastiboa"* deitu zion gure animaliari, eta ondoko ataltxoetan hizkuntzaz hizkuntza dauzkan kabiak eta portaerak deskribatuko ditugu, bai eta lagun dituen beste piztiekiko erlazioak argitzen saiatuko ere. Dagoeneko irakurleak liburu honetan bereganatuta izango duen jokabideari jarraituz, ageriko aniztasunean azpiko batasuna sumatzen lagunduko diogu, edo, Estatu Batuetako zigiluko arranoak atzaparren artean duen testuari ohi ez bezalako interpretazioa emanez, *e pluribus unum*. Tartean, euskararen ustezko bitxikeria hau hizkuntzaren funtsezko batasunaren argitan ikusteko parada izango dugu.

****

Zein da galdegaiek duten berezitasuna, bestelako (informazio) fokuetatik ezberdintzen dituena? Atal honetan, semantikaren aldetik haien nortasuna apur bat zorroztuko dugu, hurrengoan hizkuntzetako askotariko agerpenari aurre egin ahal izateko.

Ekar ditzagun foku kontrastiboaren adibide batzuk, haien eduki semantikoaz aritzean gogoan kasu konkretuak izatearren. Hungariera oso ezaguna da, euskararen galdegaien antzeko fenomenoak erakusten baititu. Ondoren informazio fokudun (a) eta foku kontrastibodun (b) adibideak jartzen ditugu:

(29) a. Mari el-olvasta az újságot
Mari BUR-irakurri.zuen DET kazeta.AKUS
'*Marik kazeta irakurri du/irakurria zuen*'

b. AZ ÚISAGOT olvasta el Mari
'*KAZETA irakurri du Marik*'

Lehenengo adibidean, hungarieran hurrenkera neutroa dugu, SAO, eta hor osagarriak dauka zama informatiborik garrantzitsuena, nahiz eta inongo kontrasterik gabea. Baina (b) adibidean beste zerbait adierazten da. Haren edukiaz jabetzeko, ondoko parafrasiaz balia gaitezke: 'Kazeta da Marik irakurri duena'. Sintaktikoki, euskaraz bezala, honelako enfasi handiko osagaia aditzaren aurre-aurrean agertzen da (*el* bezalako aditz partikulek ere alde egin behar dutelarik). Euskaraz bezala, berriro ere, horixe da galdetzaileen kokalekua:

(30) Mit olvasta el Mari?
Zer irakurri BUR Mari
'*Zer irakurri du Marik?*'

Bi animaliek, foku kontrastiboak eta galdetzaileak, antzeko portaera izateaz gain, bien arteko antzekotasuna harantzago ere heltzen da, kabi bera litekeena partekatzeraino ere. Horren zergatia ulertzeko, galdetzaileek eta foku kontrastiboek komunean dituzten ezaugarri semantikoak arakatu beharko ditugu, informazio fokuetatik ezberdintzen lagunduko digutenak.

Goiko (29b)-ko adierazpenean, bai eta euskarazko ordainean ere, (29a)-n ez bezala, badago aurresuposizio bat: hiztunak eta entzuleak badakite Marik zerbait irakurri duela, eta perpausean irakurri duena kazeta bezala identifikatzen da. Aldiz, hungarierazko (29a) foku informatibodun perpausetan ez da aurkitzen horrelako aurresuposiziorik. Horren ordez, adierazpen horiek hiztun baten 'Zer gertatu da'? bezalako galdera baten ondorengo erantzunak izan litezke, gertatutako ekintzaz edo argumentuez aldez aurretiko inongo informaziorik suposatzen ez dutelarik. Hortan datza foku kontrastiboarekiko ezberdintasuna, eta, ikusiko dugunez, ezberdintasun semantiko horri hizkuntza askotan itxuratze berezia ematen zaio.

Datu hauetan sartu baino lehenago, baina, zehaztasun pare bat gaineratu behar dugu. Lehenengo eta behin, erraza da ikustea nondik datorkion *galdegaiaren* antzeko foku mota honi "kontrastibo" labela. Aurreko perpausean, aldez aurretik, Marik zerbait irakurri duela badakigu, eta zer den esaten badugu, ez da batere harritzekoa askotan egitura hauek "identifikazio exhaustiboa" deitu dena adierazteko espezializatzea: Marik irakurri duena kazeta da *eta ez beste ezer*. Hortaz, inplizituki, kazeta litezkeen beste gauza irakurgarrietatik (komikiak, atzerriko filmetako azpitituluak, zergen inprimakiak, Verne-ren nobelak, etab.) banatzen da, edo, bestela esanda, beraiekin *kontrastean* sartzen da: kazeta bai, beste guztiak ez. Bigarren zehaztasuna garrantzizkoa izango da ondokoan ere. Foku kontrastriboen gainbegirada semantiko arin honekin ere nahikoa dugu portaera bereko beste animaliarekiko hurbiltasunaz jabetzeko. Galdetzaileek ere, euskaraz eta hungarieraz aditzaren aurre-aurrean agertu behar direnak, aurresuposizio semantikoa sortzen dute. Hiztunak *Fogg jauna zer ordutan heldu zen Reform Club-era?* ahoskatzean, gure heroia hara heldu zela jakingo balu bezala portatu da. Izan liteke apustua egindako orduan baino beranduago edo lehenago, baina badaki heldu zena, eta ordua zein zen identifikatzea eskatzen du. Hiztunak badaki litezkeen beste orduekin guztiekin kontrastatzen duen une batean heldu zela, nahiz eta berak ordu hori ezin identifikatu. Hiztun horrek, beraz, jakin asko daki, nahiz eta oraindik ere bere jakin-mina asetzeko datu bat eskatu behar duen.

Galdegaiak eta galdetzaileak, beraz, beste osagai arruntagoetatik ezberdintzen diren adiskideak dira. Hizkuntzalariekin kontaktu handirik gabe zeuden semanti-

kalariek ere, horrelako osagaiak dituzten perpausen esanahia irudikatzeko ondokoen antzeko eskemak ematen zituzten:

(31) a. Phileas Fogg **8:44:59etan** heldu zen *Reform Club*era
'8:44:59 da x, x denbora dena, zeinaz *Phileas Fogg Reform Clubera x-etan heldu zen* proposizioa egia baita.'

b. Phileas fogg noiz heldu zen Refrom Clubera?
'Zein da x, x denbora, zeinaz *Phileas Fogg Reform Clubera x-etan heldu zen* proposizioa egia baita'

Ez litzateke irakurlea honelako *jerga*ren aurrean izutu behar. Kontuan hartu beharreko bakarra hauxe da: perpaus neutraletan ez bezala, bai galdetzaileak bai eta galdegaiak ditugunean, osagai horiek beste osagaietatik ezberdintzen dira; itxuraketa logikoan nolabait oinarrizko perpausetik (proposiziotik) aterata baleude bezala ematen dira. Baina guretzat, semantikalari ez garenontzat, garrantzizkoa dena da hizkuntza askoren gramatiketan ere osagai hauek ezohiko lekuetan agertzen direla, perpausaren periferian maiz askotan. Eta "askotan" diogu, hizkuntzak elkarren artean ezberdintzen dituen ezaugarri bat baita bi osagaion adiskidetasun hori, semantikan errotua dagoenez unibertsala dena, portaera gramatikalean agerian uztea ala ez. Bestetan bezala, parametro batek hizkuntzen ageriko aldakortasunaren neurria emango digu.

****

Has gaitezen galdetzaileen portaerarekin, gero, galdegaiena arakatu ondoren, biak alderatzeko. Esan bezala, *nor* bezalako galdetzailea semantikaren aldetik oso ezberdina da *neska* bezalako izen arrunt batekin konparatuta, eta berezitasun hori hizkuntzaz hizkuntza jokabide berezi batekin parekatzen da. Hizkuntza askotan, galdetzaileak, hurrenkera arruntean legokiekeen gunean agertu beharrean, oinarrizko perpausetik (*proposiziotik*) kanpo azaltzen dira, ezkerraldeko periferian sarri askotan. Eredu hau oso hurbil daukagu, ingelesez begi-bistakoa denez:

(32)

How much	money	did	Mr. Fogg	bet	that	day?
zenbat	diru	LAG		apustua.egin	DET	egun

'Zenbateko apustua egin zuen Mr. Foggek egun hartan?'

Eta, egia esan, urrunerago jo gabe, euskaraz ere aurkitzen da galdetzailearen ezkerreratze hau (a), nahiz eta, euskararen ezkerraldeko periferiak mintzagaiak onartzeko duen erraztasunagatik, batzuetan (b), "ezkerraldeko" periferia hori guztiz eskuinetara agertu:

(33) a. Zenbateko apustua egin zuen Mr. Foggek egun hartan Reform-Clubean?
b. Mr. Foggek egun hartan Reform Clubean, zenbateko apustua egin zuen?

Ohiko analisi gehienetan, *zenbateko apustua* ez da (b) hurrenkeran eskuindarra; aldiz, *egun hartan*, *Reform Clubean* eta, nola ez, *Mr. Fogg* bera ere, (a)-ko beren oinarrizko gunetik beste muturrera mugitutako mintzagai ultraezkertiarrak izango lirateke. Hau justifikatzeak guztion denbora eta irakurlearen pazientzia ahituko lituzkeenez, bere hartan utziko dugu, orain guri dagokigun aldea bakarrik azpimarratzeko: euskarazko galdetzaileak ere ezin dira gelditu osagai arruntagoek hartuko lituzketen guneetan (**Nork egun hartan Reform Clubean hogei milatako apustua egin zuen*), eta aditzarekin batera, beste hizkuntza askotan bezala, perpausaren ezkerraldeko muturrean agertzen zaizkigu[15].

Eskuinaldeko periferia galdetzaileen jomuga bezala erabiltzea oso markatua da. Horrelako zerbait gertatzen omen da gorren keinu hizkuntza askotan, eta, alde horretatik, jakina da gure inguruko gorrek ere eskuinean jartzen dituztela galdetzaileak. Ondoren dakargu horren adibide sinple bat (arloko konbentzioari jarraituz, letra larrietan islatzen ditugu eduki hauek adierazteko erabiltzen diren keinuak)[16]:

(34)

ZU IZENA ZEIN
'Zein da zure izena?'

Bueltatuko gara geroago, galdegai edo foku kontrastiboen datuak ikusi ondoren, portaera honetako analisira. Gauden momentuan nahikoa da ohartaraztea oso hurrenkera markatuak direla hauek hizkuntzarteko alderaketaren ikuspuntutik. Liburu honetan zehar esandakoarekin, irakurleak berak ikus dezake aukera tipologiko honen urritasuna. Gogoratu 2. kapituluan, perpausen sintagma egiturak hemen errepikatzen dugun zuhaitz batean itxuratzean, proposizioaren gaineko KONPS-ak (konplementatzaile sintagmak) gaineratzen genituela, buru bezala *-ela* bezalako konplementatzaileak zituztenak. Galdetzaileak horien espezifikatzaile guneetara mugitzen dira. Eskuineko zuhaixkan KONPS osoagoa jartzen dugu, espezifikatzaile gunerako lekua daukana:

(35)



Bigarren kapituluan subjektuez ari ginela, eta hemen gorago esan bezala, espezifikatzaileak ezkerretara agertzen dira, eta badirudi hurrenkera hori aldatzen duen parametrorik ez dagoela. Beraz, espero duguna da konplementatzaile sintagmaren espezifikatzaile gunea ere *ezkerrean* agertzea, eta bertara mugitzea (edo, neutralago esatearren, bertan azaltzea) galdetzaileak. Bueltatu beharko gara auzi honetara beherago.

Galdetzaileen portaerarekin jarraitzeko, beste hizkuntza asko pozik daude galdetzailea bere funtzio gramatikalari dagokion ohiko lekuan gordetzearekin, inongo pausaleku berezitara joan behar izan gabe. Horrelakoak dira txinera eta japoniera. Ondoko adibideetan osagarriari buruzko galderak dakartzagu. Txinera, oro har, SAO hizkuntza denez[17], aditzaren eskuinetara agertzen da *shéi* 'nor' galdetzailea, japonieraz, SOA hizkuntza bati dagokionez, bai osagarri arruntak bai eta osagarri galdetzaileak (*nani* 'zer') aditzaren ezkerretara agertzen diren bitartean:

(36) 你 要 請 誰?
Nǐ yào qǐng shéi
zu nahi gonbitatu nor
'Nor gomitatu nahi duzu?'

(37) 田中 さん は 守田 さん に 何 を 貰いましたか。
Tanaka san wa Morita san ni nani o moraimashita ka
Tanaka jauna TOP Morita jauna DAT zer AKUS hartu
'Zer hartu zuen Tanaka jaunak Morita jaunarengandik?'

Ekialdeko hizkuntza hauetan galderen itxuratze semantikoa "geure" hizkuntzaren berdin-berdina izango da, eta osagai bat proposizioaren "ezkerrean" agertu behar izango da, baina hau guztiau ez da zuzenean islatzen ageriko sintaxian. Galdetzaileek osagai arruntak balira bezala jokatzen dute sintaxian.

Azkenik, bi hizkuntza mota hauen arteko tartekorik ere badago, galdetzailea bai legokiokeen gunean bai eta ezkerraldeko periferian ager daitezkeen hizkuntzak ere badira eta. Yokohamatik San Franciscora, Pazifikoa *General Grant* itsasontzian zeharkatzeko lasterketan, Fogg eta lagunek haien hegoaldean utzi zituzten bestelako zirkunstantzietan seguru asko patxadaz bisitatuko zituzketen izen gozoko irla asko, Tahiti, Samoa... bai eta Fiji irlak ere. Azken horietan egiten den hizkuntzan, hain zuzen ere, galdetzaileak *in situ* zein ezkerretara ager daitezke[18]:

(38) a. e sabi-ci i'o o cei?
ASP jo zu nor
'Nork jo zintuen?'
b. o cei e sabi-ci i'o?

(39) a. o aa rai-ci cei?
ASP ikusi nor
'Nor ikusi zenuen?'
b. o cei o aa rai-ca?

Oinarrizko hitz hurrenkeran (ASO) fijieraz aditza hasieran agertzen da, bere aspektu markekin batera, eta aditzak perpausaren ezkerreko muga markatzen duenez, erraza da ezkerreratze prosezuen presentziaz jabetzea. Maiz, galdetzaileak aditzaren ezkerrera kokatzen dira, nahiz eta beste aukera ere, aditzaren eskuinetara agertzearena, zilegi izan. SOA hizkuntzetan ere, aukerazko ezkerrerako joera hori nabarmena izan daiteke, batez ere beste mugimendurik ezean (i.e., euskaraz ez bezala, aditzak berak prozesurik jasaten ez badu). Horren lekuko modura, miskitoera dakargu hona[19]:

(40) a. Día prisantka Pedro mita María ra yaban?
zein erregalu Pedro Maria-ri eman
'Zer erregalu eman zion Pedrok Mariari?'
b. Pedro mita María ra día prisantka yaban?

Oinarrizko hurrenkeran, euskaraz eta japonieraz bezala, zehar osagarria osagarri zuzenaren ezkerretara agertzen da, eta horixe da (b)-n ikus daitekeena. Baina, bestalde, arrunta da baita ere (a) bezalako hurrenkeraz baliatzea, galdetzailea perpausaren hasieran dagoen subjektuaren aitzinera eramatea.

Atal honetan ikusitakoa laburbilduz, beraz, badirudi semantikoki nahiko bereziak diren galdetzaileen kokapena parametro batek araupetuta dagoela: itxuratze semantikotik hurbilago dagoen hurrenkera (perpausaren ezkerraldekoa) ageriko sintaxian topa daiteke, guk bezala hizkuntzez jakin-mina dutenen begien aurrean. Era teknikoago batez esateko, galdetzaileak ageriko sintaxian ager (mugi) daitezke

konplementatzaile sintagmaren espezifikatzailera, edo *in situ* gelditu, eta hori da parametro horrek ematen digun hautabidea. Hurrengo atalean galdegaiei, foku informatiboei, aukera bera eskaintzen zaiela ikusiko dugu, euskararenak bezalako galdegai fenomenoak sortuz, eta, prozesuan, hizkuntzarteko ageriko aniztasuna areagotuz.

****

Foku kontrastiboaren hariari berriro ere eusteko ordua heldu da dagoeneko, bere kide hurbila den galdetzailearen portaeraren berri izan ondoren. Eta hemen ere, antzeko parametro batek sortzen du ageriko aniztasunak izan lezakeen neurria. Hemen gainetik "ezkerreratze" deituraz ezagutu duguna begi-bistan ikus daiteke hizkuntza batzuetan, besteetan foku hauek beste edozein sintagmaren portaera bera dutelarik. Badirudi, beraz, itxuratze semantikoan dugun fokuaren kokapena, proposizioaren ezkerraldekoa, zuzenean sintaxian gauzatzen dela batzuetan, foku kontrastiboek periferia horretan aurkitzen den sintagma baten espezifikatzaile gunea hartzearen ondorioz. Sintagma hori batzuek KONPS bera dela suposatzen dute, beste batzuek bai fokuak bai eta galdetzaileak foku sintagma (FOKUS) berezi batera doazela mantentzen duten bitartean[20]. Baina hori erabakitzea, edota hori erabakitzeko erabil daitezkeen datuak eta suposizio teorikoez eztabaidatzea ez da liburu honetako xedea. Gauzak erraztearren, har dezagun lehenengo bidea, nahiz eta, mugituko garen mailetan nahikoa den jakitea ezkerraldeko periferian fokuetarako pausalekua den sintagma bat dagoela, hizkuntza askotan, gainera, galdetzaileetarako ere balio duena.

Esan bezala, orain darabilgun parametro honen arabera, foku kontrastiboak "oinarrizko" lekuan geldi daitezke, beste osagai arruntek betetzen dituzten lekuetan, edo ezkerreko sintagma batera mugitu. Neurri batean euskararen gramatikan *galdegaiek* erakarri duten arreta inguruko hizkuntzekiko kontraste honengatik dator: gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez, osagai bat besteetatik banatu edo kontrastatzeko, nahikoa da "indar" handiagoa ematea, hau da, fonetikoki azentu markatuago batez ahoskatzea. Hori da ondoko adibideetan hizki handietan markatzen duguna; (a) adibideetan esapide neutralak ditugu, (b) perpausetan osagai batek iruzkinaren enfasi kontrastiboa daukan bitartean. Has gaitezen ingelesarekin. Esaten duguna bada egun batean Jonek ikusi zuena Miren izan zela, eta ez besteren bat, nahikoa dugu *Mary* osagaia azentu bortitzago batez eta entonazio gailur batekin markatzearekin:

(41) a. John saw Mary that day
John ikusi zuen Mary hura egun
'Johnek egun hartan Mary ikusi zuen'

b. John saw MARY that day
'Mary ikusi zuen Johnek egun hartan'

Ageriko beste aldaketarik ez da sumatzen, batez ere hitz hurrenkeraren aldetikoa. Itxuratze semantikoa den dena izanagatik ere, ageriko sintaxiak ez du ezer berezirik erakusten osagai hanpatuari dagokionez. Gaztelaniaren egoera antzekoa da, baina konplikatuagoa, hitz ordena, oro har, ingelesez baino askeagoa delako batez ere. Ondoko (a) adibidean, entonazio arruntaz ahoskatuz gero, azenturik bortitzena eskuineko muturreko osagaiak hartuko du:

(42) a. Juan vio a María aquel día
b. ?Juan vio a MARIA aquel día
c. Juan vio aquel día a MARIA

Baina, dakigunez, *aquel día* osagaiak hartuko duen enfasia ez da orain guri hemen axola diguna, foku informatiboarena baizik. *Maria*k ere har lezake foku informatiboaren rola baldin eta eskuineko muturrean utziko bagenu, baina guk nahi duguna askoz gogorragoa den foku kontrastibo bezala markatzea da. Horretarako, gaztelaniaz ez dago *Maria* zertan ezkerretara eraman behar. Nahikoa dugu enfasi fonetiko berezi horretaz hornitzearekin, (b)-n bezala. Oraindik ere, normalagoa izango da perpaus hori (c)-ko hurrenkerarekin eraikitzea. Foku kontrastiboaren presentziak hustu egiten du bestelako fokurik izateko ahalbidea, eta gure foku boteretsu horrek eskuineko ohiko fokuen lekuan topatuko dugu maizenik; hortik (c)-ko hurrenkera. Edozein modutan ere, hitz hurrenkera hau erabilita ere, ez dugu hemen indarrean jartzen foku hauetarako propio den inongo gune berezirik: perpausaren ezkerraldeko muga *pax romana* baten lozorroan datza, agerian behintzat.

Euskararen kasua oso bestelakoa da, baina gaztelaniarena baino hitz hurrenkera askatasun handiago batekin, ezkerrera aldeko joerak nekezago nabaritzen dira hitz ordena murriztuagoa duten hizkuntzetan baino. Beharbada hizkuntzalarien artean euskararen antzeko kasu famatuenetariko bat hungarierarena da: hor, gorago esan bezala, foku kontrastiboak ezin daitezke sintagma arrunten lekuan gelditu, eta tradizio hungariarrean *"ezkerraldeko arloa"* deitzen den esparruan agertu behar dira, euskaraz bezalaxe aditzaren aurre-aurrean[21]:

(43) a. Pál találkozott Péterrel a bárban
Pal elkartu Peterrekin DET tabernan
'Pal Peterrekin tabernan elkartu zen'

b. PÉTERREL találkozott Pál a bárban
'PETERREKIN elkartu zen Pal tabernan'

Ikusi bezala, *Péterrel* 'Peterrekin' osagaia ezkerreko ertzean azaleratzen da (b) adibidean. Galdegaiaren fenomenoaren oinarrizko ezaugarri bat, galdegai eta aditzaren arteko lotura, errazki uler dezakegu hungarieraren bidez. Gorago esan bezala,

ezkerreratze orokor hau perpauseko ezkerraldean fokuetarako pausalekua den sintagma baten presentziatik segitzen da. Sintagma hori batzuek konplementatzaile sintagmarekin identifikatzen dute, beste batzuek foku sintagma batekin. Sintagma horrek, bata zein bestea izanda ere, sintagma guztien egitura izango du, 2. kapituluan jadanik ikusia eta hemen KONPS baten bidez erakusten duguna:

(44)



Behin fokua espezifikatzaile gunean agertuz gero, aditza ere sintagma horretan agertuko da, inguruko hizkuntzetan oso ezaguna den beste fenomeno baten ondorioa dena. Galdegaia eta aditzaren talde horri (*Péterrel találkozott*), INFLS jarraituko zaio, hau da, oinarrizko perpausaren beste guztia (*Pál a bárban*), agerian dugun hurrenkera sortuz[22].

Aurreko datuak Europako hizkuntzetatik datozenez, eta etnozentrismokeria susmoak uxatzearren, hobe dugu beste hizkuntza eremuren batetik ere datuak ekartzea, hau guztiau inguruan bizi diren hizkuntzetako ezaugarri "kulturalak" bezala ez tratatzeko, eta giza hizkuntzen fenomeno zabalago baten lekuko direla frogatzeko. Utz ditzagun Europako Atlantiko itsasoko ur hotzak, eta are Europa barru-barruko Hungariako lautada, neguan izoztua, udaran eguzkiak kiskaldua, eta joan gaitezen urtean zehar ur epelek lamikatzen duten Yukatan penintsula aldera —dinosaurioen inperioa bukatuarazi zuen meteoritoa jausi omen zen aldera, hain zuzen! Yukatera ASO hizkuntza da, aditzak perpausaren hasierako muga markatzen duen horietakoa. Lehenengo adibidean perpaus neutrala jarri ondoren, (45b)-n osagarri indartua, enfasi kontrastibodun perpausa dakargu[23]:

(45) a. Kin jantik bu'ul
LAG jan indaba
'Indabak jaten ari naiz'

b. Bu'ul kin jantik
indaba LAG jan
'Indabak ari naiz jaten.

Ba'ax ka jantik?
zer LAG jan
Zer ari zara jaten?'

Ikus daitekeenez, yukateraz ere parametroa fokuak ezkerraldeko sintagma berezi batean agertzeko finkatu da[24].

Gorago, galdetzaileen portaeraz arduratzean, aukerazko ezkerreratze hizkuntzak topatu ditugu eremu honetan, hau da, galdetzailea *in situ*, bertan behera zein ezkerreko sintagma berezi batean izan dezaketenak. Parametroak aukerazko mugimendua onartuko luke, gure ikuspegitik ulertzeko. Eta horixe bera ere aurkitzen dugu, dagoeneko inor harritu beharko ez lukeena, fokuen kasuan. Itzul gaitezen berriro Karibe eta Mexikoko Golkoko tropikotik Europako ipar hotzera, errusieraren zehar galderetako egoera ikustera. Berriro ere, ñabardura interesgarriekin, ezkerrerako mugimendua aurki dezakegu[25]:

(46) Oni sprosili $_{\text{KonpS}}$[V ERA li $_{\text{INFLS}}$ [Ivan ušel]]
haiek galdetu atzo ea Ivan alde.egin
'Galdetu zuten ea ATZO *alde egin zuen Ivanek'*

Li konplementatzailea, hemen *ea*rekin itzuli duguna, KONPS sintagmaren buruan badago, errazki suma dezakegu non dagoen azpimarratu nahi dugun osagaia, *atzo*: ezkerraldeko sintagma horren (edo antzeko baten) espezifikatzaile gunean. Baina, ingelesez bezala, ez dugu zertan hara eraman behar enfasia ezarri nahi diogun osagaia. *In situ* ere, adjunktu horri dagokion lekuan ere utz dezakegu:

(47) Oni sprosili [ušel-li [Ivan V ERA]]

Beti legez, ñabardura interesgarriak daude eredu orokor berbera aurkitu arren, eta, errusieraz berezitasun hori da behin fokua *in situ* utziz gero, aditzak gora jo behar duela[26]. Baina, ñabardurak ñabardura, fokuaz ari bagara, aukera bi dauzka eskura (ahora) errusieraren hiztunak: zuzenean entonazio indartuago batez markatzea fokua ala ezkerreko fokugune batera eramatea.

Egia esan, gaztelaniaz ere fokuek jokabide bikoitza hori dute. Goian esan dugu foku kontrastiboa entonazio hutsez markatzen dela, hemen errepikatzen dugun adibidea plazaratuz:

(48) Juan vió aquel día A MARIA

Baina gaztelaniaren gramatikak irakurriz gero[27], berehala topatzen dugu guk, seguru asko, nolabaiteko euskal kutsuko egituratzat hartuko genukeen enfasi egitura mota bat, fokua galdetzailearen antzera tratatzen duena:

(49) A MARIA le ha dado Pedro el regalo
'MIRENI eman dio Peruk pitxia'

Euskararen antzera, *a María* osagaia entonazio gailurra dugu hemen, gainerako osagaiak beheranzko entonazioaz ahoskatzen direla. Konturatu osagai indartu hau aditzaren aurre-aurrean jartzen dela, eta, oro har, euskararen itzulpenaren ordain hurbil-hurbila dugu perpaus mota hau. Badirudi, beraz, foku kontrastiboen kokapena araupetzen duen parametroak *in situ* zein ezkerreko sintagma batean uztea onartzen duela, edo, bestela esatearren, fokuen sintagmarako mugimendua aukerazkoa izan daitekeela gaztelaniaz.

****

Foku kontrastiboen portaera bereziaren berri ematean, haren kide hurbilak diren galdetzaileekiko erlazioa aipatu dugu: parametro bera ezar daiteke bietan (*in situ* gorde edo ezkerraldeko sintagmara eraman), eta, gainera, sintagma bera izan liteke haien jomuga bigarren aukera zilegi balitz. Parametro bera eta kide hurbilak izanagatik ere, bi elementuok ez dute zertan hizkuntza berean era berean jokatu. Egia da guztiz arrunta dela biak modu berean portatzea, biak *in situ* edo biak ezkerrean. Hori da euskararen egoera (ez ote da hau zorioneko *galdegaia* fenomenoa?) eta hungariarena. Ondoren, aniztasunaren izenean, beste hizkuntza biren kasuak dakartzagu, finlandiera eta goian aipatutako yukatera. Azken horrekin hasteko, lehenengo adibidean (a) goiko foku egitura errepikatzen dugu, bigarrenean (b) galdera modu berberean eratzen dela erakusteko. Gogoan hartu oinarrizko hurrenkeran aditza (*jantik* 'jan') agertuko litzatekeela lehenengo gunean ASO hizkuntza honetan:

(50) a. BU'UL kin jantik
indabak LAG jan
'Indabak ari naiz jaten'

b. Ba'ax ka jantik?
zer LAG jan
'Zer ari zara jaten?'

Ba'ax 'zer' galdetzaileak eta *bu'ul* 'indabak' fokuak aditzaren ezkerraldeko gunea hartzen dute. Berdintsu gertatzen da finlandieraz[28]:

(51) a. Jukka kysyi [että mitäi (-kö) [Pekka luki]]
Jukka galdetu KONP zer GALD Pekka irakurri
'Jukkak galdetu zuen ea Pekkak zer irakurri zuen'

b. Matti kysyi [että JUSSI-ko [luki sen kirjan]]
Matti galdetu KONP Jussik-GALD irakurri hori liburu
'Mattik galdetu zuen ea JUSIK irakurri zuen liburu hori'

Argi ikusten dugu hizkuntza honetan ere bi elementuok ezkerraldeko sintagma batera eramatea eskatzen duela parametroak. Era berean, ezkerraldeko periferia osagai funtzional gehiagorekin dago hornitua (*mitta* eta *-ko* morfemak ditugu, euskaraz ere *-en* eta *ea* ager daitezkeen bezala), eta horrek esan nahi du sintagma bakar bat baino gehiago egon daitezkeela periferia horretan. Azken urteotan Luigi Rizzi hizkuntzalari italiarrarekin sortzen den ikerketa ildo batean, ezkerreko KONPS sintagma bakar baten ordez, sintagma gehiago daudelako ideia plazaratu da. Funtsean, bitan banatu daiteke sintagma funtzional hori hizkuntza askotan: perpausa denboraduna den markatzen duena eta foku/galdetzaileen jomuga dena. Bi sintagma horiek egon litezke jokoan finlandieraren goiko adibideetan. Hizkuntzen arteko aldakortasunaren beste iturburua mintzagaiak hartzen dituen sintagmak (topiko sintagmak, TOPS) beste bi sintagma horiekiko erlazioan datza, eta litezkeen beste sintagmekin ezkerreko periferia horretan benetako "sintagma mapak" itxura daitezke, ondokoaren antzekoak. Sintagma berberak hurrenkera ezberdinetan agertzean, aniztasuna hemen ere islatuko da:

(52)



Baina, xehetasun hauek gure liburu honen eremutik kanpo daude, noski. Esku artean darabilgun aldakortasunera murrizten badugu gure begirada, garrantzizkoa dena da azal korapilatsuagoko finlandieraz ere, berdin dela bi sintagma dauden ala bat, gure bi kideak leku berberean agertzen direla konturatzea.

Bi kide horiek parametrotze berdina izateak ez du esan nahi, hala ere, derrigorrez biek ageriko portaera bera izan behar dutenik. Hau da, litekeena da bietako bat azalean ezkerraldean agertzea bestea *in situ* gelditzen den bitartean. Ingelesez, esate baterako, galdetzaileak ezkerrean agertzen dira, ingelesa ikasten dutenei hainbeste arazo ematen dizkieten *do*, *did* eta horrelakoekin batera, baina fokuak *in situ* daude, prosodia hanpatuaz markatuak, eta, ikasleen atseginerako, *do-did*-ik gabe. Ez dago argi zein neurritan diren bata bestearengandik independiente gure bi

kideon aukera parametriko hau: galdetzaileak mugitzea, ingelesez bezala, askoz arruntagoa dela dirudi fokuak mugitzea baino. Greenberg-en tradizioaren barruan horren gaineko koerlazioak azter litezke: beharbada fokuak mugitzen diren hizkuntza guztietan galdetzaileak ere mugitzen dira, baina ez alderantziz, galdetzaileak mugitzeak ez liguke ezer aurresango fokuen mugimenduaz. Eta, ikerketa tipologiko honen barruan behin koerlazioak hizkuntza kopuru esanguratsu batean oinarrituz gero, beraien sakokeno azalpenak bilatu beharko lirateke. Gure bidaia honetan, hala ere, ezin gara joan begiztatzen ditugun portu guztietara. Gehiegitan beraien urruneko ikuspegi batekin poztu beharko gara, gure bidaideek egunen batean euren aldetik bisitatuko dituztelako esperantzan. Phileas Fogg eta Passepartout-en bidaia ez bezala gurea lasterraldia ez bada ere, aurrera joan behar dugu. Itakarekin bezala gure helburua bidaiatzea da, ez heltzea, baina oraindik ere badauzkagu aurrean hizkuntza kontinenteak, gure begiraden zain.

---

1. Itzuliko gara gai honetara hurrengo kapituluan.

2. Oso era orokor batean adierazirik uzten dugu azterbide hau hemen. Esate baterako, gogoratu subjektuak aditzarekin batera sortzen direla lehenengo eta behin (aditzaren argumentuak dira, azken finean), geroago inflexio sintagmaren subjektu gunera mugitzeko, AStik kanpo. ASO hurrenkera lortzeko beste modu bat aditza goragoko inflexio sintagma horren burura mugitzea izan liteke, subjektua AS barruan gelditzen delarik (ohi bezala, *t* baten bidez markatzen dugu aditzaren jatorrizko gunea):

INFLS[__ A_i AS[S t_i O]]

Baina analisi honek esan nahi ez duguna aldarrikatuko luke, informazio eraketa ezberdina dela hizkuntza hauetan, hain zuzen ere, hemen subjektua ez baita mugitzen inflexio sintagmaren ohiko gunera. Normalean mugimendu hau, berdin dela nola adierazten den teknikoki, perpausa 'huntaz edo hartaz' izan behar izateagatik gertatzen da, hots, mintzagai bat markatzeko beharrarengatik. Mugimendua ez bada gertatzen, orduan behar hori ez litzateke indarrean egongo hizkuntza hauetan, informazio isuriaren aldetik nahiko harrigarria izango litzatekeena. Testuan nahiago dugu esatea subjektua subjektu gunean dagoela eta aditzak inflexio sintagmatik kanporako mugimendua jasan duela. Analisiak analisi, hemengo ideia nagusia da hizkuntzaren bestelako prozesu independienteek subjektu-predikatu oinarrizko hurrenkera ezkutatu ahal dutela.

3. Geroago ikusiko denez, mota ezberdineko mintzagaiak existitzen dira, eta han-hemenka 'mintzagai neutralak' terminoa erabiltzen dugu mota jakin batez ari garela esateko. Subjektuarekiko lotura *Given Topic* labelaz ezagutzen dena da. Ikusi Dik (1989: 267).

4 Egitura ezakusatiboak ere badaude: osagarri ezaugarriak dituen argumentu bakarreko perpausak. Baina, tipikoki argumentu horrek 'sakoneko' osagarri portaeraz gain azaleko subjektu portaera ere badu (komunztadura, etab.).

5. Norvegieraren datuak Åfarli (1989) lanean agertzen dira.

6. Datuak Cohen-ek (1970) ematen ditu. Apur bat aldatu dugu grafia: 'ʌ' sinboloaz bere amarraduna idazten dugu, IPAren (*International Phonetic Association*) erabilerara egokituz; hau da, ingelesaren *but* hitzeko bokala. 'b' darabilgu beraren b-marradunaren ordez, amhareraz /b/ fonemaren burutzapen fonetikoa euskararen /b/ fonemaren burutzapenaren oso antzekoa baita: adibideko guztiak, herskariak izan beharrean, hurbilkari/igurzkariak dira. Bidenabar, aurreko mintzagai hauek ahoskatzerakoan, Cohen-ek (342 orr.) dioenez, «*ils sont détachés par une légère ponctuation orale, qui semble consister en une trés légère élévation du ton (même situation qu'en français)*»; eta antzera euskaraz ere, noski.

7. Datuak Merrifield, Naish, Rensch eta Story (1974) liburutik hartu ditugu. Berez, gainerako inongo testurik gabeko datu gordinak dira, eta *ya*dun argumentuari dagokion ingelesezko itzulpenean azpimarra besterik ez da agertzen, azpimarrak zer adierazten duen esan gabe. Hala ere, Filipinetako beste hizkuntzen antzera jokatzen duenez, 'mintzagaia' delakoan gaude.

8. Ondoren, ukituko ditugun datuez gain, badago interes handiko beste bat: perpaus existentzialetan subjektuak zehaztugabeak izaten dira: ingelesez, esate baterako *There is a/*the dog in my garden* perpausean ez da onargarria determinatzaile zehaztua (*the*). Era berean, japonieraz *ga* batez agertzen zaizkigu horrelako perpausen subjektuak: *a! inu ga iru!* 'a, txakur bat dago!' (Iwasaki, 2002: 229). Eta Schachter-ek (1976: 502) deskribatu zuenez, Filipinetako hizkuntzetan aurrean ikusitako 'mintzagai' komunztadura sistema hori gabeko inguru bakarra perpaus existentzialetakoa da.

9. Iwasaki-k (2002), datu hauen iturburua denak, atal oso bat eskaintzen die *wa*-dun eta *ga*-dun perpausei, ikuspuntu interesgarri batetik

10. Schachter-ek (1976: 496) dakar elkarrizketa hau.

11. Edukizko multzoa, zeren eta gaurko eredu gramatikaletan aditz multzoa eta subjektua lotzeko bestelako multzo 'funtzionalez' baliatzen gara. Ikusi 2. kapituluko zuhaitzetan INFLS edo antzekoa den denbora sintagma, DS.

12. Ez dugu euskarazko adibiderik ematen, eztabaidagarria baita honelako perpaus 'neutralik' badagoen ala ez. Ikusi Hualde *et al.* (1994) eta A. Elordieta (2001).

13. Cinque-ren (1993) lanetik badakigu garrantzi hau daukan osagaia zuhaitz sintaktikoan 'sakonen' dagoen osagai azentuduna dela, eta berriro ere 2. kapituluko zuhaitzei begirada bat bota besterik ez dago konturatzeko osagai hori osagarria dela beti, aditzaren ezkerretara (OA) zein eskuinetara (AO) azalduta ere.

14. Itzuliko gara 8. kapituluan Hualde eta Elordietarrek deskribatu zituzten egitura hauetara. Bidenabar, gaztelaniaz ere *Juan llegó* A LAS TRES esan daiteke, foku kontrastiboaren entonazioarekin.

15. Mitxelena zena (Mitxelena, 1981) bai oker bai zuzen ibili zen ezkerreratze honen kontra euskaraz *Hori, zer da?* esaldia, eta gaztelaniaz *La manguera, ¿dónde está? ¿Dónde está la escalera?* bezalakoak kontrajarri zituenean, 'mintzagai' hitza sortu zuen artikulu berean.

16. Eskerrik asko Brendan Costello eta Itziar Masi material hau erabiltzeko baimena emateagatik. Itzuliko gara hurrengo kapituluan keinu hizkuntzetara. Transkribapen honek ez ditu kontuan hartzen esku-keinuez gain artikulatzen diren bestelako 'entonazio' osagaiak, batez ere 'aurpegikerak' dei genitzakeen aurpegi artikulazioak –begiratu bigarren eta hirugarren argazkietako aurpegiaren itxurari, keinuei gaineratzen zaiena. Gure solas inguru honetan hurrenkeraz arduratzen gara, eta horretarako nahikoa dugu keinuen ilarak zehaztea. Ikusi Zeshan (2004), galderak ikuspegi tipologiko batetik arakatzen dituena, eta Sandler eta Lillo-Martin (2006).

17. Bigarren kapituluaren amaiera partean aztertu genuen txineraren kasu 'nahasia', OA ezaugarriak ere baititu hizkuntza horrek.

18. Ezin daitezke fijieraz galdetzaile guztiak zuzenean aurrera eraman besterik gabe. Bestelako aldaketak egin behar, batzuetan, bigarren adibide taldean bezala, aditzaren morfologian (*-ca* atzizki iragankorra erabiliaz, *-ci* atzizkiaren ordez), edo eta sintaxian ere. Datuak Dixon (1988) lanetik atera ditugu.

19. Datuak testuliburu batetik datoz, Centro de Investigaciones y Documentación de la Costa Atlántica (1985), Nikaraguako erakundeak ateratakoa. Ez da sakoneko ikerketa, baina aipatzen diren datuen artean hau argiro baieztatzen da.

20. Rizzi (1997) da honetarako irakurri beharreko artikulua. Gainera, azkeneko urteetan badago ezkerraldeko periferiako 'mapa' bat eraikitzen diharduen ikertzaile talde bat, beren lanari kartografia deitzen diotena. Ikusi Cinque (2002), Rizzi (2002) eta Belletti (2002). Kapitulu honetako azken atalean berriro ere egingo dugu topo kartografia berezi horrekin.

21. Kapitulu honetako beste asko bezala, datu hauek Kenesei eta Ortiz de Urbina (1994) artikulutik hartu ditugu.

22. Antzeko azterketa erabil daiteke euskararekin, baina arazoak sortzen dira hemen. Benetan aditza KONP buruan badago honelako fokudun perpausetan, hungarieraz foku-aditz hurrenkera agertzea normala da, KONP burua ezkerretara baitago (*Jonek esan du ezen…* bezalako egiturak erabiltzen dituzte, konplementatzailea mendeko perpausaren hasieran daukatenak). Baina euskaraz, gorago esan bezala, sintagmen buruak eskuinetara badaude espero duguna ondokoa da:

(i)



Hau da, fokuaren eta aditzaren artean, euskaraz perpausaren beste osagai guztiak agertzea espero genezake, inolaz ez galdegaiaren eta aditzaren arteko lotura hori. Analisi ezberdinak daude euskararen kasua aztertzeko. Ikusi, esate baterako, Elordieta (2001) edota Ortiz de Urbina (2002).

23. Tonhauser (2005). Hizkuntza maiarren datu orokorrak ikusteko, bai mintzagaiak bai eta galdegaien aldetik, ikus Aissen (1992).

24. Gure ASO hizkuntzen analisia nolakoa den, aditza fokuari jarraitzeak hungarieraren eta euskararen hurrenkerarekin zerikusirik izan lezake ala ez. Aditza INFLS barruan badago (i), kointzidentzia hutsa izango da hurrenkera hori, aditza oinarrizko perpaus egituraren (INFLSren) lehenengo gunean baitago, eta fokurik ez balego, leku berean egongo litzateke. Baliteke, bestalde, ASO ordena aditza, fokurik gabeko perpaus arruntetan ere, INFLStik gorago, agian KONP gunera (ii) joatetik sortzea. Orduan bai, KONPS-en konfigurazioa oso antzekoa litzateke euskaraz eta hungarieraz antzematen denarekin:

(i)



(ii)



25. Datuak Kenesei eta Ortiz de Urbina (1994) lanetik hartu ditugu.

26. Ez dugu zertan pentsatu behar aditzaren goranzko mugimendu hau fokalizazioaren marka denik. Beharbada arrazoi fonetikoak daude horretarako: hizkuntza eslabiar askotan *li* konplementatzailea klitikoa da, euskarazko *-la* bezala, hau da, azenturik ezean berez ezin ahoska daitekeen elementua, beste (azentudun) baten laguntza behar duena. Fokua daukagunean badago bere sintagman nork lagundu: fokua bera. Baina fokuak *in situ* gelditzea erabakitzen badu, *li* da KONPS-eko izaki bakarra. Orduan beste zerbait joan beharko da haren ingurura laguntzaile. Eta *li* burua denez, guztiz normala da beheko burua hartaratzea, INFL buruan dagoen aditz jokatua. Datuak Kenesei & Ortiz de Urbina (1994) lanetik datoz, nahiz eta han beste azalbide bat ematen den.

27. Gaztelaniaren gramatika deskribatzailerik hoberena Ignacio Bosque eta Violeta Demonte-k 1999an argitaratutakoa da, eta bertan, Maria Luisa Zubizarretak (1999: 4239) 'foco antepuesto' izenarekin deskribatzen ditu egitura hauek.

28. Finlandieraren datuak, beste askorekin batera, Kenesei eta Ortiz de Urbina (1994) artikuluan aurki daitezke.

Non hizkuntzari buruzko erakusgarriak biltzen diren askotariko bazter eta eremuetan, eta nola amaieran bidaiariek bidain irabazitakoaz hausnartzen duten

VIII. kapitulua

Liburuan zehar, han-hemenka, azaleko aldakortasuna eta sakoneko batasuna aipatu ditugu, Gramatika Sortzailearen, eta bereziki hatsarre eta parametroen ereduaren ohiko kontzeptuak, alegia. Neurri batean, sarri askotan hizkuntzen arteko eta hizkuntzen barruko aldakortasun eta batasunaren funtsa horretan datza, hain zuzen: azaleko aldakortasunak maizago ezkutatzen du sakoneko batasuna alderantziz baino. Eta egia bada ere batzuetan oso antzekoa dirudiena guztiz bestelakoa dela behin ondo aztertuz gero, normalagoa da kontrakoa. Horregatik hizkuntzalaritzan arituz gero hasierako momentuan fenomenoak eta egiturak berri-berriak begitandu eta gero, pixkanaka-pixkanaka garaitzen den inpresioa antzekotasunarena da.

Aitor dezagun honen zati bat gure lanabes analitikoen poderiotik segi litekeela. Susan Sontag zenak interpretazioaren arriskuez ohartarazten zigun, eta *analizatzea* neurri handi batean datuak elkarrekin lotzea denez, batzuetan loturak analisiaren *artifizio*ak izan litezke, errealitatea ulertzeko geure saiakeren ezaugarriak eta ez agian errealitatearenak berarenak. Baina aurreko kapituluetan ez gara sakontasun teorikoetan larregi sartu; gehienetan maila jasoko deskribapena da eskaini duguna, eta hala ere, espero dugu azken kapitulu honetara iritsi garenerako, irakurlea ados egotea gurekin, hizkuntzak elkarrengandik *horrenbeste* bereizten ez direla diogunean. Analisiek, gainera, beti ez bada ere, sarri askotan, ezin ukatuzko funtsezko batasuna azaleratu dute.

Adibide txiki bat emango dugu, hizkuntza baten barruko azaleko aldakortasuna, apur bat arretaz aztertuz gero, nola deuseztatzen den erakusteko. Auzia euskararen barruko aldakortasun fenomeno baten ingurukoa bada ere, balio orokorragoa duelakoan gaude. Fokuak (*galdegaiak*) ditugu orain aztergai. Gure maisu-maistrek buruan eskolatik iltzatu digutenez, aditzaren ezkerreko gunea da euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, osagai indartuak, enfasi berezia dutenen kokalekua. Hain da hau ezaguna non adibideak jartzea ere ez baitu merezi! Baina, bestaldetik, oso ezaguna da gure bizitza errealean, batzuetan behintzat, honelako osagai enfasidunak eskuinaldean ere jartzen ditugula. Aipatutako maisu-maistrek hori egitean eus-

karaz txarto hitz egiteaz errudun sentiarazi gaituzte, baina ezin izan dituzte kokapen horiek gure hizkuntzaren erabileratik errotik kendu, askok hala nahi izan badute ere. Gorago esan dugun bezala, ikuspegi arau-emaileetan aldakortasuna akatsa izaten da askotan, ez aberastasun iturria. Baina antiojo horiek kenduta, badirudi batzuetan behintzat euskara jatorra eta akatsgabea darabilgula ezpainetan honelako batzuk erabiltzen ditugunean ere. Ondoko esaldia, esate baterako, arau-emaile askori gustatu ala ez, erraz entzun liteke gaur egun (eta, beharbada, baita lehenagoko garaietan ere):

(1) Jonek egunkaria irakurri du ETXEAN

Esaldi hauek nahiko arruntak dira aurretik esandako zerbait zuzentzen denean, solaskide batek Jonek egunkaria kafetegian irakurri duela esan duelako edo. Entonazioaren aldetik ere ezaugarri bereziak dituzte[1]. Azpimarratzen den osagaiaren aurrean entonazioak, perpausaren doinuak, gora jotzen du; gero, askotan etentxo txiki baten ondoan, ETXEAN bezalako osagai enfasidunak datoz. Baina, apur bat pentsatuz gero, osagai horren aurrekoa, *Jonek egunkaria irakurri du*, besteren batek esanda edo, ontzat ematen bada, informazio ezagun eta zaharra da, normalean mintzagaiari dagokiona. Aurreko kapituluan esan dugunez, mintzagaien kokapena ezkerraldeko periferian dago, galdegaitik ezkerretarago. Beraz, baliteke aurreko esaldian ETXEAN osagaia ohiko galdegaigunean egotea eta beste guztia mintzagai "ultraezkertiarra" izatea. Eskuineko galdegai hauek ez lukete galdegaigune berezirik hartuko, eta hemen aurkitzen dugun aldakortasuna azaleko epifenomeno baten ondorioa izango litzateke. Berezia dena ez da hemen galdegaiaren kokapena, ez eta mintzagaiaren kokapena bera ere, mintzagaia beste solaskideak esandako guztia izatea baizik —guztia zuzentzen duguna izan ezik. Galdegaia alde batera, beste guztia mintzagaia da! Behin honetaz jabetuz gero, ez da harritzekoa antza atipikoak diren galdegai hauek galdegai tipikoen ezaugarri berberak izatea. Esate baterako, oso arraroak dira galdegaiak ezezko perpausetan *guztiak* zenbatzailearekin agertzen badira (a). Eta, esandakoaren arabera, ez da harritzekoa arrarotasun berbera sumatzea osagai indartu hau ezkerreko ohiko galdegaigunean (a) ala "eskuinaldekoan" (b) agertzen denean. Bestaldetik, ez dago inongo arazorik *ikasle guztiek* galdegai ez denean (c):

(2) a. ??IKASLE GUZTIEK ez dute azterketa aprobatu.
b. ?? Ez dute azterketa aprobatu # IKASLE GUZTIEK.
c. Ez dute azterketa aprobatu ikasle guztiek (bakan batzuek baizik)

Azken adibide hori interesgarria da: hitz hurrenkeraren aldetik (b)-ren berdinberdina da. Baina *ikasle guztiek* horren aurretik "#" horren bidez markatu dugun entonazio ezaugarri berezirik gabe ahoskatzen bada, beste edozein osagarri bezalakoa da, zenbatzaile horrekin agertzeko inongo oztoporik ez baitu. Analisi honen arabera, azaleko aldakortasunaren erakusgarri bat —galdegaien kokapena— gure

atzamarren artean deuseztatzen da. Aurreko kapituluetan ikusi eta ikasitakoa kontuan harturik, baina, argi dago hizkuntzetan aurkitzen den aldakortasunaren parte handi bat *bona fide*koa dela, benetakoa, Hizkuntzaren eraketaz zerbait esaten diguna. Eta hizkuntzalarioi dagokigu azaltzea hizkuntzak zergatik diren horren antzekoak, batasuna alegia, bai eta zergatik existitzen den aldakortasuna.

****

Gure bidaia honetan, azaleko bitxikeria exotikoengatik ere, azpiko batasunaren arrazoiak bilatzera abiatzean, ikuspegi sortzaileak bi aldetara zuzenduarazi dizkigu begiak. Alde batetik, eta hau da ikuspegi honen berezitasuna, hizkuntza gaitasunaren beraren *formak*, gramatikak zentzu hertsian, baldintzatuko lituzke molde jakineko mekanismo horretatik sortzen diren ekoizkinak, hizkuntzak alegia. Adibide batez adierazteko, Phileas Fogg-ek erabili zituen ibilgailu denek, alegia, itsasontziak, trenak eta are, Auda anderea sutatik salbatu ondoren, elefanteak, modu jakin bateko mugimenduak egin zitzaketen, baina inoiz ez batak bestearena, ez trenak zama-ontziarena, ez elefanteak elur-lerarena. Era berean, Gramatika Unibertsalak, nolabaiteko ezaugarriak dituen mekanismoa den heinean, mota jakin bateko hizkuntzak sor ditzake. Parametro batek aukerak ematen dituenean ere, mota jakin bateko aukerak dira, esate baterako, sintagmen burua osagarriaren ezkerretara ala eskuinetara; eta aukerarik ematen ez zaigunean, hor konpon: espezifikatzaileak ezkerretara agertzen badira, ezin ezaugarri honek baldintzatzen duen hizkuntza forma konkretu honetatik atera. Hortik batasuna.

Baina, era berean, hizkuntza gramatika baino zerbait gehixeago da. Ikuspegi sortzaileak ikerketa eremu mugatu hori badu ere, ez du inolaz ere ukatzen hizkuntza hori baino askozaz gehiago denik. Hizkuntza gaitasun —genetiko— hori gizakion bestelako sistemekin elkarlanean aritzen da: hizkuntza *ahoskatu* egin behar da, eta, entzule/irakurle/ikuslearen zentzuetara ailegatzen denean, prozesatu egin behar da. Gainera, hizkuntzak gure nahi eta nahikundeak, zaletasun eta gorrotoak eta, biribiltzearren, gure pentsakera eta pentsaera bideratzeko erabiltzen ditugu, eta hori guztia, *sistema sinboliko/kontzeptual* izenez ezagutzen duguna, gramatikaren mekanismoarekin lotu egin behar da. Hizkuntza itxuratzen duten atal guztiak elkartu egiten dira, eta elkarguneetan bakoitzaren beharrek bestearen formak baldintzatzen dituzte. Gramatikaz kanpoko gogo/gorputzaren osagai horiek gizaki guztiengan berberak diren neurrian, batasunerako joera sortuko dute elkarguneetan, eta, beharbada, baita gramatikan ere.

Zehatz dezagun hau orain eremu batean, hizkuntza prozesamenduarenean hain zuzen. Nola lortzen dugu belarri-begietara heltzen zaizkigun hotsetatik mezua deszifratzea? Nola berreraikitzen dira mezu-hartzailearen buruan hizkuntzalariok perpausen osagaien arteko harremanak itxuratzeko erabiltzen ditugun egitura zail samar horiek? Zeren eta bai hiztunak bai entzule-ikusleak “ulertu” behar baitituzte osagaien arteko harreman horiek, era berean elkarri ulertu ahal izateko. Demagun

entzuten eta irakurtzen ditugun esaldiak "ulertzean", "prosezatzean" edo "interpretatzean" hizkuntzalari askok zuhaitzetan itxuratzen ditugun erlazio sare horien adierazpen mental bat osatzen dugula, gureganatzen ditugun soinuekin egitura sintaktiko/semantikoak eratzen ditugula. Egitura eratzeko prozesu hau ez da hasten esaldiaren osagai guztiak entzun ditugunean: badirudi interpretazioa berehalakoa dela, lehenengo osagaiak entzun bezain laster hasten dela eraikitzen. Entzuleak osagaiak bere gramatikaren arauen arabera elkartzen ditu sintagmetan, bere zentzuak jo eta berehala. Horrela azaltzen da ondokoa bezalako esaldiek sortzen dituzten berrinterpretazioak[2]:

(3) Jonek Mikel jo zuen gizona ikusi du

Hitzak banan-banan entzun eta interpretatzean, hasierako katea (*Jonek Mikel jo zuen*) erarik sinpleenean hartzen da, SOA esaldi tipiko bat bezala, azkeneko bi osagaiek erratu garela jakinarazten diguten arte, aurreko guztia berrinterpretatzera behartuz. Esaldiaren erdian atzera egin behar hori sentitzen dugu, eta hala, bada, hobe —badakizue *dabillan harriari etcaica goroldioric lotcen!*

Gainerakoan, gure idazkeraren konbentzioak direla medio, ezkerreko muturretik hasita eskuinetarako lerro horizontaletan josten ditugu hitzak bata bestearekin, aspaldiko txinatarrek —gaur egungoek ez hainbeste— eskumako muturretik hasita ezkerretarantz eta goitik beherako lerro bertikaletan idazten zituzten bitartean. Baina itxuratze ezberdin horiek berriro ere oinarrizko batasuna ezkutatzen dute: hitzak banan-banan sortzen ditugu, gure mekanismo fonikoak soinuak banan-banan sortzeko aukerarik baino ez du-eta. Eta hitzak espazioan bata bestearen ondoan kateatuta egon ez arren, denboran badaude: bana-banako sortze hori espazioan gabe, denboran gertatzen da. Metafora espaziotik hartuta, eta nahiko etnozentrikoki hartu ere, kateatze horri askotan *ezker-eskuinetarako asimetria* deitzen zaio, sortzen eta entzuten dugun lehenengo hitza "ezkerrekoa" bailitzan. Gizakion prozesatze sistemak asimetria batekin funtzionatuko luke, lehenik *belarrietaratzen* edo begietaratzen zaigun hitzarekin berehala eta azkenera arte itxaron gabe, gure burmuinean hiztunak eraiki dituen harreman gramatikalak berreraikiz. Grafikoki esateko, hiztunak sortu duen hitz kateari dagokion zuhaixkaren enbor eta adarrak berreraikitzen ditugu, baina material guztia izan arte itxaron gabe. Ausartak gara horretan, baina argi dago honetan ere denbora garestia dela. Eta gainera, ausardia, atrebentzia eta guzti, irabazi egingo dugu apustua: goiko adibidearenaren antzeko oker eta tranpak urriak izaten dira, eta, are gehiago, gure solaskideak bere esaldia ahoskatzen amaitzen duenerako jadanik dena prozesatu eta ulertu dugu. Nola da posible hori?

John Hawkins-ek (1990, 2004) azken urteotan erantzun interesgarria eman du: gure prozesamendu abiadura hain azkarra da ez bakarrik prozesamendu mekanismoaren beraren ezaugarriengatik, baita gramatikaren ezaugarriak eurak proze-

samendua hobetzeko egokituta egoteagatik ere: gramatikaren eremu hertsiaren diseinua prozesamenduaren mesedetan garatu edota hautatu da. Eta, batasunaren auzira itzultzearren, prozesamenduaren mekanismoak hizkuntzartean antzekoak diren neurrian, eta prozesamendu auziek Gramatika Unibertsalaren diseinua baldintzatzen duten neurrian, balizko aldakortasuna murriztu egiten zaigu, bateratzeko beste faktore honen poderioz.

****

Eman diezaiogun ideia abstraktu horri itxura xeheago bat, proposamena nola gauzatzen den ikusteko. Esan dezagun, ezer baino lehenago, John Hawkins-en lana "prozesamendu" inguruko hausnarketa teorikoa dela, neurohizkuntzalaritzaren datu "sendoak" erabiltzen ez dituena. Ez dira, beraz, prozesamendu datu esperimentalak, tipologiatik datozen datuak baizik, helburua SAO/SOA hizkuntza moten ugaritasuna, bai eta haien arteko asimetrien berri ematea baita. Har ditzagun OA eta AO hizkuntza bi, euskara eta gaztelania esate baterako, hitz kateak zehazki nola prozesatzen den ikustearren:

(4) bidaian presa handia izan
(5) tener mucha prisa en el viaje

Aditz sintagma nagusi honek hiru osagai dauzka: aditz burua, izen sintagma eta preposizio sintagma. Gaztelaniaren hiztunak aditz bat entzungo du lehenengoz, eta hau nahikoa da berehalakoan aditz sintagma (AS) adabegia sortu, buru bakoitzak bere sintagma islatzen baitu. Lehenengo hitzarekin badugu gainerako sintagmak bilduko dituen adabegi nagusia (AS), bai eta lehenengo osagaia (A) ere. Bigarren hitza *mucha* dugu. Elementu hau zenbatzailea da, eta zenbatzaileek izenen kopuruaz zerbait esaten digutenez, Fix detektibeak berak ere jakingo luke ondoren izen sintagma datorkigula. Beraz, erratzeko arriskuaren beldurrik gabe, eta izenik entzun gabe ere, izen sintagma (IS) adabegi bat sortzera ausartzen gara. IS hau Arekin lotuko dugu, eta ASren baitan bi osagai izango ditugu orduan:

(6)



Hirugarren hitza, *prisa*, aurreko hitzarekin eraikitako sintagmaren burua da[3], eta ISri itsasten diogu. Horrek, baina, ez digu beste ezertan laguntzen, ez baitio ASri beste osagairik gaineratzen. Laugarren hitza *en* preposizio lokatiboa dugu, eta aurkituaz batera badakigu preposizio sintagma bat sortu beharra dugula, gure

ASren hiru osagaiak zehazten amaituz kate osoaren hitz guztiak entzuteko beharrik izan gabe.

Beste hainbeste esan daiteke euskararen ordainaz, agian ñabardura batekin. Intuitiboki, honelako hizkuntzekin lan egiten duten askok —itzultzaileek, bat-bateko interpreteek— diotenez, euskara bezalako OA hizkuntza batetik gaztelaniaren antzeko AO batera pasatzean, edo alderantziz, hasierako elementuek emandako informazioa gorde egin behar da, "azkenean" datorren elementuak dena bere lekuan kokatzen lagundu (eta horretara behartu) arte.

Aurreko adibidean aurkitzen dugun lehen osagaia *bidaia* da, izena, eta IS adabegi nagusi baten sortzailea. Oraindik ez daukagu ASren inongo osagairik, eta, egia esan, jakin ere, AS bat eraikitzen ari garenik ere ez dakigu! Ikuspegi honetatik, hau AO hizkuntzak ez bezalakoa da: OA hizkuntzetan, artean gaineratu gabeko elementu hauek *memoria eremu* batean gordeko lirateke, zeri lotuko zain[4]. Hurrengo elementuak, *-a* determinatzaileak, berehala emango digu determinatzaile sintagma, eta horri lotuko diogu aurreko IS (*bidaia*[5]), baina oraindik ere ez dugu aditz sintagmaren osagai bat ere eraiki, ez eta aditz sintagma bera ere. Eraiki dugun determinatzaile sintagma hau ere memoria eremuan gorde beharko dugu, lehenago hor utzitakoari gehituz. Postposizioa topatuz gero, postposizio sintagma (PS) osatzen dugu, eta aurretik eraiki eta gorde dugun IS sintagma honen osagarri modura gaineratzen dugu. Halarik ere, memoria mekanismo batean gorde beharko dugu lehenengo osagai hau, zeren osagaia den oraindik orain ere ez baitakigu. Hurrengo hitzak (*presa*) izen sintagma ematen digu, eta *handia* adjektiboa horren barruan sartzen dugu, gaztelaniaz ere egingo litzatekeen bezala. IS oso hau eraiki bezain laster gure bigarren osagaia dugu, baina hau ere memorian gorde behar dugu. Osagai bi prozesatu ditugu. Azkenik, eta azkenean! *izan* hitzak aditz sintagma sorrarazten digu, eta orain bai, aurreko PS, IS eta aditza bera, AS honen hiru kideak bezala identifikatzen ditugu. Hiru sintagma horiek identifikatzeko behar den hitz katea *-n presa handia izan* izango litzateke, gaztelaniazko *tener mucha prisa en* katearen pareparekoa. Bi hizkuntza motek eraginkortasun berberarekin prozesatzen dituzte datuak. Gaztelaniaz atrebentzia gehiago behar da batzuetan sintagma osoak izan gabe egitura sortzeko. Euskaraz egitura beste erritmo batekin sortzen omen dugu. Lehenik lehengaiak elkartu eta ondoan erabiltzeko prest uzten dira, azkenean, denak onartzen dituen sintagma zein den jakinda, berehala bat-batean ia egitura osoa eraikitzeko. Prozesamendu mekanismoaren gutxieneko deskribapen honekin, dagoeneko prest gaude Gramatika Unibertsalaren barneko ezaugarritzat hartu dugun Buru Parametroak prozesamenduarekin izan dezakeen harremana ikusteko. Baina hau, irakurle, hurrengo ataleko kontua da.

****

Hawkins-en arabera, ezin zorizkoa izan maizenik aurkitzen diren hitz hurrenkera motak (AO eta OA) prozesamendu abiaduraren aldetik ere hain antzekoak

izatea. Ikus dezagun orain zein neurritan aldera ditzakegun hizkuntzarteko maiztasun tipologikoa eta abiadura. Elkar ditzagun, Greenberg-ek egiten zuen bezala, aditzaren eta osagarriaren arteko hurrenkera preposizioak ala postposizioak izatearekin (hau da, adposizio-IS hurrenkera ala IS-adposizioa izatearekin). Gure deskribapena gehiago zehazteko, kontaketan arituko gara, intuizioak apur bat gehiago zorroztearren. Irakurle izutiren bat balego, lasaitzeko eskatuko genioke: alde batetik oso kontaketa errazak dira hauek eta, bestaldetik, maila intuitiboago batean gelditu nahi badu ere, erraza izango zaio puntu orokorraz jabetzea zehaztasun teknikoagoetan murgildu gabe.

Greenberg-ek esan zuen bezala, bi osagai bikote hauek kontuan izanda, balizko hurrenkera konbinazioak ondoko taulakoak dira —euskarazko morfemak darabiltzagu:

(7) a. Etxe ra joan
b. Ra etxe joan
c. Joan ra etxe
d. Joan etxe ra

Konbinaketa hauei dagozkien egiturak ondokoak dira. Berehala azalduko dugu zer diren azpiko zenbaki eta marrak:



Lehenengo hurrenkera konbinaketa (a) euskararena da, bai aditzaren bai adposizioaren osagarria eskumatara kokatzen duena. Gure aditz sintagma hauetan bi osagarri besterik ez dugu jarri, eta, gainera, P bat topatzearekin batera PS eraikiko dugu, eta A topatzearekin batera AS bera. Mendeko arraiek bi ale hauek (P eta A) dituzten gutxieneko katea da. Intuitiboki, lerro horrek prozesagailuak ASren egitura osoa identifikatzeko topatu behar duen hitz katea dugu. Gogoratu euskararen kasuan *etxe* izena hasieran topatuz gero ez dugula IS bat besterik identifikatzen, eta adibide honetan IS ez da ASren osagaia. Beraz, non kokatu ez dugunez,

memoria eremuan lagatzen dugu, eta, zentzu hertsi batean, ez gara ASren egitura eraikitzen hasi; horregatik ez dugu *etxe* azpian lerrorik jarri. Hirugarren egitura (c), gaztelaniari dagokiona da. Hemen hasierako bi hitzek topatutakoan AS egitura osoa identifika dezakegu, eta azkeneko izenera ailegatzen garenerako aurrean identifikatu eta eraikitako egitura horri atxikitzen diogu; identifikatu, izen horrek ez digu ASren osagai nagusietako bat ere identifikatzen. Identifikatze/eraikitze esparrua, beraz, *joan ra* (*ir a*) dugu, hortik azpiko lerroa. Azkenik, beste kasuetan AS egitura osoa identifikatuko diguten A eta P osagarriak hitz katearen mutur banatan kokatu dira. Lehenengo osagaia identifikatzearekin AS eraikitzen hastetik bigarren osagaiarekin topo egitean amaitu arte, egituraren hitz guzti-guztiekin jokatu behar izan dugu. Prozesamendu korapilatsuagoa da hau, sintagma honetarako konplikatuagoa, beheko lerro luzeago horiek intuitiboki esaten digutenez.

Honen esanahi eta ondorioez pentsatzen hasi baino lehenago, saia gaitezen emandako zenbaki horiek ulertzen. Zenbaki horiek intuitiboki lerroen bidez adierazi duguna zehazkiago neurtzeko ahalbidea ematen digute. Lehenengo lerroan A/B motako zatikizko zenbakiak ditugu. Horietan guztietan goiko parteak ASren zenbatgarren osagaitan gauden esaten digu; adibide honetan osagai bi besterik ez dugunez, zenbakia beti izango da 1 ala 2. Frakzio horren beheko parteak lerroaren (AS identifikazio katearen) zenbatgarren hitza den adierazten du. Horregatik, gure lerroak bi hitzetakoak izanez gero lehenengoan 1 eta bigarrenean 2 izango dugu, eta hiru hitzetako lerroa ditugunean, frakzioaren beheko aldean 1, 2 eta 3 aurkituko ditugu. Bigarren zenbaki lerroan frakzio bakoitzaren ehunekoak kalkulatzen dira: 1/1 badugu, % 100; 1/2 % 50a; 2/3 % 67, etab. Horrela lortutako ehuneko guztien batazbestekoa beheko zenbakia da, bila genbiltzan zenbakia. *HOP* etiketa misteriotsuaren azpian *Hitz/Osagarri Proportzioa* ezkutatzen da, gure goiko lerro intuitiboei neurketa zehatzagoa ematen dien zifra. Neurri horrek, gure sintagmaren osagarri guztiak identifikatu baino lehenago zenbat hitz prozesatu behar ditugun esaten digu sinpleki, hau da, prozesamendu abiadura edo erraztasuna. Eta gure lerro intuitiboek esaten diguten bezala, proportzio hori ezin hobea da aditza ezkerrean duten hizkuntza preposizionaletan (c) eta aditza eskumatara duten hizkuntza postposizionaletan (a): % 100eko eraginkortasun/abiadura distiratsua eskaintzen digute hurrenkera hauek. Beste konbinaketa biak askoz motelagoak eta traketsagoak dira, batez ere % 72ko HOP indizea duen "aditza eskuinetara eta preposizioak".

Preposizio/postposizio sintagmak erabili ditugu aurreko adibidean, baina badakigu sintagma horiek osagarri zuzenak agertzen diren aldean agertu ohi direla. Beraz, goiko lau hizkuntza motak ondokoak dira, prozesamendu abiaduraren arabera elkartuta: OA/postposizionala (a, % 100), AO/preposizionala (c, % 100), A/O postposizionala (d, % 88.5) eta OA/preposizionala (b, % 72). Eta bigarren kapituluari gaineko begirada bat ematea nahikoa izango da ikusteko prozesamendu erraztasuna neurtzen duen indizea guztiz bateragarria dela konbinaketa horiek di-

tuzten hizkuntza moten maiztasunarekin. Hawkins-en beraren datutegia hartzen badugu, SOA hizkuntzetan % 93 dira postposiziodunak eta % 7 bakarrik preposiziodunak; SAO hizkuntzetan, aldiz, % 77 preposiziodunak eta % 23 postposiziodunak. Datu hauek ez dute bakarrik erakusten %100 HOPa daukaten hurrenkerak arruntenak direla. Are gehiago, ez da kasualitatea (d) eta (b) moten artean prozesagarritasun erlatiboa hizkuntza mota horien maiztasunean ere islaturik ikustea. Hawkins-en datutegian, SAO hizkuntzetan % 23 dira postposiziodunak (% 88.5 HOPa) baina SOA artean % 7 bakarrik dira preposiziodunak (beherago dagoen % 72 HOPagatik). Beraz, munduko hizkuntzek nahiago dituzten hurrenkerak bere prozesamendu teoria honen arabera prozesatzen arinenak dira.

Hau bezalako datuetatik Hawkins-ek ateratzen duen ondorioa da gramatikaren mekanismoak onesten duen aldakortasuna dela prozesamenduan erabilgarritasun hobea ematen duena. Are gehiago, prozesamenduak mekanismoaren forma baldintzatuko luke, edo, hain bortizki ez adieraztearren, gramatikak eta prozesamenduak elkarren arteko erlazio estuak izango lituzkete. Prozesamendua hitzekin banan-banan aritzeko beharrak eta abiaduraren ikuspuntutik honek dakartzan ondorioak gramatikaren beraren forman betebeharreko baldintzak ezarriko lituzke, balizko aldakortasuna mugatuz eta batasunerako joera handituz.

****

Hawkins-en argudioak datuak jaso ahala sendotzen dira neurri handi batean. Azken finean, adposizio hurrenkera eta OA/AO hurrenkera lotzeko badugu gramatikaren ezaugarrietan *bakarrik* oinarritzen den azalpen orokor bat, buruak osagarriarekin erakusten duen kokapena, hain zuzen. Ez genuke printzipioz, beste daturik ezean, gramatikaz kanpoko beste azalpen baten bila abiatu beharko. Baina Hawkins-en datuek eremu asko besarkatzen dituzte. Adibide txiki bat ematearren, eman dezagun izen bat ondoko bi modifikatzaileek laguntzen dutela, adjektiboak eta erlatibozko perpausak, hurrengo adibidean bezalaxe:

(9)	[[ezagutzen ez dir]en]	ohitura harrigarriak			
	P	KONP	I	ADJ	
		1/1	2/2	3/3	
		100	100	100	*HOP=% 100*

Bai adjektiboa bai eta erlatibozko perpausa adjunktuak dira, eta buru/osagarriaren kokapenaren parametroak ezer gutxi diosku haien hurrenkeraz. Goiko ehunekoek erakusten dutenez, euskaraz erabiltzen den *Erlatibo-Izen-Adjektibo* hurrenkera prozesamenduan eraginkorra da (ohartu perpausa identifikatzen duen osagaia konplementatzailea dela, beraz, oso garrantzizkoa da konplementatzailea perpausaren ezkerretara edo eskumatara agertzea). Bai eta gaztelaniarena:

(10) costumbres sorprendentes [que [no se conocen]]

1/1	2/2	3/3	
100	100	100	*HOP=%100*

Hawkins-ek (1990) hurrenkera posible guztien HOPak kalkulatzen ditu, eta HOP ehunekoak lau taldetan banatzen dira: % 100 > % 81 > % 68>50. Haren hizkuntza datutegira joz gero, Hawkins-ek erakusten du gramatikek erabilitako hurrenkerak % 100 HOP dutenak direla (I/ADJ/KONP-P, ADJ/I/KONP-P, P-KONP/I/ADJ eta P-KONP/ADJ/I). % 81 HOPeko hurrenkera duten hizkuntzak urriak dira, eta HOP gutxiagoko hurrenkerak ez dira aurkitzen. Eta honelako datu asko pilatzen dizkigu Hawkins-ek, bere argudioa sendotzen dutena. Batasuna eta aldakortasuna: gramatikak ahalbide batzuk eskaintzen dizkigu. Buru/osagarri erlazio estuan ahalbide bi ditugu, bai parametroen bidez bai eta prozesamenduak ezarritako bete-beharrengatik sor litezkeen aukeren bidez. Baina buru/adjunktu urrunagoko harremanean, hurrenkera gehiago izan ditzakegu, eta hemen prozesamenduak ezartzen du aldakortasunaren muga, Hawkins-en arabera behintzat. Aldakortasunaren zergatiak oraindik ere ilun badaude ere, batasunerako joera gramatikaren eremu hertsiaz kanpoko beste sistemetan ere oinarritzen da.

****

Aurreko atalean, eta, oro har, liburu honetan zehar, gramatikak berak buru/osagarriaren arteko hurrenkeran aldakortasuna onartzen duelako ideia ontzat hartu dugu. Buru-osagarri zein osagarri-buru bikoteak parametroaren bi balioak balira bezala tratatu ditugu, gramatikaren bihotzean sortzen den aldakortasuna. Baina badago guztiz zabaldu den beste ikerbide bat, hain oinarrizkoak diren egitura harremanetan aukerak daudela ukatzen duena. Richard Kayne (1994) hartzen du abiapuntu hurbilketa horrek, eta buru-osagarri/osagarri-buru aukera simetrikoen kontrakoa denez, “sintaxi antisimetrikoa” deitzen diogu. Kayne-k simetriaren aukera ukatu egiten du: haren ustez, hitz hurrenkerak daukan oinarrizko asimetria elementuen arteko erlazio hierarkikoetan ere islatzen da. Eta zuzenean islatu, gainera: proposatzen duen teoria gramatikalaren barruan, osagai bat bestea baino lehenago ahoskatzen badugu (ezkerrerago idatzita badago), egitura sintaktikoan “gorago” egongo da. Beti. Gure kasura hurbiltzen bagara, buru eta osagarriaren arteko kasura, ezinezkoa da, teoria honen barruan, gramatikak Aditz-Osagarri zein Osagarri-Aditz hurrenkerak sortzea harreman orokor baten bi burutzapen ezberdin bezala: harreman berari hurrenkera berbera dagokio, eta ezin hor aldakortasunik egon. Kayne-ren arabera, sintagma baten barruan honako egitura da burua (X) eta osagarriaren artean izan litekeen bakarra:

(11)



Oinarrian, beraz, AO hurrenkera izango genuke bakar-bakarrik, eta sakoneko oinarri honetan hizkuntzak preposiziodunak izango lirateke soilik. Nola lortu, orduan AO hurrenkerak bezain arruntak diren OA hurrenkerak? Problemarik ez, dio Kayne-k, OA hurrenkera lortzeko osagarria mugitu egin da, beharbada ASren espezifikatzaile gunera. Era berean, "postposizioak" izateko, preposizioaren osagarria PSren espezifikatzailera mugitu dela esan beharko da:

(12)



Espezifikatzailea beti ezkerretara dagoenez, bai aditzaren osagarria bai eta preposizioarena buruaren ezkerretara agertuko lirateke, baina eratorpenez, nolazpait esatearren.

Zentzu batean, aldakortasuna ukatzen duen ikuspegi honetan, kanpoko sistemekiko erlaziotik helduko litzaiguke batasuna. Hizkuntza ahoskatzerakoan egiturak ezin daitezke batera ahoskatu, ezin baititugu soinu bi batera egin. Orduan hitzak bata bestearen ondoan kateatu behar dira. Egitura gramatikalaren oinarrizko asimetria —lehenago, beraz gorago— kanpoko sistemen ezaugarri honekin bat egingo lukete, sistemen arteko elkarguneak bateratzeko edo.

Hipotesi honek ohiko suposizio eta analisi asko bazterrean lagatzera behartzen gaitu, eta denborak esango du aurreko ereduetan azaltzen ziren datuak honela ere azaltzen ote diren. Teoriaren formaren aldetik, erakargarriagoa da aldakortasun gutxien eskaintzen digun gramatika mota, izatez sinpleagoa baita. Beste gauza bat da benetan hizkuntzak horrelakoak ote diren. Teorian lortutako sinpletasunak hizkuntzen analisia konplikatu egiten digu. Greenberg-en garaitik aurkitutako OA/AO hurrenkerarekin batera elkartzen diren bestelako hurrenkerak zergatik aurkitzen diren azaldu behar da orain berriro ere. Egia da aurkitutako simetrien berri emateko espezifikatzailerako mugimenduak ugaldu egin ditzakegula, baina badirudi mugimendu horiek izan litezkeen arren, erlazio asko simetrikoak balira bezala tratatzeko konspirazio baten parte direla. Fixek eta Etxebarria/Dupont eta Etxeberria/Dupond detektibe kaxkarrek ere joko lukete susmagarritzat helbide

berera garamatzaten hainbeste mugimendu. Aurreko eredu simetrikoetan asimetriak azaldu behar baziren, oraingo eredu asimetriko honetan simetrien maiztasun eta nagusitasuna dira azaldu behar direnak. Askotan bezala, eredu teorikoa zenbat eta dotore eta sinpleagoa izan, hainbat eta konplexu eta nahasiagoa datuekiko erlazioa. Baina, datu eta teorien arteko lehia honetan datza bietako baten aurrerapenaren giltza.

****

Aurreko ataletan hizkuntzaren beste osagaiek gramatikaren eraketan izan dezaketen eraginaz aritu gara, oinarrizko batasunerako joeraren arrazoi bat izan litekeela aipatuz. Aldez aurretik, eraginaren presentzia begi-bistakoa da, haren indarra eta bideratze zehatza definitzen zailak badira ere. Esate baterako, ezin ukatuzkoa da ahoskatzeko erabiltzen ditugun soinuak ez direla guztiz arbitrarioak, gure eztarriek sor ditzaketenen arteko azpimultzo bat besterik ez da. Egia da behin haurtzaroan gure mingaina soinu jakin batzuk sortzeko trebatu eta espezializatu ondoren, harrezkero beste hizkuntzetakoak ikasi behar ditugunean nekez errepika ditzakegula jatorrizko hiztunen jatortasunez —gehienok ezin. Baina hizkuntza guztien soinuen inbentarioa egiten badugu, ez pentsa hainbeste soinu topatuko ditugunik, gure eztarri-aho-mingainaren itxura eta konfigurazio bereziaren poderioz, erlatiboki nahikoa murrizturik dagoen soinu multzoa baino ezin dugu-eta sortu[6]. Ingeles irlandar eta amerikarraz ‘r’ berezi hori bitxia egiten bazaigu, Beijing aldera jo besterik ez dugu egin behar honelakoak aho betean ahoskatzen dituztela aditzeko. Eta, bidenabar, hor gaudela ere, mendebaldeko euskaldunei ingeles hiztunen eta iparraldeko euskaldunen ezpainetan hain bereziak iruditzen zaizkigun ‘p, t , k’ hasperendunak ere barra-barra entzuteko parada izango genuke. Hego Afrikako musika aditzean batzuetan belarri-hegalera heltzen zaizkigun *click* soinu bereziak oso hizkuntza gutxitan topa ditzakegu, eta badirudi khois hizkuntza familian bakarrik erabiltzen direla fonema bezala. Hala ere, besteok ere erabil ditzakegu gure sistema fonologikotik kanpoko soinuak balira bezala: txakurrak uxatzeko maizenik sortzen dugun soinua *click* albokaria da, eta muxuak ematerakoan *click* ezpainkariak ahoskatzen ditugu. Sortzen ditugun zarata/hots/soinuak nahiko murriztuak dira.

Lehenago, hizkuntzaren osagai fonologikoak gramatikari ezartzen dion baldintza bat aipatu dugu. Multzo murriztuko soinuak izateaz gain, banan-banan ahoskatu behar ditugu, ezin baitugu gure aho-mingainarekin aldi berean konfigurazio ezberdin bi eratu. Hortik ezker-eskumarako hizkuntzaren asimetria, eta, Kayne-ren arabera, hortik ere asimetria hori gramatikaren forman barneratuta egotea: hizkuntza guztietan ahoskera asimetrikoa bada, egitura ere horrelakoa izango da, inongo buru/osagarri parametrorik onartu gabe. Baina zer gertatzen da gorren keinu hizkuntzetan? Hauek benetako hizkuntzak dira, ez ahozko hizkuntzen keinuzko ordezkoak edo. Keinuak ez euskararena ezta gaztelaniarena ez den beste-

lako gramatika batek elkartzen ditu, eta "ahoskatzea", edo, era neutralago batez jartzearren, artikulazioa, eskuen bidez egiten da nagusiki[7]. Hain artikulazio ezberdin horrek bestelako baldintza edo ezaugarriak ezarriko al ditu gramatikaren forman? Egia esan, hauxe da hizkuntza hauen ikerketaren agendan goren dagoen auzietako bat, eta gure azken kapitulu honi ere zuzenean dagokio. Artikulazioa hain ezberdina denez, baliteke, eta hau oraindik ere hipotesia da, gramatikan ere artikulazio berezi horrekin lotu daitezkeen ezaugarriak ere topatzea. Ezaugarri horiek ahozko hizkuntzenetatik bereizten badira, oso ebidentzia ona izango da artikulazioak, gramatikaz kanpoko osagai horrek, gramatikaren eraketan ere eragina daukala baieztatzeko. Honen arabera, hizkuntzaren bi osagai hauen, alegia, artikulazioaren eta gramatikaren arteko harremana ez litzateke murriztuko biak topatzen diren elkargunera. Aldiz, agian gramatikaren eraketa bera ere egon liteke "kutsatuta", edo, agian, elkar kutsatuko lukete biek. Hau garrantzizkoa da batasuna eta aldakortasunaren gure auzirako: hizkuntzen funtsezko batasunaren zergatiak ez lirateke gramatikan bertan bakarrik bilatu beharko, eta gramatikarekin jokatzen duten beste osagaietara ere jo beharko genuke.

Artikulazioaren aldetik, bi keinu, bi soinu ez bezala, batera artikula daitezke. Horrek apur bat ahultzen du Kayne-ren asimetria unibertsalaren aldeko proposamena, keinu hizkuntzetarako behintzat. Baina ez larregi: oraindik ere keinuak, banaka zein binaka, bata bestearen ondotik sortu behar dira, eta horrek eragina izan lezake elkarren artean eraikitzen dituzten egituretan. Baina badago ahozko hizkuntzekiko beste ezberdintasun interesgarri bat. Definizioz, *kokoriko* bezalako onomatopeietatik at, soinuak arbitrarioak dira. *Mahai* hitzean, Estornes Lasa nahi beste saiatuta ere, ez dago esanahi hori izatera behartzen duen ezer. Baina keinuaz ari bagara, erlazio zuzenagoa egin daiteke askotan keinuaren itxura eta itxuratzen duenaren artean. Hau begi-bistakoa da objektu zehatzen kasuan, baina, gizakion ahalmen sinbolikoaren poderioz, kontzeptu abstraktuagoetara ere eraman daiteke. Esate baterako, beheko argazkietan *eman zuri* eta *e-mezu bat zuri bidali* esateko keinuak ditugu[8]:

(13)

Ikus daitekeenez, nahiko erraz eskaintza modura interpreta daitekeen keinu bat dugu, ikuslea dagoen lekura zuzendua. Bigarrenean, keinulariak zerbait zuzentzen dio ikusleari konputagailuaren pantailaren ertz bi itxuratzen dituen leku batetik.

Hau berez nahiko anekdotikoa izan daiteke, baina batzuetan hitzak gabe, gramatikaren eraketa bera dago saltsan. Gizakion osagai sinbolikoa keinuetan gabe, gramatikan ere sartzen al da? Esate baterako, lekuzko aditzetan, leku erlazioak adierazteko erabiltzen diren predikazioetan, askotan eszenaren antzezte grafikotzat har daitezkeen itxuraketak topa ditzakegu. Ondoko argazkietan objektu bat (x) leku batean (y) jartzea adierazten da:

(14)

Noski, badira askoz keinu/egitura abstraktuagoak, akordio mailan buru-belarri sartzen gaituztenak, baina ikusitakoarekin badirudi gure alde sinbolikoak rol garrantzizkoago bat jokatzen duela keinu hizkuntzetan ahozkoetan baino, keinu morfemak soinu morfemak baino askoz adierazkorragoak direlako edo. Horrexegatik gor hizkuntza ezberdinen artean elkar ulergarritasun handiagoa egoten da ohiko hizkuntzen artean baino, nahiz eta, askok uste dutenaren kontra, gor hizkuntza unibertsal bat existitu ez. Daukagun susmoa da ez litzaigukeela hain nekosoa egingo irakurle asko keinu hizkuntzen funtsezko batasunaz konbentzitzea, gehienek ahozko hizkuntzenaz jabetzeko hau bezalako liburu oso bat behar duten bitartean.

Baina, bestalde, gorren hizkuntzen artean ere ezberdintasun nabariak daude. Nondik dator aldakortasun hori? Hizkuntzaren gramatikatik bakarrik edo bereziki?

****

Zein neurritan sentitzen da ahozko hizkuntzen gramatiketan gramatikaz "kanpoko" osagaien eragina? Eta zein neurritan dira eragin horiek batasunaren aldeko faktoreak eta ez aldakortasunaren aldekoak? Orrialdeotan zehar bisitatutako antzekotasun eta ezberdintasunek horrelako galderak sortzen dizkigute, azken kapitulu honetan erantzun gabe, irakurlearen gogoan utzi nahi genituzkeenak. Bai galderak bai eta erantzunak norberaren teoriaren araberakoak izaten dira: teoria bakoitzak ikergaiak eta ikerguneak definitzen ditu, egitea merezi duten galderak

zeintzuk diren esaten baitigu. Teoria ezberdinetako ikertzaileek, eragina hor dagoela ados egon arren, eragin horren neurria eta garrantzia zehazterakoan guztiz jarrera ezberdinak hartuko lituzkete. Ez da gure eginbeharra teoria ezberdinen artean aukeratzen hastea, eta teoria gehienak bat datozen oinarrizko datuetara murriztuko dugu gure hausnarketa.

Gramatika eta gramatikaz kanpoko hizkuntzaren beste osagaiak batera ulertu beharra seinalatu dugu aurreko ataletan, hizkuntzaren batasunaren iturburu gisa. Gizakion beste ahalmen horiek gramatikari bete beharreko baldintzak ezartzen dizkioten neurrian, gramatika beraietara egokitu behar da, balizko aldakortasun eremua murriztuaz. Gorago honi lepora geniezaiokeen batasunerako isuriaren adibideak aurki ditzakegu han-hemenka barreiatuak. Esate baterako, 7. kapituluan informazio eraketaz aritu gara. Argiro, hizkuntzaren osagarri horren oinarrian gizakion osagarri sinboliko-kontzeptuala dugu, azaleratzeko gramatikak ematen dizkion bideak erabili behar dituena. Gure sistema kontzeptualak, dirudienez, nahiago izaten du lehenengo eta behin zertaz ari garen finkatzea, horretaz iruzkinak eman/jaso baino lehenago. Ondorioz, mintzagai markatuak (gure EGLUn *hanpatuak* deitzen diren horietakoak) guk zuhaitzetan irudikatzen ditugun egitura gramatikaletan ezkerreko periferian agertuko dira normalean, ezkerreko osagaiak lerratzean lehenik ahoskatuko baititugu, ondoko irudi sinpleagoak ere erakusten duen bezala:

(15) Mintzagaia [perpausa]

Oso orokorra da mintzagaien ezkerraldean kokatze hau, baina joera ez da hor gelditzen.

Bestalde, gogoratu, oro har, mintzagai markatuak ez izan arren, subjektuak gure perpausen mintzagai neutralak direla, eta perpausen oinarrizko banaketa *subjektu/predikatuaren* artekoa dela. Baina horixe izaten da hurrenkera, ez logikoki izan litekeen bestea, *predikatu/subjektua* hain zuzen. Ez-markatua ala ez, mintzagaia dugu subjektu, eta gramatikak era litzakeen egitura guztietatik, osagai hau hasieran kokatzen dutenak dira arruntenak hizkuntzen artean. Bigarren kapituluko datuetatik irakurleak gogoratuko duenez, SOA eta SAO dira hizkuntza motarik arruntenak, eta ez da kasualitatea OAS eta AOS hurrenkerak guztiz bazterrekoak izatea. Printzipioz, mintzagaiak bakarrik periferikoak balira, nolabait perpausetik kanpoko osagaiak izateagatik edo, eskumako periferian ere agertu ahal izatea espero genezake. Baina hori ez da normalean gertatzen, eta gramatikak sortzen dituen aukeretan hasierako pausalekua da nagusi[190]. Nagusitasun hau, beharbada, gure ahalmen sinboliko-kontzeptualak hala aginduta da horrelakoa eta ez bestelakoa. Gramatikak sortzen dituen egiturak berak ez beste kanpoko sistema horrek interpretatu eta erabiliko baditu, beronen eskakizun eta beharretara makurtu behar da. Eta informazioa antolatzeko hatsarre hauek unibertsalak diren neurrian, grama-

tikaren gaineko eragin bateragarria izango dute. Berriz ere, espero duguna oinarrizko batasuna da.

****

Orain arteko lerrootan, batasunaren zergatiak elkarguneek ezarritako ezaugarrien araberakoak ere badirela erakutsi dugu. Hizkuntzen arteko batasuna izan da, nolabait esatearren, jomuga. Batasunak, baina, baditu bestelako arrazoiak ere, eta ez dira nahitaez, ez gramatikak berak ez elkarguneek ezarritako baldintzen araberakoak.

Matazaren beste hari bati helduko diogu hurrengo lerroetan, bidaia amaitzera doala, apustua galdu zein ez, irakurlea gutarragoa izango delakoan, gu Foggtarragoak garen bezala munduari itzulia egindakoan.

Unibertsaltasuna nahiz aldakortasuna arrazoitzeko, guk kapitulu honetara heldu aurretik eman ditugun azalpen linguistikoak erabil daitezke. Gogoratu guretzat parametroak bezalako lanabesak, hatsarreekin batera, azalpen linguistikorako bideak direla, *hizkuntzaren barrukoak,* baina azalpen bideak, azken batean. Erabil itzazu hatsarre soil gutxi batzuk euskal perpausak sortzeko, eta orduan, azalpenez ere egokia den gramatika bat asmatuko duzu. Halaxe genion liburuaren hasieran eta halaxe diogu oraindik ere, Platonen arazoari erantzun nahian. Gurea bezalako eredu formaletan, azalpena hizkuntzaren barrukoa da neurri handi batean[10]. Horrek ez du esan nahi, noski, *hizkuntzaz kanpoko azalpenik* eman ezin daitekeenik. Elkarguneei erreparatu diegunean, esate batera, prozesamenduaren eraginkortasuna eta abiadura aztertu ditugu, eta erakutsi dugunez, prozesatzen errazenak diren sistemak dira, hain zuzen, sarrien *de facto* aurkitu ohi ditugunak munduko hizkuntzen artean. Prozesamenduak azalpen bideak ematen dizkigu, beraz, baina ez dira gramatikariok ematen ditugunen modukoak, hizkuntzaz kanpoko azalpenak baino.

Unibertsaltasuna eta aldakortasuna aztertu dituzten hizkuntzalarien artean, biak dira azalpen bide nagusiak, bata, guk jorratu duguna orain artean, hizkuntzaren barrukoa eta hizkuntzaz kanpokoa bestea, eta bata eta bestea lotu izan zaizkie Gramatika Sortzaileari eta tipologia funtzionalistari, hurrenez hurren, nahiz eta, egia esan, azalpen batzuk zein besteak aurkitzen ditugun tradizio linguistiko bietan. Nolanahi ere, Givon-ek (1979), esate batera, dio azalpenaren gakoa bakarrik aurki daitekeela berbaldi, prozesamendu, egitura kognitibo, munduaren ikuskera, garapen ontogenetiko, aldaketa diakroniko eta bilakaera filogenetikoan. Eta funtsean, hori inork ezin luke ukatu. Kontua da batzuetan ez direla izaten oso erantzun gardenak hizkuntzaz kanpo han-hemenka aurki ditzakegunak, eta horrek eszeptizismo ukitu batez zipriztintzen ditu gramatikari sortzaileen lanak —ikusi besterik ez dago Baker-en (2001) federik eza etnologia edota biologia ebolutiboaren eremuan aldakortasunaz eman litezkeen erantzunen aurrean. Nolanahi ere, ez dirudi Gramatika Sortzaileari leporatu dakiokeenik hizkuntzaz kanpoko azalpenak errefusatzea.

Urteotan, gainera, *bio*hizkuntzalaritzaren loraldian gaudela esan liteke —guk hizkuntzalaritza deitzen segitu nahi genukeen arren— eta eremu horretan ez dirudi hizkuntzaren gaitasuna soilik aztertzen denik, hizkuntzaren aurpegi neuropsikologikoa eta genetikoa ere oso kontuan hartzen dira-eta. Jenkins-ek (2004) ez oso aspaldi argitaratutako liburua ikusi besterik ez dago konturatzeko (bio)hizkuntzalaritzan, Gernikako urriko azken asteleheneko azokan bezala, denetarik eta nahi beste dagoela: Richard Kayne-ren antisimetria; hizkuntzaren hazkuntza eta haur gramatikaren aldakortasuna; giza eboluzioa; Myrna Gopnik-ek Hizkuntzaren Kalte Espezifikoaz egindako ikerkuntza ausarta; gramatikaren gaitasuna garunean; eta hizkuntza birusa, Piatelli-Palmarini eta Uriagerekaren eskutik, hori beste batzuen artean. Inork nahi al du besterik?

Erantzuna letra larriz non ote dagoen ez dakigu. Oraindik, nork bere bideari ekin dio eta eremuan eremuko erantzunak eman dizkiegu unibertsaltasunari edota aldakortasunari, baina argi dago iraultza kognitiboaren sagarrondotik ez dugula sagarrik jasoko, ez otarrean sartuko ezta etxera bidean gutiziaz kosk egingo, harik eta eremuen arteko ebidentziek bat egin arte.

****

Ez dugu asmorik, trenetik salto egin eta geltoki bakoitzean gelditzeko. Ezin. Hizkuntzari itzulia egin bai, baina guk ere ez dugu nahi beste egun, eta, aitor dezagun, ondoen ezagutzen dugun gramatika arloaren ertzetan gelditzen dira jardun hauek: ez gara ez neurohizkuntzalari, ez genetikalari, ez paleoantropologo ere, hizkuntzaren patologia, garapena eta bilakaera azaltzen hasteko. Badira, baina, han-hemenka adituen irakatsietatik jaso ditugun errege-sagar ale batzuk, unibertsaltasunaren zergatiak indartzen dituztenak, eta labur bada ere, irakurle iniziatugabeari gogorarazi nahi dizkiogunak. Hona bada segidan.

Irakatsi saminak ematen dizkigu tarteka bizitzak, eta hizkuntzalariek ere pasadizu saminenetatik ere atera dute zer ikasia. Ikusi bestela[11]:

> 14. Kasua: …Gabian geyena, gabian, gabian geyena bai zeak itten este, txe, txi, itxentra, zuluak itten bestientzako gabez ta bestiak nola esaten dia oik este, trintxe, trintxeras. Oyek itten aitze giñen, ta ola, ta gero denborakin, ba eztakit zenbat denboran zea etorri zian atzea askatasuna beste beste aldea pasatzeko bai ta zea denbora iñ arte, osea, beste guztiyak etorri zian…, este etorri zanian zea nola iza izatea zea zentri zentri ya lizentriya eta ya etxea geo…

14. kasuaren atzean, donostiar gizon euskaldun elebidun bat dago, 72 urtekoa. Lore Erriondo (1993) ikertzaileak aztertu zuenean, gaixoak urtebete eta hiru hilabete beteak zituen lesioa jasan zuenetik. Lesioaren ondorioz, hizkuntza kaltetua zuen: *Wernicke afasia* zeukan, tipifikatutako afasietatik bat. Garunean lesioren bat jasandakoan sortzen diren hizkuntza kalteei *afasia* deritzegu, eta Wernicke afasia, *Wernicke eremuan* izan den lesioaren ondorioz sortzen da, ezker hemisferioko lo-

bulu tenporalean —xehetasunak bila bitez adituen lanetan. Wernicke mediku alemaniarri zor diogu afasia honen aurkikuntza. Wernicke-ren bi gaixoen ekoizpenean, hitz jarioa zegoen, doinu eta erritmoan ere egoki, baina semantikoki kaltetutako hizketa zirudien. Gure donostiar gaixoak ere ezin ditzake hitzak asmatu, fonemak ahaztu edo aurkitu ezin dituela ematen du —*txe, txi, itxentra*—; hitzak hitzez ordezkatzen ditu antzeko esanahiak emanez —*zuluak*—… *Trintxe, trintxeras*-era heldu aurreko kemen eta ausardi temosoa, gaixoarena.

Irakatsi saminak, bai. Baina hastapeneko aurkikuntza urte batzuk lehenagokoa da. Paul Broca izan zen hizkuntza eta garunaren arteko harremanak zientifikoki aztertu zituen lehenetako bat, eta Lebourgne izeneko gaixo bati esker egin zuen lehen aurkikuntza handia. David Caplan-ek (1992: 2) kontatzen duenez, Lebourgne, ospitaleratu zutenean, mutua zelakoan zeuden: *tan* silaba bakarra ahoskatzeko baino ez zen gauza, eta denboraz *Tan* izenez egin zen ezagun ospitalean. Nolanahi ere, Tan itxuraz gauzak ulertzeko gai bazen eta antza egoki erantzuteko modua ere bazuen —ez hizkuntzaz, jakina.

Tan hil ostean, Broca-k haren garuna aztertu zuen eta 1861eko txosten ospetsuan dioenez, Tanen garunak lesio bat erakusten zuen ezker hemisferioko lobulu frontalaren azpikaldean. Broca-k *afemia* izena eman zion hizkuntza kalteari, guk nagusiki darabilgun hitza *afasia* den arren. Eta bereziki zehaztu dugun toki ezkutuan, alegia, *Broca-ren eremua* deritzonean, eragindako kaltearen ondorioz jasaten den afasiari *Broca afasia*z edota *agramatismoa*z ezagutzen dugu.

Tanek oso kaltetua zuen hizkuntza ekoizpena, ia hitz egiteko gauza ere ez zen-eta, baina larriak izan arren, badira larritasun ez hain handiko ekoizpenak, Broca afasiadun gaixoen artean. Adituek dioskue Broca afasia duten gaixoek ez dutela oso jario handiko hizketarik, nahikoa hizketa pobrea baino, ahoskera geldo eta nekosoa dute, eta sintaxia nahikoa kaltetua dutela dirudi. Ulermenean ere arazoak dituztela ematen du, antzematen zailak diren arren, bai baitira, besteak beste, uler ezin ditzaketen egitura sintaktikoak.



1. irudia. Tanen garuna (www3.niu.edu/.../Millis/History/2002/neuro.htm)

Eta euskaraz ere hala al da? Izan al da edo bada halako ala bestelako kalteen ondorioz, hizketa bera ere kaltetua duen hiztunik? Bada, bai, bada non ikasi euskalaritzan ere, baina tamalez, ez dira asko afasiaz egindako lanak. Lore Erriondok euskaraz idatzitako doktorego-tesia da lanik-eta sendo eta mardulena, eta lehena, guk dakigula, Michel Paradis neurohizkuntzalariaren zuzendaritzapean egindakoa. Asko dugu ikasteko liburu horretatik. Hizkuntzalarion zoritxarrerako, liburuan ez da jasotzen hizkuntza corpusa bera —kapitulu hastapenetan egiten dituen aipamen gutxi batzuk alde batera, goian eman dugunaren modukoa esate baterako—, baina badira tesiko corpus bera erabiliz, harrez gero Itziar Lakak eta baita ikertzaile biek elkarlanean egindako lanak, eta bertan jasotako datuak eta azalpenak ezinbestekoak zaizkigu agramatismoaren nondik norakoak ulertzeko, baina baita bereziki agramatismoak euskaraz erakusten dituen sintomak zein diren jakiteko.

Gogoratu nahi diogu irakurleari ez dela gure asmoa gaiaren nondik norakoak argitzea lerrootan. Esan dugun modura, irakurleak adituen lanetara jo beharko du argibide bila, eta orduan konturatuko da gure ikerkideek esandakoak nola argizta ditzakeen bide ostean ilunak. Hala, Itziar Lakak (2001: 26), Pierre Laffiteren omenez agramatismoaz idatzitako lanean diosku «Agramatismoaren kasuan nabarmentzen dugu hobekien, unibertsaltasuna eta hizkuntzaz hizkuntzako aldaketa parametrikoen arteko balantza». Ezagun egingo zaizu, ezta irakurle? Unibertsaltasun eta aldakortasunaren arteko lehia agramatismoan ere islaturik. Segi dezagun eta ikusiko dugu nola demontre litekeen: «Izan ere, agramatismoaren sindromea gramatikaren eraikileak diren kategoria funtzionalei dagokien kaltea dugu, eta hizkuntzalaritzan urteak badira kategoria funtzionalei egozten zaiela egitura gramatikalaren eraketa, sintaxiaren funtsa eurak baitira. Hizkuntzen arteko ezberdintasunen iturria kategoria funtzionalen esparrura mugaturik dago baita ere». Kategoria funtzionalak gogoratzen? Inflexioa bezalako kategoriak. Horiexek pairatzen dute kalterik handiena afasia honetan, eta kategoria hauek hizkuntzaren arkitektura eraikitzeaz gain, hizkuntzatik hizkuntzara sortzen diren ezberdintasunen gakoa ere bada. Eta amaitzeko: «Ez da, beraz, gehiegi harritzekoa agramatismoak kategoria funtzionalekin duen zerikusia dela-eta, sindrome honek ageri dituen sintomen artean, batzuk ezberdinak izatea hizkuntza batetik bestera. Hizkuntzaren ikertzaileari dagokio ezberdintasun horien azpian datzan batasuna edo antzekotasuna zertan den azaltzea, hala nola ezberdintasunen arrazoiak ahalik zehazkien itxuratzea».

Ez al da harrigarria? Guk gramatikariok gure buruari egiten diogun desafio bera egiten diote euren buruari hizkuntza patologiak aztertzen dituzten ikertzaileek ere. Agramatismoak biak besarkatzen ditu, unibertsaltasuna eta aldakortasuna, gure gramatika jardunak besarkatu nahi izan dituen bezala. Ezin zorizkoa izan. Patuak garamatza batzuk eta besteok hausnarketa bera egitera.

Baina ohitu samar dugu irakurlea diogun guztia nolabait erakustera, eta egile beraren bideari jarraituko diogu esandakoa erakustearren. Lan berean esaten zaigunez, agramatismoa pairatzen duten gaixoek, hizkuntza edozein delarik ere, perpaus laburrak sortzen dituzte, mendeko perpausik ia bat ere ez, eta sintaxirik soilenenaz hitz egiten dute. Horrek, eta gorago, gaitzaz esandakoak nahikoa unibertsala dirudi. Gainerakoan, agramatismoa zein sintomaren bitartez ageri den euskaraz besterik da. Guk ikertzaileak ematen dizkigun zantzuetatik bereziki inflexioarekin zerikusia duten batzuk emango dizkizuegu. Hona hemen:

(16) a. ba ni zabata honeki ba *egon* etxean (50 gaixoa)
b. hitzak nahasi egiten *dut* (42 gaixoa)
c. niri gaixoak gustaten *jakon* (9 gaixoa)
d. harekin joaten *dugu* (1 gaixoa)
e. Francori egin *gintzan* egun batean bigoteak (1 gaixoa)

Lehen esaldiak, jokatutako aditza agertu beharrean, aditz jokatugabe *okerra* dakar; plural komunztadura markarik ez du erakusten bigarren esaldiak; hirugarrenean, datibo komunztadura biltzen duen *jakon* horretan, lehen pertsonaren ordez, hirugarrenekoa eman du gaixoak; laguntzaile iragankorra, laugarrenean, berez behar lukeen iragangaitzaren ordez erabili da, eta azkenekoan, ergatiboaren lekualdatzea behar lukeen tokian, ezinezko forma bat *gintzan* sortu du gaixoak.

Aditz inflexioa kaltetuta dagoena ez da dudarik. Kasu morfologia ez horrenbeste dirudienez[12]. Gero hori nola interpretatzen ote den argitzea adituen zeregina da. Era berean, sintoma hauek euskaraz erakusten duten berezitasuna euskaraz baino ez ote dugun ala ez argitu beharko lukete. Gramatikan aditu garenok postura egingo genuke berezitasun hauek ere izango direla bestelako hizkuntzetako hiztun gaixoengan ere, hizkuntzek ezberdinean ere berdin antzera jokatzen dutela erakutsiz. Eta halaxe dirudi, Marijo Ezeizabarrenak eta Itziar Lakak (2006) jabekuntza eta afasia konparatzean, *azken ikasi lehenik galdu* arauaren nondik norakoak euskaraz aztertzen dabiltzala, Grodizkinsky (2000) eta De Roo-k (2001) aipatzen dituzte esanez, japonieraz eta turkieraz lehenak eta bigarrenak nederlanderaz, erru gutxi egiten dituztela kasu morfologian aditz inflexioak kalte larriak pairatzen dituen bitartean. Begiratu Grodzinsky-k berak (2000) zein Friedmann eta Grodzinsky-k (1997) ematen dizkiguten datuei, ingelesez, japonieraz eta hebreeraz, hurrenez hurren:

(17) Uh, oh, I guess six month… my mother
uh, oh nik uste sei hilabete… nire ama
pass away (*passed away* formaren ordez)
hil da
'Uh, oh, nik uste sei hilabete, nire ama hil egin da' (*hil egin zen* formaren ordez')

(18) Inorimasu (*Inorimashita* formaren ordez)
'Nik otoitz egiten dut/otoitz egiten nuen'

(19) Ha´ish roce levashel, az hu lokeax
gizona nahi.du janaria.prestatu hortaz hura hartu (3SG-MASK-OR)
sir ve bishel
lapikoa prestatu (3SG.MASK-M-IRAG)
'Gizonak janaria prestatu nahi du, hortaz, lapikoa hartu eta prestatu zuen'

Adibide horietan guztietan, forma zuzena aurkitu ezinik, hiztun agramatikoek inflexio morfemak ezabatu egin dituzte —*passed* erabili beharrean, *pass* ingelesez, eta *inorimasushita* formaren ordez *inorimasu* soilagoa japonieraz. Denbora inflexioak ere kaltea erakusten du hebreeraren adibideak, orainaldiko formaren ordez, iraganekoa darabil-eta okerretara. Euskalarien aurkikuntzak, nolanahi ere, ñabardurak erakusten ditu Grodzinsky-ren (2000) datuekin, komunztaduraz ari garela, eta hipotesi teorikoan ere aldendu egiten dira elkarrengandik berea eta euskalariena. Bego honetan, baina, eta irakurleak iturrietatik edan beza.

Postura egingo genuke, genion gorago, ñabardurengatik ere, agramatikoen akatsak ere antzekoak izango direla. Edozein modutan ere, ez dirudi honek apustua egiteko momenturik-eta aproposena, ez euskaldun apustuzale porrokatuontzat ere. Agramatismoan izan dezakegun edota oro har afasian izan dezakegun jakin-mina ezin daiteke jakin-min hutsa izan, ezta unibertsaltasuna eta aldakortasuna azal balitzake ere. Ez da jakintza hutsa ardura diguna, ez oraingoan, behintzat, ez gure donostiar agureak, trintxeretara heldu nahi eta ezinean, ia azken hatsa eman dezakeela dakigun bitartean.

****

Irakatsi saminak ez dira bakarrik garunaren irakasbideak. Gaitasuna garunean dugula aldarrikatu dugu liburu honen hasierako orrialdeetatik, eta garunaren ezker hemisferiora hurbildu berri dugu teleobjektiboa, Broca eta Wernicke eremuetan pausatuz. Gaixoek eraman gaituzte hizkuntzaren habira, eta habi hori bere horretan sortu duena nor den jakiteko ere, gaixoek ebatu digute eskutik, *Hizkuntzaren Kalte Espezifikoa*[13] duten gaixoek oraingoan. Eta habi egilea ez da nolanahiko txoria: 7 kromosoman omen dagoen *gene* bat baino, gramatikarekin zerikusia duen genetzat hartu izan dena. Bai, irakurle, gaitasuna geneetan *idatzita* dago.

Hizkuntzaren Kalte Espezifikoa *Specific Linguistic Impairment* izenaz edo SLI akronimoaz ezagun da ingelesez. Kaltea heredatu egiten da belaunaldi batetik bestera, eta hiru belaunalditan ageri da *K.* izeneko familia ingeles baten historian zehar. Matt Ridley-k (2001: 17) kontatzen duenez, gaixoa zeukan familiako emakume batek, gizon sendo batekin ezkondu eta lau alaba eta seme bat izan zituen. Alabak ez zuen gaixoa heredatu, ezta bere ondorengoek ere; bai, aldiz, emakumea-

ren lau semeek. Semeok hogeitaka seme-alaba izan zituzten, eta horietatik ia erdiak gaixo bera daukate, besteak osasuntsuak diren bitartean.

Ez dira uste berekoak familia aztertu duten ikertzaile guztiak. Hautsak harrotu zituen Myrna Gopnik (1990) kanadar ikertzaileak adierazi zuenean itxuraz gramatikaren berezko arauak direla familia horretako gaixoei buruhausteak ematen dizkietenak. Demagun badela irudi batean, irudi horretan eta gure irudimenean baino bizi ez den izaki bat, *wug* deritzona —ingelesez, irakurle, badakigu-eta nekez dei litekeela *wug* euskaraz halako ezer— eta esaiozu ingeles hiztun bati: *hauxe wug-a da.* Emaiozu hiztun berari beste irudi bat *wug* birekin eta galde iezaiozu: *eta hauexek? Hauexek…* Amaitu orduko ingeles hiztunak berezkoa duen plurala egiteko araua gogora ekarri eta *wugs* —*wug-ak*— esango dizu. Ez dirudi oso zaila, gutariko asko, gehienok, jatorrizko ingelesdunak ez bagara ere, erraz asmatuko genuke-eta. Bada, ez dirudi kaltea duten gaixoek horren erraz erantzun lezaketenik, jatorrizko hiztunak izanda ere. Batek pentsa lezake, Myrna Gopnik-ek pentsatu zuen bezala, ez dutela plurala egiteko beharrezko araua. Pluralak izan badituzte, baina itxuraz, gainerako ale lexikoen modura bilduta nonbait gogoan, ez arau bati esker sortuak, hitz sortu berriekin erakusten dituzten zailtasunek pentsarazten diguten bezala.

Ez dira halakoxe datuak ikertzaile horrek beste batzuekin elkarlanean aztertutakoak. Badira, esate batera, iragana sortzeko bideak ere, *walk* 'ibili' aditzetik *walked* iraganeko adizkia sortzekoak, besteren artean. Eta guri gehien axola diguna, ez da K. familia bakarrik ez eta ingeles hiztunak bakarrik aztertu direla: Ingalaterrako eta Kanadako ingelesaz gain, grezieraz, frantsesez eta japonieraz ere egin dituzte *wug* esperimentuaren modukoak gaixo zein gaixo ez daudenekin, antzeko emaitzak azalaraziz. Hona dakartzagu Myrna Gopnik-ek (2004: 04) iraganaz ematen dizkigun datuak, hitz sortu berrien inflexioa dela eta[14]:

IRAGANA	*Kontrol hiztunak*	*Gaixoak*
Ingelesa (Ingalaterra)	% 95.4	% 38.3
Ingelesa (Kanada)	% 93.5	% 42.1
Greziera	% 87.1	% 20.0
Frantsesa	% 92.6	% 33.3
Japoniera	% 89.1	% 37.0

Ikertzailearen beraren hitzak erabiliz, hizkuntza guztietan, hitz sortuberrien test bakoitzean, egundoko ezberdintasuna dago gaixoen eta gaixo ez direnen artean, hitz sortuberrien inflexioari dagokionez. Halaxe da, bai, datuak ikustea besterik ez dago. Gaixoak ez direnek —kontrol hiztunek—, ustez, aditz irregularrak alde batera, gainerako aditz erregularren iraganeko formak sortzeko arau bera darabilte, eta bikain erabili ere; gaixo daudenek, aldiz, zailtasun handiak dituzte iragana adierazteko, eta oso litekeena da esplizituki ikasitako formak baliatzea horretarako, berezko araua ezin gogotik ekarriz.

Gopnik-ek eskuen artean darabilgun lanaren amaiera aldera dioskunez beste ikertzaile batzuen aipamena eginez, kaltea umea umetokian dela bere garunaren garapenari eragiten dioten faktore genetiko batzuei zor zaie, nagusia dela garunaren egituran ondorioak, ondorio larriak esango genuke guk, eragiten dituztenak. Atzera ere, ezberdintasunean —ingelesa, tokian tokikoa, greziera, japoniera…— hiztun gaixoak berdin-berdin.

****

Geneetan, antza, idatzita gramatika, eta geneei esker, garuna, eta garunean gaitasuna. Zailxea dirudi ukatzea. Gaitasunaren sorreraz ere, galderak asko dira eta erantzunak, zoritxarrez, ez nahi bezalakoak. Baina galderak edonola ere zientziaren bidegileak dira, berezko bideak zehazten dituzte erantzun eskean, eta tarteka, letra larriko erantzunekin behaztopa egiten du zientzialariak.

Hasieran geniotsan gure irakurleari gizakiok gizaki garen aldetik berdin-berdinak garela. Gorriagoak batzuk, zurbilagoak besteak, beltzak ere tartean. Badakizue indiar kondaira hark zioen bezala, Jainkoak buztinez egin zuen lehen gizakia. Labean sartu eta erre egin zitzaion. Halaxe sortu ziren gizaki beltzak. Ondoren, enpirizismo hutsez, Jainkoak beste gizaki bat egin eta labean sartu zuen, baina ez zuen aurrekoan beste denboran egosi. Erdi eginda edo utzi zuen gizakia orduan, gizajoa, eta gizaki zuriak sortu ziren haren ondotik. Jainkoak, jainkoa izanagatik ere, haserretzen hasita suposa daitekeenez, hirugarren gizakia egin zuen buztinez, eta hirugarren aldiz labea zabaldu eta labean sartu zuen. Ez zuen denbora larregi itxaron ezta denbora gutxiegi ere. Behar zen denbora, ez gehiago ez gutxiago, Arzak bera baino puntualago. Halaxe sortu ziren gizaki gorriak, guk maite ditugun hizkuntza aktibo edo polisintetiko harrigarrien hiztunak tartean.

Indiar kondairak maite ditugu, eta Jainkoen erru batez jaio garela pentsatzeak gure txikitasunaren neurria ematen digu. Umilagoak izan beharko aurrerantzean. Baina harroputz samar izateko motiborik ez da falta gizakion sorreran, kondaira miragarriak alde batera utzi eta historiaren are kondaira miragarriagoa irakurtzen dugunean.

Gorri, zuri, beltz izan, guztiak gara giza espezie berekoak: gizakiok *Homo sapiens sapiens*ak gara, *homo* kate luze baten ondoren, bizirautea izan duten bakarrak.

Paleontologoek erakutsi dutenez, gure espeziearen lehen aztarnak Ekialde Hurbilean aurkitu ziren Jebel Qafzeh eta Skhüll aztarnategietan. Diotenez, bertako aztarnek erakusten dute gure arbasoak ez zirela gure berdin-berdinak, antzinako arbasoen modukoak baino. Antzinako soslaia zein ez, arbaso, eta aztarna horien data duela 100.000 bat urtekoa da.

Juan Luis Arsuagak (1988), euskal jatorriko ikertzaile apartak pasarte gozagarriak idatzi ditu gizakion sorreraz. *Homo Neanderthalensis*az irakurri dizkiogunak atzera begirarazi digu malenkoniaz, *sapiens*ak ez, ez bada *neanderthalensis*ak izan bagina, hobeak-edo bestelakoak izango ote ginatekeen ametsetan. Azken batean, adimentsuak omen ziren, sua ezagutzen zuten, harria lantzeko teknikak zeuzkaten, eta hildakoak ere lurperatzen omen zituzten, eta hori, Arsuagak dioenez, errituaz zein erriturik gabe, bada gaitasun sinbolikoaren aztarna bat. Nolanahi ere, ametsak baino ez dira. *Sapiens sapiens*ak gara, gustatu ala gustatu ez.

Paleoneurologiaren bitartez jakin dugu Broca eta Wernicke eremuak nahikoa garaturik zeudela lehen hominidoetan, baina ez dirudi esan daitekeenik garapen hori hizkuntzari zor zaionik. Arsuagak kontatu digunez, *Turkanako umea*rekin —alegia, *Homo Ergaster*rarekin— egindako ikerketek erakutsi dute oso litekeena dela Broca eremuaren garapena eskuineko eskua erabiltzeari zor izatea, hau da, harria lantzeari eta ez, beraz, hitz egiteari.

Utz iezaguzue Arsuagari berari jarraitzen —adituen lanetara joko genuela esan dizugu gorago, irakurle— hizkuntzaren sorreraren aztarnei begira. Argi du gure irakurleak hizkuntza gaitasuna ez dela nahitaez ahozkoa —keinu hizkuntzaz gogoratzea besterik ez du—, baina paleantropologoak arrazoiz dioskunez, ezin daiteke musikarik sortu existitzen ez diren musika-tresnetarako. Horrek daramatza ikertzaileak soinuak sortzeko bideak ematen dizkigun organu fonatzailearen aztarnak aztertzera.

Ez dizkiogu hemen organu fonatzailearen xehetasunak azalduko irakurleari. Ahoskatzeko bideak ez zaizkio horren arrotz egingo. Organu fonatzailea izatez *laringea* da. Bertan daude kokaturik *ahots-kordak,* soinua sortzeko iturri nagusia. Soinua berez *uhin* multzo bat da, eta uhin horiek sortu eta kanpora bidean itxuratu egiten dira faringetik, eta aho eta sudur barrunbeetatik igarotzean. Ahoan ditugu ahoskatzean darabiltzagun organu nagusiak, mugikorrak batzuk, hala nola mihia, aho gingila edo ezpainak, eta egonkorrak besteak, aho sabaia esate baterako, eta non eta nola ahoskatzen diren, sailkatzen ditugu soinuak: [p] *kontsonantea* biriketatik datorren haizeak pasabide hertsia topatzen du ahoan kanpora bidean*; ahoskabea,* ahots-korden mugimendu berezirik gabe sortzen da (ez *ahostuna*); *ezpainbikaria,* ezpainetan ahoskatzen da (ez, adibidez, *ezpain-horzkaria,* goiko hortzaz eta beheko ezpainaz ahoskatzen dena); *herskaria,* ezpainak elkarri hurbildu eta pasabidea guztiz hertsiz sortzen da-eta (ez *igurzkaria*)...

Ugaztunek oso goian dute kokaturik laringea, ia-ia aho barrunbearen oinarrian. Hala arnas har dezakete sudurretik edaten duten bitartean: laringeak bat egiten du sudur barrunbearekin edaten den bitartean, eta arnasa ez da eteten. Altzoko haurrek ere nahikoa goian dute laringea —zeinek ez du haurraren arnas samur temosoa sentitu, titia hartzen ari dela? Baina bi hilabetetik aurrera, laringea jaitsi egiten da gizakiongan. Ordutik, ezin dugu arnasik hartu edaten dugun bitartean, tximu batek

egingo lukeen bezala. Gainera, laringea jaisteak arrisku handia dakarkigu gizakioi —*kontrako eztarritik* joan dakiguke irentsitakoa— baina, edozein modutan ere, laringearen jaisteak fonazioaren garapenari bidea ireki zion.

Juan Luis Arsuagak eta beste paleoantropologo batzuek ez dute laringearen aipamen soila egiten. Itxuraz, laringea beheraxeago egoteak burezurraren oinarria makurtzeko aukera handiagoa ematen du. Eta horretaz baliatzen dira hominidoen gaitasun fonetikoak zein ziren erabakitzeko. Esate batera, Laitman-en eta Arsuagaren beraren lanetatik atera daiteke *Homo Habilis*ak berak bazuela makurtutako burezur oinarria, eta ondorioz beheraxe kokatutako laringea, guk bezalatsu. Laitman-ek, antza, ez dio oso gaitasun fonetiko handirik ematen *Neanderthalensis*ari, baina ez da uste berekoa Arsuaga: nola liteke lehenagokoek gaitasun handiagoa izatea, katean hurrengoek baino? Historiak, zorionez, *Neanderthalensis*aren ohorea zuritu du: antza, ikertzaileek txarto eraikitako burezurra erabili zuten euren lanean, eta ondorioak, beraz, okerrak baino ezin zitezkeen izan. Burezurra berreraiki, eta *Neanderthalensis*ak berak ere Erdi Aroko beste batzuen antzeko makurrera zuen burezur oinarrian. Koittadua! Betirako desagertu, zer dela eta desagertu ez badakigu ere, eta gaizki esaka aguanta beharra ikertzaileak…

Zeren desagertu, desagertu egin ziren. Askok diote benetako hizkuntzarik ez izateak atera zituela lurraren azaletik. *Sapiens sapiens*ak hizkuntza eta guzti agertu, eta nekez izan omen zuten irautea. Ez dira denak, baina, iritzi berekoak. Guk *etxekoari* —Arsuagari— egingo diogu kasu, arrazoi emango diogu arrazoi erabat azientifikoengatik, goian esandako beragatik, alegia, *Neanderthalensis*ak malenkoniaz atzera begirarazten digulako: izan gintezkeenari eta ez garenari begirarazi. Baina adi, parametro kontuetan egin kasu guri; fosilen irakurketan, berriz, Arsuagari kasu egin. Maisuak esango dizu fosilek ez dutela gizaki modernoaren nagusitasun linguistikoa erakusten. Esango dizu, era berean, ez dagoela argi nolakoa ote zen *Neanderthalensis*en hizkuntza. Gizaki modernoa ez zen, gainera, agertu eta handik gutxira *neanderthalensis*a desagerrarazi, prozesu luze-luze baten ondorioz gertatu omen zen ordezkatzea. Kosta egin zitzaion. Arsuagak dio gakoa ez dela hizkuntza gizaki modernoa garaile egin zuena, baliabideak ustiatzeko gaitasunen garapen handiagoa baino. Berak hitzez hitz dioenez, *besterik gabe, gauza beretik gehiago zeukan.* Horrek egin zuen garaile. Horrek, irakurle, egin gintu(n)an garaile.

****

Bidaia amaitzera doa, eta gu akitu samar gaude. Akituta, bai, apustua galdu dugunik uste ez dugun arren. Ez dakigu benetan hizkuntzari, singularrean deklinatutako hizkuntzari itzuli osoa egin diogun, baina argi dago munduan eta hizkuntzan itzulinguruka ibili garela, Fogg ez bezala norabidea behar beste eta nahi beste aldatuz. 80 baino gehixeago erabili ditugu baina guk, Fogg-ek ez bezala, nahiago genuen zenbaki hori gutxieneko muga izatea. Egun bat gehiago, minutu edo segun-

do bat gehiago, berarentzat kalte; hizkuntza bat gehiago, guretzat irabazia, gure apustuaren helburua hizkuntzaren ingurukoak hobeto ulertzea izan baita. Denbora urre preziatua da, baina bere apustu horretan zenbat eta gutxiago, hobeto (benetako urrea zegoen dantzan!). Gure apustuan, aldiz, zenbat eta gehiago ederrago. Espero dugu orain artekoarekin irakurleari hizkuntzaren aldakortasuna dastatzeko moduko menu zabal eta goxoa eskaini izana. Apustua erdi irabazita badugu, beraz. Hala ere, honaino heldu eta atzera begirakoan konturatu gara zenbat eta zenbat galdera utzi ditugun erantzun gabe —apustua erdi galduta? Galderazaleak gara, bai, eta galderak zientziaren bidegileak direla geniotsun gorago, baina erantzun apurrak eman nahi genizkizun, irakurle, gai batzuen inguruan, behintzat, eta tarteka galdera ikurraren ostean, isilaldi luzea izan da ordain bakarra. Horrek etsitu egiten gaitu. Bidaiaren nekea edo, batek badaki. Adibidez, unibertsaltasunari buruzko hamaika arrazoi eta gainera, askotarikoak eman dizkizugu, irakurle. Baina aldakortasunaz? Hizkuntzaren barruko azalpenaz nahikoa, egia esan, baina hizkuntzaz kanpoko azalpenetan, ezer gutxi, edo ia bat ere ez. Ez dugu honekin esan nahi orain eta ez lehenago ohartu garenik gure isiltasunaren ozenaz. Izan ere, badira gu baino lehenago halako erantzunak bilatzen saiatu direnak, eta patrikak hutsik dituztela egin dute etxera buelta, eta guk, arrazoiaren begiez maisutzat jotzen ditugun horietakoak daude tartean, Mark Baker, adibidez, ez ezazu pentsa.

Esate baterako, askotan entzun izan dugu eta guk geuk ere uste dugu gramatikaren jabekuntza parametroei balioak esleitzean datzala. Ume euskaldunak nahikoa du Buru Parametroari buru-azken balioa egoztea, bere hizkuntzan egokiro sortzeko ia azkenik gabeko sintagmak. Hau halaxe izan daiteke, bai, ez dira honengatik baina zalantza guztiak argitzen. Baker-ek dioen moduan (2001: 99):

> Why should it be like this? Why should languages be so similar in their recipes and yet so different in their observed forms? Why should do much of grammar be predetermined, yet not all of it? Why should some of the undetermined parts be located in the central core of the recipe of phrase formation, precisely where they have the greatest effect on sentences? (...) In short, why are the parameters?
>
> (Zergatik hau hala izan behar? Zergatik izan behar dira hizkuntzak hain antzekoak beren errezetetan eta, aldi berean, hain ezberdinak ikus ditzakegun beren itxuretan? Zergatik egon behar da gramatikaren parterik handiena aldez aurretik zehaztuta, baina ez den-dena? Zergatik egon behar dira zehaztu gabeko ezaugarri batzuk sintagmak antolatzen dituen errezetaren muinaren erdian, justu perpausetan eragin gehien izan dezaketen lekuan? (...) Hitz gutxitan, zergatik daude parametroak?)

Jakina, guk ez daukagu erantzuna, eta gorago genioen modura, ez dirudi Mark Baker-ek han-hemenka jasotzen dituen balizko erantzunek gehiegi asebetetzen dutenik. Guk ez dugu erantzun bakar baten zirriborroa baino egingo. Orain arte aipatu ez dugun eremu zientifiko batetik dator eta hizkuntzaz kanpoko azalpen bidea emateko asmoa du. Adibide modura darabilgu, pentsatuz irakurle jakintsuak jatorrizko testua irakurriko duela azalpenaren nondik norakoak xehetasunez ezagu-

tzeko. Azalpen modu horretan, hizkuntza eta kulturaren arteko koerlazioa da gako nagusia: aldakortasun linguistikoa kultur aldakortasunaren arrazoi berberez azal liteke agian. Ezin ukatuzkoa da badirela hizkuntzan kulturarekin zerikusia duten alderdiak. Edozein modutan ere, argi dago aldakortasun tipologikoa ezin daitekeela arrazoindu inongo alderdi kulturali egotziz ez eta mundu ikuskera bat ala beste dagoela argudiatuz. Baker-ek dioen bezala, ez dago harreman esanguratsurik tipo linguistiko eta kulturalen artean. Jo dezagun berriro irakurleak dagoeneko ederki ezagutzen duen Buru Parametrora. Euskara, japoniera, turkiera, txoktawera edota ketxuera, guztiak dira buru-azken hizkuntzak. Aldiz, buru-lehen hizkuntzak dira txinera, thaiera, yorubera, swahiliera, zapotera, eta abar. Hau esandakoan, galdetu beharra dugu ea ba ote dagoen lehen taldea bigarren taldetik bereizten duen ezaugarri kulturalik eta ea ezaugarri kultural hori harremanetan jarri ote daitekeen mota linguistiko batekin ala bestearekin. Erantzuna bietan, jakina, ezezkoa da.

Arazoa da, Baker-ek dioen bezala, jakitea ea zergatik biltzen dituen parametroak errezeta linguistikoak —errezeta, gogoratzen? Zeren parametroak ez daude hizkuntzaren alboetan ezta periferian ere, ezpada hizkuntzaren muinean. Galdera hauen erantzunen aurrean, isiltasuna ozen.

****

Apustua galdu zuelakoan, apustua irabazi. Halaxe amaitu zuen munduaren itzulia Fogg-ek. *Mongolia* itsasontzian, *Kiomi* elefantearen gainean, gurpildun baporeontzian, trenean, balandro moduko elur-leran… Denetara, 80 egunez. Sintaxian, fonologia eta semantikan, edo bai horixe, gramatikan, jabekuntza goiztiarrean, afasien azterketan, aztarna genetikoetan, paleoantropologian, etnologian. Denetara, 80 hizkuntzetan, gutxigorabehera... Eta liburuko azken orrialdeko paragrafoetan azkenak halaxe dio:

> Ainsi donc Phileas Fogg avait gagné son pari. Il avait accompli en quatre-vingts jours ce voyage autour du monde ! Il avait employé pour ce faire tous les moyens de transport, paquebots, railways, voitures, yachts, bâtiments de commerce, traîneaux, éléphant. L'excentrique gentleman avait déployé dans cette affaire ses merveilleuses qualités de sang-froid et d'exactitude. Mais après ? Qu'avait-il gagné à ce déplacement ? Qu'avait-il rapporté de ce voyage ?
>
> Rien, dira-t-on ? Rien, soit, si ce n'est une charmante femme, qui — quelque invraisemblable que cela puisse paraître — le rendit le plus heureux des hommes !
>
> En vérité, ne ferait-on pas, pour moins que cela, le Tour du Monde?
>
> *Phileas Foggek, beraz apustua irabazi zuen. Laurogei egunetan burutu ahal izan zuen munduari bere itzulia! Horretarako mota guztietako garraiobideak erabili behar izan zituen: itsasontzia, trena, zalgurdia, yatea, zamaontzia, elur-lera, elefantea… Gentleman xelebre honek eginkizun horretan bere odol hotza eta zehaztasun miresgarriak erabili izan zituen. Baina horren ondoren? Zer irabazi zuen ibilaldi*

honekin? Zer ekarri zion bidaiak?

Ezertxo ere ez, esango da? Ezer ere ez, ... ez bada, sinesgaitza badirudi ere, gizonik zoriontsuena bihurtu zuen emazte xarmanta! Benetan, hori baino gutxiagogatik nork ez lioke munduari itzulia egingo?

Eta zertarako galdetzen diogu gure buruari baita guk ere? Zer irabazi dugu batetik bestera gabiltzala? Ezer ere ez, esango diguzue, Phileas Fogg-i esango zenioketen bezala. Ezer ere ez, ez bada… Auda bezalakorik? Bada, agian, bai, *Auda,* edo besterik gabe, zoriona? Litekeena da. Gu ez ginen Phileas Fogg bezain zorigaiztoko bidaiari ekin genionean, eta zoriona ez da bidaiaren azken orrialdean idatzita aurkitu duguna. Baina zoriona bidaiak berak eman digu bidaian zehar. Emaiguzue hizkuntzaren misterioa, eta han izango gaituzue, mapa asmatu nahirik, marrazten, gure senari segika jakin-minez. Eman iezazkiguzue hizkuntzen bitxikeriak, eta han gu, bitxiez gozatzen, zergatiez galdezka. Zoriona, litekeena da.

Kontua da esploratzaile gehienok, eta ez da horren harrigarri, galdera bertsuak egiten dizkiogula geure buruari. Hala, Sir Richard Burton-en galdera samina ere datorkigu gogora, Niloko iturburuen bila joandako espedizio batean zoritxar izugarriak jasandakoan zioenean: «Nire buruari galdetzen diot ea zergatik jarraitzen ote dugun eta ez dut erantzunik. Nire buruari galdetu eta oihartzunak erantzuten dit: tonto alu hori, deabruak zaramatza!».

Guk ez dakigu guri ere deabruak ez ote digun eskutik ebatu bidaian jarraitzeko. Ez digu gehiegi axola, eta ezta ziur aski, Sir Burton-i berari ere, munduan zehar han-hemenka barreiaturik dauden hizkuntzez eta azken batean hizkuntzaz ikasi duguna, gure hizkuntzaz, euskaraz, eta geure buruaz, ikasi duguna, zorioneko lezio ederra delako gu bezalako inuzenteontzat. Hori baino gutxiagorengatik ere egingo geniokeen munduari itzulia.

---

1. Hori deskribatu du Luis Villasante-k (1980) edota Jose Ignacio Hualde, Arantzazu Elordieta eta Gorka Elordietaren Lekeitioko euskararen azterketak (Hualde *et al.* 1994). Analisi bat nahi izanez gero, Ortiz de Urbina (2002) lanera jo dezake irakurleak.

2. Thomas Bever-ek, 1970. urtean eman zion fenomeno honi izena, ingelesez *garden path* izena erabiliz. Ingelesez izen hori ez zaie ematen lorategiko bidexka arruntei; aitzitik, inora ez garamatzaten sasi-bideak dira horiek. Euskaraz *labirinto perpausak* dei genitzake. Oso perpaus interesgarriak dira hauek, ondo erakusten baitute perpausak bat-batean prozesatzen ditugula, perpaus edo esaldi osoa izan arte itxaron gabe. Prozesatzerakoan ikusten dugun lehenengo bidea hartzen dugu... batzuetan okerreko bidetik goazela ohartu arte.

3. Egitura erraztu egiten dugu ulergarritasunaren izenean. Intuitiboki *mucha prisa* / *presa handia* izen multzoa bada, gaurko analisi askotan zenbatzaileak izena baino goragoko beste sintagma eraikitzen du.

4. Errepika dezagun berriro eredu teoriko bat eraikitzen duela Hawkins-ek, eta *memoria eremu* hori bere hulbilketaren beharraren araberakoa dela, ez fisikoki inork aurkitu duen ezer. Itziar Lakak dioskunez, neurohizkuntzalaritzaren datuek ez lukete OA/AO bereizketa hau baieztatuko.

5. Delako '*a* itsatsi' famatuaz ahaztuko gara hemen.

6. Ikusi, esate baterako, Peter Ladefoged eta Ian Maddieson-en (1996) liburu klasikoa.

7. Berriz ere, eskerrak Brendan Costello-ri irudi hauek eskuratu eta erabiltzeko baimena emateagatik, baita irudietan agertzen diren Jose Martín eta Itziar Mas-i ere. Aurpegierak ere —begiradaren norabideak (Thompson *et al.*, 2006) eta buruaren makurdurak— badu rol garrantzitsua artikulazioan. Costello-k (2006) oso hausnarketa interesgarria egiten du keinu hizkuntzek hizkuntzaren arkitekturaz esan (eta esan ezin) dezaketenaz.

8. Aurpegi berezia keinu hauek bai-ala-ez galdera baten barruan egoteak dakar. Hemen, aurpegierak badu ahozko hizkuntzetan entonazioak duen funtzioa, keinu/hitzen gaineko beste maila batean kokatua. Ikus baita 7 kapituluko 15. oin-oharra.

9. Hizkuntza batzuetan, perpausa/esaldia amaitutakoan (hau da, 'eskumako' periferian') mintzagai antzeko osagaiak aurki ditzakegu, *afterthought* batean bezala edo. Ingelesez laguntzaile batekin azaltzen dira, mintzagai arruntak ez direlako seinalea ote?:

(i) He gave me the wrong address, Jon did.

10. Oso litekeena da azalpena hizkuntzaren barrukoa izatea, aukeratzen ditugun azalgaiak ere horretara lerratuak direlako. Hizkuntzaren erabilera zilegizko aztergaia da, baina ez da gure aztergaia. Esate baterako, *zergatik ez goaz zinemara?* galdera egitean ez dugu ez joatearen arrazoirik eskatu nahi; joateko gonbita da egin nahi duguna. Mota honetako datuen azalpena nahi duenak ez luke gure biderik jarraitu beharko. Datua nolako, azalpena halako.

11. Ikus Lore Erriondo (1993: 31).

12. Edozein modutan ere, Itziar Lakak berak ohartarazten digunez, kontuan hartu beharra dago datu gutxi ditugula oraindik orain. Corpusari begira, gaixoek askotxo asmatzen zuten sintagmen kasuei dagokienez, baina bat-bateko corpusa izanda, ezin daiteke ziurtasun osoz ezer esan kasuari buruz.

13. *Disfasia genetiko* izena ere aurkituko du inoiz irakurleak.

14. Ehunekoen ezberdintasunek hizkuntza hauen markapen morfologikoarekin izan dezakete zerikusia. Pentsatu iragana sortzeko arau fonologikoa nahiko erraza dela ingelesez eta japonieraz, aditz erroari iraganeko morfema itsasten baitiote. Baina beste hizkuntzetako iraganeko formak askoz korapilatsuagoak dira, grezieraz eta frantsesez komunztadura eta bestelako markak ere itsatsi behar baitira.

80 hizkuntza (eta gehiago): Glotonimoak eta aipamenak

Ondoan, liburuan zehar aipatutako hizkuntzak zerrendatzen ditugu. Erabili dugun euskal izenaz gain ingeles deiturak ere bildu ditugu, sarean barrena datu gehiago bilatu nahi duen irakurleari lagungarria izango zaiolakoan. Deiturez gain, hizkuntza familia eta mintzatzen den leku nagusia zehazten dugu. Sareko orri osoenetariko bat <http://www.ethnologue.com/> web orria da; bertan hizkuntza zerrendak aurki daitezke, oinarrizko informazioa biltzen dutenak. Wikipedia bera ere oso lanabes erabilgarria da. Eta, noski, oso lan ona ikus daiteke Euskal Herriko Unesco etxeak sortu duen *Munduko hizkuntzen amarauna* orrian, alegia: http://www.amarauna-languages.com.

Abazera (*Abaza*). Ipar-mendebaldeko kaukasoarra. Errusiako Karachay-Cherkess errepublika.
Abkhazera (*Abkhaz*). Ipar-mendebaldeko kaukasoarra. Abkhazia (Georgia) eta Turkia.
Alemana (*German*). Indoeuroparra, germaniarra. Alemania, Austria.
Alutorera (*Alutor*). Txukotko-Kamtxatkarra. Siberia.
Amharera (*Amharera*). Semitikoa. Etiopia.
Apalaiera (*Apalai*). Karibearra. Brasil.
Apurina (*Apurina*). Arawakarra. Brasil.
Arabiera (Arabic). Semitikoa. Ipar Afrika, Ekialde Hurbila.
Arekuna (*Arekuna*). Karibearra. Guyana.
Bakairiera (*Bakairi*). Karibearra. Brasil.
Barasanera (*Barasana*). Tukanarra. Kolonbia.
Bretoiera (*Breton*). Indoeuroparra, zelta. Bretainia, Frantzia.
Burushaskiera (*Burushaski*). Isolatua. India (Katxemira, Jammu).
Dakota (*Dakota*). Siouarra. AEB, Kanada. Ikus Lakotera.
Diyariera (*Diyari*). Pama-nyungarra. Australia.
Duundidjawuera (*Duundidjawu*, *Dungidjau, Jinibara*). Australia.
Dyirbalera (Dyirbal). Pama-nyungarra. Australia.
Errusiera (*Russian*). Indoeuroparra, eslabiarra. Errusia.
Eskimoera (*Eskimo*). Eskimo-aleutarra. Alaska, Kanada, Groenlandia, Siberia. Ikus inuitera.

Euskara (*Basque*). Isolatua. Euskal Herria.
Fijiera (*Fijian*). Austronesiarra (malayo-polinesiarra). Fiji.
Finlandiera (*Finnish*). Fino-ugriarra. Finlandia, Suedia.
Frantsesa (*French*).Indoeuroparra, erromantzea. Frantzia, Belgika, Kanada.
Galaliera (*Galali*, *Wangkumara*). Pama-nyungarra. Australia.
Galesera (*Welsh*). Indoeuroparra, zelta. Gales.
Gaztelania (*Spanish*). Indoeuroparra, erromantzea. Espainia, Hego Amerika.
Georgiera (*Georgian*). (Hego) Kaukasoarra. Georgia.
Greziera (*Greek*). Indoeuroparra.
Groenlandiera (*Greenlandian*). Eskimo-aleutarra. Groenlandia. Ikus eskimoera, inuitera.
Guaraniera (*Guarani*). Tupi-guaraniarra. Paraguay, Brasil, Bolivia.
Hausera (*Hausa*). Txadikoa. Nigeria
Hebreera (*Hebrew*). Semitikoa. Israel.
Hianakotoera (*Hianakoto*). Karibearra. Guyana.
Hindiera (*Hindi*). Indoeuroparra. India.
Hixkarianera (*Hixkariana*). Karibearra. Brasil.
Hungariera (*Hungarian*). Fino-ugriarra. Hungaria, Rumania, Eslobakia.
Ikanera (*Ikan*, *ukaan*). Niger-kongoarra. Nigeria.
Ingelesa (*English*). Indoeuroparra, germaniarra. Erresuma Batua, AEB, Australia.
Inuitera (*Inuit*). Eskimo-aleutarra. Alaska, Kanada, Groenlandia, Siberia. Ikus eskimoera.
Ioway-otoera (*Ioway-oto*, *chiwere*). Siouarra. AEB.
Irlandera (*Irish*). Indoeuroparra, zelta. Irlanda.
Islandera (*Icelandic*). Indoeuroparra, germaniarra. Islandia.
Italiera (*Italian*). Indoeuroparra, erromantzea. Italia.
Itelmenera (*Itelmen*). Txukotko-kamtxatkarra. Siberia.
Jakaltera (*Jacaltec*). Maiarra. Guatemala.
Japoniera (*Japanese*). Japoniarra. Japonia.
Kalaganera (*Kalagan*). Austronesiarra. Filipinak.
Kannadera (*Kannada*). Dravidiarra. India.
Katalana (*Catalan*). Indoeuroparra, erromantzea. Catalunya.
Keinu hizkuntzak (*Sign Languages*).
Ketera (*Ket*). Isolatua. Errusia, Siberia.
Ketxuera (*Quechua*). Ketxuarra. Peru, Bolivia, Ekuador, Kolonbia.
Khoisar hizkuntzak (*Khoisian*). Hego Afrika.
Kinyarwandera (*Kinyarwanda*). Niger-Kongoarra, bantuarra. Rwanda.
Kitxera (*Quiche*). Maiarra. Guatemala.
Koreera (*Corean*). Isolatua. Korea.
Kreera (*Cree*). Algonkiarra. Kanada.
Lakhota. (*Lakota*, *Lakhota*) Siouarra. AEB. Ikus Dakota.
Latina (*Latin*). Indoeuroparra.

Lazera (*Laz*). (Hego-)Kaukasoarra. Turkia, Georgia.
Lituaniera (*Lithuanian*). Indoeuroparra, baltikoa. Lituania.
Lisuera (*Lisu*). Sino-tibetarra. Txina, Myanmar, Tailandia.
Makuera (*Makua*). Niger-kongoarra, bantuarra. Mozambike
Makuxiera (*Macushi*). Karibearra. Guyana.
Malagasyera (*Malagasy*). Austronesiarra. Madagaskar.
Mangarayiera (*Mangarayi*). Austronesiarra. Australia.
Marikopa-diegenoera (*Maricopa*, *Diegeno*). Hokarra, Yumarra. AEB.
Miskitoera (*Miskito*). Misumalparra. Nikaragua, Honduras.
Mohawkera (*Mohawk*). Irokiarra. AEB, Kanada.
Motxo´era (*Mocho*). Maiarra. Mexiko, Chiapas.
Nadëbera (*Nadëb*). Makuarra. Brasil
Nez percera (*Nez perce*). Penutiarra. AEB.
Niuera (*Niue*). Austronesiarra. Niue, Zeelanda Berria.
Norvegiera (*Norwegian*). Indoeuroparra. Norvegia.
Onondagera (*Onondaga*). Irokiarra. AEB, Kanada.
Otomiera (*Otomi*). Oto-mangearra. Mexiko.
Panareera (*Panare*). Karibearra. Venezuela.
Pertsiera, farsiera (Persian, Farsi). Indoeuroparra. Iran.
Rutulera (*Rutul*). Ipar kaukasoar hizkuntza. Dagestan eta Azerbaijan.
Salentinoera (*Salentino*). Indoeuroparra, erromantzea, italieraren dialektoa. Italia
Samoera (*Samoan*). Austronesiarra. Samoa
Sanskritoa (*Sanskrit*). Indoeuroparra. India.
St´át´imcects (*St´át´imcects*). Salixarra. Kanada.
Suediera (*Swedish*). Indoeuroparra, germaniarra. Suedia.
Swahiliera (*Swahili*). Niger-Kongoarra, bantuarra. (Ekialdeko) Afrika.
Tagalogera (*Tagalog*). Austronesiarra. Filipinak.
Tarianera (*Tariana*). Arawakarra. Brasil.
Thaiera (*Thai*). Tai-Kadaiarra. Thailandia.
Tiwera (*Tiwa*). Kiowa-Tanoarra. AEB.
Tsova-tushera, **batsbiera** (*Tsova-tush, Batsbi*). (Ipar-)Kaukasoarra. Georgia.
Tonganoera (*Tongan*). Austronesiarra. Tonga.
Turkanera (*Turkana*). Nilo-Sahararra. Kenya.
Turkiera (*Turkish*). Turkiarra. Turkia.
Txinera, **mandarinera** (*Chinese*). Sino-tibetarra. Txina, Taiwan.
Txitxewera (*Chichewa*). Niger-kongoarra, bantuarra. Malawi, Zambia, Mozambike.
Txoktawera (*Choctaw*). Muskogearra. AEB.
Txuktxiera (*Chuckchee*). Txukotko-kamtxatkarra. Siberia.
Tzeltalera (*Tzeltal*). Maiarra. Mexiko, Chiapas.
Tzotzilera (*Tzotzil*). Maiarra. Mexiko, Chiapas.
Urubuera, **Kaaporera** (*Urubu*, *Kaapor*). Tupi-guaraniarra. Brasil.
Wampanoagera *(Wampanoag).* Algonkiar hizkuntza. AEB.

Wangkumarera (*Wangkumara*). Pama-nyungarra. Australia. Ikus Galiliera.
Waraoera (*Warao*). Txibtxarra. Guyana, Venezuela, Surinam.
Warlbiriera, **warlpiriera** *(Warlbiri, warlpiri).* Pama-nyungarra. Australia.
Xabantera (*Xavante*). Gearra. Brasil.
Xhosera (*Xhosa*). Niger-kongoarra, bantuarra. Hego Afrika.
Yalarnngera (*Yalarnnga*). Pama-nyumgarra. Australia.
Yazgulyamera (*Yazgulyam*). Indoeuroparra. Tajikistan.
Yidinera (*Yidin*, *Yidiny*). Pama-nyungarra. Australia.
Yorubera (*Yoruba*). Niger-kongoarra. Nigeria, Benin, Togo.
Yukatera (*Yucatec*). Maiarra. Mexiko.
Zapotera (*Zapotec*). Oto-mangearra. Mexiko.
Zokeera (*Zoque*). Mixe-zokearra. Mexiko.

Aipamenak

Åfarli, T. (1989): "Passive in Norwegian and in English", *Linguistic Inquiry*, **20.1**, 101-108.

Agirretxe, J.L.; Lersundi, M. eta Olaetxea, O. (1998): *Pasaiako hizkera,* Pasaiako Udala: Pasaia.

Aikhenvald, A.Y. (2000): "Transitivity in Tariana", in R.M.W. Dixon eta A.Y. Aikhenvald (arg.), *Changing Valency,* Cambridge University Press, Cambridge, 145-172.

Aissen, J. (1987): *Tzotzil Clause Structure,* D. Reidel, Dordrecht.

————, (1992): "Topic and Focus in Mayan", *Language,* **68.1**, 43-80.

Albizu, P. (1997a): *The Syntax of person agreement,* [doktorego-tesia], University of Southern California.

————, (1997b): "Generalized person-case constraint: a case for a syntax-driven inflectional morphology", in A. Aurrekoetxea eta M. Uribe-etxebarria (arg.), *Theoretical issues at the morphology-syntax interface,* ASJUren gehigarriak, **XL**, EHU-Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbao/Donostia, 1-34.

Allen, W.S. (1956): "Structure and system in the Abaza verbal complex", *Transactions of the Philological Society,* 127-176.

Amiridze, N. (2005): "Coreference by Association. Georgian Reflexives in Subject Function in Special Contexts", *Workshop on Binding* jardunaldietan aurkeztua, Lisboa, abuztuaren 22a, 2005, <http://www.let.uu.nl/~Nino.Amiridze/personal/papers/contexts/BindingWorkshop.pdf#search=%22georgian%20reflexive%22>.

Anderson, S.R. (1976): "On the notion of subject in ergative languages", in C.N. Li (arg.), *Subject and topic,* Academic Press, New York, 1-23.

Arregi, E. (2003): "Ergatividad sintáctica frente a ergatividad morfológica", in M.D. Muñoz *et al.* (arg.), *Actas del IV Congreso de Lingüística General,* 137-149.

Arregi, K. (2006): "The have/be alternation in Basque", <https://netfiles.uiuc.edu/karlos/www/Arregi-have.pdf>.

Arsuaga, J.L. (1998): *La especie elegida. La larga marcha de la evolución humana,* Ediciones Temas de hoy, Barcelona.

Artiagoitia, X. (2000): *Hatsarreak eta parametroak lantzen*, Arabako Foru Aldundia eta EHU, Gasteiz.

————, (2001): "Irudiak eta emaileak", *ASJU,* **35: 1**, 29-64.

Austin, P.K. (1981): *A grammar of Diyari, South Australia*, Cambridge University Press, Cambridge.

Baker, M. (1988): "The Syntax of Applicatives in Chichewa", *NLLT*, **6.3**, 353-389.

————, (1988): *Incorporation*, The University of Chicago Press, Chicago.

————, (2001): *The Atoms of Language*, Basic Books, New York.

————, (2006): "Part IV: Parameters of Agreement", *The Syntax of agreement and concord,* [EHUko Hizkuntzalaritza sailarteko doktorego-egitarauan irakatsitako ikastaroa, Apirila], Gasteiz.

————, (2007): "Parameters of Agreement", [eskuizkribua], Rutgers University.

Baker, M., Johnson K. eta Roberts I. (1989): "Passive Arguments Raised", *Linguistic Inquiry*, **20**, 219–251.

Belletti, A. (2002): *Structures and Beyond. The Cartography of Syntactic Structures,* **III**, Oxford University Press, Oxford.

Belleti, A. eta Rizzi, L. (1988): "Psych Verbs and ?-Theory", *Natural Language and Linguistic Theory,* **6**, 291-352.

Bernabé, M. (2005): *Japonés en viñetas. Curso básico de japonés a través del manga,* Norma, Bartzelona.

Bobaljik, J.D. eta Wurmbrand, S. (2001): "Notes on agreement in Itelmen", [eskuizkribua], McGill University, Montreal.

Bobaljik, J. eta Branigan, P. (2006): "Eccentric agreement and multiple case checking", in A. Johns; D. Massam eta J. Ndayiragije (arg.), *Ergativity: Emerging Issues*, Dordrecht, Springer, 47-77.

Bok-Bennema, R. (1991): *Case and agreement in Inuit,* Foris, Berlin.

Bonet, E. (1991): *Morphology after syntax: pronominal clitics in Romance,* [doktorego-tesia], MIT.

Borsley, R.; Rivero, M.L. eta Stephens, J. (1996): "Long Head Movement in Breton", in R.D. Borsley (arg.), *The syntax of the Celtic languages: a comparative perspective*, Cambridge University Press, Cambridge, 53-74.

Bosque, I. eta Demonte, V. (1999): *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Espasa, Madrid.

Burzio, L. (1986): *Italian Syntax: A Government-Binding Approach*, D. Reidel, Dordrecht.

Caplan, Davin (1987): *Neurolinguistics and linguistic aphasiology*, Cambridge University Press, Cambridge. [Gaztelaniazko itzulpena: L. Eguren, *Introducción a la Neurolingüística y al estudio de los trastornos del lenguaje,* Visor, Madril, 1989]

Centro de Investigaciones y Documentación de la Costa Atlántica (1985): *Gramática miskita,* Managua.

Cerrón-Palomino, R. (1987): *Lingüística Quechua*, Centro de Estudios Andinos 'Bartolomé de Las Casas', Cuzco.

Choi, S. (2003): "Serial verbs and the empty category", in D. Beermann eta L. Hellan (arg.), *Proceedings of the workshop on Multi-Verb constructions*, Trondheim Summer School, Trondheim.

Chomsky, N. (1988): *Language and problems of knowledge,* MIT Press, Cambridge (Mass.). [Gaztelaniazko itzulpena: C. Alegría eta D.J. Flakoll, *El lenguaje y los problemas del conocimiento. Conferencias de Managua* **I,** Visor, Madril, 1989].

Cinque, G. (1993): "A Null theory of Phrasal and Compound Stress", *Linguistic Inquiry*, **24:2**, 239-297.

————, (2002): *The Structure of DP and IP. The Cartography of Syntactic Structures,* **I**, Oxford University Press, Oxford.

Cohen, M. (1970): *Traité de Langue Amharique,* Institut d'Ethnologie, Paris.

Comrie, B. (1981): *Language Universals and Linguistic Typology. Syntax and morphology,* Cambridge University Press, Cambridge. [Gaztelaniazko itzulpena: A. Ayuso, *Universales del lenguaje y Tipología Lingüística. Sintaxis y Morfología,* Gredos, Madril, 1989].

Costello, B. (2006): "Space and gesture in sign: consequences of the verbal agreement system for the language faculty architecture", [eskuizkribua], EHU.

Croft, W. (1990): *Typology ad Universals*, Cambridge University Press, Cambridge.

Davies, W.D. (1985): *Choctaw Verbal Agreement and Universal Grammar*, Kluwer, Dordrecht.

Davis, H. eta Demirdache, H. (2000): "On Lexical Verb Meanings: Evidence from Salish", in J. Pustejovsky eta C. Tenny (arg.), *Events as Grammatical Objects*, CSLI-Stanford University Press, Stanford, 97-142.

De Rijk, R.P.G. (2002): "Antipasiboak euskaraz", in J.M. Makatzaga eta B. Oyharçabal (arg.), *Euskal Gramatikari eta Literaturari Buruzko Ikerketak XXI. Mendearen Atarian*, Euskaltzaindia, Bilbo, 385-393.

De Roo, E. (2001): "Root nonfinite and finite utterances in child language and agrammatic speech", *Brain and language,* **77,** 398-406.

Derbyshire, D.C. (1985): *Hixkaryana and Linguistic Typology,* Summer Institute of Linguistics, Arlington.

Derbyshire, D.C. eta Pullum, G.K. (1981): "Object Initial Languages", *International Journal of American Linguistics,* **47**, 192-214.

———— eta ————, G.K. (arg.) (1986-88): *Handbook of Amazonian Languages,* **1** eta **2** liburukiak, Mouton de Gruyter, Berlin.

Dik, S. (1989): *The Theory of Functional Grammar*, Foris Publications, Dordrecht.

Dimmendaal, G.J. (1983): *The Turkana Language*, Foris Publications, Dordrecht.

Dixon, R.M.W. (1972): *The Dyirbal Language of North Queensland*, Cambridge University Press, Cambridge.

————, (1977): *A Grammar of Yidin*, Cambridge University Press, Cambridge.

————, (1988): *A Grammar of Booma Fijian*, The University of Chicago Press, Chicago.

————, (1994): "*Ergativity"*, *Cambridge Studies in Linguistics,* **69**, Cambridge University Press, Cambridge.

Dixon, R.M.W. eta Aikhenvald A.Y. (2000): *Changing Valency*, Cambridge University Press, Cambridge.

Dowty, D. (1977): *Word Meaning and Montague Grammar*, Kluwer, Dordrecht.

Dryer, M.S. (1983): "Indirect objects in Kinyarwanda revisited", in D.M. Perlmutter (arg.), *Studies in Relational Grammar,* **1**, The University of Chicago Press, Chicago.

Elordieta, A. (2001): *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, Landelijke Onderzoekschool Taalwetenschap, Leiden.

Etxepare, R. (2003): "Valency and Argument Structure", in J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, New York/Berlin, 363-426.

Ezeizabarrena, M.J. eta Laka, I. (2006): "Itzuleraren hipotesia: jabekuntza eta afasiaren erkaketa", in B. Fernández eta I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of professor Eguzkitza,* EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 367-382.

Fernández, B. (1997): *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz,* [doktorego-tesia], EHU.

————, (2001): "Absolutibo komunztaduradun ergatiboak, absolutibo komunztaduradun datiboak: Ergatiboaren Lekualdatzetik Datiboaren Lekualdatzera", in B. Fernández eta P. Albizu (arg.), *Kasu eta Komunztaduraren gainean. On Case and Agreement*. EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 147-165.

————, (2002): "Komunztadura Bikoitza eta Lekualdatzea", in X. Artiagoitia; P. Goenaga eta J.A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festchrift for Rudolf P.G. De Rijk,* ASJUren gehigarriak **XLIV,** EHUko Argitalpen Zerbitzua eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo eta Donostia, 247-259.

————, (2004): "*Gustatzen nau gustatzen dizu*: aditz laguntzaile eta komunztadura bitxiak perpaus ez-akusatiboetan", in P. Albizu eta B. Fernández (arg.), *Euskal Gramatika XXI mendearen hasieran: arazo zaharrak, azterbide berriak,* EHUko Argitalpen Zerbitzua eta Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 87-112.

Fernández, B. eta Ezeizabarrena, M.J. (2001): "Itsasaldeko solezismoa, Datiboaren Lekualdatzearen argipean", in J.M. Makazaga eta B. Oyharçabal (arg.), *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian. Gramatika gaiak, Iker,* **14-1**, Euskaltzaindia, Bilbao, 255-278

Fernández, B. eta Albizu, P. (2006): "Agreement Doubling in Basque dialects: identical and non-identical twins", *Syntactic Doubling Conference,* Amsterdam, martxoak 15-18.

Franck, J.; Lassi, G.; Frauenfelder, U.H. eta Rizzi, L. (2006): "Agreement and movement: a syntactic analysis of attraction", *Cognition,* **101**, 173-216.

Friedmann, N. eta Grodzinsky, Y. (1997): "Tense and agreement in agrammatic production: pruning the syntactic tree", *Brain and language,* **56,** 397-425.

Givon, T. (1979): *On understanding grammar,* Academic Press, New York.

Goenaga, P. (1978): *Gramatika bideetan,* Leopoldo Zugaza, Durango, 1980 [2. argitarapena, Erein, Donostia, 1980].

Gopnik, M. (1990): "Feature-blind grammar and dysphasia", *Nature,* **344,** 715.

————, (2004): "The investigation of genetic dysphasia", in L. Jenkins, (arg.), *Variation and Universals in biolinguistics,* North Holland Linguistic Series: Linguistic variation, **62** liburukia, Elsevier, Amsterdam, 299-314.

Greenberg, J. (1963a): "Some Universals of Language with Particular Reference to the Order of Meaningful Elements", in J. Greenberg (arg.), *Universals of Language*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts, 73-113.

Grimes, B.F. (1992): *Etnologue. Languages of the World,* Summer Institute of Linguistics, Dallas.

Grodzinsky, Y. (2000): "The neurology of syntax: language use without Broca´s area", *Behavioral and brain sciences,* **23-1**, 1-71.

Hale, K. (2001): "Eccentric Agreement", in B. Fernández eta P. Albizu (arg.), *Kasu eta Komunztaduraren Gainean. On Case and Agreement,* UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 15-48.

Hale, K. eta Keyser, S.J. (1993): "On Argument Structure and the Lexical Expression of Syntactic Relations", in K. Hale eta S.J. Keyser (arg.), *The View from Building 20*, The MIT Press, Cambridge, 53-109.

Halle, M. eta Hale, K. (1997): "Chukchi transitive and antipassive constructions", [eskuizkribua], MIT.

Harris, A.C. (1981): *Georgian Syntax,* Cambridge University Press, Cambridge.

————, (1982): "Georgian and the unaccusative hypothesis", *Language,* **58,** 290-306.

Hawkins, J.A. (1990): "A Parsing Theory of Word Order Universals", *Linguistic Inquiry,* **21**, 223-261.

————, (2004): *Efficiency and Complexity in Grammars,* Oxford University Press, Oxford.

Holmer, A. (1999): "An active analysis of Basque ergativity", *Fontes Linguae Vasconum,* **81**, 189-225.

————, (2006): "Polypersonal agreement, convergent evolution and the Basque-Caucasian hypothesis", in B. Fernández eta I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of professor Eguzkitza,* EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 477-495.

Hopper P. eta Thompson, S. (1980): "Transitivity in Grammar and Discourse", *Language,* **52.2**, 251-299.

Hualde, J.I.; Elordieta, G. eta Elordieta, A. (1994): *The Basque Dialect of Lekeitio,* ASJUren gehigarriak **XXXIV,** EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbao/Donostia.

Hualde, J.I. eta Ortiz de Urbina, J. (1987): "Restructuring with *ari*", *ASJU,* **21-2**, 425-452.

Iwasaki, S. (2002): *Japanese*, John Benjamins, Amsterdam.

Jenkins, L. (arg.) (2004): *Variation and Universals in biolinguistics,* North Holland Linguistic Series: Linguistic variation, **62** liburukia, Elsevier, Amsterdam.

Jung Song, J. (2001): *Linguistic Typology. Morphology and Suntax,* Longman Linguistics Library, Harlow.

Johnson, M. (1980): *Ergativity in Inuktitut (Eskimo) in Montague Grammar and in Relational Grammar,* Indiana University Linguistic Club, Bloomington.

Kayne, R. (1993): "Toward a modular theory of auxiliary selection", *Studia Linguistica*, **47**, 3-31.

————, (1994): *The Antisymmetry of Syntax*, The MIT Press, Cambridge.

Kenesei, I. eta Ortiz de Urbina, J. (1994): "Functional Categories in Complementation", EUROTYP artikulua, <http://www.nytud.hu/oszt/igazg/kenesei/publ/funccat.pdf>.

Kiss, K.É. (1998): "Identificational focus versus information focus", *Language,* **74.2**, 245-273.

Koptjevskaya-Tamm, M. (1993): *Nominalizations,* Routledge, London.

Koptjevskaya-Tamm, M. eta Muravyova Y.A. (1993): "Alutor causatives, noun incorporation, and the Mirror Principle", in B. Comrie eta M. Polinsky (arg.), *Causatives and Transitivity*, John Benjamins, Philadelphia, 287-313.

Kozinsky, I.; Nedjalkov, V.P. eta Polinskaja, M.S. (1988): "Antipassive in Chukchee: oblique object, object incorporation, zero object", in M. Shibatani (arg.), *Passive and Voice*, John Benjamins, Amsterdam, 651.

Krauss, M. (1992): "The World's Languages in Crisis", *Language*, **68**, 4-10.

Ladefoged, P. eta Maddieson, I. (1996): *The Sounds of the World's Languages*, Blackwell, London.

Lafitte, P. (1962): *Grammaire basque. (Navarro-Labourdin littéraire),* Elkar, Donostia.

Laka, I. (1993): "The structure of Inflection", in J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics,* John Benjamins, Amsterdam.

————, (1993): "Unergatives that assign ergative, unaccusatives that assign accusative", in J.D. Bobaljik eta C. Phillips (arg.), *Papers on Case and Agreement,* **I,** MITWPL **18**, 149-172.

————, (2001): "Agramatismoaren sintomak euskaraz", in J.M. Makazaga eta B. Oyharçabal (arg.), *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian. Gramatika gaiak, Iker,* **14-1**, Euskaltzaindia, Bilbao, 323-341.

————, (2004): "ARI progresiboa eta euskararen kasu markak", in P. Albizu eta B. Fernández (arg.), *Euskal Gramatika XXI mendearen hasieran: arazo zaharrak, azterbide berriak,* EHUko Argitalpen Zerbitzua eta Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 113-132.

Levin, B. eta Rappaport, M. (1995): *Unaccusativity*, The MIT Press, Cambridge.

Li, C.N. eta Thompson, S.A. (1976): "Subject and Topic: A New Typology of Language", in C.N. Li eta S.A. Thompson (1976), 457-489.

Li, C.N. eta Thompson, S.A. (1976): *Subject and Topic*, Academic Press, New York.
———— eta ————, (1981): *Mandarin chinese. A functional reference grammar*, University of California Press, Berkeley.
Lorimer, D.L.R. (1935): *The Burushaski language. Vol **I**. Introduction and grammar*, Instituttet for sammenlignende kulturforskning, Oslo.
Mahajan, A. (1994): "The ergative parameter: Have-be alternation, word order and split ergativity", *NELS*, **24**, 317-331.
Mallinson, G. eta Blake, B.J. (1981): *Language Typology,* North Holland, Amsterdam.
Manning, C.D. (1996): *Ergativity. Argument structure and grammatical relations,* CSLI, Stanford.
Marantz, A. (1984): *On the Nature of Grammatical Relations*, The MIT Press, Cambridge.
Martínez, A. (1996): "Syntactic Evidence in favor of degrees of incorporation in [N+egin] constructions", [eskuizkribua], Deustuko Unibertsitatea.
Merrifield, W.; Naish, C.M.; Rensch, C.R. eta Story, G. (1974): *Laboratory Manual for Morphology and Syntax*, Summer Institute of Linguistics, Santa Ana, California.
Mithun, M. (1991): "Active/agentive case-marking and its motivation", *Language,* **67:3,** 510-546.
Mitxelena, K. (1981): "Galdegaia eta mintzagaia euskaraz", in *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide Berriak,* Universidad de Deusto, Bilbo, 57-81.
————, (1988): *Euskal Idazlan Guztiak,* Euskal Editoreen Elkartea, Donostia
————, (1957): "Las antiguas consonantes vascas", in D. Catalán (arg.), *Miscelánea Homenaje a André Martinet*, Universidad de La Laguna, La Laguna.
Moreno Cabrera, J.C. (1995): *La lingüística teórico-tipológica,* Gredos, Madril.
————, (1997): *Introducción a la Lingüística. Enfoque tipológico y universalista,* Síntesis, Madril.
Onishi, M. (2000): "Transitivity and Valency-Changing Derivations in Motuna", in R.M. W. Dixon eta A.Y. Aikhenvald (2000), 115-144.
Ormazabal, J. (2000): "A Conspiracy Theory of Case and Agreement", in R. Martin *et al.* (arg.), *Step by Step: Papers in Honour of Howard Lasnik,* MIT Press, Cambridge, Massachusetts, 235-260.
Ormazabal, J. eta Romero, J. (1998): "On the syntactic nature of the *me-lui* and the Person Case Constraint", *ASJU,* **XXXII-2**, 415-434.
———— eta ————, (argitaratzekotan): "The Object Agreement Constraint", *NLLT.*
Ortiz de Urbina, J. (1994): "Verb-initial patterns in Basque and Breton", *Lingua*, **94**, 125-153.
————, (2002): "Focus of Correction and Remnant Movement in Basque", in X. Artiagoitia; P. Goenaga eta J. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festscrift for Rudolf P.G. De Rijk*, EHU, Bilbao, 510-524.

Ortiz de Urbina, J. eta Uribe-etxebarria, M. (1991): "Participial predication in Basque", in J. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 993-1012 [ASJUren Gehigarriak XIV].

Oyharçabal, B. (1993): "Verb Agreement with Non-Arguments: On Allocutive Agreement", in J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Syntax*, John Benjamins, Amsterdam, 89-114.

————, (2006): "DSaren barneko zenbait ordena kontu", in B. Fernández eta I. Laka (arg.) *Andolin gogoan. Essays in honour of professor Eguzkitza,* EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 741-755.

Payne, J. (1980): "The decay of ergativity in Pamir languages", *Lingua,* **51**, 147-186.

Perlmutter, D. eta Aissen, J. (1976): "Clause Reduction in Spanish", in *Proceedings of the Second Annual Meeting of the Berkeley Linguistic Society*, Berkeley Linguistic Society, Berkeley, 1-30.

Pinker, S. (1994): *The Language Instinct*, Penguin, London [Gaztelaniazko itzulpena: J.M. Igoa González, *El instinto del lenguaje: cómo crea el lenguaje la mente*, Alianza, Madril, 1995].

Postal, P. (1974): *On Raising*, The MIT Press, Cambridge.

Pullum, G.K. (1981): "Languages with object before subject: a comment and a catalogue", *Linguistics,* **19**, 147-155.

Rezac, M. (2006): *Agreement displacement in Basque: derivational principles and lexical parameters,* [eskuizkribua], Nanteseko Unibertsitatea.

Ridley, M. (1999): *Genome. The autobiography of a species in 23 chapters,* Harpercollins [Gaztelaniazko itzulpena: Irene Cifuentes, *Genoma. La autobiografía de una especie en 23 capítulos*, Madril, Taurus, 2000].

Rivero, M.L. (1993): "Finiteness and second position in Long Head Movement languages: Breton and Slavic", EUROTYP 3. ikerketa bilera, Lund, apirila.

Rizzi, L. (1982): *Issues in Italian syntax,* Foris, Dordrecht.

————, (1976): "Ristrutturazione", *Rivista di Grammatica Generativa*, **1**, 1-54.

————, (1997): "The Fine Structure of the Left Periphery", in L. Haegeman (arg.), *Elements of Grammar*, Kluwer, Dordrecht, 281-337.

————, (2002): *The Structure of CP and IP. The Cartography of Syntactic Structures*, **II**, Oxford University Press, Oxford.

Rosen, C. (1990). "Rethinking Southern Tiwa: The geometry of a triple agreement language", *Language,* **66**, 669-713.

Sandler, W. eta Lillo-Martin D. (2006): *Sign languages and linguistic universals*, Cambridge, Cambridge University Press, Cambridge.

Sarasola, I. (1977): "Sobre la bipartición inicial en el análisis de constituyentes", *ASJU,* **XI,** 51-90.

Schachter, P. (1976): "The Subject in Philippine Languages: Topic, Actor, Actor-Topic, or None of the Above", in C.N. Li eta S.A. Thompson (1976), 491-518.

Skorik, P. (1977): *Grammatika Chukotskogo Jazyka, II* (*Grammar of Chukchi, vol II: verb, adverb and auxiliary words),* Leningrad, Nauka.

Skorik, P. eta Spencer, A. (datarik gabe): *Chukchi grammar*, <http://privatewww.essex.ac.uk/~spena/Chukchee/CHUKCHEE_HOMEPAGE.html>.

Smith-Stark, W.T. (1978): "The Maya Antipassive: Some Facts and Fiction", in N. England (arg.), *Papers in Mayan Linguistics*, Department of Anthropology, Columbia, 169-187.

Terzi, A. (1994): "Clitic Climbing from Finite Clauses and Long Head Movement", *CatWPL*, **3.2**, 97-122.

Thompson, R.; Emmorey, K. eta Kluender, R. (2006): "The relation between eye gaze and verb agreement in American Sign Language: an eye tracking study", *Natural Language and Linguistic Theory*, **24**, 571-604.

Thraínsson, H. (1990): "A semantic reflexive in Icelandic", in J. Maling eta A. Zaenen (arg.), *Modern Icelandic Syntax*, Syntax and Semantics, **24,** Academic Press, San Diego, 289-307.

Tomlin, R.S. (1986): *Basic Word Order. Functional Principles,* Croom Helm, London.

Tonhauser, J. (2005): "Grammar meets Discourse: the case of Yucatec Maya", LSA kongresuan aurkeztua, urtarrilak 6-9, 2005, Oakland, <http://www.stanford.edu/~judith t/papers/LSA05.pdf>.

Uribe-Etxebarria, M. (1989): "On noun incorporation in Basque and some of its consequences in the phrase structure", [eskuizkribua], University of Connecticut.

Vamling, K. (1989): *Complementation in Georgian*, Lund University Press, Lund.

Van Valin, R.D. Jr. (1980): "Case marking and the structure of the Lakhota clause", in J. Nichols eta A.C. Woodbury (arg.), *Grammar inside and outside the clause,* Cambridge University Press, Cambridge, 363-413.

Verne, J. (1873): *Le tour du monde en 80 jours* [Euskarazko itzulpena: M. Arregi, *Munduari itzulia 80 egunetan,* Elkarlanean, Donostia, 2000].

Villasante, L. (1980): *Sintaxis de la oración simple*, Editorial Franciscana, Oinati.

Whaley, L.J. (1997): *Introduction to Typology. The Unity and Diversity of Language*, Sage Publications, Thousand Oaks, California.

Wilson, E.O. (2002): *The Future of Life*, Alfred A. Knopf, New York.

Wurmbrand, S. (2001): *Infinitives. Restructuring and Clause Structure*, Mouton de Gruyter, Berlin/New York.

Yrizar, Pedro de. (1997): *Morfología del Verbo Auxiliar Labortano,* Euskaltzaindia eta EHU, Iruñea.

Zeshan, U. (2004): "Interrogative constructions in signed languages: crosslinguistic perspectives", *Language*, **80**, 7-39.

Zubizarreta, M.L. (1999): "Las funciones informativas: Tema y foco", in I. Bosque eta V. Demonte (1999), 4215-4244.

Edukien aurkibidea

Absolutibo
Absolutibo Argumentu 79, 82, 83, 84, 85, 86, 87, 89, 89, 95, 96, 142, 143, 144, 155, 156, 157, 158, 165, 166, 182
Absolutibo Kasu 9, 69, 75, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 85, 86, 88, 90, 91, 93, 94, 95, 100, 102, 106, 107, 112, 115, 117, 118, 122, 137, 140, 142, 143, 148, 150, 154, 157, 158, 162, 185, 204
Absolutibo Komunztadura 22, 146, 149, 150, 155, 157, 158, 159, 160, 161, 162, 165, 284
Adarreztatze Bikoitz 123, 129
Adierazpen Sintaktiko 30
Aditz
Aditz Epistekimo 180
Aditz Laguntzaile 17, 18, 19, 52, 53, 58, 95, 97, 98, 100, 139, 142, 152, 162, 168, 179, 185, 189, 192, 193, 194, 195, 196, 197, 198, 200, 203, 209, 214, 245, 266, 275
Aditz Nagusi 15, 17, 26, 52, 53, 54, 58, 60, 173, 174, 175, 178, 179, 180, 182, 183, 184, 185, 186, 187, 188, 189, 190, 191, 193, 194, 195, 197, 198, 199, 200, 210, 213, 214, 222
Aditz Mugimendu 218
Aditz Perifrasi 198, 200, 214
Aditz Psikologiko 95, 119, 160
Aditz Sintagma Oskol 127, 135, 136
Aditz Txiki 127
Egoera Aditz 119
Inbertsio Aditz 118
Adjektibo 45, 182, 252, 255
Adjunktu 95, 106, 108, 109, 110, 111, 122, 123, 130, 131, 132, 133, 138, 139, 158, 159, 188, 202, 203, 205, 240, 255, 256
Adlatibo 15
Afasia 29, 263, 264, 265, 266, 267
Agintera 19
Agramatismo 264, 265, 266, 267
Ahaidetasun 218
Aitzindari 140, 184, 185, 207, 214
Aktibo 108, 109, 188, 189, 190, 226
Aktibotasunaren Parametro, ikus Parametro
Hizkuntza Aktibo, ikus Hizkuntza
Akusatibo Kasu 67, 68, 78, 80, 113, 119, 120, 121, 130, 181, 188, 202, 203
Hizkuntza (Nominatibo)-Akusatibo, ikus Hizkuntza
Sistema Akusatibo 72, 146, 154
Akusatibotasun 72, 96, 144
Aldakortasun 7, 13, 14, 15, 16, 22, 23, 32, 38, 39, 59, 62, 73, 121, 131, 137, 138, 162, 173, 181, 189, 196, 198, 200, 203, 207, 211, 212, 213, 233, 242, 247, 248, 249, 251, 255, 256, 257, 259, 260, 261, 262, 263, 265, 267, 272, 273
Alderantzizko Egitura 156, 157, 158, 168
Alokutibo 152, 153, 154
Antipasibo 87, 88, 89, 90, 91, 92, 93, 94, 95, 96, 100, 106, 107, 108, 109, 110, 112, 115, 116, 117, 122, 138, 139, 156, 157, 158, 159, 168
Antipasibo Izun 156, 158
Antisimetria 263
Antisimetriko 256
AO 40, 41, 42, 52, 61, 179, 217, 218, 230, 244, 251, 252, 254, 255, 257, 274
Aoristo 154, 182
AOS 45, 46, 47, 57, 58, 216, 217, 261
Aplikatibo 129, 130, 132, 133
Arau 20, 21, 26, 50, 51, 54, 55, 123, 250, 266, 268, 275
Arau-emaile, ikus baita Gramatika 30, 116, 248
Arau-zale 116
Arazi 121, 122, 123, 126, 151, 152, 172, 173, 174, 176, 191, 201, 202, 203, 204, 205, 206, 208, 209, 214

Arazle 121, 122, 123, 126, 151, 152, 173, 174, 175, 176, 191, 192, 196, 200, 201, 202, 203, 204, 205, 206, 207, 208, 210, 211, 213, 214
Arazte 125, 172, 203, 204
Zeharkako Arazte 203
Argumentu
Argumentu Bizidun 113, 116, 140, 204
Argumentu Generiko 101, 109, 115
Argumentu Inplizitu (ikus baita Isilpean eta Kategoria) 62, 86, 99, 100, 139 100
Barne Argumentu 102
ASO 45, 46, 47, 57, 58, 193, 216, 217, 218, 219, 236, 239, 241, 243, 245
Aspektu 121, 154, 173, 180, 189, 190, 192, 193, 195, 198, 199, 212, 236
Aspektu Burutu 121
Aspektu Burutugabe 121
Aurredatibo 140
Aurresuposizio 232
Aztarna 76, 77, 104
Bai-Ala-Ez Galdera 18, 186
Baieztapen 45, 48, 120, 138
Beheratu 88
Berregituraketa 210
Berrinterpretazio 250
Betegarri 194, 219, 224
Bihurkari, ikus baita Izenordain Bihurkari 116, 139, 140
Bikoizketa 59, 63, 109, 202, 204, 205
Datibo Bikoizketa, ikus Datibo
Ergatibo Bikoizketa, ikus Ergatibo
Komunztadura Bikoizketa, ikus Komunztadura
Biohizkuntzalaritza 263
Buru 51, 52, 54, 55, 56, 57, 58, 73, 103, 104, 110, 124, 127, 128, 129, 130, 131, 142, 195, 211, 214, 240, 243, 245, 249, 251, 255, 255, 256, 257, 258
Buru-azken 52, 54, 57, 272, 273
Buru-lehen 52, 273
Buru Parametro, ikus Parametro
Buruz Buruko Mugimendu 103, 104, 105, 128, 130, 132, 211
Click 258
Datibo
Datibo Argumentua 88, 124, 129, 132, 133, 136, 140, 149, 150, 155, 160, 161, 162, 163, 165, 166, 168, 185, 190, 198, 205
Datibo (Komunztadura) Bikoizketa 164, 165
Datibo (Argumentu) Bikoizketa 205
Datibo Kasu 88, 95, 118, 119, 132, 136, 137, 203, 204, 206
Datibo Komunztadura 118, 150, 155, 160, 161, 162, 165, 266
Datiboaren Lekualdatze 162, 163, 164, 165
Denbora 103, 110, 111, 119, 127, 142, 156, 164, 180, 181, 182, 187, 192, 193, 195, 198, 199, 213, 221, 222, 233, 234, 244, 267
Denboradun 59, 213, 242
Denboragabe 63, 138, 194
Denboratasun 60
Denborazko 139
Desideratibo 193
Determinatzaile 62, 102, 104, 105, 181, 244, 252
Diatesi 226
Disfasia 275
Egile 101, 114, 116, 117, 118, 119, 121, 122, 126, 127, 128, 133, 135, 139, 140, 146, 147, 148, 188, 189, 196, 223
Egile Argumentu 75, 79, 80, 81, 85, 89, 90, 224
Egile Theta-rola 75, 76, 111, 115, 117, 118, 125, 140, 146, 152, 226
Egile Foku Egitura 159, 168
Egiletasun 146
Ekintza 97, 99, 100, 101, 106, 114, 116, 117, 118, 119, 120, 121, 126, 128, 131, 135, 138, 140, 153, 156, 172, 180, 181, 182, 191, 192, 193, 196, 202, 212, 232
Elkargune 30, 217, 249, 257, 259, 262
Elkarkari 82, 114, 140
Entonazio 221, 230, 237, 238, 240, 241, 244, 248, 275
Eragile 122, 125, 127, 196
Batuketa Eragile 195, 196, 198, 209, 212
Erakusle 63, 139

Erdibiketa 147, 148, 154
Erdipasibo 190
Ergatibo
EErgatibo Argumentu 79, 81, 82, 83, 84, 86, 87, 88, 89, 91, 95, 96, 100, 142, 143, 144, 155, 156, 157, 158, 159, 162, 165, 166
Ergatibo Bikoitz 167
Ergatibo Bikoizketa 164, 165
Ergatibo Kasu 21, 69, 72, 75, 76, 78, 80, 82, 83, 85, 91, 93, 95, 98, 122, 139, 142, 143, 147, 148, 157, 158, 162, 185, 204
Ergatibo Komunztadura 146, 147, 155, 158, 159, 160, 165
Ergatiboaren Lekualdatze 20, 155, 156, 157, 158, 159, 162, 163, 164, 165, 166, 266
(Hizkuntza) Ergatibo-(absolutibo), ikus hizkuntza 21, 22, 65, 69, 70, 72, 73, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 84, 85, 89, 90, 91, 94, 95, 96, 98, 100, 102, 107, 109, 119, 122, 139, 143, 144, 145, 146, 147, 148, 156, 158, 204, 218
Sistema Ergatibo 70, 72, 73, 142, 146, 154, 156
Ergatibotasun 34, 72, 80, 85, 94, 133, 146
Ergatibotasun Erdibitu 146
Ergatibotasun Morfologiko 72, 90
Ergatibotasun Sintaktiko 72, 89, 90
Ergatibotasunaren Parametro, ikus Parametro
Elkarkari 82, 114, 140
Erlatibo 19, 33, 41, 42, 59, 60, 63, 91, 92, 93, 94, 96, 104
Erreferentzia 83, 93, 106, 112, 114, 180, 208, 219
Erreferentziakide 83, 84, 86, 87, 89, 90, 94, 114
Errezeta 28, 38, 39, 43, 272, 273
Eskuinaldeko Periferia 234
Espezifikatzaile 55, 56, 73, 74, 75, 76, 77, 127, 128, 129, 131, 214, 234, 235, 237, 239, 240, 249, 257
Estimuluen Urritasun 27
Euskalki 16, 18, 34, 63, 112, 119, 184, 185, 198, 199, 230
Existentzia 15, 244
Ezakusatibo 134, 136, 147, 150, 243
Ezergatibo 134, 135, 136, 147
Ezeztapen 18, 178, 179, 186, 192, 193
Ezker-Eskuinetarako Asimetria 233, 236, 237, 242, 244, 248
Ezkerraldeko Periferia 233, 236, 237, 242, 244, 248
Ezkerreratze 221, 233, 236, 237, 239, 240, 244
Foku 230, 231, 232, 237, 238, 239, 240, 241, 242, 243, 245, 247
Foku Kontrastibo 231, 232, 234, 237, 238, 240, 241, 244
Foku Informatibo 230, 232, 237, 238
Forma Fonetiko 30
Forma Logiko 30
Gai 75, 115, 116, 118, 122, 134, 136, 140, 152, 188, 190, 226
Gai Argumentu 75, 81, 85, 88, 89, 90, 105, 106, 197, 121
Galdegai 17, 18, 227, 228, 229, 230, 231, 232, 233, 234, 237, 238, 239, 241, 245, 247, 248
Galdegaigune 248
Galdera 18, 24, 60, 83, 186, 215, 227, 232, 235, 241, 244, 275
Galdetzaile 225, 227, 231, 232, 233, 234, 235, 236, 237, 240, 241, 242, 243, 244
Genera 40
Genetiko 23, 24, 25, 40, 41, 42, 44, 59, 249, 263, 269, 273, 275
Goratu 88
Gramatika
Gramatika Arau-Emaile 30, 116
Arau-emaile 30, 116, 248
Gramatika Deskribatzaile 30, 31, 124, 245
Gramatika Sortzaile 27, 38, 43, 44, 50, 247, 262
Gramatika Unibertsal 31, 38, 83, 138, 216, 249, 251, 252
Gune 17, 18, 34, 56, 67, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 98, 99, 100, 102, 105, 106, 109, 111, 115, 121, 123, 127, 128, 129, 130, 131, 134, 136, 137, 138, 140, 173, 195, 209, 214, 219, 224, 233, 234, 235, 236, 237, 238, 239, 240, 241, 243, 245, 247, 257

Hasperendun 258
Hatsarre 31, 50, 51, 52, 54, 54, 55, 56, 57, 61, 220, 247, 261, 262
Islapen Hatsarre Zabaldua, ikus Hatsarre
Helburu 116, 136, 152, 190, 195, 205, 206, 223
Helburuzko 89, 90, 91, 94
Hierarkia 62, 74, 83, 85, 148, 158, 188, 202, 203, 220
Hirugarren Pertsona 9, 21, 139, 148, 149, 150, 155, 159, 168, 186
Hitz Elkartu 30
Hitz Hurrenkera 38, 45, 47, 60, 61, 73, 140, 216, 236, 238, 248, 252, 256
Hizkuntza
Barne Hizkuntza 27, 28, 43
Hizkuntza Aktibo 145, 146, 147, 148, 269
Hizkuntza Aldaketa 61
Hizkuntza Ergatibo-(absolutibo) 21, 22, 65, 69, 70, 72, 73, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 84, 85, 89, 90, 91, 94, 95, 96, 98, 100, 102, 107, 109, 119, 122, 139, 143, 144, 145, 146, 147, 148, 156, 158, 204, 218
Hizkuntza Gaitasun 23, 24, 33, 38, 43, 199, 249, 270
Hizkuntza (Nominatibo)-akusatibo 65, 67, 68, 69, 70, 72, 73, 75, 78, 79, 80, 81, 91, 96, 139, 144, 154, 202, 218
Hizkuntzaren Atal 30
Hizkuntzen Heriotza 33
Kanpo Hizkuntza 27, 28, 43
omo 16, 269, 270, 271
Honorifiko 153
Hurrenkera 7, 16, 17, 18, 19, 34, 37, 38, 40, 41, 45, 46, 47, 48, 49, 52, 54, 57, 58, 60, 61, 62, 73, 95, 129, 140, 185, 216, 217, 218, 231, 233, 234, 235, 236, 238, 239, 241, 242, 243, 244, 245, 248, 252, 253, 254, 255, 256, 257, 261
Hurrenkera Aske 52
Hurrenkera Markatu 19, 234
Hurrenkera Neutro 216, 231
Oinarrizko Hurrenkera 17, 18, 45, 57, 58, 236, 241, 243
Igoera, ikus baita Klitiko 96, 185, 188, 191, 208, 214
Indikatibo 20, 173, 183, 185
Indizekide 86
Inesibo 15, 139
Infinitibo 174, 182, 184, 185, 187, 192, 197, 207, 208, 209, 210, 211
Inflexio 52, 53, 54, 56, 73, 74, 75, 76, 77, 110, 111, 131, 142, 149, 150, 157, 177, 191, 192, 193, 194, 195, 198, 213, 214, 218, 219, 243, 265, 266, 267, 268
Informazio Eraketa 215, 216, 217, 219, 220, 243, 261
Inkoatibo 125, 212
Inkorporazio 102, 103, 104, 105, 106, 110, 115, 122, 132, 138, 151
Inpertsonal 101, 108, 115, 138, 189, 190, 219
Inpertsonal Luze 209
Inpertsonaltasun 138
Inplikazio 49
Instrumental 94, 106, 107, 108, 122, 130, 203
Iragangaitz 20, 21, 22, 66, 67, 69, 70, 71, 72, 73, 74, 77, 78, 82, 83, 84, 85, 86, 87, 88, 89, 91, 93, 95, 97, 98, 99, 100, 101, 102, 106, 107, 108, 109, 110, 111, 112, 113, 114, 115, 116, 117, 118, 119, 121, 122, 123, 124, 125, 126, 127, 133, 134, 135, 136, 137, 138, 140, 143, 144, 146, 155, 156, 157, 158, 161, 166, 168, 190, 204, 205, 206, 266, 293
Iragangaiztasun 112, 137, 139
Iragangaizte 118, 157, 159
Iragankor 20, 21, 22, 66, 67, 69, 70, 71, 72, 73, 74, 78, 79, 80, 81, 84, 85, 86, 87, 88, 89, 91, 93, 94, 97, 98, 100, 101, 102, 105, 106, 108, 109, 112, 113, 114, 115, 116, 117, 118, 119, 120, 121, 123, 124, 125, 126, 127, 128, 129, 130, 133, 134, 136, 137, 138, 139, 140, 144, 146, 147, 155, 156, 157, 158, 166, 168, 173, 188, 204, 205, 206, 213, 216, 244, 266
Iragankortasun 97, 98, 99, 100, 102, 105, 106, 112, 113, 114, 116, 119, 120, 121, 122, 135, 137, 138, 198, 213
Iruzkin 215, 216, 217, 218, 219, 223, 228, 229, 230, 237, 261

Isilpean 123, 138, 186, 202
Isilpeko 99, 100, 115, 116, 132, 138, 139, 190, 219, 224
Islapen 55
Islapen Goren 55
Islapen Hatsarre Zabaldu 220
Izenordain 20, 67, 69, 71, 82, 90, 94, 110, 112, 116, 139, 141, 149, 174, 175, 181, 184, 185, 197, 202, 207, 219, 227
Izenordain Atono 149
Izenordain Bihurkari 82, 114, 115, 116, 140, 197, 207
Izenordain Toniko 149, 168, 175
Jabekuntza 24, 26, 29, 266, 272, 273, 284
Jabetza 14, 15, 223
Jaiotzezko 24, 25, 26, 29
Jakintza Sistema 26, 27, 29, 30, 31
Jasaile 22, 116, 117, 118, 119, 121, 134, 140, 146, 146, 147, 148, 188, 224, 226
Jokatu 17, 18, 19, 20, 23, 142, 150, 155, 171, 173, 174, 175, 177, 184, 191, 197, 198, 245, 266
Jokatugabe 83, 150, 175, 187, 188, 189, 198, 214, 266
Juntadura 86, 87, 91, 171, 172, 177, 178
Juntagailu 59, 86, 172, 173, 179, 234
Justaposizio agertzen da testuan 171, 177, 178
Kasu
Kasu Ez-Markatu 68
Kasu Markatu 68
Kasu Sistema 67, 68, 70, 73, 90, 91, 142, 154, 156
Kasua Nolako, Komunztadura Halako Parametro, ikus Parametro
Kasuaren Mendekotasunaren Parametro, ikus Parametro
Kategoria 34, 48, 50, 124, 182, 210, 265
Funtzio Kategoria 55, 265
Kategoria Isil 86, 87, 89, 90, 95
Kategoria Lexiko 55, 62
Keinu sarrera gaineratu 234, 244, 258, 259, 260, 275
Keinu Hizkuntza 234, 244, 258, 259, 260, 270, 275
Klitiko 110, 111, 139, 149, 175, 176, 185, 186, 191, 197, 207, 211, 213, 245
Klitiko Igoera 185, 191, 208
Koerlazio 40, 41, 42, 49, 60, 61, 243, 273
Komunztadura
Komunztadura Bikoizketa 144, 162, 164, 165, 166, 167, 168
Komunztadura Bitxi 155, 156, 157, 158, 160
Komunztadura Sistema 142, 143, 156, 228, 244
Konplementatzaile 53, 54, 59, 60, 103, 179, 180, 182, 193, 234, 235, 237, 239, 240, 245, 255
Konpletibo 186
Kontrol Egitura 83, 93, 94, 96
Kostaldeko Solezismo 160
Kultura 23, 32, 59, 273
Kultural 218, 239, 273
Kulturartekotasun 33
Lagin 28, 38, 39, 40, 42, 43, 44, 45, 46, 47, 48, 49, 66
Hizkuntza Laginketa 39
Laguntzaile 17, 18, 19, 52, 53, 58, 95, 97, 98, 100, 139, 142, 152, 162, 168, 179, 185, 189, 192, 193, 194, 195, 196, 197, 198, 200, 203, 209, 214, 245, 266, 275
Laguntzaile Hautaketa 197
Laismo/loismo 163
Laringe 270, 271
Leismo 168
Lokatibo, ikus baita Mintzagai Lokatibo 226, 251
Me-Lui Murriztapen 149
Memoria Eremu 252, 254, 274
Mendeko
Mendeko Perpaus 19, 53, 54, 58, 59, 83, 84, 90, 93, 139, 150, 153, 171, 172, 173, 174, 175, 177, 178, 179, 180, 181, 182, 183, 184, 185, 186, 187, 188, 189, 190, 191, 193, 195, 197, 199, 199, 200, 201, 203, 205, 206, 207, 208, 209, 211, 212, 213, 214, 245, 266
Mendekotasun 181, 183, 184, 213
Menderagailu (ikus baita Konplementatzaile) 58, 183

Menderakuntza 171, 172, 177, 178, 179, 180
Mintzagai 18, 215, 216, 217, 218, 219, 220, 221, 222, 223, 224, 225, 226, 227, 228, 229, 233, 234, 242, 243, 244, 245, 248, 261, 275
Mintzagai Ez-Markatu 222, 230
Mintzagai Hanpatu (edo Markatu) 221, 229, 261
Mintzagai Kateatze 86, 89, 91, 94
Mintzagai Lokatibo 222
Mintzagai Nabarmeneko Hizkuntza 223, 224, 228
Mintzagai Nabarmentasunaren Parametro, ikus Parametro
Mintzagai Neutral 217, 219, 243, 261
Modu sarrera gaineratu 20, 182, 183, 192, 193
Modulazio 192, 193, 195, 212
Mugimendu 103, 104, 105, 128, 130, 132, 136, 137, 140, 211, 214, 218, 236, 240, 241, 243, 245, 249, 257, 258
Nominalizazio 59, 60, 173, 174, 180, 182, 186, 187, 190, 213
Nominatibo
Nominatibo Kasua 68, 78, 80, 111, 119, 120, 182, 187, 202
Hizkuntza (nominatibo)-Akusatibo, ikus Hizkuntza
NZ-Zehar Galdera 83
OA 40, 41, 42, 52, 59, 61, 217, 218, 244, 251, 252, 254, 255, 257, 274
OAS 45, 46, 47, 57, 216, 261
Onuradun 150, 151
OSA 45, 46, 47, 57, 95, 216
Osagarri
Osagarri Bikoitz 124, 129, 132, 135, 150, 160, 162, 203, 205
Osagarri Gune 67, 73, 77, 98, 102, 106, 115, 129, 130, 131, 134, 137, 138, 173, 195, 219
Osagarri Klitiko 110, 186
Osagarri Logiko 75, 98, 103, 106, 108, 121, 158, 189, 190
Osagarri Mugagabe 112
Osagarri Mugatu 112
Osagarri Zehaztu 102, 104, 106, 112, 113
Osagarri Zehaztugabe 112, 113, 115
Osagarri Zuzen 102, 103, 105, 107, 113, 120, 122, 124, 130, 132, 137, 203, 208, 224, 236, 254
Paleoantropologo 263, 271
Parametro
Aktibotasunaren Parametro 148
Buru Parametro 52, 54, 57, 61, 62, 73, 252, 272, 273
Ergatibotasunaren Parametro 73, 144, 148
Kasua Nolako, Komunztadura Halako Parametro 142, 143, 154, 155, 159, 164, 167
Kasuaren Mendekotasunaren Parametro 142
Mintzagai Nabarmentasunaren Parametro 228, 293
Parametroen Hierarkia 62, 148
Polisintesiaren Parametro 151, 212, 218
Subjektu Aldearen Parametro 57, 62
Parataxi 171
Partitibo 120, 121
Partizipio 16, 17, 18, 19, 34, 105, 110, 139, 179, 182
Pasibismo 81
Pasibo 75, 99, 108, 109, 110, 112, 139, 189, 190, 226
Pasibotze 188, 189
Perifrastiko 17, 18, 177
Perpaus
Mendeko Perpaus, ikus Mendeko
Perpaus Bakun 171, 175, 191, 195, 210
Perpaus Batuketa 175, 178, 184, 185, 186, 187, 195, 196, 200, 204
Perpaus Inpertsonal 101, 219
Perpaus Jokatu 174, 184
Perpaus Jokatugabe 187, 188, 214
Perpaus Nagusi 19, 83, 89, 90, 93, 94, 153, 154, 172, 173, 174, 178, 179, 180, 182, 183, 184, 185, 186, 187, 190, 191, 208, 212, 213
Perpauskide 184, 185, 186, 187
Pertsona Kasuaren Muga 150
Platonen Arazo 25, 262
Polisintesi
Polisintesiaren Parametro, ikus Parametro

Polisintetiko 269
Postposizio 40, 45, 48, 49, 50, 52, 62, 95, 106, 107, 150, 226, 252, 253, 254, 257
Predikatu 71, 73, 118, 119, 120, 121, 125, 126, 134, 135, 136, 146, 155, 172, 177, 180, 193, 194, 195198, 203, 204, 205, 212, 213, 215, 216, 217, 219, 220, 223, 226, 229, 230, 243, 261
Predikatu Abstraktu 126, 127
Preposizio 14, 15, 40, 45, 48, 49, 52, 58, 108, 113, 124, 130, 131, 132, 158, 204, 225, 226, 251, 253, 254, 255, 257, 257
PRO 84
Proposizio 180, 221, 233, 234, 235, 237
Prozesamendu 29, 249, 250, 251, 252, 254, 255, 256, 262
SAO 45, 46, 47, 57, 58, 60, 130, 173, 216, 218, 219, 231, 235, 251, 255, 261
Sasibihurkari 140
Segidako Aditz 177, 178, 179
S-Erdibituko Hizkuntza 146
Sistema
Sistema Akusatibo, ikus Akusatibo
Sistema Ergatibo-(absolutibo), ikus Ergatibo
Sistema Hirukoitz 71, 95
Sistema Neutro 71
Sistema Sinboliko/Kontzeptuala 216, 249
SOA 45, 46, 47, 49, 57, 58, 60, 95, 189, 216, 217, 221, 235, 236, 250, 251, 255, 261
Soslai 39, 40, 62
Subjektu
Subjektu Aldearen Parametro, ikus Parametro
Subjektu Gune 56, 67, 76, 111, 127, 129, 134, 134, 136, 219, 224, 243, 243
Subjektu Igoera 96
Subjektu Iragangaitz 20, 21, 83, 87, 108, 118, 119, 146, 161
Subjektu Iragankor 20, 21, 108, 118, 134, 146
Subjektu Klitiko 110
Subjektu Logiko 75, 108, 202
Subjektu Nabarreko Hizkuntza 228
Subjektu-Osagarrira-Igoera 118
Subjunktibo 183, 185
Subjuntibozko 19, 173, 174, 184, 185, 186, 187
Theta-rol
Tipologia 23, 38, 116, 146, 192, 251, 262
Trinko 17
Unibertsal 24, 26, 27, 29, 31, 38, 43, 44, 45, 47, 48, 49, 51, 52, 59, 61, 96, 217, 233, 259, 260, 261, 266, 267
Unibertsalzale 39, 43, 50, 61
Unibertsaltasun 26, 38, 39, 43, 45, 49, 50, 80, 262, 263, 265, 267, 272
Unibertsal Linguistiko 38
Inplikaziozko Unibertsal 49
Uztardura Teoria 82, 84
Wackernagel ‘Efektu’ 34
X-Marra Teoria 50, 55
Zehar Osagarri 148, 150, 151, 152, 155, 163, 174, 201, 202, 203, 204, 205, 208, 220, 224, 236
Zehaztasun 101, 106, 113, 117, 137
Zehaztu 100, 102, 104, 106, 112, 113, 226, 227, 228, 244,
Zehaztugabe 99, 100, 101, 102, 105, 106, 107, 109, 112, 113, 115, 122, 139, 226, 227, 244
Zenbatzaile 186, 227, 248, 251, 274

Hizkuntzalaritza Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Zenbait apunte Laudioko euskaraz
Natxo Urkijo
1994an argitaratua
ISBN: 84-86967-59-7

Eskaldunak (1. zatia)
Patxi Altuna, Gurutze Aldabaldetreku eta Amaia Boneta
1994an argitaratua
ISBN: 84-86967-61-9

Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia
Eneko Barrutia Etxebarria
1996an argitaratua
ISBN: 84-86967-76-7

Nafarroako hizkerak
Iñaki Camino (arg.)
1998an argitaratua
ISBN: 84-86967-92-9

Txillardegi lagun-giroan
Txipi Ormaetxea (arg.)
2000an argitaratua
ISBN: 84-8438-007-6

Morfologia konputazionala
Iñaki Alegria, Miriam Urkia
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-034-3

Euskal deiturategia: Patronimia
Patxi Salaberri Zaratiegi
2003an argitaratua
ISBN: 84-8438-039-4

Hizkuntzalaritza konputazionala
Izaskun Aldezabal eta beste
2005ean argitaratua
ISBN: 84-8438-065-3

Ikus-entzunezko itzulpena

josu Barambones Zubiria eta Beatriz Zabalondo Loidi
2006an argitaratua
ISBN: 84-8438-084-X

Hizkuntzalaritza Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Artikulua eta bokal paragogikoa Bermeoko leku-izenen corpusaren azterketatik abiatuta
Allika Azpeitia, Irune, *Uztaro* **56**, 53-84.

Euskara batuaren geroa
Alvarez, Jose Luis "Txillardegi", *Uztaro* **11**, 47-54.

Determinatzaile sintagmaren hipotesia euskal gramatikan
Artiagoitia, Xabier, *Uztaro* **27**, 33-61.

Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa
Aurrekoetxea, Gotzon, *Uztaro* **5**, 59-109.

Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak
Aurrekoetxea, Gotzon, *Uztaro* **23**, 87-94.

Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikuspuntu teorikotik begirada bat)
Aurrekoetxea, Gotzon, *Uztaro* **50**, 45-57.

Latinetik hizkuntza erromanikoetara: euskararen hurbileko erromantzeak
Barquín, Amelia, *Uztaro* **35**, 33-70.

Aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan
Barreña, Andoni, *Uztaro* **12**, 67-88.

Jabekuntza elebiduna eta kode-bereizketa: subjektu eta objektu markak
Barreña, Andoni; Almgren, Margareta, *Uztaro* **29**, 61-94.

Haurrak, egitura txertatuen jabekuntza eta mintzaide helduen eragina
Barreña, Andoni, *Uztaro* **32**, 17-33.

Euskararen garapena lehen hizkuntza legez eta morfologiaren agerrera mailakatuaren inguruan
Barreña, A.; Garcia, I.; Arratibel, N.; Eizabarrena, M.J.; Almgren, M.; Petuya, A. eta Volina, A., *Uztaro* **60**, 67-87.

Inarra txarragaz, baztarrak lohi: internazionaizatu gabeko produktu informatikoak lokalizatzearen arazoak
Bernaola, Itziar; Moales, Ana Isabel; Payros, Irune, *Uztaro* **51**, 45-62.

Terminologia ala terminologiak? Hizkuntza-espezialitatea ala disziplinarteko alorra?
Cabré, M. Teresa, (itzul. Axun Aierbe), *Uztaro* **40**, 63-74.

Ezezko nominalizazioak bizkaieraz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **0**, 85-97.

Tonuarekin lotutako ulermen mailako testa
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **3**, 97-108.

Bizkaiko azentu-motei buruz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **7**, 111-140.

Bermeoko azentu-ereduaz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **8**, 105-117.

Gatika eta Urdulizko azentu-ereduaz (I)
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **11**, 55-88.

Gatika eta Urdulizko azentu-ereduaz (II)
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **12**, 89-110.

Zubereraren azentuaz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **13**, 107-128.

Esteribarko euskararen azentuaz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **16**, 109-123.

Zumaiako azentuaz eta intonazioaz
Gaminde, Iñaki; Hazas, Almike, *Uztaro* **24**, 59-76.

Etxeko azentua eta eskolako azentua: azentuera biren azterketa
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **28**, 89-98.

Muskildiko galderen intonazioaz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **35**, 71-87

Ezpeleta, Lekorne eta Makeako azentu-ereduez
Gaminde, Iñaki; Salaberria, Jasone, *Uztaro* **20**, 93-103.

"Galdegai" bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez
Hidalgo Eizagirre, VIctor, *Uztaro* **33**, 43-85.

Informazio unitate baten tamainako esaldi laburraren ordenamendu eta informazio--egituraren aukerak eta eraginak
Hidalgo Eizagirre, VIctor, *Uztaro* **34**, 39-85.

-(en)... erlatibo aposatuak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (II)
Hidalgo Eizagirre, VIctor, *Uztaro* **42**, 17-83.

Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarriz
Hualde, Jose Ignacio, *Uztaro* **18**, 49-60.

Alfabeto latinoz idazten ez diren hizkuntzen transkripzioa eta transliterazioa
Irazabalbeitia, Iñaki, *Uztaro* **14**, 61-88.

Telesforo Monzon-en olerkia
Jaio, Enrike, *Uztaro* **4**, 103-114.

Erdarazko relatibo esplikatibo mota bat euskaratzen
Kaltzakortza Mentxaka , Mitxel, *Uztaro* **22**, 59-67.

"Topiko(a) bihurtu" dela-eta
Kaltzakortza Mentxaka , Mitxel, *Uztaro* **25**, 111-124.

Bila-ren erabil-eremua
Kaltzakortza Mentxaka , Mitxel, *Uztaro* **29**, 51-59.

Galdegai-lekua testu-hastapenetan (I) (*Horrela bizi bagina beti* liburuan)
Kaltzakortza Mentxaka, Mitxel, *Uztaro* **45**, 71-89.

Galdegai-lekua testu-hastapenetan (eta II) (*Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira* liburuan)
Kaltzakortza Mentxaka, Mitxel, *Uztaro* **46**, 41-59.

Erdarazko relatibo esplikatibo mota bat euskaratzen
Kaltzakortza Mentxaka , Mitxel, *Uztaro* **22**, 59-67.

Ná-De-Ná
Lakarra, Joseba, *Uztaro* **31**, 15-84.

Arrasateko toponimia (edo izen-izanaren sintonia)
Ormaetxea, Jose Luis, *Uztaro* **8**, 93-103.

Bokal-elkarketak beratarren hizkeran
Perez Landa, Edurne, *Uztaro* , 49-64.

Terminologia eta itzulpengintza
Sager, Juan Carlos, (itzul. Axun Aierbe), *Uztaro* **43**, 53-66.

Munduko hizkuntzen izenak euskaraz
Uranga, Belen; Juaristi, Patxi; Idiazabal, Itziar; Barreña, Andoni; Amorrortu, Estibalitz, *Uztaro* **54**, 29-59.

Hizkuntza orokorra-xede berezietarako hizkerak *Hiztegi Batua*ren zeregina
Urrutia, Ander, *Uztaro* **55**, 49-60.

Euskara Araban
Zuazo, Koldo, *Uztaro* **21**, 79-95.